Jose Iraolagoitia Mendibe

KULTURGINTZARAKO GIZA ESKUBIDEAK ETA HIZKUNTZARI BURUZKO HERRI ARAUAK

Francisco Garmendia Irakasleak
Zuzenduta

Deustuko Unibertsitatea, 1990

AURKIBIDEA

SARRERA..... 1

1.- ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOA HIZKUNTZARI BURUZ..... 15

1.1.- SARRERA..... 18

1.2.- KONSTITUZIOARI BURUZKO EZTABAIDA..... 22

1.2.1.- Diputatuen kongresoan..... 22

1.2.2.- Senatuan..... 45

1.2.3.- Batzorde Mistoan..... 57

1.2.4.- Ondoren gisa..... 58

1.3.- OFIZIALTASUN BIKOITZAREN AUTORPENA ETA GAZTELERA EZAGUTU BEHARRA..... 63

1.3.1.- Gaztelera, Estatuko Hizkuntza Ofiziala..... 63

1.3.2.- Bardintasun egoera..... 66

1.3.3.- Ezagutu beharra..... 68

1.3.4.- Diskriminazioa..... 71

1.4.- AUTONOMIADUN ELKARTEAK ETA BESTE HIZKUNTZAK... 75

1.4.1.- Beste hizkuntzen ofizialtasuna..... 75

1.4.2.- Beste hizkuntzak ezagutu beharra..... 80

1.5.- HIZKUNTZA MOETA EZBARDINEN BABESA..... 84

1.5.1.- Begiramen berezia eta babesa..... 84

1.5.2.- Ondoren gisa..... 88

2.- EUSKAL HERRIKO AUTONOMIADUN ELKARTEA ETA EUSKERAREN LEGE TRATAMENDUA..... 105

2.1.- GERNIKAKO ESTATUTOA..... 107

2.1.1. Gernikako Estatutoa..... 107

2.1.2.- Hizkuntza Ofizialen Araugintzarako Eskumenak..... 152

2.2.- EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZTOTZEKO OINARRIZKO LEGEA..... 158

2.2.1.- Sarrera..... 159

2.2.2.- Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea..... 160

2.2.3.- Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea Auzitegian..... 192

2.2.4.- Zuzenbidezko ondorioak..... 201

3.- EUSKAL HERRIAN EUSKERAREN ETA GAZTELERAREN OFIZIALTASUN BIKOITZA..... 243

3.1.- EUSKERAREN ETA GAZTELERAREN OFIZIALTASUN BIKOITZA..... 245

3.1.1.- Lurraldetasun oinarria..... 248

3.1.2.- Ofizialtasun bikoitzaren bardintasun egoera..... 251

3.1.3.- Herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Arduralaritzaren gertutasun eta erantzun beharra..... 256

3.2.- EUSKERAREN NORMALIZAZIOA ETA OFIZIALTASUN BIKOITZA..... 259

3.2.1.- Normalizazioa eta eskumena..... 260

3.2.2.- Arau motak..... 263

3.2.3.- Araugintza..... 267

3.2.4.- Aplikapena euskeraren erabilera ofiziala..... 269

3.3.- HIZKUNTZ OFIZIALTASUN BIKOITZA ETA EPAI-JOKABIDEA..... 276

3.3.1.- Auzitegi Gorenaren jokabideari buruz ohar batzuk..... 277

3.3.2.- Konstituzio Auzitegiaren hizkuntz ofizialtasun bikoitza..... 290

4.- OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA JATORRIZKO HIZKUNTZEN BABESA..... 315

4.1.- HIZKUNTZA GITXIENGOTUAK..... 319

4.1.1.- Hizkuntza eta Kultura Gitxiengotuak..... 320

4.1.2.- Gitxiengoa eta bere ingurua estatu barruan..... 334

4.1.3.- Gitxiengoaren arazoa nazioarteko erakundeetan..... 338

4.2.- EUSKAL HERRIAN EUSKERAZ BIZI IZATEKO ESKUBIDEA..... 352

5.- KULTURGINTZAREN ETA HIZKUNTZAREN TRATAMENDUA EUROPAN..... 390

5.1.- EZBARDINTASUNEAN BARDINTASUN OINARRIAREN BILA..... 392

5.2.- TRATAMENDU ANIZKOIAK ETA BEREIZKETAK..... 399

5.2.1.- Lurraldetasun oinarriaren estatutoa..... 402

5.2.2.- Nortasun Oinarriaren estatutoa..... 435

ONDORIOAK..... 463

BIBLIOGRAFIA..... 483

SARRERA

GALDERA ZEHAZTEN

Euskal Herriak bere nor izateari -zelan edo halan behinepehin- jarraipidea emon izan deutso gure egunetararte. Ezin geintekez hasi hemen Euskal Herriaren berarizko izanbidea zer dan erabagitzen, gure oraingo eginbidea hori ez da-ta. Guk emontzat jotzen doguna zera da: edozein herriren izanbideari berezkoa jakola kulturgintza eta ezinezkoa dala hizpiderik bako kulturgintza. Hizpidea, baina, hizkuntzatik jasotzen dogu eta hizkuntzara itzultzen. Ezin, beraz, kulturgintza eta hizkuntza alkarrengandik banandu.

Euskal izanbidearen adierazle eta bitarteko jotzen dogu euskera eta ez dogu uste gehiegirik esaten dogunik, euskeraz bizi nahi dauan herriari eragozpenak jartzen jakozan neurrian, Euskal Herriaren jatorrizko izanbidearen geroratzea jartzen dala auzitan.

Gaur ere bagara banaka batzuk, gure ohizko gizarte eta herribizitza euskeraz burutzeko gauza izan garanok eta burutzeko gogoa ere badogunok. Baina auzia zera da: ea gure banakako gaitasuna eta borondatea nahiko ete diran gure gaurko herri gizarte honetan euskeraz bizitzeko.

Inon bada, euskeraz bizitzeko aukera Euskal Herrian beharko geunke. Baina gaurko Euskal Herria izanbide eta hizkuntza ezbardinen bilgune bilakatu jaku, gizarte oso nahastau baten topaleku, bertan bizi diranak, jatorriz eta asmoz hizkuntza ezbardinetara loturik dagoz ta.

Iparraldetik frantzesa eta hegoaldetik gaztelera, euskal gizartearen tarte eta zirrikitu guztietara sartuak dira, euren faboretan -eta euskeraren kaltetan- izan daben estatuen babesa, laguntza eta indarra bitarteko diralarik.

Jendetzaren joan-etorria ere, euskeraren galeran gertatu da: joan diran euskaldunek -batez ere iparraldetik- gitxitzen dabe euskaldunen kopurua, eta datozen etorkinek, gaztelera eta frantzesa indartzen dabez gure gizartean.

Horregaitik, Euskal Herrian bizi dan edozeinek euskeraz baino errezago

dau gazteleraz bizitzea.

Erreztasun horreetatik batzuk, halabeharrezkoak edo dira, eta beste zenbait, boterearen indarra ebenek euskeraren kaltetan ezarritako baldintzen ondorioak.

Halabeharrezkoa da, kanpo hartuemonetarako erreztasun haundiagoa izatea miloika askoren hizkuntza danak, miloi bakar batera ere heltzen ez danak baino. Halan ere, boterearen indarrak erabagi eban euskera debekatzea hainbat ohizko barrutietatik.

Halabeharrez eta indarrez, gaur egun, gitxiengoturik gagoz euskaldunok geure jatorrizko lurraldean ere.

Gure aldi honetan, gitxiengoturik eta desagertzeko zorian gertatzen diran abereei ere laguntza bereziak eskeintzea (beharrezkoak dabezan bizi-barrutiak eskeiniz, kanpoko erasoetatik gordez, laguntza bereziak emonaz eta abar), bidezkotzat ezezik, beharrezkotzat ere jotzen da. Jokalege horren haritik hartu izan dabez, Frantziako eta Espainako estatuek Pirineo mendietako hartza babesteko neurriak.

Pirineo mendietako hartza moeta baten gorabehera baino garrantzi gehiagokoa dala deritxogu, Pirineo mendien magalean milaka urtez euskaldunek, belaunez belaun, arnasbarritu daben euskera. Eta auzia hori da: arnasbarritzeko zor jakozanak euskerari eskeiniko ete deutsoguzan ala ez.

Euskeraz bizi nahiko leuken herri-gizarterik ez balego, alferrikakoak izango litzatekez artifizialki arnasbarritzeko tramankuluak. Baina auzia bestea da: gaur egun ere euskeraz bizi nahi dogunok -euskerari gerorabidea ebagi nahi deutsogunok- hainbat lagun bagaranez: ea zer zelako barrutiak eta baldintzak zor ete jakuzan, euskeraz bizi nahi geunken herrikideoi.

Gure galdera honek, nahita nahi ez, bere ingurune zehatza dau gure orainaldian. Ingurune horren zenbait alderdi mugatzean, gure galderari ere bere esparru jakina aurkitu ahal izango deutsogu.

I

Lehenengo, euskeraz bizi gura dauan jendetzaren orainaldiko gizarte ingurua zein dan hartu behar da kontutan.

Orainaldiko gizartea, lehenaldiak dakar eta gaurra azaltzen saiatuko bagara be, atzoaren bitargi batzuk aipatzea ondo legoke.

Euskararen hedapena, mapa bidez agertu da aspalditik. Mapagileetariko batzuk aipatzearren horra hor L.L. Bonaparte (1); P. de Irizar (2); M. Lekuona (3); Euskaltzaindia (4); Mª Teresa Echenique (5); Eusko Jaurlaritza (6); e.a. beste batzuen artean.

Aipatutako mapak ikusiaz, oso errez jabetzen gara euskera lurraldea galtzen joan dala.

Bestalde, azken urteotan euskeraren eta euskaldunen indarbarritze bat nabari da.

Euskal Autonomi osoan hizkuntza gaitasuna aztertzerakoan emoitza orokorrak zenbakiz jarririk, taula hau dakar Siadecoren (7) lanak:

E.A.E.	Kopurua	%
Euskaldunak	511.006	24,66
Ia-euskaldunak	362.557	17,49
Erdaldunak	1.199.411	57,86

E.A.E.tik kanpo ere 150.000 euskaldun bizi dira.

Hizkuntza gaitasuna urtez urteka aztertzean, 10 urte bitartean, euskaldunen proportzioa haundituz doa adinarekin batera, % 29ra heldu arte (8).

Euskaldunbarri aktiboak adin-taldeka aztertzean be, ehunekorik altuena (% 6,24) 3-17 urte bitartekoei dagokie, eta talde horrek euskaldunbarrien % 43,18a batzen dau (9).

II

Euskeraz bizi nahi dauan euskal herrikidea dauan moduko gizarte sare jakin honetan egotea, ez da halabehar soilaren ondorioa. Hartu izan dan hainbat erabagi hartu izan ez balitz, edota hartu ez dan zenbait neurri hartu izan balitz, ez litzateke izango gure egoera oraingoaren parekoa.

Hartu izan diran erabagien artean frankismoaren eraginak sortutakoak ezin leitekez isildu. 1936 aurretiko aginte-politikoak Espainiako hizkuntza-arazoa ez eban ulertu, baina ostekoa, euskeraren apurtzaile ta zapaltzaile izan zan. "Frankismoak Euskal Herriarekin egin duen jenozidioa gaurko belaunaldikoak ondotxo konturatzen ez diren modukoa izan zen" (10).

Euskeraren aurkako jokabidearen eta hizkuntza tratamenduaren adierazgarri gertatu leitekez K. Mitxelenaren berbak (11).

Estatuko aginte koloniazatzaileak gizarte erakunde linguistikoa asmatzen dau, Estatuko hizkuntzari, gaztelerari, erakundea sortzen jako gizartearen barruan. Arduralaritzan, arlo guztietan eta maila guztietan, hizkuntza hori erabili daiteke bakarrik. Ez da komunikabide egokiena dalako, baterabide eta menperabide onena dalako baino.

Estatuak koloniaren hizkuntza eta kultura zapaldu egiten dau, eskolan, kalean eta Elizan euskera galerazorik. Hautapen politiko danak, eskolagintzaren eraketa eta euskerarena barruan dirala, zentzun honekin egiten dira.

Giro honek epe luzean iraungo dau (12). Frankismoak Estatuan batasuna lortzeko hizkuntza bakarraren bidea hartu eban (13). Euskeraren erabilpena galerazoteko agindu eta legeak sortu ziran. Batzuetan, aipamen barik euskeraren aurka joiazanak (14). Beste batzuetan zuzenean euskeraren aurka doazen aginduak emon ziran (15). 1945-07-17ko Legea Primariako Irakaskintzari buruzkoa zan, eta euskeraren irakaskintza ez eban aipatzen, eta 28. artikuluan atzerrikoen eskolak aipatzen ziralarik. 1955-06-24ko Dekretoan, ume eta gaztetxoei buruzko argitarapenak ziran gai, eta gaztelera ez diran hizkuntzen aipamenik ez dago. 1960ko hamarkadan legegintza bide bardinetik ez doanik ezingo dau inork esan (16). Hurrengo hamarkadan agertuko da

jaiotizkuntzarekiko lege-aipamena.

Halan da guztiz be, Euskal Herrian beti iraun dau euskeraz bizi nahi dauan gogoak, euskeraren aldeko burrukak, eta Euskal Herriko euskal gizarteak era bateko edo besteko jokabide eta neurriak hartu behar izan ditu bizirik irauteko. Era ezbardinekoak aipatu leitekez:

- Euskal Herriko Eleiza. Frankismoaren eraginaren menpe jausi barik iraun dauan euskal eleiztarrik izan da.
- Hezkuntza. Lege eta arauak aurka euki arren, Ikastolak sortuz kulturgintzan eta herrigintzan jarraitu daben herrikideak be banaka batzuk baino gehiago izan dira.

- Euskal abeslariak, bertsolariak, euskal argitaletxeak eta beste euskal kultur-talde askok bardin jokatu dau.

Adierazpen ezkor eta baikorren artean, euskeraz bizi nahi izan dabenen burrukak iraun dau gaurko legegintzara arte, eta adierazpen baikorrak hasi dira baieztapen juridikoa hartzen.

Euskal Herriko ohizko zuzenbidean lez, azken aldi honetan be, erakunde ofizialen arau eta laguntzak herrikideek urratutako bidezko jokabieak arauzkotzen eta indarbarritzen agertu dira. Ezin daitekez ahaztu Gernikako Estatutoa, Euskeraren Legea eta azken urteotako euskerarekiko araugintza.

Euskaldunak here ohizko bizitza euskeraz egiteko behar dituan baldintza juridiko barriak ikertzea da lan honen erdigunea.

III

Europako hizkuntzen ezbardintasunaren aurrean Euskal Herriko kasua ondo planteatzeak eta batez be egoki konpontzeak ondoren garrantzitsuak erakarri leikioz Europari.

Bestalde, gaur Europaren baitan bizi dan euskal gizarte honek beragaz ditu, euskalgintzari sakonetik erasoten deutsien hainbat baldintza, eta Europan zer ikasirik be izan daike.

Mendebaleko Europak aurrerapenak egin ditu zientziaren erabilpen teknologikoaren sailean eta ekonomia egiturak erabat antzaldatu dira. Gure Europear gizarte honen berarizko ezaugarria da, lanbideak eta lanak gero ta gehiago bakantzearena eta, ondorioz, azokak herrien arteko mugak guztiz gainditzearena.

Ekonomiaren sailean Europa bateratzeak, hain zuzen, gertakizun horri erantzutea beste asmorik ez dau. Baina ekonomiazko sarea holan bateratzeak, ezinbestean dakar jendetzaren haronakoa.

Hizkuntzari dagokionez, egoera honek Europako hizkuntza alkarteen artean hitzez eta idatziz alkar ulertzeko aukerak hobeagotu behar ditu, baina hizkuntza alkarte txikiei kalte egitea galerazorik. Ondasunen eta zerbituen alkaraldatzearen baldintza eta ondorio dalako, alkar-ulertzeko beharrizan honek berez hizkuntza nagusi batzuen alde eragingo dau hizkuntza txikien kaltetan.

Hizkuntza alkarte txikiak ahaztu eta hizkuntza nagusietan oinarriturik alkar-ulertze lanaren alde bakarrik jokatzen bada, hizkuntza alkarte txikien zoria galbidea izateko arriskua egon daiteke. Ekonomiazko sarearen eraginak hizkuntza nagusien zabalkundea badakar, europear politikak lehentasunez desoreka hau zuzendu beharko leuke hizkuntza txikiak indarturik.

Europak, indarrezko bateratasunak bazterturik, ezbardintasunean alkarrizketan eta alkar bizitzen eredu eta sormen-iturri izan behar leuke; demokraziazko aniztasuna, kulturazko aniztasuna eta hizkuntzazko aniztasuna bide bardineko kideak dirala eta helburu bardina dabela ahaztu barik.

Herri nagusien indarra eta hizkuntza alkarte txikien argaltasuna aurrez-aurre ipini ezkero, txikientzat ondorio negargarri eta desorekatsuak ikusi leitekez. Hizkuntza bateratasunean barik, hizkuntza alkarteen ezbardintasunean alkar-ulertzen dauka Europak bere erronka.

Nahiz eta txiki edota aula izan, hizkuntza talde bat be ezin da ahaztu eta baztertu, ez Estatu barruan eta ez Nazioartean.

Euskal Herriko hizkuntza alkartea oinarrizko unitate bat da, eta edozein planteaketaren abiapuntua euskaldun alkartearena izango da; hizkuntza mugaketak, hizkuntza sistemak edo beste edozein balorapen aplikatzean, euskeraren balorapen kolektiboa ahaztuezinezkoa dalarik.

Europako azokaren baterapenak eragina izan leike munduko hizkuntzetan eta zertan esanik be ez euskeran.

Hizkuntza komertzialak beharrezkoak dira hartuemon ekonomiazkoetarako eta, nahi bada, kultura orokorra zabaltzeko. Historian zehar, Estatuetan etnia eta lurraldeetako hizkuntzekaz "tabula rasa" egitea erabagi da sarri, eta hizkuntza unitarioak edo estatuarenak bultzatu edo/ta inposatu dira.

Europako hizkuntza alkarteen artean euskaldunen hizkuntza alkartea lurralde txiki batean mugatuta dago eta bere hizkuntzaren ofizialtasuna murriztuta dauka, Euskaldunen alkartea orohar gitxiengotuta eta elebitasunari dagokionez be guztiz gitxiengotuta dagoalarik. Europara eta Mundu zabalera begiratzea ondo dago, baina Europak ez dauka eta euki be ez dau eukiko Euskal Herriko euskal herrikideari euskal kulturgintzarako eta euskeraz bizi izateko eskubidea ukatzerik. Nazioarteko zuzenbideak ezin dau jarraitu hizkuntza eta kultura alkarteak garatzeko ezinbesteko diran baldintza demokratikoak argitu barik. Hain zuzen be, planteatzen dana hoixe da: Euskal Herrian euskeraz bizi nahi dauanak aukerarik izango dauan ala ez.

IV

Euskal Herrian euskeraz bizi nahi dauan euskal herritarrak hori lortzerik ahal izango dauan galdetzen dogu. Galdera hau ikuspegi ezbardinetatik egin daiteke.

Lan honetan arautegi juridikoari heltzen jako eta, faktore juridikoak hizkuntza bat mugatzen dabenak ez badira ere, "hizkuntza baten erabilera arautzen daben arau juridikoek hizkuntza horren statusa osatzen dabe [...] eta hizkuntza baten statusa faktore garrantzitsuenetarikoa da haren aurrerabizitzarako eta, batez ere, haren normalizaziorako" (17).

Euskaldunaren Autonomiadun Euskal Elkarteko hizkuntza jokaera mugatzen daben baldintza juridikoak zeintzuk diran galdetzen deutsogu geure buruari. Zuzenbidezko subjektua euskalduna da, Euskal Herrian bizi dan herritarra. Administrazioaren aurrean, euskal herritarra hiru egoera ezbardinetan egon daiteke, baina Autonomiadun Euskal Elkartekoa aukeratu dogu, euskaldunena dalako, eta bere euskaldun izate horren garapen arrunta burutzeko baldintza juridikoak eskatzen ditualako.

Hizkuntzari buruzko Konstituzio-oinarrietan zehar igaro naz. Zertarako? Kongresoan eta Senatuan eztabaidatu ziran hizkuntzaren babes-ereduak aztertu, batez be Euskal Parlamentarien erizpideak jaso eta hizkuntza anizkotasunaren aldeko espirituaz jabetzeko. Eta ez naz geratu Konstituzioaren testoan geldi.

Berehala, Euskal Herrira bihurtu naz, eta Gernikako Estatutoan hizkuntza ofizialen araugintzarako eskumenak bilatu eta Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen zuzenbidezko ondorioak aztertu ditut.

Euskal Herrian euskeraren eta gazteleraren ofizialtasun bikoitzat ofizialtasun kontzeptua sakotzen saiatzeko aukera emon deust. Euskeraren eta gazteleraren ofizialtasun bikoitzaren bardintasun edo bardintasun-ezaren egoera, herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta Arduralaritzaren gertutasun eta erantzun beharra aztergai hartu ondoren, euskeraren normalizaziorako eskumen eta araugintzari ekin deutsot, hizkuntza ofizialtasun bakoitzaren eta epai jokabidearen arteko hartuemonen azterketagaz amaitzeko.

4. Kapituluan "Giza Eskubideak eta jatorrizko hizkuntzen babesa" izan dot ikasgai. Jatorrizko hizkuntzak, hizkuntza gitxiengo edo gitxiengotuak lez bakarrik ikusi ditut. Gitxiengoaren kontzeptua, berezitasunak eta ingurua ikutu ondoren, batez be nazio arteko erakundeetan azpimarratuz, Euskal Herrian gitxiengoak euskeraz bizi izateko eskubiderik daukan ala ez izan dot galdegaia.

Galdegaiari erantzun bila jarraitu deutsat Europako herrialde batzuetan zehar. Alde batetik, lurraldetasun oinarria aldezten daben hizkuntza-sistemadun herrialde batzuk haundi-haundika ikusteko aukeratu ditut, eta bestetik nortasuna oinarriaren aldeko diran hiru herrialde (Finlandia, Irlanda eta Malta). Herrialde honeetako hizkuntzaren lege tratamendua aztertzerakoan Euskal Herrian euskerarentzat aukerako eta eredugarri izan leitekezan hausnarketa batzuk egin ditut.

Ezelango bereizkeriarik ezin da onartu, baina Euskal Herrian Kulturgintzarako Giza Eskubideak errespetatzeko bereizketa ugari eta baiezkoien preminan aurkitu naz. Eta Euskal Herriari berari zor jako bere hizkuntzari buruzko herri-arauak emoteko eskubidea eta posibilitatea.

OHARRAK

1. BONAPARTE, L.L.; CARTE DES SEPT PROVINCES BASQUES. Délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés. Londres, 1863

2. YRIZAR DE P.; Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca, Estudio Lingüístico-Demográfico. RSVAP. Donostia, 1973. Separata, urtea: XXIX., 1go., 2gn. eta 3gn. ingurraztiak, 9, 25, 49, 57 orr.

3. LEKUONA M.; Eusko Lurra: Euskalerriko Lutelestia. ETOR Arg. Itxaropena, Donostia 1974 17. monografia, 266 or.

4 EUSKALTZAINDIA, Elkar Lanean:
- Hizkuntz Borroka Euskal Herrian.
  Euskaltzaindia. Bilbo 1979 E.V.
- Euskal Herriko Atlasa
  EREIN. Donostia, 1982, 40 or.
- Euskal Hitz: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza. Gazteiz, 1982, 68 or.

5. ECHENIQUE, Mª TERESA; Historia Lingüística Vasco-Románica. Intento de aproximación.
Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia, 1984, 102 or., CECA (Mapa SIADECOren ikasketatik hartuta).

6. EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA; 1986 urteko erroldaren araberako Euskal Autonomi elkarteko azterketa demolinguistikoa. Euskal Autonomi elkarteko Administrazioa. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Idazkaritza. Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia. Gasteiz, 1989. 28, 29, 45 eta 151 or.

7. EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA; Soziolinguistikazko Mapa, O.C.; 23 or.

8. Ikus: Soziolinguistikazko Mapa, O.C.; 31 or.

9. Ikus: Soziolinguistikazko Mapa, O.C.; 175 or.

10. ETXAIDE, YON; "Garai ilunetan idazle", in: Zeruko Argia, 829 zb., 1979, 21-22 orr.

11. "La época terrible, que todo el mundo recordaba con verdadero horror, fue la del invierno de 1941-1942: debió de ser la pesadilla. Es el momento en que el Gobierno Militar de Guipúzcoa publica una nota diciendo -que ya está bien de hablar en dialecto....-. No contento con esto, el "Diario Vasco" añadió una nota de su propia cosecha que venía a decir que -si éramos españoles, había que demostrarlo con los hechos...-. La gente más o menos tímida tenía miedo de hablar en euskera en público. Prohibición formal no existió, pero para el franquismo nunca ha habido problemas legales. Te podían meter en la cárcel por algo que no prohibía ninguna ley; no había medio de protestar por una ley injusta..." (IBAIZABAL, E.; Koldo Mitxelena. Erein, Donostia, 1977, 126 or.)

12. NINYOLES, R.; Cuatro idiomas para un Estado, Edit. Cambio 16, Madrid 1977, 52 eta 62 orr.
"La actitud del Régimen de la postguerra hacia las lenguas o -dialectos- de la periferia permanece básicamente inalterada hasta mediados de la década de los cincuenta, [...]
Superado en parte el período de represión de la postguerra, en el que el hecho lingüístico es negado y combatido abiertamente, adviene una nueva etapa de minimización e intento de integración jerárquica. Este nuevo período va cirstalizando lentamente hasta comienzos de la década de los sesenta -convencionalmente con la mayor liberalización del ministerio de Fraga en 1962-, para presenciar en esta misma década y en la siguente un enorme resurgimiento de la actividad cultural periférica."

13. Ikus: - El Correo Español, 1936-06-12
- Jakin, 24. zb., 18-19 orr.
- Unidad, 1937-04-15
- Domingo (astekaria), in: Jakin, 24. zb., 23 or.

14. - 1937-07-03ko Ordena. Bizkaiako Ikastetxeei emondako baimenak aztertzeko, eta behar bazan kentzeko.

- 1937-09-13ko Batzarrean, Bizkaiako Aldundiak Agirre eta Altuna Jaunei funtzionari kargua kentzea erabagiten da, Euskera Katedrako irakasleak ziralarik.

- 1937-06-23ko Dekreto-Legea, Kontzertu Ekonomikoa kentzeko egina.

- edota 1937-11-24ko eta 1938-04-18ko Ordenak. (Euskeraren arazoa aipatu barik, Gipuzkoako eta Bizkaiko auzo-eskolak, Ordena baten bitartez, Estatua-

ren mende geratzen dira.)

15. - 1938-05-18ko Agindua (Errejistro Zibilean euskal izenak ez dira onartzen). 1938-05-21ko BO, Aranz. 531.

    - 1938-05-21ko Ordenak. (Kooperatibetan be ez kideak euskaldun hutsak izanarren, euren izenak ez dira euskeraz onartzen). 1938-05-26ko BO, Aranz. 554.

    - 1938-08-12ko Aginduak Errejistro Zibilaren funtzionamendua antolatzen dau. 1938-08-17ko BO, Aranz. 891.

    - 1940-05-16ko Agindua (Denden eta antzerakoen izenekin bardin jazoten da).1940-05-17ko BO.

    - 1944-06-02ko Dekretoa (Notari eta Notarioen Araudi barria). 1945-01-08ko BO. Aranz. 57.

    - 1945-01-15ko Agindua (Itxasontzien izenei buruz). 1945-01-24ko BO, Aranz. 129.

16. Ikus: 1965-05-11ko Agindua, 1967-06-01koa edo 1968-02-12koa.

17. COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; El euskera en el Estatuto Vasco. IVAP. Oñati-1989, 16 or.

1.- ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOA HIZKUNTZARI BURUZ

1.1.SARRERA

1.2.KONSTITUZIOARI BURUZKO EZTABAIDA

1.2.1. Diputatuen kongresoan

1.2.1.1. Zuzenketak: 2, 32, 64, 77, 105, 106, 451, 592, 593, 697, 736 eta 779 zenbakidunak.

1.2.1.2. Konstituzioaren Aurregitasmoari egindako zuzenketak ikasteko izendatutako lantaldearen txostena.

1.2.1.3. Konstituzio - gaien Batzordearen eztabaida.

1.2.1.4. Oharrak: hizkuntza ereduak, babes - sistemak, erizpide eta errazoiak.

1.2.1.5. Diputatuen Kongresoaren Osoko Bilkuran Konstituzio Aurregi tasmoaren eztabaida, eta 3. artikuluaren onarpena.

1.2.2. Senatuan

1.2.2.1. Diputatuen Kongresoaren Osoko Bilkuran onartutako Konstituzio - Egitasmoari zuzenketak.

1.2.2.2. Konstituzio - Batzordean eztabaida eta erizpena.

1.2.2.3. Senatuko Osoko Bilkuran Konstituzio Egitasmoaren eztabaida eta proposatzen diran aldaketak.

1.2.3. Batzorde Mistoan

1.2.3.1. Batzorde Mistoaren erizpena.

1.2.4. Ondoren gisa

1.2.4.1. Hizkuntzaren babes - ereduak.

1.2.4.2. Erizpideak.

1.3. OFIZIALTASUN BIKOITZAREN AUTORPENA ETA GAZTELERA EZAGUTU BEHARRA

1.3.1. Gaztelera, Estatuko Hizkuntza Ofiziala.

1.3.2. Bardintasun egoera.

1.3.3. Ezagutu beharra.

1.3.4. Diskriminazioa.

1.4. AUTONOMIADUN ELKARTEAK ETA BESTE HIZKUNTZAK

1.4.1. Beste hizkuntzen ofizialtasuna.

1.4.2. Beste hizkuntzak ezagutu beharra.

1.5. HIZKUNTZA MOETA EZBARDINEN BABESA

1.5.1. Begiramen berezia eta babesa.

1.5.2. Ondoren gisa.

1.1. SARRERA

1.1. SARRERA

Gaur egun, Hego-Euskalerrian herrikideak bizi dauan hizkuntza egoera ezin daiteke ulertu 1978ko abenduaren 27ko Espainia - Estatuko Konstituzioaren araubidea kontutan izan barik. Estatuan demokraziazko aldi barri bat hasteko erabagiaz edo, aurreko erregimenak ezkutatu eta zapaldu eban herrialdeetako hizkuntzen araubidea Konstituzioan zehar, baina batez be 3. artikuluan agertzen da (1).

Bigarren Errepublikako Konstituzioaren 4. artikuluari jarraituz (1.931ko abenduaren 9an) eta bertan oinarrituz, Espainiako beste hizkuntzentzat aldi barria jaioten dala dirudi (2).

1.931ko Konsituzinoak 4. artikuluan dino:

> "Gaztelera da Errepublikako hizkuntza ofiziala.
> Espainol guztiak jakin behar dabe eta erabilteko eskubidedun dira, Probintzia eta lurraldeetako hizkuntzei Estatuko legeak onartuko deutsezan eskubideen eragozpen barik. Lege berezietan erabagiko danaren salbuespenekin, eskualdeetako hizkuntzak jakin beharra inori ezin leio eskatu".

Itxura baten, Konstituzioak, politika-zuzenbidezko sistemaren aldaketa sakonaren oinarrietariko bat lez eratzen dau hizkuntza aniztasuna. Gaztelera ez diran beste hizkuntzen babesa, Aintzin-Idazpuruan hasita sartzen dau (3).

Konstituzioak, lurraldeetako hizkuntzei buruz egiten dituan erreferentziak Konstituzioaren Atariaurrean hasita datoz, (nahiz eta zati hau arau mailakoa izan ez), eta demokrazi giroari ateak zabalduz, hizkuntzak babesteko Estatuaren gogoa itxura baten bertan azaltzen dau (4).

Konstituzioko 9.2 artikuluak hizkuntzaren askatasun eta bardintasun baterako eragozpenak kendu eta bultzatzeko baldintzak betebeharrean jartzen dau Herrisaila (5).

10.2 artikuluak, Herrisailari, herritarrei eta Konstituzio Auzitegiari gure eskubideak babestu eta epaitzeko orduan Giza-Eskubideen Autorkizun Orokorraren

arabera egiteko manatzen deutsie (6).

20.3 artikuluak, Komunikabideak hizkuntza guztien bide lez bultzatu nahi ditu (7).

148.1.17 artikuluak hizkuntza irakasteko eskumenei buruz dihardu (8).

Azken Erabagiak, Konstituzioaren testua Estatuko Boletin Ofizialean beste hizkuntzetan be argitaratzeko manatzen dau (9).

Hizkuntza aniztasunaren arauen ardatza Konstituzioaren 3. artikuluan agertzen da. Baina Espainiako hizkuntzen araubidea ikasteko 3. artikulu horretan bakarrik geratzeak, ikuspegi alderakoi baten arriskua sortuko leuke. Artikulu honen ikasketa bakartiak, Autonomiadun Estatutoetan onartzen diran hizkuntzak eta gaztelera arautzera bideratuko dau, baita gaztelera ikasi beharra dagoala adierazotera be; beste hizkuntzak ikasi behar edo/ta suztatze bateraino ez. Hizkuntza guztien arautzeak ahaztu ezinezkoak ditu Konstituzioko beste arauak: bardintasun oinarriari dagokiozanak, Herrisailari dagokiona e.a. (10) Konstituzioa osotasunean aztertzeari ezin leio uko egin.

Ez hori bakarrik, Espainia-Estatuko Konstituzioan idatzita dagoanaren esanahia hondoraino ulertu barik laga nahi ez bada, Konstituzioan idatzi barik baina konstituziogileen artean hizkuntzari buruz sakon ta luze eztabaidatutakoa jakingarria da. Diputatuen erizpide, errazoi, eztabaida eta kontsentsua ezin da irakurri Konstituzioko testuan. Ezta Diputatuen artean hizkuntzari buruz lortu zan adostasuna be. Beraz, esan zana eta azkenean idatzita geratu zana ez datoz beti bat.

1.2 KONSTITUZIOARI BURUZKO EZTABAIDA

1.2.1. Diputatuen kongresoan

1.2.2. Senatuan

1.2.3. Batzorde Mistoan

1.2.4. Ondoren gisa

1.2. KONSTITUZIOARI BURUZKO EZTABAIDA

1.2.1. Diputatuen Kongresoan

Diputatuen Kongresoan eta Senatuan azaldutako testu, zuzenketa, txosten, erizpide eta eztabaidak hartu nahi dira aztergai.

1977-06-15eko hauteskunde ostean eratu zan Diputatuen Kongresoa. Lehenengotariko batzar batean sortu zan "Konstituzio-Batzordea" -geroago "Konstituzio Gaietarako Batzordea"-, eta Batzorde horrek sortu eban Konstituzioaren Aurregitasmoa idazteko lantaldea. Lankideak honexeek ziran: Gabriel Cisneros Laborda Jauna, Manuel Fraga Iribarne J., Miguel Herrero Rodriguez de Minón J., Gregorio Peces-Barba Martinez J.. Jose Pedro Perez-Llorca Rodrigo J., Miguel Roca i Yunyent J. eta Jordi Solé Tura.

29 lan-batzar egin ondoren, Aurregitasmoa burutu eben, eta "Gorteetako Boletin Ofizialean" argitaratu zan Konstituzioa-ren Aurregitasmoa 1978-01-05ean.

Konstituzioaren Aurregitasmoak era honetan dakar 3. artikuluaren testua:

> "3.1. Gaztelera da Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiak daukie ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea.
>
> 3.2. Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izango dira autonomiadun lurraldeetan euron Estatutoen arabera.
>
> 3.3. Espainiako hizkuntza moeta ezbardinen aberastasuna, kultur ondare bat da eta begiramen berezia eta babesa izango dau."(11)

Aurregitasmoko testu honek iraungo dau funtsean Konstituzio testuaren azken idazkerara arte. Konstituzioko eztabaida luzean zehar jasandako aldaketa biak 3. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan izango dira. 3.1ean: "Gaztelera da Estatuko espainol hizkuntza Ofiziala" ipiniko da. 3.2an: "Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izango dira Autonomiadun Lurraldeetan euron Estatutoen arabera" idatzita egoana, "Lurralde" hitzaren ordez "Elkarte" sartu ondoren honela geratzen da: "Espainiako beste

hizkuntzak be ofizialak izango dira Autonomiadun Elkarteetan euron Estatutoen arabera"(12).

1.2.1.1. Zuzenketak

Aurregitasmoaren 3. artikuluari ez jakozan aurkeztu boto partikularrak. Baina zuzenketak egiteko 20 eguneko epea zabaldu zanean, ugariak izan ziran.

- 2 zb. zuzenketa: APko Antonio Carro Martinez Jaunak aurkeztuta. EK 3.2 artikuluaren testurako era hau proposatzen dau:

"2. Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izan daitekez" (13).

Nahiz eta zuzentzaileak esan ez, Espainiako beste hizkuntzen ofizialtasun bikoitza konstituzio mailatik kentzea edo/ta gitxienez jaistea gogoko dauala ezingo da ukatu.

- 35 zb. zuzenketa: Licinio de la Fuente Jaunarena (AP)

3.2 artikuluan, "izan daitekez ofizialak", proposatzen dau (14). 2 zb. zuzenketaren antzekoa da. Zuzentzailearentzat 3. artikuluko atalen arteko kongruentzia da errazoi. Gainera, bere ustez, datozen Estatutoentzat "izango dira" jartzen bada, kaltegarri eta inposaketa bihurtuko litzateke.

Nere ustez, zuzenketa honen giro ta bildurra ez doa hortik. Zuzenketaren aurkezleari beste hizkuntzen ofizialtasunak emoten deutsola bildurra dirudi. Eta Konstituziotik at, indar gitxiago daben beste lege batzuentzat iztea nahi dauala hizkuntzaren araubidea.

- 64 zb.zuzenketa: Francisco Letamendia Belzunce Jaunarena (GPM)

3.1 artikuluko lehenengo esaldia onartzen dau: "Gaztelera da Estatuko hizkuntza ofiziala", eta bigarren esaldia kentzea proposatzen dau: "Espaniar guztiek daukie ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea".

3.2 atalari idazkera hau emoten deutso:

"Estatuko beste hizkuntzak be ofizialak izango dira bakoitza bere

lurraldean" (15).

Letamendiaren ustetan, zuzenketa honen zioa hauxe da: 3.1ean hizkuntza ofiziala dala autortzen bada, bere jakin beharra inposatzea alperrikakoa da, ofizialtasunak berak sortzen dau ta betebehar hori. Eta 3.2an eskatzen dana zera da: Estatutoei itxaron barik, eta gainera Estatutoei buruz ezer ez dinoalako, beste hizkuntzen ofizialtasuna Konstituzioan autortzea.

- 77 zb. zuzenketa: Emilio Gastón Sanz Jaunarena (PSA-GPM)

3.3 artikuluan jartzen dau bere aldaketa:

> "Espaniako hizkuntza moeta ezbardinen aberastasuna, kultur ondare bat da eta begiramen berezi eta babesa izango dau; udal, eskualde edo erabilten dan tokietan eta lekuan lekuko manatzaileak eskatu ezkero ofizialkidetasuna be lortuz" (16).

Gastonentzat idazkera barri honen oinarriak ikuspegi bikoitza dauka: banakakoarena, norbere hizkuntza ezagutzeko herritar bakoitzak daukan eskubidea; konstituziozko-zuzenbidezkoa bestea, hau da, benetako askatasun eta eskubideak lortzeko Konstituzioaren onarpen eta autorpenak dauan garrantzia.

- 105 zb. zuzenketa: (GP de M.Catalana)

3. artikulua. Proposatzen dan idazkera:

> "1. Nazio-hizkuntza guztiak ofizialak izango dira euren laurraldeetan. Gaztelera izango da Estatuko sailen hizkuntza ofiziala, sortuko diran autonomiadun Estatutoak erabagiko dabenaren kaltetan barik.
>
> 2. Gaztelera ez dan beste hizkuntzen Espainiako autonomiadun lurraldeetan, Autonomiadun Estatuto bakoitzak manatuko dau bere hizkuntzaren bakarreango ofizialtasuna edo gazteleragaz aldi baterako ofizialtasuna.

3. Espainiako hizkuntza moeta ezbardinen aberastasuna, kultur ondare bat da, eta begiramen berezi eta babesa izango dau, eta hezkuntzan eta administrazio egituran bere egiazko erabileran zehaztuak etorriko dira" (17).

Zuzenketa honetan hizkuntzaren lurraldetasun eredua ezarteko gogoa sentitzen dau katalanen taldeak. Aldi baterako epea egongo litzateke, berehala bakarreango ofizialtasuna ezarriz edo aldi batean gazteleragaz ofizialkide izanaz. Hori bai, gazteleraren ofizialtasunari salbuespen batzuk itzita.

- 106 zb.zuzenketa (GP de MC)

3.2 artikuluaren idazkera hau aurkezten da:

"Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izango dira autonomiadun lurraldeetan euren Estatutoen arabera. Biztanle guztiak daukie hizkuntza hareek ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea" (18).

105 zb.aren aurkeztzaileak dira hemen be aurkezle. Lurraldetasun eredu hutsa zerbait bigundu eta beste aukera bategaz datoz, beste hizkuntzak ezagutu beharra Konstituzioz manatu nahi dabelarik.

Talde honentzat ofizialtasunaren autorpenak ez dakar berez ezagutu beharra. Eurentzat betebehar hau Konstituzioaren manuz sortzen da.

Zuzentzaileen buruetan gaztelera ezagutzearen beharrizana egoan argi, eta beste hizkuntzen hutsunea aipatu eben.

-451 zb. zuzenketa: Carlos Güell de Sentmenat (Centre Català, GPM)

3.3 artikuluan hitz bat gehiago jartzea nahi dau: "... begiramen berezi, irakaskintza eta babesa izango dau" (19).

Irakaskintzaren izaera ihardunengoan oinarritzen dau hitz barria sartzea. Hizkuntzen suztapenerako jarrera eraginkorra bilatzen dau.

Bestalde, bere ustez, Konstituzioan hezkuntza oinarrizko eskubide lez onartua danez, herrisailak betebehar astunagoa eukiko leuke.

- 592 zb. zuzenketa (GPV)

3. artikuluko 1 eta 2 atalak bateratu egiten dira:

> "1. Gaztelera da Estatuko hizkuntza ofiziala. Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak dira autonomiadun lurraldeetan, euren Estatutoen arabera" (20).

Gaztelera ezagutu beharra kentzen da. Zuzentzaileek dinoenez, ezagutu beharra inposatu beharrik ez dago, hizkuntzaren ofizialtasun autorpenak ezagutu beharra berez dakarrelako.

"Beste hizkuntzak be ofizialak dira" esatean, datozan Estatutoentzat betebehar lez hartzen bada be, betebehar honek Elkarteen autonomia eskubidea ez dau gitxitzen, ikusi bestela EKko 147.2 art.

Alderantziz, talde honentzat oinarrizko arauen artean etorriko litzateken "dira" horrek, herrisail eta administrazio guztientzat lotura osoa eta lehen mailako segurtasuna suposatzen dau.

- 593 zb. zuzenketa: (GPV)

3.3 artikuluaren azkenean hauxe ezarten jako:

"... begiramen berezia, babesa eta eragina izango dau" (21).

Zuzenketa honen helburu eta gogoa, 451 zb. zuzenketa aurkeztu eban Carlos Güell de Sentmenat Jaunagaz, bat datoz. Hizkuntza moeta ezbardinetan osagai eragile bat sartu nahi dabe. Han "irakaskintza" zan, hemen "eragina". Beste oinarrizko eskubideekin lotura gehiago daualako irakaskintzak herrisailen aurrean ahalmen haundiagoa izan lei, eta nahiz eta Konstituzioko beste manu batzuekin zerikusia izan, "eraginak" politikalarien eritxien eta aukeren esku geratu beharra izango dau.

- 697 zb. zuzenketa (GP Comunista)

3.1 artikuluaren azkenean: "artikulu honen 2. atalean manatzen danaren kaltetan barik" (22).

Espainiako hizkuntza danen bardintasuna osotzea da zuzenketa honen zioa. Gaztelera ezagutu beharra manatzean, beste hizkuntzentzat be manua zabaltzea nahi da.

3.2 artikulua: "Espainiako beste hizkuntzak bardin izango dira ofizialak euren autonomiadun lurraldeetan, euren Estatutoak manatuko daben arabera." (23)

"Be" kendu eta "bardin" ipinten da. Espainiako hizkuntza guztien bardintasun osoa zahaztea da aldaketa honen oinarri.

Gramatika aldetik, baloreari buruz hitz bien artean diferentziarik ez dago, lege aldetik beti ez da holan jazoten. Eztabaidetan bardintasun oinarrira eta eskubideetara jo beharko litzateke, eta bai dotrinaren bai legegintzaren eta Konstituzio Auzitegiaren jokabideetan zerikusia izango leukie.

- 736 zb. zuzenketa: José Miguel Ortí Bordás (UCD)

3. artikulua:

1. Gaztelera da Estatuko hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiak daukie ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea.

2. Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izan daitekez autono-

miadun lurraldeetan euren Estatutoak holan erabagiten badabe.

3. Espainiako hizkuntza moeta ezbardinak kultur ondare bat egiten dabe eta babes berezia izango dabe.

4. Legeak erabagiten dabena salbuespen, lurraldeetako hizkuntzak ezagutu eta erabiltera inor ez da behartuko" (24).

Zuzentzaileen gogoan hizkuntzaren mailakaketa bat dago. Estatu osorako hizkuntza ofiziala. Eskualde eta herrietarako hizkuntza.

3.2an, Aurregitasmoaren autorpenaren ordez, "beste hizkuntzak be ofizialak izan daitekez" ofizialtasun aukera aholkatzen dau.

Zuzenketa honek hari bati jarraitzen deutso: hizkuntzaren mailakaketari. Lehen mailan, gaztelera hizkuntza ofiziala dala eta ezagutu eta erabili beharra dagoala, beste hizkuntzak aukeragarriak, bigarren mailako eta Estatutoen manuaren zain dagoz.

3.3an, begiramen hitza kanpoan gelditzen da, babesak barruan hartzen daualako.

Zuzenketa aurkezlearen ustetan, 3.4ak beste hizkuntzen ofizialtasunak ekarri leikezan hizkuntza gatazkak baztertzen ditu. Beste hizkuntzen ofizialtasuna gazteleraren ofizialtasunaren pareko ez da izango. Hareek ezagutu beharra ezin da ezarri. 1931ko Konstituzioaren 4. artikulua erabilten da errazoi modura. Gero Konstituzioa aldatu arte ez da izango bardintasunik

- 779 zb.zuzenketa (UCD)

Proposatzen dan testua hauxe da:

"1. Gaztelera da Estatuko hizkuntza ofiziala. Espainiako beste hizkuntzak be koofizialak izango dira euren autonomiadun Estatutoetan hartzen dabezan arabera.

2. Espainiar guztiak daukie gaztelera ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea.

3. (Aurregitasmoan lez)" (25).

"Idazkera aukerakoagoa" dala esanez aurkezten da zuzenketa hau. 736 zb.agaz lotzen bada, hemen esaten ez dana igartea ez da zaila izango.

1.2.1.2 Konstituzioaren Aurregitasmoari egindako zuzenketak ikasteko izendatutako lantaldearen txostena.

3.1 artikulua.

Lantaldeak aurkeztutako zuzenketak aztertu, eta gehiengoz, Aurregitasmoaren idazkera iraunarazotea erabagiten dau. Gaztelera ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea sartzea gogoko dau eta Letamendia Belzunce Jaunaren 64 zb. zuzenketa ez da onartzen.

108 zb. (GMC), 592 zb. (GPV) eta 779 zb. (UCD) zuzenketak, 3.1 eta 3.2 atalalen bateratze bat eskatzen dabenez, eta lantaldearen eritxiz 3.2 atalean funtsean batzen dira aurkeztutako zuzenketak.

697 zb. (G Comunista) eta 736 zb. (Ortí Bordás Jaunarena) Lantaldeak uste dau, testuaren idazkeratik atera leitekela zuzenketen edukina (26).

3.2 artikulua.

Beste hizkuntzen ofizialtasunarentzat Aurregitasmoaren atal honek segurtasuna adierazoten dauala aitzen dau lantaldeak.

2.zb., 35 zb. eta 736 zb. zuzenketak, "izango dira" barik "izan daitekez" proposatzen dabe, eta lantaldeak ez ditu onartzen.

64 zb. zuzenketa Aurregitasmoaren testuan batzen da, eta Estatutoenganako erreferentzia beharrezkotzat jotzen dau.

105 eta 106 zb. zuzenketak ez ditu onartzen, baina lantaldeko partaide danak bere taldearen zuzenketa aldezten dau.

697 zb. eta 779 zb. be Aurregitasmoan batzen diralako ez dira ontzat emoten (27).

3.3 artikulua.

Lantaldeak, gehiengoz, Aurregitasmoaren testua iraun erazoten dau. 64 zb., 3.3 kentzeko proposamenagaz, ez da onartzen. 105 zb., 451 zb., 593 zb., 77 zb. eta 736 zb. zuzenketek, hizkuntzen egiazko erabilerari buruz aldatu nahi dabena, lantaldearen ustez 3.2an sartzen da, eta beste hizkuntzen moeta ezbardinentzat 3.3a dago. 736 zb., 4. atal barria eskatzen dauana be ez dau ontzat hartzen (28).

1.2.1.3 Konstituzio-gaien Batzordearen eztabaida

Hamabi zuzenketa aurkeztuten dira eta hamar eztabaidatu. (593 eta 736zb. ez dira eztabaidan sartzen).

Zuzenketekin talde batzuk egin geinkez (29).

- 2 eta 35 zb. zuzenketek (AP) hizkuntza eredu argia erakusten dabe. Aurkezpen, aldezpen eta errazoietan hizkuntza tratamenduan mailakaketa bat jartzen dabe: hizkuntza bakarra da ofiziala (gaztelera), beste hizkuntza batzuk ofizialkideak (euskera, katalana,...) eta hizkuntza moeta ezbardinak (bablea, aranesa,...) honeek ez dira ofizialak eta ofizialkide be ezin daitekez izan, gehien jota be begiramen eta babesa izango dabe.

- 736 eta 779 zb. (UCD) zuzenketak. 736 zb. Batzordean ez zan eztabaidatu, baina bere asmoa 779an nabari da. Nahiz eta UCDn aldezkariak ukatu, APko lagunen antzera, gazteleraren lehentasuna goratzen dabe eta hizkuntzen mailakaketa argia azaltzen dabe.

- 64, 592 eta 593 zb. zuzenketak. Ofizialkidetasunaren autorpen eta onarpenaren lege-indarragaz bat datoz. Baita hizkuntzaren ofizialtasuna autortzeak dakarzan zuzenbidezko ondorenekin be (batez be autorpenak berez sortzen dauan ezagutu beharra) 593 zb.ren zuzentzaileak euren aldezpena ez eben egin, beste batzuek egindako azalpenetan eta ulerkeretan argi geratu zalako, lurraldeetako hizkuntzen ofizialtasuna benetako ofizialtasun bikoitza dala, eta begiramen eta babesaz gainera, eragin eta bultzatze guztiak izango dauazala. Letamendia Jaunak bere 64 zb. zuzenketa baztertu eban, 592 zb. zuzenketagaz bat etorri zalako. Talde honek hizkuntzen bardintasuna autortzen dau, eta Konstituzioak hizkuntza baten lehentasuna emotea ez dau onartzen.

- 105, 106, 77, 451 eta 453 zb. zuzenketek osotzen dabe beste talde bat. Zuzenketa guztiok bat datoz 3.3 artikuluan, hau da, hizkuntza moeta ezbardinen irakaskintza, bultzatze e.a. 77 zb. zuzenketak, eskualdeetan gaztelerak eta beste hizkuntzak daukien lege tratamendua eskatzen dau ofizialtasun bikoitzari buruz hizkuntza moeta ezbardinentzat. 105 eta 106 zb. alkarrekin proposamen bakarra egiten dabe. 105 zb.ak hizkuntzaren lurraldetasun eredu hutsa aldezten dau. Autonomiadun Elkarteetan bakarreango hizkuntza ofiziala lurraldeko hizkuntza propioa izango da,

aldi baterako gaztelerari salbuespen batzuk eginaz edo berehala hasita. Eredu hau, gero, 106zb. zuzenketara pasatzen da.

Hizkuntzaren lurraldetasun eredu nahastatua aldezten dau. Bi hizkuntzen eraginkortasunerako, hizkuntza bien Konstituzioko autorpen eta ezagutu beharraren manua eskatzen da. Betebehar hau, gaztelerarekiko parekotasuna errazoi dalako, nahi da, eta ez hizkuntzaren ofizialtasun autorpenaren ondoren lez. Errazoi historikoak be aldezten dira.

697 zb. zuzenketak bere berezitasunak ditu. Hizkuntza eredua, bi hizkuntzen lurraldetasuna da, baina Konstituzioz arauezkotzea eskatzen da. Ofizialtasunaren autorpen eta onarpenari holan dagokio, eta bi hizkuntzen zuzenbidezko eskabide eta neurriak bardinak izango dira.

Batzordearen eztabaidan esanak batuz, ohar batzuk egin leitekez.

1.2.1.4 Oharrak

a) Hizkuntza ereduak

Oinarrizkoenak bi dira: Lehenengo ereduan, hizkuntza ezbardinetatik bakarrak, gaztelerak, izango leuke lehentasuna edonun. Autonomiadun Elkarte batzuetan hizkuntza hau beste batzuekin bizi da.

Bigarrena, eredu elebiduna, lurralde esparru zehatzetan kokatua. Estatuko alderdi batzuetan hizkuntza ofizial bakarra dago (gaztelera), eta beste batzuetan bi hizkuntza ofizialak bizi dira. Lurralde honeetan lege-indar bardina dabe. Eta hizkuntza lurraldetasuna eredu izan arren, bere ama hizkuntza ezagutu eta erabilteko giza eskubideagan nortasun oinarria be badabe.

b) Babes-sistemak

1.- Babes-sistemek badaukie zerikusia aurkeztutako hizkuntza ereduekin.

Hizkuntza menperatzailedun ereduan, babes-sistemak hiru maila ditu: Hizkuntza nagusi ofizialak (gaztelerak) Konstituzio-babesa dauka. Herritarrari segurtasun osoa emongo deutso. Konstituzioak manatuko dau ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea. Herrisail eta herritar guztiak behartzen ditu. Goi mailako babesa dauka.

Estatuko errialde batzuetan, gazteleraren ondoan beste hizkuntzak ofizialkide dira. Bigarren mailako babesa emoten jake: Konstituzioak erabilteko eskubidea bakarrik onartzen dau. Eta hori be, lurraldeetako Estatutoari ondo baderitxo. Hizkuntza propioa erabilteko eskubidea bakarrik, ezagutu beharra manatu barik, eta Estatutoak onartzen badau, hori da Konstituzioaren gogoa. Beste modu batera esanda, Konstituzioak gaztelera eta Espainiako beste hizkuntzen artean diferentzia batzuk egiten baditu, Estatuoak kontutan euki behar ditu eta gainera Estatutoak bere hizkuntza arauzkotzeko eskubidea eukiko dau.

Espainiako hizkuntza moeta ezbardinak (bablea, aranesa, panotxoa,...) hirugarren maila baten gelditzen dira. Euren babes guztia, begiramen eta babesa besterik ez da.

2.- Bigarren hizkuntza ereduak bigarren babes-sistema dakar. Bi babes-maila ditu: Lehenengo babes mailak, gaztelera eta beste hizkuntzak (euskera, katalana, galegoa,...) bere barruan hartzen ditu, eta Konstituzio mailan hizkuntza propioaren erabilteko eskubidea eta ezagutu beharra bakoitzaren lurraldeetan onartzea dau helburu. Autorpen eta behartze hau era ezbardinetan proposatzen da: edo gaztelerari bakarrik dagokiozan erreferentziak kenduta, edo hizkuntza danak bateratuta, edo herrisailari betetzeko erak manatuz. Bigarren babes maila hizkuntza moeta ezbardinei dagokiena da; giza eskubide lez onartzen dira, eta eurak bultzatu eta garatu suztatze erara egingo da.

3.- 77zb. zuzenketak ordezkatzen dau 3. babes-sistema. Nazio hizkuntza eta hizkuntza moeta ezbardin guztientzat babes bardina, eta ama hizkuntzak erabilteko eskubidea eta ezagutu beharra Konstituzioari eskatzera dator zuzenketa hau. Manu honen
garapen eta zehastasunak, lurralde bakoitzean bertako herrisailari dagokioz (Estatuari, lurraldeari, eskualdeari, udalari,...)

d) Erizpide eta errazoiak

Hizkuntza ereduak egiaztatu, zuzenbidezko ondorenak ziurtatu eta babes-sistemak segurtatzeko, bakoitzak bere erak darabilz.

Gaztelera ezagutu beharra ezabatzeko, 64 zb. zuzenketak erizpide honeek aurkezten ditu (30): Lehenengo, hizkuntzaren ofizialtasun autorpenak beregaz daroa ezagutu beharra. Bigarren, beste hizkuntzentzat antzerako autorpena aurreikusten ezbada, herritarrentzat bardintasun eza sortzen da. Erizpide bardintsuak dakarz 592 zb. zuzenketak:

> "...beste derrigorrezko manu barik, ofizialtasun autorpenak berak eskatzen dau hizkuntza ezagutzea. Ezagutu beharrezko manu horregaz, lehentasuna emon eta saritu egiten da hizkuntza hori beste ofizialkide dan hizkuntzaren aurrean eta kaltetan.[...]

> Historiak eta irainordainak beharrezkotzen dabe Espainiako beste hizkuntzen ofizialkidetasuna, eta gazteleragaz batera Konstituzioak autortzea.[...] Hizkuntza honeen arauzkotzea Estatutoei dagokie, baina Konstituzioak zaindu bei euren arteko zuzenbidezko parekotasuna, diskriminazio barik eta babes bardina eskeiniaz" (31).

Agirre Kerexeta Jaunarentzat, gazteleraren lehentasuna ez da berez sortu, hizkuntza-politikazko aukerak eraginda baino: Estatu bakarra, hizkuntza bakarra, e.a.

Hizkuntza politikarako tresna baliogarria izan da, gaztelerari laguntza guztiak emonaz beste hizkuntzei babesa kendu
eta eragozpenak jarriaz (32).

Fraga Iribarne Jauna zuzenketa honen tesiaren aurka jasoten da. Estatuaren ikuspegitik gaztelera Estatuko hizkuntza dala esaten dau, beste hizkuntzak baino askoz zabalduagoa (dana dalako errazoiagaitik), eta hizkuntza honi lehentasuna emoten eta nagusi egiten danok parte hartu dogula eta egiten jarraitu behar dogula, ez jakiteko eskubidea inori emon barik (33).

697 zb. zuzenketaren aldeztzaileak, Solé Tura Jaunak, baikortasunez hartzen dau aurregitasmoaren testua.

Ofizialkidetasuna Konstituzioz onartzen da (1931ko Konstituzioan ez), baina Espainiako hizkuntzen bardintasuna ez da, bere ustez, behar dan bestean bermatzen. 3.1 azkenean beharrezko egiten da "kaltetan barik" esaldia sartzea, 1go eta 2. atalen artean jarraipen eta lotura sortuaz. Jarraipen honegaz, eta "be"-ren ordez "bardin" 3.2an idatzita, bere edukina eta neurria baieztatuko leukez. Era honetara, autonomiadun lurraldeetako hizkuntza ofizialkideen zuzenbidezko bardintasun osoaren aurkako errazoikeriarik ez litzateke sortuko, Konstituzio mailan zuzenbidezko bardintasun osoa onartu ezkero. Giza mailan bardintasunera heltzeko beste bide tekniko batzuk jorratu beharko litzatekezela uste dau Solé Turá Jaunak (34).

Fraga Jaunak, aurkako txandan, 592 zb. zuzenketari erantsitakoak

baieztatzen ditu. Lantaldearen testuak oreka bat zaintzen dauala dino, zuzenbidezko esanahian, eskabidean eta babesean hiru maila ezbardin eratuz: Lehenengo: lehen mailan gaztelera, erabileran, ezagutu beharrean eta babesean Estatu guztirako. Bigarren mailan, lurralde eta Estatutoak, beste hizkuntzak ofizial izateko eskubideagaz eta ez izateko manuagaz. Hemen sartu lei, bere ustez, "kaltetan barik", baina beti gazteleraren alde. Hirugarren maila baten, beste hizkuntza moeta ezbardinak, euren itzala merezi dabe. Bere ustez, "Be" hitzakin jarraitu behar da, bere xedea gazteleraren lehentasuna azpimarratzea dalako (35).

Trias Fargas Jaunak, 105 eta 106 zb. zuzenketak aldeztean, hizkuntzaren gaia kultur arazo lez agertzen dau. Mundu osoan onartutako norbanakoaren giza eskubide lez aurkezten dau ama hizkuntzaren eskubidea. Bere taldeak elebitasuna eta ofizialtasun bikoitza onartzen ditu, hizkuntza ofizialentzat aukera bardinak eskatuz. Erabilteko eskubideak eta ezagutu beharraren Konstituzio-autorpenak bardintasuna esan nahi dau.

Hizkuntza guztientzat eskatzen da Konstituzio autorpen hori eta ez batentzat bakarrik. Historia errazoi ipinita, eta zuzenbidezko bardintasunak eskatzen dauanez, eta benetako oreka barriro lortzeko, katalanaren aldeko abantailak eskatzen ditu. Hasierako bardintasunak, gero hizkuntza baten aldera egingo dau. Autonomiadun Elkarteko hizkuntza propioaren ofizialtasun bakarreangoa saritzera joango da.

Errazoibide honeek hasiera baten 106 zb. zuzenketaren alde be erabilten dira, Katalunian katalanarentzat eskatu zan ofizialtasun bakarreangoa salbuespen dala.

Trias Fargasek hizkuntzak ezagutu beharra ipinten ez bada, ofizialkidetasuna ezer be ez dalako, katalana ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea Konstituzioz adierazotea azpimarratzen dau. Gure ikasketa eraketan atzerriko hizkuntzak (frantses, ingeles) behartzen badira, katalan ikastea ez da hainbeste kostako; edo gure herrian katalan hizkuntza baino atzerrikoak egokiagoak al diran itaunduaz amaitzen dau bere azalpena (36).

Fraga Jauna, aurkako txandan, zuzenketa honen aurka jagi da. Hizkuntzak hitz egiteko eskubidea aldezten dau, baina eskubide hori inori manatu barik. Fragarentzat Aurregitasmoak "hizkuntza hitz egiteko eskubidea eta Estatutoetan ofizialkide egiteko eskubidea bakarrik" (37) onartzen ditu.

Katalanen bidetik jarraiturik, Kataluniako Sozialistak hizkuntzak ezagutu beharra azpimarratu nahirik, 3.2 artikuluari testu hau "in voce" erantsi eutsoen:

> "autonomiadun lurraldeetan bizi diranentzak euren hizkuntza ezagutu eta erabilteko eskubidea bermatzeko bide egokiak jarriko ditu herrisailak" (38).

Gaztelera eta beste hizkuntzen zuzenbidezko bardintasuna dau helburu. Hori, nolakotasunez bardinak diralako. Sozilinguistikan hizkuntzaren lurraldeko luzezabalerari ez jako kategoria maila emoten (39).

Letamendia Belzunce Jaunak (642 zb.) 3.2an proposatutako idazkera hauxe da: "Beste hizkuntzak be ofizialak izango dira euren lurraldeetan" (40). Aurreko zuzenketen gogoa dakar, beste hizkuntza ofizialak behartzeko, baina bere zuzenbidezko errazoibideak bardinak ez diralarik. Beste manu barik, hizkuntzaren ofizialtasunak damotso ezagutu beharra herritarrari (hizkuntzari). Letamendiak "denbora denborari irabaztea" nahi dau, Estatutoei itxaron barik, hizkuntzen ofizialtasuna Konstituzioan jartea (41).

Paredes Grosso Jaunak (UCD) aurkako txandan, lurraldeetako ordezkariek sentimenduzko errazoibidez aldezten dabezela euren zuzenketak dino, eta Konstituziogileek ez daukiela hizkuntzen aurkako erizpidea, baina bardintasuna arauzkotzeko Estatutoen posibilitatea "zabalik" iztea nahi da, eta ez Konstituzioz manatu (42).

2 eta 35 zb. zuzenketetan, gazteleraren ofizialtasun bakarraren hizkuntza eredua proposatzen da, Espainiako beste hizkuntzen ofizialtasuna Konstituziotik kanpo itzi eta euren erabilera Estatutoetara bialduaz, baina ofizialak izateko aukera barik. Historia eta praktika ipinten dira errazoibide.

Zuzenketa honeen azalpenetan agertzen danez, Espainian politika bakarra eta hizkuntza bakarra izan dira nagusi, eta beste hizkuntzak eta hizkuntza moeta ezbardinak familia eta hauzoetan erabili ohi izan dira bakarrik. Praktikara begira, ofizialkidetasun ezbardinak eta kanpotarrak arazo bihurtuko dira (43).

Solé Turá Jaunak, aurkako txandan, zehaztasun batzuk ateratzen ditu: 2 eta 35 zb. zuzenketak ofizialtasun bakarra eskatzen dabe, hizkuntza aniztasunaren

arazoa Licinio de la Fuente Jaunak ez dauala ezagutzen eta ezagumen falta honek arazoa larritzera daroala esaten badau be.

Eta arazoak badagoz eta egongo dira, baina ofizialkidetasuna Konstituzioratzea nahi da, zuzenbidezko bideak jarri eta era guztietako neurriz herrisailak hizkuntza ezbardinetako Elkarteak banandu beharrean alkartu daiazan (44).

Fraga Jaunak zuzenketaren aldeko txandan, Solé Turá Jaunaren aurka 3. artikuluaren zentzuna barriro adierazoten dau, eta 2. 35 zb. zuzenketak "argitu besterik ez dabela egiten" dino (45).

77 zb. zuzenketari dagokionez, 3.3 artikuluaren eztabaidan hizkuntza moeta ezbardinei ofizialkidetasuna eurei be zabaltzeko beharrizana aldezten da.

> "Oinarri lez, ama hizkuntzaren eskubidea giza eskubidea dan lez, giza eskubide danak onarpen bardina euki behar dabe.[...] Bere arauezkotzea, eskualde, udal edo beste lekuko erakundeen esku itzita" (46).

Licinio de la Fuente Jaunak, aurkako txandan zera esaten dau: lehen aipatutako beste hizkuntzen ofizialtasunaren arazoak askoz be ugariago egingo leukezala hizkuntza moeta ezbardinen ofizialtasunak (47).

Fraga Jauna, Licinio Jaunarekin bat dator, zuzenketa honek ekarriko leukezan zuzenbidezko segurtasun arazoekin errazoituz (48).

451 zb. zuzenketak beste hizkuntzen "irakaskuntza" beharrizana eskatzen dau. Katalan, galego eta euskaldunak hizkuntza propioaren ezjakitun bihurtu dituan giza-drama irakaskintzaren eraginkortasunaz gainditzeko (49).

Nahiz eta zuzenketa hau 3.3 artikuluari dagokiona izan, (hizkuntza moeta ezbardinak), beste hizkuntzei be aplikatzen jakela esan leiteke.

Fragak, aurkako txandan, 3.3 artikulua hizkuntza moeta ezbardinei

dagokiela baieztatzen dau. Eta euren ofizialtasuna autortzen ez bada, ez ta irakaskintza be (bere ustez, batak bestea dakar). Irakaskintza beharretsi nahi bada, Konstituzioak barik beste lege batzuk erabagiko dabe.

Konstituzio-gaien Batzordearen erizpena Lantaldearen erizpenagaz bat dator oso-osoan.

Zuzenketa eta boto partikularrak gitxiago aurkezten dira eta esanahiari dagokionez Lantaldeari azaldutakoen errepikamena da (50).

1.2.1.5 Diputatuen Kongresoaren Osoko Bilkuran Konstituzio-Egitasmoaren eztabaida.

Letamendia Jaunak bere 64 zb. zuzenketa kendu eta 592 zb. zuzenketaren aldeztzaileekin alkartzen da. Osoko Bilkuran Batzordean erabilitako erizpide eta errazoibideak gogoratzen dira aldaketa txikiren batekin:

592 zb. taldeak hizkuntzen mailakaketa Konstituzioz onartzen dala autortu ondoren, dino:

> "eta egiazko demokrazia baten herrien mailakaketa ez badago, lurraldeetako hizkuntzaren zapalkundean oinarrituta ezin da egon ez onartu hizkuntzen mailakaketa" (51).

Solé Turá Jaunak (697 zb.) Batzordean esandakoak errepikatzen ditu eta Licinio de la Fuente Jaunak (35 zb.) 3.2 artikuluaren azkenean zuzenketa hau sartzen dau "in voce":

> "Autonomiadun Elkarteetan Estatutoak erabagi leike Espainiako beste hizkuntzen erabilera ofiziala,hizkuntza hori ez dakien espainiarrentzat eskubide-gitxitze eta ezbardintasun barik" (52).

Aldeztean, historia eta praktika errazoibide ipinten ditu barriro, ofizialkidetasuna Konstituzioz autortzearen konbenientzia ukatuz. Licinio Jaunaren gehigarriak onartutako eskubideari neurria jartzen deutso. Beste hizkuntzen ofizialtasunari topea: "Ez dakien espainiarrentzat eskubide-gitxitze eta ezbardintasun barik" (53) Peces Barba Jaunak, bere aurkako txandan, Licinioren ardura alperrikakotzat jotzen dau eta beste aldi bateko legeak gogoratzen ditu: "lege hareek 1go artikuluan askatasuna autortzen eben, eta 2. artikuluan askatasunaren mugak jarten ziran" (54). Konstituzioa osoan hartu ezkero (ikus 13,132,133,149 art.) ez dago manu bakoitzean holako ardura beharra.

106 zb.-aren defendatzaileak ama hizkuntzaren eskubidea giza eskubidean oinarritzen jarraitzen dabe. Hortik aparte, Osoko Bilkuran gauza bi azpimarratzen dabez:

a) Katalunian katalanaren bakarreango ofizialtasuna da helburu,

osoan lortzea ez da erreza, baina hortara doa.

b) 106 zb. zuzenketaren esanahi eta edukinari dagokionez, katalanaren irakaskintzak bere eskabide mailak izango ditu bakoitzaren adin eta lurraldean irautea erizpide diralarik. Katalunian aldi baterako dagoan pertsona ez legoke behartuta, eta luzaro irauteko asmoa daukana bai. Erizpide hau adinagaz osotu eta zuzentzen da: eskola garaiko umea behartuta dago gaztelera eta katalana ikastera eta nagusiei ikasteko aukera aurkeztu, baina ezjakitearen errazoirik ez da onartuko, nahiz eta obligazio hori erakundeena izan. 77 eta 451 zb. zuzenketak Osoko Bilkurara ez dakarre gauza barririk (55).

Kataluniako Sozialista Taldeak "in voce" egindako zuzenketa Batzordean aurkeztu zan, baina Osoko Bilkuran oinarritzen dau. Katalanen Parlamentari taldearen, euskaldun Parlamentari taldearen, Komunisten taldearen eta Letamendiaren zuzenketaren alkar batze bat dala esan leiteke zuzenketa hau, eta danak laburbatzeko asmotan aurkezten da.

Kataluniako Sozialisten talde honek bere errazoiak jartzen ditu:

"Konstituzioaren Aurregitasmoaren 3. artikuluak hizkuntza gaiaren batasuna argi ta garbi ebazten dau. Hizkuntzen Konstituzio estatusa erabagiten da, hizkuntzen ofizialtasun bikoitza autortuz, eta hizkuntza moeta ezbardinen begiramen eta babesa onartuz.
3.1 atalean, Estatuko hizkuntza ofiziala gaztelera jarriaz, egiazko egoera azaltzen da. 3.2an be egiazko egoera agertzen da: Estatuko hizkuntza aniztasuna" (56).

Hizkuntza aniztasunaren aurrean, talde honentzat lege neurri bakarra elebitasun ondo parekatu batera daroana da. Arazoaren zailtasunak ikusten ditu, batez be, herrisailak gogotan hartzen ez badau suztatze lana. Hizkuntzen bardintasuna lortzeko Konstituzio autorpenaz gainera, irakaskintzan azpiegitura beharrezkotzat jotzen dau taldeak, eta hori emon eta bermatzea herrisailaren esku ikusten dau. Hori da Kataluniako Sozialista taldearen proposamenaren eskabidea. Bestela ez legoke, 3.1 eta 3.2ren artean parekotasunik. 3.1ean emoten eta eskatzen dana lortzeko neurriak jartzen dira. 3.2an Espainiako beste hizkuntzen ofizialkidetasuna autortzen da, baina ez dau esaten zelan lortu. Laguntza biderik be ez da azaltzen.

Tratamendu bardinean oinarriturik, 3.1ean emoten dana 3.2an be bardin: gaztelera beharrezko bada, beste hizkuntzak be bai. Kataluniako Sozialisten taldea ez dago ezagutu beharra indarrez jartzearen alde. Inposaketa baino, hizkuntza ezagutzeko bideak erraztearen aldeko gehiago da. Talde honen ustetan hizkuntzen parekotasuna zaintzeko herrisaila bakarrik da gai (57).

Kongresoko Osoko Bilkuran onartutako Konstituzio Egitasmoaren Testuan, 3. artikuluko aldaketa bakarra "Autonomiadun Lurraldeetan" ordez, "Autonomiadun Elkarteetan" ipintea da (58).

1.2.2. Senatuan

1.2.2.1. Diputatuen Kongresoaren Osoko Bilkuran onartutako Konstituzio-Egitasmoari zuzenketak.

3. artikuluari aurkeztuta zuzenketak era honetara banandu daitekez:

3.1: 1101, 411, 983 eta 130 zb. zuzenketak.

3.2: 411, 814, 170 eta 10 zb. zuzenketak.

3.3: 411 zb. zuzenketa.

3.1 atalari dagokionez, bi era ezbardin eztabaidatzen dira. Lehenengoa, historia-hizkuntza ikuspegitik agertzen dana, José Camilo Cela eta Trulock (130 zb.) adibidez, era honetara mintzatzen dira:

> "1. Gaztelera edo espainiera da Estatuko hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiak daukie ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea" (59).

Bigarrena, dotrina-zuzenbide ikuspegitik, Rosendo Audet Puncernau Jauna (411 zb.) adibidez (60). Kongresoko 105 zb. zuzenketaren bidetik doa. Monreal Zia Jaunak (983 zb.) aldezten dauana (61), Kongresoko 592 zb. zuzenketaren antzekoa da. Audet eta Monrealen zuzenketak helburuan bardinak dira (hizkuntzen zuzenbidezko bardintasuna), baina euren oinarriak ezbardinak dira.

3.2 atalari dagokionez, bi talde egin daitekez: Bat, helburuari begira, 411,814 eta 170 zb. (62), Autonomiadun Elkarteetako lurraldeetan hizkuntza propioak ezagutu eta irakatsi beharra, gitxienez herrisailarentzat, Konstituzioz autortzen dauana. Bestea, 10 zb., eta azkenean Konstituzioko testua izango dana:

> "Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izango dira Autonomiadun Elkarteetan euron Estatutoen arabera" (63).

3.3 atalari dagokionez, 411 zb. zuzenketa da eztabaidatzen dan bakarra (64). 581 zb. kendu egiten da.

1.2.2.2. Konstituzio-Batzordean eztabaida

Gehiebat Kongresoan erabilitako errazoibideak errepikatzen dira. Senatuan, Batzordearen aurrean azaldutako erizpide eta oinarri barriak azpimarratuko dira bakarrik.

3.1 atalean, Enciso Recio Jaunak (UCD), 706 zb. zuzenketaren bidez (65), "Espainiako batasuna sortu dauan prozesuaren ikasketa gogotan hartzekoa dala aitzen dau. Bere ustez, espainol hizkuntza arrunta Peninsulako beste hizkuntzekin aberastu da, horregaitik jabetasun osoz beste hizkuntzak espainolak dira. 1908an, Unamunok bere idazlanean Su Majestad la Lengua Española idatzitako berbak aitatzen ditu:

> "Espainiako Estatu hizkuntza gaztelera edo espainol hizkuntza da, osorik espainola, eta gainera nazioartekoa eta mundu guztikoa" (66).

Cela Jaunak, Recio Jaunak esanak onartuz, gaztelera eta espainiera hitzak hizkuntzari aplikatzeko bardintsuak dirala dino, espainierak gaztelera barruan daroa, baina gaztelera historian izan dana baino gehiago da espainiera (67).

Benet Morell Jaunak UCD taldearen helburu eta zuzenketen aurka urteten dau:

> "Espainiako hizkuntzen giza-historia, katalanen, gaileguen eta euskaldunen aurkako eragozpen, debeku, imposaketa, irain eta jenozidio asmoz egindako historia da sail haundian behintzat. Zuzenketa honeek politikazko zama haundia daroen agiriko hizkuntza aldaketok, politikan ondoren astunak dakarrez; politikan arazoak konpontzeko gatazkatsu eta alperrikakoak dira, eta konpondu beharrean arazoak sortzeko arriskua dakar zuzenketa honeek onartzeak" (68).

1931ko Gorteetan be, asko eztabaidatu ondoren, gaztelera hitza espainiera hitzaz ordezkatzeko zuzenketa kendu egin zan.

"Gaztelera ez dan Espainiako hizkuntza propioa daben herrietan pertsona asko iraundu dira. Beharbada, gaztelera herrian bertan be bai, bere herriak hizkuntzari emondako izena lapurtzera doazela konturatzen diranean" (69).

1931ko Gorteetan, Mailorkako Gabriel Alomer idazleak, holako zuzenketa separatismoaren suztatzaile (70) lez izendatu eban.

Marcelino Menendez Pelayok, bere liburuan (La Ciencia Española) hauxe idatzi eban:

"Gaztelera-hizkuntzari espainiar hizkuntza deitzea ez jako izan gogoko. Esaldi itxusia eta gure klasikoak gitxitan erabili eben eta gazteleraz idaztea eukien aintzakotzat. Gaztelera lez espainierak dira katalana eta portugesa" (71).

Villar Arregi Jaunak, zuzenketen alde errazoitzen dau:
"Naziotasun edo lurraldeen eta Estatuaren arteko aurkatasunak gainditzea nahi dau Konstituzio honek. Konstituzioaren testuan, 'Estatua' ez dator 'Autonomiadun Elkartearen' aurkako lez, suposatu egiten dau" (72).

Ramón Fernández Torrecillak Sozialisten taldekoak, bere aldetik, Kongresotik etorritako testua babesten dau Espainiako hizkuntza bakar bati espainiera deitzea ezin dalako onartu, eta gainera kontsentsuz egindako testua izateagaitik (73).

Monreal Zia Jaunak, Unamuno ez dau ikusten hizkuntza gaietan eskumenagaz eta manatzaile, ez sikologia aldetik ez deneango ikuspuntutik bere nortasunari begiratuta. Beste askotan lez, Unamunok bere esperientzia oker universalizatu ebala uste dau (74).

Audet Jauna, 411 zb. zuzenketaren alde, nahiz eta poz betea izan ez, zerbait pozago sentitzen da, Egitasmoaren testuan lehenagoko "kristau eraz hitz eizu" edo "Inperioko hizkuntzaz mintzatu zaitez", esaldi harro eta zapaltzaileegandik zerbait aurrera egin dalako.

Baina Audet Jaunarentzat, 3. artikulua idatzita dagoan lez, bardintasunaren aurka doa, gaztelera ez dakienak ezagutzera behartzen ditu, eta gaztelera dakienari Estatuko beste hizkuntzak ezagutu beharra ezarten ez deutsalako. Gainera, gaztelera edozein unetan eta edozein tokitan erabilteko eskubidea diskriminazio barik emoten dau, Estatuko beste hizkuntzen aurka joanaz eta euren txikitasun eta menpetasuna ugarituz. Gazteleraren ofizialtasuna Estatuko Sailentzat izan behar leuke, Autonomiadun Elkarteen lurraldeetan be eurentzat ofiziala. Epe baterako egoera kontutan hartu leiteke. Epe batean gaztelera ofizialkide izan daiteke. Baina epe luzeagora, (eta funtsezkoa da), hizkuntza ofizial bakarra Autonomiadun Elkarteetako hizkuntza propioa da. Ama hizkuntzaren eskubidea, mundu guztiak onartuta daukan pertsonaren berezko eskubidea ezin da ahaztu. Ikusi bere zuzenketaren proposamena (75).

105 zb. zuzenketan lez, katalan honek hizkuntzaren lurraldetasun eredua aldezten dau. Ofizialtasun baldintzatik derrigorrezko ezagutu beharra ondoren lez sortzen danik ez dau autortzen.

Euskaldunen Taldeko Monreal Zia Jauna, 983 zb. zuzenketa aldeztean, errazoi honetan oinarritzen da:

> "Hizkuntzen gaia, Estatuko errealitate sakon, kezkatsu eta arazotsuetarikoa da. Zama eraginkorrez jantzitako arazoa. Konfiantza falta eta minberatasun jarrerak gainditu beharra dago; naziohizkuntzen arazoa folklore hondakin barik, euskaldunontzat behintzat, arazo funtsezkoenetarikoa da. Euskal Herrian Konstituzioaren balio eta legeztasuna neurtzeko test bat izango da 3. artikulua. Gaurko benetakotasuna eta soziolinguistikaren gurariei egokituta agertu behar dau Konstituzio-araubideak. Lehenagoko hizkuntza egoera larriari buruz emonkor agertzen da Konstituzioa eta aurrepena bada, baina bildurti, Estatuko geroko hizkuntza eredua orain artekotik ez dala asko aldenduko bermatuz. Gai honi buruz eraso nahi da: Estatuak naziotasunez ornidutako gizarte anizkorraren oinarri ziurretan segurtatzea nahi badau, egoera anizkorrari dagokiozan arazo eta zorrak onartu behar ditu. Azken hamarkada eta gizaldietako rutina apurtuz, hizkuntza politikagai bihurtzea traumatikoa da. Baina beharrezko trauma. 3.1 artikuluaren 2. atala kentzearen aldeko gara.

Ohibako inposaketa eraz idoro nahi dau ondorena, **ofizialtasunaren** berezko ondoren lez sortuko dala uste da. Estatu osoan ofizialtasuna emotean, herrialde guztien artean gaztelera bihurtzen da beste barik hizkuntzaren komunikabide.

Europako hizkuntza askoko herrietan hizkuntza gehiengotuak lortu ez daben egoera, **konstituzioz segurtatzen jako gaztelerari.** Oso tratamendu eskuzabala [...] **Konparazio mallan epaituta,** ezin da izan mesedegarriagoa, mesedegarriena da [...], asmatu leiteken aldekoena.

Hizkuntzen **Estatu-babesa** neurtzean, lehenengo, gaztelera gizarte osoko hizkuntza 'ofiziala' da, hau da, Estatuarena, Parlamentuarena, Administrazioarena[...] Bigarren, elebitasun egoeran **lehentasuna** dauka. Eta Hirugarren, **babes** moeta guztiak berak pilotzen ditu. Autonomiadun beste lurraldeetako hizkuntzak **baimenaren atarian, babesa ofizialtasunaren posibilitatean, nazio-hizkuntzaren** autorpena aidean [...] nahiz eta Estatutoen betebeharra dala aitu beharko da autorpen hori.

3.1eko autorpena eta Estatutoen autorpen posibilitatea alkartuezinak ete dira?

Hizkuntza gaia arautzean Konstituzioa "ex nihilo"ez da hasten: Zuzenbide konparatuak hainbat ausnargai emoten deusku [...] Suizako egoeratik oso aparte gagoz [...]

Yugoslavia-n, 1963ko Konstituzioak, 42 artikuluan zera dino: 'Yugoslavia-ko herrien hizkuntzak zuzenbidean bardinak dira'. 143 eta 147 artikuluak garatzen dabe bardintasun oinarria [...] Checoslovaquia-ko Konstituzioak, 6. artikuluan baldintza bardinetan bi hizkuntzak ipinten ditu:
1.- Lege eta zuzenbidezko egite orokorretan zuzenbidezko balio bardinagaz erabiliko dira 'eslabiera' eta 'txekera' hizkuntza.
2.- Estatuko sail guztien egiteetan be hizkuntzabiak erabiliko dira indar bardinez.

Errepublikan bizi diran **gitxiengotuek** be, gailego, katalan eta euskaldunok geuretzako nahiko geunken, **Estatutoa daukie** [...]

Legegilearen helburuak nahiko bermatuta geratzen dira, bai berezko soziolinguistika orekagaitik, bai gaztelerearen ofizialta-

sunagaitik [...] beraz atal hori kentzea proposatzen dogu.

Ezagutu beharraren inposaketaz atal hori gehitzea, sobran dago beharrezko ez dalako, eta giza eskubideen definizioren aurkako dalako [...], eta Estatutoen garaian inkonbenientziak eta arazo gogorrak ekarriko ditualako. Batzorde honek Estatu-erizpideekin jokatu behar dau, eta Estatuko eraketa zuzenaren **eragozpenak aurrikusi eta kendu behar ditu ardurakizunez**" (76).

Zuzenketa hau, Kongresoko 592 zn.-agaz bat dator, baina zehaztasun aberasgarriak dakarz: artikuluaren azterketa, zuzenbide konparatua, geroko arazoak aurrikustea e.a.

771 zb. zuzenketa aldeztean, Entesa dels Catalans Jaunak Autonomiadun Elkarteetan hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko ardurakizuna Herrisailari emoten deutso (77).

Talde honentzat, 3.2 artikuluak **beste barik** autonomiadun hizkuntzen ofizialtasuna bakarrik ikusten dau. Ofizialtasunaren pratikarako garantia beharrizana, askatasun eta bardintasun eskabide lez agertzen da. Konbibentzirako oso egokia da zuzenketa hau: Ahalik gehien beste hizkuntza jakitea. Baina ez jako inori ezer eskatzen. Autonomiadun Elkartea da bakarrik bere buruari eskatu behar leuskiona. Herritarrentzat askatasuna goi-mailan jartzeko urtenbidea izango litzateke.

Autonomiadun lurraldeetan bertako hizkuntza ahalik gehien ezagutu eta erabilteak bere helburua dauka: alkarren aurkako Elkarte bi sortzeko arriskua kentzea.

814 zb. zuzenketa aldeztean, Francisco Candel Tortajada Jaunak, hizkuntzaren gaia arazo **gizatiar** lez erabilten dau, zuzenketa baino atalaren **errazoizko zehazketa soila gehiago dalarik** (78).

Autonomiadun Elkarte batzuetan, gazteleraz gain, hizkuntza batzuk ofizialak diranez Konstituzioak onartzen dauan lez, euren irakaskuntza erreztzea Herrisailen betebeharra dala Konstituzioan adierazotea beharrezkotzat joten dau

Candel Jaunak.

Eta jarraian dino:

"Kanpoan jaio eta Elkarteko hizkuntza ezagutzen ez dauan biztanlegoarentzat askoz be beharrezkoagoa da betebehar hau, hau da Kataluniako kasua [...]

Oraintsu egindako ikerketa adierazle, ehuneko asko dira katalanez ulertzen dabenak, bestalde kanpotarren artean benetako 'ghettoak' eginaz katalanez ulertzeke dagozan porzentaiak harritzekoak dira. Harritzekoa da, eskualdeetan familia-hizkuntza lez gaztelera daukan biztanlegoaren zenbaki izugarria be eta honeek izan dira katalan irakasteko eskari gogorrenak zuzendu dabezanak. Espainiako alderdi guztietatik etorri eta katalunian kokaturiko biztanlego honek aukeratuta nagoan Senatorea nazela ondo dakit. Nere aukeratzaileen eskubide eta gurariak aurkeztu besterik ez dodaz egiten zuzenketa honen bidez.

Etorkinei, orain inoiz baino gehiago, eragozpenak baztertu eta hizkuntza ikasteko erreztasunak emon behar jakez. Hizkuntzaren erabilerari buruz aukera bardinak sortu, jaiotzezko diskriminazioa kentzen ahalegindu, gogoaren aurkako diskriminazioa izan arren, eta beraren mende jarraitzeko gogorik izan ez, baten bat garaiz salbatzera heltzen ez bada, gure herrian garapen-indarrak diskriminazioari eutsiko deutso" (79).

Benet Morell Jaunak, Candel Jaunak esana onartuz, zuzenketa hau ez onartzeak zer suposatuko leuken adierazoten dau:

"Zuzenketa hau ez onartzea, Galizia, Katalunia eta Euskadiko etorkinei bizi izatera behartuak izan diran lurraldeetako hizkuntza ezagutu eta hizkuntza **eskubidea erabiltea ukatzea** beste da. Eskubideen autorpenak teori mailan iraungo leuke. Etorkinak 2. mailako herritar izan eta diskriminazio zigorra ezartea da zuzenketa hau ukatzea. Aurkako izan daitekezan komunitate ezbardin bi sortzeko aukera erreztea be izan leiteke" (80).

Sánchez de Agesta Jaunak Candelen zuzenketaren espiritua gogoko dau.

Baina Konstituzioko koka-lekua ez dau egoki ikusten. Hezkuntzarekiko Estatuaren betebeharrak dakarzan 143.28 artikulua litzateke bere lekua, eta zuzentzaren oinarriari dagokio. Espainiako Estatuak gaztelera ezagutu beharra jartzen badau, berari dagokio laguntza; Autonomiadun lurraldeetako hizkuntzen ofizialtasuna autortzen badau, berari dagokio hizkuntza honeek ezagutzeko eraketa eta laguntza (81).

Benet Morell Jaunak zuzenketa honen leku-aldaketa ez deutso onartzen Sánchez Agesta Jaunari. "Etorkin honeen eskubideak autortzeko lekua hauxe da. Bestela, azaleko eraz onartuak izan arren, herrisailak benetan egundo ez leukez hartuko" (82).

10 zb. zuzenketa gramatikazkoa da. "Euren" izenlagunak Estatutoei barik autonomiadun Elkarteei laguntzea. (Zuzenketa hau Batzordeak onartzen dau.) (83)

3.3 artikuluari dagokionez, 411 zb. zuzenketan Audet Jaunak zera esaten dau:

> "Gaztelera ez dan beste hizkuntzentzat Estatuaren egiazko aitakeriaren adierazpena dakar: begiramen eta babes berezia. Katalanori esaldi honek folklorikoa dala emoten deusku belarrira, edo ICONAk egiten dauan antzera, gordekizuna. Babesari buruz jardutea ez da nahiko, babes-bideak eta erak zehaztu egin behar dira" (84).

Azkarate Florez Jauna, 580 zb., (gero baztertu egingo eban) 3.3 atala kentzearen aldeko agertzen da. Hara hemen bere azalpena:

> "Gailegoa, katalana eta euskera salbuespen dirala, Espainiako hizkuntza moeta ezbardin guztiak zaindu eta babesten hasten bagara, urte gitxi barru beharbada zuek dakizuen Babelgo Torrea Espainian agertuko jaku" (85).

1.2.2.2. Konstituzio Batzordearen erizpidea

Senatuko Konstituzio-gaien Batzordeak onartutako testua hauxe da:

3. artikulua.

"3.1. Gaztelera edo espainiera da Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek daukie ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea.

3.2. Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izango dira euren Autonomiadun Elkarteetan euron Estatutoen arabera.

3.3. Espainiako hizkuntza moeta ezbardinen aberastasuna, kultur ondare bat da eta begiramen berezia eta babesa izango dau" (86).

130 eta 10 zb. zuzenketen ikutuak dagoz, eta Kongresoan onartutako testua zerbait aldatu da Senatuan 3.1 eta 3.2 ataletan.

1.2.2.3. Senatuko Osoko Bilkuran Konstituzio Egitasmoaren eztabaida eta proposatzen diran aldaketak.

1978-09-26ko bilkuran, boto partikularretan erabilten diran agerpen, helburu eta aldezteak Batzordean erabilitako errazoiekin bat datoz gehien bat. "Ex novo" agertutako ikuspegi eta alderdiak laburtuko ditugu.

31 zb. (983 zb. zuzenketa) boto partikularra aldeztean Monreal Zia Jaunaren abiapuntua 3.1 artikulua da:

> "Espainiar guztiak daukie ezagutu beharra (gaztelera) eta erabilteko eskubidea. Zuzenbide konparatuan holango adierazpenik ez dago [...] Hizkuntzen babeserako diskriminazio era bat erabagiten da [...] Giza eskubideen definizio guztien aurka dator manu hori [...]
>
> Espainiako Estatua hizkuntza aniztasunez ornidutako gizartea dala ukatu ezina da. Gaztelerean barik beste hizkuntzetan be elebakarrak dagozala ez da salbuespen. Konstituzioaren lege tratamendua eskatzen dau egoera honek.
>
> Azken 40 urteotakoa eta Konstituzioak hizkuntzagitxiengotuentzat nahi dauan lege-tratamendua ezbardinak dira. Jazarpen eta zapalkuntzak ez ditu lortu aginteak nahi izan dituan ondorenak, aurkakoak baino: hizkuntza propioaren identitate kontzientzia bizi eta gogorra sortu da, eta hizkuntza honeek berbiztzeko borondate sutsua. Hizkuntza honeek, hizkuntza sisteman Unibersitateraino sartu dira. Ez dago galga ipinterik, ez geratzerik [...] aurrera egin behar da. Egoera haukontutan hartuta, eta Konstituzioak dagokion tratamendua emoteari ezin deutso uko egin. Kongresoko eta Senatuko Egunerokoak aztertu ezkero, hizkuntza egoera hau danak onartzen dabenik ezin da esan. Jazarpen eta zapaltze aukeratik gatoz, lagatze edo toleratze aukerara pasatzeko [...] eta konstituzioa oker honetan jausi leiteke. Estatuak gazteleragaz beste hizkuntza danak iruntsitzeko hizkuntza politika onartuta itziko geunke.
>
> Gure ustez, Konstituzioak egiazko oreka eta hizkuntzen bakezko alkar bizitzarako era bilatu behar dau. "A priori"

Konstituzioak 2. mailako hizkuntzak eratzen baditu, 2. mailako Elkarteak be sortzen ditu.

Gure bidea, giza eskubideetan, Estatuko herrien soziolinguistikan eta gizartearen eraginak dituan gurarietan oinarrituta dago" (87).

Audet Puncernau Jaunak be, bere hizkuntzaren aldeko errazoibideak azaltzen ditu:

"Katalanok geure adierazpenerako hizkuntza propioaren jabe gara. Gure sentimentu eta pentsamentuak agertzeko identifikatzen gara hizkuntzaz. Beste hizkuntza bat, gaztelera bera, erabili beharra daukagunean, adierazpenerako eragozpenez betetzen gaitu.

Geurea ez dan hizkuntzara itzultzera behartzen gaitu. 40 urteko gazteleraren inposaketa osoak, egoera ez dau aldatu [...] Munduko Nazio arteko erakundeak onarturiko giza eskubidea bakarrik ez da, geurea ez dan beste hizkuntzan adierazo beharrak sortzen deuskun bereizketa, aurkako eragozpena be bada. Konstituzioko Egitasmoan agertzen dan gazteleraren aldeko mesedekeriak gogaituta gaukaz, beste hizkuntzenganako baztertzea suposatzen daualarik.

Gazteleradunek ez daukie beste hizkuntzak ikasi beharrik beraz beste hizkuntzak menpeko eta gitxiengotuak geratzen dira" (88).

Audet Jaunak 3.3ko aitakerizko, alperrikako eta zehaztubako adierazpenak kentzea eskatzen dau. Eta honela oinarritzen ditu bere eskabideak:

"Hizkuntzaren benetako babes bakarra askatasunaz erabilteko eskubidea da, batez be Administrazioan eta irakaskintzan. Mundu osoan onartzen dan giza banakoaren berezko eskubidea ez ukatzea besterik ez litzateke, baina zoritxarrez gure Konstituzio Egitasmoan inun be ez dager" (89).

Carazo Hernández Jaunak lurraldeetako paperak hizkuntza bakarrean agertzea ez dau ondo ikusten (90).

Rubies Garrofe andreak alderantziz, hizkuntza ezbardin eta kulturen aldeko begiramen eta ezaugarria baikortzat joten ditu, espainiera hitza kentzea eskatzen dau, eta gaztelerak beste hizkuntzen lekua hartzeko eskubiderik ez daukala dino:

> "Estatuko kultura eta hizkuntza ezbardinetako herrialdeetan alkarren arteko konbibentziari eta begiramenari lapurtzen deutsolako, Espainiako Konstituzioak kultura eta hizkuntzentzat lekua euki behar dau, eta batek ezin dau beste guztien lekua hartu. Badakigu gaztelera 300 miloi hiztunek darabilela, baina ez da gure hizkuntza" (91).

Senatuak Osoko Bilkuran proposatutako aldaketak

3. artikulua

130 zb. zuzenketak 3.1 artikuluari egindakoa, eta 10 zb. zuzenketak 3.2-ari egindakoa, biak Batzordean aurkeztu eta onartuak dira, zuzenketekin azken testua honela geratzen dalarik:

> "1.- Gaztelera edo espainiera da Estatuko hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek daukie ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea.
>
> 2.- Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izango dira euren Autonomiadun Elkarteetan euron Estatutoen arabera.
>
> 3.- (Idazkera bardina)" (92).

1.2.3. Batzorde Mistoan

1.2.3.1. Batzorde Mistoaren erizpena.

Batzorde Mistoak emondako 3. artikuluaren testua hauxe da:

> "1. Gaztelera da Estatuko espainol hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek daukie ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea.
>
> 2. Beste espainol hizkuntzak be ofizialak izango dira euron Autonomiadun Elkarteetan euron Estatutoen arabera.
>
> 3. Espainiako beste hizkuntza moeta ezbardinen aberastasuna kultur ondare bat da, eta begiramen berezia eta babesa izango dau" (93).

Senatuak bialdutako testutik idazkera barri honetara bi aldaketa onartzen dira. Lehenen, "gaztelera edo espainiera" ipini beharrean, "espainiera" kendu ta "gaztelera" bakarrik doa. 1930eko Konstituzioa eta aurkakoen eritziak gogotan harturik.

Bigarren, Estatuko hizkuntza ofizialari "espainol" izenlaguna emon deutsie 3.1-ean. Eta 3.2-an "Espainiako" hitzaren ordez, "espainol" hizkuntza jarri dabe. Konstituzio osoan lez, ezkutuan bada be, manu eraren giroa agertzen da, erizpide ezbardinak bateratzeko asmotan. "Espainiera" kendu, baina gaztelera "espainol" bihurtzen da. Beste hizkuntzentzat be, historia-hizkuntzazko errazoibideak zelan halan, ez dira baztertzen.

1.2.4. Ondoren-gisa

1.2.4.1. Hizkuntzaren babes-ereduak

Hizkuntzaren babes-ereduak, helburuei dagokionez batzuetan bat etorri arren, errazoibide eta oinarri ezbardinen bidez aurkezten dira.

Kongresoan agertutako ereduak laburtu eta taldekatuz, honeexek bilatzen dira:

1.- Mailakaketa babesa dauan eredua. Hiru maila ditu: Lehengo mailan gaztelera aurkitzen da, bigarrenean katalana, euskera eta gailegoa, eta hirugarrenean, hizkuntza moeta ezbardinak. Gaztelera goi-mailako babesduna, bera erabilteko eskubidea dago eta bera ezagutu beharra Konstituzioz manatzen da. Bigarren mailan, Espainiako beste hizkuntzak ofizialkide izateko posibilitatea onartzen da. Hirugarren mailan sartzen diranak suztatze bidez babestzen dira.

2.- Bigarren babes eredua, maila ezbardin biren bidez eratzen da. Lehenengoan, gaztelera, katalana, euskera eta gailegoa onartuko lirake. Hizkuntza talde honentzat zuzenbidezko tratamendu bardina eskatzen da, hau da, erabilteko eskubidea eta ofizialtasunetik sortzen jaken ezagutu beharra. 2. mailan hizkuntza moeta ezbardinak (aranesa, panochoa, bablea, e.a.), bultzatze eta suztatze bidez babestuz. 64, 592 eta 593 zb. zuzenketei dagokien eredua da.

3.- Hirugarren babes ereduak be maila bi izango leukez, baina bakoitzean edukin eta esanahi ezbardinaz. Lehenengo maila gaztelerak, katalanak, gailegoak eta euskerak orniduko leukie. Erabilteko eskubide aldetik eta ezagutu beharretik hizkuntza honen babesa bardina izango litzateke, baina lurraldeei begira babes ezbardinaz.

Hizkuntza propiodun Autonomiadun Elkarteetan bakarrengo hizkuntza ofiziala, hizkuntza propioa izango da, gaztelera Estatuko herrisailarentzat eta aldi baterako bakarrik geratuz. Hizkuntzaren ezbardintasuna ez daben Autonomiadun Elkarteetan, gaztelerak tratamendu bardina izango leuke. Hizkuntza moeta ezbardinentzat izango litzateke 2. maila, baina bultzatze eta suztatze hutsaz bakarrik ez, "euren egiazko erabilpena" (94) eskatzen da. 105 zb. zuzenketak babestzen dau eredu hau. Eztabaidatua izan arren, gero kendu egin zan.

4.- Goi mailako babesagaz (eskubide eta betebehar) 4. eredua, bai gaztelera ta bai beste hizkuntzak, autorpen inposaketa Konstituzioz manatuta,

hizkuntza propiodun Autonomiadun Elkarteetan herriko hizkuntza ofizialak ezagutzera beharturik. Beste maila baten babes txikiagoagaz, hizkuntza moeta ezbardinak, begiramen eta babes eskubideagaz bakarrik. 106 zb. zuzenketari dagokio, 105 zb. zuzenketaren aukera lez aurkeztu eben katalanak (GMC) (95).

5.- Bosgarren ereduak be maila bi bereizten ditu. Lehenengoan, gaztelera eta Espainiako beste hizkuntzak sartzen dira. Erabilteko eskubidea eta ezagutu beharra dabez babes. Ezagutu beharra era ezbardinez manatzen da: gaztelera Konstituzioz autortu eta inposatzen da, beste hizkuntzak ezagutu beharra Konstituzioz herrisailari manatzen jako betebehar hori egiaztatzea. Testuan agertu ez arren, manatze era bat da, eta Konstituzioko 3. artikuluari buruzko eztabaidan hizlarien gehiengoaren gogotan artikuluaren orientabide giroa egoan, orientabidearen zehaztasunak Estatuto-garairako itziaz.

Bigarren mailan hizkuntza moeta ezbardinak batzen dauazan babesa. Baina babes eraginkorra. Batez be, Kataluniako Sozialistak "in voce" aurkeztutako zuzenketari dagokio, baina beste batzuen erizpideak be batzen ditu (96).

6.- 736 eta 779 zb. zuzenketakin beste eredu bat ornidu geinke. 779 zb.-ak (ez da eztabaidatzen) APren mailakaketa aldeztzen dau, 4. atala ezarrita. 1931ko Konstituzioko 4. artikuluaren errepikamen hutsa da 4. atal hori. 736 zb. zuzenketa eztabaidatzen da, 4. atala kentzen dau, hiru mailako babesa nahi dau, eta nahiz eta ezetz esan azalpenetan APren ereduaren antzekoa da.

7.- Maila bakar bateko babes-eredua. Bai eskubidean eta bai betebeharrean, bai hizkuntzentzat eta bai hizkuntza moeta ezbardientzat. Ezbardintasunak lurraldeak ezartzen ditu. Ereduaren eztabaidan, hizkuntzen egoera ezbardinaz jabetu ziran hizlari gehienak. Batzuk egoera horregaz jarraitzea nahi eben, beste batzuk zuzenbidezko tratamendu bardina ipintea, eta hirugarren beste batzuk ama hizkuntzak dauan giza eskubidean oinarrituta egoera ezbardina apurtzea eben gogoko (97).

8.- 105, 592 eta 64 zb. zuzenketekin badau zerikusia babes-eredu honek, baina batez be komunisten (GPC) 697 zb. zuzenketarena da. Eredu honek gaztelerarentzat eta beste hizkuntzentzat babes eredu bakarra eta bardina eskatzen dau, Konstituzioan eztabaidakortasunak kentzeko zuzenbidezko idazkeraz manatuta eta hizkuntza moeta ezbardinak suztatze eraz babesten ditu.

Kongresoan hainbat eredu eztabaidatzen dira, baina eztabaida, bi era ezbardinetan kokatzen da, eta azkenean, nahiz eta idazkera aldatu barik geratu, 3. artikuluaren hizlari gehienak espiritu eta kontsentsu baten bateratzen dira.

Senatuan, ereduak bardinak dira eta errazoibideak aberatsagoak. Azken ondorena be antzekoa da. Idazkeran ez zan agertu, baina artikuluaren esanahia kontsentsuatua izan zalakotan egozan Konstituziogileak.

Eredu barri batzuk be aurkezten ziran. Esate baterako, 445 zb. zuzenketa, Lluis María Xirinacs i Damians (GM) Jaunak lurraldetasun hutsa nahi eban hizkuntzaren babesarako. Ez zan ez-tabaidatu, baina Rubies Garrofé andrearen hitzetan, zeharka besterik ez bada be, azaldu zan (98).

Eredu honeek, kontsentsuan bateratzeko asmotan, baztertuak izan ziran.

1.2.4.2. Erizpideak

Ikusi danez, batzuentzat, zuzenbide konparatu aldetik, konstituzio eta zuzenbidezko ikuspuntutik hizkuntzaren ofizialtasuna autortzeak, erabilteko eskubidea eta ezagutu beharra eskatzen ditu.

Beste batzuentzat, historiaren ikuspuntutik hartuta, beste batzuekin bizi bada, hizkuntzaren ofizialtasunak, ofizialkidetasuna egiaztatuko bada, laguntza-bideak behar ditu. Zuzenbidezko bardintasuna lortzeko, zuzenbidezko era hutsak ez dira nahiko.

Ikuspegi bietan antzerako oinarria bilatzen da: giza-eskubidea, ama hizkuntzak norbanakoari emoten deutson eskubidea. Baina giza eskubide honen esanahi, eduki eta neurriak ez dira bardinak legebiltzarkideentzat. Batzuk Konstituzioko beste edozein giza eskubideri dagokion lege tratamendu bardina eskatuko dabe. Beste batzuk, giza eskubidearen onarpenetik betebeharrera bitartea ikusiko dabe, eta giza eskubide batzuk onartu arren ez dira burutzen, beste giza eskubideekin aurkitzen diranean maila eta neurriak jartzen diralako. Beste askok, hizkuntzaren giza eskubideak eta bere ondorenak azkeneraino, bardintasunean, jagon nahi dabez. Bestela herritarrentzat diskriminazioa sortuko litzateke. Eta ez hori bakarrik, batez be historia errazoi dala, giza eskubideen egiazko bardintasuna gorde nahi bada, hizkuntza batzuen zuzenbidezko tratamendua indartu behar da.

10.2 artikulua eztabaidatzean erizpide bardinak agertzen dira. Han be, egiaztatze era bat segurtatzea bilatzen ibiliko dira.

Eskubide eta betebeharraren artean etena (banaketa) sortzen da. Eskubidea hizkuntza guztientzat onartzen da, baina ez ezagutu beharra. Ezagutu beharra gaztelerarentzat bakarrik manatzen da.

1.3 HIZKUNTZEN OFIZIALTASUN BIKOITZAREN AUTORPENA ETA GAZTELERA EZAGUTU BEHARRA

1.3.1 Gaztelera, Estatuko Hizkuntza Ofiziala

1.3.2 Bardintasun egoera

1.3.3 Ezagutu beharra

1.3.4 Diskriminazioa

1.3.- OFIZIALTASUN BIKOITZAREN AUTORPENA ETA GAZTELERA EZAGUTU BEHARRA.

1.3.1. Gaztelera, Estatuko Hizkuntza Ofiziala

> "Estatuko hizkuntza ofiziala lez gazteleraren Konstituzio autorpenak zalantzarik ez dau sortzen. Konstituzioaren 3.1 artikuluko gazteleraren autorpena zentzu zabalean hartu behar da, autonomiadun Elkarteak barruan ditualarik. Hau da, gaztelera Estatu osoaren hizkuntza ofiziala danez, autonomiadun Elkarte bakoitzarena be bada" (99).

Lurralde ikuspegitik, hizkuntza ofizialtasunari dagokion Espainia-Estatuko gaurko egoera, ofizialtasun eredu bikoitzean oinarritzen da: gazteleran, Estatuko lurralde osoan zabalduz, eta ofizialak diran beste hizkuntzetan, lurralde batzuetara helduz.

Puig i Salellasek dinoanez, Oinarrizko manua EKko 3. artikulua da eta, hasieratik esan behar da gazteleraren ofizialtasuna zuzenean ez dauala autortzen. 3.1 artikuluak gaztelera ofiziala dala uste dau, baina zentzu hertsian, ez dau berariz baiezten. Estatuko Administrazioaren hizkuntza propioa dala adierazoten dau bakarrik (100).

Manu honi buruz ez dira falta beste ulerkera mota batzuk. Gaztelera ez da Estatuaren hizkuntza ofiziala bakarrik. Baita be, eta aurretik gainera, hizkuntza ofiziala da Estatu osoan. Bestela, osoan ez balitz, lurralde batzuetan ez litzateke izango. Gaztelera ezagutu beharrak eta erabilteko eskubideak be ofizialtasunera garoaz. 3.1 artikuluko manuak (ezagutu beharrak) eta eskubideak (erabilteko eskubideak) osotzen dabe ofizialtasunaren konzeptua. Eta 3.2ko Espainiako beste hizkuntzak ofizialak ez litzatekez izango, gaztelera aurretik eta bardin ofiziala ez balitz.

Baina gaztelera Estatuko hizkuntza ofizial bakarra ez da, hizkuntza ofizialetariko bat baino. Bestela, 3. artikuluak dinoan beste hizkuntzen ofizialtasunak lekurik ez leuke eukiko.

1.3.1. Gaztelera, Estatuko Hizkuntza Ofiziala

Bere zuzenbidezko ondorenak errazoi diralarik, ofiziala da garrantzizko hitza. Egia esan, ez gure artean ez zuzenbide konparatuan ofiziala hitzaren esanahi argia eta osoa bilatzea ez da erreza.

EKko 3.1 artikuluaren auzi jokabide ulerkeran oinarriturik, Estatuko hizkuntzaren ofizialtasunak zera esan nahi dau:

Lege eta arauak hizkuntza ofizialean argitaratu behar dirala, hizkuntza berberean ekintzak idatzi eta iragarri, eta Legebiltzar eta Auzitegietan erabiliko dala hizkuntza ofizial hori (101).

Gainera, herritarrak herrisailagaz erabili beharko dabena, hizkuntza ofiziala izango da.

Baina hizkuntza ofizialaren berezitasunak hor ez dira amaitzen, eta ondorio praktiko asko dakarrez:

Estatuko Erakundeen ekintza eta akordioak, gazteleraz gainera beste hizkuntza bat daben lurraldeetan be, gazteleraz erabagi, idatzi, aitzen emon eta argitaratu beharko dabez. Eta Estatuko erakundeekin hartuemonak izateko manatzaileak eta herrisailak erabili behar daben hizkuntza, ofiziala izango da beti. Gainera gaztelera ez dan beste hizkuntza ofizial bat daben autonomiadun Elkarteetan be, bertako ez diran manatzaile eta erakunde publikoekiko hartuemonetan gaztelera erabili behar da (102).

Hizkuntza propioa ofiziala daben autonomiadun Elkarteetan, gaztelera zein euren hizkuntza propioa edozeinek erabili daike (103).

Puig i Salellasentzat zentzun hertsian, gaztelera hizkuntza ofiziala dalako, Estatuaren nazioarteko hartuemonak be gazteleraz egingo dira, Kataluniako Estatutoko 27.4 artikulua, eta Galiziako Estatutoko 7.2 artikulua salbuespen diralarik (104).

Ofizialtasun bikoitzaren lurraldeetan, Estatuko Administrazioak eragin-

kortasun osoagaz hizkuntza propioa erabilteko eragozpenik ez dauka, eta edozein herritar aurkeztu daiteke hizkuntza propioan erakunde horren aurrean.

Auzi jokabidearen eritxiz, eskubide honetan Estatuko Admistraziotik epaigintza-ahalera igarotzerik ez dago. 1981-07-28ko epaiak bere 5. ZOan hori adierazoten dau (105). Baina, Joseph Puig i Salellas-en ustean, autonomiadun Elkarteetan Epaigintza-ahalmena lurraldeko hizkuntza araubidearen menpe legoke, eta E.A.L.O.ko 231.1 artikuluaren lehentasuna baztertu behar da (106).

Ildo honetatik, funtzionarien lurralde hizkuntza ezagutu beharraren aurka agertzen danean, Auzitegi Gorenaren jokabidea kontutan hartzeko da. 1985-01-25, 1984-05-03 eta 1984-09-27ko epaiak, eta 1985-03-05ekoa aztertuta, Estatuan gaztelera-raren ofizialtasuna besterik ez dagoala dirudi.

Konstituzioak "beste hizkuntzak be ofizialak izango dira euren autonomiadun Elkarteetan" (107) dinoanean, gazteleraren ofizialtasunaren antzera, era bardinean ulertu behar da beste hizkuntzen ofizialtasuna.

Konstituzio eztabaidan agiri danez, autonomiadun Elkarteetaz dihardua-nean, lurralde zentzun argia emoten deutsiee (108).

Konstituzio Auzitegiak be arazoa nabaria eta eztabaidaezina dala ulertu dau (109).

Milian i Massanaren eritxiz, Autonomiadun Elkarteetako hizkuntza propioen ofizialtasuna be euren lurraldeetan Konstituzio-testuak bere 3.2 artikuluan zuzenean manatzen dau. Ofizialtasunaren autorpena manatu egiten da, eta Konstitu-zioak, aipaturiko 3.2 atalean, ofizialtasun bikoitzaren posibilitatea barik, egiazko ezar-pena dakar zuzenbidezko araubidera (110).

1.3.2 Bardintasun egoera

3. artikuluan, hizkuntza biren ofizialtasuna daben herrialdeetan, Estatuko gaurko hizkuntza ofizialtasun bikoitza bardintasun ideiaren girotan ekoizten da (111).

Ofizialtasun bikoizdun lurraldeetan hizkuntza ofizialen egoera parekatua da. 3. artikuluko "be" hitzak besterik ez dau azaltzen. Parekotasunak teori mailatik praktikara igarotzean, hizkuntzarekiko bi baldintza dakarz aldean:

a) Autonomia, hau da, hizkuntza bera bakarrik da nahiko ofiziala izateko. Autonomiadun Elkarteak bere egoerari begira asmo hori hartzen ez badau ez dauka testuak bikoiztu beharrik be.

b) Banandu ezina. Autonomiadun Elkartearen lurralde osoan hizkuntza bakoitza ofiziala da, eta ekintza guztietan, salbuespen barik (112).

Konstituzio-testutik aldendu barik, ofizialtasun bikoitzaren bardintasunari buruz zehaztasun batzuk ezartea ez da txarto etorriko. Historia aldetik, gazteleraren ofizialtasuna euskera, katalan eta gailegoa baino aurreragotik dator. Konstituzioak, gazteleraren ofizialtasunari eutsi egiten deutso, eta beste hizkuntzen ofizialtasuna iragarri egiten dau bakarrik, eta ofizialtasun mailak aldi bitan helduko dira: lehenengoan Konstituzioak beste hizkuntzen ofizialtasuna iragarri bakarrik egiten dau, eta bigarrenean Estatutoak autortu behar dau ofizialtasuna (113).

Dana dala, aurreko hizkuntza bakartiaren (gaztelera) inguru-giroan 3.2 artikuluko manuak, ofizialtasuna ez bada be, aldaketa sakona sortu dau Estatutoen bidez hizkuntzen ofizialtasun bikoitza onartzerakoan (114).

Geografia aldetik, hizkuntzaren ofizialtasunari dagokionez hizkuntza ofizialen egoera bikoitza sortzen da: Estatuko lurralde batzuetan gaztelera da hizkuntza ofizial bakarra, eta autonomiadun Elkarteetako lurraldeetan beste hizkuntza bategaz batera da ofiziala (115).

Ofizialtasun bikoitzaren egoera honen inguruan arazoak sortu daitekez; adibidez, euskeraz idatzitako agiriak bere lurraldetik kanpora urtetan dauanean zein

eraginkortasun dauka? Itzulpena nahiko al da, eta itzulpen hori zein lekutan egin behar da? Puig i Salellasen ustez agiria hartzen dan tokian bertan (116).

Ofizialtasun aldetik, 3. artikulu horrek gazteleraren ofizialtasuna suposatzen dau, eta beste hizkuntzena iragarten.

Ezagutu beharraren aldetik, gaztelera ezagutzea manatu egiten dau eta beste hizkuntzen ezagumen eta ikasi beharrari buruz ezertxo be ez dino, eta ez dauka zertan esanik be Estatutoen arazoa dalako.

Bardintasun edo ezbardintasuna aztertzeko orduan Konstituzioa eta Estatutoak kontutan hartu behar dira, eta hizkuntzaren ofizialtasun bikoitzaren arazoa ikuspegi orokorrean aztertzea da komenigarri. Konstituzioaren 3.2 artikuluak Espainiako beste hizkuntzen ofizialtasuna iragarten dau euren autonomiadun Elkarteetako "Estatutoen arabera" 3.3 atalean "hizkuntza moeta ezbardinentzat begiramen berezia eta babesa" manatzen dau.

Beraz, ikuspegi alderdikoietatik urten eta jokoan dagozan manu guztiak ikusi barik ezin da ikerketa konfidagarririk egin. Batez be, Konstituzioko 3. artikuluak Estatutoen alde sartzen dauan erreferentzia une baten be ezin da baztertu. Hizkuntzaren jabetasun konzetuagaz dabil, eta Salellas Jaunak hizkuntza propioaren identitate eta jaiotza lurraldean gaztelerarena baino aurrerakoiagoa dala uste dau (117).

1.3.3. Ezagutu beharra

EKko 3. artikuluaren lehengo atala beste asaldi bategaz osotzen da: "Espainiar guztiek daukie (gaztelera) ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea" (118).

Konstituzio-manu hau ondo ikastea beharrezkoa da. Gazteleraren lehentasuna aldezteko jurisprudenziak darabilan errazoibideetariko bat da, eta bide batez, hizkuntza propiodun autonomiadun Elkarteetan funtzionariei lurralde horretako hizkuntza berezia ezagutu beharra gitxitzeko.

Salellasek EKko 3.1 artikuluko manu-zentzuna hizkuntza baten ofizialtasunari dagokion lez ulertu behar dala agertu ondoren, hau dino:

> "Zentzu hertsian, manu hori ez betetzea, zigortu behar dan obligazioa ez da behintzat. Gitxiago oraindik, erabili nahi dan hizkuntza (gaztelera) beste lagunak ez badaki, gaztelera erabili beharra dagoala ulertzea" (119).

Gaztelera ezagutu beharrari indarra emoten jakon neurrian sortuko litzateke arazoa eta burruka. Gainera, bere borondatearen aurka hizkuntza inor ezagutu ta ikastera behartzea ez da komeni, bakoitzaren eskubideen aurka ezin dalako jokatu.

Konstituzio-Auzitegiak autortzen dauan lez (120), hizkuntzari ofizialtasuna emoteak, herrisail ta herritarren arteko komunikabide lez herrisailak onartzen dauala adierazoten dau, eta hori zuzenbidezko ondorio eta baliotasun osoaz. Ofizialtasunaren aurka ezin da ezezagutzearen errazoibidea balioz agertu (121).

Baina Espainiako hizkuntza sisteman, hizkuntza baten ofizialtasunaren autorpenak ez dakar beste barik ezezagutzearen errazoibidea balioz agertzeko eskubidea (122).

Konstituzioak, 3.1 artikuluan, gazteleraren Estatuko ofizialtasuna autortu ondoren, espainiar guztiei erabilteko eskubideagaz batera itxura baten, gaztelera ezagutu beharra ezartzen deutsie.

Baina E. Konstituzioko 3.1 artikuluak dakarren gaztelera ezagutu eta jakin beharra, Konstituzioko beste manuen modukoa ez da zentzu hertsian, beste era berezi batekoa dala emoten dau. Herritarren aldetik, gaztelera "jakintzat hartzen dala" (123) besterik ez dau suposatzen, eta herritarren ezezagutzearen errazoibidea balioz agertzeko bideak zarratzen ditu (124) ofizialtasunak, gaztelera dala Estatuko hizkuntza ofiziala eta espainiar guztiak jakiteko daben obligazinoa eta erabilteko eskubidea aldarrikatzen ditu.

Nahiz eta Konstituzioz gaztelera jakitera behartzearen aurkakoak egon, errepikatze bat zalako edo ta beste Espainiako hizkuntzen aurrean diskriminazioa egiten zalako, Konstituziogile danak etorzan bat honetan: hizkuntza ofiziala egitean jakin beharra sortzen dala, edo behintzat ezin dala ez dala ezagutzen esan.

Hizkuntza ofizialean egindako idatzi edo iragarpenen aurka ezingo dau inork ezezagutzea balioz errazoitzat hartu, ezta ofiziala ez dan hizkuntza herrisailagaz erabili be.

Ofizialtasunak herrisailen arteko, eta honeen eta herritarren arteko komunikabidea bermatzen badau, ezagutu beharra jarteak ez deutso ezer gehitzen. Hitz hori ipini ez; edo kendu balitz, beharbada, hobeto izango zan.

Gazteleraren ezagutu beharrak helburu lez, ofizialtasun bikoitza daben autonomiadun Elkarteetan, hizkuntza-plangintzan hizkuntza horren irakaskintza eskatzen dau (125); beste aldetik, gaztelera hutsaren aurrean ezezagutza edo ulertu ezina balioz eskatzeko posibilitate eza.

Gazteleraren aldeko Konstituzio-manua beste hizkuntzen normalkuntza atzeratzeko eta gazteleraren defentsan egina badago, jokera hau ofizialtasun bikoitzaren aurkako da eta EKko 3.3 artikuluko begiramen eta babes manuaren aurka dator.

1986-06-26ko epaiak, Estatuari damotso eskumen osoa eta gaztelera ezagutu beharragaz lotzen dau, manua gaztelera ezagutzeko da bakarrik, eta azkenean, lurraldeetako hizkuntzak ezezagutzeko ahalmen modukoa bilatzen dau (126).

Konstituzio-testuaren egileetako batzuk baleiteke ofizialtasun mota bi

nahi izatea, baina Kodigo Zibilak behintzat ofizialtasun ezbardin bi ez ditu onartzen. EKren ondorio lez be ezin daitekez bilatu, eta gitxiago Estatutoetan. Ofiziala dalako irakatsi behar da eta ezezagutza balioz ezin da aurkeztu.

Konstituzioko 3.1 artikuluaren manuak, beste hizkuntzak baino ofizialagoa ez dau gaztelera egiten.

Ofizialtasuna onartu ezkero, etzan beharrezko edo alperrikakoa zan ezagutzeko manua. Eta beste hizkuntzen ofizialtasuna onartutakoan, gitxienez Estatutoetan ez dauka zentzunik antzerako manua ez jartzeak.

1.3.4 Diskriminazioa

Konstituzioak, ostera, 3.2 artikuluan Autonomiadun Elkarteetako hizkuntzen ofizialtasunari buruz jardutean, hizkuntza honeek ezagutzeko manurik ez dakar. Beste hizkuntzen ofizialtasunaren estatusa ikastean, Konstituzioko araubide ezbardin honek ulerkera-arazo garrantzitsuak sortu leikez.

Zalantza barik ikusten dana hauxe da: Konstituzio Auzitegiaren ustetan, gazteleraren (Estatutuko hizkuntza ofiziala) ezagutu beharra ezarri badau, eta Autonomiadun Elkarteetako hizkuntza ofizialen ezagutu beharra jartzeko preminarik Konstituziogileak ikusi ez badau, Espainiako hizkuntza araubidean ofizialtasunaren autorpenak ez dau berez sortzen hizkuntza ofiziala ezagutu beharra (127).

Ofizialtasunaren autorpenari ezarri jakon gehigarria edo plusa ipintea, eta araubidean agirian jarrita gainera, ez da guztion gogoko erizpidea (128). Manu hori barik, gazteleraren zuzenbidezko araubideak bardin-bardin iraungo leuke (129).

Beste batzuen erizpideak jokabide eta ondorio ezbardinak sortu dabez. Konstituzioz gaztelera ezagutu beharra dagoanez, eta beste hizkuntzentzat antzerako manua falta danez, "a sensu contrario" konstituziogileak beste hizkuntzen ofizialtasunaren ezaugarri lez hizkuntza hori ezagutu beharra kentzea erabagi dauala uste dabe (130).

Nere ustez, Konstituzioaren ixiltasunetik ukatze-ondorena ateratzea ez da bidezkoa. Autonomiadun Elkarteetako hizkuntzen ofizialtasuna arauzkotzea Konstituzioak egin baeban, a sensu contrarioko errazoibidea posible izango zan. Baina Konstituzioak, Estatuko hizkuntza ofiziala lez gaztelera arauzkotzen dau. Autonomiadun Elkarteetako hizkuntza propioen ofizialtasuna arauzkotzea, euren Estatutoen esku eta arabera izten dau. Konstituzioa hizkuntza propioen aurrean ixildu bada, autonomiadun Estatutoari ardura eta zeregin hori emon deutsozalako izan da. Zentsu honetan, Konstituzio aldetik begiratuta behintzat, autonomiadun Estatutoan hizkuntza propio ofizialak ikasi eta ezagutu beharra jartzeko eragozpenik ez dago. Hizkuntza propioei buruz araubide ezbardinak izten ditu, eta Autonomiadun Estatutoen esku lagata, ez dau araubide zehatzik inposatzen (131).

Alberto Lopez Basagurenen ustetan, Autonomiadun Estatutoak bere

hizkuntza propioaren ofizialtasuna autortu eta ezagutu beharra arauzkotzeko eskubidea dauka. Eta bai herritarrak eta bai herrisailak hizkuntza ofizialaren aurrean prest egon behar dabe, euskerarekiko ezezagutzearen errazoibidea balioz agertzeko eskubide barik (132). Ofizialtasun osoaren jabe izan arren, beste hizkuntza ofizialak ezagutu beharra, ez Konstituzioak ez Estatutoak ez dabela manatu argi dagola dino Puig i Salellas jaunak, eta beste hizkuntza ofizialak araubide diskriminatzailea jasanez bizi dirala (133).

Beste hizkuntzak ezagutu beharra ipinteko debekurik Konstituzioak inon ez dakar. Konstituziogileak eskabide hori aurkeztu ebanean, ez egoan aurka egiteko errazoirik (134).

Gailegoaren Normalkuntzarako Legeak be ikusi eban bere 1.2 artikuluan gailegoa ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea. Baina, 1.986-06-26ko epaian, Konstituzio-Auzitegiak manu hori Konstituzioaren aurkako zala ulertu eban, batetik lurraldeetako hizkuntzen ofizialtasunari ezagutu beharra Konstituzioz ez dagokiola, eta bestetik, ofizialtasunak ondorio lez, hizkuntzaren irakaskintza eta ezezagutzea errazoitzat balioz ezin hartzea dakarzalako; baina ez bata ez bestea inposatzeko beharrizanik ez dago.

Konstituzioak beste hizkuntzen ofizialtasuna zentzu orokorrean iragarri eban, eta hizkuntza honeen ofizialtasuna autortu eta ezagutu beharra ezarteko eskubide eta betebeharra Estatutoei dagokie. Baina Konstituzio-Auzitegia erizpide honetatik kanpo dabil eta EKren ixiltasunean oinarritzen da (135).

Dana dala, Estatutoak ez dabe nahi izan edo ez dabe ahal izan hizkuntza propioak ezagutu beharra manatzea.

Hizkuntza ezagutu beharrak sortzen dauan arazo-une garrantzitsuenetarikoa herritarra Administrazioagaz aurrez-aurre aurkitzen dan unea da. Funtzionarioaren eta herritarraren hizkuntza-egoerak alkar topo egiterakoan, nahiz eta funtzionarioak gaztelera bakarrik ezagutu, herritarraren hizkuntzak izan behar dau lehentasuna.

Hizkuntza aukeratzeko askatasunean oinarritu behar litzateke ofizialtasun bikoitzaren sistema. Eta herritarrari askatasun oso hori ezin leikio ukatu. Nahiz eta Estatuak Espainiako lurralde osorako mugaketak jarri gaztelerearen ofizialtasuna

ezartean, Autonomiadun Elkarteei dagokienez, Estatutoetan hizkuntza propioaren konzeptua agertu da, eta herrikideari zor izango jako berak nahi dauan hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

Benetako demokrazian hizkuntza arazo eta gatazkak gaindigarriak izango badira, Administrazioak beti prest eta gertu agertu beharko dau herritarraren alde.

Nahiz eta gaztelera ezagutu beharra onartua izan, funtzionarioak herritarrari ezin leio eskatu. Funtzionarioa bitarteko eta ararteko bada, herritarrari dagokio bere hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta Arduralaritzari erantzukizuna.

1.4. AUTONOMIADUN ELKARTEAK ETA BESTE HIZKUNTZAK

1.4.1. Beste hizkuntzen ofizialtasuna

1.4.2. Beste hizkuntzak ezagutu beharra

1.4.1. Beste hizkuntzen ofizialtasuna

Espainiako beste hizkuntzen ofizialtasuna Konstituziogileen artean eztabaidatzean arazo bi sortu ziran: Gai hau erabiltea komeni ete zan, eta hizkuntza horreek ezagutu beharra izan eitekeen.

Konstituzioan sartzearen aurkako planteaketa eroan eban De la Fuente jaunak. 1.931eko Konstituzioan lez, Autonomiadun Estatutoetan aztertu eta eztabaidatzea nahiago eban. Bere proposamena hau zan: "... be ofizialak izango dira" esaldiaren ordez "ofizialak izan daitekez, arazo honen azken erabagia Estatutoak erabagiten daben arabera itzirik" (136). Planteaketa hau gehiengoak behera bota eban. Ikusten danez, Konstituzio hau 1.931ekoa baino aurrerago joango da, eta Estatutoak eztabaidatzerakoan, Konstituzioan bertan onartu dalako, ezingo da inor planteatzen dan hizkuntzaren aurka joan. Estatutoetan emongo jakon ofizialtasuna barik arautuko dan hizkuntza eredua eztabaidatu ahal izango da.

Beste hizkuntzak ezagutu beharrari buruzko eztabaida sakonagoa izan zan: Trias Fargasen zuzenketak zera proposatzen eban:

> "Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izango dira euren lurralde autonomoetan, Estatutoen arabera. Lurralde horreetan bizi diran guztiak jakin behar ditue eta erabilteko eskubidedun izango dira" (137).

Laburturik, honelako errazoia emoten eban: "hizkuntza bat jakitea beharrezkoa ez bada, ez dau ezertarako balio" (138). Bide bardintsutik jo eben Solé Tura eta Martin Toval jaunak, baina hizkuntza jakin beharra konstituzioz ezartea baino gehiago, zera zan planteatzen ebena: Autonomiadun Elkarteetan bizi ziranei ofizialkide ziran hizkuntza ofizial biak jakiteko baldintzak sortu behar zirala.

> "Hemen ez goaz hizkuntza bat derrigorrez ezagutzera behartzera; hizkuntza biak bardintasunean erabili daitezan baldintzak jartera baino" (139).

Kongresoan aurkako planteaketa aurkeztu eta errazoitu ebenen artean Fraga Iribarne egon zan: "lurralde autonomoan Estatutoak hizkuntza arautu egiala, baina ez daitela ezagutu beharrekoa izan" (140)

Konstituzioari buruzko eztabaidan aztertu dan lez euren lurraldeetan ofizial diran Espainiako beste hizkuntzak ezagutzeko eskubidea eta obligazioa ez dau Konstituzioak ezartzen. Baina, alderantziz, ez dau Estatuto bidez onarpen eta ezagutu beharra ezartea galerazoten. Beraz ofizialtasunaren neurriak Estatuto bakoitzean zehaztekoak dira.

3.2 artikuluak, beste hizkuntzen ofizialtasuna derrigorrezko lez manatzen dau, ala ofizialtasun hau, legegilearen borondatez etorkizunean autonomiadun Estatutoetan sartu daiteken aukera bat bakarrik izan daiteke? Autonomiadun Elkarteetako hizkuntza propioen ofizialtasunerako Konstituzioak egindako erreferentziak zentzunik ez daukanik esan nahi dau?

Autonomiadun Elkarteetan, Basagurenen eritxiz, bakoitzaren hizkuntza eredua eratzeko eta hizkuntza arautzeko eskumena konstituzioz Estatuto bakoitzak dauka. Konstituziogileak gaztelera ez diran beste hizkuntzen ofizialkidetasuna euron Estatutoen arabera izango dala dinoanean, Konstituzio-araua garatu eta Elkarte bakoitzari dagokion hizkuntza araubidea eratzeko eskubidea Estatutoari emoten dihardu. Hizkuntza propioaren ofizialtasunaren baldintza zehatzak jartea be Estatutoei dagokie, Autonomiadun Elkarteetako hizkuntzaren ofizialtasuna eratzea autonomiadun Estatuto bakoitzari dagokiolako (141).

Autonomiadun Elkarte bakoitzeko hizkuntza ereduaren arautzeari buruz, Konstituzioaren 3. artikuluan egindako Estatutoaren gordekizunak, EKko 147.1 artikuluaren argitan, 9.1 eta 81.1 eta 2 artikuluekin lotuta, lortu leike zentzu osoa.

Arau honen jokoak osotzen dau autonomiadun Estatutoa, eta autonomiadun Elkarte bakoitzeko hizkuntza ereduak arautzean Estatutoa Konstituzio-kide bihurtzen da (142).

Autonomiadun Elkarte bakoitzeko hizkuntza eredua arautzean autonomiadun Estatutoak Konstituzioagaz dauan kidetasun honek, hizkuntza gaian eskumen

arazoa konpontzen itzi behar leuke.

Gure araudian hizkuntza gaia ez da gaia lez zentzu hertsian erabilten, hau da, Konstituzioaren 148 eta 149 artikuluen zentzuan. Horregaitik, hizkuntza-gaia Estatuto bakoitzeko arauen artean Autonomiadun Elkarteetako eskumenen zerrendan ez da sartzen (143).

Baina, hizkuntza eredua arautzeko autonomiadun Elkarteen eskumen eza ondorio-gisan ezin da atera hortik, eta "erabilten dan hizkuntzarako eskumena... ekintzak, hartuemonak eta zuzenbidezko egoerak arautzeko daukanari zor jako" (144).

Hizkuntza ereduaren araugintzarako eskumenen planteaketa aukerako eran ez dala erabili uste dot. Estatuaren eta autonomiadun Elkarteen arteko eskumena ez da banaketa zentzu zehatzean. Konstituzioko 147 eta ondorengo artikuluei dagokien eran, Estatu eta autonomiadun Elkarteen artean gai hau ez da banagarri era honetan.

Herritar eta herrisailaren arteko hartuemonak arautzeko hizkuntzaren tresna autonomiadun Elkarteak erabili ezina badau, Konstituzioak autonomiadun Estatutoei egindako erreferentziak ez dabe indarrik.

Alderantziz, Konstituzioko 3.2 artikuluaren iragarpena ezin da ahaztu eta baztertu. Estatutoentzat manua argia da, eta beragan dau indarra autonomiadun Estatuto bakoitzean gaztelera ez dan beste hizkuntzen estatusa arautzeko.

Hizkuntza gaiaren arazoa eskumenen banaketan ez da amaitzen. Estatutoaren arautze ahalmen eta neurriak norainokoak diran jakiteak garrantzia dauka, autonomiadun Elkarteko herrisaila bakarrik ala Estatuarena be araugintza honen menpe geratzen dan jakiteko. Hemen dago hizkuntza eredua araubidetzeko orduan benetako gatazka. Autonomiadun Elkarteari hizkuntza arautzeko eskubidea ez datorkio autonomiadun Estatutotik bakarrik. Estatuko araubidea, Konstituzioa bera dau hizkuntza tratamendua arauzkotzeko lege iturria. Herritarrak eta herrisailak, baita Estatuarenak be, autonomiadun Estatutoak manatutako hizkuntza ereduari iges egiterik ez daukie.

Lege jokabideak Estatuaren gordekizuna gogoan izan ez dauanik ezin da esan. Konstituzio Auzitegiarentzat, Konstituzioaren 3.2 artikulua autonomiadun

Estatutoei begira eginda dago, eta Konstituzioko funtsezko araugintza, "gaztelera ez diran Espainiako beste hizkuntzen ofizialtasun bikoitzari buruz emoten dabezan (Estatutoak) arauak osotzen dabe" (145). Hizkuntza aniztasuna arautzean Estatutoa oinarrizkoa da, eta autonomiadun lurraldeetan Estatuko herrisailaren menpetasuna ez da salbuespen (146).

Konstituzioaren manu ta guzti be, autonomiadun Estatutoak bere hizkuntza eredua zehaztu ez badau, arazoa larritu egingo da. Orduan be, autonomiadun elkarteetako hizkuntzen ofizialtasuna eratzea, autonomiadun legegilearen esku geratuko da (147).

Autonomiadun Elkarteak dauka hizkuntza propioaren "ofizialkidetasunaren helmena mugatzeko" (148) ahalmena.

Beraz, autonomiadun Estatutoak autortu daikie hizkuntza propioa erabilteko herritar guztien eskubidea, eta "beragaz, Elkarteetan kokatuta dagoan herrisailarena (Estatukoena, lurraldeetakoena edo/ta lekukoena). Konstituzioan aurrekusita eta Estatutoan manatuta dagoan elebitasunera egokitzeko daukan betebeharra" (149).

Sarritan, hizkuntza araubidea garatzean Autonomietako legegileak dagoana iragarri (150) besterik ez dau egiten, baina beti ez da holan, eta bere araubidea herrisail guztiei ezartzen jake.

Ildo honetatik, lurraldeetako Estatuko herrisailari buruz autonomiadun Elkarteak bere hizkuntza propioaren erabilera arautzean ez dihardu bere eskubidetik kanpo. Berari dagokio ofizialtasun bikoitzaren helmena zehaztea. Gaztelera ez dan beste hizkuntzaren ofizialtasuna arautzen sartzeko, Estatuak ez dauka eskumenik (151).

Hizkuntza eredua garatzean, EK 149.1.1 gogoan eukirik, Estatuko beste oinarrizko arau batzuekin be autonomiadun Elkarteak topo egin leike, batez be, bardintasun oinarria jagon, Konstituzio-manuak betebeharra agertu eta herritarren eskubideak zaintzeko orduan.

149.1.1. ulertzeko garaian, Estatuko abokatuak Konstituzio-aurkako

errekurtsoetan eta legegizon batzuk aldeko diralarik, Estatuaren eta autonomiadun Elkarteen artean, banatutako eskumena ikusten dabe Konstituzio-eskubide eta betebeharrei buruz. Konstituzio Auzitegia bera azaldu da holango edo antzerako gurarien aurka, eta bete-betean baieztu dau zer esan gurako leuken ulerkera horrek:

> "Konstituzioaren 3.2 artikuluaren esanez, eta Estatutoen arabera autonomiadun Elkarteak lortuta daukazan hizkuntza eskumenen edukina hustu[...] eta gaztelera ez dan beste hizkuntzen ofizialkidetasuna arautzeko Estatuari gaitasuna emotea" (152).

149.1.1.artikulua ezin da ulertu Estatuaren eta autonomiadun Elkarteen artean banatutako gai lez. Manu hori, konpetentzia banaketari barik konstituzio-eskubide eta betebeharren gaian berme bati dagokio, eta betebehar eta eskubide horren erabilerarako dagozan baldintza oinarrizkoetan sartzeko autonomiadun Elkarteari eragozpenak ipintea da (153).

82/86 Epaiak, 4. ZOan ulerkera hau sendetsi dau: "Konstituzio-eskubide eta betebeharren erabileran espainiarren bardintasuna autonomiadun araugintzak apurtzen dauan kasuan, Estatuaren lege zuzentzailea posible da". 149.1.1. artikuluak autonomiadun Elkarteen eskumena suposatzen dau, eta gai honetan oinarriak jarteko eskumena ez damotso Estatuari.

Gai honi lotuta, Konstituzio Auzitegiak zehaztu dau, gaztelera ezagutu beharra segurtatu, eta herrisailaren aurrean hizkuntza ofiziala legez gazteleraren erabileran bardintasun oinarria ziurtatzeko, "egoki baderitxo" (154) araugintza egiteko, 149.1.1. artikuluan jaioten jakola Estatuari eskumena.

Lurraldeetan hizkuntza eredua zehaztea Autonomiadun Elkarteetako Estatutoei dagokie. Autonomiadun Estatutoak sortzen dauan Konstituzio manuaren indarra eta ahalmena Estatutora igaroten da, eta ofizialtasunaren Konstituzio-autorpenak bere ondorio praktikoak Autonomiadun Elkartean, bakarreango eran, emoten ditu (155). Hau holan balitz, Autonomiadun Estatutoa onartu eta sortu arte, Konstituzioaren hizkuntza propioen ofizialtasunaren manuak ez leuke eukiko ondoren praktikorik, Autonomiadun Estatutoen eta hizkuntzaren ofizialkidetasunaren artean lokarri estua jarri dau Konstituziogileak (156).

1.4.2. Beste hizkuntzak ezagutu beharra

Espainiako Konstituzioa irakurri, Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio-Auzitegiaren jokabidea ikusi ondoren, herritarrei dagokien hizkuntza moeten zuzenbidezko egoerari buruz mailakaketa bat dagoala iduri.

Lehenengo maila: gaztelera, Estatu osoko hizkuntza ofiziala, bera ezagutu beharragaz eta erabilteko eskubideagaz. Autonomiadun Elkarteetan beste hizkuntza ofizialak, eurek ezagutu eta erabilteko eskubideagaz. Eta hizkuntza moeta ezbardinak kultur-eskubidea aldean dabela.

Baina planteaketa hau ez da hain argi ta soila. Herritarren eskubideak herrisailak daukazan eskubideekin aurrez-aurre jarri eta aztertu behar dira. Gainera, hizkuntza ezagutu beharra ezin da indarrez ezarri (157). Eta lurraldeetako hizkuntzak ez ezagutu beharra, hizkuntza horren irakatsi beharragaz buztartu ezik ezin daiteke ondoriorik atera.

Ofiziala dan jatorrizko hizkuntza (jaiotizkuntza) inori indarrez ezagutu eragiteko ahalmenik ez dago, baina Herrisailak bai badauka Autonomiadun Elkarteetan hizkuntza ofizialak ezagutu eta onartu beharra, herritarrak euren hizkuntza erabilteko daukien eskubidea gordeaz (158).

Herrisailentzat errazoibide bardina dakar 1983-10-27ko epaiak.

> "... Estatuak orohar (autonomiadun Elkarteak barru), beste hizkuntza ofiziala daben Elkarteetan, gazteleraren eta hizkuntza propioaren ezagumena segurtatzeko Konstituzio-betebeharra dauka."
>
> "... dana dala, euskera ezagutzeko manu banakakotua ez da ezarten, manua herri-Administrazioei dagokielako" (159).

Aukeratutako hizkuntza erabilteko herritarrak daukien eskubideari erantzuteko, herrisailak baldintza egokiak bilatzen ez baditu, elebitasuna orientabide edo oinarri huts batetik gora ez da ezer izango.

Egun batetik bestera autonomiadun Elkarteetako funtzionari guztiei, ez badakie behintzat, hizkuntza propioa ezagutu beharra ipintea funtzio publikoetara baldintza bardinetan aurkezteko eragozpen izan leiteke (160).

Baina herritarren hizkuntza eskubidea bermatzeko Administrazioak funtzionari elebidunez orniduta egon behar dauala be ezin da ukatu.

Jurisprudentzia, gaztelerak eskubide eta betebeharra dituala esaten dator, eta lurraldeetako hizkuntzentzat betebeharra ez da agertzen (161) Galiziako hizkuntzaren normalkuntzaren 1.2 artikuluaren aurka jaso da epai hau. Konstituzioak onartu bako manua (betebeharrei eta eskubideei buruz) ezarteko posibilitatea ukatzen deutso autonomiadun Elkarteari.

Beharbada, EKko 3 artikuluaren aurkako ez da Estatutoak bere hizkuntza propioa ezagutu beharra manatzeko eskubidea. Bardintasun oinarria gogoan hartu eta azken Erabagia ahaztu barik beste ondorio batzuetara heldu leiteke.

1.984-09-27an, Auzitegi-Gorena gogor agertzen da. Katalana hizkuntza ofiziala dan lez, zerbitzuan dagoan Kataluniako funtzionarigoa katalana ikastera behartu nahi da, baina epaia aurkakoa da (162).

1.985-09-16ko Auzitegi-Gorenaren epaiak, a quo Gelatik datorren 4. zuzenbidezko oinarria aldatuko dau. Kataluniako herritarrak "gaztelera eta katalana ezagutzeko eskubidea eta betebeharra" daukiela dinoan esaldiaren ordez "katalana ezagutzeko eskubidea eta gaztelera ezagutzeko obligazioa" dabela jarriko dau. Konstituzioko 3.1 artikuluak "ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea" emoten daualako, zuzenketa hau ez da guztiz zuzena. Baina, ordura arte emondakoen artean, hizkuntzarekiko epai garrantzitsuena Barcelonako lurralde-Entzutegiarena da. Irakaskintzan elebitasunak daukan garrantzia aztertzen dau, eta ondo oinarritutako epaia da.

Milian i Massanaren ustez, aipagarriena hizkuntza banaketa eta alkarketa ereduak Konstituzioari dagokiozenak dirala onartzea da (163).

Epai honek, Konstituzioaren 3.2 artikuluko "izango dira" hitzak ulertzean, ofizialtasuna bikoitza aldezten dau, Estatutoei itxaron barik. 1.982-01-28ko epaian be Barcelonako Lurralde Auzitegiak erizpide bardina erakutsi eban. Hizkuntza

moeta ezbardinak zehazteko eta bitarteko hutsuneak tapatzeko "euren Estatutoen arabera" esaldiak, badau bere esanahia eta segurtasun laguntza.

Laburtuz, hizkuntza ezagutu beharrari buruz gaztelerak ezagutu beharragaz eta erabilteko eskubideagaz datorrela esan da. Lurraldeetako beste hizkuntza ofizialak erabilteko eskubidea dakarre bakarrik. Hizkuntza honeek ezagutzera herritarrak ez dira behartzen, baina bai herrisaila herritarren eskubidea jagoteko. Hemendik doa lege jokabidea.

Eta noraino heltzen da gaztelera ezagutu beharra? Ezin da legez eta indarrez inor hitz egitera behartu. Ezta Auzitegietan be (164). Ixiltasuna hitz egiten ez dauanari kaltegarri bihurtu leitekio, baina indarkeria debekatuta dago. Orduan, gaztelera ezagutu beharra, jakingo dan uste hutsean geratzen da.

Egia da Euskadin bertan, euskera hutsa bakarrik dakien herritarrak badagozala. Beraz, gaztelera ezagutu eta jakin beharraren manua batzuetan uste hutsean gelditzen da. Gaztelera jakitearen ustea iuris tantum da (165).

1.5 HIZKUNTZA MOETA EZBARDINEN BABESA

1.5.1. Begiramen berezia eta babesa

1.5.2. Ondoren gisa

1.5.1 Begiramen berezia eta babesa

Oraindano ikusiaren arabera, hizkuntza bardintasunaren Konstituzio-jarrera gaurko gizarteari ez jako egokitzen. Zio historiko eta politiko askok gaztelerari pribilegio eta lehentasun ugariak luzatzen deutsiez. Horregaitik, hizkuntza egoera honek, gaztelera ez diran beste hizkuntzen normalkuntza prozesua bizkortzea eskatzen dau. Zuzenbidezko bardintasuna lortu nahi bada hizkuntzen artean, erakunde guztiak eta batez be Estatuak, hizkuntza gitxiengotuen aldeko jarrera argia hartzeko beharrizan gogorra dago. Zeharka bada be, holango zerbait esan gura dau 1.986-06-26ko epaiak (166).

Hizkuntzen egoera ezbardin honen aurrean, Konstituzio-legegileak hizkuntza ofizialen hizkuntza moeta ezbardinen eta dialektoen babesarako Konstituzio-manua emoteko beharrizana sentidu eben.

Konstituzioak... "hizkuntza moeta ezbardinak... begiramen berezia eta babesa izango dabela" Konstituzioak esatean, Entrena Cuesta maisuarentzat dialektoak, espainiako hizkuntza danak eta gaztelera bera be sartzen dira (167).

Begiramen eta babes hitzak gure aditasuna merezi dabe. Begiramenak zentzun baikorra dauka. Estatuari dagokio begiramena, zor jakon hizkuntza suztatzea, eragozpenak kentzea...

Ofizialtasuna lortzeko bideetan trabarik ez jartzea.

Begiramenak, zabalkunde medioetan, batzar eta ekintzetan, Erregistro Zibilean inskribatzean, kaleak izendatzean, e.a. hizkuntza ezbardinen erabilera debekatzea galerazoten dau.

Babes hitza be beste hizkuntzen normalkuntzarentzat mesedegarri bihurtu daiteke. Konstituzioak, hizkuntza mota ezbardinen aberastasunari babes

berezia zor jakola esatean, hizkuntzon balorazioa errezteko, legegileari salbuespeneko legea egiteko aukera emoten deutso. Hizkuntzen arteko tratu diskriminatorio guztia debekatzen dauan bardintasun formalaren oinarriagaz osotzean, bere ezbardintasunagaitik justifikatuak diran egoerak, era ezbardinez tratatzea posibilitatzen dau. Babes baikor honek, ez leuke bardintasun formalaren oinarri konstituzionala kenduko, ez baztertuko, ez gitxituko.

3.3 artikulua, Konstituzioko 9.2 artikuluan sartutako hizkuntzarekiko bardintasun formalaren oinarriaren zehazpen bat baino ez da, 9.2 artikuluak, herrisailari pertsonen askatasuna eta bardintasuna, eta bera sartzen dan taldeetakoen pertsonena be zaindu dagiala eskatzen deutso, eta oztoporik balego, oztopo honeek kentzeko.

Hizkuntza guztiak (baita gaztelera be), babestu edo indartzeko hartu daitekezan neurri guztiak, tratamendu ezbardinak ondorioztatu arren, ez dira zertan izan diskriminatorioak, eta beraz, konstituzionalki bermatua dan bardintasun oinarriaren aurkakoak be ez.

Autonomiadun Elkarteetako beste hizkuntzak eta handik kanpo bizi diran hizkuntzak be ez ditu baztertzen Konstituzioak. EKko 3.3 artikulua dator euren babesle.

Hizkuntza aniztasunaren Konstituzioko hizkuntza arau bidean hirugarren oinarria egiten dau manu honek. Hizkuntza ofizialaren maila lortzeke irauten daben hizkuntza moeta ezbardinak babestzera dator. Gaztelera ez diran beste hizkuntza ezbardinen babeserako egiten da, batez be, Konstituzioaren 3.3 artikulua. Autonomiadun Elkarte ez diran lurraldeetako hizkuntzak babesten ditu arau honek, eta baita edozein lekutan dagozan hizkuntza moeta ezbardin gitxiengotuak be.

Autonomiadun Estatutoak, euren hizkuntzaren ofizialtasuna onartzean EKko 3.3 artikulua kontutan izan dabe (168).

Hizkuntza propioa ez daben autonomiadun Estatutoak be Konstituzioko 3.3 artikulua ez dabe ahaztu. Beste Autonomiadun Elkarte batena dan hizkuntza onartu dabe. Adibidez, Aragoiko Estatutoak, 7. artikuluan hizkuntza moeta ezbardinen babesari buruz diharduanean muga batzuetako katalana dau gogoan (169).

Badira hizkuntza moeta ezbardinak babesten ez dabezan autonomiadun Estatutoak be, Konstituzio-arauari jaramon egiteko ardura barik. Hizkuntza moeta ezbardinen defentsan, beste Estatuto batzuk hartu dabez euren babes-ardurak: Kataluinako Estatutoak 3. artikuluan aranesari buruz, Asturiasko Estatutoak bableari buruz, Islas Balearesko 3/86 legeak bere 2.5 artikuluan dialektoei buruz, 18/86 lege naparraren 1.3 artikuluan, baita 10/82 Euskeraren legeak, 30 artikuluaren azkenean.

Konstituzioko 3.3 artikuluaren zati hau aurretiko bako atal barria da. 3.1 eta 2 atalak Errepublika Konstituzioko 4. atalean oinarrituta dagoz. Konstituzio-testuak, hizkuntza gitxiengotu eta dialektoak zaindu eta baloratzeko beharrizana batzen dau.

Europako beste Estatu batzuetako jarraibideaz ohartu ez danik ezin esan, hizkuntzen berbizkunde eta birbaloratze honetan.

Lurraldeetako lege batzuk aitatu leitekez, esaterako, "Piamonteko kulturen eta hizkuntza ondarearen babesa" 1.979-06-20ko Legea, 30 zb. (170).

Zoritxarrez, Konstituzioko 3.3 artikuluko manua ez dabe bete ez Estatuko legegileek ez auzi jokabideak. Alderantziz, gazteleraren lehentasun eta handitasuna sarri aipatu dabe (171).

3. artikuluak beste hizkuntzen ofizialtasuna onartuz, gazteleraren ordura arteko hizkuntza-pribilegio bakarra apurtzea lortu dau, ofizialki behintzat.

Baina, orain beste hizkuntzei dagokien begiramen eta babes berezia ukatuz jokatzen bada, zuzenbidezko eta legezko arauei dagokienez begiratuta behintzat, ez dirudi jokabide hau ulergarri danik.

Dialektoen eta ofizialtasuna lortu ez daben eta lortuko ez daben hizkuntza moeta ezbardinen aberastasunarentzat eratzen dau Konstituzioko 3.3 artikuluak begiramen berezia eta babesa (172). 1.986-06-26ko epaian, 4 oinarrian, Konstituzio Auzitegiak be holantxe ulertu dau, hizkuntza ondarea babesteko orduan Estatuaren eta autonomiadun Elkarteen, bien betebeharra eratuz.

Komunikabideetako hizkuntza arazoari buruz, Konstituzioaren 20.3 artikuluak hauxe dino:

> "Estatuaren edo beste erakunde publiko baten menpean dagozan giza komunikabideen eratze eta parlamentu-kontrola legeak arautuko dau, eta adierazgarri diran talde sozial eta politikoei euretan parte hartzea bermatuko deutse, Espainiako gizarte aniztasuna eta hizkuntza ezbardinak errespetatuz".

Atal honetan be hizkuntzaren suztatze-giroa nabari da.

Eta 148.1.17 artikuluak, kultura, ikerkuntza eta hizkuntza irakastea aipatzen ditu:

> " 1. Autonomiadun Elkarteak hartu daikezan eskumenak alor honetakoak dira...
>
> 17. Kultur eta ikerketa bultzatzea eta dagokienean, Autonomiadun Elkartearen hizkuntza irakastea"

Hizkuntza aniztasuna kulturan abiapuntutik hasita aurkezten dau, eta kultura, ikerketa eta hizkuntzaren irakaskuntza aitatzen ditu. Ofizialtasun bikoitzaren estatusa lortzen ez daben dialektoen eta hizkuntza moeta ezbardinen Estatutoetan erabilten diran hitzak dira.

Baina, 1.986/83 epaiaren eritxiz, 2. oinarrian, hasiera baten uste zan baino mugatuagoak dira autonomiadun Elkarteen ahalmenak.

1.5.2 Ondoren Gisa

Konstituzioko 3. artikuluari orokorrean begiraturik, bere ofizialtasun bikoitza eta Estatutoei damotsen ahalmen juridikoa bereziki gogoraturik, gatx da oharpen batzuk ez egitea:

3. artikulua oso juridikoa da. Historian, Soziologian edo linguistikan ez da sartzen. Ofizialtasunaren idea dakar (173). Ofizialtasun hori zeharka adierazoten dau. Gazteleraren ofizialtasuna badalakotzat jotzen dau, eta beste hizkuntzena iragarri egiten dau. Jabetasunaren iragarpenean be ez da sartzen. Estatutoen zeregina dalako, sartu beharrik be ez dauka.

Ofizialtasunaren funtsezko oinarriak bai jartzen ditu: hizkuntza eta lurralde erakundeen arteko hartuemonak euki ahal izatea, herritarrek ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea, eta ondorioz, erakundeen aldetik, hizkuntza irakatsi beharra, eta herritarren aldetik, ezezagutzearen errazoia balioz ezin ekartea.

Bardintasunaren Konstituzio-oinarrian beste hizkuntzen ofizialtasunaren aurkezpena egiten dau, gitxienez ofizialtasunaren baldintzak segurtatuz (174). Konstituzio eta Estatutoko oinarri bien gainean beste hizkuntzen ofizialtasuna aurkezten da.

Halan ta guzti be, bardintasun-egoera benetakorik ez dagoala legegilea jakitun agertzen da. Horigaitik, begiramen bereziaren eta babesaren manua emoten dau (175). Artikuluan agertzen dan manu bakarra, hauxe da, Autonomiadun Elkarteetako hizkuntzen normalkuntzarako abiapuntua hortxe hasten dalarik.

Hego Euskalerrian, gaur egun, beraz, EKren zenbait manu dira nagusi euskeraren eta gazteleraren herri erabilpena arautzerakoan. Manu horren arabera, Konstituzioko hizkuntza aniztasunaren araugintza nahiko arazogarria gertatzen ez danik ezin da onartu.

Konstituzio honen egile eta onartzaileen aldetik eta hizkuntza ereduei begira, gaztelerak izango leuke bakarrik lehentasuna edonun. Beste hizkuntzak ofizialak diran lurraldeetan lege-indar bardina izan arren, Estatuak bere bideak ditu,

dekretogintza eta auzi-jokabidea adibidez, beste hizkuntzen arazoak legez konponezinak bihurtzeko.

Babes aldetik, hizkuntza nagusi ofiziala (gaztelera) Konstituzioz babestuta dago. Goi mailako babesa dau eta herrikideari segurtasun osoa damotso. Konstituzioak manatu dau bera ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea emon, Herrisail eta herritar guztiak horretan behartzen ditularik.

Beste hizkuntza ofizialak bigarren mailako babesa dabe. EKak erabilteko eskubidea bakarrik onartzen dau, eta hori gure lurraldeetako Estatutoak onartzen badau. Beraz, aukera legoke Estatuak euskeraren alde eta beste edozein hizkuntzaren alde jokatzeko, baina aukera horreek aurka egiteko orain arte behintzat gehiagotan erabili ez diranik ezin esan.

Espainiako beste hizkuntza guztiak (ofizialak ez diranak), hirugarren maila baten, begiramen eta babes hutsean gelditzen dira.

Hizkuntzari dagokiozanetan, Estatuak ezin ditu beste herriak onartu, herriei euren eskuko diran erabagiak hartzea galerazota. Mundu guztian zehar herri gitxiengotuak jasatzen daben hizkuntza arazoa, giza banakoari eskubideak autortuta bakarrik gehienetan konponezina bihurtzen da. Herri osoak herri lez dauka eskubidea. Eta eskubide eta betebeharren artean etena eta banaketa agertzen da sarri, giza eskubideak teoria maila hutsean geratzen diralarik.

Euskalerriak, aintzinako eta gaurko hizkuntza komunikabide bihurtzeko eskubidea ez ukatzea nahi dau. Euskal Herriko hizkuntza ezbardinen arteko hartuemonak aldatzea edo aldatzeko bideak topau-ezinak dirala ez sinistuarazotea eskatzen dau. Hizkuntzarekiko askatasunari hesiak ez jartzea.

Euskerak, bere ohizko bizitza egiteko, bere esparruak nahi eta behar ditu. Eta euskerari eskubide hori ezin jako galerazo. Giza banako bakoitzari eta herri bakoitzari zor jako eskubide hori.

OHARRAK

1. "1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
   2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.
   3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección." (EKko 3. art. in: 1978-12-29ko EBO.)

2. "Las demás lenguas españolas serán también oficiales..." (EKko 3.2 art. in: 1978-12-29ko EBO.)

3. "La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas... que será objeto de especial respeto y protección." (EKko 3.3 art., in: 1978-12-29ko EBO.)

4. "Proteger a todos los españoles y pueblos de España en el ejercicio de los derechos humanos, sus culturas y tradiciones, lenguas e instituciones" (EKaren Atariaurreko 4. atala, in: 1978-12-29ko EBO.)

5. "Corresponde a los poderes públicos promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas; remover los obstáculos que impidan o dificulten su plenitud y facilitar la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social." (EKko 9.2 art., in: 1978-12-29ko EBO.)

6. "Las normas relativas a los derechos fundamentales y a las libertades que la Constitución reconoce, se interpretarán de conformidad con la Declaración Universal de Derechos Humanos y los tratados y acuerdos internacionales sobre las mismas materias ratificados por España." (EKko 10.2 art., in: 1978-12-29ko EBO.)

7. "La ley regulará la organización y el control parlamentario de los medios de comunicación social dependientes del Estado o de cualquier ente público y garantizará el acceso a dichos medios de los sociales y políticos significativos, respetando el pluralismo de la sociedad y de las diversas lenguas de España." (EKko 20.3 art., in: 1978-12-29ko EBO.)

8. "El fomento de la cultura, de la investigación y, en su caso, de la enseñanza de la lengua de la Comunidad Autónoma." (EKko 148.1.17 art., in: 1978-12-29ko EBO.)

9. "Esta Constitución entrará en vigor el mismo día de la publicación de su texto oficial

en el 'Boletín Oficial de Estado'. Se publicará también en las demás lenguas de España." (EKko Azken Erabagia, in: 1978-12-29ko EBO.)

10. "Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o cir-cunstancia personal o social." (EKko 14. art., in: 1978-12-29ko EBO.) Baita gogoan izan EKko 9.2 art. (Ikus 5. oharra).

11. Constitución Española.
Trabajos Parlamentarios, Cortes Generales, Madrid, 1980,
Vol. I, 8 or.

12. Trab. Parl., Vol. III, 3.079 or.

13. Al artículo 3º, 2
Texto que se propone:
"2. Las demás lenguas de España podrán ser..."
(2 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 122 or.)

14. "Debe decir que las demás lenguas 'podrán ser también oficiales'. Creo que es más congruente con el texto del artículo y no debe prejuzgarse lo que digan los respectivos Estatutos, ni imponerles esta condición inicial." (35 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 147 or.)

15. Al artículo 2º
Enmienda de sustitución del texto por otro del siguente tenor:
"El castellano es la lengua oficial del Estado.
Número 2. Las demás lenguas del Estado serán también oficiales en su ámbito territorial respectivo." (64 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol I, 165 or.)

16. Al artículo 3º
El parráfo 3 deberá decir:
"La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección, adquiriendo también carácter de coofi cialidad en los municipios, comarcas o ámbitos en que se utilicen normalmente y lo soliciten los órganos representativos correspondientes a cada ámbito." (77 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol I, 182 or.)

17. "1. Todas las lenguas nacionales serán oficiales en sus respectivos territorios. El castellano será la lengua oficial de los órganos del Estado, sin perjuicio de lo que dispongan los Estatutos de autonomía que se establezcan.
2. En los territorios autónomos de España de lengua distinta al castellano cada Estatuto de autonomía determinará el carácter oficial exclusivo o transitoriamen-

te coofícial con el castellano de la respectiva lengua.
3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección, que vendrán concretados en su uso efectivo en la estructura administrativa y de educación." (105 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 194 or.)

18. "Las demás lenguas de España serán también oficiales en los territorios autónomos de acuerdo con sus respectivos Estatutos. Todos los residentes en dichos territorios tienen el deber de conocer y el derecho a usar aquellas lenguas." (106 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 195 or.)

19. El texto dice:
"La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección".
Texto que se propone:
"... que será objeto de especial respeto, enseñanza y protección." (451 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 312 or.)

20. "1. El castellano es la lengua oficial del Estado. Las demás lenguas de España son también oficiales en los territorios autónomos, de acuerdo con sus respectivos Estatutos." (592 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 365 or.)

21. "Se añade al final del mismo lo siguiente:
"... será objeto de especial respeto, protección y promoción." (593 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 365. or.)

22. Añadir "sin perjuicio de lo dispuesto en el número 2 del presente artículo." (697. zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 424 or.)

23. "Las demás lenguas de España serán igualmente oficiales en los territorios autónomos, de acuerdo con lo que dispongan sus respectivos estatutos." (697 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol I, 424 or.)

24. Debe decir:
"1. El castellano es el idioma oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerlo y el derecho a usarlo.
2. Las demás lenguas de España podrán ser también ofi-ciales en las regiones autónomas si así lo acuerdan sus respectivos estatutos.
3. Las distintas modalidades lingüísticas de España constituyen un patrimonio cultural que será objeto de especial protección.
4. Salvo lo que dispongan las leyes, a nadie se le podrá exigir el conocimiento ni el uso de ninguna lengua regional." (736 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 451 or.)

25. "1. El castellano es la lengua oficial del Estado. Las demás lenguas de España serán cooficiales en los términos en que se asuman como tales en los respectivos Estatutos de autonomía.
2. Todos los españoles tienen el deber de conocer el caste llano y el derecbo de usarlo.

3. (Como el actual)" (779 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. I, 483 or.)

26. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 506 or.

27. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 507 or.

28. Bertan.

29. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 863-905 orr. Zuzenketa honeek, 1.978-05-12an eta 16an, Konstituzio-gaien Batzordeko Bilkuretan eztabaidatuak izan ziran.

30. Ikus: LETAMENDIA BALZUNCE Jauna, 64 zb. zuzenketa aldeztean, in: Trab. Parl., Vol. I, 863 or.

31. Ikus: AGIRRE KEREXETA Jauna, 592 zb. zuzenketa aldeztean, in: Trab. Parl., Vol. I, 871 or.

32. Trab. Parl., Vol. I, 874 or.

33. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 874-875 orr.

34. Ikus: SOLE TURA Jauna, 697 zb. zuzenketaren aldeztzaile lez, in: Trab. Parl., Vol. I, 875-877 orr.

35. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 877-878 orr.

36. Ikus: TRIAS FARGAS Jauna, 106 zb. zuzenketaren alde mintzatzen, in: Trab. Parl., Vol. I, 863-868 orr.

37. Trab. Parl., Vol. I, 874 or.

38. Trab. Parl., Vol. I, 889 or.

39. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 890 hurr.

40. Trab. Parl., Vol. I, 893 or.

41. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 894 or.

42. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 895 or.

43. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 882-883 orr.

44. Ikus: SOLE TURA Jauna, in: Trab. Parl., Vol. I, 885 or.

45. Trab. Parl., Vol. I, 886 or.

46. 77 zb. zuzenketaren aldezkoak, in: Trab. Parl., Vol. I, 896 or.

47. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 896 or.

48. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 898 or.

49. Ikus: Trab. Parl., Vol. I, 899 or.

50. Ikus: Trab. Parl., Vol. II, 1837 or.

51. 1.978-07-05ean Diputatuen Kongresoaren Osoko Bilkuran, AGIRRE KEREXETA Jaunak hizkuntzen mailakaketa salatzen dau. Ikus: Trab. Parl., Vol. II, 1931 or.

52. Trab. Parl., Vol. II, 193 or. DE LA FUENTE, LICINIO Jaunari beste hizkuntzen ofizialtasuna ez jako gogoko. Ezta ofizialtasunaren posibilitatea be.

53. Bertan.

54. Trab. Parl., Vol. II, 1938 or.

55. Katalanak adorez aldezten dabe Katalanaren bakarreango ofizialtasuna. Ikus: Trab. Parl., Vol. II, 1939-1942. orr.

56. Trab. Parl., Vol. II, 1945 or.

57. Kataluniako Sozialista Taldeak hizkuntzen parekotasunaren arduradun Herrisaila ipinten dau. Ikus: Trab. Parl., Vol. II, 1944-1947 orr.

58. Ikus: Trab. Parl., Vol. II, 2576 or.

59. "1. El Castellano o español es la lengua oficial del Estado y común de los españoles, quienes tienen el deber de conocerla y el derecho de usarla." (3.1 artikuluari aurkeztutako 130 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. III, 2717 or.)

60. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 2838 or.

61. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 2950 or.

62. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 2838, 2950 eta 2728 orr.

63. "2. Las demás lenguas de España serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos."
Trab. Parl., Vol. III, 2674 or.

64. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 2838 or.

65. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 2950 or.

66. Trab. Parl., Vol. III, 3060 or.

67. Ikus: Trab. Parl. Vol. III, 3061 or.

68. Trab. Parl., Vol. III, 3066. or.

69. Bertan.

70. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 3067 or.

71. Bertan.

72. Trab. Parl., Vol III, 3068 or.

73. Bertan.

74. MONREAL ZIA Jaunak, euskal gaian Unamunoren eritxia ez dau aintzakotzat hartzen. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 3070 or.

75. Artículo 3º
"1. Todas las lenguas nacionales serán oficiales en sus respectivos territorios. El Castellano será la lengua oficial de los órganos del Estado, sin perjuicio de

lo que dispongan los Estatutos de autonomía que se establezcan.

2. En las comunidades autónomas de lengua no castellana, cada Estatuto de autonomía determinará el carácter oficial exclusivo, o transitoriamente cooficial con el castellano, de la respectiva lengua.

3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección, que vendrán concretados en su uso efectivo en la estructura administrativa y de educación." (Trab. Parl., 2838 or. eta azalpenak 3054 or.

76. Trab. Parl., Vol. III, 3055-3056 orr.

77. Al artículo 3º

Añadir al apartado 2:

"Los poderes públicos garantizarán a todos el derecho a usar las lenguas oficiales de las Comunidades Autónomas en los territorios de éstas y asegurarán los medios necesarios para que todos los residentes en dichos territorios puedan conocerlas." (771 zb. zuzenketa, in: Trab. Parl., Vol. III, 2950 or.)

78. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 3073 or.

79. Trab. Parl., Vol. III, 3074 or.

80. Trab. Parl., Vol. III, 3077 or.

81. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 3075-3076 orr.

82. Trab. Parl., Vol. III, 3077 or.

83. Trab. Parl., Vol. III, 3079 or.

84. Trab. Parl., Vol. III, 3055 or.

85. Trab. Parl., Vol. III, 3079 or.

86. Trab. Parl., Vol. IV, 4195 or.

87. Trab. Parl., Vol. IV, 4367-4368 orr., 1978-09-26an Senatuaren Osoko Bilkuran.

88. Trab. Parl., Vol. IV, 4369 or.

89. Trab. Parl., Vol. IV, 4370 or.

90. Trab. Parl., Vol. IV, 4373 or.

91. Trab. Parl., Vol. IV, 4374 or.

92. Trab. Parl., Vol. IV, 4845 or.

93. Trab. Parl., Vol. IV, 4870 or.

94. Ikus: 17. oharra.

95. Ikus: 18. oharra.

96. Ikus: 38. oharra.

97. Ikus: Trab. Parl., Vol. III, 3077 or.

98. ENMIENDA NUM. 445

PRIMER FIRMANTE: Don Lluis María Xirinacs i Damians (Grupo Mixto)
ENMIENDA NUMERO 4
Lluis María Xirinacs i Damians, Senador independiente por Barcelona del Grupo Parlamentario Mixto del Senado, en uso del derecho que le confiere el artículo 119 del vigente Reglamento del Senado, presenta la siguiente enmienda al proyecto de Constitución, con arreglo al texto aprobado por el Plena del Congreso de los Diputados, publicado por el "Boletín Oficial de las Cortes", número 135, de 24 Julio de 1.978.
ENMIENDA AL ARTICULO TRES (3) - TOTAL -
"Las lenguas oficiales de la Confederación serán aquellas que sean oficiales en cada uno de los Estados. Ningún ciudadano está obligado a conocer otra lengua que aquellas que determina su Constitución Nacional."
MOTIVACION
Por coherencia con los artículos 1º y 2º enmendados.
(Trab. Parl., Vol. III, 2851 or.)

99. LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autónomico", in: AUTONOMIES, (Revista Catalana de Derecho Público) 9 zb., 48 or.

100. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; "La doble oficialitat linguística a l'Estat Espanyol", in: LLENGUA I DRET
(Treballs de l'area 5 del segon Congrés Internacional de Llengua Catalana. Barcelona-Andorra 1986). Generalitat de Catalunya. Institut d'Estudis Autonómies. 1987, 36 or.

101. Ikus: 1.986-06-26ko epaia.

102. Bertan

103. Ikus: Euskeraren Erabilera Arauskotzeko Oinarrizko Legearen 5. art.
1986-06-26ko epaiak ez dakar ezer hizkuntza propioari buruz.

104. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; O.C., 42 or.

105. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; O.C., 41 or.

106. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; O.C., 44 or.

107. EKko 3.2 art. in: 1978-12-29ko, EBO.

108. Konstituzio autorpenaren lurralde zentzua esanahi bikoitzean aitu behar da: ofizialtasun autorpenak autonomiadun Elkarteen lurraldeetako herrisaila behartzen dau, eta bigarren, autorpenaren hizkuntza eskubideak lurralde barrian bakarrik eskatu leitekez. Norbere lurraldetik kanpo, nortasun oinarriak ez dauka indarrik.

109. Ikus: 1.986/82 zenb. KAE, 2, 5 eta 7 ZO.

110. Ikus: MILIAN I MASSANA, ANTONI; "La regulación constitucional del multilingüismo" in: REDC, 11 zb., 1984, 134-136 orr.
Baita "La regulación estatutaria de las lenguas distintas del castellano", in: RVAP, 6 zb., 238-240 orr.

111. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; O.C., 37 or., eta 3. oha rrean 1.986/82 zenb. epaitik be idea hau datorrela dino.

112. 1.986/82 zenb. KAE, 2. ZO.: "El castellano es medio de comunicación normal de los poderes públicos y entre ellos en el conjunto del Estado Español,... en virtud de lo dicho, al añadir el número 2 del mismo artículo 3 que las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomicas, se sigue asimismo que la consecuente cooficialidad lo es con respeto a todos los poderes públicos en el territorio autónomo sin exclusión de los órganos dependientes de la Administración central y de otras instituciones estatales en el sentido estricto."

113. Konstituzioak beste hizkuntzen ofizialtasuna iragarri besterik ez dau egin, eta

nere ustez, ez dauka egin beharrik be eta ezta ezagutu beharra manatu be. Hori Autonomiadun Elkateen esku dago. Ikus: 1.986/82 KAE, lehenengo zuzenbidezko errazoibidea.

114. Ikus: 1.984-04-25eko KAE.
Baita, Estatutoaren aurretik be, 1.979-12-28eko Generalitat-aren Dekretoak eraginkortasun osoa onartzen dau.

115. "Despréndase, pues, de ello que el art. 3.1 de la Constitución y los artículos correspondientes de los respectivos Estatutos de Autonomía son la base de la regulación del pluralismo lingüístico." 1.982/10 (Euskeraren Legeari buruzko 1.986/82 zenb. KAE.)

116. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; O.C., 40. or.

117. Bertan.

118. EKko 3.1 art., in: 1978-12-29ko EBO.

119. PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; O.C., 44or.

120. 1986/82 zenb. KAE, 2. ZO.

121. Ikus: MALIAN I MASSANA, A.; "La regulación constitucional del multilingüismo", O.C., 132 or.
Baita: SEGURA GINARD, LUIS J.; "Comentario sobre el régimen jurídico lingüístico del Estado de Autonomía de las Islas Baleares" RPAV, 8zb., 1984, 237 hurr.

122. Ikus: LOPÉZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autonómico", O.C., 49 or.

123. 86/84 zenb. Epaia Ekainaren 26koa, 2. ZO.

124. 86/82 zenb. KAE, 9. ZO.
Baita SEGURA GINARD, LUIS J.; O.C., 239 or.

125. Ikus: 86/84 zenb. KAE, 2. ZO.

126. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; O.C., 47 or.
Baita: 86/82 zenb. KAE, 2 eta 3. ZO.
Baita: SEGURA GINARD, O.C., 240 or., quien mantiene que la constitucionalización del deber de conocer el castellano "no supone una modificación de los

efectos de la oficialidad, de tal manera que, si no existiese tal deber, el régimen jurídico del castellano permanecería invariable."

127. 86/84 zb. KAE, 2. ZO.

128. SEGURA GINARD-en aurkako eritxia 126. oharrean.

129. Bertan.

Baita ikusi: LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; O.C., 51 or., 15. oharra: "Rafael Entrena Cuesta: Art. 3, en Garrido Falla (dir.) op. cit., pp. 61-62. Como ya hemos señalado, el TC, sin embargo, ha rechazado explicitamente la posibilidad de incluir en el régimen jurídico de las lenguas (co)oficiales de la Comunidades autónomas el deber de conocimiento de las mismas, entendiendo que tal posibilidad está excluida constitucionalmente: vid. STC 84/86, sobre el gallego. Hay que decir que, en todo caso, la polémica sobre esta situación ha sido fundamentalmente una polémica "nominalista", ya que la declaración de inconstitucionalidad del deber de conocimiento de las lenguas propias de las Comunidades autónomas no ha supuesto la declaración de inconstitucionalidad de las normas que especifican las consecuencias de ese deber, por lo que aquella declaración no ha supuesto ninguna alteración del régimen jurídico efectivo de las mismas."

130. 86/84 zenb. KAE, 2. ZO.; eta 86/82 zenb. KAE, 9. ZO. euskal hiztunen lurraldeetan euskera hutsa jartzea Auzitegiak Konstituzio aurkakoa dala dino, gaztelera erabilteko posibilitatea herrisailari kentzen deutsolako.

131. Ikus: 129. oharra.

132. Ikus: LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; O.C., 52 or., eta batez be bere 16. oharra.

Hizkuntza propioak ezagutu beharra Konstituzioz jartzeko Lurraldeetako ordezkari politikoak arduraz jokatu eben Diputatuen Kongresoan eta Senatuan.

133. PUIG I SALELLAS Jaunak dinoanez, autonomiadun Elkarteak dira hizkuntzaren ofizialtasuna eta ezagutu beharra manatzeko eskubidedunak, baina 86/82 zenb. KAEpaiak be ez dauka gogoan errazoibide hau.

Ikus: "La doble oficialitat lingüística a l'Estat Espanyol", O.C.; 50 or.

134. Autonomiadun Elkarteak, Gailegoa salbuespen, ez dabe hizkuntza propioa ezagutu beharra manatzen, eta eskubiderik ez dagola uste da eta eukiteko posibilitate eza. Ikus: PUIG I SALELLAS; O.C., 50 or.

135. Ikus: 1.986-06-26eko Euskeraren Legeari eta Gailegoaren Legeari buruzko Epaiak, eta bietan Konstituzioaren gazteleraren aldeko erreferentzia eta beste hizkuntza ofizialei buruzko ixiltasuna dira oinarri.

136. Ikus: 13. oharra.

137. Ikus: 18. oharra.

138. Ikus: 36. oharra.

139. Ikus: 34. oharra.

140. Ikus: 37. oharra.

141. Ikus: LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autonómico", O.C., 52 or.

142. Bertan.

143. Ikus: LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autonómico", O.C., 53 or., 19. oharrean hauxe dino: "Esta es la argumentación en que se ha basado, de forma general, las posiciones contrarias a la consideración de que el diseño del modelo lingüístico corresponde a los Estados de Autonomía: vid. la posición del abogado del estado en la sustentación de los recursos de institucionalidad contra las leyes de euskera, catalán y gallego, asumida en el voto particular del Magistrado Diez Picazo a la STC 82/1.986, op. cit., así como las consideraciones de Marín Riano, op. cit. pp. 1306 y ss. En sentido contrario, se expresa con toda claridad el Consejo Consultivo de la Generalidad, op. cit., pp. 513-514, donde se pone de manifiesto la dualidad de la consideración de la cuestión lingüística en nuestro texto constitucional, no siempre como 'materia', quedando claro en otras ocaciones 'que los principios constitucionalesincorporados al Estatuto no constituyen una materia específica, objeto de competencia, sino unas prescripciones fundamentales que deben ser respetadas por constitucionales.' Hay que tener en cuenta, en todo caso, que, ya con anterioridad, se habían mantenido consideraciones semejantes en lo que se refiere a la no consideración de la regulación del modelo lingüístico como 'materia' en sentido estricto, sin que necesariamente se dedujesen las conclusiones a las que llega la doctrina que se acaba de citar; para la no consideración de la regulación del modelo lingüístico como materia en sentido estricto, vid. Segura Ginard, op. cit., p. 248."

144. Bertan. Ikus: DIEZ PICAZOren boto partikularra.

145. 86/82 zb. KAE, 1go. ZO.

146. Bertan, 2. ZO.

147. Gernikako Estatutoa Euskal Herriko Legea da, eta baita Estatuko Lege Organiko be.

148. 88/82 zb. KAE, 5. ZO.

149. Bertan.

150. Ikus: LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autonómico" in: AUTONOMIES (Revista Catalana de Derecho Público) 9 zb., 1988, 55 or.

151. Ikus: LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autonómico" in: AUTONOMIES (Revista Catalana de Derecho Público) 56 or. Gainera 27. oharrak zera dino: "Este es el problema que formalmente se ha planteado, por ejemplo, en materia de derechos lingüísticos en el ámbito procesal, con la regulación del art. 231 de la Ley Orgánica 6/85, del Poder Judicial, que regula parcialmente aquéllos. El Magistrado Rubio Llorente, en el voto particular citado a la Sentencia 82/86, mantiene la inconstitucionalidad de la regulación autonómica, basada en el art. 149.1.5 CE; en nuestra opinión, el hecho de que la competencia en Administración de justicia correspondiente al Estado no puede suponer una compartimentación de la regulación del régimen jurídico de la lengua vernácula como lengua cooficial de la Comunidad autónoma, ya que ello supondría desintegrar el alcance de la declaración del art. 3.2. Efectivamente, como afirma Rubio Llorente, uno de los dos legisladores ha sobrepasado los límites de su competencia propia, aunque, en nuestra opinión, ha sido el legislador estatal quien lo ha hecho."

152. 86/82 zb. KAE, 4. ZO.

153. Bertan.

154. Bertan.

155. Ikus: MILIAN I MASSANA, ANTONI; "La regulación del multilingüísmo", O.C.; 135, 136 eta 140 orr.

156. Ikus: "II Errepublika garaiko Euskal Herriko autonomiaren ezaugarriak eta 1979eko Estatutua" in: RVAP, 16 zb., 1986, 25 eta hurr.

157. Ikus: 1.983/36 zenb. KAEpaia, 2. ZO.

158. Ikus: 1.983/76 zenb. KAEpaia, 42. ZO.:

"... Una interpretación sistemática de los preceptos cons
titucionales y estatutarios, lleva, por una parte, a considerar el conocimiento de la lengua propia de la Comunidad como un mérito para la provisión de vacantes, pero, por otra, a atribuir el deber de conocimiento de dicha lengua a la Administración autonómica en su conjunto (178), no individualmente a cada uno de sus funcionarios, como modo de garantizar el derecho a usarla por parte de los ciudadanos de la respectiva Comunidad."

159. Ikus: 1.986/82 zenb. KAE, 8. ZO.

160. 1983-08-05eko Epaia.

161. 1986/84 zb. KAE gailegoa ezagutu beharraren aurka dator.

162. Ikus: ARANZADI, 4608.

163. Ikus: TOLIVAR ALAS, LEOPOLDO; "Las libertades lingüísticas" Instituto Nacional de Administración Pública. Colección: Nueva Investigación (7) Madrid 1.987, 137 or.
Baita: 1.985-07-23eko epaia, hau dinoanean:
"... ambos sistemas cabe señalar, aseguran el conocimiento de las dos lenguas oficiales de la Comunidad, en grado de plena igualdad que impide cualquier tipo de imposición lingüística, al no descansar exclusivamente ni en el principio de la personalidad ni en el principio de territorialidad y por consiguiente no producen discriminación entre los ciudadanos por cuestión de las diferencias lingüísticas al imponer el uso y utilización común de ambas indistintamente. Es deseo de la Constitución, pues, que en Cataluña los ciudadanos tengan el derecho y el deber de conocer el catalán y el castellano como consecuencia de haber sido declaradas por el artículo 3 de la Norma Fundamental oficiales en esta Comunidad... "

164. Ikus: EKaren 24. art. eta 1.983/36 zenb. KAE, 2. ZO.

165. Ikus: 1.987/74 zb. KAE, ulerkera hori onartzen.

166. Bere oinarri eta errazoibideak aztertzerakoan hori ikusi daiteke.

167. EKko 3.3 artikuluaren ikerketa egiterakoan, ikus: ENTRENA CUESTA, RAFAEL; "Comentarios a la Constitución" Obra Colectiva dirigido por Garrido Falla. Editorial Civitas, Madrid, 1980, 57-58 orr.

168. Ikus: LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autonómico", O.C., 59 or.
Baita: PIZZORUSSO, ALESSANDRO; "Libertad de lengua y derechos lingüísticos: un estudio comparado" in: RVAP, 16 zb., 1986, 133 hurr.

169. Ikus: LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autonómico", O.C.; 59 or.

170. Ikus: MILIAN I MASSANA, ANTONI; "La regulación Constitucional del multilingüismo" In: Revista Española de Derecho Constitucional, 10 zb., 1.984, 148 or.

171. Ikus: tesiaren 3. Kap.

172. Ikus: MILIAN I MASSANA, ANTONI; "La regulación Constitucional del multilingüismo", O.C.; 136 eta hurr.

173. EKko 3.1 art., in: 1978-12-29ko EBO.

174. EKko 3.2 art., in: 1978-12-29ko EBO.

175. Ikus: EKko 3.3 art., in: 1978-12-29ko EBO.

2.- EUSKAL HERRIKO AUTONOMIADUN ELKARTEA ETA EUSKERAREN LEGE TRATAMENDUA.

2.1. GERNIKAKO ESTATUTOA.

2.1.1. Gernikako Estatutoa.

2.1.1.1. Estatutoaren Aurretikoak.

2.1.1.2. Gernikako Estatutoa.

2.1.1.3. Gernikako Estatutoaren hizkuntzarekiko berezitasunak.

2.1.2. Hizkuntza Ofizialen Araugintzarako Eskumenak.

2.1.2.1. Eskumenen alkar topaketa.

2.2. EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA

2.2.1. Sarrera.

2.2.2. Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea.

2.2.3. Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea Auzitegian.

2.2.4. Zuzenbidezko ondorioak.

2.1. GERNIKAKO ESTATUTOA.

2.1.1. Gernikako Estatutoa.

2.1.2. Hizkuntza Ofizialen Araugintzarako Eskumenak.

2.1.1.1. Estatutoaren Aurretikoak

Gernikako Estatutoaren aurregitasmo eta azalpen bihurtuko diran hainbat pauso emon dira Euskal Herrian (1). Lan aintzagarrien artean Euskal Estatutoak ezin dira ahaztu.

a.- Euskal Estatuaren Estatuto Orokorra.

1.931-05-31an, Euskal Estatutoaren Aurregitasmoaren testu osoa onartu eban Eusko Ikaskuntza Alkarteak (2). Aurregitasmo hau, Euskal Herriko Udaletxeetako arduradunak eskatuta gertatu eban Eusko Ikaskuntza Alkarteak.

1.931-06-14an Lizarran ospatutako Euskal Udaletxeen Batzar Haundian onartu zan Euskal Estatuaren Estatuto Orokorraren testua (3). Estatuto honi Lizarrako Estatutoa deitzen jako. Sarrera modura, Estatutoak azalpen bat dakar Euskal Herriaren askatasun historia edestuz, eta 1go artikulua Euskal Herriaren nortasun eta eraketari buruzko atariko-autorpenagaz hasten da.

5. Burua da hizkuntzaz diharduna. Bere 16. eta 17. artikuluetan holan dino:

> "16. artikulua: Euskaldunen herri hizkuntza euskera da. Gaztelaraen baldintzakin ofiziala lez onartua izango da bera.
>
> 17. artikulua: Euskal hizkuntzaren lurraldeetako eskoletan, irakaskintzarako hizkuntza lez euskera erabiliko da, gaztelera gai lez maila guztietan irakatsiz; gaztelera hizkuntzaren lurraldeetan, barriz, irakaskintza hizkuntza honetan emongo da, ikasgai lez euskera maila guztietan irakatsirik.
>
> Funtzionari guztiek, bai administratiboek eta bai ebazleek, lehenengoetan zerbitzua daukienak, euskera ezagutu beharko dabe.
>
> Artikulu hau betetzeko, Aldundi bakoitzak izendatuko ditu euskal hizkuntzaren lurraldeak" (4).

b.- Batzorde Jestoreen Estatutoa.

1.932-03-21ean, Arabako, Bizkaiako, Gipuzkoako eta Nafarroako Aldundien Batzorde Jestoreak idatzitako Euskal Herriaren Estatutoaren Egitasmoa aurkezten da (5).

Hizkuntzari buruz, bere 2. Buruko 13. artikuluak hauxe dino:

"Nafarren eta euskaldunen jatorrizko hizkuntza, euskera da; eta, gaztelaniak lez, izate ofiziala eukiko dau Nafarroan eta Euskal Herrian.

Nafarroaren eta Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko hartuemonak, baita Errepublikako Agintariek Espainiakoekin daukiezenetan be, gaztelera izango da hizkuntza ofiziala.

Euskal lurraldeetako biztanleak, Zuzenbideari dagokiozan hauziarazoetan eta administrazio gorabeheretan, euskera erabilteko eskubidea dabe Nafarroan eta Euskal Herri barruan.

Euskalerriko administrazio ta ebatzi-tokietatik datozan erabagi ta manu ofizialak, gazteleraz eta euskeraz idatzi ta iragarriko dira, euskal barrutian bete-beharra daukienean.

Nafarroako eta Euskal Herriko euskal lurraldeetan hizkuntza biak erabiliko dira irakaskintzan, eta lurralde horretako Aldundi bakoitzak emongo ditu hori aurrera eroateko arauak.

Bigarren eta goi irakaskintza hizkuntza bietan emon daiteke, Errepublikako Konstituzioak erabagiten dauan baldintzakin.

Funtzionariak, bai administraziokoak eta bai ebatzi-sailekoak, lurralde horreitako langile baldin badira, euskera ezagutu beharra dabe, Estatuto hau ezartean zerbitzuan egozanak izan ezik; honeei ontzat hartuko jake euren egoera, lortuta daukiezan eskubideak onartuz.

Aitatuko Aldundiak hesituko dabez esparruak, euskaldunak zeintzuk diran zehatz adierazoz" (6).

1.933ko dagonilaren 6an Gasteizen, Arabako, Gipuzkoako ta Bizkaiko

Aldundietako Batzar eragileak eta hiru probintzietako Udaletxeen Batzarrak onartutako Euskal Herriaren Estatutoaren Egitasmoa eta 1.933ko azaroaren 5ean herrieritxiz onartutakoak (7) honela dino hizkuntzari buruz bere 11. artikuluan:

> "Euskaldunen jatorrizko hizkuntza, euskera da; eta Euskalerrian, gaztelerak lez hizkuntza ofizialaren maila eukiko dau.
>
> Euskalerriak eta Espainiak alkarregaz daukiezan hartuemonetan eta Errepublikako Agintariekin eukileikezan beste arazoetan, gaztelera izango da hizkuntza ofiziala.
>
> Euskal lurraldeetako biztanleak, Zuzenbideari ta administrazioari buruzko gauzetan euskera erabilteko eskubidea izango dabe, Euskalerri barruan.
>
> Euskalerriko administrazio ta ebatzi-tokietatik datozan erabagi ta manu ofizialak, gazteleraz eta euskeraz idatzi eta iragarriko dira, euskal barrutian betebeharrekoak diranean.
>
> Euskalerriko euskal lurraldeetan hizkuntza biak erabiliko dira irakaskintzan, bertako Aldundiak hortarako emondako lege ta arauak gordeaz.
>
> Bigarren eta goi irakaskintza hizkuntza bietan emon daiteke, Euskal Konstituziokoak erabagitako baldintzetan.
>
> Funtzionariak, bai administrazioak eta bai hauzi-sailekoak, lurralde horreetako langile badira, euskera ezagutu beharra daukie, Estatuto hau ezartean zerbitzuan dagozanak izan ezik, honeei euren egoera aintzat hartzen jake, lortuta daukiezan eskubideak onartuz bost urte barruan euskeraz ikasteko aholkua emonez.
>
> Aitatutako Aldundiak, ondorio honetarako euskal izena merezi daben lurraldeak zeintzuk diran izendatutako dabez" (8).

d.- 1.936-10-06ko Euskal Herriaren Estatutoari buruzko Legea (9).

Lege honetan, 1go Buruko lehen artikuluaren 3. atalean hizkuntzari buruz honela irakurten da:

"Gaztelera lez, euskera izango da, Euskalerriko hizkuntza ofiziala eta, ondorioz, euren jabe diran agintariengandik datozan erabagi eta manu orokor ofizialak, hizkuntza bietan idatziko dira.

Espainiar Estatuagaz edo bere agintariekaz hartuemonetarako hizkuntza ofiziala gaztelera izango da" (10).

Bigarren Buruko 7. artikuluak, barriz, zehaztasun honeek dakarz.

"Euskeraren eta gazteleraren ofizialkidetasuna Euskal Herriak arautuko dau ondorengo arauen arabera:

Hizkuntza bietan idatzi ta iragarriko ditu euskal lurraldeetan eragina izango daben erabagi ofizial guztiak.

Euskalerriko edozein Auzitegi, Agintari ta funtzionarigaz euki leikezan hartuemonetan nahien daben hizkuntza aukeratzeko eskubidea onartuko jake euskal hiztun lurraldeetako biztanleei.

Euskal Agintari ebazleen aurrean aurkeztu nahi edo bertoko fede-emoileak ikusi ta izenpetu behar dabezan agiri ta dokumentuak edozein hizkuntzatan idaztea erabat itziko da.

Euskeraren eta gazteleraren erabilera arautuko dau Konstituzioaren 50gn. artikulua kontutan harturik.

Euskal lurraldeetan zerbitzua daukien funtzionari guztiei eskatu leikioe euskera ezagutu daiela, Estatuto hau burutu ta ezarri zanean ez ekienai izan ezik.

Aldundiak, adierazoko dabe zeintzuk diran euskal lurraldeak" (11).

2. Errepublikako Estatutoetan agertzen diran hizkuntzari buruzko aipamenak badabe euren garrantzia.

Gernikako Estatutoan onartuko dan hizkuntzarekiko araubidearen zehaztasun asko eta berezitasun ugari aurreko Estatutoetan ernetakoak ez diranik ezin esan.

Euskaldunon jatorrizko hizkuntza dalako, euskera nazio hizkuntza lez arautzen dabe Udaletxeetako, hau da, euskal herrietako arduradunak, euskerari etorkizunerako bizitza aukerak urratu, bilatu eta zihurtatu nahirik.

Euskal Herriko hizkuntzari etorkizuna ahalbideratzeko ofizialtasuna eskatzen dabe Aldundietako Batzorde Jestoreek.

Horregaitik, "Jaurlaritza eta herri-erakundeen laguntza barik Euskal Herriak ezin deutsola bere hizkuntzari bizirik eutsi eta euskera galdua eskuratu be ez, euskal herritar eta euskal agintariek gero ta gehiago sinistu dabe" (12).

Baina, zoritxarrez, Errepublika garaiko Estatutoen hizkuntza eredu eta asmoak ez ziran loratu.

Errepublika garaian aituezina eta Francogaz zapalkuntza, euskaldunen askatasun gurak eta hizkuntzaren berbizkunde gogoak euskeraganako gorroto biziak iruntsi ebazan.

Gerra-ostean, Francoren aldia guztiz zori-gaiztokoa izan zan Euskalerriarentzat, gizarteari ta euskereari begira hain zuzen be, ondo zigortua izan zan gure hizkuntza, bai kalean eta bai baserrian (13). Honek galpen ikaragarria ekarri eutson euskerari. Aurretik egoan gora-nahi ta arnas beroa ito ez-ezik, lan barririk egiten ez jakon itzi urte askotan. Ez aldizkaririk, ez egunerokorik, ez libururik... eta zerbait lortzen bazan, eragozpen ugari gainditu ondoren. Jendea, halan be, nahiz eta bildurrak jota, euskeraren aldekoa be baegoan. Eta ixil-mixilka edo agirian, zerbait lortu nahi eta, hemen, hor-han sortu ta jasotako Ikastolak, aldizkariak eta euskeraz erakusteko tokiak ahaztu ezinekoak dira.

Franco hil ondoren, nahiz eta -ez da harrigarri, hainbat urtez lezabarruko gerizpetan bizi ondoren- lehenengotan motel samar ibili, egia esan, aro barri

bat hasi zala euskerarentzat ezin da ukatu. Nasai-aldi honen lehen urteetan Euskal Herriko Kontseilu Orokorrak Estatutogintzari ekin eutson.

2.1.1.2. Gernikako Estatutoa

Gernikako Estatutoaren Egitasmoa onduteko ekinbidea Euskal Herriko Kontseilu Nagusian hasi zan.

1.978-11-14an, Bilbon Bizkaiko Aldundian egindako batzarrean, Autonomia Estatutoaren Egitasmogintza Euskal Parlamentarien Batzarrari egotzitea erabagi eban Kontseilu Nagusiak (14).

Euskal Kontseilu Nagusiak Euskal Parlamentarien Batzarrari dei egiten eutson, eta 1.978-11-20an Arabako Foru Aldundian batzartu ziran. Estatutoaren Egitasmogintzarako egutegia egin eta idaz-batzordea izendatu eben (15).

Idaz-batzordekideak honeixek izan ziran:

EAJ: Javier Arzalluz, Jose Angel Cuerda, Emilio Guevara, Kepa Sodupe eta Carlos Garaikoetxea Jaunak.

PSE: Jose Maria Benegas, Jose Antonio Maturana, Enrique Iparraguirre, Luis Alberto Aguiriano eta Carlos Solchaga jaunak.

UCD: Juan Echevarría Gangoiti, Jesus Viana eta Jaime Mayor Oreja Jaunak.

EE: Mario Onaindia eta Juan Maria Bandres Jaunak.

AP: Pedro Mendizabal Jauna.

ESEI: Goyo Monreal Jauna.

Independientea: Juan Maria Vidarte Jauna.

Parlamentari ez ziran partiduetatik, Roberto Lertxundi (P.Comunista) eta Mariano Zufia (P.Carlista) Jaunak izan ziran izendatuak (16).

a. IDAZ-BATZORDEARI AURKEZTUTAKO EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTOAREN EGITASMOAK ETA SALOAK

Alderdi politikoek, erakundeek eta alkarteek Estatutoaren Egitasmoak Eusko Kontseilu Nagusiaren Idazkaritzara aurkeztzeko aukera izan eben. Idazkaritzak Eusko Parlamentarien Batzarraren idaz-batzordeagana pasatu ebazan, idaz-batzordeak aztertu eta ikertu ondoren Estatutoaren Aurregitasmoa idazteko (17).

Hainbat argibide eta laguntza jaso ziran erantzunen bidez. Hizkuntzari buruz aurkeztu ziran asmo behinenak batuko dira.

a.1. Euskaltzaindiaren idazkia

1.978-11-20an, Euskaltzaindiak Autonomia Estatutoaren Egitasmoaren idaz-batzordeari bialdutako idazkia hauxe da:

> "Agur t'erdi!
>
> Euskal Herriko Autonomi Estatutua dela eta, astearte honetan, hartu duzuen 3. a) erabakiaren arauera, Akademi Elkargo honek ere bere esatekoa duela erabaki du Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, zuzenki gai hauetan:
>
> 1) Hizkuntzarekiko gaietan, Elkargo honi badagokiola eskubiderik, eta horren ondorioz entzuna izatea nahi duela.
>
> 2) Erakunde izen eta terminologia arloetan ere argibide eta arauak ematea badagokiola.
>
> Eta bestalde, Euskeraren Liburu Zurian dauden pundu interesgarri askori arta izatea eskatzen du, batez ere 'Hizkuntza Estatutoen politikan' deritzan zatiari (441, 453 orr.)
>
> Kontseilu hori, Parlamentari Biltzarra eta dagokion beste edonor jakinen gainean uzteko, guzti hau adieraztea atsegin dut, tartean artozki agurtuaz.

Fr. LUIS VILLASANTE-EUSKALTZAINBURUA (18).

a.2. Liga Komunista Iraultzailea

Talde honek Estatutogintzarako Oinarriak bialtzen ditu. Lehenengo Buruko 5. eta 6. atala dira hizkuntzari dagokiozanak:

> "5. Euskera izango da Euskadiko hizkuntza ofiziala, eta gaztelera izango da ofizialkide euskeragaz batera.Onartu ta babestua izango da gaztelera-hizkuntza (edo euskera ez dan beste edozein hizkuntza) zuzenbide ta administrazio arazoetan erabilteko eskubidea bermatuz; baita bereizkeri bako irakaskintza hartzeko eskubidea be, eta, orohar, ez dedila izan ezetariko bereizkeririk, eta ez behartutako osatzerik. Eusko Errepublikak ontzat hartu ta babestuko ditu bere lurralde barruan bizi diran giza-alkarte guztiak.
>
> Euskera gaur oso atzeratua daukagu. Atzerakuntza horretatik urteteko behar dituan neurri guztiak hartu beharko dira, gure hizkera normaldu ta Euskadi barriro be euskaldundu dedin.
>
> 6. Estatuko herrisailagaz euskera hizkuntza ofiziala izango da, beste nazio-hizkuntzen baldintza bardinekin" (19).

Euskeraren ofizialtasuna aldezten da. Herritar bakoitzaren askatasunaren aurka joateko eskubiderik inork ez dauka. Euskera indarbarritzeko hizkuntzaren (euskeraren) normalkuntza eta Euskadi Euskalduntzea aldarrikatzen da.

6. atalean hizkuntzen bardintasuna nahi da.

a.3. Langileen Erakunde Iraultzailea (20).

1.978-11-25ean Autonomia Estatutoaren Aurregitasmoa aurkezten dau erakunde honek. 2.artikulua da hizkuntza gaia erabilten dauana.

"2. artikulua

1.- Euskera izango da, Gaztelera lez, hizkuntza ofiziala Euskadin, eta danak eukiko dabe erabilteko eskubidea.

2.- Eusko Jaurlaritzak bermatuko dau euskeraren eta gaztelera-ren erabilera ofiziala eta hizkuntza biak ezagutzeko hartu behar diran neurriak ez ditu saiets itziko.

3.- Auzitegietan, herrisailagaz eta funtzionariekin nahi daben hizkuntza aukeratzeko herritar guztiak daukien eskubidea ontzat hartzen da" (21).

Euskeraren ofizialtasuna eta hizkuntzen bardintasuna dira gehien azpimarratzen diranak.

a.4. Euskadiko Karlisten Alderdia (E.K.A.)

1.978-11-25ean Estatutogintzarako Oinarriak, oso labur, aurkezten deutsoz idaz-batzordeari. Bere oinarrietan hizkuntzari buruz dinoana hauxe da:

"Euskera eta Gaztelera, Euskal Herriko hizkuntza ofizialak dira, eta biak baldintza bardinetan alkar biziko dira.

Gazteleragaz benetan parekatzeko, bai lurralde eta bai nazio mailan, erakunde eta herrisailak Euskeraren suztatze eta garatzea babestuko dau" (22).

Beste taldeak lez, EKA be euskeraren ofizialtasunak kezkatzen dau. Eta Estatuko eta Euskal Herriko Herrisailei, biei, gazteleraren eta euskeraren arteko benetako eta egiazko pareko-
tasuna bermatzeko dinotse.

a.5. Alianza Popular (AP)

APk be, bere Egitasmoan hizkuntzari buruz artikulutxo bat badakar. Talde honek hizkuntzen bardintasuna ulertzeko era berezia eskatuko dau.

3. artikulua honela idatzita dago:

"Gaztelera lez, euskera izango da Euskal Herriko hizkuntza ofiziala eta, ondorioz, orokor eran Autonomiadun Herrisailak hartzen dituan erabagi ofizialak, hizkuntza bietan idatziko dira. Estatuko Administrazioagaz, gaztelera izango da hizkuntza ofiziala" (23).

Talde honek ofizial izatea zertan datzan aitzeko era berezia dauka. Lehenengo euskera eta gaztelera alkarren pare jartzen ditu. Baina Estatuagaz hartuemonak eukiteko, gaztelera da hizkuntza bakarra.

a.6. Lanaren Alderdia

Talde honen Autonomia Estatutoaren Aurregitasmoan lan sakona eta zabala ikusten da. Hizkuntzetaz 4. artikuluak dihardu:

"Euskadiren hizkuntza propioa Euskera da. Hizkuntza hau, gaztelaragaz batera, autonomiadun Elkartean ofiziala izango da.

Euskadiko Herrisailaren erabagi orokorrak hizkuntza bietan argitaratuko dira.

Euskadin kargua daben funtzionariak, nahiz Estatuarenak, nahiz autonomiadun Elkartearenak izan, nahiz auzitegietakoak nahiz administraziokoak izan, autonomiadun Elkarteko hizkuntza propioa ezagutu beharko dabe, autonomiadun legebiltzarrak legeak ipini dituan epe eta baldintzetan.

Herritarrak Herrisailagaz dituan iharduketetan, herritarraren aukeran, edozein hizkuntzetan mintzatuko dira, alderdi interesdunak eskatu baledi

behinik behin, beste hizkuntza ofizialean bere idaztiekin itzulpena laguntzeko betebeharraz"(24).

Talde honetan hizkuntzaren jabetasunaren konzetua agertzen da. Euskal Herriaren hizkuntza propioa Euskera da.

Zuzenbidearen ikuspuntutik, oinarrizko garrantzia daukan beste konzeptua: Herrisailak barik herritarrak dauala eskubidea nahi dauan hizkuntza aukeratzeko.

Funtzionariak herritarren zerbitzurako dagozan ezkero, euskera ezagutu behar dabe.

a.7. Eusko Alderdi Jeltzailea-Euzkadi Buru Batzarra

1.978-11-25ean, aurkeztu eutson Euzkadiko Autonomia Estatutoaren Egitasmoa idaz-batzordeari. 7. artikuluan, hauxe irakurtzen da:

1.- "Euskal Herriaren hizkuntza propioa euskera da.

2.- Euskal eta gaztelera hizkuntzak Euskal Herrian ofizialak dira eta biztanle guztiak daukie biak erabilteko eskubidea.

3.- Euskal Herriko Herrisailak euskeraren eta gazteleraren erabilera ofiziala bermatuko dabe eta hizkuntza biak ezagutzeko behar diran neu-rriak hartuko dabez" (25).

Labur, baina hizkuntzari buruz zuzenbidezko konzeptu oinarrizkoenak aipatzen dira: hizkuntzaren jabetasuna, ofizialtasuna eta bardintasuna.

a.8. P.S.E.-P.S.O.E. Euskadiko Sozialisten Alderdia

Talde honek bi artikulutan ikutzen deutso hizkuntzaren gaiari: 3.artikulu osoan eta 7.2 atalean.

3. artikulua:

"1.- Euskera eta Gaztelera dira Euskadiko hizkuntza ofizialak. Herritar guztiak daukie eskubidea biak ezagutu ta erabilteko.

2.- Eusko Jaurlaritzako erakundeak babestuko dabe Euskeraren eta Gazteleraren erabilera ofiziala, eta hizkuntza biak ezagutzeko bideak zabalduko dabez.

3.- Eusko Parlamentuak arautuko dau hizkuntza bien erabilera, Euskadiko lurraldeetako gizarte-hizkuntza eta bestelakotasuna gogotan izanik.

4.- Estatuko erakundeekaz eta beste autonomiadun Elkarteekaz ta Espainiako probintziekaz, gaztelera erabiliko da" (26).

7.2 artikuluak dino:

"Euskal Herrisailak Euskeraren irakaskintza suztatuko dau eta hizkuntza normalkuntzaren oinarriak arautuko ditu" (27).

Euskeraren jabetasunari buruz ez dakar ezer. Estatuagaz hartuemonak eukiteko euskerak ez dau balio.

a.9. Euskadiko Partidu Komunista (E.P.K.)

Alderdi honen Estatutoaren Egitasmoaren 3. artikuluak dino:

"Euskaldunen jaiotizkuntza euskera da, eta gaztelra lez, Euskadin hizkuntza ofiziala izango da.

Euskadik Estatuko agintariekin, eta Esapiniako beste lurraldeekin dituan hartuemon ofizialetan, gaztelera izango da hizkuntza ofiziala.

Euskadiko autonomiadun Elkarteko herrisailak euskeraren eta gazteleraren erabilera ofiziala bermatuko dabe, eta bi hizkuntzen ezagumena segurtzeko behar diran neurriak hartuko dabez" (28).

Euskera euskaldunen jatorrizko hizkuntza dala autortu arren, euskerari lehentasunik ez deutso emoten. Eta ofizialtzat jo arren Euskadin bertan be, gaztelerak izango dau lehentasuna Estatuko herrisailagaz jardutzeko orduan.

a.10. Euskadiko Ezkerra

Euskadiko Ezkerrak aurkeztutako Euskadirako Estatutoaren Aurregitasmoa zioen azalpenagaz hasten da. 6 ataleko artikulu luzea eskeintzen dautso hizkuntzari:

"3. artikulua:

1.- Euskera da Euskadiko hizkuntza nazionala.

2.- Euskera ta gaztelera dira Euskadin hizkuntza ofizialak, ta danak daukie eurak erabilteko eskubidea.

3.- Euskal Aginteak bermatu ta arautuko dau euskeraren eta gazteleraren erabilera ofiziala ta hizkuntza bion ezagumena segurtatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

4.- Euskal Aginteak euskeraren hizkuntzaren normalkuntzarako tresna bereziak sortuko ditu, gaurko Euskadiko diglosia-egoera gainditu dagian.

5.- Euskaltzaindia da, euskal-gaiei dagokienez, erakunde ofizial aholkularia.

6.- Kulturari begira, Euskal Aginteak sortu al izango ditu bi aldeen arteko hartuemonak: Araba, Guipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa batetik, eta BeNafarroa, Lapurdi eta Zuberoa bestetik, bien ondare dan euskal hizkuntza suztatu eta babesteko. Hiru lurraldeetako erakundeak Frantzes-Errepublikaren Administraziopean Itunak egiteko Gorte Gorenei baimena eta onarpena eskatuko deutsieez" (29).

Azken puntuan Euskadiko Ezkerrak badakar bere nobedadea Itun bidez,

Euskal Herri osoa, Frantziako lurraldea eta Espainiakoa hartuemonetan jarri nahi ditu (30).

a.11 UCD

"2. artikulua:

Euskera izango da, gaztelera lez, Euskalerriko hizkuntza ofiziala. Espainiako Estatuagaz, bere agintari eta funtzionariekin, gaztelera izango da hizkuntza ofiziala.

Hizkuntza bien ofizialkidetasuna, aginte-barrutiari dagokionez, Batzar Nagusiak edo Aldundiak eratu eta erabagiko dabe, ondorengo arauak kontutan izanik:

a) Euskal hiztunen lurraldeetan eragina izango daben autonomiadun Elkartearen Herrisailaren erabagi ofizialak hizkuntza bietan argitaratu eta iragarri daitekez.

b) Euskal Herriko auzitegietan, agintariekin eta funtzionariekin jarduteko, euskal hiztunen lurraldeetako biztanleei ontzat emon leikie nahi daben hizkuntza auke ratzea.

d) Baita ontzat hartuko da, nahiz euskeraz nahiz gazteleraz, zelan nahi idaztea, euskal auzitegien aurrean edo/ta Euskalerriko fede-emoileak onartu behar dabezan agiri ta dokumentuak.

e) Euskeraz jakitea eskatu leikioe euskal lurraldean zerbitzua daukien funtzionari guztiei, Estatuto hau ezar tean zerbitzuan dagozanak izan ezik, honeen egoera onartua izango bai da, aurretik lorturiko eskubidee kin.

Batzar Nagusiak edo Aldundiak mugatuko dabez, bakoitzak bere erki ta probintzian, artikulu honi dagokionez, zeintzuk diran euskal hiztun diran lurraldeak.

Autonomiadun Elkarteko Herrisailaren dokumentu ofi-

zial guztiak euskeraz ta erderaz idatziko dira. Edozein idazki ofizial euskeraz bakarrik idatzita badago, gaztelerara itzuliko da, dagokionak eskatu badagi, edo/ta euskal lurraldetik kanporako danean.

Irakaskintza arloan, Autonomiadun Elkarteko herrisail guztiak, bakoitzak bere barrutian, benetako ardurea ipiniko dabe gaztelera ezagutu beharra eta Konstituzioaren hirugarren artikuluak eskatzen dauanez,bere erabilpenaren eskubidea bermatuko" (31).

UCDk euskerarena baino gazteleraren ardura gehiago dakala emoten dau. Euskeraren erabilpena posible lez, onartu leikena lez agertzen dau. Eta gaztelera erabiltea manatu egiten dau: Estatuagaz, irakaskintzan...

a.12 Ikasleen Gurasoak

1.978-11-27an, Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Guraso Elkarteen Federazioak bere saloak aurkeztu eutsozan idaz-batzordean.

Hiru puntuko idazkia bialtzen dau eta lehen puntu osoan irakaskintzan benetako elebitasuna aldarrikatzen dau (32).

a.13 Kimu Berri Taldea

1.978-11-28an, Kimu Berri Taldeak idaz-batzordeari aurkeztzen deutso Autonomia Estatutoaren Aurregitasmoa (33). Zergatiak holako izen buruekin azalduz:

> "Autonomiaren beharra, zer dala eta Estatutu Berri bat, itxura tekniko orokorra, atarikoa, Euskal Herriaren Nazional Batasuna, autodeterminatzeko eskubidea, nazional hizkuntza eta izena, Estatuaren hastapenak, behinbehinekotasuna, lurralde eremua, giza-eremua, eskubide eta betebeharrak, berauen erabilera, hizkuntza eta nazional ondarea, ahalmenak eta konpetentziak, erakundeak, hiriburutasuna eta sinboloak, azken erabaki derogatzailea, bitarte-

ko erabakiak" (34).

Sarrera luzea idatzi ondoren Aurregitasmoa artikulatzen dau.

Hizkuntzari dagokiozanak hainbat artikulu dira (35):

"3. artikulua:

Euskara, Euskal Herriko ethnia, elkartearen elementu definitzaile nagusia, euskaldunen hizkuntza nazionala da" (36).

"20. artikulua:

Euskara Euskal Herriko hizkuntza ofiziala da, maila guztietan eta lurraldearen zabalera osoan.

Gaztelania, era berean, ofiziala izanen da.

21. artikulua:

Eskoladineko euskaldun herritarrek beren ikasteak euskeraz eginen dituzte. Gaztelania, maila guztietan, nahiztaezko asignatura izanen da.

Euskal Herriko egoiliarrek, beren ikasteak beste hizkuntza batez egin nahi ukanez gero, gaztelaniaz egiteko aukera ukanen dute beti, bai eta beste hizkuntza batzutan ere, hori egiteko gutienezko kondizioak gertatzen badira bederen.

Nolanahi ere, euskera nahiztaezko asignatura izanen zaie maila guztietan.

Kasu bietan, lehen, bigarren eta goi mailako ikasketak amaitzeko euskara eta gaztelania mintzatzen jakitea nahiztaezko baldintza izanen da Euskal Herriko irakastegi guztietan.

22. artikulua:

Euskal Herrian aritzen diren eta euskara ez dakiten irakasleek, lau urtetako epean berau ikasiko dute.

Horrela behar balitz, eta, hizkuntzari doakionez, irakasle gertatu-

rik ez dagoen artean, beste profesio batzutako tituladunak, euskaraz ongo jantziak, Euskal Herrian irakaskuntza ofizialki emateko egokituko dira, zientzi maila, horregatik, apaldu gabe.

23. artikulua:

Administralgoaren eta beronen Organismo autonomoen funtzionariek, bai eta Euskal Gobernuko kargu publikodunek ere euskara mintzatua eta idatzia dakitela frogatu beharko dute.

Estatu Zentraleko funtzionariei ere, Euskal Herrian beren zerbitzuak modu iraunkorrez ematen badituzte, euskara jakitea eska dakieke.

Estatutoa jartzen den unean, euskera jakin gabe, beren kargueta leudekeenek, lau urtetako epean hura ikasi beharko dute.

24. artikulua:

Euskara hiritar bizimoduaren arlo ezberdinetan, ekonomi ekintzean, publizitatean eta sozial komunikabide guztietan sartuko da, textu ageri guztiak, gutienez, euskaraz ezartzea beharrezkoa izanik.

Esandakoaren erabilera eta betetzea garantizatzeko, Euskal Gobernuak, kasu bakoitzean behar diren neurri konkretuak, administralgoan eta fiskalian bereziki, hartuko ditu.

Toponimi izenak, ordain egokirik egonez gero, euskara hutsez idatziko dira.

25. artikulua:

Guztiek, pausoka, euskara ikasi eta alphabeta daitezen, Euskal Gobernuak, finantzapen berezi baten bitartez, normaleztapenerako organismo egokiak sorteaziko ditu, irakasleengan eta hizkuntza ahul edo erabat galdua dagoen tokietan arreta haundiagoa edukiz.

Euskarari dagokionez, erakunde konpetentea Euskaltzaindia da, eta beronen ardurapean, kasu bakoitzean eskatzen den hizkuntz ezaguera maila epaitu eta egiaztatu beharko da" (37).

Euskera, euskal Elkartearen ezaugarri definitzaile nagusi (3.art.) lez ipinten dau talde honek.

Euskal Herrian irakasten jarraitzeko asmoa daukan irakasleari Euskera ikasteko lau urteko epea(22.art.) emoten deutso.

Funtzionarientzat epe eta baldintza bardinak jartzen ditu. (23.art.)

Ekonomia bizitzako agiriak be gitxienez euskeraz beti argitaratuko dira. (24.art.)

Hizkuntzaren araubiderako ideia barri ugari eta probetxugarri Kimu Berri Taldeak, Euskadiko Autonomia Estatutorako Aurregitasmo lez, aurkeztu ebazanak.

a.14 Manuel Maria Escudero Rueda (38).

"11. artikulua: Hizkuntza eta Irakaskintza

Gaztelera eta Euskera dira Euskadiko hizkuntza ofizialak.

Euskaldun diran eta ez diran lurraldeak Foru Aldundiak mugatuko dabez, batez be euskal hizkuntzaren sarrerari, garatzeari, indartzeari eta lantzeari begira.

Euskal lurraldeetako biztanleak justiziaren auzitegietan eta administrazioan euskera erabilteko eskubidea daukie.

Hizkuntza biak erabiliko dira lurralde bietako eskoletan; eskola aurreko irakas-mailetan, euskaldun lurraldeetan, hizkuntza-ikasketa euskeraz izango da, bide batez gaztelera-hizkuntzaren gai batzuk be sartzen hasiaz. Gaztelerazko lurraldeetan gazteleraz emongo da ikasketa be, euskera gaiak be apurka apurka sartuaz.

Ohoko mailetan, eta lehenengo mailako Eskola Profesionalean, hizkuntza biak landu ta ikasten saiatu beharra dago; hain zuzen be, ikasleak, maila honetako

ikasketak amaitzean, lurralde bietan, hizkuntza biok erraz erabilteko moduan aurkitu daitezan.

BBBean, 2. mailako FPan eta Goi Mailako Irakaskuntzan hizkuntza bietan emon daiteke irakaskintza, ezarriko dan araubideari dagokionez.

Irakaskintzaren eraketa euskeraren zabalkunde eta indartze haundiagora zuzenduta dago" (39).

Escudero Jaunak euskerari irakaskintzan ezartzen deutson garrantzia aipatzekoa da.

Hizkuntzaren etorkizunerako eta berbizkunderako heziketa garaiak dauan inportantzia eta aukera gizon eta talde honen gogotan ziran.

b. IDAZ-BATZORDEAREN EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTOAREN AURREGITASMOAREN TESTUA

Aurkeztutako saloak, Aurregitasmoak eta aholkuak aztertu eta ikerturik, Idaz-batzordeak Estatutoaren Aurregitasmoa mamindu eta burutu eban, eta 1.978-11-28an ezaguterazo eban (40).

6. artikuluak dakar hizkuntzaren gaia, eta honela idatzita dago:

"1.- Euskera da Euskalerriko hizkuntza nazionala.

2.- Euskera ta gaztelera hizkuntzak Euskalerrian ofizialak dira eta biztanle guztiak eurok ezagutu ta erabilteko eskubidea daukie.

3.- Euskera ta Gazteleraren erabilpen ofiziala Euskalerriko erakundeak zaindu ta babestuko dabe, neurriak hartu ta behar diran bide egokiak erreztuz hizkuntza biok ezagutu ahal izateko.

4.- Eusko Legebiltzarrak arautuko dau hizkuntza bien erabilpena Euskalerriko biztanleen giza-hizkuntza ezbardintasuna kontuan eukirik eta gaurko diglosia-egoera gaindituteko behar diran bideak harturik.

5.- Euskaltzandia da, Euskereari dagokionez, Era-kunde ofizial aholkularia.

6.- Beste Elkarteekin eta euskal mugaldeko Lurraldeekin batera euskal-ondarean partaide izanik, ondare hau suztatu eta segurtatzeko, eurekin kultur-lokarriak antolatu ahal izango ditu Autonomiadun Elkarteak" (41).

Ez dago barrikuntza haundirik. Euskadiko Eskerrak aurkezturiko testua oinarritzat hartu, eta idaz-batzordeak aldaketa nabarmenik ez deutso erantsi.

d. IDAZ-BATZORDEARI BIALDUTAKO ZUZENKETAK

Idaz-batzordeak Autonomia Estatutoaren Oinarrizko testua edo Aurregitasmoa idatzi ebanean, lan egiteko eritxiak eta egitasmoak eskatu jakezan alderdi eta erakunde guztiei Idaz-batzordearen testua bialdu jaken, bakoitzaren zuzenketa, eritxi eta hobekuntzak jasoteko asmoz.

Barriro be partaidetza ugaria izan zan, eta hizkuntzari buruz aurkeztuko zuzenketa ezaugarrienak honexeek izan ziran.

d.1. "Falange Española de las J.O.N.S."

1.978-12-15ean, Autonomia Estatutoaren Aurregitasmorako Idaz-batzordeari bere zuzenketak aurkeztu eutsozan Bizkaiko talde honek.

> "Elebitasunari buruzko auzi nahastu hau, Euskal Herrian, bere sustraitik daukagu txarto ezarrita.
>
> Idaz-batzordeak badaki -edo jakin behar leuke- gure Batzar Nagusietan ez dala agertzen oraintsu arte euskeraz idatzitako akta bat bera be. Honek esan nahi dau, historian zehar gure erakunde zaharrak erabilitako hizkuntza ofiziala, gaztelera izan dala.
>
> Ondo iruditzen jaku euskerak bere burua babestu ta indartzea, baina zorakeria deritxogu hizkuntza ofiziala lez jartzea, gure parlamentari ta gure aholkularirik gehienak ez dakiela euskeraz kontutan izanik batez be. Ez gaitezan sartu beste zurkulu batzuetan.
>
> Euskera ezta inoiz izan ahoz-ahozko hizkuntza baino, gaurko bizitzarako behar bezelako hiztegirik ez dauka, eta zientzia, kultura, literatura ta teknika gaietarako baliorik ez dauka. Dinogun hau egiztatu daiteke Konstituzioko testua irakurriaz bakar-bakarrik, euskeraz argitaratua ta herri-eritxi edo erreferendum zalata Jaurlaritzak zabaldua.
>
> Gauzak horrela, Idaz-batzordeak gizarteko egira ta errealitatera

begiratu behar eban, honentzako bait zan araudi hori, ta soinik bako utopiak bertan-behera itzi.

Euskera iraunazo ta bizkortzen bere-berea dauan mailan saia gaitezan, eta lortu ezineko helburuak eskatuz ez daigun hondatu.

Gizartean egiztatu daikeguna hauxe da, gaia egiaz ikasi ta aztertu ezkero, Euskalerrian edonok dakiala ta hitzegiten dauala espaineraz, eta gitxiengo bat besterik ez dagoala euskeraz mintzatu ta ulertzen dauanik. Ez dirudi beraz oso herri-mailakoa espaineraz hitz-egiten daben gehienei euskaldun gitxi batzuk baino hitz egiten daben hizkuntza ezarri nahi izatea.

Euskalerriko kondaira espaineraz idatzita dago eta gure Batzar Nagusietako erabagi guztiak eta gure Foru guztiak eta gure Kondaira-Eskubide guztiak espaieraz idatzita dagoz. "Hizkera nazionala" lez Euskalerrian euskera jartea gure lege tradizio guztiari ta gure euskal Historia guztiari jauntxokeria egitea da.

Irakatsi begie ordu onean euskera maila guztietan, baina ez beitez ibili, jarri dagikean legezko manu baten bila, manuz jarria dalako hain zuzen hizkuntza gorrotagarri bihurtu ez daigun.

Beste aldetik, egoizgarria da esakun hau (6.1 art.); 'Euskalerriko hizkuntza nazionala, euskera da'. Baiezpen hori, beharbada hori idatzi dauan Idaz-batzordearen gogoari dagokiona da, baina oker-esate izugarri bat dozu. Euskera ez da Euskalerriko hizkuntza nazionala.

Itandu be egiten dogu: zer da nazioa? Nun datza bere kondairanortasuna, bere historia nazionala, bere kultur egozpena, bere presentzia historian zeharka egitean?

Bere kondaira guztian espainiar nazioaren erraietan Euskalerria antolatu da, eta ez daukagu zertan deika egon Idaz-batzordeak ondo ezagutzen dauan edo ezagutu behar leukean Historiari" (42).

Talde honek euskarari buruz egin ez dana edo/ta egiten laga ez dana errazoibidetzat ikusten dau. Euskerari gaurko bizitzarako gaitasuna ukatu egiten

deutso eta gai izateko posibilitatea be bai. Euskera hizkuntza ofiziala dala onartzea zorakeria deritxo, eta gaurko gizarteari begira izan ezinezko utopia. Euskera hondatzeko arriskuan ez ipinteko dino, al dauana baino gehiago eskatuta. Talde honek, Idazbatzordeak euskerari buruz onartutako eta idatzitako puntuak okertzat jo ditu.

d.2 Euskadiko Partidu Komunista (E.P.K.)

6. artikulua

"1. Euskaldunen hizkuntza propioa Euskera da, gaztelera lez, Euskadin hizkuntza ofiziala izango da, eta biztanle guztiak daukie bi hizkuntzak ezagutu eta erabilteko eskubidea.

3,4,5 eta 6. atalak bardin jarraitzen dabe" (43).

Zuzenketa hau Egitasmoan aurkeztutakoaren errepikamena besterik ez da, Euskal hizkuntzaren jabetasuna gogoratuz.

d.3 Liga Komunista Iraultzailea (L.K.I.)

6.3 artikuluari gehigarri hau ezarten deutso:

"Gaztelera hizkuntza (edo euskera ez dan beste edozein hizkuntza) zuzenbide eta administrazio arazoetan erabilteko eskubidea bermatu, gaztelera hizkuntza onartuko da; baita bereizkeririk bako irakaskintza hartzeko eskubidea be, eta orohar, ez dedila izan ezetariko bereizkeririk, eta ez behartutako osaketarik.

(7. atala erantsiko deutso 6. artikuluari.)

Estatuko Herrisailagaz, euskera hizkuntza ofiziala izango da, beste nazio hizkuntzen baldintza bardinekin" (44).

Azken atal honetan hizkuntzen bardintasuna barriro azpimarratzen dau.

d.4 Alianza Popular (AP)

6. artikuluak jarri behar dau:

"1.- Euskal Herriko hizkuntza ofizialak euskera eta gaztelera dira. Biztanle guztiak daukie biak ezagutu eta erabilteko eskubidea.

2.-Eskubidez baliatzean, hizkuntza bietariko bat ezjakin edo ez ezagutzagaitik, Euskal Herriko biztanlerik ez da geratuko egoera txarragoan.

3.-Hizkuntza bien ezagumen eta erabilpena suztatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko medioak jarriz, euskeraren eta gazteleraren erabilpen ofiziala bermatuko dabe Euskal Herriko erakundeak.

4.-Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontutan izanik, Eusko Legebiltzarrak bi hizkuntzen erabilpena arautuko dau.

5 eta 6.-Dagozan erara" (45).

APkoak 6.1etik nazio-hizkuntzaren erreferentzia kentzen dabe. Hizkuntzaren Kongresorako txostena barik, Estatutoa egiterakoan lege testua idazten dabizala dinoe. Bestalde, zientzia ikuspuntutik, euskera ainako nazio-hizkuntza ei da gaztelera...

Gainera, euren ustez, Konstituzioko 3. artikuluari urreratzen jako zuzenketa hau.

Errazoibideetan hizkuntzarekiko inposaketak kentzearen aldeko taldea da, baina badaki lege tratamendu horregaz gaztelera dala garaile.

d.5 Euskadiko Mugimendu Komunista (E.M.K.)
eta Euskadiko Komunisten Ezkerra (E.K.E.)

6.1 artikuluaren zuzenketa:

"Euskal Herriko nazio-jaiotizkuntza euskera da" (46).

Euskera da euskaldunen jaiotizkuntza, eta euskera da Euskal Herriko nazio hizkuntza.

d.6 Euskadiko Karlista Alderdia

6. artikulua

"5. (barria) Disglosia-egoera hau gainditzen ez dan artean, hizkuntza-gaitik bereizkerigarri dan neurririk ez da hartuko.

(Aurregitasmoaren 5. atala 6.era pasatuko da eta 6. atala 7. bihurtuko da)" (47).

d.7 Euskadiko Sozialistan Elkartze Indarra (E.S.E.I.)

Beste 6. artikulu barria erantsitea proposatzen da.

"6. artikulua (bis)

Beste batzuen artean, ondorengo oinarriei begiraturik arautuko da euskeraren eta gazteleraren ofizialkidetasuna:

1.-Euskal Herrian eragina izango daben erabagi ofizialak bi hizkuntzetan argitaratu eta aitzen emongo dira.

2.-Euskal Herriko edozein auzitegi, agintari eta funtzionarekin edozein hizkuntza aukeratzeko eskubidea onartuko jake euskal herritar guztiei.

3.-Herriko fede-emoileak onartu edo Auzitegietan aurkeztu behar diranean, nahiz batean nahiz beste hizkuntzan idatzitako agiriak ontzat emongo dira.

4.- Euskal Herritik kanpo eragina izan edo ardura deutsan aldeak eskatzen dauanean, euskeraz idatzitako agiriak itzuli beharra dago.

5.-Konstituzioaren 27. artikuluaren arauera, irakaskintzan euskal eta gaztelera hizkuntzen erabileraren araugintza egingo da.

6.-Konstituzioaren 139. artikuluaren kaltetan izan barik, autonomia-dun Elkarteko lurraldean zerbitzua izango daben funtzionarien lanpostuekaz jabetzeko, euskera ezagutzea izango da lehen baldintza" (48).

Zuzenketa oinarritzeko orduan, hizkuntzaren tratamen-duan Estatutoari zehatz jokatzea komeni jakola dinoe talde honetakoak.

Euskeraren baztartzeak gainditzeko arau zehatzak euki-tea lagungarri gertau leiteke.

Euskeraren indarbarritze eta iraupenerako, Administra-zioan eta irakaskintzan bi hizkuntzen araugintza garrantzi haundikotzat joten dabe (49).

d.8 <u>"Unión Navarra de Izquierda" (U.N.A.I)</u>

6.1 artikuluaren zuzenketa

"Euskal Herriko nazio-jaiotizkuntza euskera da" (50).
3.5 puntuan ikusitako zuzenketagaz bat dator.

d.9 <u>Eusko Alderdi Jeltzailea</u>

6.4 artikuluaren zuzenketa:

"4.- Bi hizkuntzen erabilera Legebiltzarrak arautuko dau."

Eta 6.5:

"5.- Euskaltzaindiari dagokion erreferentzia Idaz-batzordeak ikasteko geratzen da, teknika arazoa izanez Estatutoaren edukitik kanpo dagoalako" (51).

d.10 P.S.E.-P.S.O.E.-Euskadiko Sozialisten Alderdia

6.1 eta 2ren aldaketa era honetara proposatzen da:

"Euskaldunen jatorrizko hizkuntza Euskera da, eta gaztelera lez, Euskadin hizkuntza ofiziala izango da. Euskal Herriko herritar guztiek daukie bi hizkuntzak ezagutu eta erabilteko eskubidea.

6.7 artikuluari erantsi:

Bere hizkuntzagaitik bere lanean inor ezin daiteke izan diskriminatua" (52).

Diskriminazioaren arazoa aitatzen da. Baina euskeraren ardurakizuna baino lanpostuarena gehiago dala iduri.

d.11 UCD

Talde honentzat 6. artikuluak era honetara idatzita geratu behar leuke:

"1.-Euskal Herriko hizkuntza berezia Euskera da.

2.-Euskal eta gaztelera hizkuntzak Euskal Herrian ofizialak dira eta biztanle guztiak daukie eurak ezagutu eta erabilteko eskubidea, Konstituzioaren 3.1 artikuluaren kaltetan izan barik.

3.-Gazteleraren eta euskeraren erabilera ofiziala bermatuko dabe Euskal Herriko erakundeak, bi hizkuntzen ezagumenaren suztatze eta garapenerako neurriak eta beharrezko medioak jarriaz.

4.-Biztanlegoaren aniztasun soziolinguistikoa kontutan izanik, lurralde historiko bakoitzeko herrisailak arautuko dau bere auzitegi arloan bi hizkuntzen ofizialkidetasuna.

5.-Aurregitasmoaren testua ontzat emoten da.

6.-Kendu egiten da" (53).

Euskeraren berezitasuna zertan datzan talde honek ez dau azaltzen. Barrikuntza aipagarririk ez dakar zuzenketa honek.

d.12 "Jose Manuel Lopéz de Juan Abad y Fernandez Labastida" (54)

6.artikulua

"1.-Euskal Herriko hizkuntza Euskera da" (55).

Ez dau errazoiririk jartzen. Beharbada Euskal Herriko hizkuntza bakarra Euskera dala esan nahiko dau, baina ezin da segurtatu.

Euskaltzaindia aholku emoile ofizial lez Estatutoaren Egitasmoan aurkeztu dan ezkero, bere eritxia eskatu behar dala dino.

d.13 Manuel María Escudero Rueda (56)

"4.- 6.6 artikuluan hizkuntzari buruz dagokionaz, nahiz eta esperientziak zailtasunak iragarri; Aurregitasmoan hizkuntzaren zabalkunderako eta aurkako barik aldeko harrerak sortzeko beharrizan politikoa gaur daukagunontzako definizio ezegokiak azaltzen dira.

Esate baterako, Euskera nazio-hizkuntza dala baiezten da, eta premiazkoa dauan hizkuntzaren zabalkunderako eta indarbarritzeko diran benetako pausoak ez dira markatzen." (57)

Eta hizkuntzaren egiazko zabalkunderako lehentasun autorpenen baino ekintza zehatzen aldeko gehiago agertzen da. Herriaren Autonomia lortzeko be holango autorpenak lagungarri baino oztopo lez gehiago hartzen ditu (58).

c. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTOAREN EGITASMOAREN BEHIN-BETIKO TESTUAREN ONARPENA: IDAZ-BATZORDEARENA ETA EUSKAL PARLAMENTARIENA

Aurkeztutako eritxi, egitasmo eta zuzenketak ikusi eta aztertu ondoren, 1.978-12-22an, Euskal Parlamentarien Batzarrak izendatutako Idaz-batzordeak burutzen dau 2. Egitasmoa (59).

Hurrengo egunean, 1.978-12-23an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregian; Euskal Parlamentarien Batzarrak Euskal Herriko Autonomia Egitasmoaren Behin-betiko Testua onartzen dau (60).

Hizkuntzari buruzko 6. artikulua, honela idatzita onartu zan:

1.- "Euskadik bere-bere duen hizkuntza euskara da. Berau, gaztelania bezala, ofiziala izango da Euskadin eta biztanle guztiek bi hizkuntzok ezagutu eta erabiltzeko eskubide dute.

2.- Euskadiren erakundeek euskeraren eta gaztelaniaren erabiltze ofi ziala bermatuko dute, oraingo diglosi egoera gainditzeko neu rriak hartuz eta bideak eratuz.

3.- Eusko Biltzarreak bi hizkuntzon erabiltzea arautuko du, Euskadiko jendetza desberdintasun sozio-linguistikoa kontuan harturik eta oraingo diglosi egoera gainditzeko beharreko bideak eratuz.

4.- Ezingo da inor hizkuntzagatik bereztatu.

5.- Euskaltzaindia da euskerari dagokionetan irizpen-erakunde ofiziala.

6.- Euskara ez da soilik autonomidun herrialde honen ondasuna baita beste eusko jende-multzo eta herrialde mugakide batzuena ere. Horregaitik, autonomiadun herrialde honek kultur lokarriak ezarri ahalko ditu beroriekin, ondasun hori zaindu eta pizteko" (61).

Idaz-batzordeak aurkeztutako testuak jasan dauan aldaketa bakarra 6.1 artikuluan jazo da. Jatorrizko hizkuntzaren ordez bere-bere duen hizkuntza jartzea izan da. Hizkuntza propioa Euskera dala. Euskeraren jabetasuna hobeto adierazoteko asmotan idatzita dago.

Gernikan, 1.978-12-29an, Euskal Parlamentarien Batzarrak hartutako erabagiagaz, Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoa gehiengo osoz onartzen da, eta Diputatuen Kongresoko Konstituzio Batzordeagana igortzen da (62).

> "Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko diputatu eta senatoreek, Gernikako Batzar Etxean bildurik, Eusko Kontseilu Nagusiak deiturik, eta inoiz Nafarroako Foru Erakude egokiak sarreraz har lezakeen erabakiari kalte egin gabe, Konstituzioaren 151. artikuluan, 2. ezarria denaren arabera.
>
> Erabakitzen duteEuskadiko Ondoko Autonomi Estatuo-gaia gehiengo absolutoz onestea eta Kongresoko Konstituzio Batzordeagana igortzea, bere onespen definitiborako Konstituzioan aurrikusirik dauden baldintzak betetzeko" (63).

f. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTOAREN GERNIKATIK LEGE ORGANIKORA ARTEKOA

f.1 Diputatuen Kongresoko Idazkaritza Nagusian aurkezpena.

1.978-12-29an, 19'12etan, Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoa Diputatuen Kongresoko Idazkaritza Nagusian aurkeztu eben Federico de Zabala Alcibar Jaunak, Gipuzkoako Senatoreak (P.N.V.) eta Juan Echevarria Gangoiti Jaunak, Bizkaiko Diputatuak (U.C.D.), 6.759 zenbakiaz errejistratuz (64).

f.2 Euskal Parlamentarien Batzarraren onarpen eta Berronespena

1.979-03-20an, Martiaren 1eko auteskunde ostean Bizkaiko Foru Aldundian Euskal Parlamentarien Batzarrean, 1.978-12-29an Gernikan onartutako Autonomia Estatutoaren Egitasmoa gehiengo osoz onartu eta berronestu da.

Batzar honetako idazkia Diputatuen Kongresoan aurkezten da:

"Araba, Guipuzkoa eta Bizkaiko Diputatuak eta Senadoreak Bizkaiko Diputazio Foralean bildu direlarik.

Erabakitzen dute:

Mila bederatzirehun eta hirurogeita hemezortziko Abenduaren hogeita bederatzian Euskal Parlamentarien Batzarreak Gernikan onartu zuten estatutoaren proiektoa, zeina egun berean utzi baitzen Diputatuen Kongresoan, gehiengo absolutuaz onartzea eta berronestea" (65).

f.3 Euskal Parlamentarien ordezkaritza Diputatuen Kongresoan

Gasteizen, 1.979-03-14an euskal Parlamentarien Batzarrak bere ordezkaritza izendatzen dau, Diputatuen Kongresoan Konstituzio Batzordean aurkeztu, alkar hartuz, Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren behin-betiko testua egiteko (66).

f.4 Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoaren argitarapena "Gorte Orokorretako Boletin Ofizialean"

1.979-06-05ean Diputatuen Kongresoko Mahaiak Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoa argitaratzea erabagiten dau eta Konstituzio Batzordera igorri (67).

f.5 Ezadostasunen zioak eta oharpenak

1.979-06-25ean Diputatuen Kongresoko Parlamentarien Taldeak Euskal Herriko Autonomia Estatutoari ezadostasunen zioak eta oharpenak aurkeztu eutsiezan (68). Parlamentari gehienak euren ixiltasunagaz Autonomia Estatutoaren Egitasmoaren onarpena adierazo eben. Euren ustez, akats edo/ta oker batzuk aurkitu, eta eztabaidarako zuzenketak aurkeztu ebezenak honeek izan ziran:

"Coalición Democrática" Taldea

E)
"6. artikuluaren 5 lehengo atalak era honetara idatzi behar litzatekez:

1.-Euskal Herriko hizkuntza euskera da, eta gaztelera lez, Euskal Herrian hizkuntza ofiziala izango da. Biztanle guztiek daukie hizkuntza bietatik edozein ezagutu eta erabilteko eskubidea.

2.- Euskal Herriko erakundeak euskeraren eta gazteleraren erabilpen ofiziala egingo dabe, Euskal Herriko biztanlegoari bi hizkuntzen ezagumena zabaltzeko beharrezko bideak eratuz.

3.- Bi hizkuntzen erabilera Euskal Parlamentariak eratuko dau, hizkuntzaren aniztasuna kontutan izanik eta gaurko egoera gainditzen ahaleginduz.

4.- Ezingo da inor hizkuntzagaitik bereztatu.

5.- Euskaltzaindia da euskerari dagokiozenetan irizpen-erakunde ofiziala" (69).

2. atalean bi hizkuntzen erabilpen ofiziala egiteko manua dakar euskal erakundeentzat. Manu hau zelan bete behar litzateken ez dau adierazoten talde honek. Ez dakigu zein bata

zein beste hizkuntza erabilita betetzen dan, edo hizkuntza biak beti erabili behar diran.

"Blas Pinar López" Jauna (Talde Mistoa)

Autonomia Estatutoaren Egitasmoaren 6. artikuluatzaz hainbat ezadostasun azaltzen ditu parlamentari honek.

6.1 artikuluak, "Euskal Herrian hizkuntza propioa euskera da", dino, baina ez da egi osoa, gaztelera be Euskal Herrian hizkuntza propioa dalako.

6.1ean bertan dino Euskadiko biztanleak "bi hizkuntzak ezagutu eta erabiliteko eskubidea" daukiela, eta Konstituzioaren 3.1 artikuluak "espainiar guztiek daukie ezagutu beharra (gaztelera)" dinoana ahaztu egiten dau, eta Konstituzioko ezagutzeko manua Estatutoan eskubide soilean gelditzen da.

6.3 atala Konstituzioaren 3. artikuluaren aurka dago.

6. artikulu honek euskal mugakide diran lurraldeekin kulturlokarriak eratzeko eskubidea emoten deutso Autonomiadun Elkarteari. Lurralde mugakide honeek espainiarrak edo atzerritarrak izango dira. Atzerritarrak badira nazio arteko hartuemonak ez dagokioz Autonomiadun Elkarteari. Eta espainiarrak badira, lurralde horretako eskubide historikoetan hanka sartzeko era bat litzateke (70).

"Hipólito Goméz de las Roces" Jauna(Talde Mistoa)

Bere ezadostasuna agertzen dau. 6.artikuluak hizkuntzen erabilpen eta ofizialtasunari buruz diharduanean, Euskal Herriko **hizkuntza nagusia** euskera dala idazten da, eta gaztelera **lagungarria** dala diduri.

Bere zioak jartzen ditu: Konstituzioaren 3. artikuluari eta gizarteegoerari aurka egitea izango litzateke. Konstituzioak gaztelera hizkuntza nagusi lez hartzen dau, nahiz eta autonomiadun lurraldeetan beste batzuk (hizkuntzak) ofizialak izan, eta gizarteari begira, Euskal Herrian guztiak dakie gazteleraz, eta euskeraz biztanlegoaren zati batek daki bakarrik (71).

UCD

Talde honek aurkeztutako txostenaren 3. puntua **eskubideen eta betebeharren bardintasunatzaz** da.

Oinarri lez, Konstituzioaren 14., 131.1 eta 2. artikuluak aitatzen ditu. 14.artikuluak "legearen aurrean danak bardinak" dirala eta "diskriminazio eza" aldeztuko ditu. 139.1 "Estatuko edozein lurraldeetan espainiar guztiak eskubide eta betebehar bardinak" dabezela, eta 2.artikuluak Espainiaren batasuna eta lurraldeetako Elkarteen **autonomiaren** posibilitatea buztartuko ditu.

Talde honetakoak Konstituzioaren artikulu honeen aurkakotasunaren posibilitatea ikusten dabe Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoaren 6.3, (7, 9, 11.7, 16, 18 eta 19) artikuluan (72).

Txostenaren 6. puntua **hizkuntzari** dagokio.

Konstituzioaren 3. artikuluaren testua gogoratu ondoren, Estatutoaren 6. artikuluagaz bere ezadostasuna agertzen dau. Ulerkera oker eta eztabaidagarriak kentzeko biderik laburrena eta errazena hartu dabe (73). Txostenaren 19. puntuak **nazio arteko hitzarmen eta itunei** buruz dihardu, eta konstituzioaren 93-96 artikuluen aurka doan ustetan, Estatutoaren 6.6 atalari be euren ezadostasuna ezartzen deutsie

(74).

Andaluziatarren Taldea

Bere ustez, 6.3 atalean azken zati hau kendu behar litzateke:

"... eta oraingo disglosia egoera gainditzeko beharreko bideak eratuz."

Eta 6.4 atalari zati hau erantsi:

"Euskaldunak izan ez, eta Euskal Herrian bizi diran gitxiengotuei irakaskintza euren ama-hizkuntzan bermatuko deutse Euskal Herriko herrisailak" (75).

Andaluziarrak eurek Euskal Herrian daben egoera dabe gogotan, nahiz eta gaurko egoerari begira arriskurik izan ez, diskriminazioaren bildur dirala diduri.

f.6 Idaz-batzordearen erizpena eta Konstituzio Batzordearena

Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoari buruz, 1.979-07-17an alkarreango Idaz-batzordeak emondako erizpenean, hizkuntzarekiko 6. artikulua honela idatzita geratu zan:

"1.- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

2.- Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio-linguistikoaren nabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.

3.- Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutzietsiko.

4.- Euskarari dagokionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-

emale.

5.- Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultza dadin" (76).

1.979-07-21ean, Diputatuen Kongresoko Konstituzio Batzordeak, eta Euskal Parlamentarien Batzarraren Ordezkaritza aurrean zala, Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoa ahobatez onartu eta erizpena emon eban (77).

Batzorde honetan gehien eztabaidatu zan 6. artikuluko atala laugarrena izan zan. Euskaltzaindiari buruz zan, eta eztabaida guztia artikulu bat ipintea edo kentzea zan: **erakunde** edo **erakundea** (78).

Oliart Sanssot Jaunak eta Arzalluz Antia Jaunak Euskaltzaindia euskerari dagokiozenetan aholku edo irizpen emoile ofizial bat izango zala baina ez bakarra aldezten eben. Maturana Plaza Jaunak eta Bandres Molet Jaunak alderantziz. Euskaltzaindia erakunde bakarra izatearen aldekoak euskeraren **batasunerako** eta etorkizunerako komenigarriagoa ikusten eben. Beste erakunde batzuen artean Euskaltzaindia be euskera gaietan aholku emoile lez ipinten ebenak askatasunean eta **aberastasunean** irabazten zala inoen (79).

f.7 Eusko Kontseiluaren mezua

Autonomia Estatutoaren Egitasmoari buruz, Euskal Parlamentarien Batzarraren Ordezkaritza aurrean zala Kongresoko Konstituzio Batzordeak emondako erizpenaren zioaz, 1.979-07.23an, Eusko Kontseiluak mezua bialtzen dau (80).

f.8 Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoaren Referenduma

Referendumaren eguna ipinteko, 1.979-08-27an Euskal Herriko Kontseiluak erabagia hartu eban (81).

1.979-09-14ko, 13. Errege Dekretu-Legeaz, Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren Egitasmoa Referendumara jarten da (82).

1.979-09-28ko Diputatuen Kongresoko Presidentziaren erabagiak 1.979ko 13. Errege Dekretu-Legearen Konbalidapenaren akordua argitaratzeko manatzen dau (83).

2.1.1.3. Gernikako Estatutoaren hizkuntzarekiko berezitasunak.

Euskaldunentzat euskerak beti izan dau garrantzi haundia, eta edozein gizarte edo politika egoerak eskeinitako aukerak, Euskal Herriak berehala erabili ditu arauen bidez euskerari begiramen eta babesa emoteko (84).

Gernikako Estatutoa Euskal Herriko gaur egungo lege-dokumentu garrantzitsuena bihurtu da. Hizkuntzari dagokionez, bere 6. artikuluak dituan punturik ohargarrienak laburbilduz, honako batzuk azpimarratu leitekez

Hizkuntza propioa eta ofiziala

6.1 testua:

"Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea."

Gaztelera kanpotik etorria edo ekarria dala, eta Estatuto bakoitzak bere hizkuntzaren jabetasuna argi iztea nahi izan dau (85).

Gernikako Estatutoak 6.1 artikuluan idazkera baten dakarz euskeraren jabetasuna eta gaztelerakin batera ofizialtasun bikoitza (86). Valencia-ko (7.1 art.) eta Irletako Estatutoak (3.art.) antzera jokatzen dabe.

Kataluniako (3.1 art.) eta Galiziako Estatutoak (3.1 art.) atal berezi bat dakarre hizkuntzaren jabetasunari buruz.

Ohi ez dan modukoa da Nafarroako hizkuntzaren lege tratamendua (87).

Nafarroako lurraldeko hizkuntza propioa gaztelera dala dino, eta jarraian euskeraren ofizialtasun zatizkoa edo partziala onartzen dau.

Hizkuntza ofizial biak ezagutu eta erabilteko eskubidea emoten dabe Estatuto testu gehienak (88).

Diskriminazio eza

Espainiako Konstituzioko 9.2, 10.2 eta 14 artikuluak gogoan izan ezkero, Estatutoak ez eukan atal hau idatzi beharrik, baina Gernikako Estatutoak 6.3 artikuluan dakar hizkuntzagaitik inor ez diskriminatzeko manua:

"Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutzietsiko."

Galiziakoak 5.4 artikuluan dakar, Valenciakoak 7.3an eta Irletakoak 3. artikuluan.

Bi hizkuntzen ofizialtasuna autorturik, herritarraren eskubidea herrisailaren betebehar bihurtzen da. Eta hizkuntzen ofizialtasun bikoitzak ondorio ezbardinak sortzen ditu. Herrisailak benetako elebitasuna posible egin behar dau, nahiz eta herritar bakoitzak nahi dauan hizkuntzaren aukera izan (89).

Itunen Teknika

Espainiako Konstituzioko 145.2 artikuluak Autonomiadun Elkarteak Itunek egiteko erak azaltzen ditu.

Gernikako Estatutoak Konstituzioko artikulu horri ez deutso jaramonik egin eta nazio artean Autonomiadun Elkartearen eskabidez Estatuak ospatu leikezenei bai. Beharbada, gure Estatutogileak Nafarroa Euskal Herria zalakoan egozan.

Argibide izan leiteke Balearesko Estatutoaren 2. Erabagi Osagarria Estatuko Autonomiadun Elkarteen arteko hartuemonei dagokielako (90).

Gernikako Estatutoaren 6.5 artikuluak, Frantziako Euskal Herria gogoan daukala, hauxe dino:

> "Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez, kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio Espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultza dadin."

Gernikako Estatutoak Autonomiadun Elkarteen arteko Itunei buruz ez dakar ezer (91). Estatutoetako lankidetzaren hizkuntza hutsunea harritzekoa bada be, gogoangarri dira gaur beste asmo batzuk (92).

Lurraldeko soziolinguistikaren aniztasuna

6.2an agertzen da:

> "Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio-linguistikoaren nabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte."

Artikulu hau Euskal Herriko euskeraren ofizialtasunaren edukiari baino euskeraren pauso eta metodoei gehiago dagokie. EKren 3. artikuluagaz eta atal honegaz bakarrik labur geratzen da euskeraren araugintza.

Araugintza hau Euskal Herriko Herrisailak (EL 16.2) bermatuko dau

(93). Ahaztu ezina izango dau gaur egungo euskeraren egoera, baina ez geldi egoteko euskeraren etorkizuna arautzeko baino (94).

Hizkuntza propioaren benetako erabilpena segurtatzeko, eragozpenak kentzeko, hizkuntzaren normalkuntza ezarri eta Ama hizkuntzaren menpetasuna amaitzeko, Herrisailari emoten jako ardurakizuna (95).

Valenciako Estatutoak 7. artikuluan banaketa argiagoa egiten dau (96).

Nafarroa, kasu berezia

Nafarroako kasua berezia da. Bere historia eta geografiaren berezitasunak kontutan harturik, Nafarroako Foru-Jaurpidearen Berreskuratze eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak 9. artikuluan, honela dino:

> "9.1: Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
>
> 9.2: Euskerak be hizkuntza-ofizialtasuna izango dau Nafarroako lurralde euskaldunetan.
>
> Foru Lege batek bereiztuko ditu eskualde horreek zeintzuk diran, euskeraren erabilpen ofiziala araupetuko dau eta, Estatuko legeria orokorraren esparruan, antolatuko dau hizkuntza honen irakaskuntza."

Hizkuntza politika baterako ez jake otu bide egokia. Bide horretatik, ez da etorriko integraziorik.

Bide horretatik Erdeldunei euskera ikastea gatx egingo jake.

Eta azaldutako ideak gidari harturik, honelako oinarrietara garoez:

Nafarroa lurraldekatzea beharrezko egiten da, eta Nafarroak Euskal Herrian sartu nahi baleu eskubidea dauka, Gernikako Estatuko 2. artikuluaren eta Espainiako Konstituzioko 4. Erabagi Iragangarriaren arabera. Baina zer jazoko litzateke? Euskal Herrian euskera ofiziala danez, Nafarroan be euskera ta gaztelera ofizialkide izango litzatekez, 6.2 artikulua aldatu ezik.

Nafarroako "Euskeraren Lege Forala" da autonomiadun Elkarteetan atera dan hizkuntzarekiko azken Legea (97). Eta berau da gaur egun Nafarroan hizkuntza arloa arautzen dauan Legea. Lege honen sorrera, "kontsentsua", erabilera, lurraldetasuna, helburua eta lege honen ondoren lez sortu diran Dekretuak ikasi nahi dauazanarentzat bete-betean datoz Cobreros Jaunaren zazpi orrialdeak (98).

Hizkuntzari dagokiozenetan aholku-emoileak

Hizkuntza propiodun Elkarteak euren hizkuntza jagon, indartu eta ikertzeko erakundeak badabez, baina Euskal Herriko Estatutoa da bakarra aipamen hau egiterakoan, bere 6.4 artikuluan:

"Euskarari dagokionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale."

Arazo hau Estatutoa egiterakoan eztabaidatua izan zan, baina alderdikide batzuen interesa gehiago ikusi zan aholku emoile bakarra aldeztean (99).

Funtzio Publikoa

Hizkuntzari buruz Autonomiadun Estatutoak ez dira asko luzatu eta hizkuntza eskubideetan ez dira bat be zabaldu. Eta Funtzio Publikoa eta hizkuntza ikustean labanago ibili dira.

Espainiako Konstituzioko 149 artikuluaren bildurrez edo izan bada be hori, Gernikako Estatutoaren 35.1 artikuluari ezin jako bere garrantzia ukatu (100).

2.1.2. Hizkuntza Ofizialen araugintzarako eskumenak

2.1.2.1. Eskumenen alkar topaketa

Espainiako Konstituzioak lurraldeetako hizkuntzen ofizialtasuna iragarri egiten dau, eta autonomiadun Elkarteetan ofizialtasun hori eurek nahi daben erara arautuko dala aurreikusten dau (101).

> "... Estatuak orohar harturik (Autonomiadun Elkarteak barru) konstituzio-manua dauka, gazteleraren ezagumena lez, hizkuntza ofizial lez daukien elkarteen hizkuntza propioaren ezagumena be segurtatzeko" (102).

Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jokabideak ikusirik, arrisku barik izan ez arren be, Estatuak gaztelera zaindu eta bere erabilpena Estatu osoan zabaldu behar dauala esan leiteke, bere irakaskintzaren edukin gitxienezkoak eta orokorrak ezarriz.

Autonomiadun Elkarteak, Estatuko hizkuntza ofizialagaz parekatuz, euren hizkuntza propioak ezaguterazo beharko leukiez hizkuntzaren normalkuntza osora heldu arte. Estatuko herrisailak bere hizkuntzaren normalkuntzaren planteaketa egingo dau, baina egundo be ezingo dau egin hizkuntza propioaren ofizialtasuna ukatuz edo gitxituz.

Baina eskumenen banaketa honek, hau da, Estatuak gazteleraren eskumena eta autonomiadun Elkarteak hizkuntza propioena, ez dau hizkuntza arazoa konpontzen.

Estatuak gazteleraren irakaskintza eratu ebanean (103), "per exclusionem" beste hizkuntzak arautzen hasi zan, eta hortxe sortu zan 1.983-10-27 epaiaren zioa.

Konstituzio Auzitegiak, hizkuntza propioei orduak kendu eta gaztelera-ren alde jartea ez dau uste ez Elkarteen eskumenetan sartzea danik ez hizkuntza diskriminazioa dagoanik bere ulerkera horretan (104).

Auzitegiak barriro be Estatua ipinten dau epaian gazteleraren babesle eta Autonomiadun Elkarteak hizkuntza propioak arautzen arduratuko dira. Baina arritzekoa bada be, Konstituzio Auzetegiak okerrik ez dau ikusten OHOko Erdi eta Goi zikloan ordutegiaren % 70 gaztelerari emotean.

Gazteleraren aurrean Estatuko ume guztientzat neurri bardinak ipinten ditu, Autonomiadun Elkarteetako hizkuntza egoera kontutan hartu barik. Eta umeen egoera ezbardinei hizkuntza tratamendu bardina ezartea diskriminazioa ez danik ezin da aldeztu. Epai honetan (1.983-10-27koan) hizkuntzaren bardintasunaren oinarriak bilatzea kostako da.

Hizkuntza ofizial propiodun autonomiadun Elkarteetan hizkuntzen erabilera arautzea nori zor jakon jakitea nahi da, baina holango lege-jokabideak ez dau argi asko eskeintzen.

Gizarte eta lurralde bakar batentzat legegile bi agertzen badira, oso zaila da gatazkarik ez sortzea. Elebitasuna eratzerakoan, araubide bikoitza be ez da faltako, gaztelerarentzat Estatuarena eta Espiniako beste hizkuntzentzat Autonomiadun Elkartearena eta bide horretatik eta epe laburrera behintzat hizkuntzen araugintza ez da gatazka bakoa izango.

Konstituzio eta Autonomia Estatutoak baino aurretik, lurraldeetako hizkuntzentzat lehen arauak Estatutik etorri ziran (105).

Baina hizkuntzari dagokiozenetan Estatuaren eta Autonomiadun Elkarteen eskumenak aztertu eta erakunde bakoitzaren barrutiak eta ahalmenak zehaztu nahi badira, Espainiako Konstituzioak eta Autonomiadun Estatutoak dakarrezan hizkuntzari buruzko arauak kontutan hartu barik ezin daiteke egin.

Konstituzioan, 3, 20.3, 148.1.17, eta 149.1.1 artikuluak badabe ikertu beharra, eta Euskal Herriko Estatutoan hizkuntzari buruz batez be 6. artikulua eta 35. garrantzizkoak dira (106).

Lehengo kapituluan ikusi danez, Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua da hizkuntzari dagokionean aipatutako artikuluen artean garrantzitsuena. Bere 3.2 atalean oinarritua, "Espainiako beste hizkuntzak be ofizialak izango dira autonomiadun Elkarteetan euren Estatutoen arabera", hizkuntzen ofizialtasuna Autonomiadun Elkarte bakoitzak antolatuko dau. Autonomiadun Elkartea hizkuntzak arautzera behartuta dago, eta beste hizkuntzen erabilera arautu eta ofizialtasuna autortzeko eskubidea Konstituzioak berak emoten deutso berari.

"Espainiako Konstituzioko 149.1.1 artikuluaren gaia salbuespen dalarik, Autonomiadun Elkartea gazteleraren erabilpena arautzeko be gai litzateke, eta alderantziz, beste hizkuntzen ofizialtasuna eta erabilpena arautzeko Estatuak ez dauka eskubiderik" (107).

Gernikako Estatutoak, Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikuluagaz bat etorriaz, euskeraren "ofizialtasuna autortu eta bera ezagutzeko eta erabilteko eskubidea" onartu dau bere 6.1 artikuluan. 1.984-04-25eko Konstituzio Auzitegiaren epaiak dinoanez, autorpen eta eskubideak zuzenean dira aplikagarriak eta eragingarriak. Hizkuntza propioak ezagutu eta erabilteko eskubideak Estatutoan sustraituak badira, horrek hizkuntzaren oinarrizko baldintzak arautzeko bakarreango eskumena Estatuak ez daukala esan nahi dau, hau da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikuluaren zentzunean.

Beraz, hizkuntza honeen erabilpenaren araugintza osoa hizkuntza propiodun Autonomiadun Elkarteen eskumen bihurtzen da. Zalantzarik balego gainera, Espainiako Konstituzioko 149.1.1 artikuluaren arabera, Autonomiadun Elkarteetako hizkuntzaren irakaskintzaren suztatze-eskumena Autonomiadun Elkarteei dagokie, eta Euskal Estatutoak aukera hori jaso dau bere 16. artikuluan (108).

Autonomiadun Estatutoak hizkuntza propioaren erabilera arautu eta ofizialtasuna onartzean bakarrik ez dira geratu. Euskal Estatutoak hizkuntza bien ofizialtasuna arautzen dau (horretarako eskumena hartuaz). Gaztelera be ofiziala danaren autorpena sartzen dau 6.1 artikuluan (109).

Hizkuntzagaitik ezin da inor gitxietsi edo diskriminatu, Euskal Estatutoak 6.3an dinoanez (110).

Autonomiadun Elkarteak, hizkuntza propioa arautzen da-ben lez gazteleraz be bardin egiten dabela, honelako manuak egiaztatzen dabe.

Ikusi Gernikako Estatutoko 6.2 artikulua. Eta Auzitegi Goreneko 1.984-03-12ko epaiak (4.Gela) hoixe onartzen dau.

Nahiz eta indar gitxiagoz izan, gaztelera bera be arautuz, Euskararen Erabilera Arauezkotzeko Legeak (1go art.) jokabide hau jarraitu dau (111).

149.1.1ean sartzen ez danez, eta autonomiadun Elkarteko hizkuntzaren araubidea bakoitzaren Estatutoari dagokionez, Estatuak arautuko baleu eskumena faltan jausiko litzateke, eta eskubide hori Estatuarena ez danez, bera babestea galerazota eukiko leuke Goi Inspezioak (112).

Espainiako Konstituzioaren 3.3 artikuluaren begiramen eta babesa nori dagokiozan ez dau zehazten, eta bai Estatuak eta bai Autonomiadun Elkarteak horretarako eskumenak eukiteko eragozpenik ez leukie izango. Bien betebeharra da.

Espainiako Konstituzioaren 20.3 artikuluari dagokionez, hizkuntza talde ezbardinen komunikabideetako partaidetza da ihardungai Konstituzio Auzitegiaren 82/12 eta 82/74 epaien ulerkera, eta Espainiako Konstituzioaren 81 artikulua gogoan harturik, oinarrizko edo hasierako araugintza Estatuari dagokiola irudi. Baina hizkuntzaren erabilpena ez dau arautzen, eta 149.1.1eko oinarrizko baldintzetan sartzen ez bada, araugintza hau Estatuaren edo Autonomiadun Elkarteen esku egon leiteke (113). Beraz, lege ordinario hau hizkuntza ofizial propiodun Autonomiadun Elkartearena izango da, autonomiadun Elkarteko lurraldeetan Estatuko komunikabideei egokitzen jakenean be (114).

Hizkuntza propioan irakaskintza hartzeko eskubidea hizkuntzaren oinarrizko eskubidean sartzen da. Ikusi Espainiako Konstituzioko 27.2 eta 3 artikulua eta 1.980-04-21eko Auzitegi Goreneko epaia. Hasiera baten eskubide hau Lege Organikoaz arautua izan daiteke, eta gainera hizkuntza propiodun Autonomiadun Elkarteeko araubidez. Euskeraren Legeak, 15 artikulutik 21era garatzen dau (115).

Nahiz eta gurata Espainiako Konstituzioko 14 artikuluan hizkuntzagatiko diskriminazioa sartu ez (116), artikulu horren azken esaldiak (117) barruan hartzen dau, errazoi honeengaitik:

a) Espainiako Konstituzioko 10.2 artikulua, 1.948-12-10eko Giza Eskubideen Autorkizun Orokorreko 2.1 artikuluari lotuta dago. Eta Espainiako Konstituzioko 14.1 artikulua,

1.956-11-04ko (PDHLF)
1.966-12-19ko 14. artikuluko (PIDCP)
1.966-12-19ko 2.2 artikuluko (PIDESC) giroari lotuta.

b) Konstituzio Auzitegiaren jokabideak, eskubide hau beti esku zabaltasunez ulertu daualako. Eta eskubide hori hausteak Espainiako Konstituzioko 53.2an datorren eskubide iturria sortzen daualako.

Laburtuz eta aipatutako autoreei jarraituz, Konstituzioak aurreikusita eta Estatutoz emonda Autonomiadun Elkarteak hizkuntza eskubide eta erabilera arautzeko ahalmena dauka, gaztelerari dagokionez Espainiako Konstituzioko 149.1.1 artikulua kontutan harturik.

Autonomiadun Elkarteetako lurraldeetan Estatuak ezin ditu arautu hizkuntza propioak eta euren erabilera, Justizia gaia eta Defentsaren gaietan be ez. Gauza bat da Justizia eta beste bat lurraldeko hizkuntza arautzeko eskumena. Espainiako Konstituzioak 3.2 artikuluak "beste hizkuntzak ofizialak izango dira" manatzean, Estatuaren Autonomiadun Elkarteetako eskumenak edo Estatuaren gai bakarreangoak ez ditu bereizten.

Horregaitik, Bartomen Colom i Pastor Jaunak LOPJko 231 artikulua Konstituzioaren aurkakoa dala uste dau (118). Eta Estatutoaren aurka be bada, Konstituzioak eta Estatutoak berak emondako Autonomiadun elkarteen hizkuntzarekiko eskumenak hausten ditualako, autonomiadun Elkarteeko hizkuntza ofizialen eta propioen erabilera arautuz (119).

Baina, Estatuko hizkuntza ofizialaren eta hizkuntza ofizial propioen arteko bardintasun oinarria kontutan harturik, hizkuntza normalkuntzaren Legeak Autonomiadun Elkarteak egin arren, 231 artikulu horrek, Lege Organikoa danez, nagusi izaten jarraituko dauan zalantzarik ez dago.

2.2. EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA

2.2.1. Sarrera.

2.2.2. Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea.

2.2.3. Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea Auzitegian.

2.2.4. Zuzenbidezko ondorioak.

2.2.1. Sarrera

Konstituzioak eta Gernikako Estatutoak Euskal Herriko Autonomiadun Elkarteko herrisailaren esku izten dabe euskeraren erabilpena garatzea eta arauzkotzea (120).

Euskerak Euskal Herrian galdutako barrutiak berreskuratzea izango da Euskeraren Legearen errazoi sakonena. Euskeraz bizi nahi dauan herriari, aukerak emoteko edo baldintzak sortzeko legea da hori. Batez be, herrisailak euskeraren alorrean galdutakoa herriari bihurtzeko. Euskal Herriko herri-arduralaritzaren euskeraren barrutia, hizkuntzarena, gizarteko komunikabideena, euskeraren gizarte eta erakunde alorreko beste alderdi batzuena berreskuratzea.

Konstituzioak eta Euskal Herriko Estatutoak hizkuntzen ofizialtasunean bardintasunaren abiapuntua daukie. Espainiako Konstituzioko 3.1 eta 3.2an argi dago, beste hizkuntzak "be" edo "bardin" (121) ofizialak izango dira. Eta Euskal Herriko Autonomia Estatutoko 6.1 artikuluan be euskeraren eta gazteleraren ofizialtasuna onartzen dira.

Bi manu honetatik dator legezko bardintasuna, eta benetako bardintasuna lortzeko neurri bereziak behar dira.

Euskal Herrian bi hizkuntzen bardintasuna lortzen joateko lagungarri izango jako euskerari bere erabilpena arauzkotzeko Oinarrizko Legea.

2.2.2. Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea

Alkarrizketa luze eta alderdi politikoen akordu zabal baten ondoren jaiotako Legea da (122). Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak legezko izaera dauka eta lortu nahi dauan helburua zera da:

> "Euskera, gure Elkartearen nortasunaren erakusgarri nabarmenena eta behinena eta, ezagutzaren eta erabilkeraren bidez, gizabanakoak Elkartean erabat bertakotzeko bidea dela aitortzea" (123).

Lehenengo Legea egiterakoan emon diran pausoak aitatuko dira labur-labur, gero artikuluz-artikulu alderdi politikoen artean izan dituen eztabaida eta zuzenketen barri emonaz.

- Lege Egitasmoaren aurkezpena 1.981-06-09an egiten da.

- Mahaiak, 1.981-06-10ean hartutako Erabagia egitaratuz, "Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Lege-Egitasmoa bere bideak egin daiazan onartu, IV Legebiltzar Batzordeari (Hizkuntza eta Kultura) bialdu, eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko manatzen dau, legezko eta arauzko ondorio guztietarako."

- Boletin Ofizialean argitaratzen da, 1.981-06-30ean, A Saila, Lege Egitasmoak, 13. Alea. 13.1ean hutsen zuzenketak argitaratzen dira.

- Zuzenketak: Euskal Herriko Sozialisten taldeak, Euskadiko Ezkerrak eta Talde Mistoak aurkezten ditue.

- Lantaldearen Txostena (erizpena): 1.982-03-17an emoten da.

- Batzordearen Erizpena: 1.982-06-29an.

- Eusko Legebiltzarrean onartzen da: 1.982-11-24an .

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen testua E.H.A.A.

1.982-12-16ko 160. Alean argitaratzen da Lege honen ikerketa egiterakoan gogoan izango dira Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean 1.981-06-30an, A Saila, 13. Alean argitaratu zan Lege-Egitasmoaren testua Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Onarrizko Legea, IV Batzordeak (Hezkunteta Kultura) bere bilkuretan Lege-Egitasmoa eztabaidatu eta emon eban erizpena eta Lege Biltzarrean Osoko Bilkuretan onartu zan Lege-testua.

Hezkuntza eta Kulturako Sailburuaren hitzaldia

1.982-11-25an Legebiltzarreko Osoko Bilkuran Etxenike Landiribar Jaunak (Hezkuntza eta Kulturako Sailburuak), Euskeraren Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen Egitasmoa eztabaidatu eta IV Batzordearen erizpenari buruz erabagi aurretik, legebiltzarkideen aurrean hitza hartzen dau.

Lege Egitasmo horri buruz erabagia bartzearen garrantziagaz eta ardurakizunagaz konturatzen dala dinotse legebiltzarkideei. Legeen garrantzia mailakatzea zaila da, baina gure gizarte bizitzak eta "konbibentziak daukan benetako arazoa komunikazioa posible egitea da" (124). Herritarrak "izan nahi dabena" izateko bide eta tresnak sortu behar dira, eta nahiz eta hizkuntza gaiak arautzeak zailtasun bereziak euki kontsentsu batera heltzeko,

> "Eusko Legebiltzarrean biltzen garenok badugu gure Eusko Lurralde Autonomoak eskeintzen dizkigun arazoak konpontzeko araubide nagusi bat: Autonomia Estatutoa. Gure herrialde hauetako hizkuntza arazoei edo problemeei erantzuteko ere, araubide nagusi horretara jo beharrean gaude. Onar dezagun guztiok bere osoan, nahiz eta zenbaitetan beste era bateko araubidea maiteago izango genukeen" (125).

Autonomia Estatutoaren 6. artikulua eta Espainiako Konstituzioren 3. artikulua gogoratzen ditu.

> "Zinez eta benetan erabaki behar dugu onartzen ote dugun ala ez artikulu hoietan esaten dena. Hori da arazorik nagusiena gure gaurko ihardunaldi honetan" (126).

Nere ustez, ez dabil okerbidetik Etxenike Jauna. Konstituzioak begiramen eta babesa manatzen dauanean,

> "... euskera gure gizarte harremanetarako hizkuntza ofizial bezela babestu, zaindu eta eragin nahi du... euskeraz bizi nahi duten guzien gogoa zinez babestu nahi du, gogo hori egi bihurtzeko bitarteko guziak sendotuz eta sortaraziz" (127).

Errudunen eta zordunen bila ibili beharrean, gure erantzukizuna herriaren hizkuntza eskubideen egoera aldatzea da.

Estatutoari jarraituz, euskaldunei edo euskal hiztunei buruz hizkuntza politika aldatzeko eragozpen gitxiago ikusten da, baina beharbada, legebiltzarkideen artean baten bat gaztelera hiztunei buruz hizkuntza politika aldatzearen aurka egon daiteke. Ulerkera hori, Etxenike Jaunaren eritziz, bi hizkuntzen ofizialtasuna zer dan ez aitzea da (128).

Baina talde guztien artean alkarrizketa argitzaile bat aurrera eroateko ahaleginak egin behar dira herrian eta Legebiltzarrean. Hizkuntzaren arazoak ez dira konpontzen herritarrak dituen aituezinak dagozan moduan itzita. Jokabide suztatzailea eragin eta hartu behar da elebitasuna gure Euskal Elkarteko gizarte eta erakundeetan onartzeko.

Gizarte elebidun bat sortzeak bere zailtasunak ditu. Gizarte elebidun batetaz zer ulertzen dan eta elebitasunaren mailak Hezkuntza eta Kulturako Sailburuak azaltzen ditu (129).

Euskal Herriko herritarrak euskera eta gaztelera erabilteko eskubidea dauka, baina bata ez bestea erabiltera behartu barik. Gaztelera jakin beharra izan arren, erabili beharrik ez dauka. Herritarrak eurek aukeratzen daben hizkuntzan jarduteko eskubidea daukie. Giro honetan egin da Euskeraren Erabilera Arauzkotzeko Lege Egitasmoa. Ez euskera ez gaztelera erabiltera inor ez da behartzen.

"Espainiako Konstituzioko 9.2 artikulua inork ezin dau ahaztu -dinotse

Etxenike Jaunak Parlamentariei-. Euskeraren erabilera herritar bakoitzaren herri-eskubidea da eta herrisailak bere egiztatze osorako baldintzak suztatu behar ditu" (130).

Bi hizkuntzen ofizialtasuna aurretikoa da. Eta Lege honek euskeraren eskubidearen erabilpena arautzen dau. Eta betebeharrak herritarrentzat barik herrisailarentzat gehiago dira. Lege honetan euskera erabilteko eskubidea erakutsi eta bermatzea nahi da.

Lege-Egitasmo osoarekiko zuzenketa

Hezkuntza eta Kulturako Sailburuaren hitzak entzun ondoren Legebiltzarreko Lehendakariak Lege-Egitasmo osoarekiko zuzenketak eztabaidatzea proposatzen dau.

Mota honetako bi zuzenketa aurkeztu dira:

1 eta 2 zenbakidunak. 1 zenb. Talde Mistoarena (AP) eta 2 zenb. Talde Mistorena (PCE-EPK)

Batzorde-Bilkuran, zuzenketa bien aldezpena Santiago de Grinó y Rabert Jaunak (AP) egin eban:

> "Gure ikuspuntuak Lege-Egitasmoaren aurkakoak dira... Zehastasun falta dauka... eta normalizazio hitza ez da egokia. Euskeraren erabilpenaren garapen eta suztatze izena eroan behar leuke" (131).

Normalizazio hitzari buruz, Boneta Piedra andreak (PNV) erantzuten deutso (132). Baita zehastasun faltagaitik be azalpenak emoten dira (133).

Batzordeko botazioan zuzenketa hau etzan onartu, eta Lege-Egitasmoa onartu zan (134).

Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, Grinó Rabert Jaunak Lege-Egitasmo osoarekiko zuzenketa aldeztean, dino:

> "Gure zuzenketa Legearen aurka ez doa eta normalizazio hitza Autonomia Estatutoko artikulu baten be ez dator, beraz normalizazio hitzak ulerkera okerrak sortzen ditu" (135).

Boneta Piedra andreak Batzordean aipatutako azalpenak agertzen ditu (136).

Arostegui Zubiaurre Jaunak (AP) euskeraren gaia gatazkatsua dala autorturik, Lege-Egitasmo honi bi oztopo idoroten deutsoz: Batzordearen erizpena onartzen bada, Legebiltzarrak etorkizunari begira bere eskubideei uko egin eta Jaurlaritzaren esku izten dau, Dekreto bidez egiteko euskeraren normalkuntza. Bestetik, egitasmo argia, hizkuntza planteaketa, filosofia bat, eta zehaztasuna falta da (137).

Eusko Sozialisten Taldearen izenean, Maturana Plaza jaunak hitza hartzen dau Legebiltzarrean. Euskeraren normalkuntzarako Lege-Egitasmo honen jaiotza 1.980an kokatzen dau, bere Taldeak eta Lertxundi jaunaren Talde Mistoak euskeraren irakaskintzari buruz proposamen bat aurkeztu ebenean sortu zala esanaz. Euskal Herriko barruti ezbardinetan, Arduralaritzan, irakaskintzan, komunikabideetan.. e.a., elebitasuna sartzen joateko
asmoa ebelarik.

Maturanarentzat, Lege-Egitasmo honen hasieratik Eusko Jaurlaritzak akordu batera heltzeko borondatea agertu dau. Egitasmo honek bere gorabeherak izan ditu. Isilean gordeta egon arren, PNV eta EEren arteko adostasun ugariak izan ditu.

> "Gure Taldea be azken aldian askoz be hurbilago dago, eta gitxienez, Legearen 25 artikulutan behintzat adostasun osora heldu gara. Akordu oso batera heltzeko asmotan etorri gara. Gure ikuspuntutik, herritarren euskeraren erabilpenaren eta ezagutzeran eskubidea onartzea oso autorpen garrantzitsua da. Euskal Herriko herrisailaren betebeharretan kontsentsua lortu dogu, eta zailagoa zana, Estatuko herrisaila be Autonomiadun Elkartean betetzera behartzerakoan be adostasun osora heldu

gara," (138) -dino Maturanak.

Egindako ahaleginak kontutan harturik, laguntza eta partaidetza emoteko prest dagozela dino Maturana Jaunak, eta Euskal Herria ilusioz bete behar dala euskeraren normalkuntzan aurrera egiteko esanaz amaitzen ditu bere hitzak.

Etxenike Jaunak eskertuko deutso Maturana Jaunari bere baikortasuna eta alkarrizketa zaletasuna, eta Arostegui Jaunari Konstituzioa ez dauala onartzen esaten deutso, Konstituzioaren 9.2 artikuluaren manuz Lege hau egin beharra daukagulako. Lege honek bi hizkuntzen ofizialtasuna ez dau erabagiten, Konstituzioaren 9.2 artikulua aplikatu besterik ez dau egiten (139).

Talde Mistoaren (AP) 1 zenb. zuzenketa Lege-biltzarki-deen botazioan ez zan onartu (140). Talde Mistoaren 2 zenb. zuzenketa be baztertu egin zan (141).

Lege-Egitasmoaren artikuluen eztabaida

1go artikulua:

> "Euskeraren eta gazteleraren erabilpena Lege honetan manatutakoari atxikiko jako Euskal Herriko Autonomia Elkartearen mugartean" (142).

63 zenb. zuzenketa: Euskal Herriko Sozialisten Taldearena. Sozialisten zuzenketa gehigarriaren testua hauxe da:

> "... eta Lege honen hedapenerako Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak emon daiezan gainerako arauei" (143).

Sozialisten eritxiz, zuzenketa honek lehenengo artikulua osotuko leuke. Euskeraren eta gazteleraren erabilera arauzkotzeko lege hau bakarrik ez dau nahikotzat hartzen Talde honek, eta batez be Legearen garapenerako Legebiltzarraren eta Jaurlaritzaren beharrizana aldezten dau. Zuzenketa hau ez da Batzordean onartzen (144).

Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, Maturana Plaza Jaunak errazoi bardinekin aldezten dau, eta aurkako boto barik onartzen da (145).

Botoaren azalpena egitetakoan, Zaldua Arbiza Jaunak (PNV) esaten dituan hitzak adierazgarriak dira:

> "Eztabaida berdina izan genduen Komisio-billeretan. Oinarrizko lege bezala, ez diogu ikusten zertarako erantsi behar zaion beste anaiketa hori. Pentsa daiteke lege honek nahi eta nahiez dituela gerozko dekreto eta lege bereziak aurreratu eta mamitu behar dutenak oinarrizko legea.
>
> Hala ta guztiz ere, bai bere garrantzia dauka erasketa honek, eta lehen aipatu dan bezela ere akordio baten iritxi geranez gero, hau ere guk honez hartuko degu, eta pozez gainera, ikusi degulako ere Alderdi Sozialistak, Alderdi Euskal Sozialistak ere gurekin bat egin nahian dagoela, eta hori guretzako, euskerarentzako, Euskadirentzako eta mundu guztientzako, euskera danez gero ere oso pozgarria da. Orduan, ez daukagu zergatikan ezerkorik eman beharrikan, eta zorionez etorri dedila lehenbiziko artikulu bezela" (146).

2. artikulua:

> "Euskal Herriko hizkuntza propioa euskera da" (147).

64 zenb. zuzenketa: Euskal Sozialisten Taldearena (148)

Zuzenketaren Testua Batzordearen eztabaidan ez da onartzen (149) eta ezta Legebiltzarreko Osoko Bilkuran be. Baina Maturana Plaza Jaunak, Sozialisten izenean bere aldezpena egiten dau. 2. eta 3. artikuluekin bategitea nahi dau, eta Autonomia Estatutoari jarraituz, gaztelera eta euskeraren ofizialkidetasuna autortu (150).

Batzordeko eztabaidan, Euskadiko Ezkerrak 3 zenb. zuzenketa aurkezten dau. Zuzenketa horren bidez euskera nazio-hizkuntza lez hartu eta Estatutoko

testuaren osagarri lez ipinten dau, baina ez da onartzen (151)

Legebiltzarrean PNV eta EE bat datoz, eta Sozialisten zuzenketaren aurka agertzen dira eta botazioan Osoko Bilkuran ez da onartzen (152). Eta 2. artikuluaren testua onartzen da (153).

3. artikulua:

"Euskal Herriko Autonomia Elkartearen hizkuntza Ofizialak euskera eta gaztelera dira" (154).

65 zenb. zuzenketaren bidez, Sozialistak artikulua kentzea proposatzen dabe, baina zuzenketa ez da onartzen Batzordean (155), eta Legebiltzarrean aurkako boto barik onartzen dabe danak (156).

4. artikulua:

"Hizkuntzagaitik inork ez dau bereizkeriarik izango"(157)

Lege-Egitasmoaren testuan 5. artikulu lez idatzita egoan testua da. Zaldua Arbiza Jaunak Aintzin-Idazpenaren azken artikulu lez jarri behar litzatekela uste dau.

Sozialistak 68 zenbakiagaz aurkeztutako zuzenketa ez da onartzen Batzordean (158).

Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, Sozialistak, PNV eta EE alkarturik, 4. artikuluaren zuzenketa aurkezten dabe:

4. artikulua, "Euskal Herriko Autonomia Elkartean hizkuntzagaitik inork bereizkeriarik izan ez daian, herrisailak ardura izan eta behar diran neurriak hartuko ditu" (159).

Maturana Plaza Jaunak emoten dau azalpena: Batzordean idatzita

geratu zan testuak azalpena behar ebala uste dau. Autonomia Estatutoak dakarren testu hau Autonomia Elkarteko herrisailak eta Euskal Herriko Estatutoa herrisailak be bere ardurapean hartu behar dau. Ez gaztelera hizkuntzak ez euskera hiztunak ezin dau jasan hizkuntzagaitik bereizkeriarik.

Legebiltzarrak ahobatez onartzen dau zuzenketa honen testua (160).

Zaldua Arbiza Jaunak bere poza eta azalpena agertzen ditu:

> "Konkretoki ulertzen da baita ere nola ba agintari publikoak zaitu eta bere neurriak hartuko dituzten. Gure zalantza beti izan da diskriminazioren arazoa. Nere ustez, hau hemen jartzea oso egokia izan da. Lehendikan, lehenago Lizundia Jaunak esan duen bezala ere, berekin zeharo ados nago. Orduan, guri iruditzen zaigu oso beharrezkoa zala eta gainera gogoz hartu degu Alderdi Sozialistaren proposamena, zergaitik iruditzen zaigu oraindik osatzekoa izan dela. Besterik ez" (161).

Lehenengo Idazpurua
Atalburu Bakarra
Herritarren eskubideak eta
Herrisailaren eginbeharrak hizkuntzaren alorrean.

Atalburu honen izenburua eztabaidatu zan Batzordean. Herritarren eskubideak eta Herrisailaren eskubideak eta eginbeharrak jartzea nahi izan eben eztabaidatzaile batzuk. Baina eskubideak be geroago agertuko ziran aginduagaz, aurkeztutako testua onartu zan (162).

5. artikulua

" 1. Euskal Herriko euskal herritar guzkiak dabe euskera ezagutu eta erabilteko eskubidea.

2. Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza eskubideak autortzen jakez:
a) Arduralaritzarekin eta Autonomia Elkartean kokatutako edozein Ihardutzesail edo Erakundeagaz hartuemonak hitzez eta/edo idatziz euskeraz izateko eskubidea.
b) Irakaskintza euskeraz hartzeko eskubidea.
d) Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emonkizunak euskeraz jasotzeko eskubidea.
e) Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskeraz iharduteko eskubidea.
f) Edozein batzarretan euskeraz egiteko eskubidea.

3. Eskubide honeek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezan, herrisailak Autonomiadun Elkartean euron erabilpena bermatuko dabe" (163).

Batzordean 5. artikulu interesgarri eta aberats honen aurketzaileak Eusko Alderdi Jeltzailea eta Euskadiko Ezkerra izan dira zuzenketa bidez. Herritarren hizkuntza eskubideak garatzen dira. Herrisailari manatzen jako eskubide honeek bermatzeko. Artikuluak zehaztasunean irabazten dau. Euskera Arduralitzaren hizkuntza da, irakaskintzarako eta komunikabideetarako hizkuntza da. Bestela euskeraren etorkizuna oso kaskarra izango da.

66 zenb. zuzenketa (Sozialistena) baztertu egiten da (164).

Legebiltzarrean, barriro be hiru alderdiak (PNV, EE ta PSE) alkartzeko, zuzenketa txiki baina garrantzitsu batzuk egiten dira:

- 5.1: euskera ordez hizkuntza ofizialak jarriko da.

- 5.2 a) euskeraz berbeari edo gaztelerazezarriko jako.

- 5.2 b) bi hizkuntza ofizialetan ipiniko da lehen euskeraz ipinten zan lekuan.

Eta botazioan adostasunez onartzen da (165).

6. artikulua (166)

Artikulu honetan be, PNV eta EEk alkarturik, testu barria aurkezten dabe. Lizundia Jaunak gazteleradun ez diran beste hizkuntzen (esaterako gailego, katalan...) eskubideei buruz
berba egiten dau...

Gaztelera hondakin lez ipinten zala esanez, Sozialistak oso gogor agertu ziran proposamen honen aurka (167).

PNV eta EEren testua onartzen da, eta Egitasmoaren 6. artikulua kentzen da (168).

IV Batzordearen Bilkuran onartu eta Legebiltzarrean aurkeztu dan 6. artikuluaren testua kendu egin da, Legebiltzarrean, eta errazoia Zaldua Arbaiza Jaunak dakar:

> "...seigarren artikulu hau egingo gendukena da ahal bada baztertu, posible baldin bada, zergatikan adostasun batera etorri

gara gure artean ikusiaz erdera boskarren arauan agertzen dela. Orduan hemen seigarren arauan ez daukala agertu beharrik" (169).

Bigarren Idazpurua
Herrisailaren iharduketaz
Lehenengo Atalburua
Euskal Herriko Autonomia Elkarteko
lur-eremu barruko Herri-Arduralaritzan
euskera erabilteaz (euskeraren erabilpenaz)

2. Idazpuruaren izenburua eta 1go atalburuarena eztabaidatzen dira. Egitasmoko testua kendu eta Euskadiko Ezkerrak aurkezten dauana onartzen da (170).

Herrisail mota guztiak sartzen dira. Grinó Rabert Jaunak "euskeraren erabilera" barik "hizkuntzaren erabilera" egokiago zala inoan, baina Lizundia Askondo Jaunak "Euskeraren Erabileraren" Legea egiten ebizela erantzun eutson (171).

7. artikulua

> "Autonomia Elkarteko lur-eremuan Herri-Arduralaritzagaz euren hartuemonetan euskera nahiz gaztelera erabilteko eskubidea onartzen jake herritar guztiei, eta aukeratu daien hizkuntza ofizialean harrera izatekoa.
>
> Horretarako, aukerako neurriak hartuko dira eta eskubide honen erabilpena arian-arian bermatzeko beharrezko medioak (eskuarteak) ebatziko dira" (172).

Jeltzaileak eta Euskadiko Ezkerrak dakarre testu hau Batzordera, eta EEk bere zuzenketak (9 eta 10 zenb.) baztertzen ditu (173).

Herritarrak Herri-Arduralaritzaren aurrean daukien hizkuntza eskubide garrantzitsua aldezten da, eta eskubidearen bermea.

PNV eta EEren testua onartzen da, 70 zenb. zuzenketa (Sozialistena) ez da onartzen, eta Lege Egitasmoaren 7. artikulua ez da onartzen (174).

Lege Biltzarreko Osoko Bilkuran, Sozialistak 7.2 artikuluari egindako boto partikularra onartzen da (175). Egia esan, 2. atal hau lehenengo atalaren osogarri dator. Edozein hizkuntzaren aukera bermatzen da, eta bi hizkuntzetan dala erabili beharra eukitea baino egokiagoa dala iduri.

Batzordeak erizpenean onartu eta aurkeztutako testua (7.1 art.) onartzen da (176).

8. artikulua (177)

Batzordeko Bilkuran, Maturana Jaunaren kritika zorrotzak kontutan hartu barik (178), testu honek aurrera egitea lortzen dau.

Aldaketa batzuk egon diran ezkero, alperrikako errepikapenak kentzeko, 8. artikuluaren testua legebiltzarreak Osoko Bilkuran baztertzea erabagiten dabe (179).

9. artikulua

"Agiripaperak herri-erroldetegietaratzea, idatzi agertzen diran hizkuntza ofizialean egingo dira.

Erakusteko eta/edo ziurkariak egiteko Euskal Herriko Autonomia Elkarteko edozein hizkuntza ofizialetarako itzulpenaren bermea emongo da" (180).

Gai honek be Batzordean eztabaida luzeak sortu ebazan Nazionalisten eta Sozialisten artean. Batzorde-Bilkuren behin-behineko aldizkariaren hainbat orrialdek, 99tik 118ra, artikulu honetzaz dihardue.

EEren 13.2 zenb. zuzenketa (testua) onartu eta Sozialisten 71 zenb. zuzenketa baztertu egin zan (181).

Legebiltzarreko Osoko Bilkurarako alderdien jokabideak aldatu dira eta

PNV-EE-PSEk zuzenketa bidez, 9. artikuluaren testu barria osotu dabe eta legebiltzarkideak onartu egiten dabe (182).

Zuzenketa honen bidez gai garrantzitsuak konpontzen dira: Autonomia Elkarteko menpeko diran herri-erroldetegietako agiripaperak izango dira hizkuntza ofizialean egingo diranak.

Menpeko ez diranetan Juarlaritzak euskeraren normalkuntza suztatzeko ardurakizunagaz gelditzen da.

10. artikulua

"1.- Euskal Herriko Autonomia Elkartean dagoan herrisaileegandik sortzen dan edozein aginte-araupide edo erabagi ofizialak, bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dau zabalkunde ofiziala egiteko.

2.- Euskal Herriko Autonomia Elkartean dagoan edozein herrisailak eskuhartu daian egintza guztiak, eta bai arduralaritza-mezu eta adierazpenak be, bi hizkuntzetan egon beharko dabe.

3.- Aurretik (gorago) manatutakoa holan dala be, udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dala eta, herritarren eskubideen kalterako izan ezik, herrisailak, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izango dau" (183).

Une honetan Batzordean Lege Egitasmoaren 9. artikulua eztabaidatzen da. EEk 14, 91, 15, eta 17 zenb. zuzenketak kentzen ditu (184) eta PNVgaz alkarturik testu barria aurkeztu eta onartzen dabe (185). 10.3 artikuluan, udalaren gizarte-hizkuntza egoera dala eta, herritarren kaltetan gertatzen ez danean, herritarren Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izango dabe. Zuzenketa hau EEren eskutik etorri da.

Euskaldunez ornidutako herrietan elebitasunaren beharrizanik ez dago.

Maturanak (Sozialista) Estatu Herri-Arduralaritzaren aurka doala dino

10.3 atal hori. Herritar batek euskera hutsean zerbait eskatu ezkero bai, baina bestela arduralaritza-mezuak eta adierazpenak bi hizkuntzetan egin behar dira. Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua be gogoratzen dau, gaztelera Estatuto hizkuntza ofiziala dala esanaz (186).

Sozialisten 73 eta 74 zenb. zuzenketak baztertzen dira (187).

Lizundia Askondo Jaunak bere botoa azaltzerakoan, euskeraren aldeko legegintzan diharduela dino, eta gaztelerarenaegin beharrik ez dagoala. Arau honek berehala ezarteak be ez dirala, bestela berak euskeraz egin beharko leukela Batzordean. Legearen egoera bat aldatzen joan behar dauala, ez bertan bera itzi (188).

Legebiltzarrean Sozialisten Taldeak euren 73 zenb. zuzenketa baztartzen dabe (189).

Ondoren, Ansola Maiztegi Jaunak hitza hartu, eta Sozialistak 10.2 artikuluari egindako boto partikularraren (190) alde honela dino:

> "Sozialisten boto partikular honek aldatzen du komisioaren edo batzordearen bigarren puntua. Eta puntu horri ekartzen dio, azken batean salbuespen bat, esanez zenbait kasutan, eta herritarrak nahi baldin badu hizkuntza bat bakarrik erabili edo eskatu, herri agintariek bete behar dutela. Guk uste dugu hori positiboa dela eta hobetu egiten duela komisioaren erizpenaren bigarren puntua. Alde batetik herritarrak nahi duena egiten zaio, berak eskatu duen hizkuntzan ematen zaizkio Administrazioaren komunikazioak eta. Eta bestetik, uste dut lan aldetik ere aurreratu egiten duela, zergatik bi hizkuntzetan idatzi beharko balitz dena, lan gehiago izango litzake.
>
> Horregatik ba, ni ez noa gehiago luzatzera eta uste dut hobetu egiten duela Komisioaren erizpena eta gure baietza horregatik" (191).

Gero, boto partikularra (10.2) eta erizpeneko 10.1 eta 10.3 onartzen dira (192).

Batzordeko erizpideak luze-zabalean errepikatzen dira.

11. artikulua

"Justizi edo Epai-Arduralaritzagazko hartuemonetan, herritar guztiak bere aukerako hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dau, ezelango itzulpenik ezin eskatu dakiokela.

Euskeraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta bai epailaritza-ihardunak, balio osozkoak eta eragite-indarrezkoak izango dira.

Eusko Jaularitzak, dagokien ihardutze-sailekin alkar hartuta, Euskal Herrian Justizi-Arduralaritza euskeraren erabilpena arauzkotzea suztatuko dau" (193).

Artikulu honen testua Lege-Biltzarreko Osoko Bilkuran zehar ezelango zuzenketa barik eta ahobatez onartuta igaro da (194).

12. artikulua

"1.- Autonomia Elkarteko lurralde, udal, herri, jeografia-gorabehera, hiribide eta, orohar, toki-izen guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeak edo Toki-Erakundeak finkatuko dabez, bakoitzak berari dagokion konpetentzi barruan, eta beti be, jatorrizko izen euskaldun, erromantzezko edo gaztelerazkoari, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men eginaz.

2.- Kale-bideetako seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, edozelan be nazioarteko arauei eta erabiltzaileen ulergarritasunari eta segurtasunari atxikiz.

3.- Izen honeek oso ezbardinak izanez gero, bide-seinaleei buruzkoetarako, biak ofizialtzat joko dira" (195).

IV Batzordearen Bilkuran EE da testu honen aurkeztzaile bere 20 zenb. zuzenketaren bidez eta onartu egiten da (196).

Sozialisten 75 zenb. zuzenketa ez da onartzen (197).

Zuzenbide aldetik artikulu honek ez dau euki eztabaida haundirik. Alderdi guztien aldetik nahiko adostasun agertu da.

Nahiz eta Batzorde-Bilkuran Sozialisten 75 zenb. zuzen-ketaren (198) aurka egon beste alderdi politikoak, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran zuzenketaren alde datoz.

Kale bideetako seinale eta iragarpenekin euskeraz, leku batzuetan bakarrik egiten zana, artikulu honetan araututa dago.

Auziren bat gertatuz gero, Eusko Jaurlaritza da ebazle.

Legebiltzarkideak ahobatez onartzen dabez, bai Sozialisten zuzenketa eta Batzordearen erizpenean datorren testua (199).

13 eta 14. artikuluak

13. artikulua

"Euskal Herritik abiatzen diran herri-garraiozko zerbitzu guztietan, jendearentzako irarkiak eta adierazpenak euskeraz eta gazteleraz egingo dira."

14. artikulua

"1.- Jaurlaritzak araupetuko ditu bi hizkuntzen arteko zinpeko itzultzaile-tituloa lortzeko eta emoteko baldintzak.

2.- Itzultzaile zerbitzu ofiziala be sortuarazoko dau, eta Autonomia Elkarteko herritarren eta Herri-Erakundeen esku egongo da, itzulpenen zehaztasuna eta legezko baliokidetasuna bermatzeko" (200).

Herri-garraio zerbitzuak garrantzizko eta beharrezko arauz babestuta geratzen dira euskeraren normalkuntzarako.

14. artikuluari buruz Batzordean egon ziran zuzenketak alderdi bakoitzak baztertu ditu eta adostasun osoz onartzen da testua (201).

Legebiltzarrean Osoko Bilkuran 13. eta 14. artikuluak batera botatzen dira ahobatez onartuz (202).

15. artikulua

"Euskal Herriko Autonomia Elkartean herrisailak erabili beharreko iragarki edo (itxura) eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dabe" (203).

Iragarki eta itxura-eredu ofizialetan bi hizkuntzak erabiltea da gai. EEk bere zuzenketak baztertzen ditu. Sozialistak 78 zenb. zuzenketan Autonomiadun Elkarteko Herrisaila sartzen dabe (204), eta bere azalpenetan Legeak ez daukala ahalmenik Estatuko Herrisailari arauak ipinteko uste dau (205).

Lege Egitasmoaren testua onartzen da (206).

Lizundia Askondo Jaunak bere botoa azaltzean, Euskal Herriko Autonomia Elkarteak hizkuntza gaietan EKko 3.2 emonda konpetentzia badaukala autortzen dau. Yugoslaviako eredua gogoratzen dau, han Autonomia Elkarteetan militarrak be hizkuntza propioan hartzeko eskubidea daukiela onartuz (207).

Legebiltzarrean, artikulu hau 3. Erabagi Gehigarriak osotzen dauan ezkero, Sozialistak 78 zenb. zuzenketa baztertuta, 15. artikulua be ahobatez onartzen da (208).

16. artikulua

"1.- Lege honen 7. artikuluan autortzen diran eskubideak egiteratu daitezan, herrisailak Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Herri-Arduralaritzari atxikitako lanariak arian-arian euskalduntzeko xedezko neurriak hartuko dabez.

2.- Herrisailak erabagiko dabez zein lantokietarako izango dan beharrezko bi hizkuntzak jakitea.

3.- Euskal Herriko Autonomia Elkartearen lur-eremuan Arduralaritzako gainerako lantokietara sartzeko egin daitezan baztertze-indarrezko azterketetan, beste merezimenduen artean hizkuntza ofizialen jakintza-maila hartuko da kontutan, horren haztaketa lanbide maila bakoitzean egingo dau arduralaritzak (209).

Hemen nahi dana, herrisailak elebitasunezko Arduralaritza bat lortzea da. Garrantzizko artikulua. Alderdi abertzaleak (PNV-EE) alde eta Zentrista (Aguinaga Torrano Jauna) eta Sozialistak (Maturana Plaza Jauna) aurka, Errazoiak Herrisailaren gaian errepikatu egiten dira.

IV Batzorde-Bilkuran onartzen da testua (210) Euskeraren erabileraz herrisailaren betebeharrak artikulu honegaz amaitzen dira. Euskal Herrian dagozan Arduralaritza mota danak hartzen ditu bere menpean. Herri-funtzioan sartzeko euskera baldintzak ez dira oraindik zehazten, baina oinarri garrantzitsuak ez dira falta.

Sozialistak Batzordetik Legebiltzarrera daroe 16. artikuluari dagokion 79 zenb. zuzenketa (211). Zuzenketa hau Legebiltzarrean lehenengo onartu egiten da eta geroago ez da onartzen (212).

Itxura danez, Sozialisten azalpenak ez dira ondo ulertu. Sozialistak zuzenketa 16. artikuluaren hiru atalen ordez euren zuzenketa bakarrik ipini nahi dabe, eta legebiltzarkideak 16. artikuluaren 4. atal lez aitzen dabe. Dana dala, Sozialisten sakoneko errazoia herri-funtzionarien euskalduntze prozesuaren epe eta martxa dirala iduri. Beraz, oinarri arazoa. Eta Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, Sozialisten aurkako botoekin, 16. artikulua onartzen da (213).

BIGARREN ATALBURUA
Euskeraren erabilpenaz irakaskuntzan

2. Atalburuaren izenburua eztabaidatu ondoren, euskeraren erabilpenaz irakaskuntzan onartzen da (214).

17. artikulua

"Hezkuntza maila ezbardinetan, irakaskuntza euskeraz nahiz gazteleraz hartzeko eskubidea autortzen jake ikasle guztiei.

Horretarako, Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak elebitasuna arian-arian Euskal Herriko Autonomia Elkartean hezkuntza sistema osoan hedatzeko xedezko neurri egokiak hartuko dabez" (215).

Lizundia Askondo Jaunak (EE) Euskal Herriko irakaskuntzaren historia lapurpenduz gaiari sarrera egiten deutso eta PNVgaz batera gertatuko testuaren aurkezpena egiten dau.

Hizkuntza sisteman elebitasuna jartzea nahi da. Neurriak hartzea nahiko erraza da, baina lurralde bakoitzeko egoera ezbardinak ikusirik, planifikazioa zaila da. Hezkuntza-ereduak ezbardinak izan beharko dabe.

Lege aldetik, bai Estatutoz (6. artikulua) bai Lege Egitasmoan (2. artikulua) euskera onartuta dago, eta ondorioz irakaskuntzarako hizkuntza be bada. Ikasle guztiei irakaskuntza euskera hartzeko eskubidea autortzen jake, eta elebitasuna zabaltzeko neurriak egokiak hartzea eskatzen da.

17. artikuluaren testua onartzen da (216), eta Sozialisten 80 zenb. zuzenketa ez da onartzen (217).

Legebiltzarrean, Sozialisten izenean, Maturana Plaza Jaunak 80 zenb. zuzenketa aldezten dau. Legebiltzarrari emon nahi deutso hezkuntza sisteman elebita-

suna sartzen joateko neurri egoki edo araubidea egiteko eskubidea, eta ez Jaurlaritzaren esku itzi.

Ansola Maiztegi Jauna, sozialisten zuzenketaren aurka dator (218).

Legebiltzarreko botazioan 80 zenb. zuzenketa ez da onartzen (219) eta 17. artikuluaren testua onartzen da (220).

18. artikulua

"1.- Unibersitate ikasketaraino emon dadin (emongo dau) irakaskuntza, aitak edo tutoreak, edo, bere kasuan, ikasleak aukeratu ez dauan hizkuntza ofiziala erakustea nahiezkoa izango da.

2.- Halan be, Jaurlaritzak Ikastetxe bakoitzean erabili beharreko hizkuntza-ereduak araupetuko ditu, guraso eta tutoreen nahia eta eskualdeko gizarte-hizkuntzazko egoera kontutan izanik.

3.- Herri- diruzko laguntza hartu eta araupeko irakaskuntza Elkartean ofiziala ez dan hizkuntza bat oinarri dala emon daien ikastetxe pribatuak euskera eta gaztelera nahitaezko ikasgai lez emongo dabez" (221).

Artikulu honen edukia hauxe da:

Ikasketak egiteko aukeratzen ez dan hizkuntza ofiziala ikasi beharra dago. Jaurlaritzak ikastetxe bakoitzean zein hizkuntza eredu erabili araupetuko dau. Herri-diruzko laguntza hartzen daben Ikastetxe pribatuetan be, euskera eta gaztelera nahitaezko ikasgai lez emongo dabez.

Zuzenketa guztiak baztertu dabez, eta aurkako botorik ez dago Batzordean.

Legebiltzarrean be onartzen da testua (222) Sozialistak euren abstenzioa-

ren errazoia azaltzen dabe: Hizkuntza eredua aukeratzea Jaurlaritzaren esku izten bada, ikastetxe bakoitzeko gurasoen askatasuna murrizten da. Beraz, gurasoak barik Jaurlaritza da azken baten hizkuntza ereduaren aukeratzaile (223).

19. artikulua

> "Jaurlaritzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak amaitzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabilteko adina ezagutuko ditueneko segurtasuna emoteko xedezko neurriak hartu eta euskera giroa bermatuko dau, barru nahiz kanpo ekintzapidetan eta Arduralaritzako ihardun eta agirietan euskera agizko adierazpide eginaz" (224).

Sozialisten Taldeak 81 zenb. zuzenketa aurkitzen dau 19. artikuluaren ordezko lez (225). Beharbada zuzenketa honen testua zehatzagoa eta argiagoa da.

Legebiltzarrean Osoko Bilkuran 19. artikulua eta 81 zenb. zuzenketa luze, sakon, eta garrantzi haundia emonaz eztabaidatzen dira.

Maturana Plaza Jaunak euren zuzenketa lan ataletan zatitu leitekela dino. Lehengo atalak, bere ustez, gitxi gora behera, 19. artikuluaren testuak dinoana esango leuke, baino Jaurlaritzak hartuko dituan neurriak Legebiltzarrak onartutako legez arautuko ditu. Lege hau egiteko prisarik ez dau ikusten, baina legearen oinarrizko eritxiak zuzenketaren hiru puntutan datoz:

> 1go: ama-hizkuntzan alfabetatzeko ikasleak daukan eskubidea bermatu. Jaurlaritzaren esku itzi barik, Legebiltzarraren bidez posibilitatea behintzat segurtatu.
>
> 2.: Herri eskoletan euskerazko irakaskuntza erreztu eta euskera hutsean nahi dabenei posibilitatea bermatu. Holan herri-eskoletan sare bikoitza egin beharra kendu. Zaila da hau lortzea, baina oinarriak jarri behar dira.
>
> 3.: Beharrezko herri-diru laguntzak bermatu behar dira: metologia-ikerketak egiteko, irakaslegoaren prestakuntzarako e.a.

EE eta PNV aurka agertu ziran gai askori ikutuz. Irakaskuntzako sare biak, ama-hizkuntza, irakaskintzaren prestakuntza, elebitasuna, e.a. luze bat Legebiltzarreko Osoko Bilkurako (1.982-11-26) agirian 20. orrialdetik hasi eta 42.era arte. Etxenike Jauna be elebitasunari buruz luze mintzatzen da.

Nere ustez, artikulu honi hainbeste garrantzi emon eta legebiltzarkideak hainbeste puntu ezbardin erabili badabez, irakaskuntzak euskeraganako, hau da, hizkuntzaren garapen eta zabalkunderako daukan garrantziagaz jabetu diralako izan da. Zuzenbide aldetik begiratuta, eztabaida nahiko sakabanatua diduri.(78 minutuko eztabaida)

Sozialisten 81 zenb. ez da onartzen eta erizpenean Batzordeak aurkeztutako testua onartzen da (226).

"20. artikulua

Irakasketa-egitarauak 15., 16. eta 17. jarritako helburuei egokituko jakez.

21. artikulua

Irakasleen espezialitateak (berarizkotasunak) eskatzen dauan arauera, euren euskerazko eta gaztelerazko gaitasun osoa lortzeko eran egokituko dabez ikasketa-egitarauak Irakasleen gaikuntzarako Unibersitate-eskolak.

22. artikulua

1. Jaurlaritzak, irakaskintza euskeraz hartzeko eskubidea egiteratzeko, irakasleak arian-arian gehiago euskalduntzeko bideak j ; riko ditu.

2. Era batez (halaber), Lege honen 15. eta 16. artikuluetan ohartutakoa beteteko, euskeraz jakitea nahitaezkoa izango daben lantoki edo irakaskuntzagelak zehaztuko ditu.

23. artikulua

Bere ikasketak Euskal Herriko Autonomia Elkartetik kanpo hasita euki, edo bere ohizko egoitza Autonomia Elkartean ez dabela egiaztatu daien ikasleei, euskera ikastea parkatu ahal izango jake horretarako jarriko dan eran" (227).

Batzordearen Bilkuran eztabaida asko barik onartuta geratu ziran 4 artikulu horreek (228).

Legebiltzarreko Osoko Bilkuran Lehendakariak 4 artikuluak batera aurkezten ditu onarpenerako, baina Eguiagaray Jaunaren eskabidez, bakarka onartu beharra egon zan (229).

Irakaskuntzan euskeraren normalkuntza eta elebitasuna lortzeko irakasketa-egitarauak zer egokitu asko daukie (20. art.)

Irakasle-eskolak, irakasle elebidunen prestakuntzarako oinarrizko tresna bihurtzen dira (21. art.)

Elebidun politika behin edo behin emongo bada, 22.1 artikulua bide dala izango da. Horretarako irakaslegoaren euskalduntzea beharrezko eta ezinbestekoa da, eta lurralde motak zehaztuta gero, irakaskuntza gelak euskeraz dakien irakaslez jantzi behar dira (22.2 art.). Arau honeek gatazka iturri be izan daitekez, baina bestela euskerak etorkizunean hizkuntza elebiduna izatea lortzea ezinezko egingo jako.

Nahiz eta gehiengoaren adostasunez 23. artikulua onartu (230), hain errez ikasle horrei euskera ikastea parkatzeak gitxienez kezkatu egiten nau.

HIRUGARREN ATALBURUA
Euskeraren erabileraz gizarte-komunikabideetan.

"24. artikulua

Gizarte-Komunikabideetatik euskeraz eta gazteleraz informazioa jasotzeko eskubidea autortzen jake herritar guztiei.

Horretarako, Jaurlaritzak euskera gizarte-komunikabideetan geroago ta gehiago agertzeko neurriak hartuko ditu, hizkuntza ofizialen erabilera arian-arian bardintzera joz (joaz).

25. artikulua

Jaurlaritzak, aurreko artikuluak jarritako bi hizkuntzen arteko kidetasuna bermatzeko, Autonomia Elkarteko Komunikabideetan euskera lehenengotasunez erabiltea suztatuko dau.

26. artikulua

Jaurlaritzak, ETBn hizkuntza araukotzeari bultzatuko deutso, euskera Euskal Herriko hizkuntza propioa danez behar dan moduan erabiliko dala bermatzeko" (231).

24. artikuluari Sozialistak 82 zenb. zuzenketa aurkezten deutsie (232). Zuzenketa hau Batzordean ez da onartzen (233).

Informazioa euskeraz eukiteko eskubidea onartzen jako edozein herritarri, eta euskeraren presentzia komunikabideetan segurtatzea eskatzen jako Jaurlaritzari. (24. art.)

Batzordekideak euskerarentzat lehentasun maila nahi dabe, bestela gazteleraren nagusitasuna aurrera joango dan ustetan dagoz.(25.art.)

Ohizkoa izanezarren (izan ez arren), Legebiltzarrean hiru artikulu honeek batera onartu ziran botazinoan (234), eta Lege Egitasmoak eukan hutsunea osotzen dabe. Komunikabideetako hizkuntza lez euskeraren erabilera oinarrizkotzat joten da euskalzale guztien aldetik.

27. artikulua

"Jaurlaritzak 24. artikuluan autortutako eskubidea arian-arian bermatzeagotzeko, euskal argitalpenak suztatzeko eta babesteko neurriak hartuko ditu, edozelan be euskeraren zabalkundeari eta benetan erabil izateari indar emonaz:

Irratian.
Egunkari eta aldizkarietan.
Zineman.
Antzerki eta ikuskizunetan.
Ikus-entzunezko irapideetan.

Horretarako, aurreko alor honeetaz ihardun eta honeek araupetu daiezan legeetan horretzazko idazpuru bat sartuko da" (235).

LAUGARREN ATALBURUA
Euskeraren gizarte-erabilera eta erakunde alorreko beste alderdi batzuk.

Legebiltzarrak ez deutso emoten Jaurlaritzari 27. artikuluko gaietan lege barik ibilteko eskubidea. Irrati, Zinema edo beste edozein gaitan legea egin eta sortzen dan araubideak garatuko dau euskeraren erabilera. Bardin zabalkunde-ihardunetan eta iragarkietan be (29. art.)

28. artikuluak, gizarte eta erakunde alorreko euskeraren erabilera dau bere gai.

"28. artikulua

Euskal herrisailak euskera gizarte-bizitzaren alor guztietan erabil daitela suztatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliapideak jarriko dabez, herritarrei euren merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erligio eta beste edozelango ekintzapideetan euskeraz aritzeko bideak eskeintzeko.

29. artikulua

1.- Euskal herrisailak zabalkunde-iharduneetan euskera erabiltea suztatuko dabe.

2.- Era bardinean (halaber), euskeraren erabilera-giroa suztatuko da eta merkataritzazko, atsedenezko, kulturazko eta bazkunezko ofizialak ez diran erakundeetako iragarkietan erabiltea be bai" (236).

Sozialisten Taldeak Batzordean, 83 zenb. zuzenketaren bidez, 27. artikulua kentzea uste dabe, baina ez da onartzen (237), eta PNV eta EEk aurkeztutako zuzenketa (testua) onartzen da (238).

Legebiltzarrean Maturana Plaza Jaunak 83 zenb. zuzenketa baztertzen dau, alkarkidetasuna eta zehaztasuna azalpen lez emonaz.

Barriro, beste hiru artikulu (27, 28 eta 29) batera onartzen ditu Legebiltzarrak (239).

30. artikulua

"Jaurlaritzak nagusientzat (helduentzat) euskeraren irakaskuntza eta biztanlego euskal-hiztunaren alfabetatzea suztatuko ditu, borretarako Herri-Erakunde bat sortuarazoz" (240).

Batzordeko eztabaidan Sozialistak aurkeztutako 84 zenb. zuzenketa ez da onartzen eta testua onartzen da (241).

Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, barriz EEren eta PNVren aldezleak 84 zenb. zuzenketa interesgarri ikusten dabe. Eusko Legebiltzarren lege bidez arautuko da Herri-Erakunde hori. Gainera helduen alfabetatzea herrisailagandik sortzen bada nobeto. Adierazgarri dira Ansola Maiztegui Jaunak Legebiltzarrean esandako berbak:

"Guk onartzen dugu Eusko Sozialistak artikulo honi ipini dioten zuzenketa hau. Beraz, ez bait du gauza berririk agertzen bertan, batzordeak onartu zuen artikulo honetan, bertan ere behar bada azaletik ez da ikusten, baina nola esaten dan herri erakunde bat sortuko dela, nere ustez garbi zagoen herri erakunde hori lege bidez egin behar zela. Nolanahi ere, berak, Sozialistak eskatzen dutenez argi jarri dezala artikulo hortan legez dela. Gu ados gaude" (242).

Legebiltzarkideak Sozialisten 84 zenb. zuzenketa onartzen dabe eta baita erizpeneko testua be (243).

31. artikulua

"Jaurlaritzak, euskeraren erabilera arauzkotzeko lana errezteko, hartuemon saila sortuko dau, Lege honen aplikapen eta garapenean Erakunde ezbardinen ahalegin eta ekintzak ikasi, onartu eta bateratze helburu dauala" (244).

Hartuemon saila idatziz esanahi osoa ez da adierazoten. Goi aholkularitzako batzordea izango litzateke. Euskeraren erabili arauzkotzean arazo eta gatazka ugari sortuko diranez, alderdien gainetik dagoan saila behar da arazoak aztertu, bateratu eta konpontzeko. **Erakundea** esatean, era guztietakoak hartu leitekez: Unibersitatea, Aldundiak, Ikerketakoak, Udalek, Batzar Nagusiak, e.a....

Legebiltzarrean, artikulu hau aldeztean, Lizundia Askondo Jaunak dino:

"Euskadiko Ezkerrarentzat artikulo hau onartzea eta negoziaTzea zailenetarikoa izan zela esan behar dugu. Zailenetarikoa, zeren eta guk jarritako zuzenketan beste zerbait, nahiz eta hemen funtsean azpian agertuta gelditu, onartuta gelditu, eskatzen genuen: Euskeraren kontseilu gorena, euskerari buruzko erakunde bat sortzea, alderdikeria interesetatik eta instituzioetatik, instituzioen bideetatik ibiliko zena. Azkenean, asko kosta ondoren, artikulo honetara iritsi ginen Eusko Alderdi Jeltzailearen eta Euskadiko Ezkerraren artean. Eta uste dut, nahiz eta gu ase ez, artikulo honek bide bat markatzen duela, bide bat aukeratzen duela euskeraren normalizapen proiektoa aurrera eramateko elkarren artean lan eginez" (245).

Euskeraren Kontseilu Gorenak zeregin ugari dauka: euskeraren normalkuntza teknikoaren zuzendaritza, egitasmoaren jarraipena, hizkuntza-normalkuntzaren aholkularitza, zerbitzuen koordinatzaile, e. a. Ikusten danez, eskumen asko eta garrantzitsuak bere esku geratuko litzatekezenak.

Osoko Bilkuran onartzen da artikuluaren testua (246).

BOSKARREN ATALBURUA
Idatzizko hizkuntza ofizial lez euskeraren erabilpena

32. artikulua

"Euskal Herriko Autonomia Elkartearen lur-eremu osoan euskera idatzizko hizkuntza ofiziala danez, Jaurlaritza bere batasun eta normalizazioaz arduratuko da, Euskal Herriaren Kultura ondarearen funtsezko zati diranez euskalkiei mintzatzen diran lekuetan zor jaken begiramenaren kaltetan izan barik" (247).

Lege Egitasmoan (21.art.) aurkeztutako testua, ezetariko aldaketa barik onartzen da Batzordean (248).

Legebiltzarrean artikulu hau Lehenengo Erabagi Gehigarriagaz batera onartzen da (249).

Estatutoko 6.5 artikuluan lez, Erabagi Gehigarri honetan Euskal Herritik kanpo bizi diran euskeraren aldeko Erakundeak dira gogotan, eta lokarri kulturalak eta hitzarmenak antolatzeko manatzen deutso Jaurlaritzari.

2. Erabagi Gehigarria, sozialisten 86 zenb. zuzenketa, Legebiltzarrean Ansola Maiztegi (PNV) Jaunak era honetan aldezten dau:

"Alde batetikan, hor zegoen Kultura eta Hezkuntza Sailak egingo zutela mapa soziolinguistiko bat, eta gu heldu ginan sozialistekin akordu batera: euskeraren lana Jaurlaritza osoarena zela eta komeni zela hor aldaketa bat egitea Jaurlaritza ipiniz; beste aldetikan, goizean aipatu dut hainbat bider, beste zuzenketa batzuetan, gu ez gaudela ados mapa soziolinguistiko estatiko batekin, bai dinamiko batekin, neurriak eta planifikazioak egiteko. Horregatik, hor sartu da 'mapa de planificación sociolingüística', eta gure botoa emango diogu Sozialisten zuzenketa honi. Mila esker" (250).

3. Erabagi Gehigarriaren testua, Legebiltzarreko alderdi guztien artean gertauta aurkezten da Osoko Bilkuran eta ahobatez onartzen da (251).

Oinarrizko eta garrantzizko erabagia benetan, eta harrigarria ahobatez alderdi guztiak Estatuto Arduralaritzan euskeraren normalkuntza ezarten joateko neurriak hartzeko Jaurlaritzari manatzea. Legea egiterakoan ikuspunturik eztabaidatuena hauxe izan da hain zuzen be. Baina alkarrizketak sortutako ondorena izango da. Egia esan, Estatutoak eta Konstituzioak bi hizkuntzen ofizialtasuna autortuz gero, baina eztabaidan zehar aurkakoak beti agertu dira.

Aldibaterako Erabagiekin ez dabe Legebiltzarkideak Legea aberastu. Batez be, Sozialisten boto partikularrak (252) 2. Aldibaterako Erabagi bihurtzean Legearen goiari eusteari mesede kaskarra egin eutsien. Salbuespenak euskeraren aurka egiteko bide errezegiak dira. Sozialistak aurkeztutako 87 eta 88 zenb. zuzenketak (funtzionariei buruzkoak) onartu barik geratu dira (253). Funtzionariak lortutako eskubideak eta euren euskera maila dira eztabaidagarri.

2.2.3. EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA AUZITEGIAN

Espainiako Estatuaren erdirakoitasuna apurtu, eta demokrazia giroa eratzen hasteko abiapuntua katalanen eta euskaldunen eskakizunetan dago neurri haundi baten. Estatuaren lurralde eredu barria egiteko orduan eta Konstituzioa berari egokituta ezartzerakoan Euskal Herriko eta Kataluniako Parlamentari Taldeen partaidetza oinarrizkoa izan danik ezin da ukatu.

Lurraldetasunaren oinarri barrian eratu dan Estatua, Kataluniako eta Euskal Herriko Elkarte Historikoen gatazkatasunarentzat erantzun zuzena izan danik be ezin da esan. "Beste hizkuntzen" Konstituziotasuna idatzi barik ezin zan itzi Konstituzioan.

Konstituzioak izugarrizko garrantzia emon deutso Espainiako hizkuntza aniztasunari eta erantzuna berehala emoteari (254).

Espainiako Konstituzioak 1.1 artikuluak politika aniztasunaren onarpena dakar goi mailako balorea lez, bardintasun edo/ta askatasunaren antzera. Lehen **politika bakarra** egoan. Baina politikaren arlo hutsean geratu barik, aniztasuna gizarteratu eta elkarteetan be berari lekua egiteko aukeran aurkitu dira legegileak.

Elkarte aniztasun honen bermatzean eta onartzean hizkuntza gitxiengotuak eskubide osoz Konstituzioan agertzea nahi dabe.

1.978ko Konstituzioak (255) Espainiako herrien hizkuntzen aniztasuna autortu ondoren, Autonomiadun Elkarteak euren legegintza garatuko dabe. Euskal Herriko Autonomia Estatutoak hizkuntza gaian bere eskubideak erabili ditu. Bere hizkuntza propioa Euskal Herrian ofiziala da. Eusko Legebiltzarrak Euskeraren Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legea egin dau.

Baina 1.986-06-26an Espainiako Konstituzio Epaitegiak, hizkuntza gaie-

tarako oso garrantzitsuak diran, 82, 83 eta 84 zenbakidun hiru epai emon ditu.

Epai horreetan Konstituzio Epaitegiak, euskeraren, katalanaren eta gailegoaren hizkuntza normalkuntzari buruzko lurraldeetako legeen Konstituziotasuna aztertzen dau.

Bi eratako errazoibideak dakarz: Alde batetik Estatuaren hizkuntza eta kultur aniztasuna, eta bestetik, hizkuntzaren askatasuna, gizarte-eskubide kolektibo lez. Ikuspegi honetan, Auzitegiak ezin ditu baztertu Autonomiadun Elkarteak, euren eskubide historikoekin, euren autonomiagaz eta eskumenekin.

Espainiako hizkuntza batzuen zuzenbidezko eztabaidan hizkuntza gaiak ez dira bakarrik aztergai.

Hizkuntzak sarritan politikazko gatazkak agertzen ditu, eta Estatu eredua eratzerakoan Autonomiadun Elkarteen presentzia bistan dago euren hizkuntza eta guzti.

Konstituzio Auzitegiaren doktrina eta jokabidetik sortzen diran ulerkerak oso garrantzitsuak izan daitekez, izan dira eta izango dira hizkuntzen kalterako edo onerako.

Konstituzioak eta Gernikako Estatutoak Euskal Herriko Herrisailaren esku itzi dau euskeraren erabilera zabaldu eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea (256).

Euskal Herriko Autonomia Elkarteak bere lurraldeko hizkuntza normalkuntzan hasi da, baina euskeraren erabilera herritar eta herrisailarentzat arautzerakoan epaitegira eroan dabe (257).

Itxaron eitekenez, gai honetako arazorik larrienak, Herri Ardularitzan eta bere funtzionarien herri hizkuntza jakitean, herri hizkuntza irakaskintzan eta Justizi Ardularitzan arautzean sortu dira. Gobernuak eta Auzitegi Gorenak herri hizkuntzak jakiteko beharkun hori ez dabe nahi sinistu eta aintzakotzat hartu.

Felipe Gonzalez-ek, azaroaren 24ko 10/1.982 Euskeraren Legeari errekurtsoa jarten deutso.

1.983/169 errekurtsoaren erantzuna 1.986-06-26eko 82 zenb. epaia da.

Estatuko legegizonaren zuzenbidezko eritxiak

Errekurtsoa EEAOLko 5, 6, 8.3, 9, 12, 13 ta 14 artikuluen aurka ipinten da. Errekurtsoaren oinarrigaiak honeek dira:

a) Euskeraren erabilpenaren arauzkotzea legezkotzat hartu arren, Estatuko legegizonarentzat EEAOLak jarten ditun arau eta medio batzuk ezin dira onartu. Bai zehaztasun eza bai Autonomia Elkartearen eskumen faltagaitik, edo ta baita, gaztelera en Estatuko hizkuntza ofizialtasuna ahaztuz, kasu batzuetan arauak inkonstituzionalak diralako (258).

b) EK. 3.1 artikuluak dino: "Estatuko hizkuntza ofiziala gaztelera da." 3.2 artikuluak, Estatutoei dagokiela, hizkuntzen ofizialtasuna arauzkotzea. Euskalerrian, Estatutoko 6.2 artikuluan dator gai hau. Eskumen aldetik, EKak 148.1.17 artikuluak ikutzen deutso (259). Eta Euskalerriko Estatutoak ez dau ikasi eta aztertu eskumenen artean hizkuntza gaiarena Autonomia Elkartearen eskumen falta hau EKeko 3.1 eta 149.1.1. artikuluetan, ikasi behar da, eta baita 6/1.982ko epaian be ikusten da (260).

d) Estatuko legegizonak, EEAOLko hurrengo artikuluak era honetan gaitzetsitzen ditu:

5 art. Hizkuntza arloan herritarren eskubideak eta herrisailaren beharkunak arauzkotzen ditu. Estatuaren eskumena zapaltzen dau (261). 5.2 herritarren eskubideetzaz darrai eta 5.3an herrisailaren betebeharrak manatzen ditu.

6.1 art. Estatuko Ardularitzakin hartuemonak eukiteko euskeraren ofizialtasunaren ondorenak dira: herrisailagaz edozein herritarrek euskeraz egiteko daukan eskubidea.

6.2 art. Eskumen faltaz gainera, inkonstituzionala da (262). Hizkun-

tza ofizial bat kanpoan izten daualako. Azken zatian EKko 14. artikuluaren aurka doa euskera jakin beharra ezartzen daualako.

Estatutoaren 6.3. artikuluaren aurka be bai, errazoi bardinagaitik.

8.3 art. Autonomia Elkarteetan hizkuntzen ofizialtasuna arauzkotzeko eskubidea, EKko 149.1.18 art. mugatzen dau. Beraz, Autonomia Elkarteak hizkuntza bakarra ezarteko eskubiderik ez dau. Gainera, EKko 14. artikuluaren eta Euskal Herriko Estatutoaren 6.3. artikuluaren aurka dago (263).

9. art. Eskumen hau, EKko 149,1 arauera, Estatuarena da bakarrik.

12.1 art. Hau be, EKko 149.1.30 artikuluaren aurka dago. Epaitegi Nagusiko, 1.981eko otsailaren 13 eta abenduaren 22ko epaiak, eta 1.982ko otsailaren

22koak bardin adierazoten dabe (264).

13. art Inkonstituzionala da, lehen aipatutako eskumen ezagaitik.

14. art. Oinarrizko eskumen honeek, EKko 23.2 buruz 149.1 eta 18ak dinoanez, Estatuarenak dira (265).

Eusko Jaurlaritzako legegizonaren zuzenbidezko eritxiak

Gaztelera jakin beharrak ezin dau geratu euskeraren normalizazioa E.E.A.O. Legearen aldeztzailearen ustetan (266).

Euskeraren egoera gitxiengotua eta banandua azaltzen dau, euskeraren aldeko arauen Konstituziotasuna aztertzean gogoan euki behar dalako.

Gaztelera jakin beharra eta hizkuntza bien bardintasun-oinarria ezin leitekez alkarren aurka jarri. (EKko 14. art. eta E. Estatutoko 6.1 art.) (267).

Eusko Legebiltzarreko EEAOLari buruzko kontsentsua aipatzen dau.

Gaztelera ofiziala da, baita euskera be Euskalerrian, eta ezin da kanporatu EKko 14. art. aipatuta. Bardintasunaren aurka legoke eta elebitasunaren posibilitatea apurtzen dau (268).

Hizkuntza komunikabide da bai bakarrean eta bai agirian. Gernikako Estatutoko 6.3 artikuluaren arauera, euskera erabilten dauana ezin da diskriminatu.

Hizkuntza gitxiengotua babesten ez bada, EKko 3.3 eta 148.1.17 art.-en aurka goaz. Gernikako Estatutoak be bere 6.2 artikuluan hori adierazoten dau.

Ofizialtasun bikoitzak gaztelerari eta euskerari lege baliotasun bardina damotse.

EKko 3.2 art. bi hizkuntza ofizialeko lurraldeetan herrisailari beharkunak jarten deutsiez. Autonomia Elkarteetan izango diran herrisail guztientzat eta ez Autonomia Elkartekoentzat bakarrik.

Hizkuntza gaia Estatutoarena da. Ikusi EKko 3.2. Hor dago oinarria.

Ofizialtasun bikoitzaren mugak be bai (269).

Eusko Jaurlaritza ez da sartzen berari ez dagokiozan alorretan. Eta gazteleraren ofizialtasuna gordeko ez ete dan zalantzan, ezin da euskerarena apurtu eta zapaldu.

Beraz,

EEAOLeko 5 artikuluak hitzez nahiz idatziz hizkuntza ofizialak ezagutu eta erabilteko herritarren eskubideak dakarz. Herri Ardularitzak eskubide hori bermatu egin behar dau. 5.3an lurralde honetan diharduen herrisailaren beharkunak. Beharkun honen lege-iturri edo oinarriak, EKko 3.2, 9.2 eta Gernikako Estatutoko 6.2 artikuluetan dagoz. Bardintasun-oinarria apurtzen dala probatzen ez dan bitartean, alperrikakoa da EKko 149.1.1 aipatzea (270).

6. art. Herri Arduralaritzakin daukaguzan hartuemonetan euskera erabilteko herritar guztien eskubidea arauzkotzen dau. Euskera be ofiziala dan ezkero, bera bakarrik erabili daiteke. Eta artikulu hau ez doa EKko 149.1.18aren aurka. Lurralde honetatik kanpo, hitzultze arazoa besterik ez da (271).

8.3 art. Gure euskeraren egoera azterturik, bidezko da euskera hutsezko lurralde batzuk aukeratzea. Munduan zehar beste herrialde askotan hartzen dira holango erabagiak. Alderantziz, gaztelera utsezko herrialderik be ez litzateke onartu behar, baina gehienak dira (272).

9. art. Epailaritzarekiko hartuemonetan, herritar guztiak aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dabe. Hizkuntzen Ofizialtasuna arauzkotzeko eskubidetik datorkio Autonomia Elkarteari arau hau jartzeko eskubidea.

12. art. Kasu honetan Estatutoko 6.2 art. dau lehentasuna, EKko 149.1.30aren aurretik. Euskera ofizialtzea Autonomia Elkarteari dagokio (273).

13-14 art. Beste horrenbeste esan daiteke hemen, Estatuko eskumenei ez jake ikutzen.

Konstituzio Auzitegiaren 1.986/82 epaiaren zuzenbidezko oinarriak

Lehenengo.- Konstituzio Auzitegiak 1.978ko Konstituzioan hartzen dau abiapuntua (274). Sarrerako 4. atala eta 20.3 artikulua aipaturik, EKaren 3. artikuluaren testua da hizkuntza-arazoaren arau-iturri nagusia. EKko 3.2 esaten dauana beteaz, euskal Herriko Autonomia Estatutoak (6.art.) arauzkotzen dau bi hizkuntzen ofizialtasuna (275).

Bigarren.- Estatuto hizkuntza ofiziala gaztelera da (EK 3.1 art.) Inoiz, ofiziala ez dan hizkuntza be erabilteko eskubidea dago (276). Beste hizkuntzak be Autonomia Elkarteetan ofizialak izango dira (EK 3.2 art.) eta lurralde horretan herrisaila (edozein motatakoa) ez da salbuespen (277).

Hirugarren.- Konstituzioz gaztelera ezagutu beharra dago. Baina herritarrak edozein hizkuntza ofizial erabilteko daukan eskubideari erantzutera behartuta dago herrisaila.

Laugarren.- Hizkuntza arloan eskumenen arloa aztertzerakoan, Estatuko legegizonari errazoia kentzen jako. Honek EKaren 149.1.1 arauera, hizkuntza gaietan Estatuak eukala eskubide osoa uste eban. Horrek 3.2aren manuz Autonomia Elkarteko Estatutoaren hizkuntza Eskumena ustea suposatuko leuke. Ikusi Estatutoko 6.2 art. EEAO Legeak, euskeraren ofizialtasuna arautzean Estatutoaren manua garatzen dabil (278).

Boskarren.- Estatuto legegizonak barriro dakar EK 149.1.18 art. Estatuaren eskumena aldezteko. Baina bi hizkuntzen ofizialtasuna arautzeko eskubidea Konstituziotik (3.2 art.) eta Estatutik (6.2 art.) datorkio Autonomia Elkarteari. Ondorioz, herritarrak eskubidea dau edozein hizkuntza ofizial erabilteko eta herrisailak Autonomia Elkartean erantzuteko beharkuna (279).

Seigarren.- Justizi-Arduralaritzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzerakoan, boskarren zuzenbidezko oinarrian esanak balio dau.

Zazpigarren.- Oinarri honetan EEAO Legearen 5. artikulua aztertzen dau. 3.

artikuluak autorpena (hizkuntza ofizialena) garatu besterik ez dau egiten. Herritarren eskubideak (5.1 eta 2an) autortzerakoan herrisailaren betebeharrak (5.2a eta 3. atalak) arautzen ditu (280).

Zortzigarren.- 6. artikulua be osorik aurkatzen da. "Herritarrak hitzez nahiz idatziz" herrisailagana joteko daukan eskubideak, herrisailagan aukeratuko hizkuntza ofizialean erantzun beharrean aurkitzen da. Nahiz eta oinarri honetan herrisailari zerbait parkatu gurean agertu (281). Beraz, 6.1 art. ez da Konstituzioaren aurkakoa.

Bederatzigarren.- 6.2 artikulua da aztergai.

Eta batek baino gehiagok Herri-Arduralaritzagaz zehaztapidetza edo arazopideketan parte hartzen dabenean da arazoa. Biak hizkuntza bat erabili ezkero ez dago eragozpenik. Baina akordiorik ez balego, hasitakoak nahi dauan hizkuntza erabilteko eskubiderik ez dauka (282).

Hamargarren.- 8.3 artikulua Konstituzioaren aurka doa. Euskera ezagutu beharrik ez dagolako(EK 3.1 art.) (283).

Hamaikagarren.- 9. artikuluak Justizi-Arduralaritzagaz herritarrak daukazan hartuemonak arautzen ditu, eta Konstituziogaz bat dator (284).

Hamabigarren.- 12. artikuluak zinpeko itzultzaile-tituluak emoteko baldintzak eta itzultzaile-zerbitzu ofizialak araupetzen ditu. Tituluak emoteko eskubidea Estatuarena da (285).

Auzitegiak 13. eta 14. artikuluen aurkakorik ez dau ezer idoroten (286).

Epaia (287)

1go: 8.3, 12.1 eta 6.2 art. azkenaldia inkonstituzionalak dira.

2.: Euskeraren Legea legezkoa da beste guztian etaerrekurtsoa ez da onartzen (288).

3.- 6.2 art. akordiorik ez balego, herritarrak aukeratzen dauan hizkuntza esaten daualako. Orduan gaztelararen eskubidea ukatu egingo litzateke.

8.3 art. hemen euskera hutsa bakarrik sartzen dalako. Eta gaztelaniaren ofizialtasuna arriskuan izten da, agirian eta garbi esaten ez dalako.

12.1 Tituluak emoteko eskubidea Estatuak beretzat bakarrik gordeten daualako.

2.2.4. ZUZENBIDEZKO ONDORIOAK

Auzitegiaren jokabideak euskeraren lege tratamendurako ondorio bat zuk dakarz:

2.2.4.1. Hizkuntza gaiaren eskumena

Estatuko legegizonaren aurka joanez, hizkuntza arloan Autonomia Elkarteari emoten deutso Auzitegiak euskeraren erabilpena arautzeko eskumena, Konstituziotik (3.2 art.) eta Gernikako Estatutotik (6.2 art.) datorkion eskubidea.

Konstituzio-Auzitegiak hizkuntza gaiaren eskumenari buruz baieztapen zuzena eginaz amaitzen dau ulerkera (289).

EKko 149.1.1 artikuluaren arabera gazteleraren ezagumen eta erabilera Estatu osoan arautzeko eskubidea badauka be, gaztelera ez diran beste hizkuntzen ofizialtasuna eta bere ondoren juridikoak ezarteko eskubiderik ez dauka Estatuak (290).

2.2.4.2. Konstituzioak gaztelera ezagutu beharra manatzen dau, baina beste hizkuntza ofizialena ez.

Puntu hau Konstituziogileegandik hasita beti izan da eztabaidatua; gazteleraren aldeko bereizkeria egiten daualako eta beste hizkuntza ofizialen aurkakoa.

EEAO Legeak euskera ezagutzeko manurik ez dau jartzen. Baina ez dago errazoi juridikorik eskubide hori aurkakotzeko.

2.2.4.3. Gaztelera kenduz, euskeraren bakarreango erabilera egiteko eskubiderik ez dago

Konstituzioak Estatuko lurralde osoan gaztelera ezagutu eta erabilteko eskubidea dagoala autortzen dauanez, nahiz eta "udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera ikusita eta herritarren eskubideen kaltetan izan ez, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izatea" (EEAOL, 8.3 art.) ez dau onartzen Auzitegiak (291).

2.2.4.4. Euskeraren ofizialtasunaren ondorenak

Euskeraren ofizialtasuna autortu eta legez onartu ondoren, herritarrak ezin dau balioz ezezagutza aurkeztu.

Euskal Herriko Autonomia Elkartean euskeraren normal-kuntzarako oinarri hau beharrezkoa eta ahaztu ezinezkoa da.

Estatuko legegintzan eta Auzitegietan oinarri hori ondo ikusita dago eta aintzakotzat hartzen da gaztelerari buruz danean, baina beste hizkuntza ofizialentzat ondoren bardinak nahi diranean eragozpenak sortzen dira.

Milian i Massanarentzat Espainiako Konstituzioko 3.1 artikuluko "gaztelera ezagutu beharrak" ulerkera hori ez dau aldatzen, ofiziala lez hizkuntza autortzetik ezagutu beharra sortzen ez dalako. Ezagutu beharra plusa edo gehigarria da (292).

Auzitegi Gorenak herritarrak balioz ezezagutza aurkeztearen oinarri hau gogoan izan dau bere epaietan (293).

Legegintzan bide bardinei ez jake jarraitu. Aipatzekoa da LOPJko 231. artikulua. Ulertezina dau ezbardintasuna dakarran araua; herritarrak ezin dabe gazteleraren ezezagutza balioz aurkeztu, eta beste edozein hizkuntza ofizialena bai. Estatutoak autortutako ofizialtasun bikoitzaren aurka dator aurrez-aurre. Ondorioz, Estatuak bere hizkuntza ezagutzarazoteko behartzeko edo egin ezik zigortzeko neurriak hartzeko ahalmena dauka eta autonomiadun Elkarteak euren hizkuntza propioekin ezingo dabe beste horrenbeste egin.

Konstituzio Auzitegiak 1.986ko Ekainaren 26ko epaietan, gaztelera ez diran beste hizkuntza ofizialen aurrean ezezagutza onartzen dau, eta gazteleraren ezezagutza da bakarrik onartzen ez dauana. Auzitegiaren ustez, gazteleraren ezezagutza balioz ezin da aurkeztu hizkuntza hori ezagutu beharra dagoalako. Betebehar hori, 1.986/82 epaiaren 3. ZOak dinoanez, Konstituzioz gaztelerak dauka bakarrik. Eta 9. ZOak ezezagutza gazteleragaz bakarrik balioz ez dau onartzen. Eta 10. ZOan balioz

beste hizkuntza ofizial baten aurrean aurkeztu leikela dino.

"Baina ezezagutzaren baliotasuna edo baliotasun eza,ez da hizkuntza ofiziala **ezagutu beharreko** manuan sortzen, hizkuntzaren ofizialtasunaren autorpenean baino" (294).

Konstituzio Auzitegiak, 1.986-06-26ko 82 zbka. epaian hizkuntza ofiziala zein dan adierazoten dau (295).

Hizkuntza ofiziala herrisailagaz hartuemonak eukiteko komunikabide bat da, eta Euskal Herriko Autonomia Elkarteko lurraldean hizkuntza propioa, euskera, eta gaztelera dira **ofizialak**. Lurraldetasunean oinarrituta Konstituzioak eta Estatutoak holan manatzen dabelako (Konst. 3.art., Gernikako Est. 6.art.), eta Konstituzio Auzotegiak bardin ulertu dau (1.986/82 KAE, 2. ZO).

Herritarrak herrisailagaz dituan hartuemonetan Konstituzio-Auzetegiak ofizialtasunaren baldintzak onartzen baditu (e.b. ezezagutza ezin dala balioz onartu), eta herrisailak herritarrekin dabezan hartuemonetan, edozein herritar gai bada hizkuntzaren ezezagutza balioz aurkezteko, gaztelerarena izan ezik; gaztelera beti ofiziala izango litzateke eta hizkuntza propioaren ofizialtasuna herritarraren esku geratuko litzateke. Hau ez dago Konstituzio eta Estatutoaren espirituan. Eta, EKko 9.3 art. segurtasun oinarriaren aurka legoke.

Konstituzio-Auzitegiaren ulerkera honek lehen mailako ofizialtasuna (gaztelera) eta bigarren mailakoa (hizkuntza propioa) ipiniko leukez. Hizkuntzen ezbardintasunak haundiagotu egingo litzatekez eta gazteleraren nagusitasunaren alde doa holango jokabidea.

EKko 3.3 artikuluaren **begiramen eta babesaren** aurkakoa izango litzateke, manu hori euskeraren alde bete beharrean. Balioz hizkuntza baten ezezagutza aurkezteko posibilitate eza ezin da **derrigorrez ezagutu beharrean** sortu (296) EKko 9.3 zuzenbidezko segurtasunetik eta ofizialtasun autorpenetik etorri daiteke.

Herritarra hizkuntza bat ezagutzera ezin da **behartu**, zama bat dalako, baina ezezagutzearen ondorenak jasan beharko ditu (297).

Bestela bi hizkuntza ofizialen bardintasun eza nabarituko da.

EEAO Lege osoan zehar bi hizkuntzen, euskeraren eta gazteleraren bardintasuna nabari da:

> "... euskera Euskal Herriaren Kultura-ondarearen funtsezko zati eta, gaztelerakin batera, Autonomia Elkarteko hizkuntza ofiziala denez" (298).

Gerotxoago zera dino:

> "Euskera Euskal Herrian berenezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batean hizkuntza ofizial izateak ez die, inola ere, batagatik edo besteagatik hartaz baliatzen ez diren herritarren eskubideei kalterik ekarri behar, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 6garren Ataleko 3garrenak berariz dionez" (299).

3. artikuluan "hizkuntza ofizialak euskera eta gaztelera dirala" idazten da.

"Hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan" irakurtzen da 4. artikuluan.

Gernikako Estatutoak eta EEAOLak bi hizkuntza ofizialen arteko parekotasun eta bardintasuna iragarri eta onartzen dabe. Konstituzio Auzitegiaren 1.986eko 82 zb. epaiaren eritxiz, Elkarteko hizkuntza propioaren ezezagutza balioz aurkeztu ahal bada herritarren aldetik, ez dago ezelango parekotasun eta bardintasunik. Nahiz eta Konstituzio aurkakoak izan ez, EEAO Legeko manuak indar asko galtzen dabe euskeraren normalkuntzarako euskeraren ezezagutza herritarra balioz eskatzeko eskubidedun bada.

Beraz, hizkuntza eskubideak teoria mailan eta legez onartzen badira be, euskeraz bizi nahi dauan herritarrarentzat euskerazko esparruak bilatzea ez da errreza izango (300).

EEAO Legea eragiketatzailea agertzen da (6.1 art. eta 3. erabagi

gehigarrian). Legearen eraketa egiten ez dan bitartean, hizkuntza eskubideak gelditu barik dagoz. Holan adierazoten dau 1.986-06-26ko 82 zb. epaiak bere 5. ZOan.

Baina hizkuntza eskubideen ondoren osoa ta benetakoa, 82zb. epaiak berak, 8. ZOan esaten dauanez, etortekotan be geroago eta eraketaren amaieran etorriko da (301).

Euskeraren Legearen oinarri nagusietariokoa hizkuntza aukeratzeko askatasuna da. Euskal Herrisailak euskera gizarte bizitzaren alor guztietan erabili ahal izateko, suztatzezko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliapideak jarriko dabez, herritarrei euren merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste edozelako ekintzapidetan euskeraz jarduteko bideak eskeintzeko. (EL 26 art.)

Herrisailaren partaidetza ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak Herritarren hizkuntza eskubideak beteko ahal baditu. Bestela, Justizi-Arduralaritzan, hezkuntzan, konpetentzietan, komunikabideetan eta beste gai askotan arazo juridikoak gainditu ezinak bihurtuko dira.

Herritarrak eta Herrisaila euskeraren erabilera ohizko eta eguneroko bihurtzera deituta dagoz. Euskeraren erabilpena herritarrari dagokion eskubidea da. Herritarrak aukeratzen dau hizkuntza eta herrisailak erantzun beharra dauka.

2.2.4.5. Herrisaila eta hizkuntzen ofizialtasuna

Konstituzioak (3.2 art.) eta Gernikako Estatutoak (6.art) holan manatzen dabenez, Elkarteko lurralde osoan euskera da hizkuntza ofiziala. Ondorioz, Elkarteko Herrisail guztiak edo bertan diharduenak autorpen honen mende dagoz.

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legean, "herritar guztiei, Autonomia Elkarteko lur-eremuan Herri-Arduralaritzarekin izan ditzaten harremanetan euskera nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko eskubidea aitortzen zaie" (302).

Artikulu hau Konstituzio-Auzitegiak 1.986-06-26ko 82 zenbakidun epaian Konstituzio aurkakoa etzala onartu eban. Herritar guztiak Herri-Ardularitzarekin euskeraz jarduteko eskubidea daukie, baita Militar-Arduralaritzagaz be, eta Arduralaritza honek erantzuna be euskeraz emon behar deutse. Eta 82 zenbakidun epaiak, bere 2. eta 7. ZOetan babesten dau eritxi hau (303).

Autonomiadun lurraldean herrisail guztiak bi hizkuntzen ofizialtasunaren menpe geratzen dira. EEAO Legeak, batez be 5.2 a) eta 6. artikuluetan, herrisailari dagokiozan betebeharrak arauzkotzen ditu (304).

1982/10 Oinarrizko Legeak, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzekoak, bere 6. atalean Euskal Autonomi Elkarteko lur-eremuan kokatutako Herri-Administrazioarekin izan daiezan hartuemonetan euskera nahiz gaztelera erabilteko eskubidea autortzen jake herritar guztiei. Hizkuntza eskubideak autortzearen ondorioz, betekizun batzuk ezartzen jakez Administrazioei.

Herri-Administrazioek arlo horretan dabezan betebeharrak gauzatzeko bideari ekin eutson 1.986/250 Dekretuak. Lanpostuen hizkuntza eskakizunen kontzeptua sartu zan bertan.

Eusko Legebiltzarrak 1.989ko Uztailaren 6ko Osoko Bilkuran Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea (1.989/6) onartu eban. Garrantzi haundiko aurrerapausua izan zan, Euskal Herri-Administrazioek euren hizkuntza normalkuntza lortzeko kontutan hartzeko Legea.

1.982/10 Legea eta 1.989/6 Legea garatzen ditu 1.989/224 Dekretuak, eta baita 1.986/250 Dekretuak aurrikusiak osotu be. Horretarako, Euskal Herri-Administrazioetako hizkuntza normalkuntzarako bideak arautzeari ekiten deutso. Hau da, lanpostuei euren hizkuntza eskakizuna ezartzeko bidea.

Auzitegiak 6.1 artikuluaren Konstituziotasuna onartzen dau, baina bi hizkuntzen ofizialtasuna eskatzeko orduan **berehala** barik **arian-arian** herrisailaren erantzuna jasotekotan eskumena hau ez da osoa eta ez dauka aplikapen egokia.

Horregaitik, Francisco Rubio Llorente Jaunak, Auzitegian epaiari boto partikularra jarri eutsonak, epaian eskumenak ez dirala egoki aplikatzen esan ondoren, eta herritarren eskubideari erantzuteko herrisailaren betebeharrak manatzearen aldeko agertzen da (305).

Konstituzioko 149.1.1. artikulua salbuespen dala, Konstituzioak (3.2 art.) eta Gernikako Estatutoak (6.art.) aurrikusita, Elkarte barruan bi hizkuntza ofizialen erabilpena Autonomiadun Elkartearen esku dago (306).

Euskal Herritarrak Herrisailagaz diharduanean ezetariko oztopo barik euskera erabilteko eskubidea dauka Estatutoz (6.art.). Eta 1.986ko 82 zenbakidun epaiak onartzen dau (307). Alderantziz, Herritarren artean ez da holan beti jazoten. Euskaldunak euskera erabilteko daukan eskubideak (Estatutoko 6. art.), aurrean Konstituzioz (3.1 art.) gaztelera erabilteko eskubideduna idoroko dau. Honek ez dauka euskera ezagutzeko obligaziorik eta besteak ez dagoz gaztelera erabiltera behartuta.

Herritarrak hizkuntza ofiziala erabilten dauan artean, Herrisailak ezin dau ezezagutza edo itzulpena eskatu.

Hizkuntza baten ofizialtasun autorpenaren ondorio bat herritar eta herrisail artean **komunikabide** izatea da (308). Komunikaziorako gai autortu dan bidearen ezezagutza herrisailak aurkezteak ez leuke eukiko zentzunik.

Euskal Herrian euskera eta gaztelera ofizialak diranez, Herritarrak Herrisailagaz jarduteko bietatik edozein hizkuntza aukeratu lei. Hizkuntza aukeratze-

ko askatasuna dauka. Baina gaztelera-hiztunak euskera aukeratzeko kontzientziatze eragiketa ereiteko, EEAO Legeak euskeraren gizarte erabilera suztatzen dau hirugarren atalburuan. Eta laugarren atalburuan Euskal Herrisailari euskera gizarteratzeko neurri egokiak jartzeko eskubidea eta manua emoten jako (26-29 art.).

Herrisailak hizkuntza ofizial baten bere lege eta arauak argitaratzeko eskubidea badau, baina herritarrak edozein hizkuntza erabilteko daukan eskubidea kontutan harturik (309).

EEAO Legearen 6.2 art. Konstituzio aurkakoa dala autortu dau Konstituzio Auzitegiak 1.986/82 KAEren 9. ZOan, euskeraz ez dakianak bere hizkuntzan argibideak jasotzeko daukan eskubidea babesten ez dalako. Eta errazoi bardinagaitik EEAOLren 8.3 art. (310).

OHARRAK

1. Gernikako Estatutoaren prozesua aztertu nahi dauanak beste batzuen artean ikusi beiz: TAMAYO, V; "El proceso estatutario" in: Primeras Jornadas de estudio del Estatuto de Autonomía del Pais Vasco, IVAP, Oñati 1983, Vol. I, 73 eta hurr. GUEVARA, E; O.C., 122 eta hurr. CASTELLS ARTECHE, J.M.; "La transición en la autonomía del Pais Vasco: de los regímenes especiales al Estatuto de Gernika" in RVAP, 2. zb., 1982, batez be 55 or. eta hurr.

2. Ikus: El Libro Blanco del Gobierno Vasco. Editorial Entrega. París 1.956, 7-15 orr.

3. Ikus: Historia del Nacionalismo Vasco. Maximiano García Venero. Editorial Nacional. Madrid 1.969, 639-658 orr.

4. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS. "Fuentes Documentales y Normativas del Estatuto de Gernika" Arabako Foru Aldundia. Gasteiz, 1.981. 33 or.

5. Ikus: El Libro Blanco del Gobierno Vasco. O.C.; 24-38. orr.

6. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 38 or.

7. Diario de Sesiones de Cortes de la República Española. Número 13, apéndice 3º, del día 29-12-1.933.

8. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 48 or.

9. "Gaceta de Madrid" Diario Oficial de la República, 281. zb., 1936ko Urriaren 7koa, 211-214 orr.

10. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS;O.C., 59. or.

11. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 61 or.

12. GARMENDIA, FRANCISCO; "Euskara y Comunidad Vasca" in: Euskaldunak V. (La etnia vasca) Etor. Donostia, 1.985, 300 or.

13. Ikus: URRUTIA Jaunak, "Euskeraren prozesuari eragiten dioten Estatuaregandiko faktore juridiko-legalak", in: Euskeraren Liburu Zuria. Euskaltzandia, 1.978, 395

or. eta hurr.

14. Boletín Oficial del Consejo General del Pais Vasco, 13. zb., 1.978ko Abenduaren batekoa, 98 orr.

15. Akta hau ezin izan da bilatu.
1.978-11-21ko "Deia" egunkaritik jaso dira datak.

16. 1.978-12-10ko "Deia"

17. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 341 or.

18. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 347 or.

19. TAMAY0 SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 349 or.

20. Ikus: TAMAY0 SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 351 or.
Organización Revolucionaria de Trabajadores (O.R.T.)

21. TAMAY0 SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 352 or.

22. TAMAY0 SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 357 or.

23. TAMAY0 SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 359 or.

24. TAMAY0 SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 363 or.

25. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 369 or.

26. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 376 or.

27. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 376 or.

28. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 384 or.

29. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 392 or.

30. Itun kontua aitatzean, Gorte Gorenei **baimena eta onarpena** eskatu beharrik ez neuke ikusiko.

31. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 400 or.

32. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 404 or.

33. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 405 or.

34. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 405-414 orr.

35. Talde hau izan danez euskeraz aurkeztzaile bakarra, bere testua dagoan moduan hartzen da.

36. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 415 or.

37. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 419-420 or.

38. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 428 or.

39. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 432 or.

40. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 435-442 orr.

41. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 435 or.

42. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 451 or.

43. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 452 or.

44. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 455. or.

45. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 460 or.

46. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 485 or.

47. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 491. or.

48. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 493 or.

49. Bertan.

50. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 501 or.

51. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 506 or.

52. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 508 or.

53. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 514 or.

54. Euskal Herriko Eusko Kontseilu Nagusiko Arabatik Aholkulari independientea.

55. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 518 or.

56. Eusko Alderdi Demokrata Independientearen eta Euskal Demokrazia Kristauaren izenenean eta ordezko.

57. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 527 or.

58. Bertan.

59. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 531 or.

60. 1.978-12-24ko goizaldean onartu zan Egitasmoa: 24 aldeko autarki, bat be ez aurkako autarkirik eta bakarra autarkirik ezaz.

61. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 552 or.

62. 1.978-12-23an Gipuzkoako Aldundian onartutako testu berbera da Gernikan onartzen dana. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 567 or.

63. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 567 or.

64. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 573 or.

65. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 577 or.

66. 1.979-06-18an, Diputatuen Kongresoko Presidenteari izendapen hau bialtzen jako, eta 1.979-06-25Eko "Gordeeko Boletin Ofizialean" 14 zenb., I Seriean, 129 or., idazki honen etorrera aitzen emoten da.

67. "Boletín Oficial de las Cortes Generales", Congreso de los Diputados, Serie H, 8-I zb., 1.979ko Abenduaren 12koa, 31-42 orr.

68. IKus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 609 or.

69. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 615 or.

70. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 616-617 orr.

71. IKus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 619 or.

72. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 629 or.

73. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 630 or.

74. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 635 or.

75. TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 636 or.

76. "Boletín Oficial de las Cortes Generales", Congreso de los Diputados, Serie H, 8-I zb., 1.979ko Abenduaren batekoa, 42/1-42/16 orr.

77. Diario de Sesiones de la Comisión Constitucional del Congreso de los Diputados, 3 zb., 1.979ko Uztailaren 21ekoa.
"Boletín Oficial de las Cortes Generales", Congreso de los Diputados, Serie H, 8-II zb., 1.979ko Abenduaren batekoa, 42/23-42/38 orr.

78. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 668. or.

79. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 668-670 orr.

80. GOTZON OLARTE LASA jauna, Eusko Kontseiluko Idazkariordeak, zertifikatzen du: Mila bederatzirehun eta hirurogeita hemeretziko uztailaren hogeita hiruan Bizkaiko Diputazio Foralaren Jauregian Eusko Kontseilu Nagusiak egin zuen batzarrean komunikatu ofizial hau zabaltzea erabaki zela:

"Estatutuko Proiektua prestatzeko eta onartzeko prozesoaren unera iritsi garelarik, zeina euskaldun jendeari berretsi dezala eskatuko baitzaio, Kontseiluak bere poza agertu nahi dau lortu diren ondorioengatik.

Kontseiluak ontzat jotzen du Gernikako Proiektoaren azkeneko testua eta uste du Estatuto honek Euskal Herriko historian aldi berri, emankor eta itxaropentsua zabalduko duela. Hain beharrezkoa duen Euskal Herriarentzat bakebidea aurkitzen saiatu diren ideologia, partidu eta sozial maila desberdinetako borondate oneko gizon askoren ekinaldi eta borondate ona, proiekto honetantxe mamitzen da.

Kontseiluak berak adierazi nahi du, Estatuto proiektoa burutzearekin batera bere helburuetarik bat bete dela, sortu zen momentuan bere kargu utzi helbururik inportanteena agian, hau da, Estatuaren gaurko egiturarekin eta berorri osatzen duten herrien arteko solidaritatearekin elkargarri den autogobernuaren berehalaxeko lorpena.

Bidebatez Kontseiluak uste du, gure krisi ekonomiko larriari aurpegi emateko marko egokia dela Estatutoa, konfidantza morala erneko baita askoren baitan, zuzperraldi ekonomikoaren egiazko oinarri horixe delarik.

Azkenik Kontseiluak zorionak ematen dizkie gogotik eta argi saiatuz Estatutoaren behin betiko idazketa, eztabaida eta artikulazioan parte hartu duten guztiei."

Kontseiluko Lehendakariak ontzat eman ondoren zertifikatzen dut, 1.979ko Abuztuaren 2an.- Idazkariordea, Gotzon Olarte Lasa.- O.E.: Karlos Garaikoetxea, Lehendakaria. (TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 735 or.)

81. "Boletín Ofizial del Consejo General del País Vasco" 33. zb., 1.980ko Urtarrilaren 24koa, 377 or.

82. ERREGE DEKRETU-LEGE 13/1.979, Irailaren 14ekoa, zeinaren bidez erreferendupean jartzen baita Euskal Herrirako Autonomi Estatutuaren projektua.

83. Ikus: TAMAYO SALABERRIA, VIRGINIA Y CARLOS; O.C., 755 or.

84. Ikus: COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; El régimen jurídico de la oficialidad del Euskara, IVAP, Oñati 1.989, 57 or.
Baita ikus: CASTELLS ARTECHE, J.M.; El idioma en la política estatutaria, in: El Libro Blanco del Euskara, 450 eta hurr.

85. Al igual que lo hacen los estatutos de Cataluña, Valencia y Baleares con el catalán y valenciano, el de Galicia con el gallego y a diferencia del Amejoramiento del Fuero de Navarra donde no se contiene dicha calificación aunque tal omisión se subsane en el art. 2.1 de la Ley del Vascuence de Navarra para el euskera (aunque este último caso también el castellano recibirá la consideración de lengua propia). El antecedente de este término ("propia") es más que probable que se encuentre en el estatuto interior de Cataluña del 25 de Mayo de 1.933, que calificaba al catalán de lengua propia de Cataluña.

Puede consultarse también una interpretación lingüística del término "propia" en el breve trabajo de MONTAGUT I BARBARA, M.M.; El criteri gramatical en la interpretació del text legal , in: Llengua i Dret, 193 eta hurr.

86. COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 64 or., 27. oharra.

Baita: MONTAGUT I BARBARA, M.M.; O.C., 193 eta hurr.

87. Ley Orgánica de Reintegración y Mejoramiento del Régimen Foral de Navarra, bere 9.1 eta 2. art.
Baita ikusi: COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 143 or.

88. Ikus: Tesiaren 148 or.

89. Ikus: Tesiaren 1.3.4 atala.

90."Por ser la lengua catalana también patrimonio de otras Comunidades Autónomas, además de los vínculos que puedan establecerse entre las instituciones de aquellas Comunidades, la Comunidad Autónoma de las Islas Baleares podrá solicitar del Gobierno de la Nación y de las Cortes Generales los convenios de cooperación y relación que se consideren oportunos con el fin de salvaguardar el patrimonio lingüístico común, así como llevar a término la comunicación cultural entre aquellas Comunidades, sin perjuicio de los deberes del Estado que establece el apartado 2 del artículo 149 de la Constitución y de lo dispuesto en el artículo 145 de la misma."
COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 93 or., 111. oharra.

91. Aipatzekoa da Euskal Parlamentariek Estatutoaren Egitasmoan onartu ebena: "Por ser el euskera patrimonio compartido con otras Comunidades y con Territorios limítrofes vascos, la Comunidad Autónoma podrá establecer con ellos vínculos culturales destinados a salvaguardar y promocionar dicho patrimonio" in: COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 93 or., 112. oharra.

92. Ikus:
- Euskadiko Ezkerra: proposición no de Ley (88-02-29ko Boletina)
- PIZZORUSSO: para grupos lingüísticos minoritarios...
conveniencia de relaciones libres.
- Ley del Euskara (disp. adicio. 1ª)..."vínculos culturales"... y en su desarrollo art. 15. Decreto 370/87, del 15 de Diciembre.
- "Pirineotako Lan Elkartea" eta bere asmoak aipatu.

93. "No obstante, el Gobierno regulará los modelos lingüísticos a impartir en cada centro teniendo en cuenta la voluntad de los padres o tutores y la situación sociolingüística de la zona." EL 16.2

94. Gogoan hartu:
- Soziolinguistikazko Mapa. 1986. urteko Erroldaren araberako Euskal Autonomi Elkarteko Azterketa Demolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-

Zerbitzu Nagusia, Gasteiz
- Eskumen arazoa: tesiaren 2.1.2.1

95. "Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren nabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte."
"Boletín Oficial de las Cortes Generales", Congreso de los Diputados, Serie H, 8-I zb., 1.979ko Abenduaren batekoa, 6.2 art.
Baita: Kataluniako 6.3 art.
Galiziako 5.3 art.
Valenciako 7.2 art.

96. "1. El valenciano, como lengua propia de la Comunidad Valenciana, lo es también de la Generalidad y de su Administración Pública, de la Administración Local y de cuantas Corporaciones e Instituciones Públicas dependan de aquéllas.
2. El valenciano y el castellano son lenguas oficiales en la Comunidad Valenciana y como tales su utilización por la Administraciín se hará en la forma regulada por la Ley."
EUSKERARI BURUZKO ARAUBIDEA. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Gasteiz, 1.986. 390 or.

97. Ikus: BO del Parlamento Navarro del 9 de Octubre de 1.986

98. COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 144-151 orr.

99. COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 61 eta hurr., 25. eta 26. oharrak bereziki.
Baita: COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 88-92 orr.

100. Ikus. TOLIVAR ALAS, LEOPOLDO; "Las libertades lingüísticas" O.C., 180-182 orr.
Gernikako Estatutoko euskerarekiko zuzenbidezko ondorioei buruz, ikus: GARMENDIA, FRANCISCO; "Euskara y Comunidad Vasca", in: Euskaldunak V. (La etnia Vasca), Edt.: Etor. Donostia 1985, O.C., 906 eta 907 orr.
Baita: COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 95-97 orr.

101. EKko 3.2 artikulua: "Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos."

102. 1.983-10-27ko Konstituzio Auzitegiaren epaian. 87 ta 88 zenbakiak.

103. Por Reales Decretos 1.765/ 1.982 de 24 de Julio (Ciclo Medio: 25 horas mínimas en las cuales 16 en castellano) y 3.087/1.982 de 12 de Noviembre (Ciclo Superior: 25 horas y de ellas 17,50 en castellano)

104. "No ocurre así, sin embargo, en el caso presente. El Gobierno ha fijado unos horarios mínimos para todo el territorio nacional, y en materia lingüística, los ha fijado sólo con relación al castellano , ya que al referirse a enseñanzas mínimas en todo el Estado se ha limitado correctamente a regular la enseñanza de la única lengua que es oficial en todo el territorio y que, por tanto, debe enseñanse en todo él con arreglo a unos mismos criterios concernientes tanto al contenido como a los horarios mínimos: mientras que la regulación de la enseñanza de otras lenguas oficiales corresponde a las respectivas instituciones autonómicas." TOLIVAR ALAS, LEOPOLDO; "Las Libertades Lingüísticas", O.C., 116 or.

105. 1.975eko Maiatzaren 30eko, 1.433/Dekretuak jatorrizko hizkuntza Eskolaurre eta Oinarri Orokorreko Zentroetako programatan arautzen dau, eta bere lehen Artikuluan zera erabagitzen dau: "Eskolaurre eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Zentroak, esperimentu gisan, eta 1.975/76 ikasturtetik hasita, euren lan egitarauetan, ikasleentzat gogozko ikasgai bezala, espainol jaiotizkuntzak sartzera baimenduta dagoz."

Eta bere 2. Artikuluan: "Zentro honeetan irakaskuntzak gazteleraren bidea segurtatzera joko dau, hizkuntza nazional eta ofizialaren zinez, ama hizkuntzatzat beste espainol hizkuntzaren bat hartu daben ikasleei eta ama hizkuntza horren ezagumena eta berorren agerpen kulturalak posibileztatzea eskatu leikien ikasleei."

Dekretu hau aplikatzeko, 1.976-02-18an Agindua emon zan, jaiotizkuntzak integratzearen arazoak ikusteko Batzorde bat sortuz.

1.975eko Urriaren 31an 2.929 Dekretua emon zan. Dekretu honek espainol herrialde hizkuntzak arautzen ditu.

Bere lehen Artikuluak hau dino: "Herrialde hizkuntzak Nazio espainolaren kultur ondare dira, eta guztiak dira hizkuntza nazionalak. Hareen ezagumena eta erabilpena Estatuaren ekintzaz babestu eta zainduko dira, eta Deretxo Publikoko gaineratiko Entitate eta Erakundearenaz."

2. Artikuluak: "Herrialde hizkuntzak hedapenbide mintzatu eta idatzitako guztiez erabiltzen ahalko dira, eta batipat kultur mailako ekintza eta batzarretan."

3. Artikulua: "Gaztelera Nazioaren hizkuntza ofizial eta espainol guztien komunikabide gisan, Estatuaren Goi Organo guztietan be bera erabiliko da."

4. Artikulua: "Espainol bat be ez da diskriminagarri gertatuko herrialde hizkuntza bat ez ezagutzeagaitik, edota ez erabiltzeagatik."

Hemen ikusi daiteke espainol hizkuntzaren lehentasuna, espainola premia bat da, jaiotizkuntzei ez jake emoten beharrizan zentzun hori. Bigarren mailako tratamendu hau beste manu batzuetan ikusten dogu, adibidez, 1.972-06-17an Agindua Oinarrizko Hezkuntza Orokorra antolatzen da, eta filologia arloan hau eragitzen da: "ikasleek espainol hizkuntza eta hizkuntza atzerritar bat ikasi behar dabe", baina jaiotizkuntza ez dira aipatzen.

2.929/1.975 Dekretuak Urriaren 31an, Espainiako Herrialdetako hizkuntzak arautzen ditu. Euskeraren erabilpena arautzen dau.

Aurretik, 1.975ko Maietzaren 30ean, beste manu batek, "Eskolaurre eta O.H.O.an, esperientzi gisan eta 1.975-76 ikasurtetik hasita, Ikastetxeei euren egitarauetan ama-hizkuntza sartzen iztea" erabagi eban. Jakina, hizkuntza hau hartzera ume guztiak behartu barik. Helburua, euskera barik, errialdetako kultura berezitasunak Espainako kultura ondasunean batzea zan.

2.929/1.975 Dekretuak, herrialdetako hizkuntzak eta euren erabilera errespetatu eta babestzeko prest dagoala dino bere sarreran. Eta 1go. artikuluan "hizkuntza nazionalak" lez ezagutzen ditu.

106. Kataluniako Estatutoan, 3. artikulua, Valenciakoan 7., Galiziakoan 5. eta Irletakoan 3. dira kontutan hartzekoenak.

107. COLOM I PASTOR, BARTOMEU; "El repartimet de competències per a regular l'ús de les llengues oficials i el principi que els ciutadans no en ponen al.legar desconeixement" in: Llengua i Dret, Treballs..., 180 or.

108. Kataluniako Estatutoak 16. artikuluan, Galiziakoak 31., Valenciakoak 35. eta 14. Balear Irletakoak.

109. Kataluniako 3.2, Gal. 5.2, Val. 7.1 eta IBko 3. art.

110. Gal. 5.4, Val. 7.3, IBal. 3.

111. Ikus: 1.982/6 zenb. KAE, Otsailaren 22koa:

"El hecho de que las autoridades del País Vasco tengan entre sus deberes el de arbitrar y regular las medidas y medios necesarios para el conocimiento de las dos lenguas oficiales de la Comunidad (artículo 6.2 del Estatuto Vasco) y la Generalidad, el de garantizar el uso normal y oficial de los dos idiomas, adoptar las medidas necesarias para asegurar su conocimiento y crear las condiciones que permitan alcanzar su plena igualdad en lo que se refiere a los derechos y deberes de los ciudadanos de Cataluña (Estatuto Catalán, artículo 3.3), no sustrae a los órganos centrales del Estado la competencia exclusiva para regular las condiciones básicas que garanticen la igualdad de todos los españoles en el ejercicio de los derechos y en el cumplimiento de los deberes constitucionales, entre los cuales se encuentra el de conocer la lengua del Estado (artículo 149.1.1 en relación con el artículo 3.1 C.E.). El ejercicio de esta competencia ha de dar lugar necesariamente a la promulgación por el Estado de las normas aplicables en la materia, a las que el propio precepto de que ahora nos ocupamos remite. Es forzoso, por tanto, concluir, siguiendo la doctrina que exponemos en los puntos 3º, 4º y 5º de estos fundamentos que la Alta Inspección puede ejercerse legítimamente para velar por el respeto a dichas normas estatales y, por consiguiente, también para velar por el respeto a los derechos lingüísticos (entre los cuales está eventualmente, el derecho a conocer la lengua peculiar de la propia Comunidad Autónoma) y en particular el de recibir enseñanza en la lengua del Estado."

112. Ikus: COLOM I PASTOR, BARTOMEU; "El repartiment de Competències per a regular l'ús de les llengues oficials i el principi que els ciutadans no en poden allegar desconeixement", O.C., 183 or.

113. Ikus: EKaren 51.1 art., eta 1.981-11-16eko Konstituzio Auzitegiaren epaia. tegiaren epaia.

114. Ikus. COLOM I PASTOR, BARTOMEU; O.C., 184 or.

115. Valenciakoak 18-24 art., Kataluniakoak 14-20 art., Galiziakoak 12-17 art.

116. Ikus. SANCHEZ AGESTA, "Comentarios a las Leyes Políticas. Constitución Española de 1.978" EDERSA. Madrid, 1.983.

117. "... o cualquier otra condición o circunstancia personal o social." (EKko 14. artikulua)

118. Ikus: COLOM I PASTOR, BARTOMEU; O.C., 186 eta 187 orr.

119. Cobreros Jaunak oso argi azaltzen ditu:
EEAOLko 9. art. eta art. honi egindako errekurtsoa, eta 1985ko LOPJko 231. art. eta bere ulerkera.
Ikus: COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; O.C., 123-129 orr.

120. EKko 3. art. eta GEko 6. art.

121. Ikus: COLOM I PASTOR, BARTOMEU; "Els principis de la llei de normalització lingüística a les illes balears" in: Obra Cultural Balear. Palma de Mallorca, 1.987, 9 or.

122. Ikus: URRUTIA, A.; "Euskara eta Administrazioa (normalizazio baterako oinarrien azterketa)", in: Jakin, 1.983, 28. zb., 186 or.

BEOBIDE, I.; "El Partido Socialista Obrero Español ante la lengua vasca en la actualidad", in: Estudios Deusto-Universidad de Deusto. Bilbao, 1.985, Vol. I, 374 eta hurr.

123. EUSKERAREN ERABILPENA ARAUKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA. Eusko Jaurlaritza, Legeliburu-Bilduma 7. zb., 10 or. (Zioen adierazpena)

124. ETXENIKE Jaunak, Eusko Legebiltzarrean, in: Legebiltzarreko Osoko Bilkuran (1.982-11-25), 2 or.

125. Bertan: 3 or.

126. Bertan: 4 or.

127. Bertan: 4 or.

128. Bertan: 6 or.

129. Bertan: 9-10 orr.

130. Bertan: 11 or.

131. EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuren behin-behingo Aldizkaria. IV Batzordea (Hezkuntza - Kultura)
Bilkuran: 1.982-06-18/22/23 eta 29
Gaia: Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea 1, 4 or.

132. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuren behin-behingo Aldizkaria. O.C., 5 or.

133. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuren behin-behingo Aldizkaria. O.C., 6 or.

134. Bertan: 7 or.

135. EUSKO LEGEBILTZARRA. 1.982-11-25eko Osoko Bilkuran, 13-14 orr.

136. Bertan, 16-17 orr.

> "En euskera existen dos verbos para hablar de normalización y de norma. Arau, significa norma; 'arauz', según norma; 'arauzko', normal; y 'arauzkotu', hacer normal. En la ley, según el título que he leído, habla de 'arauzkotzeko', hacer normal; en el caso de que se hubiera hablado de norma, de hablar de normalización interna de la lengua, se hubiese dicho 'araupetu'. Por esta razón, insisto, en este caso debemos acudir a la interpretación del título en euskera para significar mejor lo que el contenido de la propia ley dice [...] Y ahora, haciendo uso del Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española, normalizar quiere decir 'hacer normal', quiere decir 'hacer habitual', quiere decir 'hacer habitual' el uso del euskera, no solamente en ese lenguaje coloquial o familiar en el que ha venido manteniéndose de generación en generación, sino hacer un uso social del euskera, llevar el euskera a todos los sectores de la sociedad, de forma que esa lengua sea un instrumento de comunicación válido para todos los sectores."

137. Bertan. 21-22 orr.

138. E.Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.(1.982-11-25) 30-34 orr.

139. Bertan: 36 eta 38 orr.

140. Bertan: 43 or.

141. Bertan: 44 or.

142. Oharra: Artikuluen testuak IV Batzordeak bere Erizpenean Legebiltzarreko Mahaian gazteleraz aurkeztutakoak dira eta neuk hemen jartzeko euskeratuak. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA.

Ordenación de la Secretaría General en relación con las enmiendas y los votos particulares presentados al Proyecto de Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, que se mantienen para su defensa ante el Pleno del Parlamento, 7 or.

143. Enmienda Nº 63. Grupo Socialistas Vascos.
Artículo 1º
ENMIENDA DE ADICION
Se propone añadir al final del artículo: "... y demás disposiciones que en desarrollo de esta ley dicte el Parlamento y el Gobierno Vasco." (EUSKO LEGEBILTZARRA. O.C., 7 or.)

144. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA
Batzorde-Bilkuren..., O.C., 20 or.

145. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA
Osoko Bilkura (1.982-11-25), O.C., 46-47 or.

146. Bertan, 48 or.

147. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 8 or.

148. Enmienda Nº 64 Grupo Socialistas Vascos
Artículo 2º
ENMIENDA DE SUSTITUCION
Se propone el siguiente texto:
"El euskera, lengua propia del País Vasco, y el castellano son lan lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca." (Bertan, 8 or.)

149. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 31 or.

150. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 50 or.

151. Ikus: Enmienda Nº 3, de Euskadiko Ezkerra.
El texto era el siguiente:
"La lengua de Euskalerria es el euskera."

152. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 53 or.

153. Bertan: 57 or.

165. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 66 or.

166. "Los castellano-parlantes tienen derecho a utilizar su lengua en los términos y con las garantías previstas en el ordenamiento vigente y desarrolladas por las leyes."
(EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... 12 or.)

167. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... 60 or.

168. Bertan: 67 or.

169. EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... 69 or.

170. EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde Bilkuran, O.C., 97 or.
El texto aprobado dice así:
"Titulo Segundo
De las actuaciones de los Poderes Públicos
Capítulo Primero
Del uso del euskera en la Administración Pública dentro del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco."
(EUSKO LEGEGEBILTZARRA. Ordenación. O.C., 13 or.)

171. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. (Batzorde Bilkuran, O.C., 94 or.

172. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación..., O.C., 13 or.

173. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde Bilkuran..., O.C., 72 or.

174. Bertan: 76, 77 eta 85 orr.
Enmienda Nº 70
"Los Administrados deberán utilizar el euskera o el castellano en sus relaciones con las Autoridades Públicos del País Vasco, pudiendo optar por cualquiera de ellas. Las Autoridades Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, deberán informar en la lengua que libremente hubieran elegido los administrados."
(EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación. O.C., 13 or.)

175. "En los expedientes o procedimientos en los que intervengan más de una persona, los Poderes Públicos utilizarán aquella lengua que establezcan de mutuo acuerdo las partes que concurran. En caso de no haber acuerdo se utilizará la que disponga la persona que haya promovido el expediente o procedimiento, sin perjuicio del derecho de las partes a ser informadas en la lengua que deseen."
(EUSKO LEGEBILTZARRA, Osoko Bilkuran, O.C., 134. or.)

176. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran..., O.C., 135 or.

177. "El castellano, como lengua oficial del Estado, tiene carácter oficial en Euskadi y será utilizado preceptivamente en los casos determinados por la ley." (EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación..., O.C., 14 or.)

178. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran..., O.C., 114 or.

179. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran..., O.C., 136 or.

180. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación..., O.C., 15 or.

181. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 118-119 orr.
Enmienda nº 71
Grupos Socialistas Vascos
Artículo 9º, párrafo 1º - Enmienda de Sustitución
Se propone la sustitución del primer párrafo de este Artículo, por el siguiente:
"La inscripción de documentos en los Registros Públicos que sean exclusiva competencia de la Comunidad Autónoma ya sean registros del Gobierno Vasco, entes autónomos del mismo, de la Administración Local, u otros, se hará en la lengua oficial en que aparezcan extendidos." (EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación, O.C., 15 or.)

182. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran..., O.C., 137 or.

183. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 16 or.

184. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 125 or.

185. Bertan: 136 or.

186. Bertan: 129-130 orr. Geroagoa 141-142 orr.

187. Bertan: 136 eta 137 orr.
Enmienda nº 73
Grupo Socialistas Vascos
Artículo 10.1
Enmienda de Sustitución
Se propone el siguiente texto:
"Las disposiciones normativas o resoluciones oficiales que emanen de

las Autoridades Públicas del País Vasco deberán estar redactadas en forma bilingüe a efectos de publicidad oficial." (EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... 16 or.)

188. Bertan: 139-140 orr.

189. Bertan: 141 or.

190. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 16 or.

191. EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 142 or.

192. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 143 or.

193. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 17 or.

194. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 155 or.

195. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 18 or.

196. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde- Bilkuran... O.C., 156 or.

197. Bertan: 155 or.

198. Enmienda nº 75

Grupo Socialistas Vascos
Artículo 12.1
Enmienda de Adición
Se propone la adición de las palabras "Vasco y/", entre 'Gobierno' y 'o las Corporaciones'.Así como el siguiente párrafo a continuación de 'competencias': "En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales resenadas en el párrafo anterior el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca."

Con lo que el texto quedaría de la siguiente forma:

"1.- La nomenclatura oficial de los territorios, pueblos, ciudades, accidentes geográficos, vías urbanas y en general los topónimos en la Comunidad Autónoma será establecida por el Gobierno Vasco y/o las corporaciones locales en el ámbito de sus respectivas competencias.

En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales resenadas en el párrafo anterior el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la Real

Academia de la Lengua Vasca." (EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 18 or.)

199. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 158 or.

200. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 19-20 orr.

201. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 160 or.

202. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 159 or.

203. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 21 or.

204. Enmienda nº 78

Grupo Socialistas Vascos
Artículo 15
Enmiendas de Sustitución
Sustituir
"Poderes Públicos en la Comunidad Autónoma" por "Autoridades Públicas de la Comunidad Autónoma"
(EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 21 or.)

205. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 162 or. 206. Bertan: 165 or.

207. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 167 or.

208. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 161 or.

209. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 22 or.

210. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 176 or.

211. Enmienda nº 79

"Los Poderes Públicos adoptarán progresivamente las medidas pertinentes tendentes a conseguir una Administración bilingue." (EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 22 or.)

212. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran...O.C., 163 eta 165 orr.

213. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran...O.C., 165 or.

214. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 190 or.

215. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 23 or.

216. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 208 or.

217. Enmienda nº 80

Grupo Socialistas Vascos
Artículo 17
Se propone el siguiente texto:
"El Parlamento regulará las medidas oportunas y el Gobierno las cumplirá para tender a una generalización progresiva del bilingüísmo en el sistema educativo de la Comunidad Autónoma, teniendo siempre en cuenta las características sociolingüísticas de cada zona." (EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 23 or.)

218. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran....O.C., barria 1982ko Azaroaren 26koan, 4 or.

219. Bertan: 9 or.

220. Bertan.

221. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 24 or.

222. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 11 or.

223. Bertan: 13-14 orr.

224. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 25 or.

225. Enmienda nº 81

Grupo Socialistas Vascos
Artículo 19
"El Gobierno Vasco garantizará al alumnado la posibilidad de poseer un conocimiento práctico suficiente de las lenguas oficiales al finalizar la enseñanza obligatoria. Para ello se desarrollará por ley del Parlamento Vasco una normativa que se atendrá a los siguientes criterios básicos:

1º.- Garantizar el derecho a la alfabetización en la lengua materna del alumno.

2º.- Facilitar la enseñanza en euskera en la escuela pública, garantizando esta posibilidad a quienes lo deseen con el fin de evitar una doble red de escolarización.

3º.- Se garantizarán los recursos económicos necesarios para la investigación metodológica, preparación del profesorado desde las escuelas universitarias del Magisterio, formación metodológica y psicopedagógica del profesorado bilingüe y acomodación del profesorado al mapa sociolingüístico."
(EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 25 or.)

226. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 41 eta 42 orr.

227. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 26, 27, 28 eta 29 orr.

228. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 246 or. eta hurr.

229. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 44 or. eta hurr.

230. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran, O.C., 49 or.

231. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... 30, 31 eta 32 orr.

232. Enmienda nº 82
Grupo Socialistas Vascos
Artículo 24
"Con el fin de aumentar la presencia del euskera en los medios de comunicación social y de promover las publicaciones en euskera, así como su difusión y utilización efectiva, una ley regulará las medidas encaminadas a conseguir dichos objetivos." (EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 30 or.)

233. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 259 or.

234. EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 50 or.

235. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 33 or.

236. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 34 eta 35 or.

237. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde Bilkuran... O.C., 264 or.

238. Bertan: 265 or.

239. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 52 or.

240. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 36 or.

241. Bertan:

Enmienda nº 84
"Mediante ley del Parlamento Vasco se regulará la normativa correspondiente."
Zuzenketaren onarpen eza eta testuaren onarpena, in: Eusko Legebiltzarra. Batzorde- Bilkuran... 281 or.

242. EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 54 or.

243. Bertan: 55 or.

244. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 37 or.

245. EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 54 or.

246. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 61 or.

247. EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 38 or.

248. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Batzorde-Bilkuran... O.C., 287 or.

249. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 62 or.
Disposiciones adicionales 1º
"El gobierno, en el ámbito de sus competencias, establecerá vínculos culturales con aquellas instituciones o poderes que, actuando fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, realicen actividades de investigación, protección y fomento del euskera."

250. Enmienda nº 86
"El Gobierno elaborará el mapa sociolingüístico del País Vasco que será revisado periódicamente, previa información al Parlamento Vasco."
(EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... 40 or.)

Ansola Jaunaren aldeko hitzak, in: EUSKO LEGEBILTZARRA, Osoko Bilkuren... O.C., 64 or., Onarpena, 65 or.

251. Disposiciones adicionales 3ª
"El Gobierno Vasco promoverá, de acuerdo con los órganos competentes, la adopción de medidas tendentes a la progresiva normalización del

uso del euskera en la Administración del Estado o en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo regulado en los artículos 6, 8, 11, 13 y 14 de la presente Ley."
(Onarpena, in: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 69 or.

252. "El Gobierno, a instancia de los poderes públicos locales y atendiendo especialmente a la situación socio-lingüística del lugar, podrá excepcionar temporalmente en el ámbito de su competencia, la aplicación de artículos de la presente Ley que no resulten de obligado cumplimiento por imperativo constitucional o estatutario."
(EUSKO LEGEBILTZARRA. Ordenación... O.C., 41 or.)

253. Ikus: EUSKO LEGEBILTZARRA. Osoko Bilkuran... O.C., 76. eta hurr.

254. Ikus: EKko Sarrerako 4. atala, 1.1 art. eta 3. art.

255. EKko Sarrarako 4. atala.

256. Ikus: EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA. Legeliburu-Bilduma, 7. zbka. Lehenengo Emanaldia: 1983ko Otsaila. Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea. Eusko Jaurlaritza Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Zioen adierazpena, 10 or.

257. Ikus: CASTELLS ARTECHE, J.M.; "La normativa sobre el euskera", in: RVAP, 6. zb., 1983, 253 or.

258. 1.986/82 KAE "... no pueden compartirse plenamente los medios puestos por la Ley impugnada al servicio del incontrovertible objetivo de potenciar especialmente el uso del euskera, bien porque la ambiguedad de alguno de sus preceptos requiere precisiones interpretativas, bien porque otros invaden ámbitos competenciales ajenos a la Comunidad Autónoma, bien finalmente, porque en algún caso la citada Ley incurre en inconstitucionalidades materiales que resultan de no haberse respetado las funciones que, como lengua oficial del Estado e idioma común de todos los españoles, desempena el castellano." (Antecedentes a)

259. ... que alude al "fomento de la cultura, de la investigación y, en su caso, de la enseñanza de la lengua de la Comunidad Autónoma." (EKko, 148.1.17 art.)

260. Otsailaren 22ko 82/6 KAEk dino:
"... los deberes que las autoridades del País Vasco tienen en virtud del

art. 6.2 de su Estatuto (y la Generalidad de Cataluña en virtud del art. 3.3 del Estatuto catalán) "no sustrae a los órganos del Estado la competencia exclusiva para regular las condiciones básicas que garanticen la igualdad de todos los españoles en el ejercicio de los derechos y el cumplimiento de los deberes constitucionales, entre los cuales se encuentra el de conocer la lengua del Estado (art. 149.1.1 en relación con el art. 3.1 de la C.E.). El ejercicio de esta competencia ha de dar lugar necesariamente a la promulgación por el Estado de las normas aplicables en la materia..." (Antecedente b)

261. 1.986/82 KAE:

"Más específicamente, los núms. 2.a) y 3 de dicho artículo,
cuyos contenidos normativos tampoco se discuten, tienen como destinatarios a poderes públicos enteramente ajenos a la competencia legislativa autonómica, sin que pueda admitirse que la incidencia en materia lingüística constituya título que legitime actuaciones normativas de la Comunidad Autónoma que excede de los ámbitos competenciales constitucional y estatutariamente atribuídos a aquélla, que no incluyen la regulación de los órganos periféricos de los poderes públicos estatales sitos en el territorio de la Comunidad." (Antecedente c)

262. 1.986/82 KAE:

"El art. 6.1 reproduce el vicio de incompetencia que acaba de señalarse, pues corresponde a la competencia estatal determinar las consecuencias de la cooficialidad del euskera en cuanto a las relaciones que se entablen con la propia Administración estatal."

El art. 6.2, junto a este vicio de incompetencia, incurre también en inconstitucionalidad material por razón de su contenido, pues la posibilidad de utilización de una única lengua oficial por parte de los poderes públicos, por acuerdo de las partes concurrentes, significa la exclusión en tales casos de un idioma de uso oficial en la Comunidad Autónoma, que no puede quedar sometida al principio dispositivo, máxime cuando el procedimiento así tramitado puede afectar a nuevos interesados o surtir efecto fuera del ámbito de la Comunidad.

Este vicio de inconstitucionalidad es aún más claro respecto del último inciso del mismo precepto, que atribuye, a falta de acuerdo entre las partes, la facultad de elección de la lengua a utilizar a quien inició el procedimiento, pues, aparte de contradecir lo que ocurre en otros ordenamientos, donde la facultad de elección corresponde al demandado, potencia los eventuales efectos discriminatorios de la elección de la lengua, aumentando las posibilidades de que esa facultad de opción se emplee como "arma" procesal. Pero, sobre todo, la posibilidad de que una de las partes llegue aforzar la tramitación del expediente con la exclusión del castellano, en cuanto que permite imponer un deber

individualizado de conociemiento del euskera, vulnera los arts. 14 de la C.E. y 6.3 del E.A.P.V., sin que pueda estimarse suficiente para eliminar la restricción el "derecho de las partes a ser informadas en la lengua que deseen." (Antecedente c)

263. 1986/82 KAE:

"En el art. 8.3 se aprecia un doble motivo de inconstitucionalidad. La regulación del empleo de lenguas cooficiales distintas del castellano en las actuaciones de las Corporaciones Locales compete a la Comunidad Autónoma, a tenor del art. 10.4 del E.A.P.V. y como se reconoce en el preámbulo del Real Decreto 1111/79. Pero esa competencia autonómica queda delimitada por la competencia estatal básica consignada en el núm. 18 del art. 149.1 de la C.E. La exclusión del uso del castellano "en razón de la determinación sociolingüística del municipio" es contraria a la condición del castellano como idioma de uso oficial por todos los poderes públicos del Estado. En segundo término, dicha exclusión vulnera lo dispuesto en los arts. 14 de la C.E. y 6.3 del E.A.P.V., pues los derechos en materia lingüística, como verdaderos derechos fundamentales, no pueden privarse de contenido y efectividad, diluyéndolos en la consideración de nuevos valores sociales a los que se niega exigibilidad por parte de los sujetos individuales titulares de los mismos." (Antecedentes c)

264. Bertan.

"... ya que la Comunidad Autónoma viene a autoatribuirse unas competencias normativas referidas precisamente a las condiciones de obtención y expedición de un título académico y profesional."

265. Bertan. Oso garrantzitsua.

"Específicamente en cuanto al art. 14.2, no es inconstitucional que, en virtud de la relación de supremacía especial en que el funcionario público se encuentra respecto de la Administración, se imponga un deber individual de bilingüismo para el acceso a la función pública o el desempeña de la misma en las plazas propias de la Comunidad Autónoma. Sin embargo, la constitucionalidad del precepto -o, si se prefiere, de la aplicación del mismo- queda supeditada a un criterio de razonabilidad y proporcionalidad en la exigencia del bilinguismo, desde la perpectiva de lo dispuesto en los arts. 23.2, 139.1 y 149.1.1 de la C.E."

266. Bertan:

"... la representación del Gobierno Vasco critica la pretensión de aquél de que el deber de conocimiento del castellano
excepcione en realidad la normalización del euskera, al interpretarlo de tal manera que supone una barrera infranqueable para la misma." (Alegaciones a)

267. Bertan, jarraian.

268. Bertan:

"b) El art. 14 de la C.E., interpretasdo conforme a lo dispuesto en los art. 2.1 y 27 del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos de 1.966 y en el art. 14 del Convenio Europeo para la Protección de los Derechos Humanos y de las Libertades Fundamentales, como quiere el art. 10.2
de la C.E., proscribe cualquier tratamiento discriminatorio por razón de la lengua. Ello significa que cualquier interpretación jurídica o consecuencia de hecho que se derive de la interpretación del "deber de conocimiento del castellano" en el sentido de discriminar el derecho al uso del euskera es abiertamente inconstitucional, como lo sería cualquier actuación o plantamiento jurídico que impidiera que, a través de medidas de fomento, el euskera se colocara, como lengua ambiental, en pie de igualdad, efectiva y real, con el castellano." (Alegaciones b)

269. Bertan:

"A diferencia de otros Estados como Suiza o Bélgica, que mantienen un estatuto lingüístico territorial, en el último caso considerado no discriminatorio por la Sentencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos de 23 de Febrero de 1.968, otros Estados mantienen un estatuto personal, en cuanto que se permite a los ciudadanos emplear su lengua y manifestar su cultura en cualquier parte del país. El art. 3.2 de la C.E. rechaza claramente el sistema de estatuto personal, por lo que nos encontramos, siquiera por exclusión, ante un sistema de estatuto territorial, sin que la Ley vasca llegue al planteamiento belga o suizo. La cooficialidad en el uso de las lenguas no deriva de esta Ley, sino directamente del art. 3.2 de la C.E. y determina obligaciones para todos los poderes públicos en la Comunidad Autónoma con dos lenguas oficiales, no sólo para los poderes públicos de la Comunidad Autónoma." (Alegaciones c)

270. Bertan. (Alegaciones d)

271. Bertan, jarraian.

272. Bertan:

"El art. 8.3 impugnado pretende simplemente proteger un espacio físico en el que el euskera pueda desarrollarse como tal -una 'reserva' lingüística- frente al empuje de la lengua dominante. Dicho apartado consagra, efectivamente, una discriminación pero que no está desprovista de justificación objetiva y razonable, en razón a la situación diglósica del euskera, que requiere espacios de uti

lización preferentemente, siendo además una medida proporcionada, por lo

que no es contraria al principio de igualdad, máxime si se considera que, a pesar de la rotunda expresión 'uso exclusivo' que el precepto contiene, el iniciso final del mismo la condiciona a que 'no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos, ..."

273. Bertan:

"Asimismo, el art. 12 no invade las competencias reservadas al Estado por el art. 149.1.30 de la C.E., ya que la Comunidad Autónoma sí tiene un título sustantivo competencial en materia de lengua derivado del art. 6.2 del E.A.P.V., que le confiere la facultad de garantizar el uso lógicamente oficial de ambas lenguas, por lo que se produce un fenómeno de entrecruzamiento competencial, contra lo senalado por el Abogado del Estado, que debe resolverse dando primacía al art. 6.2 del E.A.P.V., como norma especial, frente al citado art. 149.1.30 de la C.E. y al 16 del E.A.P.V., por lo que al Gobierno Vasco debe corresponder la expedición de los títulos de traductor jurado entre castellano y euskera." (Alegaciones)

274. Bertan:

"Nuestro punto de partida para enjuiciar el presente recurso ha de ser obviamente el hecho de que la Constitución de 1.978 reconoce la realidad plurilingue de la Nación Española y, viendo en ella un valor cultural no sólo asumible, sino también digno de ser promovido, obtiene de dicha realidad una serie de consecuencias jurídicas en orden a la posible atribución de carácter oficial a las diversas lenguas españolas, a la protección efectiva de todas ellas y ala configuración de derechos y deberes individuales en materia lingüística." (Fundamentos Jurídicos, Primero.)

275. Lege Marko hau Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeagaz osotzen da, baina K Auzitegikoak ez dabe ezagutzen edo...

276. Bertan:

"... (sin perjucio de que, en ámbitos específicos, como el procesal, y a efectos concretos, como evitar la indefensión, las leyes y los tratados internacionales permitan también la utilización de lenguas no oficiales por los que desconozcan las oficiales)." (Fundamentos Jurídicos, 2º)

277. Bertan:

"... con respecto a todos los poderes públicos radicados en el territorio autonómico, sin exclusión de los órganos dependientes de la Administración central y de otras instituciones estatales en sentido estricto, siendo, por tanto, el criterio delimitador de la oficialidad del castellano y de la cooficialidad de otras lenguas españolas el territo

rio, independientemente del carácter estatal (en sentido estricto), autonómico o local de los distintos poderes públicos." (Fundamentos Jurídicos, 2º)

278. Bertan:

"De cuanto llevamos dicho en este fundamento se desprende que la competencia que al Estado otorga el art. 149.1.1ª de la Constitución no se opone a la que las Comunidades Autónomas se deriva del art. 3.2 de la Constitución y de sus respectivos estatutos de autonomía, y en concreto, para el País Vasco, del juego entre el art. 3.2 de la Constitución y los núms. 1 y 2 del art. 6 de su Estatuto." (Fundamentos Jurídicos, 4º)

279. Bertan:

"Puede ésta, pues, enunciar este derecho y, junto a él, el consiguiente deber de todos los poderes públicos (estatales, autonómicos y locales) radicados en la Comunidad de adaptarse a la situación de bilingüísmo constitucionalmente prevista y estatutariamente establecida." (Fundamentos Jurídicos, 5º)

280. Bertan:

"Hay que tener en cuenta, además, que la Ley 10/1.982 del Parlamento Vasco no es sólo de cooficialidad, sino que tiene (como su nombre indica) un objeto más amplio, a saber, la normalización del euskera, y por ello se refiere también el art. 5.2 a derechos lingüísticos distintos del de relacionarse en euskera o en castellano con las Administraciones públicas radicadas en el País Vasco. Considerado en su conjunto y en lo que estrictamente dice, este artículo, directamente conectado con el 1º, según el cual "el uso del euskera y el castellano se ajustará en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a lo dispuesto en la presente Ley (...)", **no es inconstitucional ni materialmente ni por invasión de competencias estatales."**
(Fundamentos Jurídicos, 7º)

281. Bertan:

"Sentado el principio, que dimana del régimen de cooficialidad establecido por la Constitución en su art. 3.2, respecto de la ejecución cada Poder público regulará los medios y el ritmo de la necesaria adaptación a las exigencias de aquel régimen. A la luz de este apartado, el art. 6.1, si bien establece un derecho subjetivo a ser respondido en la lengua oficial elegida, cuando es lengua distinta del castellano, deja un margen a los poderes públicos, en cuanto a las condiciones en que tal derecho puede verse efectivamente satisfecho, que se hacen depender de una progresiva adaptación de las respectivas administraciones, como resulta, por otra parte, de la Disposición adicional 3ª de la Ley impugnada." (Fundamentos Jurídicos, 7º)

282. Bertan:

"En el segundo inciso del número 2 del art. 6 que consideramos, se prevé que, en caso de no existir acuerdo entre las partes que concurran en el expediente, habrá de utilizarse en el mismo la que disponga la persona que lo haya promovido. Este precepto, pese a la salvaguardia que establece, de que habrá de aplicarse sin perjuicio del derecho de las partes a ser informadas en la lengua que deseen, supone una excepción al derecho reconocido en el número 1 de este artículo a los ciudadanos a ser atendidos en la lengua oficial que elijan, puesto que en caso de discrepancia se podrá utilizar en el expediente una lengua distinta de la elegida por quien no lo promovió. En consecuencia, ello supondría, por un lado, el romper la situación de igualdad de las partes en el procedimiento, y por otro, la vulneración de lo dispuesto en el art. 3 de la Constitución, cuando se excluyera el uso oficial del castellano, pese a ser la lengua elegida por una de las partes, sin que sea salvaguardia suficiente el derecho que se establece a ser informado en la lengua que se desee. Lo cual nos conduce a declarar inconstitucional dicho inciso." (Fundamentos Jurídicos, 9º)

283. Bertan:

"Por ello, el art. 8.3 viene a ser inconstitucional por infracción de los dispuesto en el art. 3.1 de la Constitución, en relación con la no existencia del deber de conocimiento del euskera en zona alguna del territorio del Estado, que resulta del art. 6 del E.A.P.V."
(Fundamentos Jurídicos, 10º)

284. Bertan:

"En cuanto que el art. 9 de la Ley vasca 10/1.982, en sus núms. 1 y 2, no impone obligación alguna del uso del euskera a la Administración de Justicia y se limita a declarar las consecuencias que inmediatamente se derivan del derecho al uso de dicha lengua establecido en el art. 6 del E.A.P.V., dicho artículo no es inconstitucional, ni invade tampoco ámbito competencial alguno reservado al Estado, al no regular nada referente a materia procesal alguna.

Obviamente tampoco es inconstitucional el número 3, que encomienda al Gobierno Vasco el deber de promover, "de acuerdo con los órganos correspondientes, la normalización del uso del euskera en la Administración de Justicia en el País Vasco." (Fundamentos Jurídicos, 11º)

285. Bertan:

"El impugnado apartado primero del art. 12 debe analizarse desde este punto de vista. Nada impide al Gobierno Vasco organizar ensenanzas de traducción entre el euskera y el castellano conforme a las normas que las regulen, y otorgar el correspondiente certificado. Sin embargo, no cabe derivar de ello la competen

cia para establecer y regular una situación oficial, como la de traductor jurado. Así, el art. 12.1, en la medida en que permite al Gobierno Vasco establecer dicha titulación y regular las condiciones para su obtención, resulta inconstitucional.

Por el contrario, no invade ninguna competencia estatal la creación por la Comunidad Autónoma de un servicio oficial de traductores, cuya utilización no se impone, sino que se ofrece, en el número 2 del art. 12, a los ciudadanos y entidades públicas de la Comunidad Autónoma, lo que deriva del deber de los poderes autonómicos de garantizar el uso de las dos lenguas oficiales." (Fundamentos Jurídicos, 12º)

286. Bertan. (Fundamentos Jurídicos, 13º y 14º)

287. Ikus: DIEGO, J.R.; "Comentario de la sentencia del TC sobre la Ley Básica de Normalización del Euskera", in: RVAP, 1986ko 16. zb., 126 or.
PUIG SALELLAS, J.M.; "La doble oficialitat lingüística del Tribunal Constitucional", in: Llengua i Dret, 1986ko Abendua, 8. zb., 105 or. eta hurr.

288. 86/82 KAE, Fallo de la Sentencia.

289. Ikus: BOSCH BENITEZ, OSCAR; "Sviluppi legislativi e giurisprudenziali del Pluralismo lingüístico", in: SPAENA. Diritto e Societá, 4., 1.987, 566 or.
"El TC concluye su interpretación con una afirmación inequívoca acerca de la existencia de una materia lingüística y de un título competencial sobre la misma, con estas palabras: 'Se deduce, por tanto, de todo eso que el art. 3.1 y 2 CE y los correspondientes artículos de los respectivos EEAA constituyen la base de la disciplina constitucional del pluralismo lingüístico, por cuanto concierne a su incidencia en el plano de la oficialidad en el ordenamiento constitucional español, en la línea de lo que el Abodado del Eº define las líneas maestras del modelo lingüístico' de la CE" (Boletín de Jurisprudencia Constitucional nº 63, pag. 816). Es oportuno recordar que el TC reconoce el carácter competencial de la materia lingüística y su régimen compartido, en cuanto concierne a la delimitación de la efectividad de la oficialidad de las otras lenguas españolas en el territorio de las CCAA. Lo que concluye, a hacer una explicación de lo que debe entenderse por lengua oficial: una lengua es oficial, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como instrumento normal de comunicación entre ellos, además en su relación con los sujetos privados con plena validez y eficacia jurídica".

290. 1986/82 KAE, 4. ZO.
"Pero no cabe entender que este título competencial habilite al Estado para regular, con carácter general, siquiera en sus aspectos básicos, la cooficialidad

de las lenguas españolas distintas del castellano y su consiguiente utilización por los poderes públicos o el derecho al uso de las otras lenguas españolas oficiales por los particulares. Interpretar el art. 149.1.1º con el alcance que le otorga el Abogado del Estado, equivaldría a vaciar de contenido las competencias lingüísticas sumidas por las Comunidades Autónomas según sus Estatutos de acuerdo con lo dispuesto en el art. 3.2 de la Constitución."

291. 1.986/82 KAE, 10. ZO.

292. Ikus: MILIAN I MASSANA; "La obligación de los Profesores de E.G.B. de conocer el catalán y el castellano para ocupar plaza definitiva en Cataluña", in: Autonomies, Revista Catalana de Derecho Público. 2/3 zb., 1.985ko Abendua, 94 or.

293. Ikus: 85-04-25ko eta 84-08-06ko AGren epaiak.

294. COLOM I PASTOR, BARTOMEU; "Els principis dela Llei de Normalització lingüística a les Isles Balears", Obra Cultural Balear, Palma de Mallorca 1987, 12 or.

295. 1.986/82 KAE, 2. ZO.
"Es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos."

296. Ikus: Código Civil. art. 6.1 "La ignorancia de las leyes no excusa de su cumplimiento."

297. Ikus: 1.986/8 KAE. (Urtarrilak 21)

298. EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA, Legeliburu-Bilduma 7. zb., O.C., Zioen adierazpena. 10 or.

299. Bertan.

300. Ikus: COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; O.C., 107 or. Eta Cobreros Jaunak orrialde horretako 25. oharrean ondo aipatuta dakarren BOSCH, O.; "Pluralismo lingüístico y Constitución: Aproximación teórica y comentario a la reciente jurisprudencia constitucional", in: Poder Judicial 1987ko 7. zb., 72 or.

301. 1.986-06-26 Konstituzio Auzitegiaren. 8. zuzenbidezko oinarrian dino:

"el art. 6.1, si bien establece un derecho subjetivo al ser respondido en la lengua oficial elegida, cuando es lengua distinta del castellano, deja un margen a los poderes públicos, en cuanto a las condiciones en que tal derecho puede verse efectivamente satisfecho, que se hace depender de una progresiva adaptación de las respectivas administraciones, como resulta, por otra parte, de la disposición adicional 3ª de la Ley impugnada."

302. EUSKERAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA, Legeliburu-Bilduma 7. zb., O.C, 6.1 art.

"Se reconoce a todos los ciudadanos el derecho a usar tanto el euskera como el castellano en sus relaciones con la Administración Pública en el ámbito territorial de la Comunidad Autónomica, y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan.

A tal efecto se adoptarán las medidas oportunas y se arbitrarán los medios necesarios para garantizar de forma progresiva el ejercicio de este derecho."

303. 1.986-06-26ko Konstituzio Auzitegiaren 82 zenbakidun Epaiak, bere zuzenbidezko 2. oinarrian dino:

"En virtud de lo dicho, al añadir el número 2 del mismo artículo 3 que las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas, se sigue asimismo, que la consecuente cooficialidad es con respecto a todos los poderes públicos radicados en el territorio autonómico, sin exclusión de los órganos dependientes de la Administración central y de otras instituciones estatales en sentido estricto, siendo por tanto, el criterio delimitador de la oficialidad del castellano y de la cooficialidad de otras lenguas españolas el territorio independientemente del carácter estatal (en sentido estricto), autonómico o local de los distintos poderes públicos"

eta 7. oinarrian barriro:

"Hemos visto que el sistema de cooficialidad territorial establecido por el art. 3.2 de la Constitución hace (de acuerdo con lo dispuesto en los Estatutos) que la declaración de una lengua española distinta del castellano como oficial afecte tanto a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma en cuestión como a los poderes públicos del Estado redicados en el ámbito territorial de la Comunidad, y que puedan los ciudadanos en el País Vasco relacionarse con todos ellos en cualquiera de las dos lenguas oficiales."

Gai honi buruz Konstituzio Auzitegiaren jarrera ikus:

FERNANDEZ-ESPINAR, L.C.; "El alcance de la cooficialidad lingüística en el procedimineto administrativo y en la Administración de Justicia. (A propósito de las STC sobre normalización lingüística)", in: REDA, 1988ko 58. zb., 290 or. eta hurr. bereziki. (COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; O.C., 112-113 orr.)

304. Ikus: COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; O.C., 111 or.

305. 1986/82 KAE. Rubio Llorente Magistratuak boto partikularrean dino:
"La oficialidad altera el ámbito de las competencias del Eº y de la CCAA y, en consecuencia, la única vía jurídicamente idónea para garantizar la efectividad es, que el Eº, de una parte, y la CCAA, de otra, impongan a las administraciones, organismos y entidades puestas a su disposición los deberes correlativos a este derecho de los ciudadanos vascos."

306. Ikus: 1986/82 KAE. 4., 5. eta 11. ZOetan.

307. 1.986/82 KAE. 5. ZOan dino:"La instauración por el art. 3.2 de la Constitución de la cooficialidad de las respectivas lenguas españolas en determinadas Comunida des Autónomas tiene consecuencias para todos los poderes públicos en dichas Co munidades, y en primer término el derecho de los ciudadanos a usar cualquiera de las dos lenguas ante cualquier Administración de la Comunidad respectiva con la plena eficacia jurídica."
Eta 3. ZOan:
"En los territorios dotados de un estatuto de cooficialidad lingüística, el uso por los particulares de cualquier lengua oficial tiene efectivamente plena validez jurídica en las relaciones que mantenga con cualquier poder público radicado en dicho territorio, siendo el derecho de las personas al uso de una lengua oficial un derecho fundado en la Constitución y el respectivo Estatuto de Autonomía"

308. Ikus: MILIAN I MASSANA, A.; "La regulación constitucional del multilinguismo", in: Revista Española de Derecho Constitucional, 10. zenb., 131 or.

309. "Si es inherente a la cooficialidad el que, en los territorios donde exista, la utilización de una u otra lengua por cualquiera de los poderes públicos en ellos radicados tenga en principio la misma validez jurídica, la posibilidad de usar solo una de ellas en vez de ambas a la vez, y de usarlas indistintamente, aparece condicionada, en las relaciones con los particulares, por los derechos que la Constitución y los Estatutos les atribuyen, por cuanto vimos también que el artículo 3.1 de la Constitución reconoce a todos los españoles el derecho a usar el castellano, y los Estatutos de Autonomía, en los artículos antes citados, ya sea de un modo expreso o inplícitamente, el derecho a usar las dos lenguas oficiales en la correspondiente Comunidad o parte de ella." (1.986/82 KAE. 3. ZO.)
"que la utilización por los poderes públicos de una de las lenguas cooficiales puede hacerse (...) siempre que no se lesionen los derechos de ningún interesado que pueda alegar válidamente el desconocimiento de la lengua utilizada, lo que sólo puede hacerse respecto de lengua distinta del castellano." (1.986/82 KAE. 9. ZO.)

310. 1.986/82 KAE. 10. ZO.

3. EUSKAL HERRIAN EUSKERAREN ETA GAZTELERAREN OFIZIALTASUN BIKOITZA

3.1 EUSKERAREN ETA GAZTELERAREN OFIZIALTASUN BIKOITZA

3.1.1. Lurraldetasun oinarria.

3.1.2. Ofizialtasun bikoitzaren bardintasun egoera.

3.1.3. Herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Arduralaritzaren gertutasun eta erantzun beharra.

3.2. EUSKERAREN NORMALIZAZIOA ETA OFIZIALTASUN BIKOITZA

3.2.1. Normalizazioa eta eskumena.

3.2.2. Arau motak.

3.2.3. Araugintza.

3.3. HIZKUNTZA OFIZIALTASUN BIKOITZA ETA EPAI-JOKABIDEA

3.3.1. Auzitegi Gorenaren jokabideari buruz ohar batzuk.

3.3.2. Konstituzio Auzitegiaren hizkuntza ofizialtasun bikoitza.

3.1. EUSKERAREN ETA GAZTELERAREN OFIZIALTASUN BIKOITZA

3.1.1. Lurraldetasun oinarria.

3.1.2. Ofizialtasun bikoitzaren bardintasun egoera.

3.1.3. Herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Arduralaritzaren gertutasun eta erantzun beharra.

Euskal Herriko Autonomi Elkartean lege indarra daben hizkuntza araubidearen funtsezko oinarriak, batez be Konstituzioko 3. artikuluan eta Gernikako Estatutoaren 6. artikuluan datoz.

Kultura eta hizkuntzari buruzko arloko eskumen garrantzitsuak daukazan Euskal Herriko Autonomiadun Elkarteak bere hizkuntza normalizatzeko beharrizana izan dauala lan honen 2.2 atalean ikusi da.

Gure arazoen berezitasun nabariak kontutan harturik, zuzenbide alderatuan lortu daikeguzan informazioak neurri baten bakarrik erabili daitekez (1).

Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluak gazteleraren ofizialtasun orokorra eta beste hizkuntzen tokian-tokiko ofizialtasuna onartzen ditu (2).Gernikako Estatutoak, euskera Euskal Herriaren hizkuntza propioa dala dino (3). Euskerak bakarrik dauan jabetasun-balorea autortu ondoren, euskeraren eta gazteleraren ofizialtasuna onartzen dau eta hizkuntza biak ezagutu eta erabilteko eskubidea autortzen dau bertan. Beraz, erakunde ofizial guztietako hartuemonen eremuan, herritarrak hizkuntza aukeratzeko daukan eskubidea ezin da zapaldu (4).

Euskal Herriak bere lurraldetasunari dagokionez, bi hizkuntza ofizialak ditu: euskera eta gaztelera. Gazteleraekiko ezbardintasunik barik azaltzen da ofizialtasun bikoitza. Euskeraren ofizialtasuna, legez ez da mugatzen.

Ondorioz, erabilerari dagokionez, hizkuntza biak parekatu beharra edo euskeraren eta gazteleraren bardintasuna autortu beharra dago. Baina Euskal Herrian euskera ezagutu beharra ez manatzean, Gernikako Estatutoaren testua apal geratzen da, eskubide eta betebeharraren arteko hartuemonak ilunak diralarik (5).

Euskal Herrian herritarrari euskeraz bizi izatea zor jako eta euskera ezagutu beharra herri sailari dagokio.

Konstituzioa eta Gernikako Estatutoa gertaueran agertu ziran arazo eta iluntasunak ez dira falta hizkuntzen ofizialtasun bikoitzean. Zehazgabetasun ugari faltarik ez dago oinarrizko lege testuetan, eta ofizialtasun bikoitzaren baldintzak edo/ta edukina planteatzea komenigarri izango da testuak zuzen ulertzeko.

Euskal Herrian bi hizkuntzak, euskera eta gaztelera, dira ofizialak (6). Bi hizkuntzen ofizialtasun bikoitzak legezko hizkuntza tratamendu bardina zor jakela eta balore bardineko ondorioak sortzen dabezela adierazoten dau. Eta bi hizkuntzak ofizialak badira, ezin dau batak bestea baino ofizialagoa izan.

Lege ikuspegitik eta ondorenei begiratuta, Euskal Herrian edozein hizkuntza ofizialetan egiten diran ekintza juridikoak baliokoak dirala eta ondorio juridikoak izango dituela esan nahi dau ofizialtasunak. Ofizialtasunaren eskubideduna-ren aldetik, herritarrak hizkuntza ofiziala ezagutu eta erabilteko esku-bidea dauka.

Gizarte aldetik, hizkuntza ofizialak herritarren artean, eta herritar eta herrisailaren artean komunikabide izatea lortu beharko dau, hizkuntzaren erabilpena herrikidearen eskubidea bada.Erabilpen ofiziala herri-erakundeen ardurakizuna bada be, eta erabilpen arrunta herritarrena edo herritarren artekoa, biak dira ofizialtasuna-ren zuzenbidezko balorearen ondorio.

Ofizialtasunak baldintza hori sortu ez arren, Konstituzioak plus bat ezarriaz gaztelera ezagutu beharra manatzen dau. Nahiz eta Gernikako Estatutoak eta Euskeraren Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak manu hori ezarri ez, euskeraren erabilpenaren eskubidea posible egingo bada, eta euskaldunek erabilteko eskubidea badaukie, ez leukie ezelango eragozpenik jasan behar euskera darabilelako euren ohizko barrutian.

Euskal Herrian herriak herrikideari ezin leio inondik-inora be euskera erabilteko eskubidea ukatu.

Ofizialtasun hutsetik ezin daiteke hizkuntzagaitik diskriminazioa etorri. Ofizialtasun bikoitza araututa badago, hizkuntza bata edo bestea erabilteko eskubidea dago, eta gizarte edo politika tratamendu ezbardinak bai ekarri daikeez hizkuntza-diskriminazioak eta bere ondorenak (7).

Ofizialtasun bikoitza legezkotzeak, beragaz dakar zuzenbidezko balio mailan behintzat hizkuntza bien arteko bardintasun osoaren oinarria. Beste gauza bat izango da, soziolinguistikari begira egoerak bereiztutea edo/ta ofizialtasun soiletik errealitatera dagoan bitartea ikustea.

3.1.1. LURRALDETASUN OINARRIA

Nortasun eta lurraldetasun oinarriak dira gaur egun gehienbat Estatuen hizkuntz-politika arautzen dabenak.

Nortasun oinarriak pertsoneari, edozein lekutan egon arren, bere hizkuntzan eskeintzen deutsoz zerbitzuak. Lurraldetasun oinarriak, leku batzuetan bakarrik. Lehenengoak elebitasuna Estatu osoan eskatzen dau, eta bigarrenak berea dan lurraldean bakarrik. Konstituzioaren 3. artikulua osotzen daben atalak aztertuta gero, ia lurraldetasunean oinarrituta dagoan eredu bat dan, edo nortasun oinarrian edo oinarri bietako gaiez osotutako "eredu nahastaua" dan, azaldutea argibide izan daiteke.

Konstituzioegileak onartu dauan jarraibidea, eredu nahastaua ez danik be ezingo da baieztatu. Jokabide horren berezitasun garrantzitsuenak honeexek dira: Estatu mailan monolinguismo edo hizkuntza eredu bakarra eta gaztelera euren jatorrizko hizkuntza ez daben estatuaren barruko herri ezbardinetan ofizialtasun bikoitza agertzen da.

Nahiz eta hizkuntza eredua Lurraldetasunean oinarritua izan lurralde autonomoetan euren hizkuntza-erabilera mugatzen daualako, eta pertsonala deitu hizkuntz-aukeraren eskubidea bakoitzari emoten deutsolako, baina deitura bien esanahi teknikoa hartzen bada, ezin da esan ez bata ez bestea danik. Lurraldeko hizkuntzaren lehentasuna baztertzen daualako, ez da lurraldetasunean oinarritutako eraketa; eta bakoitzaren hizkuntza eskubidearen erabilera zabaltzen izten ez daualako (euren lurraldetik aparte) ezta pertsonala. Gaztelera-errialdeak dagoz bakarrik lurraldetasunean oinarrituta.

Konstituzioegileak hizkuntza guztien babes borontatea agertu ondoren (Konstituzioaren sarrera hori autortzen da), lurraldekotasun oinarriaren bazterketa ezin da ulertu. Oinarri hau baztertzerakoan, Autonomia Elkarteetara etorri diran erdeldunen hizkuntza eskubidea babestea gura izan bada, ez da ahaztu behar lurraldekotasun oinarria nortasun oinarriagaz buztartu egin eitekeala, horrela gazteleraz mintzatzen diranak euren hizkuntza eskubideen erabilera aske eukiko eben; gainera Estatu eta Autonomiadun Elkarteen arteko komunikabidea lez gaztelera hizkuntza onartuaz.

Beraz, Espainiako Konstituziora arte eredu nahastauaren arabera, gaztelera hizkuntzak lehentasun edo "status" bat dauka, eta "status" honek, beste hizkuntzen egoera diglosikoa kentzea gatxago ta zailago jartzen dauanik ezin daiteke zalantzan jarri.

Gaztelera ez dan Espainiako hizkuntzak, gaztelera mintzatzen ez daben herritarren eta Estatuko erakundeen arteko komunikabide lez ez onartzea, ez da bidezkoa. Eta bidezkotuta eta/edo legezkotuta egon arren, Estatu autonomikoan Estatu "bakarkoien" arau tipikoak irauten dabela ezin da estaldu. Gaztelera ez dan Espainiako hizkuntzak, gaztelerak baino zabalkunde mugatuagoa eukitea, ez da errazoia beste hizkuntzak Estatuaren organo zentraletatik eta erakundeetatik baztertzeko. Bazterketa honen azalpena, hizkuntza honeek maila zentralean guztiz ezarteko eukiko ebezan zailtasunak dira (ez da praktikoki posiblea Espainiako hizkuntza ezbardin guztiak ezagutzen dabezan funtzionariekin kontatzea) (8).

Nahiz eta oraindik gaztelera ez diran beste hizkuntzen ofizialtasun legeak bete ez, 1.978ko Abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluak egiten dauan arauketa, gaztelera ez dan beste hizkuntzak gorde eta babesteko, egokiena ez dala pentsatzen dan arren, Konstituzioaren arauzkotze honen garrantzia autortu behar da, batez be Espainiako hizkuntza honeek beti euki daben babes hutsunea kontutan hartzen bada.

Gaur egun Euskal Herriko Autonomia Elkarteko lurraldean, euskera gaztelerakin batera ofiziala da. Ofizialtasunaren ikuspunturik, hizkuntza ofizial biak legez bardinak dira.

Gaztelera Estatu osoko lurraldeetan ofiziala danez, autonomiadun lurraldeetako mugak kontutan izan barik, Autonomiadun Elkarteko hizkuntza propioari begira da garrantzitsua lurraldetasunaren kontzeptua; hizkuntza hau, Euskal Herrian euskera, salbuespen barik ofiziala dalako Euskal Herriko lurralde osoan.

Berez, Autonomiadun Elkarteko hizkuntza propioari dagokionez, lurraldetasunak zentzun bikoitza dauka:

a) <u>Zentzun baikorra</u>: inongo oztopo barik, ofizialtasunaren ondorioak Autonomia Elkarte osoan zehar emongo diralako. Zera esan nahi dau: gaztelera lez

lurraldeko hizkuntza bera, ezelango salbuespen barik, lurralde osoan eta esparru guztietan ofiziala dalako eta edozein hizkuntzaren ofizialtasuna zatituezinekoa dalako.

b) Zentzun mugatzailea: Lurraldetasunak bere hesiak jartzen ditu. Ofizialtasun bikoitza Autonomia Elkarte barruan jazoko danarekin emoten da. Orohar, Euskal Herritik kanpo euskeraren erabilpenak ez dauka hizkuntza ofizialaren eragin eta ondoriorik.

Baina gauza bat da ofizialtasunaren lurralde-mugaketa, eta beste bat Autonomia Elkarte barruan sortutako agiriak lurralde horretatik kanpo euki leiken eraginkortasuna.

Agiri honeek, Autonomia Elkarteko hizkuntza propioan idatzita badagoz, lurralde horretatik kanpo be eraginkortasun osoa euki behar leukie (9).

Euskerak, Nafarroako erregimen foralaren hobekuntza eta berrintegratze legeko 9. artikulua garatu danean, balio ofiziala dauka Nafarroako toki euskaldunetan. Toki honeen mugaketa eta euskeraren erabilera ofizialaren eta Estatuko legegintza orokorraren barruan hizkuntza honen irakaskuntzaren erregulaketa egiteko foru-lege baten betebeharra izan da. Behin, Nafarroak euskeraren ofizialtasuna bete ezkero, hizkuntza honen ofizialtasunaren lurralde esparruak bere lurraldetik kanpo be eragina euki leikie.

Lurraldetasun oinarriak baditu bere salbuespenak. "Herritarra" hitzaren kontzeptua oso orokor eta zabala danez gero, edozein herritarrek, nahiz eta espainola izan, euskera ezagutu eta erabilteko eskubidea dauka. Bestela Konstituzioan galerazotako diskriminazioa izango litzateke. Bakoitzaren estatuto pertsonalak emoten deutso "herritarrari" eskubide hori.

Alderantziz, Euskalerriko "herritarrak" bere lurraldetik kanpo eskubide bardina ez badau, diskriminauta geratuko litzateke. Eskubide hori bermatzeko arau eta neurriak ipintea Estatutoari dagokio. Euskaldunaren estatuto pertsonalak jagon behar leuke erderaren lurraldetasunaren salbuespen hau.

3.1.2. OFIZIALTASUN BIKOITZAREN BARDINTASUN EGOERA

Erabilera ofizialari dagokionez, ofizialtasun bikoitzak hizkuntza biak bardintasun egoerara erakarten ditu. Konstituzioan oinarrituta, legez parekidetasunaren egoera juridikoa ez danik ezin daiteke autortu.

Halan be, Konstituzioak gazteleraren ofizialtasuna lehenengo mailan eta bat-batean autortzen dau. (EKko 3.1 art.) (10). Beste hizkuntzen ofizialtasuna denbora bitan gertatzen da: Konstituzioak izan leiken ofizialtasuna edo, hobeto esanda, geroagoko ofizialtsunaren segurantza aurrikusten dau. Estatuto bakoitzean, ahalbide hori jadaneko eskubide bihurtzen dalarik. (EKko 3.2 art.)

Honetara, Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluak gaztelera orainaldian aipatzen dau, eta bestelako hizkuntzak geroaldian (11).

Geografiaren aldetik, gaztelera, bestelako hizkuntzak ez bezala, Estatu osoan ofiziala danez gero, ofizialtasunaren egoera bi bereganatzen ditu: Edo bakarra da edo konpartitua da. Bestelako hizkuntzak ofizialtasun konpartitua dabe bakarrik.

Oinarrizko testuen ondorioak ezarrieran, Autonomia Elkarteen barruan, hizkuntza bien erabilera ofizialtasun bikoitzaren barruan legez bardina da. Baina errealitatean Autonomi Elkarteetan gazteleraren aldeko desorekak edozein esperientzia ezbardinetan agertzen dira: udaletxera, jaurlaritzara, dendara... joan eta herritarrak gazteleraz egin behar dau derrigorrez (12).

Konstituzioak, bere 3. artikuluan, herritarren egoeran jarri ezkero, gazteleraren eta euskeraren oreka honetara heltzeko ahalmena emoten dauan eskema jartzen dauala iduri. Konstituzio testuak behintzat ez dau inongo errazoi mugatzailerik aurrikusten bere aurka.

Azken baten, bardintasun egoera honek, eta teoria maila batetan, autonomia kutsura garoaz:

- Zentzu positibo batetan, ofizialtasun eraginak, hizkuntza bakoitzak

sortzen ditu.

- Zentzu negatibo batetan, hasiera baten, ez dira beharrezkoak, ez testu bikoitzak (batera doazan testu ofizial bi) ez itzulpenak (testu ofizial bat eta bertsio bat).

Lurraldeko egoera gizahizkuntzazkoak testu bikoiztuen edo itzulpenaren beharrizana komendagarri bihurtzen badau, autonomia Elkarteko legegileak ikusiko dau era egonkor edo iragankor batean arautzea.

Euskal Herriko ofizialtasun bikoitza aztertzean ezin dira ahaztu Konstituzioaren gaztelera ezagutzeko manua eta Gernikako Estatutoak euskerari egiten deutson harrera. Nahiz eta herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubide aldetik bardintasun kutsua osorik gelditu, bai gaztelera menperatzeko mugaketa horrek eta hizkuntza propioaren alde egon nahiak, euren garrantzia dabenik ezin da ukatu.

- Gaztelera ezagutu beharra

Konstituzioaren aldetik, derrigorrez ezagutu behar dan hizkuntza bakarra gaztelera da (3.1 art.), bestelako hizkuntzetan, ofizialak diran tokietan bakarrik erabili daikie herritarrak euren eskubidea (3.2 art.).

Eztabaidak izan daikiezan eremu bietan derrigortasun hori jartzekotan, hau da, hezkuntzarenean eta hartuemon ofizialenean, aztertzen diran kontzeptu juridiko bietarik (erabilteko eskubidea eta ezagutzeko erantzunbeharra), berez gailendu eta lehen mailan jartzen dana, herritarrak hizkuntza bataz edo besteaz hitz egiteko dauan eskubidea da. Planteiamendu hau, batez be, herritarrari, beronek hizkuntza aukeratzeko dauan eskubidea, funtsezko kontzeptu legez aintzakotzat hartzera dator.

Administrazioaren jarrerak beti zerbitzuetarakoa izan behar dauanez, adierazo dan derrigortasuna atxakia izan barik, herritarrari nahiago dauan hizkuntza aukeratzeko eskubidea ukatzerik ez dago. Hau guztiau holan ez balitz, ezagutzeko derrigortasunaren erantzunbeharrik ez litzateke kontutan hartuko. Errazoia garbia da, Administrazioak, egoera batzuetan, gazteleraren erabilera ezarri ahal izango baleu, bestelako hizkuntzen ofizialtasuna agerikoa bakarrik izango litzateke, berori Espainiako Konstituzio eta Autonomia Estatutoen helburua ez dalarik (13).

Hartuemon ofizialak zailagoak diranean (interesatu batzuk dagozanean), ez dau hizkuntza batak bestearen gainean geratu behar, alkarbizikidetasunerako tresnak aurkitzen ahalegindu baino.

- Hizkuntza propioen aipamena

Legezko oinarrizko testuak ez dabe nagusigorik bidezkotzen gaztelerarен derrigortasun horren zioz. Halan be, Estatutoak gazteleraren derrigortasunaren aurkako desoreka sartu dabe, bertako hizkuntzaren kontzeptua batu dabenean.

Kontzeptu hori, kualitatiboa da, ez kanpokoa, barrukoa edo historikoa baino, eta bertakotzat hartzen dan hizkuntzaren eta mintzatzen dan lurraldearen arteko hartuemon estuak dakarz. Gero eta behin, berezko hartuemonak dira, ez ezarriak, barren loturakoak dira, honela, hizkuntza lurralde horretan bizi diran biztanleen nortasunaren osagai legez autortua danez gero, gaztelerak, ofizialtzat adierazoeran (Espainiako Konstituzio baino lehenagoko egitatea), bertako hizkuntza hori sustraitu-sustraituta aurkitu eban. Bigarren hizkuntza ofiziala, Estatu osokoa bada be, honenbestez, administraziozko tresna baten bitartez tinkotzen dan kanpoko ekintza izan ez danik be ezin da autortu.

Puig i Salellasen ustez, hizkuntzaren jabetzak, bere lehentasun egoera areago bidezkotu daike gaztelera lehendik ofiziala dalako legegintzazko eta denborazko egitateak edo estatu osoan ofiziala dalako geografikoak baino (14).

Konstituzioak Estatu osorako gazteleraren aldeko ahaleginak egin dauazan antzera, Euskal Herriko Autonomiadun Elkarteko lurralde legegileak euskeraren aldeko baieztapen garrantzitsua egin dau, euskera Euskal Herriko hizkuntza propioa dala autortuz (15).

Euskal Herriko beste hizkuntza ofizialaren erabilera ukatu barik, autorpen honek lurralde honetan bai herritar eta herrisailarentzat euskerak euki behar leuken lehentasuna adierazo nahi leuke.

Jabetasun ideia honek Arduralaritzari dagoan lekuko hizkuntzan, euskeraz, ekintzak burutu behar leukezela gogoratzen dago; nahiz eta herritarren hizkuntza hautaketan eraginik ez euki.

Beraz, jabetasun kontzeptu honetan, maila bi bereiztu leitekez:

a.- Maila administratibo bat. Honen arabera, gaztelera administrazio estataleko hizkuntza ofiziala da, eta lurraldeko hizkuntza administrazio autonomikoko hizkuntza izan daiteke edo/ta da. Euskal Herrian bada.

b.- Lurralde maila bat. Honen arabera, gaztelera ofizialtasun bikoitz bako lurraldeetako hizkuntza da, eta lurraldeetako hizkuntzak, komunitate autonomo bakoitzeko lurraldeetako hizkuntzak dira.

Planteamendu honek, ingurualdeko administrazioari dagokionean, ofizialtasun bikoitza daukien lurraldeetan elebitasunaren interferentzia bat sortzen dau: Ikuspuntu administratibo batetik, orokorrean, ingurualdeko administrazioak gaztelera erabili behar izango dau eta lurralde ikuspuntu batetik, administrazio honek, lurraldeko hizkuntza erabili behar izango dau.

3.1.3. HERRITARREN HIZKUNTZA AUKERATZEKO ESKUBIDEA. ARDURALARITZAREN GERTUTASUN ETA ERANTZUN BEHARRA.

Hizkuntza-jabetasun kontzeptuak, erakundeetan eragina dauka. Baina izatez, jabetasun ideia hau, ez da mugabakoa, alde batetik, administratiboki eurena ez dan hizkuntzaren erabilpena baliogarria dalako, eta bestetik herritarren hizkuntza-eskubideen aurrean errena dalako.

Azken baten, ofizialtasun bikoitzaren sistema osoaren erdigunea, herritarra dala esan daiteke, era honetan funtzionario eta herritarraren arteko ezegonkortasun linguistikoa sortzen danean, ofizialtasun bikoizdun diran lurraldeetan, elementu mugatzaile bakarra herritarra da; berak aukeratzen dau, administrazioaren aurrean eukiko dauan hizkuntza eta funtzionarioak ezin daikio aukeratu bako hizkuntzaren erabilera inposatu.

Ofizialtasun bikoitza gauzatzeak zenbait arazo sortu leikez. Iragana alde batera itzi eta geroari begira, iharduera zuzena bilatu behar litzateke eta arazoaren mamia ezarri.

Sortu daitekezen arazoak, Herritarrak eurek aukeratzen daben hizkuntzaz hitz egiteko daben eskubidea oinarritzat hartuta ebatzi behar dira: Protagonista lehen mailan jarriz, arlo honetan sortu daitekean edozein arazoren erdigunea beti herritarraren ikuspegitik aztertu behar da. Hizkuntza bat aukeratu eta bestea baztertzeko eskubidea dauana bera da. Hauxe da arau orokorra, eta eskubide hau inoiz be ez da aterako Herrisailaren alde. Hizkuntza aukeratzeko orduan, herrikideari ezin leikio inoiz be ukatu berari dagokion lehentasuna. Funtzionariak beharkizun osagarririk be ezingo dabe eskatu: esaterako, itzulpena.

Herrikideari herriarekiko herriko zerbitzu danak zor jakoz. Hezkuntza, eta hezkuntza horretan hazi eta hezteko medio eta laguntzak aukeran ipini behar jakoz. Arduralaritza eta bere zerbitzu guztiak herritarrari zor jakoz.

Arduralaritzak ezagutu behar dau herritarrak nahiago dauan hizkuntza eta ez alderantziz. Administrazioa da beti herritarraren zerbitzupean dagoana. Herritarrak bere nahia hizkuntza eskemen arabera (elkartekoa, bertako hizkuntzarena,

Estatukoa, gaztelera) moldatu beharko baleu, zuzenbidearen aurka joko leuke. Arduralaritzak eta herrisailak beste hizkuntzak ez ezagutzea eta ezagutu beharrik ez eukitea harrigarria da, eta gaztelera ezagutu beharra baino oztopogarriagoa ez danik ezin esan herritarrentzat.

Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluak erantzunbehar hori baieztatzen dau eta GEk ez dau bere hizkuntza ezagutzeko betebeharra ezartzen, baina hizkuntza berezia dauan Autonomia Elkarteko herritar batek eskubide osoa dau AEren lurraldeko hizkuntza erabiltzeko, bera onartzen dauan Estatuak aldez edo moldez haren erabilera oztopatu edo ezinezko bihurtuko baleu, eskubide hori urratuko litzatekelarik. Funtzionaria, herritarragaz dituan hartumonetan, berak diharduen epai edo administraziozko eskemaren barruko osagai huts legez ikusi behar da eta eskema horreen arabera herritarra jartzen da, garrantzia dauan banakako egite bakar lez.

Hemendik, hizkuntza berezia dauan AE baten lurraldean diharduen Administrazio guztiak herritarrari, bai ahoz bai idatziz, itzulpenik barik berehalaxe eta zuzenean emon behar deutsie arreta.

Argi dago neurri honek gauzatueran zailtasun batzuk izan daikezala, baina zailtasun horreek juridikoki ebatzi behar dira, errealitatearekiko hartuemonak galdu barik, erregimen iragankorra eta behar diran erak ezarriz. Herritarrak, Konstituzioa eta Estatutuaz gero, eskubidea dau eta Administrazio guztiek harek aske erabagiko dauan hizkuntzan arreta emoteko baldintzak bete behar ditue. Argi itzi behar da hau.

Konstituzioko 10. artikuluak, "pertsonaren dignitatea, berari jagokozan bortxatu ezineko eskubideak, nortasunaren garapen librea, ... giza bakearen eta herri ordenaren oinarri dirala" dino. Berak erabili gura ez dauan edo berena ez dan hizkuntza bat erabiltera behartu ezkero, pertsonaren dignitatearen aurka jokatu eta bere helburuaren garapen librea ukatzeko bidearen arriskua legoke konstituzioak 14. artikuluak dinoanaren aurka, jaiotze, enda, sexu, erligio edo eritziarengandik ezbardina litzatekean beste baldintza bategaitik diskriminazio-debekua hausi leike. Hau da, 14. artikuluak onartzen ez dauazan diskriminazioen zerrenda ez da osoa eta hizkuntza dala eta pertsona bat diskriminatzea, funtzionarioak pertsona horrek hizkuntza bietatik aukeratu dauan hizkuntzan erantzun gura ez izatea, pertsonen baldintza edo iraupenarengan eragina daukan oztopo eta gelera hori jartzeko eskubiderik ez dauka inork.

Hautatze askearen hastapen honek, administrazioaren betebehar

korrelatibo batekaz ondo artekatuta joan behar dau: Administrazioak oinarri honen garapena errezteko ahaleginak egin behar ditu, herritarrarentzat suposatzen dauan eskubidea trabatu barik.

3.2. EUSKERAREN NORMALIZAZIOA ETA OFIZIALTASUN BIKOITZA

3.2.1. Normalizazioa eta eskumena.

3.2.2. Arau motak.

3.2.3. Araugintza.

3.2.4. Aplikapena: euskeraren erabilera ofiziala.

3.2.1 NORMALIZAZIOA ETA ESKUMENA

Euskal Herrian **Hizkuntza-Zuzenbidea** oraindik ez dago garatuta. Gizarteak euskeraren arauketa beharrezko dala erakutsi dau, alde batetik euskerari egindako irainak ordaintzen hasteko eta bestetik euskera erabilteko euskaldunak daukien eskubidea arautzeko.

Euskal Herriko Zuzenbidearen eremuan Hizkuntza Zuzenbidea ikasterakoan, hizkuntza propioa arauzkotzeko lege eskumen bakarra Gernikako Estatutoak Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari damotse (16). Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea Euskal Herrian Euskeraren Normalizazio ikasteko oinarrizko testua bihurtu da, Eusko Legebiltzarraren agizko legea dalarik. Hizkuntza arauzkotzeko beste lege berezi batzuk etorri daitekez, edo/ta lege hori aldatu daiteke. Baina bitartean Oinarrizko Lege hori hor dago, eta Euskal Herriko hizkuntzekiko Araudiaren partaide danez gero, kontutan hartu behar da.

Lege honek Gernikako Estatutoaren 6. artikulua garatzea nahi izan dau, euskeraren erabilera arauzkotuz.

Batzuetan, euskeraren normalizazioa, hizkuntza bardintasunean, azpitik onartzen dala iduri, eta hori ofizialtasun bikoitzean ezin da holan izan. Beste batzuetan ofizialtasuna eta jabetasuna ez dira behar dan lez bereizten.

Euskeraren normalizazioak, Euskadiko lurraldean euskeraren erabilpena osotasun maila batera eroan eta gaztelerarekin ezbardintasun danak kentzea esan nahi dau. Euskeraren desoreka gainditu. Hori betetzen danean, EEAOLak bete dau bere egitekoa. EEAOLa ezin da izan epebakoa. Eta gainera lege hau, ezer egingo bada ez da nahiko.

Hizkuntza arloan, Eusko Jaurlaritzaren esku dago botere legegilea. Gernikako Estatutoko 6.2 artikuluak dioanez Autonomiako Erakundeek bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dabe, euron ofizialtasuna arautuz.

Euskal Herrian zerbitzari izan nahi dauanak herriak eskatzen deutso-

nari uko egiterik ez dauka. Herrikideak euskeraz bizi nahi badau, nahiz eta Konstituzio Auzitegiak inoiz beste zerbait esan (17), ez herrisaila ez funtzionaria ez da nor herrikideari bere euskal bizitza ukatzeko.

Edozein gizarte mailan eta hizkuntza ofizial bietatik edozein hizkuntza erabilteko eskubide banakakoa dau herritarrak.

Herritarren eskubide honek, babesteko eta edozeinen aurrean balioko dan ekintza juridikoa dauka. Botere ebazleari dagokio ekintza hori. Eta hizkuntza aukera egiteko eskubidea benetako ofizialtasun bikoitzean oinarritzen da.

Eskubide hau osoan kendu edo murrizten bada (18); ofizialtasun bikoitzari dagokion araugintza apurtzen da.

Gernikako Estatutoa daukagunetik, Euskalerriko edozein gizarte mailan eskubide hau arauzkotuta dago, eta ezin da galerazo, ekintza juridikoak babesten daualarik.

Erakunde publiko eta funtzionarioak dagoz herritarren zerbitzuan eta ez alderantziz. Herritarrak aukeratu eta zerbitzu publikoak lagundu eta erantzun beharra dauka.

"Konstituzioaren 3. artikulutik eta ofizialtasun bikoitza aipatzen daben Estatutoen artikuluetatik, erazko ofizialtasun bikoitzaren egoera ateratzen da: Hizkuntza bata bestea bezain juridikoa da" (19). Halan be, gaur egungo ingurua ikusirik zalantzarik ez dago lurraldeko hizkuntzaren bazterketak sortutako egoeragaitik, manu horreek oso-osoan eta berehala ezin daitekez jarri indarrean gaurkoz. Jabetzari buruzko kontzeptuak azken ondorioetaraino eroatea ezinezkoa izatea ezezik, Puig i Salellasen ustetan, egunean-eguneko gizarte-errealitatean hizkuntza bardintasunaren ideia urrunen dago (20). Eta zuzenago ebatzi beharko litzateke aurrerabidea.

Hizkuntza normalizazioa kontzeptu juridiko soila baino gehiago da, arazo juridikoa be bada. Azken ikuspegi honetatik, bereiztu behar dira: alde batetik normalizazioa azken egintza lez, hau da, herritarrak nahiago dauan hizkuntzaz eskubideak erabili eta erantzunbeharrak benetan betetzeko moduan; eta bestetik normalizazioa, helburu hori lortzera jotzen dauan prozesu lez hartuta. Normalizazioa

prozesu lez, eta normalizazio azkenean, bere ondorioak heldu eta beteten diranean (21).

Konstituzioaren eritxiz, normalizazioa Autonomia Elkarte bakoitzaren eskumenekoa dalakoan dago Puig i Salellas Jauna (22). Estatua bera izan da, bere legeria eta jarreren bidez, gaurko normalizazio ezaren egoera sorterazo dauana. Beraz, argi dago Estatuak bera berrezartzeko lanei ekingo baleutse, fede gitxikin ikusiko litzatekela. Alderantziz, arazoa daben Autonomia Elkarteen jarrera bestelakoa dager. Konstituzioaren absentismoaren aurrean, ofizialtasun bikoitza daben Estatuto guztiak aipamen ezin argiagoak egin dabez (23), normalizazioa euren autonomi iharduketaren eremu garrantzitsuenetariko lez ikusi ahal izan dadin.

Halan ta guztiz be, Estatuak ez deutso uko egiten arlo honetan izan daikeen protagonismoari eta honen froga garbiak dagoz. Gogoratu ofizialtasun bikoitzari dagokiozan arauemote-testuak (24), honela eskumen-interferentziak sortu daikezelarik.

3.2.2 ARAU MOTAK.

Oinarrizko arauak

Esangura estuan, normalizazioa prozesu lez ikusten bada, oinarrizko arauak normalizazioaren kontzeptutik kanpo gelditzen diranak izango dira. Arauok Konstituzioaren 3. artikulua eta Estatuto-manuak dira eta sistema osoaren abio dira, erazko ofizialtasun bikoitzaren eraketa egiten daben manuak diralarik. Arauok, teorian behintzat gizarteak hizkuntza biak zuzen ezagutzen dituen egoeretan, nahiko izan beharko leukie benetako ofizialtasun bikoitza, bere garapen osoarekin, ibilten ipinteko. Baina, hau ez da gehienetan honela jazoten eta, arau osagarriak behar-beharrezkoak dira, normalizazio arauekin osoturik.

Normalizazio arau honeek Estatutoetan aurrikusita dagoz (25), arlo honi buruzko benetako autonomia eskumenean badagoala adierazoten daben manuen bitartez. Baina arau honeen bitartez be, Euskal Herrian euskeraz bizi gura dauan herrikideari bere aukera eragoztea edo/ta bere aukerari oztopoak jartzea ez da bidezkoa izango.

Garapen arauak

Arau honen xedea oinarrizko arauak esaten dabena eremu edo egoera zehatzetara eroatea baino ez da. Helburua, zinez didaktikoa da: Eremu batean edo bestean oinarrizko arauen Orokortasuna aitxakitzat hartuta sortu leitekezan eta, izan ere, sortzen diran oztopo zehatzak gainditzea. Iharduketa pasiboak gainditu egin behar dira. Gizarte-sektore batzurentzat aldaezin lez jasoa zan aurreko sistemaren aldean edo ordez, ofizialtasun bikoitzak dakarren aldaketa sakona bereganatzeko zailtasunen ondorio lez sortzen diran jarrera nagiak gainditu behar dira. Pasibotasun honek legegileei beste ahalegin bat ezartzen deutse eta arauek aipamen zehatzagoak eskaini behar dabez.

Arau mota honek ez deutso ezer eransten ofizialtasun bikoitzaren kontzeptutik ateratzen danari (26).

Normalizazio arauak esangura estuan

Batez be tresna lez erabilten dira eta xedetzat normalizazioa besterik ez dabe, eta normalizazioa da euren izatearen errazoi bakarra. Beraz, ofizialtasun bikoitzaren aplikazio orokorra erreztera datozan egoera barriak dakarrezan xedapenak dira. Halan be, garapen arauak euren xede didaktikoagatik bereiztu badira, normalizazio arauak era askotakoak dira, eurei dagokiezan eremu ezbardinen arabera.

Hemen, kasu, honakook kokatu leitekez:

Itzulpen zerbitzu egonkorra antolatu nahi daben manuak, esaterako, "Euskeraren erabilpena arauzkotzeko Oinarrizko Azaroaren 24eko 1.982/10. legea"ren 12. artikuluan aurrikusitakoa, estatuak berak aintzatetsia dana.

Agirien zirkulazioa errezteko, normalizazioari buruzko katalanen legearen 10. artikuluak notariak, beste hizkuntza batetik, kopiak interesatuak eskatzen dauan hizkuntzan emon daikezala aurrikusten dau. Erizpide hau valenciar legearen 13. artikuluan ere batu zan.

Hizkuntza bien arteko komunikaziorako mekanismo honeen ondoan, zuzenean lurraldeko hizkuntzaren aurrerapenari dagokiozanak be, hemen kokatu behar dira.

Lurraldeko hizkuntzaren irakaskuntzan eta komunikabideetan nahiz kultur iharduketetan haren erabilera suspertzeari dagokien arautegiaren zati haundia be sartzen da.

Antolaketa eta prozedurarako arauak

Euren xede ta helburua, alde batetik, egiturari dagokionez, administrazio antolaketaren beraren gainean, pertsonalaren aukeraketa eta banaketa egokien bitartez, herritarrari aukeratuko dauan hizkuntzan iharduketa aske eta oztopagabea erreztea da, eta bestetik funtzioari dagokionez, prozeduraren gainean, esaterako, beronen baitan itzultzeko egon daitekeen beharra jasotzea.

Garapen arauen eskumena Estatuari eta Autonomi Elkarteei dagokie botere zentraletik baino autonomietatik gehiago erabiliko dala uste bada be. Dana dala, gaurkoz, Konstituzioaren 3.3 artikuluko manua argi-argia izan arren (27), botere zentralaren jarrera aurkakoa da.

Normalizazio arauak esangura estuan, autonomia eskumenekoak dira, estatutuen testuen oinarri argia bide dala, hau da, euretan normalizazze-prozedura argi aipatzen daben artikuluak bezain mugatzaileak diran manuak (28).

Azkenik, antolaketa eta prozedurari buruzko arauei dagokienez, eskumena bikoitza da eta, gero eta behin, Estatuarena ala autonomiarena dan arloaren arabera mugatzen da, eremu material batean edo bestean eskumena dauan agintariak hari buruzko arauak epaitzeko gaitasuna izan daian.

3.2.3 ARAUGINTZA

Arlo honetako zuzeneko Araugintzaren eskumena Autonomia Elkarteei dagokie (29). Estatuaren jarrera kanpokoa da eta, batez be EKren 3.3 artikuluan zehazten da. Manuaren azken hitzak jartzerakoan konstituziogileak gaztelera ez beste hizkuntzak gitxietsita egozala eta gaztelera gailenduta egoala baekiela ezin da ukatu.

Badago hizkuntza eremua zelan edo halan ikutzen dauan beste manu bat, komunikabideei dagokiena, EKren 20.3 artikuluan. Hizkuntzaren aipamena garrantzitsua da eta manuak, komunikabideen eremuan, Estatutoetan aintzatesten diran eskubideak azaltzen ditu; ez dabez, ostera, agertzen diran berme eta zehazkabetasunak bidezkotzen, EKren 3.3 artikuluko babes kontzeptuaz kanpokoak dira eta. Beste alde batetik, manu hau EKren 149.1.27 artikuluarekin jarri behar da hartuemonetan, artikulu hau be komunikabideei buruzkoa da eta (30).

Oinarrizko testuak oinarritzat hartuta, Autonomia Elkarteen protagonismo garrantzitsua jazotzen dan lez, berau murrizteko edozein ahalegin, nahiz eta zeharkako prozeduren bitartez izan (toki erregimena, Justiziaren administrazioa), oinarrizko testuen aurkakoa izango litzateke. Errazoiak, besteak beste, honakook izan daitekez (31):

Batetik, arloaren edo materiaren ziozko gehiegikeria izango litzateke. Toki erregimenari buruzko edozein testuk, eremu zehatza aipatzearren, egituraren erregimenaren aspektu zehatzak araupetuko ditu, baina hizkuntza arazoei heldu barik, ofizialtasun bikoitza, aldez aurretiko eta kanpoko egitatea dalako.

Bestetik, EKren 3.3 artikuluko babesa urratuko leuke.

Ofizialtasun bikoitzari buruzko arloko araugintzaren iharduketa hurrengo bide biotatik baten bitartez gauzatu daiteke (32):

Lehenengo, erazko ofizialtasun bikoitzaren kontzeptutik hasi daiteke edo hizkuntza bien aldi bereko erabileraren ezarpenetik. Gitxi garatua dan gizarte bat eta gizartea bera zati bitan banatua egotea egitatetzat dituan sistema da, honela gitxiengoetatik batak bere hizkuntza baino ez dakialarik.

Bigarren, benetako ofizialtasun bikoitzaren kontzeptutik hasi daiteke, iharduketako protagonistak hizkuntza bietarik bat aukeratze horretan oinarrituta (legegilea, epai edo administraziozko agintaria, herritarra). Kultur sistemarik aurrera-tuenari dagokio. Elkarteak hizkuntza biak ezagutzen ditu. Hizkuntza bietarik bat txarto ezagutzen danetan, kontzepzio aurrerakor horrentzako bultzagarria ezezik, integratze-jarrera be bada.

Egungo egoera betirako ezartzea nahi dauan edozein planteiamendu arbuiagarri da. Soziologiaren aldetik, atzerakorra da, politikaren aldetik arriskutsua (gitxiengoen kristalkuntza sustatzen dau eta) eta, beraz, funtsezko helburua dan normalizazio ideiaren aurkakoa da. Beraz, helmuga elkarte osoak hizkuntza biak ezagutzea da. Zentzu-zentzuzko helburua da eta ez dago ezelako errazoirik, egun hizkuntza bakarra ezagutzen dauan taldeak, hezkuntza sistema egoki baten bitartez, beste hizkuntza ezagutuko ez duala bidezkotzeko. Guztiau, herritarren eskubideak osorik gorde eta behar diran berme guztiak hartuta (33).

Egiaztapen historikoa egiten bada, inork ez dau eztabaidatzen orain dala bi gizalditatik hona, Euskal Herriari dagokionez behintzat, gaztelera nagusigo egoeran egon dala, legegintzazko xedapen zehatzetan isladatuta, eta bestelako hizkuntzak familiaren baitara eta hartuemon pribatuetara zokoratu dituela, gaztelerak irakaskuntza eta bizitza ofizialaren monopolioa izan daualarik. Honen ondorioz, biztanleriaren zati batek guztiz ezezaguna dau bestelako hizkuntza, bai irakurmenari, bai idazmenari doakienez. Espainiak izenpetu dituen Nazioarteko testuekin, egoera guztiz anormala da eta gizartearen eremu gehienetan estatuaren nagusigo logikoa suertatu da, gaur be zati haundi batetan diraualarik.

Egoera hau normaldu eta normalizatzeko, Euskal Herriari hizkuntza aukera askearen sistema aurrerakorrena ahalbideratuko dauan kultur oinarria lortzeko eragozpenik inork ezin leio ezarri.

3.2.4 APLIKAPENA: EUSKERAREN ERABILERA OFIZIALA

EEAOLk euskeraren erabilerari buruz dakarzan mugaketak ez dira hain egokiak (34). Bere lekutik kanpo datoz.

Herritar aldetik begiratuta, ofizialtasun bikoitzak Herrisailagaz euskeraz edo gazteleraz iharduteko eskubidea emoten dau. Arduralaritzak herritarrari hizkuntzagaitik ezin deutso eragozpenik jarri. Bestela, hizkuntzagaitik diskriminazioan jausten da (35).

EEAOLak onartzeko orduan, alderdi politiko guztien aldetik ohi ez dan kontsentsu osoa edo behintzat ia osoa egon zan (36).

Lege hori aplikatzerakoan datoz arazo eta gatazkak. Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak ditu eskubideak eta euskeraren arauzkotzearen neurriak hartzeko manua (37).

EEAOLaren helburuen artean bat euskera gaztelaniaren pare jartea zan. Bitartean bide askotatik eta era askotariko trabak eta eragozpenak Estatuaren aurkako jarreretatik, epai-jokabidetik, errekurtsoetatik eta hemengo alderdien jokaeretatik, jasan ez dituanik ezingo da esan.

Normalizazioa eta hizkuntza normalizatzeko arau motak gainetik ikusi ondoren, normalizazio garaiko araugintza egokia zein eratakoa litzateken esatea ez da nahiko. Orain, arau honeek aplikatzeko orduan aukeratu behar diran eremu edo arlo interesgarrienei gainbegiratu bat emongo jake.

EREMU OFIZIALA

Alde zabala danez gero, hainbat arlo bereiztu leitekez:

- **Erakunde barrukoa.** Erakunde ofizialaren baitan edo barruan emoten diran hizkuntza arazoen arloa, batez be erakundearen ate barrutik jazoten dana: Legebiltzar bilkurak, udalen osoko bilkurak, akten idazkuntza. Eremu honeetan, Autonomi Elkarte eta Toki Korporazioak aske aukeratzeko eskubidea dabelako erizpideari eutsi behar jako, bai eskuhartueran (bileretan, bilkuretan etabarretan), bai agirietan (aktetan, ebazpenetan, etabarretan), hizkuntza bakarra be erabiltea zilegi dalarik. (Gaztelera bada be bai).

- **Arau eta erabagien argitarapenak.** Kasu honetako iharduketak kanporauzkoak dira, eta nahiz eta ekintza lez gehienetan aldebatekoa izan, jendearenganako eragina orotara emoten da. Arau autonomikoen argitarapenari dagokionez, Euskal Herriko, Catalunyako eta Galizako Autonomi Estatutoak aztertu dabe arazoa eta hurrengo bereizketa egiten dabe: a) Aldizkari Ofizialetan egin beharreko argitarapena, tokian-tokiko hizkuntzan egin behar dana eta b) "B.O.E."n egin beharreko argitarapena, gazteleraz egin asmo dana. Beraz, askatasun osoa dago barru argitarapenaren itxura aukeratzeko. Gainera, hiru estatutoak jadanekotasunari buruzko aipamenak dabez eta jadanekotasuna Aldizkari Ofizialetan argitaratuz gerokoa izango da. Azkenik, argitarapen bikoitzaz mintzatzen danean, berau ez da aldi berekoa izan behar, halan be, ezin argitaratu daike aurretik "B.O.E."n. (38).

- **Herritarraren arloa.** Herritarra lehen mailara igarotzen da. Ofizialtasun bikoitzak herritarrari berak nahi dauan hizkuntzan Herrisailagaz hartuemonak eukiteko aukera eta eskubidea emoten deutso. Euskal Herrian, herritarrak Arduralaritzagaz **ahoz nahiz idatziz euskera erabilteko eskubidea dauka** (39).

Herritarrak aukeratzen dau erabili nahi dauan hizkuntza. Eragozpenik jarten bajako, herritarra hizkuntzagaitik diskriminatua izango da. EEAOLko 5. artikulutik 15.ra eskubide hori aldezten da.

Arduralaritza esatean, Estatuko edo/ta Autonomia Elkarteko Arduralaritza dan euskera erabilteko beharkuna daukana jakin behar da.

Euskal Herriak euskera **bere** hizkuntza dauan ezkero, (EEAOL 2. art.) Euskal Herriko Arduralaritzak bere herrialdean euskera erabili behar dau oroharrean behintzat (40) Autonomi Elkarteak arauak bertako hizkuntzan argitaratu behar ditu eta benetako gizarte-hizkuntza errazoiengaitik bakarrik jo ahal izango da testu bikoitzetara, erabili behar dau oroharrean behintzat.

Bere hizkuntza badau, Euskal Herriko Herri Ardularitzak ezin dau egin salbuespenik euskera erabilteko.

Hain argi ez dagona zera da: ea Euskal Herriko Herri Arduralaritzak gaztelera erabilteko beharkuna daukan. Aginte-araupide eta erabagi ofizialak bi hizkuntzetan idatzita egongo dira (EEAOL 8,a) (Ikus. Univ. 25-28). Baina Herri Agintariak, euskera bakarrik be erabili al izango dabe (EEAOL 8,3).

Arduralaritzak herritarrekin herritar bakoitzak aukeratzen dauan hizkuntza erabili behar dau eta ez besterik. Oraingoz behintzat, Arduralaritzak gaztelera aukeratzen dauanakin gaztelera erabilteko beharkuna dau.

Bi hizkuntzak erabiltea manatzen danean elebitasuna ezarten da. Baina ofizialtasun bikoitza eta elebitasuna ez dira bardin (41).

Diskriminazioa salbatzeko ez dago elebitasuna eskatu beharrik. Ofizialtasun bikoitza nahiko da salbatzaile bihurtzeko.

Estatuko Arduralaritzaren hizkuntza ofiziala Konstituzioz gaztelera da. Baina Euskalerriak bi hizkuntza ditu ofizialak. Beraz, Euskal Herrian Estatuko Arduralaritzak zein bata zein bestea erabili leike. Ofizialtasun bikoitzak bi hizkuntzak erabilteko beharkunik be ez deutso ezarten.

Baina herritarrak Estatuko Arduralaritzakin be hizkuntza ofizialetatik edozein aukeratzeko eskubidea dauka. Eta orduan, Estatuko Arduralaritzak euskera erabili behar dau.

Dana dala, Tokian-Tokiko Arduralaritzak, hau da, Autonomia Elkartean

lurraldeko hizkuntzak eragin osoa euki behar leuke (42). Eta Euskal Herrian kokatutako ingurualdeko Arduralaritzak be bai (43).

-Epaitegi eta auzitegien iharduketak. Ingurualdeko Arduralaritzarentzat aurrikusitako konponbideen antzerakoak gitxienez izan behar leukie.

Halan be, Epai-botereari buruzko Lege Organikoaren Egitasmoan erizpidea hau ez zan izan (44).

Egitasmo horrek oinarrizko arau lez, gazteleraren lehentasuna aurrikusten dau, "Estatuaren hizkuntza ofiziala" izate hutsagaitik. Manuak, gaztelera ez diran beste hizkuntza ofizialak dagozan Autonomia Elkarteetan egotea be onartu dau, baina hizkuntza horren ofizialtasuna muga biren bitartez ukatuz: a) Gaztelera ez diran beste hizkuntza ofizialak idatziz edo idazkietan bakarrik onartzen diranez gero, iharduketa eta ebazpenak beti gazteleraz emongo dira, b) Idazkiei gaztelerazko itzulpena erantsi behar jake.

Konstituzioz eta Estatutoz jarrera hori bidezkotzen dauan manurik ez dago, eta joera honen zioak hutsalak dira.

Legegintza-zuzenketak ez dabe bereizkeria hori onartzen. EKren 127. artikuluak be ez dau Epai-Botere hori EKko ofizialtasun bikoitzetik kanpora ataratzen.

- Notari-agiriak eta bestelako agiri publikoak:

Argi ei dago aukeratzeko eskubidea notari edo fedemoile publikoarengana joten dauanari dagokiola. Arazoa agerlariak asko diranean sortzen da eta ebazpide bi dagoz: Edo zutabe bitan idaztea (Notari-erregelamenduaren 150. art.) edo Notariak edo fedemoile publikoak, kasuaren inguruabarren arabera, aukeratzea (45).

Barriemoteak eta agintedeiak egiteko notari-egintzetan, kontutan hartu behar dira, Notari egindako egindeian erabiltako hizkuntza eta, bestetik, barriemotea edo agindeia jaso dauan pertsonak nahi dauan hizkuntza erabilteko dauan eskubidea.

Beharkizun publikoak erregistroko idazpenak behar dan agiri edo agerpenaren hizkuntzan egin behar dira.

Ziurtagiriei dagokienez, eskatzalearen hizkuntzan luza tu beharko dira eta lekuzaldaketak diranean, eskatzailearen hizkuntza edo idatzita dagozan hizkuntzan egingo dira.

Aurreko guztiak ez dau zerikusirik ondorioak Elkarteaz kanpo sorterazo behar dituen agirien beharkizunekin.

IRAKASKINTZA

Ofizialtasun bikoitzari buruzko planteiamenduak ez dira bardinak orain arte aztertuko eremuetan eta irakaskuntzan eta komunikabideetan. Azken eremu biotan, herritarraren eskubidea, irakaskuntza edo informazioa hizkuntza batean edo bestean hartzeko eskubide gehiago dagoala ezin da ukatu (46). Botere publikoen jarrera batzuk aldatzen hasi dirala dirudi batez be, autonomia Elkarteeko lurraldeetan.

Azken batetan, tokian-tokiko hizkuntza gitxietsita dagoenez gero, honakook ezin eztabaidatu daitekez (47):

a) Tokian-tokiko hizkuntzak irakatsi beharra eta euron bitartez irakatsi beharra.

b) Hizkuntza horretan idatzi edo emititutako komunikabi deak egon beharra.

Irakaskuntzaren eremuan, unibertsitateko irakaskuntza eta unibertsitatekoa ez dana bereiztu behar dira. Lehenengoan, adierazpen askatasunaren erizpide osotik hasi behar da baina, beragana heltzeko, aldez aurretiko mailetan hizkuntza biak oso-osoan ezagutu daitezen, behar diran tresnak ezarri behar dira, aldez aurretiko mailetan hurrengo egitura bereiztuz:

a) Lehenengoz, irakaskuntza hartzeko hizkuntza aukeratzeko eskubidea aintzat hartzea. Eskubide hori ikasleen legezko ordezkariei dagokie, eta ikasleei eurei, adin jakin batetik aurrera.

b) Osagarri lez, beste hizkuntzaren derrigorrezko irakaskuntza, Unibertsitaterako proposatutako askatasun sistema erraztuko dauan ulerpena ikasleari emoteko. Aukeratzeko eskubide hau erabili ahal izateko, nahiko ikastetxe ofizial sortzea eskatzen dau (48).

EEAOLko 15. artikulutik 21.era artekoak irakaskintzaz dihardue.

"Ikasle guztiei irakaskintza euskeraz eta gatelaniaz hartzeko eskubidea autortzen jake." (EEAOL 15,1)

Oso gitxi da esaten dana. EEAOLko 2. artikuluan euskera berea dauala Euskalerriari autortu bajako, orain umeari aukerea emoten jako euskeraz irakaskuntza hartzeko. Euskareren jabetasunaren legezko balio eta ondorena besterik ez da.

"Jaurlaritzak, irakasleak euskalduntzeko neurri eta bidea jarriko ditu." (EEAOL 20 art.)

Beraz, Euskal Herrian Hezkuntza Sailak ez beste inork, ez dauka eskubiderik irakaskuntzan A eredua bapezean izteko, edo egungo D ereduan bihurtuko ez dan B eredua onartzeko. Eta gitxiago, eredu bat eskatzen daben haurrei eta euren gurasoei irakaslerik ez dagoan atxekiagaz euskera ikasteko bidea ukatzeko.

EUSKERAREN ERABILPENA KOMUNIKABIDEETAN

Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren 19. artikuluak, Estatuak komunikabieei buruz dituan oinarrizko arauen legegintza-garapena, Euskal Autonomiari berari emoten deutso, beti be EKren 20. artikulua gordez (49).

Euskeraren Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legean euskeraz eta gazteleraz albisteak jasoteko eskubidea autortzen jake herritar guztiei (50).

Jaurlaritzak, Autonomia Elkarteko adierazpideetan euskera lehentasunez erabiltea suztatuko dau (51). Eta hori, bi hizkuntzen arteko kidetasuna bermatzeko (52).

Euskal Herrian herrikideek komunikabideak euskeraz erabili nahi badabez, herriak ezingo ditu asmo eta gurari hutsetan geratzeko arriskuan itzi. Herritarrek Euskal Herriko komunikabide guztietan euskera jasotzeko eta euskeraz bizitzeko eskubidea daukie. Euskal Herriko Irrati, Egunkari eta Aldizkariek ezin dabez euskerari eta herrikideei zor jakezan eskubideak bete barik laga.

3.3 HIZKUNTZA OFIZIALTASUN BIKOITZA ETA EPAI-JOKABIDEA

3.3.1 Auzitegi Gorenaren jokabideari buruz ohar batzuk.

3.3.2 Konstituzio Auzitegiaren hizkuntza ofizialtasun bikoitza.

3.3.1 AUZITEGI GORENAREN JOKABIDEARI BURUZ OHAR BATZUK.

Espainiako Estatuan hizkuntza propioa daben Autonomiadun Elkarteetako herritarren hizkuntza eskubideen arazoek behin-betiko konponbiderik aurkitu dabenik ezin leike esan.

Euskal Herrian hizkuntza ofizial bi dagozanez gero, hizkuntza propioaren arau babesleak nahiko ulergarriak izan arren, herritarren banakako eskubideen eta kolektiboen artean beti dagoz gatazkak.

Eleaniztasunari buruzko legeria osatuta gero, bide luzea dago bere aplikapenean, eta lege-testuak ulertueran eta zehazkabetasunak eta hutsuneak gainditueran, epai-jokabideak zeregin garrantzitsua hartzen dau Estatu gehienetako zuzenbideetan.

> "Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua zehastasun gitxikoa dalako, jakina da hizkuntzei buruzko legeria nahiko kolokan dagola. Egoera honek, alde batetik epai-jokabidea baldintzaten badau be, bestetik beraren ulerkera zabalkorrak Autonomiadun Elkarteetako hizkuntza ofizial bien arteko begiramen oso eta bardintasuna gordetzera heltzen errez lagundu daikela esan behar da" (53).

Herrisailaren arloan eta batez be funtzionarien baldintzetan euskera eskatzerakoan, nahiz eta euskera hizkuntza ofiziala izan, euskeraren balorazioa Auzitegi Gorenak bereizkeriatzat eta Konstituzio-aurkakotzat joten izan dau, bardintasunoinarriaren aurkakotzat hain zuzen be (54).

Hasiera baten epai-jokabidea guztiz euskeraren aurkakoa izan bada be, Euskal Herriko Autonomia Estatutoak bi hizkuntzen ofizialtasuna onartu eta Eusko Jaurlaritzak "Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea" argitaratu ondoren, euskeraren araubideari eta aplikapenari buruz, legegizon eta ikertzaileen erizpide eta ulerkera barri eta ezbardinak sortzen dira (55).

Euskeraren hizkuntza ofizialaren eskubideak, ofizialtasunaren ondo-

rioak, herritarren eta herrisailaren euskerarekiko eskubide eta betebeharrak ulertzerakoan jakitunen artean ez dago adostasunik. Ondorioz, Auzitegietan eta, orohar hartuta, epai-jokabidean giro hori nabari izan ez danik be ezin esan.

1.980tik 1.990era bitarteko aldian garai bi bereiztu behar dira: Lehen garaia, 1.980 eta 1.985aren artekoa. Garai honetan zehar Auzitegi Gorenaren jarrearak herritarren eskubideak sustraetatik ukatzen zituan nahiz irakaskuntza eremuan nahiz funtzio publikoarenean, ondorio sinistuezinetaraino helduz. 1.985eko Abenduaren 16ko Epaiagaz, badirudi Auzitegi Gorena hizkuntza propiodun Elkarteeko herritarren hizkuntza eskubideak aintzakotzat hartzen hasi dala.

Halan ta guztiz be, euskeraren balorazioari buruzko jurisprudentzian zalantza ugari eta jokabide aldaketak egon dirala ezin da ezelan be ukatu.

Barcelonako Lurralde-Entzutegiaren epai bat salbuespen dalarik (56), gaztelera ez diran Estatutoko beste hizkuntza ofizialak, lehen urteetan behintzat, aurkakoa epai-jokabidea jasan dabela ikusiko da. Euskerari dagokion epai-jokabidearen zehaztasun eta zuzentasun faltaren adierazgarri lez, euskeraren baloraziotzaz epaiadibide batzuk aitatuko dira.

Euskeraren aurkako lorrotz-egile lez, lehenengo epaia 1.984/01/25ekoa da, eta 1.984/05/03koa antzerakoa da. Bata Gipuzkoako Aldundiari dagokio, bestea Arabakoari (57). Edukinez bardinak dira. Bietan lanpostua eskeintzen da eta euskeraren balorazioagaz lehiaketa eskatzen da.

Euskeraren aurkako epai eredugarri lez Gipuzkoako Aldundiaren aurka emondako 1.984/01/25ekoa aztertuko da.

FUNTZIO PLUBLIKORA HELTZEKO BARDINTASUN OINARRIA ETA BARDINTASUN EZA

Auzitegi Gorenak funtzio publikoaren eremuan jokatu dau gogorren. Autonomia Elkartuak nahiz tokiko administrazioak, Catalunye-ra, euskera edo galizeraren ezaguera bultzatu edo eskatzeko erabili daben formula edozein izan arren, Bigarren Aretoaren doktrina bat dator eta beti aurka. Plaza bati heldu ahal izateko, tokian-tokiko hizkuntzaren ezaguera itziezinezko beharkizun lez (1.984eko Abenduaren 27 eta 1.984eko Apirilaren 13ko Epaiak), behin-betiko plaza bati heldu ahal izateko, ezaguera beharrezko lez (1.984eko Urtarrilaren 1eko E.) edo merezimendu puntuagarritzat bakarrik (1.984eko Maiatzaren 3, 1.985eko Martxoaren 28 eta 1.984eko Urtarrilaren 25eko E.) hartu daben deialdi guztiak "baztergarri" eta konstituzioko bardintasun oinarriaren aurkakotzat hartzen ditu Auzitegi Gorenak.

1.984/01/25eko epaia

1.984eko Urtarrilaren 25eko epaiak, euskeraren puntuaketa Konstituzioaren aurkakotzat hartzen dau (58).

Foru Aldundiaren deialdia:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.983ko Otsailaren 28an, Foru Zerbitzu Ardurarako, Su amatatze eta Salbamenturako buruzagi plaza bat ataratzen dau lehiaketa askean. Deialdia behar dan lez egin da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialea 1.983ko Maiatzaren 13an eta 1.983ko Ekainaren 1ean Estatuko Aldizkari Ofizialean. Honelako oinarriak planteatzen ditu.

Lehiaketa:

"7. Oinarria: Lehiaketa sailerako ariketak.

Lehiaketako ariketak bost derriorrezkoak izango dira eta bat gogozkoa.

Lehenengo ariketa.- Aspirante guztientzat derriorrezkoa. Programako (1go Gehigarria) gai biri buruz, gehiengoz 3 ordutan idatziko dabe...

Bigarren ariketa.- Aspirante guztientzat derrigorrezkoa. Ordu ta erdiko epean hiru gai ahoz azaldu beharko ditue.

Hirugarren ariketa.- Guztientzat derrigorrezkoa. Idatzia eta lau orduko epean, suposatuko praktika bi azaldu beharko ditue.

Laugarren ariketa.- Euskera. Derrigorrezkoa. Epai-

Mahaiaren aurrean ahozko eta idatzizko ariketa.

Bostgarren ariketa.- Gogozkoa. Zuzenean eta hiztegiaren laguntza barik, Epai-mahiak aukeratu dauan frantsez, ingelez eta alemanezko testua itzultzea.

Seigarren ariketa.- Soinketa probak, II gehigarriaren arabera.

8. Oinarria: Lehiaketako kalifikapena

Lehenengo hiru ariketak kanporaketa gisara egingo dira. Lehenengoak eta bigarrenak 10 punturaino eukiko ditue, eta gitxienez 5 puntu lortu behar dira gainditzeko. Hirugarrenak 15 puntu daukaz eta gainditzeko 7,50 atara behar dira. Laugarren ariketaren puntuaketa nagusia, euskerari buruzkoan 6 puntu izango dira, baina ez dakar kanporaketarik, eta bostgarren ariketak 4 puntu ditu gehienez be, ingelesak lehentasuna daukalarik. Seigarren ariketak ez dauka puntuaziorik, baina baztertze-indarrekoa izango da.

9. Oinarrian lehiaketa unea arautzen da, banatzen diran hiru atalei hamabost puntu emonik."

Iruinako Auzitegira

Gipuzkoako Aldundiaren 1.983ko Otsailaren 28ko dei akordioa dala eta gora joten dau Madrileko Ingineiri Industrialen Kolejio Ofizialak, laugarren ariketa diskriminatorioa eta Konstituzio aurkako dala esanaz. Aldundiak ez dau espresoki gora-jotea erabagiten eta hilabete igaro dalako Ingineirien Kolejioak bere gora-jotea baztartu izan dala uste dau eta Auzitegira joten dau, Iruinako Lurralde Entzutegian Funtsezko Eskubideen Babes Jurisdikzionalaren 62/78 Legearen arabera auzi-administratibo gora-jotea sartuaz (59).

Epaia:

Auzi-Administratiboko Geleak 1.983 Abenduaren 13an epaia emon eta hauxe erabagiten dau (60):

> "Planteatzen dan arazoari buruz, Legearen aurreko funtsezko bardintasunean eta funtzio publikoetara bardintasunean heltzeko eskubidean ez dala zapalketarik egiten ondorengo errazoiak kontutan harturik: 8. oinarriaren azken zatian esaten danez, euskerazko ariketak ez dau kanporaketarik ekarten, eta ezin leiteke horrelakorik atara inondik be, ariketa horretan zero atara arren kanporaketarik ez datorrelako; hizkuntza hori ez jakiteak ez dau lehiaketan parte hartzeko eskubiderik ukatzen, eta euskera hiztunak ez ditu gaztelera hiztunen aurrean lehenengo meritudun egiten, hizkuntza hori jakiteak-Auzitegiaren aburuz- espainiarrak ez diran beste hiru hizkuntzak jakiteak sortzen dauan antzerako efektua dakarrelako; bidezkoa dirudi -jarraitzen dau epaiak- herriagaz hartuemonean egon behar dan funtzio publikoan Euskal Komunitate Autonomoan euskera jakitea meritu lez hartzea, sei puntu emonik, beste hizkuntzei lau emoten jakezanean, Euskal Estatutoak 6 artikuluan euskera eta gaztelera biak ofizial egiten dituan ezkero; azkenik Entzutegiak ez dau desneurririk ikusten euskerari emoten jakon puntuazioan eta beste hiru ariketa teknikoei emoten jakon puntazioan, izan be euskerari emoten jakozan sei puntuak beste hiru ariketa kanporatzaileei emoten jakezan hamar eta hamabost aldean txikia dalako.

Auzitegi Gorenera: Madrileko Ingineiri Kolejioak Lurralde Entzutegiko epai honen aurka gora joten dau eta Auzitegi Goreneko 3. Gelak gora-jote errekurtsoa onartuaz, aurreko epaia deuseztu eta lehiaketa deiko 7. puntua balio bakotzat izten dau. Epaia 1.984ko Urtarrilaren 25ekoa da (61), txostenlaria Rodriguez Hermida Jauna izan zan.

Epaiaren alderdi formalak alde batera itziaz, eta bere logika-lege errazoiketan sarturik, alkarregaz nahikoa loturik dagozan errazoi dira 7. oinarria Konstituzio aurkakoa dala esateko Auzitegi Gorenak erabilten dituanak.

Auzitegi Gorenaren errazoibideak

a) Gaztelera ez aitatzea: Oinarrietan gaztelera aitatu ez eta euskera aipatzen dalako, Espainiako Konstituzioko 3 artikulua zapaltzen da. Erraz ikusi daitekenez, hau errazoia baino gehiago aurre-eritxia da. Izan ere, deialdian esaten danez (2 oinarria, a)parte hartzeko espainiar nazionaltiatea euki behar bada, eta ingineiari industrial, arkitekto, mendi ingineri, meatz ingineri edo bide ingineri danak tituluen jabe izanik, (2. oinarria, c) esaten bada, eta lehiaketa horretako ariketa guztiak (euskerako gaitasunarena izan ezik, jakina) gazteleraz egiten diralarik, gaztelera bazterturik gelditzen dala edo geroko funtzionariak ez dauala behar dan gaitasunik gazteleraz izango, eta zentzu zabal batetan hori ez jakitetik zerbitzu eskasa eskeiniko dauala uste izatea, benetako Euskal Herria ez ezagutzea esan gura dau (62).

b) Euskeraz ez dakienekin diskriminazioa: Auzitegi Gorenaren errazoiketa hauxe da: Badagoz euskerarik ez dakien herritarrak be; hori jakiteari merituzko puntuazioa emoten jakon ezkero, hizkuntza dala eta diskriminazio baten aurrean gagoz.

Ulerkera teknika hau edo bardintasun/galerazpen oinarri honen eragikera oso kritikagarria da, era abstraktoz egiten dalako, une eta egoera guztietarako lez, gazteleraz gain beste hizkuntza ofizial bat daben lurraldeetan dagoan Administrazio baten eta Estatuko hizkuntza baino besterik ez daukan beste Administrazio baten artean egon behar leukiezan ezbardintasunak ez diralako kontutan hartzen. Harrigarriago oraindino Auzitegi Gorenaren jokera hau Konstituzio Auzitegiak ordurako bardintasun oinarriaren inguruan erabilkera zahatza egina daualarik, bere aurkako diskriminazio kontzeptua zehaztuaz.

Konstituzio Auzitegiaren irakatsiaren eredu lez beste hau ekarri daikegu, Espainiako Konstituzioko 14. artikuluaren ulerkeran dinoana: "Bardintasun oinarriak ez dau esan nahi kasu guztietan nabardura juridikoen elementu bereizgarri guztiak baztertuz jokatu behar danik; baina lege tratu ezbardin honek be muga batzuk ditu, diskriminazioaren mugak, hau da, desbardintasunak justifikazino objetiborik eta errazoizkorik ez eukitea" (63). Lege hartuemon konkretuen bide honetatik jo beharko dau aurrera bardintasun oinarria onartu dan ikusteko eta, ondoren, emoten diran erregimen ezbardintasunak errazoibageak ala, bestera, orain bardina ez dana ezbardin tratatzeko preminak eskatuari erantzuten deutsan (64).

Holan ba, ezelan be ezin lei ahaztu:

a) Kasu honetan funtzio publiko batera sartzeko dala eta Konstituzionalki, gaitasun eta merituen arabera egin behar dala;

b) Hemengo kasuan Administrazioa bere hizkuntza ofizialetan bata euskera dauan Autonomia Elkarte bateko Foru Aldundia dala;

d) Gaur gaurkoz Euskadiko Administrazio publikoak (dana ezin dalako egun batetik bestera egin) ez dautsela ofizial autortu dan euskeraren normaltasun eskariei erantzuten eta hori lortzeko pausoak emon behar dirala (65).

Azkenik Auzitegi Gorenak, behin eta barriro dakar euskerari emoten jakon puntazioaren neurribakotasuna. Garbi esanik, Auzitegi Gorenak hau areago joateko ekarten dauala emoten dau, bere errazoiketari jarraituz, euskera jakiteak, Euskal Herrian ez leukela ezetariko eraginik (besteen bat.n beharbada bai) euki behar funtzinari publikoa izaterakoan emoten daualako. Proportzioarena, epaia emoten dauanaren balorapen subjetiboa dan ezkero, ez da erreza batera etortea. Baina lehiaketarako oinarriak finkatzerakoan lehiaketa faserako puntuaketak hamabost punturaino zituala (9. oinarria) eta oposizino faseak -eta hortxe sartzen ziran euskerari sei puntu emoteak- berrogeita bost punturaino zituala kontutan harturik (8. oinarria), euskera jakiteak onenean be ehuneko hamar (%10) baino ez zituan, eta hortik desneurritasunik ez egotea argi gelditzen dala esan leiteke (66).

d) <u>Hizkuntza ofizial bi badagoz, ezin da euretariko bata bakarik baloratu.</u>

Epaiak dinoanez, ofizialtasun bikoitzaren aurka doa euskera jakitea puntuatu eta gaztelera ez puntuatzea. Epaiaren formulaketak absurdora garoaz, berak dinoana egitekotan hasierara goazelako. Euskerari emoten jakozan sei puntuak parratzeko gaztelerari beste hainbeste puntu emoten bajakoz (itxuraz hauxe planteatzen dabe ofizialtasuna diskriminatzailea izan ez daiten), euskera dakiana lehen langoxe aldeaz egongo da, (gure arteko eskolaritate mailea Estatukoa baino txikiagoa ez dalako) eta ezin da ahaztu euskeran alfabetatuak gaztelera be badakiala. Gaurko Euskal Autonomia Elkartean hizkuntza bakarreko bakarrak erdaldunak baino ez dira, eta funtzio publikorako lehiaketa batetara aurkezteko gauza diranetan ez dago inor ere gaztelerarik ez dakian euskaldun hutsik.

Auzitegi Goreneko Epaiak ulertu ez edo ezkutatu gura dauana hauxe da: funtzio publikora doazenen artean euskera dakianak puntu gehiago lortzea dala.

Horrez gainera, euskera jakiteari emoten jakon puntuazioa, gaitasun tekniku bat azaltzen dauan azterketa bat egin ondoren emoten da, eta ezelan be ez euskaldun familian jaio eta etxean euskeraz egiten dabenei egiten jaken erregalua, nahiz eta sarritan batzuk horrela ulertu gura izan. Gehiago oraindino, euskal gramatika ikasi eta idazten eta euskeraz irakurten saiatu ez dan euskaldunak ez dau puntuazio jasorik atarako. Gaurko egunean euskera dakialako puntazioak atara gura dituanak, aurretiaz ikastaroak eta alfabetatzeak eta egin beharra euki dau (67).

Hizkuntza bat Konstituzioz eta Estatutoz ofizial egiteak ez dau esan gura Herri-Arduralaritzak eta euren zerbitzuak egun horretatik benetan elebidunak diranik eta eskari barriei erantzuten deutsenik. Lege manuak ezin eikien horrelako indar taumaturgikorik euki, eta hain epe laburrean, ahalegin haundiak egiten diran arren, euskeraz ez dau lortu ofizial izatetik dagokion mailarik. Baekian hau holan izango zala Estatutoa egin ebanak, Gernikako Estatutoaren 35.1 artikuluan magistratu, epaikari eta idazkariak izentatzerakoan Euskal Forua eta euskera dakienei lehentasuna emoteko meritu lez aitatzen dauanean (68).

Epaira barriro etorriaz, Herri-Arduralaritza baten euskeraren ofizialtasuna benetan praktikara eroateko gauza dan prestaketa teknikoari baliorik emotea galazotea, eta hori ofizialtasun bikoitzaren izenean egin be gainera, Arduralaritzaren funtzionamentuan edo bere zerbitzuen efikazia handiagoan objetibitate handiagoa lortzeko pausuak galazotearen antzeko litzateke, Konstituzioak zera dinolako: Arduralaritzak interes orokorrei objetibitatez zerbitu eta efikaziaren arabera jokatzen dauala (103.1 art.); beraz egongo litzateken bide bakarra a posteriori jokatzea litzateke, jokabide horretatik letorkezan ekintzak zigortuaz edo legez kontrako jokabideak ekarritako kalteak zuzenduaz.

Azkenik, epaiak zuzenean ezarrigarri izan arren, EEAO Legea ez dau kontutan hartzen.

e) Epaia finkatzen daben aurretiko epai-jokabideak

Epaiak aburu, "kriterio" lez dakarzan jarraibideak Konstituzio Auzitegi eta Auzitegi Gorenak hari bardinetik aurretiaz emondakoak dirala esaten dau. Baina,

honetan be galduta dabil. Auzitegi Gorenak 80/04/21ean emondako epaia aitatzen dau eredutzat, baina gora-jote haretan aitatzen zan helburuak ez eukan zerikusirik oraingo honegaz, nahiz eta hizkuntzen ofizialkidetasunari buruzko aipamena egon, irakaskuntza ez unibertsitariari, hezkuntza sistemaren eraketari eta horren aurrean ikasleak Catalunayan zituen eskubideei buruz zihardun.

Epaiaren alde lez aitatzen dan 1.981eko Abenduaren 22ko Konstituzio Auzitegiaren epaiak sakonago begiratzea merezi dau (69), nahiz eta antzerako arazoa izan ez, eta hemen egiten jakon aipamena txarto ekarria izan, han esaten diran gauza batzuk baliagarri izan daitekez arazo honetan. Estatuko abogatuak inkonstituzional lez ekarrena, "Ley Catalana de Bibliotecas" dalakoaren 13.2 artikuluari buruzkoa zan, eskatu be hauxe eskatzen ebalako: Liburutegietako pertsonal teknikoak Barcelonako "Eskola de Bibliología" ikasketak eta titulazioa behar zituala, edo antzeko mailakoak izan ezkero Govern de la Generalitat-ek erabagi eikezanak. Horren Konstituzio aurkatasuna alde batetik eskumenetik etorren (Estatuaren hesparruetan sartzea) eta hori ez dagokigu hemen. Bestea era materialezkoa, funtzio publikora heltzeko baldintza bardinen eskubidea zapaltzea (23.2 art. EK). 1.984ko Urtarrilaren 25eko Epaitegi Gorenaren epaiaz zerikusia euki daiken azken puntu honetaz, Konstituzio-Auzitegiak hauxe esan dau (70):

> a) Orain dihardugun bardintasunaren oinarriaren ikuspuntutik, era honetako bereizketa -eskatzen dan gaitasun teknikoa- ez doa EKko 14. artikuluko oinarriaren aurka, ez eta funtzio eta kargu publikoetara bardintasunean joateko eskubidearen aurka be (EKko 23. art.); gaitasun teknikoaren bereizketa bete behar dituan arazoen izaera propioari dagokionean eta orokorki ezarria danean, hau da, ezaguera batzuei edo honen ezaugarri diran titulu batzuei begira emonak, baina lortzeko erabili dan bidea eta lortu ziran ikastetxea ez dira bereizgarri, horrelako formulak ez dabelako errazoirik eta, ondorenez, bardintasunaren oinarriaren aurka joango litzateke.
>
> b) Maila, ziklo edo espezialitate bakoitzean lortu diran titulu guztiak balio ezbardinez hartu ikasi daben zentroaren arabera, ezbardintasun horrek ez daukalako inongo zuzenbiderik eta bardintasun oinarriaren aurka legokelako... Eta ezbardintasun era orokor honez suertatuko balitz, zalantzarik be ez, funtzio publikora heldu gura daben herritarren aurka ere badauala eragina.

Zehaztasun apur batez ikusi danez gero, Konstituzio Auzitegiak eskuartean darabilen arazoa, erakunde batek emondako titulua eskatzearen inkonstituzionaltasuna da, eta ez da inondik hizkuntza arazorik agertzen; epai hori lehiaketa-oposizio baten euskera jakiteari puntuazino positibo bat emotea antikonstituzional dala esatea, suster bakoa da.

Gainera, Konstituzio Auzitegiak esandakoa jasoten hasirik, askozaz be ezargarriagoa da 1.983ko Abuztuaren 5ean (4.2 Z.O.) esan ebana, izan ere alde batetik, Komunitate Autonomoko hizkuntza jakitea "meritu lez emoten dau bakanteak betete-rakoan", eta bestetik, funtzionarioak, banan ez baina, Arduralaritza osoan harturik hizkuntza hori jakin egin behar dauala dino eta" (71).

Ikusiko danez, Konstituzio Auzitegiaren azken urteetako jokabidea herrialdeetako hizkuntza ofizialen aldekoiagoa da, baina ez izan behar leuken bezain argia (72).

Auzitegi Gorenaren ulerkera EKren 14 eta 23.2 artikuluak oker ulertze-tik dator (73). Artikuluon arabera, eta Auzitegiaren ustetan, herritarrak funtzio eta kargu publikoei bardintasun egoeran heltzeko eskubidea dabe. Gainera, Auzitegi Gorenak alde batera itzi dau EKren 102.2 artikulua. Artikulu honek, merezimendu eta gaitasun oinarrien arabera funtzio publikora heldu behar dala aurrikusten dau.

Beste alde batetik, argi dago eta holantxe egiaztatu dau Giza Eskubi-deen Europako Auzitegiak, bardintasun-oinarria ezin daiteke eroan aipatutako muturreraino. Inguruabar batzuk dirala eta, baztergarria izan daiteke, edo, egoera ezbardin-ezbardinetatik hasten bagara, Euskal Herrian esaterako herritarrak, gazte-lera ezagutu arren, Autonomia Elkarteko hizkuntza, euskera, ez dabe ezagutzen; beraz, arazo honetan, konstituzio bardintasun oinarriaren erabilera materiala bultzatu behar da, ez, ostera, formala.

Autonomia Elkarte batetako funtzio publiokoari heldu nahi deutson herritaren jarreratik, tokian-tokiko hizkuntza ezagutzen ez dauana ezagutzen dauan hautagaia baino txartoago dago. Epaileak ez ezagutze hau aintzakotzat hartzea sustrairik bakoa da, funtzionaria elkartearen zerbitzupean dagoalako oinarritik hasiz gero eta, tokian-tokiko hizkuntza ez ezagutzeak ha erabiltzeko eta, Estatutoaren arabera, erantzunak berean jasotzeko eskubidea daben herritarrak baztertuko ditu (74).

Arazo honen barrura jurisprudentziak aintzakotzat hartu ez dauan erizpide bat sartu behar da: Ofizialtasun bikoitza dalako oinarriaren eta funtzio publikoari heltzeko bardintasunaren artean ezin ezarri daiteke lehentasunik, ez hierarkiaren aldetik, ez eta abadagunearen aldetik ere. Lehenengoa hizkuntza elkarteei dagokie eta bigarrena, herritarreei. Beraz, jurisprudentziak gatazkak gogoan hartu eta oinarri biak lotzen erreztuko leuken argudiobidea eratu beharko leuke. Lehiaketa-oposiziorako deialdi guztiak euskera eta gaztelerari buruzko saio berezi bana euki beharko leukie, biak puntuazio bardinarekin, holan helburu bardinak lortuko litzatekez eta bardintasunaren aurkako izateagatik, ezingo litzateke aurka egin.

Baina garai honetako Auzitegi Gorenaren jokabideak, gaztelera Estatuaren hizkuntza ofiziala dala, behin eta barriro aipatzen dau bere epaietan (75):

Auzitegi Gorenarentzat, hizkuntza honen ofizialtasuna **ahaztu-ezina edo baztertu ezina** dala eta **ezagutu beharra** ofizialtasunaren **plusa** dala dakar. Era honetara, Auzitegi Gorenarentzat ofizialtasun bi dagoz: Bata **lehen mailako** esan daitekena, **ezagutu beharraren plusa** erantsita, gaztelerari bakarrik dagokiona, eta bardintasun formal osoz jantzita Estatuko beste hizkuntzen artean dabilena. Eta bestea, **bigarren mailakoa, ezagutu beharraren** jantzi bakoa, bardintasunaren alde malgutua izatea dauana eta lehen mailako ofizialtasunak mugatua.

Dana dala, Auzitegi Gorenaren jokabideak aldaketak jasan ditu. Aldaketa honen adierazgarri irakaskintza arloan emondako epai bi aitatuko dira. Bata, Euskeraren Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legea aurretikoa, 1.980/04/21eko epaia (76). Ikusi gazteleraz izan ezik beste hizkuntzetan irakastea zelan galarazoten dauan.

Bost urte geroago, lehen garaia gaindituta, Auzitegi Gorenak Catalunyako lurraldean plaza bati heldu nahi deutsien maisu-maistra guztiei, behin betiko plaza lortzeko, catalunyera ezagutu behar dabela eskatzen deutse.

1.985eko Abenduaren 16ko epaiak aldaketa dakarkio aurretiko lege jokabideari. Arazoa aztertzeko garai barria zabaltzen da. Estatuak, orohar (Autonomia Elkarteak barru dirala), "nahiz gaztelera, nahiz beste hizkuntza bat ofizialtzat daben Elkarteetako hizkuntzen ezauguera zihurtatzeko Konstituzio-betebeharra dau... eta irakasleak hizkuntza ofizial biak ezagutzeko erantzunbeharra dabe" (77).

Aldaketa honen eragina, beharbada, Konstituzio-Auzitegiaren jokabidetik datorkio, eta batez be EEAOLaren 14. art. buruz KAk ebatzitakoaren (78) ondoren, funtzio publikoa heltzeko euskeraren balorapena dakarren epaiak ugariak dira (79).

Baina, Euskal Herrian inondik be inork onartu ezin daikena zera da: Auzitegi Gorenari euskera dala-eta eragozpenak jartzen jarraitzen iztea, eta bere oztopo-bideagaitik Lurraldeko Auzitegiaren jokabide zuzena aldatu eragitea. Horretarako ez dauka inongo eskubiderik.

3.3.2. KONSTITUZIO AUZITEGIAREN HIZKUNTZA OFIZIALTASUN BIKOITZA.

3.3.2.1. Ofizialtasun bikoitza

Konstituzio-Auzitegiaren hizkuntzei buruzko jokabidean egun bat dago beste danen gainetik gogoan eukitekoa: 1.986/06/26a

Konstituzio-Auzitegiak, 1.986ko Ekainaren 26ko hiru epaietan (80), hirurak egun berean eta ponentziagile berberak emonak diranez, ofizialtasun bikoitzari (81) buruzko teoria orokor antzeko bat ezarri nahi izan dau (82). 1.982/10. Euskal Legeari buruzko epaiak, lehen sei zuzenbidezko oinarrietan (aurreratzean ZO), planteiamendu orokorra egin nahi dauala argi dago. ZO honeek, galiziar legeari buruzko epaiaren 2. ZOgaz batera, batzen dabe funtsean teoria orokor hori.

Konstituzio-Auzitegiaren jarrera ez d- bardina, eta bere errazoibideak kontraesanak dabezan jarraibideak ditu. Hizkuntza propioaren eta normalizazioaren gai garrantzitsuak, batez
be Euskal Herrian, alde batera izten ditu (83). Larriena, zera da, Euskal Legeari buruzko epaian dagozan oinarri orokorrak zehatz aplikatzerakoan ateratzen diran desakortasunak egotea (84).

Ofizialtasun bikoitzaren teoria orokorraren azaldapena nahiko azaleko eta formala agertzen da. Gaztelera bera eta gaztelera erabilten dauan gizarte-taldea nagusitu nahi dauan inertzia ideologikoa azpian sentitzen da (85).

Euskal Legeari buruzko epaiaren lehen ZOk ofizialtasun bikoitzaren arauemote-eskema orokortzat hartu daikena aurkezten dau. Ofizialtasun bikoitzaren oinarriak jartzen ditu.

Estatuaren hizkuntza arauketa barriaren abioagaz hasten da (86). Soziologia egiaztapena baino ez da, baina gazteleraren nagusitasuna onartuz, ondorio juridikodun soziologia joera azaleratuko ez baleu, babeskeria hori ez litzateke garrantzitsua izango.

"Hizkuntza arloko Konstituzio-arauketa funtsean daukana" (87) EKren 3. art. dala baieztatu eta aintzin Idazpuruan kokatuta egotea azpimarratzen dau.

Baieztapen hau ezin hobea da, konstituzioaren legegileak, ustegabean, beharbada, EKren lehen hiru artikuluetan itziezinezko hiru ezbardintasunak ezarri ditu, espainiar Estatuan benetako demokraziaz hitz egin ahal izan dadin: anizkoiztasun politikoa, 1. art.an; lurralde-anizkoiztasuna 2. art.an, eta kultur eta hizkuntza anizkoiztasuna, 3. art.an.

Hizkuntza arloan legegintzazko gradualtasuna ere arau honek baieztatzen dau (88). "Hau da, lurraldean-lurraldeko hizkuntzen ofizialtasuna, EKn ez da zuzenean aintzatesten, aipatu baino ez dau egiten, ofizialtasunari geroago edukina emoten deutsoenak Autonomia Elkarteak diralarik" (89).

Azkenik, hizkuntza arloko konstituziotasun multzoa izenekoa ere baieztatzen dau (90). Gogarpen honek tokian-tokiko hizkuntzari buruzko Estatutoen kontzeptua lehen mailan jartzen dau. Ideia hau EHA Estatutoak 6.1 art. gogor aipatua da eta KAk gogoan hartu be ez dau egin.

1. zenbakiaren babes-jitea alde batera itzita, KAren azalpena zuzena da, koofizialtasun hitzaren erabilera ofizialtasunarena baino txikiagoa bada be, argudioak zentzuzkoak dira eta konpondu beharreko arazoen urtenbide zuzena emoten lagundu beharko leukie.

Ofizialtasun itxurabakoa

Konstituzio-Auzitegiaren 1.986/82. Epaiaren 2. ZOn ofizialtasuna zer dan azaldu nahi da (91).

Konstituzio-Auzitegiak, argi ta garbi, salbuespenik barik, hizkuntza ofizialtasunaren hirualdekotasuna egiaztatzen dau:

- Herrisailaren barruko eraketan.
- Herrisaileirekiko hartuemonetan.
- Herrisail eta herritarren artean.

Azaldapen hau zuzena da, baina lurraldeetako hizkuntza propioak ez jakiteko onartzen dauan eskubide zehazkabeagaz ezin da buztartu. Gainera, azaldapen hori zuzena izango da, beti be herrisailak egingo daben hizkuntza aukera herritarrei egundo ezingo jakela ezarri ulertzen bada. Epaiak honetaraxe joten dau 4. ZOn, herritarrak hizkuntza aukeratzeko dauan eskubidea onartzen dauanean (92). Baina, euskal gizartea aitatuz, Euskal Herrian euskeraren ofizialtasuna zenbait hesparrutan halazelakoa dala dinoanean, ez dabil ofizialtasun bikoitzaren errazoibide jatorra bilatzen. Beharbada, Euskal Legearen 8.3 artikuluaren Konstituzio-aurkakotasuna adierazoteko argudiobide erabilgarria prestatzen dihardu.

Euskeraren soziologia planteiamenduak erabili leitekez ofizialtasun bikoitza ukatzeko be, eta beharbada, demokrazia-giro barriak eraginda, euskal gizarteko errealitate horri bideragarritasun juridikoa emon beharra izan ez danik ezin esan.

Bardintasun ezbardina.

1.986/82. epaiaren hasieran, gaztelera bakarrik aipatzen dauan berbaroa nabari da (93). 2. ZOren bigarren zatiaren azken hitzetan be bardintasun-erizpideak dirau (94).

Gaztelerarako erabilten dan izena **ofizialtasuna** da eta lurraldean-lurraldeko hizkuntzetarako erabilten dana **koofizialta-suna** da. Autonomia Elkarteetako hizkuntzak gaztelerarekin batera bakarrik ofizialak izan daitekez, eta gaztelera bakarrik eta besteekin batera izan daiteke. Argi dago, lurraldetasunak bakarrik dakarkiola eragina ofizialtasun bikoitzaren parekidetasunari.

Alde batetik, ofizialtasun bikoitza dagoan lurraldean, hizkuntza bata, bestea bezain ofiziala da. Ofizialtasunak hizkuntza hori burujabe eta bananduezina bihurtzen dau.

Bestetik, lurraldeko hizkuntza propio hori ez ezagutzea ezin da inondik be buztartu bere ofizialtasunagaz.

Ofizialtasun bikoitzaren hizkuntza bakoitza lurralde osoan eta ondorio guztiekin ofiziala dala autortu behar da. Epaia bere planteiamendu orokorretan gazteleraren aldekerian ez da jausten. Baina Konstituzio-Auzitegiak, azkenean, bardintasun-erizpidea aldatzen dau, nahitaezkoa dan bakarra, ofizialtasun bikoitza daben Autonomia Elkarteetan be, gaztelera dala baieztatzen dauanean, eta zentzunik bako argudiobideari eta Autonomia Elkarteko hizkuntza propioa ez ezagutzeko eskubide berezi horren baieztapenari eusten deutso (95).

Konstituzio Auzitegiak errezoibide lez erabilten dauazan oinarriak honakoak dira:

- EKren 3.1 atikuluak gaztelera, Estatuaren hizkuntza ofizial lez ezagutzeko betebehar orokorra ezartzen dau (96). Baieztapen hau zalantzagarria da. Alde batetik, manuak gazteleraren Estatuizaera baiezten dau. Bestetik, loturarik barik, punto bitartez

bananduta, ezagutzeko eskubidea aldarrikatzen dau. Eskubide horren edukina hitzen hitzez-hitzezko esan guratik harantzago aztertu behar da (97).

Tratu ezbardin honen zioa, Konstituzio-Auzitegiaren ustez, Estatuko hizkuntza lez Konstituzioz gaztelera hartzea da. Baina ezbardintasun hau ez da bidezkoa, eta edozein hizkuntza ofizialetan edozein herritarrek ahoz nahi idatziz egiten dauan agerpenaren aurrean Herrisailaren aldetik ezin da ez dauala ezagutzen edo ulertzen Herrisailaren aldetik esan. Izan be,

a) Gaztelera nahitaez ezagutu beharrak, bera, Estatu osoko herrisail guztien hizkuntza ofizialadalako, ez dau lurraldean-lurraldeko hizkuntza, bere lurraldean eta bertan kokatzen diran herrisail guztientzat ere ofiziala dana, gaztelerarekin batera nahitaez ezagutu behar izatea baztertzen.

b) Gaztelera espainiar guztien hizkuntza izateak ez dau lurraldean-lurraldeko hizkuntza lurralde horretan bizi diran guztientzat ere ofiziala izatea baztertzen.

3.3.2.2. Gaztelera ezagutu beharra eta beste hizkuntzak ezagutu nahi eza

"Gaztelera Estatuaren espainiar hizkuntza ofizial" dala dinoan EKren 3.1 artikuluaren irakurketa txarto moldatzen da Konstituzio-Auzitegiak nahi danan ulerkeragaz, Konstituzio-Auzitegiak adierazpen horren esanguragaz gaztelera Estatu osoko espainiar hizkuntza ofiziala dala uste dau (98).

Orohar, Konstituzio-Auzitegiaren egungo jarrera legezko testuarekin eta Auzitegi berak 1.981eko Uztailaren 28an emondako epaian ezarri eban doktrinarekin oso txarto moldatzen da; epai horretan, konstituzioak, bere manuetan, "Estatu" hitza edukin eta erdiespen berberekin ez dauala erabiltzen esan eban (99). Orduan, manuaren ulerkera eta konstituzioa oso ondo lotzen ziran eta harrigarria da jurisprudentziaren aldaketa hau. Aldaketa honen benetako zioa, Puig Salellas-entzat, "gaztelera ezagutzeko betebeharraren gehiegizko erdiespena zelan edo halan oinarritzeko egin zan interesdun irakurketa da" (100).

Hau larria da, Konstituzio-Auzitegiak erizpidea, bidezkoketa dialektikorik barik, aldatu dau ta. Hots, Konstituzio-Auzitegiaren 86ko 82. Epaiaren 2garren ZOren arabera, "Estatu" hitzak, estatuaren administrazioaren antolaketa ezezik, espainiar herrisail guztiak, autonomietakoak eta tokian-tokiak barru, aipatzen ditu. 1.981eko epaiaren tesia ezertan aldatzeke eta Konstituzio-Auzitegiak jurisprudentziaren aldaketa guztietan itziezinezkotzat, EKren 14. artikulua ez urratzeko, aipatu dituan beharkizunetarik bat be egon barik, erizpidea aldatu da (101). Ziorik ez egote honek Konstituzio-Auzitegiaren jarrera, ez honetan ez beste puntu batzutan be, behinbetikoa ez dala pentsaerazoten dau.

Jurisprudentziaren erizpide barri honek betebehar hori ezbardindu nahi dauan izaerarentzako lehen laguntza bilatu nahi dau, betebehar hori gaztelerarentzat bakarrik ikusi da ta, EK eta AEek beste hizkuntzentzat ezarri barik (102). Konstituzio-Auzitegiak honi buruz dituan argudioak ez dira holan aztertu. Alde batetik, gaztelera Estatu osoan nahitaez ezagutu beharra, geografia aldetik barik, hizkuntza ofizialaren izatetik dator. Hizkuntza ofiziala bada, nahitaez ezagutu behar da, lurraldeko erdiespen edo hedapenak ofizialtasunen arteko diferentzia koalitatiboak ezartzeko biderik emon barik. Betebehar hori dauan araua, eskubidea eta betebeharraren artean, puntu eta jarraia tartekatuta idatzita badago be. Puig Salellas-entzat, "idazkuntzak puntu eta

jarraia izango ez baleu be, ezagutzeko betebeharra ez litzateke gaztelerarena bakarrik izango, betebehar hori ofizialtasunak berak ezartzen dau ta" (103).

KAren oinarria EKren 3.1 artikuluaren interesdun eta hitzez-hitzezko ulerkera da, nahi dan esklusibotasuna eta lurral-dean-lurraldeko hizkuntzentzako antzeko adierazpenik ez egotea hartuemonetan jartzen dituanean, eta gazteleraren (esklusibotasuna) edo egoera (pribiligiatua) hementxe jarri nahi danez gero, abiotzat, beste hizkuntzak ez dirala ezagutzen balioz baieztatu leike. KAren ustez, gaztelera ezagutzeko konstituzio-betebeharra baieztatzeak "AEetan harekin batera ofizialak diran gainerako espainiar hizkuntzetatik bereizten dau" (104).

Argudioa, ostera be ez da zuzena. Isiltasun horren funtsa EK-k lurraldean-lurraldeko hizkuntzen ofizialtasuna bakarrik iragartzea izan leiteke, AEetatik batek be bere hizkuntza ezagutzeko betebeharra ezarri ez dauala egia bada be.

Dana dala, jurisprudentziaren argudioaren benetako askieza EKren azaleko eta hitzez-hitzezko ulerkeran datza, adierazpenaren esangura mekanikoenean ulertuta. Ofizialtasunaren konstituzio-baieztapenak KAEetan be zer esan nahi dauan gogoratzea komeni da. Testuak batera irakurrita (105), hizkuntza baten ofizialtasunak honakook eskatzen ditu:

> Alde batetik, KAren hitzak erabiliz, botere publikoak, Estatuarenak, AEenak edo toki sailekoakizan, herritarrekin egiten dituen komunikazio guztien erabateko eraginkortasuna, erabateko baliagarritasuna eta ondore juridikoak egonaz.
>
> Bestetik, herritarrak lurraldeko edozein botere publikorekin izango dituen hartuemonetan hizkuntza aukeratzeko dauan eskubidea.

Beraz, erabateko baliagarritasun eta eraginkortasun juridikoaren beharbeharrezko lehen ondorioa komunikazio horrek ez dirala ezagutzen balioz ezin esatea da; eta bigarrena, herritarraren eskubidea. 3.1 artikuluak, bere edukinaren zioz, gaztelerari buruz bakarrik aldarrikatzen dituan ofizialtasunaren funtsezko aspektu biak dira. Manuak bere sakontasun osoa argudio juridiko honetatik bakarrik lortzen dau eta EKren 3.1 artikuluak gaztelerari buruz aldarrikatzen dauana, EKren 3.2 artikuluarengatik, gainerako hizkuntza ofizialentzat be ezarrigarria danik ezin da ukatu.

Argudio juridiko huts hau onartuta, AEen isiltasunak ez dau garrantzirik, eurek ofizialtasunari buruz egiten daben adierazpena zalantza bakoa da ta. Hau da, hizkuntza ofiziala da edo ez da. Bada, aldi berean ezagutzeko betebeharra eta ez dala ezagutzen ezin aipatu izatea diran ondorio biak ditu.

Azken batean, KAren helburua, planteiamendu horren bitartez, lurraldean-lurraldeko hizkuntzak ez ezagutzeko eskubide arraroa, (KAren 86ko 83. Eren 3. ZO), benetako babes juridikorako eskubidea aurkeztuz, "ezagutu beharra izan barik, hizkuntza ofizial bat ez ezagutzeko" herritarren eskubidea dagoala baieztatzea da (106).

Puig Salellas-entzat, epaiak oker dialektikoa dau, konstituzioaren eta Estatutoen isiltasuna ez ezagutzeko eskubidearen baieztapenagaz nahastatzen dauanean (107).

Bestetik, KAk ez ditu ez-ezagutze hori, beronen inguruabarrak, edukina eta alegatzeko unea adierazoten.

Ez-ezagutze hori alegatzeko nahi dan eskubide horrek zentzunik bako egoerara eroango gindukez. Ofizialtasuna baieztatzen dauan arautegiak berak (EK eta AEak), isiltasuna edo ez aipatzea bakarrik bide dala, haren ondorioak balio barik izteko aukera itziko leuke.

Holan balitz, hizkuntza bakoitzaren ofizialtasunaren aurka joango litzateke ulerkera hau (108).

KAk berak hizkuntzaren ofizialtasuna "gizarte-fenomeno lez dauan errealitate eta erabileratik at" emoten dala adierazoten dau.

Ez EKn ez AEetan, lurraldean-lurraldeko hizkuntzak ezagutzeko betebeharra, egin ez bada be, ez dabe bereziki baztertu be egin.

Puntu honi buruzko KAren jurisprudentzia laburbatuz, oinarri bakoa da: isiltasuna ukapenarekin nahastaten dau; ofizialtasun kontzeptuarekin kontraesanean

dago eta, gainera, EKren 3.3 artikuluari dagokionez, baztergarria da, harek begiramen eta babeserako dauan manua ekainaren 26ko hiru epaiak aintzakotzat ez dabe hartu ta.

Ulerkera ezkor hau oso nabaria da KAren 86ko 84. Epaiaren 2. ZOn, 83/3. galizar legearen 1.2 artikulua Konstituzio aurkakoa dala adierazoeran, "betebehar hori konstituzioan ez dala esan" baieztatuz. KA ezelango jarraipen barik betebehar hori galiziar hizkuntzaren koofizialtasunari ez dagokiola baieztatzera igarotzen da (109).

Hizkuntza normalizazioaren atzerapena eta herrisailaren erantzunkizun-eza

KAk herritarrak hizkuntza aukeratzeko dauan eskubidea onartzen dau eta hau ofizialtasun bikoitzaren sistemaren funtsezko aspektua da (110). Halan be, eskubide hau barregarria izango litzateke, herrisailak hizkuntza baliagarritasun osoa izango ez baleu, hau da, funtzionari bakoitzak hizkuntza ofizial biak ezagutuko ez baleuz.

KAk bestela be hartzen dau baieztapen hau (111), erantzun behar hori Administrazioa orohar hartuta onartzen dau, hau kasu berezia bada be.

KAren 86ko 82. Eren 8. ZO, herritarrak aukeratuko dauan hizkuntzan arreta jasotzeko dauan eskubidea baieztatzen hasten da. (EEAOLaren 6.1 art.) (112)

Jurisprudentziaren gogarpen hau berberaren kontraesanean dago, erabilteko eskubideak idazkien aurkezpena baino gehiago badakar eta. Gainera, epaiak dinoanez (3. ZO), eskubide honen oinarria EK eta AEetan dagoanez, ezin daiteke murriztu herritarraren komunikazioaren ahozko edo idatzizko itxurarengaitik. Eskubide hau ez legoke osorik, herritarra eta funtzionariaren arteko alkarrizketa mailan be ezin erabili eta garatu ahal bada.

KAk ezin dau bereganatu azken erizpide hau be, KAren 86ko 82. Eren 8. ZOk banan-banakako betebehar hau ukatzen dau ta. Honela, normalizazioa, aspektu garrantzitsu honen eratzean, Administrazio bakoitzaren esku gelditzen da, zehastasun bako egoera segurtatuz.

Horregaitik hasieran, herritarrak hizkuntza biak erabilteko dauan eskubidea onartzen bada be, berehalaxe murrizten da hurrengo eskemaren arabera:

> Idatziz lurraldean-lurraldeko hizkuntzan aurkezten diran agiriak ezin ukatu izateko eskubidea bakarrik dago.
>
> Etorkizunean, eskubidea Administrazioaren baliagarritasunera be zabalduko da, bera orohar hartuta, ez funtzionari bakoitzari begira, herri

tarrari lurraldean-lurraldeko hizkuntzan be edo berean bakarrik arreta egiteko gauza izan dadin.

KAk hizkuntza normalizazioaren arazoagaitik dauan arduraeza nabarmenagoa da, eskubidearen zabalkuntza, gauzatu dadin erari eta denborari dagokienez, Administrazio bakoitzaren esku dagoala kontutan hartzen bada (113).

Gauzak luzatzeko joera hau nabari eta garbia da (114). Hau gorabehera, KAk, herritarrak prozeduran erabili beharreko hizkuntza dalako arazoari derrigor heldu behar deutso.

Izan be, KAk, 8. ZOn (115), gaia aztertzen badau be, ez dau zehatzmehatz aztertzen. Lehen herritarrei onartu deutsen protagonismoarekin eta Administrazioaren zerbitzu ezaugarriarekin lotu daitekeen konponbide baikorra onartu nahi dau. Arreta haundia jartzen dau konpentsazio-gogarpenak ezarteko, honela, oinarri orokorra, ingurualdeko administrazioari dagokionez, adierazpen teoriko huts bihurtu daitekelarik.

Epaiak barriz be, ahalbide, eskuarte eta neurriak aipatzen ditu (116), ofizialtasun kontzeptuarekin txarto buztartzen dan definizio eza jarriz. Mugatuezin hau beste testu batekin osotzen dan itaundu liteke (117). Baina, epaiak barriro aipatzen dau Administrazio bakoitzaren zuhurtziarakotasuna, zuhurtziarakotasun edo autonomia hori Justiziaren Administrazioaren eratzean bereziki baieztatzen dalarik (118).

Puig Salellas-entzat, KAren 86ko Eren 8. ZOren helburua honako hau izan daiteke (119):

> Hizkuntzaren ofizialtasunak herritarrak Herrisaikagandik arreta izateko daukan eskubidea dakar.
>
> Arreta jasotzeko eskubideak herrisailaren baliagarritasuna edo erantzunkizuna dakar, nahiz ahozko mailan, nahiz idatzizkoan.
>
> Oraingoz, herritarrak arreta idatziz jasotzekoeskubidea bakarrik erabili daike, baina beti be eskubide eztabaida ezin-

tzat hartuaz.

Arreta ahoz jaso eta hizkuntza prozeduran mugatzeko eskubidea herrisailaren moldaketaren piskanako prozesuaren menpe dago.

Erritmoa eta eskuarteak arduralaritzak arautu behar baditu be, ahal dauanari neurriak ipini eta suztatzea ez jako ukatzen.

Herritarraren eskubidea betetzeko behar diran eskuarteak jarri eta moldaketaren erritmoa arduralaritza guztiak ezarri behar dabez, Estatuarenak eta justiziarenak barruan diralarik.

Lurraldean-lurraldeko hizkuntza ezagutzeko ez dago funtzionarien banan-banakako erantzunbeharrik, Baina exigentzia hau arduralaritza bakoitzak ezarri daike aukerabideetan. Neurri logiko eta erabagikorrena horixe izango da.

Euskal Herriak, ostera, ezin dau onartu osorik eta osoan ulerkera hau, Herritarrak ezin dau gehiago jasan herrisailaren atzerapena eta bere erantzunkizun falta.

Herrikideak ezin dau beti zain iraun herriaren erantzuna jasotzeko. Nonahi eta beti daukan eskubideari bai herriak eta bai Estatuak zor deutso erantzunkizuna.

OHARRAK

1. PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; "La doble oficialitat Linguística com a problema jurídic", in: Llengua i Dret 1, Juny de 1.983; 53 or. eta hurr.

2. EKren 3.1 eta 3.2 art., in: 1978-12-29ko EBO.

3. GEren 6.1. artikulua.

4. Gaztelera ezagutzeko beharkuna hartuta be, herritarren iharduna ezin da oztopatu. Herrisailak dau herritarraren eskubideari erantzuteko ardurakizuna eta beharkuna.
   Ikus: PUIG I SALELLAS, J.M.; O.C., 55 or.

5. Ikus: - GARMENDIA, FRANCISCO; "Euskara y Comunidad Vasca", in: Euskaldunak V (La etnia Vasca), Etor, Donostia 1985, 307 or.
   - PUIG I SALELLAS, J. M.; O.C., 58-59 orr.

6. EKren 3. art., GEren 6. art. eta EEAOLren 3. art.

7. GEren 6.3 art. eta EEAOLren 4. artikuluak hizkuntzagaitik diskriminaziorik ez egiteko manatzen dabe, baina Gernikako Estatutoak eta EEAOLk euskera gazteleraren menpe dagoala onartzen dabela dirudi.

8. Ikus: COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; El régimen jurídico de la oficialidad del Euskara, Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Bilbo 1989, 33 or eta batez be 5. oharrean.

9. Kasu batzuetan agiriak itzuli beharra izango da. Esaterako, "las actuaciones y documentos presentados en el idioma oficial de la Comunidad Autónoma" (LOPJ, 6/1.985, de 1 de Julio). Baina beste Autonomia Elkarte bateko hizkuntza propioa bardina bada ez dago itzuli beharrik.

10. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; "La doble oficialitat Linguística com a problema jurídic", in: Llengua i Dret 1, O.C., 60 or.

11. Ikusten danez, Konstituzioa bera hasten da gaztelera gorengo tokian jarri eta beste hizkuntzentzat beste maila batzuk izango dirala adierazoten.

12. Ikus: Eguna, 1990ko apirilak 26:
    "Euskeraren aurkako erasoak salatu."

13. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; "La doble oficialitat Linguística com a problema jurídic", in: Llengua i Dret 1, O.C., 61 or.

14. Bertan, 62 or.

15. GEren 6.1 artikulua.

16. GEren 6.2 artikulua.

17. 1.983ko Abuztuaren 5ean (4. ZOan)

18. Ikus: URRUTIA, J.; "Factores jurídico-legales que inciden en el proceso histórico del euskara", in: El libro blanco del esukera, 389 or. eta hurr.

19. PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; "La doble oficialitat Linguística com a problema jurídic", O.C., 82 or.

20. Bertan.

21. Ikus: PUIG I SALELLAS; "La doble oficialitat lingüística a l'estat espanyol", in: Llengua i Dret. Treballs de l'área 5 del segon Congrés Internacional de la Llengua Catalana. Barcelona-Andorra 1.986, 82 or.

22. Ikus: PUIG I SALELLAS, J.M.; O.C., 83 or.

23. Bertan.

24. Ikus: PUIG I SALELLAS, J.M.; O.C., 84 or.

25. Adibide argi lez ikusi EEAOLko 5. artikulua:
"Euskal Herritar guztiak dabe hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabilteko eskubidea." Ofizialtasun bikoitzak herritarrari emoten deutson eskubidea zehaztu eta garatu dagi: euskera Ardularitzagaz erabili leike, lanean, agirietan, irakaskintza hartzerakoan, batzarretan.

26. Ikus: PUIG I SALELLAS, J.; O.C., 85 or.

27. PUIG I SALELLAS; "El doble oficialitat lingüística a l'estat espanyol" in Llengua i Dret, Treballs de l'área 5 del segon Congrés Internacional de la Llengua Catalana. Barcelona-Andorra, 1.986. 86 or.

28. Ikus: CATALUNYAR ESTATUTOAREN, 3.3. artikulua. Euskal Estatutoaren 6.2, Galiziar Estatutoaren 7.2, Valenciar Estatutoaren 4 eta 5 eta baleartar Estatutoaren 14. artikuluak. Arau guztiok, Autonomi Elkarteak normalizazioan daben protagonismoa ezartzen dabe.

29. Ikus: - GE 6.2 art.
- FONT, ANTONI; Llengua i Dret. Treballs de l'área 5 del segon Congrés Internacional de la Llengua Catalana. Barcelona-Andorra 1.986, 123 or.
- PUIG I SALELLAS, J.; O.C., 87 or.

30. Ikus: PUIG I SALELLAS, J.; Llengua i Dret 1, O.C., 65 or.

31. Ikus: PUIG I SALELLAS, J.; Llengua i Dret 1, O.C., 66 or.

32. Bertan.

33. Ikus: PUIG I SALELLAS "La doble oficialitat lingüística com a problema jurídic", in: Revista de Llengua i Dret 1, Juny de 1.983. 66 or.

34. EEAOLren 4., 5.2.b, 16.2., 21. artikuluak.

35. Ikus: EEAOL 5. art. eta GE 6.3 art.

36. Ikus: COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; El regimen jurídico de la oficialidad del Euskara, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Oñati 1989, 101 eta 103 orr.

37. GEren 6.2. artikulua, EEAOLren 5.3., 6.1., 9.3., 17., 20. eta 26. artikuluak.

38. Ikus: GEren 27.5 art., EKren 33.2 eta GEren 13.2 art.

39. Ikus: EEAOL 5. art.

40. Soziolinguistikako errazoi sakonak beharko dira testu bikoitzak argitaratzeko. Gaztelerazko testuak salbuspen eta iragankortasunez onartuko dira bakarrik.

41. Ofizialtasunak hizkuntza erabileran bata edo bestea aukeratzeko eskubidea emoten dau. Elebitasuna, hizkuntza biak ezagutu eta biak batera erabiltea da.
Ikus: ALKORTA, M.; BONILLO, O.; DOMENCH, A.; "Katalana, hizkuntza ofiziala ala koofiziala?", in: II Euskal Mundu-Biltzarra, II alea, 381 or.

42. PUIG I SALELLASek jarrera malgua dau honetan. Toki Korporazioentzat, EKren

140. art.ak aldarrikatzen dauan autonomia kontzeptua eta tokian-tokiko hizkuntzarekiko begiramena buztartu nahi ditu. Honen ondorioz, tokian tokiko hizkuntzan ala testu bikoitzetan ihardungo dan aukeratu behar da. Gaztelera bakarrik be erabili ahal da, baina iragangaitzez. (Ikus: Llengua i Dret 1, 71 or.)

43. EEAOLren 6. eta 8. art.

44. IKus: Gorteen BOren 1.291. zb., eta 80-04-16koa.

45. Azken joera hau da Puig Salellasek nahiago dauana. Ikus: Llengua i Dret 1, 72 or. Baita: URRUTIA, A.; "Euskera eta Dokumentu notarialak", in: II Euskal Mundu-Biltzarra, II Alea, 27. or.

46. Gai honi buruz ikus:
MILIAN I MASSANA, A.; "La obligación de los profesores de EGB de conocer el catalán y el castellano para ocupar plaza definitiva en Cataluña", in: Autonomies, RCDP. Num 2/3, Diciembre 1985, 93 or. eta hurr.

47. Ikus: PUIG I SALELLAS, J.; O.C., Llengua i Dret 1, 74 or.

48. Bertan.

49. Catalunyako Estatutoaren idazkera murrizkorragoa da.
Ikus: 16. art.

50. EEAOL 22. art.

51. EEAOL 23. art.

52. Bertan.

53. MOLES I PLAZA, RAMON; eta MARTI I BOTELLA, JORDI; "Notes sobre la doctrina del tribunal suprem en relació amb el fet multilingüe a l'estat espanyol." en la Revista LLENGUA I DRET, nº 9, Juny de 1.987. 134 or.

54. Ikus: Euskeraren aurkako epaiak:
- Euskera merezimendu puntuagarri jartzeagaitik:
  1984-01-25, 1984-05-03 eta 1985-03-28.
- Tokiko hizkuntzaren beharrizana eskatzeagaitik:
  1984-12-27 eta 1984-04-13.
- Behin betiko plaza bat hartzeko euskera eskatzeagaitik:
  1984-01-01.
- Epai honeetan euskera merezimendu lez hartzea diskriminazioa da:

1984-03-03, 1984-04-16, 1984-07-27, 1986-03-01, 1986-07-11 eta 1986-07-23.

55. Euskeraren aldeko eta bereizkeriarik ezaren aldekoen artean honako batzuk aitatu leikez:
    - TORNOS MAS, J.; en "La función pública en las Comunidades Autónomas (condicionantes previos y marco normativo de la potestad legislativa autónoma)" en Revista Vasca de Administración Pública nº 7, 1.983, pp. 128 y 129.
    - MARTIN MATEO, R.; en su Manual de Derecho Autonómico, Madrid, 1.984, pp. 122 y 123).
    - MILLAN I MASSANA, A.; "La ordenación estatutaria de las lenguas españolas distintas del castellano" en Revista Vasca de Administración Pública nº 6, 1.983, p. 244.
    - CASTELLS ARTECHE, J.M.; en La Euskadi Autónoma y los funcionarios públicos. Erein, San Sebastián, 1.980, p. 113.
    - COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; El regimen jurídico de la oficialidad del Euskera, O.C.
    - AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, IÑAKI; "El euskera discrimina al castellano a juicio del Tribunal Supremo. La Igualdad lingüística efectiva a Debate", in: RVAP, 9. zb., 1984, 241 or. eta hurr.

56. Sentencia de 23 de Julio de 1.984.

57. COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; eta AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, IÑAKI izan dira epai honen bi aztertzaile interesgarri. (Ikus: 62 oharra.)

58. MOLES I PLAZA, RAMON, eta MARTIN I BOTELLA, JORDI; in: Revista Llengua i Dret 9, Juny de 1.987. 135 or.
    "Esta situación rompe el principio constitucional de igualdad del artículo 14 de la Constitución, en cuanto que se conculca el derecho de los españoles al acceso a las funciones públicas disminuido para todos aquellos que no sean parlantes del euskera, pues que duda cabe que éstos tienen de salida unos puntos que no tienen el resto de los españoles, con las consiguiente vulneración de tal artículo [...] tampoco tiene fuerza convincente el que se compare la puntuación con la que se concede al idioma inglés, pues aunque la cuantificación de puntos puede ser correcta, no lo es si se da la diferencia de puntuación del que habla euskera al que habla castellano, al ser ambas dos lenguas oficiales que los habitantes del País Vasco tienen el derecho de conocer y usar."

59. Asko da, baina euskera arazoak konpontzeko edo, beste lurralde bateko Auzitegira joan behar Euskal Herriko Autonomia Estatutoa eta beste arauak zuzen aplikatzen diran jakiteko.

60. Ikus: - AGIRREAZKUENAGA, ZIGORRAGA, IÑAKI; O.C., 243 or.
- DE WITTE, B.; Llengua i Dret, 6. zb., 1985, 78 or., oharra.

61. ARANZADI, 205 or.
Batez be azken "considerando" biak.
Baita: AGIREAZKUENAGA ZIGORRAGA, IÑAKI; O.C., 243-246 orr.

62. Errazoibide hau eta hurrengoak be ikus:
- COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; "Cooficialidad lingüística y discriminación por razón de la Lengua" in: Revista Española de Derecho Administrativo, 42. zb., 1984, 465-468 orr.
- AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, IÑAKI; O.C., 247-251 orr.

63. 5 de Mayo de 1.982 (RA) FJ 3

64. COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; O.C., 465 or., 5. oharra.
"Si no existe un tertium comparationis no hay violación del artículo 14 CE, ha dicho el Tribunal Constitucional en su sentencia de 26 de marzo de 1984 (RA), fj. 3, reiterando su postura de que la aplicación del principio de igualdad 'requiere que exista un término de comparación adecuado, de forma que se haya producido un tratamiento desigual en supuestos sustancialmente idénticos' [sentencia de 7 de febrero de 1984 (RA), fj. 7]"

65. Ikusi: COBREROS: O.C., 466. orrialdean, 6. oharra.
"A menos de que queramos olvidarnos del artículo 3º, 1, del Código Civil. Para un conocimiento más cabal de esta realidad puede consultarse el reciente trabajo dirigido desde el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco "La lucha del euskera en la Comunidad Autónoma Vasca", Vitoria, 1.983. Y referido exclusivamente a Guipúzcoa, el estudio elaborado por SIADECO, "Euskeraren erabilpena", en JAKIN, núm. 30 (1.984), pág. 121 y sigs. Para un enfoque global sigue siendo necesaria la consulta del "Libro Blanco del Euskera" (AA.VV), Real Academia de la Lengua Vasca/ Euskaltzaindia, 1.977.

66. COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; O.C.; 466 or.

67. Epai hau emon zanean, Euskal Herrian ez egoan Unibertsitateko ikasketak euskera hutsean egin eban ikaslerik.

68. COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; O.C., 467 or., 11.oharra.
"En sentido análogo, los artículos 25 y 26, 1, del Estatuto Gallego. Sobre las consecuencias de la cooficialidad de las lenguas en la Administración de Justicia

puede consultarse el interesante trabajo de RODRIGUEZ-AGUILERA, C.: "La Lengua Catalana en la Administración de Justicia", en la Revista Jurídica de Cataluña", núm. 3 (1.983), pág. 127 y sigs. También LORCA NAVARRETE, A.: "Euskera y Administración de Justicia en el País Vasco, en la Revista Vasca de Administración Pública, núm. 5 (1.983), pág. 167 y siguentes."

69. Ikus: MILIAN I MASSANA, A.; "Aproximación al régimen jurídico previsto para la lengua catalana en el Estatuto de Autonomía de Cataluña", in: RAP, 94. zb., 1981, 331 or. eta hurr., sobre el limitado alcance temporal que el criterio de esta sentencia iba a tener.
Baita: AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, IÑAKI; O.C., 252 or.

70. Aipatzen diran testuak epaiaren 4. ZOn datoz.

71. Epai honi buruz hemen esana, hobeto aztertu nahi bada, ikus: COBREROS MENDOZANA, EDUARDO; "Cooficialidad lingüística y discriminación por razón de la lengua", in: REDA, 42. zb., 1.984, 461-469 orr.

72. Ikus: Tesiaren 3.3.2. atala.

73. Ikus: MOLES I PLAZA, RAMON; eta MARTIN I BOTELLA, JORDI; O.C., 135 or.

74. AGk arazo honetan izan dauan doktrinaren aurka, Konstituzio-Auzitegiak, zenbait epaietan, konstituzioko bardintasun printzipioa esangura materialean ulertu behar dala ezartzen izan dau; hots, ezbardina dana ezbardin erabiltzea.

75. 1985-03-23ko epaian esaten da:
"La lengua oficial del Estado es el Castellano, por lo que todo olvido o discriminación con respecto a ello conculca el espíritu y letra de tal precepto (3. art. EK)

1984-09-27ko epaian esaten da:
"... el precepto constitucional establece, respecto de la lengua española oficial, que todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla, y no exige el mismo deber, ni expresa ni tácitamente respecto de las demás modalidades lingüísticas de España."

1984-07-28ko epaian esaten da:
"los determinados conocimientos a que alude el Tribunal de Primera Instancia no es otra que los lingüísticos de un idioma tan oficial como el castellano en esta Comunidad Autónoma, los cuales coexistir en absoluto plano de igualdad, cuyo equilibrio se rompería al prevalecer el uno sobre el otro."

1984-01-01ko epaian esaten da:
"... en cuanto al carácter oficial del catalán en la enseñanza y al conocimentode la lengua catalana por los profesores, por ello no implica que necesariamente la hayan de conocer todos..."

Ikus: MOLES I PLAZA, RAMON; eta MARTI I BOTELLA, JORDI; en Revista de Llengua i Dret 9, "Notes sobre la Doctrina del Tribunal Suprem en relació amb el fet multilingüe a l'estat espanyol." 137 or.

76. "... se quebranta el fundamental derecho a la educación, incluso cabe decir que hasta el límite de negarlo del modo más absoluto, cuando la ensenanza se imparte en idioma distinto de la lengua española." (MOLES I PLAZA, RAMON; eta MARTI I BOTELLA, JORDI; en Revista de Llengua i Dret 9, "Notes sobre la Doctrina del Tribunal Suprem en relació amb el fet multilingüe a l'estat espanyol." 138 or.)

77. "Sobre la doctrina de l'Audiència Territorial de Barcelona en la Sentència de 23 de juliol de 1.984, que s'ha vist confirmada posteriorment per la Sentència del Tribunal Suprem de 16 de desembre de 1.985, vegeu Antoni Milian i Massana, L'obligació dels professors d'EGB de conèixer el catalá per ocupar placa definitiva a Catalunya a revista Autonomies núm. 23, 985, pp.87 i ss." (MOLES I PLAZA, RAMON; eta MARTI I BOTELLA, JORDI; O.C.; 139 or., 6. oharra.)

78. Ikus: Tesiaren 270 or.

79. 86-09-23 (Ar. 4645)
86-12-05 (Ar. 996)
87-10-13 (Ar. 8653)
87-12-16 (Ar. 9666)
87-12-23 (Ar. 9704)
88-01-25 (Ar. 427)
88-02-16 (Ar. 1175)
88-03-03 (Ar. 2150)
88-03-15 (Ar. 2292)
88-04-19 (Ar. 3126)

80. La Ley vasca 10/1.982, de 24 de Noviembre.
La Ley Catalana 7/1.983, de 18 de Abril.
La Ley Gallega 3/1.983, de 15 de Junio.

81. Konstituzio-Auzitegiak "Koofizialtasun" hitza darabil.

82. PUIG I SALELLAS,"La doble ificialitat lingüística del Tribunal Constitucional", in: Revista Llengua i Dret, desembre de 1986, O.C.; 106 orrialdean.

83. Normalizazioari buruzko eskumena bakarrik aipatzen dau.

84. Ikusi da EEAOL aztertzerakoan, Estatuko abokatuak eta Euskal Jaurlaritzakoak, batez be errekursodun artikuluak aldezterakoan erabilitako errazoibide eta aplikamenak.

85. Ikus: PUIG I SALELLAS, JOSEP M.; "La doble oficialitat lingüística del Tribunal Constitucional", in: Revista de Llegua i Dret 8, 106-107 orr.
Hauxe dino:
"El fet és evident, car la tesi del T.C. fa més d'una referéncia a la possibilitat que aquest grup social, tot i la seva ciutadania territorial (encara que aquest aspecte no queda massa clar), pugui allegar ignoráncia de la llengua própia del territori, ignoráncia que, al meu parer, encara que sigui anticipar conceptes, és totalment contradictória amb el concepte mateix d'oficialitat. I el tribunal ho fa sobre la vase d'una consideració només literalista del fet que la Constitució estableixi el coneixement obligatori de la llengua estatal."

86. "La Constitución de 1.978 reconoce la realidad plurilingüe de la nación española y, viendo en ella un valor cultural no sólo estimable, sino también digno de ser promovido, obtiene de dicha realidad una serie de consecuencias jurídicas en orden a la posible atribución de carácter oficial a las demás lenguas españolas." (Bertan, O.C.; 107 or.)

87. "El que contiene sustancialmente la regulación constitucional en materia lingüística." (Bertan, O.C.; 107 or.)

88. "En virtud de la remisión que hace el número 2 de este artículo a lo dispuesto a loas normas estatutarias de las respectivas Comunidades autónomas, tal regulación esencial se completa con lo que dichas normas establecen sobre la cooficialidad de las lenguas españolas distintas del castellano." (Bertan, O.C.; 108 or.)

89. Bertan.

90. "Despréndase, pues de ello, que el artículo 3.1 de la Constitución y los artículos correspondientes de los respectivos Estatutos de Autonomía son la base de la regulación del pluralismo lingüístico, en cuanto a su incidencia en el plano de la oficialidad en el ordenamiento constitucional español." (Bertan)

91. "Aunque la Constitución no define, sino que que da por supuesto lo que sea una lengua oficial, la regulación que hace de la misma permite afirmar que es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos pasivos, con plena validez y efectos jurídicos." (2. ZOn.)

92. "En los territorios dotados de un estatuto de cooficialidad lingüística, el uso por los particulares de cualquier lengua oficial tiene efectivamente plena validez jurídica en las relaciones que mantenga con cualquier poder público radicado en dicho territorio." (4. ZOn.)

93. "El castellano es medio de comunicación normal de los poderes públicos y entre ellos en el cómputo del Estado español" "en virtud de lo dicho, al añadir el número 2 del mismo artículo 3 que las demás lenguas españolas serán tanbién oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas, se sigue asimismo, que la consecuente cooficialidad lo es con respecto a todos los poderes públicos en el territorio autonómico, sin exclusión de los órganos dependientes de la Administración central y de otras instituciones estatales en el sentido estricto." (2. ZOn.)

94. "Siendo, por lo tanto, el criterio delimitador de la oficialidad del castellano y de la cooficialidad de otras lenguas españolas del territorio, independientemente del carácter estatal (en el sentido), autonómico o local de los distintos poderes públicos." (2. ZOn.)

95. "Sin que ello pueda considerarse desalentadora [...] al no darse respecto de las lenguas cooficiales los supuestos antes señalados que dan a su fundamento a la obligatoriedad del conocimiento del castellano."

96. "El artículo 3.1 de la Constitución establece un deber general de conocimiento del castellano como lengua oficial del Estado."

97. Holan uste dau PUIG I SALELLAS-ek. O.C.; 112 or.

98. Tesi hau gureganagaitza da, konstituziogileak beste adierazpen bat erabili eikean eta; izan ere, manu honetan dagoen "Del Estado" genitiboak ez dau Konstituzio-Auzitegiak emon nahi deutson "a todo el Estado" ablatiboaren esangura bera. Gainera, "la" artikuluaren erabilerak, espainiar hizkuntza dalako kontzeptuaren aurrean, esaldiari esklusibotasunaren esangura emoten deutso eta hau gainerako espainiar hizkuntzen ofizialtasunarekin oso txarto moldatzen da. (EK 3.2. art.)

99. "La totalidad de la organización jurídico-política de la nación española, incluyendo la organización propia de las nacionalidades y regiones que lo integran y la de otros entes territoriales dotados de un grado inferior de autonomía" "Sólo el conjunto de las instituciones generales o centrales y sus órganos periféricos, contraponiendo estas instituciones a las propias de las Comunidades Autónomas y otros entes territoriales autónomos". (1981-07-28 KAE)

100. PUIG I SALELLAS, J.; O.C.; 114 or.

101. 1.985-04-29ko epaiak dino: "La libertad para enjuiciar, para interpretar y para aplicar las normas que tienen los Jueces y Tribunales permite que un mismo órgano judicial, ante supuestos ya no semejantes, sino incluso idénticos, modifique su propia interpretación de unos mismos preceptos legales, siempre que razone su nueva interpretación en términos de derecho para que su cambio hermenéutico no resulte inadvertido para el mismo, que debe ser consciente de qué cambia y de por qué cambia de criterio, ni arbitrario por lo razonado y, en este sentido, discriminatorio."

102. "En directa conexión con el carácter del castellano como lengua oficial común del Estado español en su conjunto, está la obligación que tienen todos los españoles de conocerlo." (3. ZOn.)

103. PUIG I SALELLAS, J; O.C.; 115 or.

104. "Lo distingue de las otras lenguas españolas, que con él son oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas." (Bertan)

105. 1986/82 Epaiaren 2. eta 4. ZOetan.
"Es oficial una lengua... cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos pasivos, con plena validez y efectos jurídicos [...] En los territorios dotados de un estatuto de cooficialidad lingüística, el uso por los particulares de cualquier lengua oficial tiene efectivamente plena validez jurídica en las relaciones que mantenga con cualquier poder público radicado en dicho territorio"

106. "Sin tener el deber de conocerla, pueden alegar desconocimiento de una de las lenguas oficiales." (83/86-FJ 3º)

107. Ikus: PUIG I SALELLAS, J.; O.C.; 118 or.

108. "Es inherente a la cooficialidad el que, en los territorios donde exista la utilización de una u otra lengua por cualquiera de los poderes públicos en ellos radicados

tenga en principio la misma validez jurídica." (86/82 Epaiaren 3. ZOn.)

109. "Tal deber no viene impuesto por la Constitución" (FJ 3º de la Ley Gallega.)

110. "En los territorios dotados de un estatuto de cooficialidad lingüística, el uso por los particularen de cualquier lengua oficial tiene efectivamente plena validez jurídica en las relaciones que mantenga con cualquier poder público radicado en dicho territorio." PUIG I SALELLAS, J; "La doble oficialitat lingüística del Tribunal Constitucional"O.C., 119 or.

111. "A atribuir el deber de conocimiento de dicha lengua a la administración autónoma en su conjunto, no individualmente a cada uno de sus funcionarios." (Sent. 5 de Agosto de 1.984)

112. Aztertu dan testuko "ser atendidos" adiera "Herritarrak nahi daben hizkuntzan ente publikoari zuzentzen deutsoezan komunikazioak ez ukatzeko eskubidetzat hartzen da. KAk bere argudioa bidezkotu nahi dau, arreta jasotzeko eskubide hau "Konstituzioan eta AEetan bera erabiltzeko ezarritako eskubidearen zuzeneko ondorioa" baino ez dala.

113. Espainiako Konstituzioaren 3.3. artikuluaren manua baztertu, eta Arduralaritza bakiotzaren ahalbide eta erizpideak dira errazoi.

114. "La dificultad surge si por ser atendido se entiende el derecho a que la administración pública conteste a los ciudadanos en la lengua oficial elegida por ellos." PUIG SALELLAS, J.; "La doble oficialitat lingüística del Tribunal Constitucional", Revista de Llengua de i Dret 8, O.C., 121 or.

115. "La oficialidad de una lengua implica en definitiva el que en ciertos casos deban los poderes públicos llevar a cabo su

actuación y su relación con el ciudadano en esa lengua, cuando es el interesado quien la elige y se hayan previsto los medios para ellos." (8.ZOn)

116. "Las posibilidades del momento y de la adaptación de las medias oportunidades y los medios necesarios para su ejercicio, adopción que corresponderá obviamente a las respectivas administraciones públicas, estatal y comunitaria, cada una de ellas, dentro de sus respectivas competencias." (8. ZOn.)

117. Konstituzio-Auzitegiaren 86ko 82. Eren 8. ZOn, badirudi aginte-izaera "regulará" geroaldikotik, beharraizan kontzeptutik eta ofizialtasun bikoitzaren erregimenak exigentzia bereziagoak ditualako onartzetik datorrela. Holan dino: "Cada poder público regulará los medios y el ritmo de la necesaria adaptación

a las exigencias de aquel régimen."

118. "En cuanto a la cuestión de la competencia de las Comunidades Autónomas para regular la utilización de las lenguas oficiales en la Administración de Justicia, habida cuenta de lo que establece el art. 149.1 de la Constitución en sus párrafos 5º y 6º, la respuesta habrá de matizarse en términos parecidos, en el sentido de que los poderes públicos de las Comunidades Autónomas podrán regular el alcance inherente al concepto de cooficialidad, tal y como ciene establecido por el art. 3.2 de la Constitución y en los artículos correspondientes de los Estatutos de Autonomía y en concreto el 6.1 del E.A.P.V., sin que pueda en modo alguno extenderse a la ordenación concreta de su puesta en práctica por el Estado para sus organismo propios en la Comunidad Autónoma." PUIG I SALELLAS, J.; "La doble oficialitat lingüística del Tribunal Constitucional", O.C., 122-123 orr.

119. Bertan.

4. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA JATORRIZKO HIZKUNTZEN BABESA.

4. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA JATORRIZKO HIZKUNTZEN BABESA.

4.1. HIZKUNTZA GITXIENGOTUAK.

4.2. EUSKAL HERRIAN EUSKERAZ BIZI IZATEKO ESKUBIDEA.

Edozein motetako Gitxiengoaren arazoa aztertu nahi bada, Nazioarteko Giza Eskubideen sorkuntza ezin daiteke ezelan be ahaztu. Gitxiengoaren esnatze eta erabarritzerako Giza Eskubideen Agerpena jazoera eragingarrienetarikoa izan da.

1945ean Nazio Batuen Erakundean agertu zan Giza Eskubideen asmoa (1). Asmo hau, 1948an Giza Eskubideen Autorkizun Orokorrean gauzatu zan (2), nahiz eta gitxiengoei buruzko aipamenik egin ez. Eta 1966an Eskubide Zibilen eta Politikoen Itun barrian Giza Eskubideen alde pausu garrantzitsua emon zan 27. art. onartuz (3).

Giza Eskubideen Autorkizun Orokorrean gizabanakoaren eskubideak aitatu ziran bakarrik, gitxiengoa aipamen barik itzirik. Baina gizabanakoa ez da bakarrik bizi. Bere familian, bere herrian... alkarkideak ditu. Estatu barruan, eta herrian bertan be bere kideekin bere taldea egiten dau. Eta giza talde lez bere nortasun juridikoa eta bere giza eskubidearen jantzia zor jakoz.

Horregaitik,

> "... hizkuntza gitxiengotuak dagozan Estatuetan, gitxiengo horreetako pertsonei ez jake ukatuko, euren taldeko beste kideekin batera, euren bizitza kulturala izateko, [...] eta euren hizkuntza erabilteko dagokien eskubidea" (4).

Ondorioz, gitxiengoaren eskubide honek kulturgintzaren sailean nori zer zor jakon azaltzen dau.

Gitxiengoen Hitzarmenak gitxiengoen hizkuntzen eta kulturen babeserako berme batzuk eskeintzea izan dabe helburu (5).

Gaur egun, gitxiengoaren aldeko mugimendua geldiezina dala, Europa aldean begi bistan dago (6).

Herri bakoitzak bere nortasuna jagon eta babesteko era eta medioak hartzen baditu ez dau banaketarik eskatuko. Bere izaera onartu ez edo medioak ukatzen bajakoz, orduan sortzen dira eztabaida, burruka eta banaketa. Gehiengoaren ekintza menperatzaileak Giza Eskubideen zorra ukatzen badau, berak banatuko dau

gitxiengoa eta astundu bere arazoa.

Kulturgintzaren arloan gitxiengoari dagokion eskubidea zer-zelakoa dan erabagi behar da, ea kulturazko barrutia osotzen dauan herriari berari doakion eskubide hori lehenengo eta behin, ala Estatuek menpeko herrien kulturazko bizitzari eragozpenak jartzeko inongo eskubiderik daukien ala ez.

4.1. HIZKUNTZA GITXIENGOTUAK.

4.1.1. HIZKUNTZA ETA KULTURA GITXIENGOTUAK.

- Gitxiengoa definitzeko ahaleginak.

- Gitxiengoaren berezitasun batzuk:

  - Herri-gogoa.
  - Hizkuntzaren garrantzia.
  - Autonomiarako jarrera.

4.1.2. GITXIENGOA ETA BERE INGURUA ESTATU BARRUAN.

4.1.3. GITXIENGOAREN ARAZOA NAZIO-ARTEKO ERAKUNDEETAN.

4.1.1. HIZKUNTZA ETA KULTURA GITXIENGOTUAK.

Gitxiengoa definitu eta sailkatzeko hainbat erizpide erabili daitekez (7). Erizpide guztiak, banan-banan hartuta, erren geratzen dira.

Gitxiengoaren kontzeptuak erizpide kuantitatiboa dakar: talde bat, beste talde bati begira, txikia izatea (8).

Baina, jakitun horreen ulerkerari jarraituz, nozio honen ezaugarri kualitatiboa be bada. Talde honek (gitxiengoak) gizarte inguru zabalago batetatik bere funtsezko berezitasunagaitik baztertzen dala edo baztertzen dabela, adierazoten dau. Historiari begiratu ezkero, gitxiengoaren arazoak gehiengoak ez ditu onartzen. Talde menperatzaileak berezitasun horreek azaldagarritzat hartzen ditu eta ez dirala komenigarriak uste ditu. Orduan, gehiengoa gitxiengoak itotzen ahalegintzen da, bai gitxiengoen kideak asimilatuz, bai gitxietsiz. Gehiengo menperatzailearen honako presioen menpean, gitxiezpenaren edo bereizkeriaren menpean, gitxiengoak kontzientziagotu egiten dira etsaiak aukeratutako esparruan. Honengaitik, gitxiengo izatearen ezaugarria, kanpotiko presiotik aparte, presio honi aurka egiteko gitxiengoaren ageriko borondatea be bada.

Erizpide antropologikoaren arabera, gitxiengoa bere ama hizkuntzari eta tradizio ondareari sakon lotzen jako, eta Estatuko beste hizkuntza eta tradizioak nagusitza adierazo nahi dabelako, gitxiengoaren alkarteari menperatzaileen aurkako sentimendua eta jarrera sortzen joan leitekioz (9).

Gitxiengoen hizkuntzei buruz jardutea, nahikoa izango litzateke, gitxiengoak gehiengoari begira dauan ezbardinkeria hizkuntzan bakarrik balitz. Errazoi ulerterrezagatik, kultur gitxiengoaren izena erabiltea ohizko bihurtu da, baina batez be, hizkuntza kultur tradizioen euskarritzat hartzen dalako. Halan be, honek ez dau esan nahi, bestelako gitxiengoak, erligiosoak esaterako, esan gura batetan kultur gitxiengoak ez diranik. Erligioak markatzen dituan bizimoduak ez dira hizkuntza baino gitxiago kulturaren osagaiak. Halan be, kultura, batez be hizkuntzaren bitartez hedatzen dala autortu behar da. Honengaitik, kultura baten zoria hizkuntzaren izate edo desagerpenaren menpeago dago kultura honen beste edozein esparru bereziarena baino. Izan be,

"ez daigun ahaztu hizkuntzaren desagerpenak kultura jakin baten

agerpentzat hartzen ditugunen desagerpena be badakarrela. Baina, larriago oraindik, hizkuntza bat galtzea munduaren garapen pertsonal eta esperientzia galtzea da, jokoan dagoana hizkuntza eta literatur tradizio baten zoritik baino askozaz harantzago badago be. Ez deutso ajolarik idatzizko edo ahozko adierazpena izateak: herrialdeko hizkera bat, hizkuntza edo dialekto bat hizkuntzaren adierazkera lez hartu daiteke" (10).

Gitxiengoak definitzeko ahaleginak

Hainbeste erizpide ezbardinen aurrean, jakitun eta ikertzaileak gitxiengoa zer dan azaltzeko orduan, ahaleginak egin arren, ez egileentzat eta ez erakundeentzat ez da erraza, gitxiengoaren definizio bateratua bilatzea.

Nazioarteko Justizi Gorteak (11), gitxiengoari buruz eritxi hau emoten dau:

> "Estatu edo herri batetan bizi, bere erraza, erligio, hizkuntza eta tradizioak euki eta bere tradizioak gorde, bere kulturari eutsi eta bere umeei, bere erraza bereziaren jiteari jarraituz, irakaskuntza eta hezkuntza bermatu, baita alkarri laguntza emoteko helbururako, erraza horren, erligio horren, hizkuntza horren eta alkarkidetasun sentimenduaz tradizio horren batasunak lotzen dauan gizakumeen alkartea da" (12).

Definizio honek danetariko baldintzak ditu. Alde batetik, erraza, erligio, hizkuntza ... bestetik, gitxiengoak talde lez sentitzen dauan alkarlokarriaren beharrizana. Baita bere erraza bereziaren jiteari jarraitzeko guraria be.

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko azpibatzordearen ustez, bestelako elementuak be ez dira gogoan hartu barik itzi behar: "Gitxiengoaren hitza, burujabe ez diran herriei bakarrik aplikatu behar jake, beti be, gainerako herrienak lakoak ez diran tradizio, erligio, eta hizkuntza ezaugarriak eduki eta, batez be, gorde nahi dituenean. Euren ezaugarriak gorde ahal izateko taldekideen kopurua garrantzitsu eta nahikoa danean be, Gitxiengokideei euren Estatuekin leialak izatea eskatzen jake" (13). Kasu honetan be, erizpide zalantzagarriak agertzen dira, batez be, gitxiengoaren kopuruaren nahikotasuna eta Estatuarekiko leialtasuna eztabaidatzean (14).

Beharbada, jatorri historikoan eta jatorrizko herriagaz lotura daukan gitxiengoa izango da ulerterrazena eta aplikatzeko orduan be eragozpen gitxien sortuko leukena (15).

Oinarria geografikoa bada, gitxiengoak honako taldea izan daike:

"Estatuko herrialde geografiko oso batetan bizi dan taldea. Estatuko herrialde batetako zati haundienean bizi dan taldea. Kideak Estatuko herrialde batetan bizi izaten edo lotutako lurralde osoan zehar sakabanatuta dituan taldea. Kideak, Estatu batetan ezezik, Estatu ezbardinetan sakabanatuta dituan taldea" (16).

Oinarria historikoa bada, era honetako gitxiengo bat izango da:

"Estatua sortu aurretik, lurraldean egoan taldea. Hasieran Estatu ezbardinetakoa izan baina, jazoera historikoak bide dirala, gaur Estatuaren manupean dagoan taldea" (17).

Definizio eta erizpide guztiak erren geratzen diranez, F. Capotorti-ren ondorioak onartu leitekez:

"Gauzak zelan dagozan ikusita, ezin da guztiak asebetetzen dituan definiziorik bilatu. Definizioa bere helburuari dagokionez mugatuta dago. Estatu batetako beste herriekin alderatuta, talde txikia eta menperatzailea ez dana, beti be kideen ikuspegi etniko, erligioso edo linguistikoa eta ezaugarriak beste herriaren modukoak izan ez eta, kideen kultura, tradizioak, erligioa edo hizkuntza gordetzeko alkarkidetasun sentimendua, ezkutuan bada be, agertzen dauana da gitxiengoa" (18).

Hau be ez da arazo bako definizioa. Esaterako menperatzailea ez izatea zer dan eztabaidatzen jardungo dabe soziologoek eta antropologoek. Sentimenduak, besterik ezean ezkutuan agertzea zer esan nahi dauan ez dabe jakingo politikoek. Ikusten danez, gitxiengoa definitzeko eritxi bateratua aurkitzea oso zaila egiten da.

Gitxiengoaren berezitasun batzuk

a) Herri-gogoa.

"Giza talde bati bera badala aldarrikatzeko eskubidea ezin leio ukatu. Eskubide hori bere izatearen baieztapena besterik ez da. Gainerako eskubide guztien hasiera" (19).

Beste taldeak edo Estatuak eskubide hau legez onartzeko, soziologia aldetik, taldeak errealidadea eskatzen dau. Eta hauxe da talde horren beretasuna eta berezitasuna. Beragaz daroaz bizilekua eta bizi-gogoa.

Talde baten bizi-gogoa epaitzeko, bera baino epaile hobeagorik ez dago. Eritxi hau legebidez emoteko, asmatzeko gai dan bakarra taldea bera da. Aurkakoa, ezarpen eta eskusartze bidebako eta jasanezina litzateke. DINSTEIN irakasleak ondo dinoan lez:

"Arazo honetan ez dago kanpoko manu edo erabagirik. Talde batek ez dauka beste giza talde bati dan edo ez dan esateko eskubiderik" (20).

Bere ezaugarri bereziak baieztu eta bere interesak zaintzen dituan giza taldearen borondateak, talde baten izatea mugatzeko erizpide bakarra osatzen dau. Hau da, norbere baieztapen eskubidetzat ulertzen dana edo norbere izatearen eskubidea edo norbera talde lez badala autortzeko eskubidea.

Eta bere burua herritzat hartzen dauan alkarteak ez dau bere hizkuntza dialektoa danik onartzen.

"Baina, Estatuetako agintariek hizkuntza horreek izendatzeko terminologia murrizgarria erabiltzen dabe. Esate baterako, dialektoa eta herrialdeko mintzairak deitzen jake Frantzian, alkarteen hizkuntzak Estatu Batuetan eta Bretaina Haundian, eta etnia hizkuntzak Australian" (21).

Herri-gogoa alkartekideak euren buruaz jabetzen diranean sortzen dan herria izangurea da.

Hizkuntzaren, kulturaren eta erligioaren aldetik, eurak ezbardinak dirala igertzen dabenean sortzen dan alkarkidetasun sentimendua eta talde kontzientzia da herri-gogoa. Edozein gizarteko talde kontzientzian, Salvi-k egindako tipologia garatzen daben lau maila adierazo daitekez:

> "0. maila.- Bere kultur berezitasunaz bereziki ezertarako obartzen ez danean;
> I. maila.- Bere alkartea Estatuko lurraldeko gainerako alkarteen modukoa ez dan sentimendua izatea;
> II. maila.- Bere alkartearen kultura Estatuko lurraldeko gainerako alkarteen modukoa izan ez eta haren aurka joten dauan sentimendua izatea;
> III. maila.- Bere alkartearen kultura Estatuko gainerako alkarteen modukoa izan ez eta haren aurka joten dauan sentimendua izatea, Estatuak maila historikoan lez gaur be etsai neurriak hartzen ditualako" (22).

I. mailak ez dau gitxiengorik sortzeko biderik emoten. II. mailan, Alemaniako poloniarrak eta Italiako friuliandarrak dagoz. III.ean, ostera, korsikarrak eta okzitaniarrak dagoz.

Mailakaketa honek ez ditu kasu guztiak hartzen eta Estatuetako etsai neurriak bi eratara ulertu daitekez:

Gitxiengoen alde ezer egiten ez dabenean edo eurek juridikoki onartzen ez dituenean sortzen dira era batekoak, eta euren hizkuntzen erabilera debekatzen dabenean beste era betera arerio agertzen dira.

Geldi-geldi taldekide asko bizi-gogoa galtzen badoaz, beste talde batekin alkartzen dira. Dana galtzen ez dan bitartean, berreskuratzeko itxaropen bat dago. Hori jazoten da gaur: frantzesekin Quebec-en, bretonekin Frantzian edo euskaldunekin Espainian.

b) Hizkuntzaren garrantzia

Gizarte mailan talde guztiak daukie euren kultura, eta bakoitzak daukazan erakunde eta ohiturak dakarrez bertako kideak alkarren artean aitu eta aurrera egiteko. Talde ezjakinak edo edozein gizataldek be badau bere kultura. Hizkuntza bat dauka, erakunde batzuk eta guztiekiko bizikera batzuk. Holan ase ohi ditu bere beharrizanak, nahiz eta lau eta aintzinakoak izan. Eta bereiztasun honei esker, gizabatasun lez jardun, eratu eta iraunerazoten dau.

Euren kultura tajutzen daben taldeen sorpenen artean, nahitaez hizkuntza aitatu behar da. Jende arteko hartuemonak hizkuntzaren bidez egiten dira. Hizkuntzaren bitartez, euren artekoak, legezko eta politikazko erakundeen artekoak alkartasuneko bizitza osotu ta beteaz. Hizkuntzak, joandako historiagaz batzen ditu, tradizio eta oroigarriak barriztatu. Jainkoagazko ta geroko bizitzari buruzko zerak gogorazo. Herri-kultura edo folklore deritxogun gizarte ohiturak ahaztu ez daitezan erabarritu egiten ditu.

> "Aitatu doguzan taldeen sorpen guztien artean garrantzitsuena, hizkuntza da, hau da, talde horren hizkuntza berezi ta bere-berea. Hizkuntzak, taldearen kidekoen arteko komunikabiderako tresna bat baino askoz gehiago esan nahi dau. Hizkuntza da artxibua eta bilduma, alkarte baten historian zeharko esperientzia nagusiena. Alkarte horren izate eredugarria adierazoten dau. Eta talde horrek ingurumari daukan mundura dizdiratzen dauan irudi antolatua daroa" (23).

Baina batez be hizkuntza da, talde horrek bizi dan munduari buruz daukan eritxi bere-bere ta bereziaren adierazpena.

Hitzen bitartez pentsatzen da eta hizkuntza zehar eta berak dagian pentsaera bereziaren bidez, kanpotiko munduagaz taldea hartuemonetan sartzen da.

Hizkuntza giza alkarte baten gureneko sorpena da. Bere kulturaren biotz-biotzean aurkitzen da. Eta hizkuntzak talde baten arimea eta izatea osotzen ditu.

Taldea ta hizkuntza-alkartea kidetu egin oi dira. Hemen ez dago okerrik. Hizkuntza hori egiten daben guztien artean osotzen da alkarte hori.

Nahiz eta mintzatu ez, hizkuntza onartu eta euren gurasoak mintzatu badabe, talderako honeek be ondo letorkez. Noberen hizkuntzaren eragina hain sakona dan lez, belaunaldi askotan ıraun oi dau hitz egiten ez dabenetan be, taldearen kultura sustraiaz bere hizkuntzatik erneten dalako. Beraz, esan daiteke kultura horretan esku hartzen daben guztiak hizkuntza alkarte bat osotzen dabela. Hizkuntza da, ondorioz, kulturaren trasmisio tresnarik garratzitsuena. Berau da, zelanbait esanda, kultura bera (24).

Alderdi honetatik ikusita be, mota askotariko gitxiengo taldeak aurkitu leitekez: Ofizialak ez diran hizkuntzaz mintzatzen diran alkarteak: Sardatarrak Italian, edo okzitaniarrak Frantzian. Kultur ikuspegitik, ahulenak dira.

Beste herri edo Estatu batzuetan ofizialak diran hizkuntzaz mintzatzen diran alkarteak: Albaniarrak Italian, alemaniarrak Frantzian. Errazago bete daikiez euren beharrizanak.

Hainbat alkarte, historikoki, Estatu horretako hizkuntza estandarraren dialektotzat hartu daikezan hizkuntzaz mintzatzen da: Fruiliandarrak italierarena edo ladinerarena.

Beste herri batzuetan mintzatu eta herri horretan be gitxiengoen hizkuntza lez hartzen diran hizkuntzak: Catalunyarrak, euskaldunak, okzitaniarrak dagoz era horretan.

Gitxiengoak hizkuntza jarrerak sortzen ditu, bere burua identifikatu eta beste alkarte baten barruan irenstetik babesteko helburuagaz.

Bizitasun hau urria da hainbat kasutan: Zinbre eta walser gitxiengoak Italian. Bizitasuna galduz gero, O. mailara jaisten dira. II eta III. mailatakoak, ostera, bizitasun itzela dabe: Alto Adigioko alemaniarrak eta Frantziako korsikarrak eta okzitaniarrak, esaterako.

Argi geratzen da, zelako indar-eragina daukan hizkuntzak giza-erakunde baten kulturan. Bene-benetakoa da eragin hau, eta hizkuntza bi euren artean diferen-

teak, alkarrekin bizi diranean, beste barik erakusten dago hemen talde bi diferenteak dagozala. Hizkuntza egi-egiaz diferenteakin zenbat alkarte dagozan kontua harturik, Estatu baten zenbat gitxiengo dagozan jakiteko bidea izan leiteke.

Kultur eta hizkuntza alkartea danez, hizkuntzaren eta taldearen arteko eragin eta lotura hau taldearen izatasun berari bakar-bakarrik dagokiona da. Hizkuntza horretan mintzatzen diran pertsonak zenbat eta zelakoak diran ez dauka zerikusirik. Gaur gitxiengoaren hizkuntzaz mintzatzen ez diran pertsonak be, baita batzuk inoiz berbeta hori erabili ez dabenak be parte hartu daikie.

Gitxiengoa epe luzean Estatu zapaltzaile baten mende egon danean, hiru herrigune edo moltzo aurkitu oi dira gehien baten (25).

Bat, jatorrizko ama-hizkuntza euki ta, gitxiengo zapaldu ta menperatuaren hizkuntza hori, euren eurena, alkar aitzeko ta adierazteko egunero darabilena. Pertsona honeik, gitxiengo horren bihotza, ta guna egiten dabe.

Horren inguruan, zerrenda bat aurkitzen da hizkuntza bietan mintzatzen diranena; euren artean talde bi eginik: elebidunak eta hau osotzen dabe gitxiengo zapalduarena berarena ama-hizkuntza izanik be, zapaltzaileen hizkera ikasi ta euren bizitzako eginkizunetan gehienez darabilena, eurena ia-ia ahaztuta itxirik. Talde honen zabalera haundi edo laburragoak emoten dau menperatutako gitxiengoaren kulturarik ezaren neurria. Gitxiengo zapalduaren hizkuntza, ama-hizkuntza ez dabenen pertsonak egina, baina gero ikasi ta menperatu dabenena, nahiz eta gitxiengo horren altzoan jaioak izan, nahiz eta bertatik kanpo jaioak izan, baina bertakotu nahirik dabiltzanak osotzen dabe bigarren taldea. Talde honen zabalerak emoten dau gitxiengoaren kultura nahiaren neurria.

Azkenez, zapaldurik dagoan gitxiengoaren biran aurkitzen da hirugarren taldea. Gitxiengoaren hizkuntza berezia ezagutzen ez dabenak osotua, eta gainera ikasteko grinarik sekula erakutsi ez dabenen moltzoa. Talde honek, denporaz gitxiengo zapalduagandik kanpo geratu ta manatzailearen parte egitera igaroteko arriskua dauka.

Gitxiengoan ez da bardin hizkuntza jakin edo ez. Hizkuntza ezagutzen ez daben pertsonetatik batzuk egongo dira argi ta garbi gitxiengoko kultur eta hizkuntza alkartekoak diranak. Horreitatik zenbat dira alkarteari loturik dagozanak? Gitxiengoa

izatea edo ez izatea ez dago jokoan, baina gitxiengoko hizkuntza ez dakien pertsonak gehituz joan ezkero, urteak joan urteak etorri, arrisku larrian aurkituko litzateke. Jokuan sartzeko litzatekena etorkizuneko bere bizi-iraupena bera da. Arrisku egi-egiazkoa, eta gaur munduko gitxiengo zapaldu guztiak holan dagoz. Gitxiengoak bizi izaten jarraituko dau aske ta bere buru-jabe, berak sortu ta ugaritu eban hizkuntza ahozaho dabilen bitartean, eta hizkuntza-alkarteak bizi izaten jarraitzen dauan bitartean.

d) Autonomiarako jarrera

Gitxiengoaren ohizko beharrizana, hizkuntza eta kultura zaindu eta babestea ezezik, bizimodua hobetzea da.

Gitxiengo batzuk administrazio autonomiarako jarrera dabe eta beste batzuk, independentzia politikarakoa. Arlo honetan, Estatuen jarrerak ezbardinak dira: Italiak, esaterako, estatuto berezia onarten deutsie eta Frantziak, ostera, ez dau onarpen berezirik emoten. Bestalde, jarrera honekin batera, tentsio politikoa dago, bortxa be agertzen dalarik.

Europako gitxiengoei buruz hainbat dakian Guy Héraud-en ustez, burue-rabakikuntzak bost osagai ditu (26).

Historian zehar eta gaur egungo egoeran be gitxiengoak erantzun ezbardinak jaso dabez autonomiari buruz. Batzutan, gitxiengoak autonomia dau, esate baterako, alemaniarrak A. Adigion. Beste batzuetan, gomendio hutsa diran Nazioarteko Akordioak dagoz, esate baterako, dinamarkatarrak Alemanian eta alemaniarrak Dinamarkan.

Nor

Talde baten oinarrizko eta lehenengo gaia, berez, pertsonala da. Nortzuk diran taldeko eta kideko jakin behar danean, gitxiengoa osotzen dabenak mugatzeko orduan, funtzezko eskubide bat dauka.

Taldeaz kanpoko manatzaile baten esku geratuko balitz gai pertsonalaren ezagaitik, taldea murriztzeko edo ukatzeko arriskua legoke.

Estatu independiente lez osatuta balego, arazo hau ez litzateke azalduko. Holan iharduteak gehienetan zailtasun haundirik ez dakar, eta herri batek bere biztanleria mugatzeko daukan eskubidea, Nazioarteko Zuzenbidean aski autortua dago (27).

Hasieran, talde kideak berean jaio eta bere lurraldean ezarrita gai biak (izaki eta gizakizkoa) daukiezan pertsonak izango dira. Honeek bereko eskubidez talde horrenak dira eta zelan edo halan esatearren, bere erdigunea osatzen dabe.

Badagoz talde barruan jaio eta berezko gai guztiak edo batzuk daukiezanak, baina herriko ete diran kontzientzia garbia ez daukienen beste mota bat. Jatorrizko kontzientzia eurengan lo eta ezkutatuta itzi dabe. Baina herri kontzientzia ez da guztiz amatatu. taldean birsartzeko baimena noiz jasoko zain dagoz. Pertsonok herri horrenak dira berezko eskubidez, kondairak darakusan lez, belaunaldi batzutan zehar luzatu leiteken kontzientzia iluneko egoera horrek iraun dagian bitartean behintzat.

Zer

Herriak lurralde bat eroaten dau, eta lurralde horren mugak ezarteko eskubidea. Zer dan esateko eskubidea. Lurralde hau faltako balitz betiko, herria desagertuko litzateke. Talde lez jarraitzeko bidea eukiko leuke, baina zailtasun haundiekin.

Baina mugaketa zehatza herri berberaren esku barik, kanpoko baten

azpian balego, errez aurkituko litzateke iruzur mota biren aurrean: Batetik, lurraldeak gehiegi murriztean, herri horren biztanleria eta baliabideak asko murriztuko litzatekez. Baita apurtu ta ukatu be, azkeneraino joan ezkero. Bestetik, herri horretan beste talde batzuk sartzen badira, bertokoak ito arte, beste saldukeria bat izango litzateke. Hori jazo zan Hegoaldeko Tirol probintzian alemaniarrekin.Gitxiengoak bere izaki eta gizaki osagaiak dituanean, barruko Zuzenbidean bere autonomiarako eragozpenik ez dago, baina pratikan ez dala hain erreza esperientziak azaltzen dau.

Norbera mugatzeko eskubidea norbera definitzeko eskubidearen osagarria da. Lurraldea, ez da bananduta agertzen, berean biztanleria iraunkorragaz baino. Beraz, eskubide biok alkarrekin gogor lotuta dagoz eta errazoi horregaitik herriak berak mugatu behar dauz biak, herri lez bere bizia jokatzen dau eta.

Zelakoa

Baieztapen eta mugaketa ondoren, edozein giza taldek gizarte lez eratzeko aginpidea behar dau. Taldearen helburu nagusi eta guztien on osoa lortzeko, agintaritza beharrezkoa da. Agintaritza hau giza talde osoan dago, eta bere bitartez edo bere ordezkarien bitartez erabiliko da eskubide hau (28).

Aginpide hau argien Estatuan dago, baina herri edo nazioan be agirian hainbeste ikusten ez bada be, benetako gizarte bada, beti presente dago.

Eratutako edozein giza talde, beraz edozein herri bere xedea eta ona lortzeko erabagiak hartzeko gai da. Gaitasun hau berezkoa eta berea dau herriak, inork be kendu ezinekoa.

Herri bat beste baten edo Estatuaren menpe balego be, askatasun barik eta eskubidea ukatuta, baiezpen hau balioko litzateke. Pertsona bat egon daiteke beste baten menpe, baina inoz be ez dau galtzen jatorrizko askatasuna. Bardin herriaren kasuan.

Kenduezineko gai[illegible]n hau da eraketa eskubidea.

Barrura begira, herriak nahi dauan jaurlaritza mota hartzeko daukan ahalmena da eraketa eskubide hau. Ez dago taldeagandik ez datorren botere publikorik. Baina eskubide hau ez da halabeharrez demokraziakin bat etorten. Herri batek bere buruari eta uneko inguruari ondoen datorkion eta bere izakera eta bizi publikoa ondoen adierazoten dabezan eraketa emoteko daukan ahalmena da.

Lehenengo ta behin eskubide honek herri batek erregimen politikoa mugarritzeko berez daukan ahalmena esan nahi dau. Eraketa honek euren interesei ondoen jatorken ekonomia eta gizarte sistema ezartzeko ahalmenak ditu nahi eta nahi ez. Ahalmen hau barik, jaurlaritza-sistema neurri haundi baten edukinaz hustuta geldituko litzateke. Politika ta bere kultur bizia antolatzeko, hizkuntzazko politika eta eskola mugarritzeko aukera aurrekartzen dau, eurak barik, herriak luzaroan bere berezitasuna galdu leike ta. Tomas Masaryk-ek, Estatu nazioaniztunetan dagoen demokraziaren beharrizanen ezagutzaile sakonak, ideia hau holan adierazoten eban:

> "gizakumearen eskubideak norberak autortzen dabezan bezain laster, norberak bere hizkuntzarako (amaren hizkuntzarako) eskubidea be autortu behar dau. Hau Estatu nazio bakardunetan emontzat dago, baina nazioaniztunetan eztabaidagai da. Halan da be, hizkuntzarako eskubidea aitortu eta arautu egin behar da" (29).

Hau danau Itunen I. artikuluan autortu dana da, bere lehen lerroaldean "Herri guztiak ... askeki euren izakera politikoa ezartzen dabe eta era berean euren ekonomia, gizarte eta kultur garapena hornitzen dabez" esaten danean.

Nazio arteko zuzenbidean, ONUko Batzar Orokorrak bere "Estatuen arteko Adiskidetasunezko eta Lankidetzazko Hartuemonei dagozkiezan Nazioarteko Zuzenbidearen Oinarriei buruzko Adierazpen"-ean autortu dauan lez, kanpora begira eskubide jardunak hiru era daukaz (30).

Lehena, herri batek dagoan Estatu batekin askatasunez batu eta alkartzeko erabagia da. Kasurik nabarmenena, indarraz euren aberkideengandik banatuta dagozan nazio gitxiengoenarena da, hareek Estatu independientea osatzen dabenean. Kasu hau, zalantzarik bage, Italiako Gobernuak eskubidea emongo baleutso, Hegoaldeko Tirol gitxiengo alemaniarrarena litzateke, Austriako nebarrebakin batzera joango litzatekez ta. Beste adibide bat, hau nabarmenagoa, Puerto Ricoren kasua izan da erreferenduma bidez Ameriketako Estatu Batuekin, herri biok etnia ezbardinetakoa izan arren, alkartzea hautatu dau eta.

Bigarren era, herri batek beste herri batzuekin askatasunez batzea Estatu barri bat osatzeko, erabagitzen dauanarena da. Hau izan da Federakunde askoren jatorria. Berezitasun batekin: herri osatzaileak askotan Estatu independienteak ziran, esaterako, Egiptok eta Siriak 1.958an Errepublika Arabe Batua sortzea erabagi ebenean. Hau be danak daukazan Federakunde baten Estatu bat edo batzuren herrien batuketa aldarrikatzen daben alderdi politiko federalzale askoren egitaraua da, esaterako Iberikako Federakunde bat, edo gitxiengo eta herri askok aldarrikatzen daben batuketa, honela Europa batu batetara heldu nahiko leukie. Hemen elementu osatzaileak herriak, eta ez Estatuak, izango lirateke. Eskubide honen ihardukerak izango litzatekez era guzti honeik.

Hirugarren era, herriak ordura arte menperatuta egon dan Estatutik guztiz banatzea berez Estatu independiente barri bat osatzeko erabagia aske hartzen dauanarena da. Honela egin eban Noruegak 1.905ean Sueciatik banatzea erabagi ebanean eta Islandiak 1.941ean Dinamarkatik independentziatu zanean, Errepublika independiente lez 1.944ra arte eratu ez bazan be. Era honen edukiak azalpenik eskatzen ez badau be, Estatu independiente bat eratzea zer dan badakigu eta, eskubide hau praktikara burutzeko baldintzen azterketak azalpen eta analisi sakona eskatzen dau. Estatu interesatuentzako eta Nazioarteko gizartearentzako be suertatzen diran ondorenak hain haundiak diran lez baldintza horren mugaketa eta kasuan kasuko aplikazio zehatza arazo osoaren tratamendu independiente eta sakona eskatzen dabilz.

Herria bere buruaren jabe izateak garrantzi haundia dauka. Herri bakoitzak Estatu independiente bat sortu behar dauanik ez da esaten, herri bakoitzak berak bere etorkizuna erabagi behar dauala baino.

Gaur egun etorkizun hori nazio arteko alkargoan sakon oinarrituta eta zihurtatuta eukitea komeni da. Herri lez, norbere jabe izateari edo burujabetzari eutsiaz, baina beste herri guztiekin hartuemonak eten barik (31).

4.1.2. GITXIENGOA ETA BERE INGURUA ESTATU BARRUAN

Gizabanako bakoitzak bere izakera berezia dauka, eta bere izakerari berezitasun bakarrengoa emoten deutsazan ezaugarriak ditu. Bere inguruan alkarkide dituan gizarte taldeekin hartuemonetan bere nortasuna egiten doa, eta alkar bizitza honek gizartean eta espazioan gizabanakoak dauan nortasunarentzat aparteko garrantzia daukanik ezin da ukatu.

> "Gizabanakoak bizitzaren eta bizitzarako eremu lez gizartean eta gizartetik integrabide ugariak jasotzeko erarik ez badau, geroago eta bakartiago aurkitzen da eta zapalkuntza sentimendua jasaten hasiko da" (32).

Eta hori, egile honeen ustetan, gizarteak bere esku jartzen izan dituan balioei heldu ahal izan ez deutselako, eta bere baliobideak bakarrik erabili ahal ditualako. Gizarte nortasunak ordudanik, gizabanakotasunaren ezaugarria apurka-apurka hondatu egiten dau.

Halan be, gizabanako baten talde bateko edo batzuetako kide izate hori, bere bizitza osoan zehar, aldaketa haundien menpe dago. Gizabanakoa, bere erraza eta endan, alkarte bizitzaren erarik zaharrenetan lotzen da gehien. Baina gizarte zibilizatuetan taldekide izate hori ez da hainbeste nabaritzen eta malguagoa eta iragankorragoa da. Fenomeno hau jatorrizko lehen mailako taldeetan asko edo gitxi jazoten da: familian, herrian, hizkuntza alkarteetan, erligio alkartean, eta abar. Gizabanakoa jaiotzatik, erarik berezkonean herri batetako eta hizkuntza eta erligio alkarteetako kidea danez gero, bere bizitzaren garapena asko mugatzen da. Gizonak, askatasunez aukeratuta, baina euren aztarrenak desagertu barik jatorrizko ezaugarrien ordez beste batzuk hartu daikez. Izadiko hondamenak eta aldaketa politikoak, gizakume askori euren ezaugarriak aldatu eragin deutsiez. Badagoz gizabanako batzuk, euren jatorrizko inguruko bizitzaren baldintzei ezin moldaturik, beste aberri bat, beste hizkuntza bat, beste erligio bat, nahita, euren borondatez, bilatu dabenak. Beste batzuk, jatorrizko herri eta hizkuntzari uko egin barik, lanbideagatik, aberria itzi dabe. Mota guztietako erbesteratuak, gitxiengoak eta gitxiengotuak, izan be, bizitza pribatua jatorrizko hizkuntza eta kultur ingurutik guztiz banatzea ezinezkoa dala autortzen dabe (33).

Eurentzat ezinbestekoak diralako, eta ezabatuko balitzaz, eurentzat kolpe gogorra izango litzatekelako, alkarte balio honeek taldekideentzat gorde egin

behar dabez. Gehiengoaren balioak ez diralako, talde txikiak bere sentimentuak azaleratzen dituanean lan neketsu bati heltzen deutso.

> "Hizkuntza eta kultur gitxiengotuak, euren hizkuntza eta kultur jatorria dan gizarte nortasunaren funtsezko aspektuagaitik, gehiengoaren balioak ez diranen alde borrokatzen diran gizarte alkarteak dira. Baztertutako kultur bitxikeria bati arreta jarteko gitxiengoak ez dabe eskatzen, euren izate historikoaren mamina dana bere benetako balioan hartzeko baino" (34).

Gehiengoak, beharbada, baztertzeko moduko kultur egintza bat lez hartzen dau hori. Gitxiengoarentzat, barriz, bere identifikazio edo funtsezko eskuartea da. Gitxiengotuak bere haurtzaroa eta gaztaroa murgildu ziran hizkuntza eta bizimodua gorde nahi dituanak, bere berezko izakera gorde nahi daualako gorde nahi ditu holango gauzak. Ez museoan gordetako bitxikeria dalako. Euren balioak arriskutan inoiz izan ez dabezan gehiengoak sarritan ez dabez ulertzen gitxiengoen arazoak. Honegaz, hizkuntza guztien bizi iraupena historikoki aldeztu daikenik ez da autortzen. Baina gitxiengoen kideak alkar hobeto ulertu eta euren buruak alkar ulertuagoak sentitzen dirala euren hizkuntzan, eta hizkuntzari eutsi nahi deutsolako sinismena gitxitu beharko danik be ez da onartzen.

Gitxiengoak, beste gitxiengo batzuekin alderatuta, errebindikazio orokorragoak, eta batzutan gehiegizkoak be aurkitzen ditu. Baina gitxiengoaren alkarkideak "euren hizkuntzaren iraupena bizitzaren eremu guztietan errebindikatzen ez daben neurrian euren gizartetik baztertuko dabe" (35).

Herritarrak hizkuntza asko maite badabe, hizkuntzaren eremu guztietara zabaltzen ahalegintzen dirala erakusten dau esperientziak. Hizkuntzaren ezaugarri funtzionala arriskutan ez jarteko, gitxiengo hizkuntzaren hiztuna arduratuko da. Baina jatorrizko hizkuntzarekiko leialtasunak ez deutso debekatuko inori inguruko hizkuntza ezbardinak jakitea eta erabiltea.

Nahiz eta gitxiengoaren alkarkideen barruko lotura eta burupide danak bateratsuak izan ez, gitxiengoaren ardura nagusia bere hizkuntza eta kultura babestea bada, bere bizitasuna eta indarra hortik epaituko dira.

Gitxiengo batetakoa izatea, norberaren aukerarena baino jaiotzagaitik da

gehiago, baina gizabanakoa bere inguruko hizkuntza eta kultur hartuemonak, onak edo txarrak, eukitetik ez da askatzen. Eta gitxiengoak babes-neurriak eskatzen baditu, bereizkeriarik inondik inora ez dagoala autortu behar dau.

Bestalde, ez da nahikoa hizkuntza-kultur tradizioa babesteko egiten dan guztia erakundeen plan hutsean finkatzea, gero gitxiengoak erakundeen laguntzaz euren interesei eusteari ezin leio uko egin ta. Gitxiengoak, talde dan ginoan, ofizialki iragartzen dituen exigentziak burutzen, gizabanakoak hertsiki, banan-banan eta orohar, parte hartzeko gogorik ez badau, edozein nahi estatuto berezi batetan desagertzen dala ikusten da. Halan be gehiengoak gitxienez prestazio berezi horreei eutsi behar deutsiee, eurek barik hizkuntza kultura mehatxatuaren sustapen eta iraupenaren alde lortzen dan akordio orokorra eraginbakoa izango da ta (36).

Estatu bakar edo nazio baterakoien aldia igarotzen badoa be, barruan asimilazio eta zapalkuntza erabili barik tinkotu ahal izan diran Estatuen kopurua urria da.

Estatuen alkarmenpetasuna euren bizitzarako baldintza lez onartzen hasi dira, eta nazio nortasunaren ezaugarriak aldakor bihurtu dira, eta gizarte modernoan gitxiengoen arazoaz jabetu be bai. Gitxiengoen borondateak, bateratzeko Estatuarauen menpetik urten gurean, euren aurka eragintzasunez borrokatzea ahalbidetu dau.

Egoera politikoak bateraezintasunak berbiztu dituan lekuetan, erantzunkizun politiko orokorrekaz eta gizarte osoarentzeko alkarkidetasunagaz buztartu ezin daikezan gogoak sortu ditu (37).

Gitxiengoen aldezpena ez da Estatuari dagokion zerrenda klasikoan sartu. Historiari begira hitz eginaz, behintzat, gitxiengoak ez dabe Estatuaren laguntza berezirik jaso, nahiz eta herritar gehienen eskubideak eskatu. Gitxiengoa "arazo publikoa" bihurtu edo holako arazotzat hartu behar izan dauan arte, Estatuak ez dau ezer egin bere alde. Estatuaren erantzuna jakina izan da: bardintasun oinarriaren aurkako ekintza danez gero, bereizkeria izango litzatekela. Beraz, ez da bidezkoa (38).

Egia esan, eta batez be kultur gitxiengotuentzat balio dau, gitxiengoaren hainbat arazo Estatu mailan baino lurralde mailan errezago arautu leiteke eraginkor-

tasunez. Talde interesdunagaz negoziatu eta hitzarmendu behar dau. Gitxiengoaren arazoei gizarte mailan harrera ona egin ezik ez da jaioko kulturaren eta hizkuntzaren aldeko Estatuaren babesa.

Gitxiengoaren aldeko Estatuaren jarduerak, ekonomiaren aldetik be, onargarri eta etorkizunerako ona dan neurrian onartuko dau. Hizkuntza edo kultura baten lehenagoko ezaugarriak bakarrik babestuta, gaur egungo eta etorkizunerako bizimoduaren eta beharrizanen arabera, moldatu barik, ez dau gitxiengoarentzat bultzagarri eta onuragarri izaten jakingo (39).

Estatua sortzeko kultur gitxiengotu bati emon behar jakon laguntza, ez da edozelakoa. Nazio baten eraketan etenbako parte hartzea izan dauan gitxiengoa bada, kultura baten iraupena bultzatzeko borondateak askozaz indartsuagoa izan behar dau. Estatu baten gitxiengo bati gordetako "duintasun maila" erabagitzen dauan faktore historikoa gehiengoak gitxiengoagaz, konpromezua hartzen dauan neurriaren araberakoa da. Estatu baten historian garrantzi haundia eukiteak etorkizunari arazorik barik begiratzea errazten dau. Epe luzean, faktore honek nazioari izate ideologiko zalantzabakoa izaten lagunduko deutso. Estatuak, legebideztaketan jarduteko, herritarren borondate orokorra ordezkatzen dauan neurrian bakarrik daukanez gero, gitxiengoak laguntza berezia lortzeko dauan nahiak gehiengoaren baietza behar dau. Demokraziaren funtsezko arauek laguntza publiko bereziak gehiengoak onartu behar dituela, eskatzen dabe (40).

4.1.3. GITXIENGOAREN ARAZOA NAZIOARTEKO ERAKUNDEETAN.

Hizkuntzari buruzko gitxiengoen lehenengo Hitzarmena 1.919an idazten da (41).

Frantziako matxinada ostean, abertzaleak jaio ziran eta abertzaletasunak Estatuaren eta aberriaren mugak egokitzea eskatu eban. Abertzaleak bake politikoari, bai nazioko eta nazio artekoari, zirkin eragin eta istiluak sortzen hasi ziran.

Lehenengo guda ostean, garaileak Europako mapa berregin eban. Galdu ebenak (Alemania, Austria, Hungria, e.a.) euren zatiak galdu eta herri gitxiengo barriak sortu ziran: Polonia eta Checoslovaquia, e.b.

Herrien arteko arazo gogorrak konpontzeko gitxiengoen Hitzarmenak egiten hasi ziran: batzuk herri gitxiengo barrientzat (Polonia, Checoslovaquia) eta baita euren lurraldeak gehitu ebezanentzat be (Rumania, Yugoslavia ta Grezia).

Beste herrialde batzuekin Bake Hitzarmenak, gitxiengoak babesteko Itun, eta beste batzuentzat Nazioen Alkartean sartzeko beharrezko ziran autorkizunak egin ziran (Finlandia, Albania, Letonia, Estonia, Irak (1.931)) (42).

4.1.3.1. Indar Alkartuak eta Poloniak eginiko Hitzarmena

Estatu batzuetan gitxiengoen hizkuntza eta kulturearen Nazioarte Babesa 1.919an hasi zan, Lehen Mundu Gerratea amaitu zanean. Gitxengoen Hitzarmenak deritxenetan, eta horren jarraiko beste Hitzarmen eta Agiri batzuetan, zenbait neurri hartu ziran. Neurriok Nazioen Alkartearen babespean jarriak izan ziran. Helburu nagusia zera, Estatu europear batzuetan gitxiengoen hizkuntza eta kultura babestea. Hitzarmenetan lehenengoa, eta beste guztiak eredutzat hartu ebena, 1.919ko ekainaren 28an Lehen Mundu Gerrateko Indar Alkartuak eta Poloniak eginiko Hitzarmena izan zan (43). Hitzarmen hau ezagutzea nahikoa izango da, era berean Nazioen alkarteko sistema osoa ezagutu ahal izateko.

Hona hemen bere manurik oinarrizkoenak:

Gitxiengoei euren hizkuntza erabilteko askatasuna garantizatzen jaken "zein hartuemon pribatuetan edo merkataritzakoetan, zein erlijio, kazetaritza edozein motatako argitarapenetan, zein hartuemon publikoetan" eta "bai ahoz bai idatziz euren hizkuntza hauztegietan erabili ahal izateko erreztasun egokiak" ziurtatzen jakezan. (7. art.)

Poloniar guztiei, ezelango salbuespenik gabe, legearen aurrean bardinizatea eta eskubide zibilak eta politikoak ziurtatzen jakezan, eta zera manatzen zan "etnia edo erlijio edo hizkuntzagaitik gitxiengoetako poloniarrak, bai eskubidez bai egitez beste poloniarren tratu eta garantia bardinak izan eiezala". (8. art.) Berehala azalduko da klausula honi Auzitegi Internazionalak emon eutsan interpretazioa.

Gitxiengoei "eskubide bardina autortzen jaken euren kontura karitate, erlijio eta giza erakundeak, eskolak eta beste motatako hezkuntza erakundeak sortu, zuzendu eta kontrolatzeko, erakundeotan euren hizkuntza erabilteko eskubidea ebelarik" (8. art.)

Gitxiengoei irakaskintza publikoa euren hizkuntzan egiteko eskubidea autortzen jaken, eta baita giza eta hezkuntza ekintzerako ziran aurrekontu publikoetan parte-hartze bardina izatekoa ere (44).

Manu honeek garantia bikoitza eben: nazionala eta internazionala. Garantia nazioanala honetan egoan: manu honeek "oinarrizko legetzat" hartzen ziran, eta honela beste lege, araudi eta ekintza ofizialik ezin zan izan ez lege honen aurka ez

gainetik. Nazioarte mailako garantia beste hau zan: Nazio Alkartearen Batzordean politiku izaerazko gorabidea onartzen zan, eta interpretazioa zalantzazkoa zanetan Justizia Internazioanaleko Auzitegi Iraunkorrean lege izaerako gorabidea aurkezteko eskubidea onartzen zan. Horrela, Auzitegi honek, 1.935eko erabaki garrantzitsu batetan, Hitzarmenaren 8. artikuluaren zentzua argitu egin eban behinbetiko eta aginpide osoz; klausula horretan hauxe adierazten zan, gitxiengoetako herritarrak "eskubidez eta egitez gehiengoak dabezan tratu eta garantia bardinak izango dabezala" (45).

Auzitegiak Albaniari ezarri eutsazan oinarri honeek, eskola pribatu guztiak kendu eta ordez publikoak jarri ebazalako izan zan. Eta Auzitegiak jarraiko ondorioak atara ebazan:

> "gitxiengoen eskolak kentzeak, -gitxiengoen beharrizanak bete leikiezanak bakarrik-, eta euren ordez Estatuaren erakundeak jartzeak tratujokabideari dagokionezko bardintasuna apurtuko leukie, gitxiengoa, dituan erakunde egokirik gabe itziaz, gehiengoak jarraitzen dauan bitartean. Manu honegaz, gitxiengoaren aldeko pribilegio bat jarri beharrean, -Albaniako gobernuak dinoan legez-, zera ziurtatzen da, gehiengoa gitxiengoagazkoari dagokionez, pribilegio egoeran jartea" (46).

Nazioarte Justiziako Auzitegi Iraunkorrak eskeinitako berba hain argigarri eta zuhurrak, gitxiengoen asmoen aurka, sarritan eta gitxi pentsauta, egindako salaketa desegin eban: gitxiengoak eskuratu nahi ebezan "pribilegioena". Hauzitegiaren eritxiz, pribilegio honeek, egiazko eta benetako bardintasunerako gitxiengoak daben oinarrizko eskubidea besterik ez dira...

4.1.3.2. NBE: Nazio Batuen Erakundea (47)

1.945ean Bigarren Mundu Gerratea amaitzean Nazioen Alkartea desagertu egin zan eta beragaz batera Gitxiengoen Hitzarmenak ere desagertu egin ziran; izan ere Hitzarmen honeek Nazioen Alkartearen babespean egozan, Finlandiarena izan ezik (48).

Nazioen Alkartearen ordez sortu zan erakunde barriak, ONU izena hartu ebanak, (NBE: Nazio Batuen Erakundea), gitxiengo nazionalen aipamenik ere ez eban egiten bere sorrerako agirian. Nazional-sozialista errejimenak bere izenean egindako abusuakaitik, alde batetik, eta giza eskubideen arlo barrira ahalegin guztiak zuzendu ziralako, bestetik, egin zan huts nabarmen hori. 1.948an ere, giro bardinaren eraginagaitik, eta Estatu ugariren gurari garbiaren aurka, Giza Eskubideen Autorkizun Orokorrak, abenduaren 10ean izenpetu zanak, ez eban gitxiengoei buruzko aipamenik egin.

Baina Nazioarteko bizitzaren errealitateak berak, eta Estatu askotan gitxiengoen presentziak sortzen ebazan legezko eta politiko arazoen ausnarketa lasaiagoak, arazoa estudiatzera behartu eben ONU.

1.966ko abenduaren 16an, Batzar orokorrean, gehiengo haundiz, onartu zan Eskubide Zibilen eta Politikoen Itun barriak aztertu egin eban, neurri baten behintzat, huts hau (49). Bere helburu nagusia 1.948ko Autorkizun Orokorra egi bihurtzea eta osotzea da, guztiak onartutako Giza Eskubideak bete ahal izateko emon behar ziran pausu zehatzen Estatuen aldetiko onarpen argiaz. 27. artikuluak hau dino:

> "Etnia, erlijio edo hizkuntza gitxiengoak dagozan Estatuetan, gitxiengo horreetako pertsonei ez jake ukatuko, euren taldeko beste kideekin batera, euren bizitza kulturala izateko, euren erlijioa autortzeko eta praktikatzeko, eta euren hizkuntza erabilteko dagokien eskubidea."

Artikulo honek, nahiz eta orokorregia izan bere adierazpenean, argi izten dau gitxiengoak euren bizitza kulturala eta hizkuntza izateko daben eskubidearen oinarria. 1.948ko Autorkizun Orokorrak eta 1.966ko Itunak badabe diferentzia handi bat: harek adierazi egin eban, honek berau onartzen eben Estatuak behartu egin ebazan legeztatzera; gainera Hitzarmenetarako egoan arautegi internazionalera jo eitekean bere manuak bete eragiteko. Honez gain, Itunak berak bere klausulak benetan

bete eragiteko ahalbidea dauka, Giza Eskubideen Batzordeak sortu dau eta; Batzorde honi, Estatu bakoitzak, Itunean onartutako eskubideak beteteko, -beste batzuen artean gitxiengoak daben euren hizkuntza eta kultura izateko eskubidea-, hartu dauan jokabidearen barri emon behar deutso.

Itun honen arabera, edozein Estatu kidek, halan nahi izanez gero, beste Estatu kideen legehausteak salatu ere egin leikioz Batzordeari. Eta egun bereko Lehenagiri batetan agertzen danez, salaketa ahalmen hori pertsona bakoitzaren esku ere jartzen da "Itunean azaltzen dan edozein eskubide" Estatuak zapaldu ezkero; beraz baita gitxiengoari dagokiozan eskubideak hausiez gero. (27. art.)

Gitxiengoaren babes internazionalak muga bi ditu. alde batetik, 27. artikuloa zehaztasun gehiegi barik dago idatzita eta ez da zehatz eta mehatz azaltzen zer dan gitxiengoen "bizitza kulturala" eta ez eta euren "hizkuntzaren eskubidea" noraino heltzen dan ere. Honeek zehatzago azaltzen ditu Nazioen Alkarteak, gorago ikusi ahal izan diranez. Testua aztertu ondoren zera esan leiteke, gitxiengoaren hizkuntzan irakastea edo gitxiengoaren erakundeetan euren hizkuntza erabiltea baztertuta geratu dirala. Bigarren muga edozein Itun Internazionalek dauana da, hauxe: Hitzarmen batek, berez, berau izenpetzen daben Estatuak bakarrik behartzen ditu, eta, oraingoz, Eskubide Zibilen eta Politikoen Ituna izenpetu dabenak ez dira berrogeira heltzen, nahiz eta nazioarte mailako komunitateak 140 baino gehiago izan. Beraz, errealitatea kontutan hartuez gero posibilitate gehiegi geratzen da gitxiengoak behar bezela babestu barik jarraitu daien.

4.1.3.3. UNESCO (50)

Lehengoa baino maila beherago batetan, bere arloa ere mugatuagoa dalako, aurkitzen da, -eta hau ere nazioarte eremuan-, UNESCO 1.960ko abenduaren 14an onartu eban "Irakaskintza alorrean diran diskriminazioen aurkako borrokari buruzko konbentzioa" (51). Nahiz eta Erakunde espezializatu hau eta ONU bat izan ez, lotura estuak ditue eta bataren eta bestearen kideak ia-ia bardinak dira. Horregaitik UNESCOk hartutako akordioa, berez, komunitate internazionalak hartutakotzat jo leiteke. Irakaskuntzari buruzko Konbentzio honetan gitxiengoei dagokien manu bat dator (52).

5. artikuluak zera autortzen deutse gitxiengoei, euren eskolak sortzeko eta honeetan euren hizkuntza erabilteko eskubidea. Eskubide hau betetzea Estatu bakoitzak bere esparru barruan hartu daiazan neurrien arabera egingo litzatekenez, eta baldintza honek aitzakiak sortu leikezalako edo neurri eznahikoak hartu daiezan arriskua dagoanez, artikulo bereko 2. sailak Estatu kide guztiak beren-beregi behartzen ditu "lehenengo parrafoan adierazotako manu guztiak beteko dirala garantizatzeko beharrezko neurriak hartzeko". Betebehar argi hau sendoagotuta geratzen da bere inguruan 7. artikuloak ezartzen dauan kontrolaz; artikulo honen arabera Estatu kideak aldiro-aldiro txostenak bialdu beharko deutsoz UNESCOri "konbentzioa gauzatzeko hartutako lege edo arau eta ostantzeko neurrien barri emonaz".

Erakunde beronek 1.962an erabagitako Lehenagiri baten, Konbentzioaren manuak osotu egin ditu Konponbide eta Alkarraitze Batzorde bat sortzean, izan daitekezan aituezinak gainditzeko (53). Lehenagiri honetan partaide diran Estatuak alkar ohartarazteko eskubidea dabe, euretariko batek konbentzioko manuak betetzen ez dauzanean. Ohar horrek Estatuen arteko eztabaida sortuko baleu, eta hiru hilabeteko epe barruan konponduko ez balitz, euretariko edozeinek jo leike konponbide Batzordera; honek txosten bat osotuko dau egokitzat dituan zehaztasunekaz eta UNESCOko Zuzendari Orokorrari bialduko deutso argitaratu daian. Argitaratze horregaz Konbentzioan manatutakoaren inguruko kontrol-lana betetzen da, eta, era berean, Batzordeak publikoki adierazten dauana, zeharka, zigortzat jo leike Konbentzioa behar bezela bete ez dauanarentzat.

4.1.3.4. Europako Kontseilua (54)

Hain zabala ez dan beste maila batetan, baina maila garrantzitsuan alde honetan dagozalako eztabaidarik gehien sortu dabezan gitxiengoak, Europako Kontseiluak egindakoa aipatu geinke. Erroman 1.950eko azaroaren 4an onartu zan Giza Eskubideen Europear Konbentzioa (55), 14. artikuluan, edozein eratako diskriminazioaren aurka, eskubideen eta libertateen lorpena ziurtatzen da, eta honeen artean argi eta garbi adierazten ditu "hizkuntzarena" eta "gitxiengo nazionalean" oinarritutakoak.

Jakina, artikulo honek gitxiengoko kideei gehiengokoak daben tratu bardina garantizatzen deutse, baina ez deutse aintzakotzat hartzen gitxiengoak, euren egoera bereziagaitik, nahi izango leukien eskubide gehigarririk (derecho adicional). Onarpen hain urri honek, gero azalduko dogun bezela, -Giza Eskubideen Europear Auzitegiarengandik zehaztasun garrantzitsua jaso ebanak- (56), ezin eikeazan gitxiengoen ametsik sakonenak ase, eta Europako Kontseiluko Estatuetako zenbait ordezkarik zera eskatzen eben Europako Kontseiluaren Batzar Orokorrean: gitxiengoen eskubideak eta pribilegioak bermatzeko Eraskin bat egitea Konbentzioari.

Eraskin hori egiteko sortu zan Gitxiengoen Sub-batzordeak 1.961eko apirilaren 23an testu bat aurkeztu eutsan Batzar Nagusiari eta honek egun beratan onartu eban. Hau inoan:

> "Gitxiengo nazional bateko diran pertsonei ez jake ukatuko, -beste bere taldeko kideekin batera, eta ordenu publikoaz alkargarria bada-, euren bizitza kulturala izatea, euren hizkuntza erabiltea, euren eskola egokiak sortzea, eurak aukeratutako hizkuntzan irakaskintza hartzea,edo euren erligioa autortzea eta praktikatzea."

Testu hau goian ikusi dogun Eskubide Zibilen eta Politikoen Ituneko 27. artikuluaren bardinantzekoa da, baina badau oinarrizko alde bat: hemen beren-beregi adierazten da hezkuntzarako eskubidea eta han ez, eta ikuspuntu honetatik ha baino osoagoa da. Baina hala ere, bere formulazioa orokorregia da, batez ere Nazioen Alkarteak onartutako Gitxiengoen Hitzarmenekin alderatuz gero. Baina Sub-batzordearen helburua ez zan izan testu oso bat idaztea, bere helburua mugatuagoa izan zan, zera: Europako Estatu esbardinetako orduko mentalitatea kontutan izanik, onartuak izateko egokiak izan eitekezan gai zehatz batzuk seinalatzea.

Europako Kontseiluko Batzar Orokorrak onartu egin eban testu hau eta Ministroen Batzordearen esku itzi eban, orduan gertatzen ebilzan 4. zenbakiko Lehenagiriko beste artikulu bat gehiago izan eitean. Eta aipatutako Batzordeak ontzat emon eban. Gauzak honetan egozala, Giza Eskubideen Europear Hauzitegiak zenbait hauzieskabide jaso ebazan, eta eurotan zalantzan jartzen zan Belgiar hizkuntzari buruzko legea eta Konbentzioaren 14. artikuloaren arteko alkargarritasuna. Arazo honek Lehenagiriko gitxiengoei buruzko artikuloaz zerikusia ebanez, Ministroen Batzordeak Hauzitegiaren erabakiaren zain geratzea ebatzi eban. Honegaitik 1.963an izenpetu eien jarri eben Lehenagiriko 4. zenbakiak, ez eroian artikulo hori. Hauzitegiaren erabakia iragarri ondoren Ministroen Batzordeak ez eban ezelango pausu ik emon gitxiengoen gaia berbizteko, eta artikulo horrek, Batzar Orokorrak eta Ba zordeak berak funtsean prestatu eta onartu izan arren, argitara emon barik jarraitzen dau harrezkero. Hau honela izan arren, artikulu honek bere balioa dauka, Europako Kontseiluko Estatu kideengan lege aldetiko betebeharrizanik sortu ez badau ere, Estatu horreek eurok 1.961ean, gitxiengoen arazoak gaur egun dauan heldutasuna lortu barik egoanean, gai honi buruz zer pentsatzen eta noraino heltzeko prest egozan isladatzen daualako.

1.969, 1.970, 1.972 eta 1.973an, arazo "ez-materialak" ebezan herriei ekintza bideak ezartzeko kongresoak egin ziran. 1.974ean alkartearen ekintzapidea ibilerazo zan.

1.981eko ekainaren 12ko txostenean, norberaren hizkuntza erabiltzeko eskubidea aintzatetsi zan, bai eta alkarteak euren hizkuntzak eta kulturak garatzekoa be.

Gomendioa emoten dau, tokian-tokiko hizkuntzak gehiengoaren hizkuntzarekin batera sartzeko lehen mailako irakaskuntza, bai eta goimailako irakaskuntzan eta komunikabideetan ere. Tokian-tokiko botereek bertako hizkuntzak ofizialak dirala adierazo behar dabe.

1.982ko irailaren 17an, Napolin, Europako Kontseiluko Estatu kideen Kultura Ministraritzak batu ziran kultur arazoak aztertzeko.

1.984eko maiatzaren 15 eta 16an, Estrasburgon "Europako herrialdean-herrialdeko eta gitxiengoen hizkuntzen Kartaranz"ko gaiari buruzko entzunaldia antolatu zan (57).

4.1.3.5. Europako Alkartea (58)

Europako Alkarteko erakundeei dagokienez, 1981ean Europako Legebiltzarrak hartutako ARFE-izeneko Erabagia aipatu beharrekoa da. Testo honetan, irakaskintzan, Komunikabideetan eta bizitzan hizkuntzen erabilpenerako neurriak hartzeko eskatzen jake gobernuei (59).

ARFE txosten-erabagiaren ondorio lez, Hizkuntza Gitxien Zabalduen Europear Bulegoa sortu zan (60).

1987an, Willy Kuijpers-en txostenaren ondoren, Europako Legebiltzarrak beste erabagi bat hartu eban (doc. A 2-150/87). Ordura arteko Erakunde honen jarrera osoena eta zehatzena agiri horretan agertzen da (61).

Beste aholku interresgarri azkoren artean, hizkuntza gitxiengotuetan irakaskintza emotea aholkatzen da. Batzordeari ardura hori emon arren, hizkuntza eta kultura gitxiengotuak ez ditu kontutan izan Europear Alkarterako hizkuntza-Egitarauak egiterakoan (62).

4.1.3.6. Aldebiko Hitzarmenak

a) De Gasperi-Gruber Hitzarmena (63)

Maila orokorretik edo eskualdeetakoetatik, aldebiko maila batetara jatsiaz, Bigarren Mundu Gerrateaz geroztik nazioartean gitxiengo batzuen hizkuntza arazoak arautuaz izan diran Hitzarmen batzuk aipatuko ditugu. Euren artean, lehenengo eta behin, De Gasperi-Gruber Hitzarmena izenez ezagutzen dan italiar eta austriar gobernuen arteko akordioa dogu, 1.946ko irailaren 5ekoa. Akordio hau, 1.947ko otsailaren 10ean izenpetu zan Italiagazko Bake Hitzarmenari, IV. Eraskin lez erantsia izan zan.

Hitzarmen honetan, Italiak alemaniar hizkuntzadun Tirol Hegoaldeko biztanleei italiar hizkuntzadunekazko parekotasun osoa emotearen aldeko erabakia hartzen dau, "alemaniar hizkuntzadun taldearen izaera etnikoa eta kulturala eta ekonomia garapena jagoteko hartzen diran erabaki berezien multzoaren barruan". Lehenengo artikuluaren arabera, alemaniar hizkuntzadun biztanleak hezkuntza eta hizkuntza alorrean garantiak izango ditue (64).

Garantia honeek sendoagotzeko 2. artikuluak lurralde horreetarako autonomia erregimen bat erabakitzen dau: "Gorago aipaturiko eskualdeetako lege eta ekintza manatzaileak, autonomia errejimena izango dabe, eta horretarako funtsezko oinarriak alemaniar hizkuntzadun biztanlegoaren ordezkariekin hartuemonak izanaz jarriko dira.

1.969an Italiar eta Austriar Gobernuen arteko akordio barri bat izenpetu zan. Akordio honen arabera Tirol Hegoaldeko probintziei autonomia baldintza bereziak emongo jakez. Eta zera erabagiten da: Estatuto barriak, beti eta leku guztietan, begirunez hartu behar dituan italiar interes nazionalen artean, beren-beregi autortuko dauala lekuko gitxiengoen babesa.

Aurrerantzean alemaniera italieragaz hizkuntza ofiziliagaz, parekatuta egongo da. Alemaniar hizkuntzadun biztanleak lege eta aministrazio zerbitzuekazko hartuemonetan euren hizkuntza erabili ahal izango dabe. Haurtzaindegi, lehenirakaskintza eta bigarren mailako irakaskintza biztanleen ama-hizkuntza emongo da (italieraz, edo alemanieraz), eta hau, irakatsi behar daben hizkuntza, ama-hizkuntza daben

irakasleak emonaz. Lehenirakaskintzako 3. mailan hasita eta 2. mailako irakaskintza, bigarren hizkuntza irakastea beharrezkoa izango da.

Honeexek dira Tirol Hegoaldeko edo Alto Adige-ko alemaniar gitxiengoaren eskubideak arautzen dabezan manu nagusiak.

b) India eta Pakistaren arteko Hitzarmena (65)

Kronologia kontuan izanik, India eta Pakistanen artean 1.950eko apirilaren 8ko Gitxiengoei buruzko Hitzarmena dator hurrengo. Erlijio arloan sortu ziran eztabaidak India Estatu bitan banandu eben, baina independientzia lortu ostean ere eztabaidaka jarraitu eben biak. Estabaidok, bai Indian bai Pakistanen geratu ziran gitxiengo erlijiosoak hartzen eben tratua zala ta, sortu ziran, batez ere.

Konpontzeko 1.950eko Hitzarmena izenpetu eben Estatu biak. Batez ere erligioari dagokiona izanarren, hala ere 1. artikuloan orokorrago hartzen dau arazoa (66).

Artikulu honetan gitxiengoen "kultura" jagongo dala ziurtatzen da, baina era orokorregian, zehaztasunik barik; horregaitik artikulo honek eragin praktiko larregirik ez dauka. Baina 1.950eko Hitzarmenean gitxiengoen kulturea oso babestuta geratzen ez bada ere, hitzarmen honek zeharkako garrantzi haundia izan eban eskuartean darabilgun gaiarentzat, Austria eta Italiaren arteko akordioaz eta ondoren ikusiko ditugun beste hitzarmenekin batera, ONUn lehenengo urteetan egoan indiferentzia giroa, -etsai giroa ez esatearren-, aldatzen lagundu ebalako (67).

Aldaketa nahiko eraginkorra izan zan: 1.966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Itunean 27. artikulua ezarri zan, eta era horretan 1.948ko Agiri Unibertsalean itzitako hutsune nabarmena, neurri baten behintzat, zuzendu egin zan.

d) Trieste-ko Memorandum-a (68)

Gitxiengoei buruzko hurrengo Hitzarmen Internazionala Trieste-ko Memorandum-a izenekoa da, Italiak eta Jugoslaviak Londonen 1.954ko urriaren 5ean izenpetutakoa (gero Inglaterra eta Estatu Batuak ere agiri honetara erantsi ziran) Triesteko lurraldea euren aministralgopean egoan eta. Hitzarmen honetan, II. Eraskinean, Italiako lurraldean bizi zan Jugoslaviar gitxiengoa eta Jugoslavian bizi zan italiar gitxiengoa babesteko Estatuto berezia agertzen da.

Hizkuntza eta kultureari dagokiozan aginduak ondorengoak dira: 4. artikuluak Estatu biei emoten deutse euren gitxiengoen "etnia izaera eta kultur garapen askea" jagoteko betebeharra (69).

5. artikulua hizkuntza arloari loturikoa da batez ere eta zera manatzen dau: gitxiengo bietako kideak

> "eskualde bietako lege eta administrazioko manatzaileekin, bai hartuemon pribatuetan eta bai publikoetan, euren hizkuntzak erabili leikiezala. Manatzaileengandiko erantzuna hizkuntza bardinean hartzeko eskubidea dabe, bai zuzenean edo interprete bidez, ahoz-ahoz emondako erantzuna danean; idatzizkoa bada, manatzaileak, erantzunen itzulpena, behintzat, ziurtatu beharko dabe.
>
> Agiri ofizialak eta baita talde etniko honeetako kideei dagokiezan epaileen erabakiak, hizkuntza egokian itzulpena izango dabe. Gauza bera egingo da ohar ofizial, argitarapen eta deiagiri publikoekin."

5. artikuluak berak beste hau ere manatzen dau, Italiar eta Jugoslaviar administralgo eskualdeetan publikoetan dagozan inskripzioak (izenak), eta baita herri eta kaleetakoak ere, hizkuntza bitan idatzita egogo dira, biztanlegoaren lautik bata talde etnikokoa dan herri guztietan.

Memorandumaren manuak bete daiezan, 8.artikuluak Italiar-Jugoslaviar Batzorde mixto bat sortzea izentatzen dau. Honek bere laguntza eta aholkuak eskeiniko ditu talde etniko biak babestean sortu leitekezan arazoetan. Talde honeetako herritarrak aurkeztu leikiezan kexak edo sortu leikiezan arazoak ere aztertuko ditu. Jugoslaviar eta Italiar Gobernuak Batzorde horri erreztasun guztiak emoteko konpromisoa hartzen dabe bakoitzaren administralgopean dagozan eskualdeetara ikustaldiak egin daiazan.

Aurreko lerro honeetan ikusi leitekenez, Triesteko lurraldeko talde etnikoak hizkuntza eta kultureari dagokionez daben babesa, orainarte aztertutakoetan baino haundiagoa eta zehatzagoa da. Honek, gero lege eta administrazio alorreko arau zehatzak emoteko, egokitasun haundia eskeintzen dau. Bakoitzaren betebeharrak ere hobeto zehaztuta dagoz eta honela aituezinak eta konponezinak ere gitxiagotu egiten dira. Azkenez Batzorde Mistoa izatearenak Hitzarmeneko erabagiak zintzo beteko diran eta kexak eta eskabideak konponbide bizkorra eta zuzena izango daben garantia eskeintzen dau.

e) Alemania eta Dinamarkaren arteko Hitzarmena (70)

Lehen Mundu Gerratearen amaieran Scheswig-Holstein Dukerria zatitzean Dinamarkako gitxiengo bat geratu da Alemanian, eta Alemaniar gitxiengo bat Dinamarkan. 1.955eko martxoaren 29an Alemania Mendebaldeko Gobernuak eta Dinamarkakoak, Dinamarkar eta Alemaniar gitxiengoen inguruko Estatutoei buruzko Agiri publiko barriak egin ebezan, aurrez negoziazioak izan ondoren. Agiriak, edukiari dagokionez, ia bardinak dira, eta Estatu bien arteko Akordioa sortzen da, Nazioarte mailako betebeharrak eratorriz (71).

Dinamarkar Agiriak alemaniar gitxiengoari, batez ere, alemaniar kultura eta alemaniar komunitatekoa dala adierazteko eskubidea autortzen deutsoz. Bai gitxiengoaren kide bakoitzak bai euren hizkuntza berbaz eta idatziz, inongo oztoporik barik, erabilteko eskubidea dabe, eta baita Hauzitegi eta Manatzaileekin ere, arlo honi buruzko lege arauen arabera.

Hezkuntza orokorreko ikastetxeak eta haurtzaindegiak sortu ahal izango dabez (Ikastetxe Teknikoak ere bai). Irratigintzarako ere erreztasunak ziurtatzen jakez. Gitxiengoen egunkariak iragarki ofizialak izango dabez lagungarritzat. Agintariak diru publikotik emoten dituen laguntzei dagokionez, gitxiengoetakoak ez dabe tratu ezbardinik izango. Azkenez autortu egiten da "gitxiengo alemaniarrak erlijio, kultura eta profesio arloetan Alemaniagazko hartuemonak izateko dauan interes berezia".

Bere aldetik, alemaniar Agiriak eskubide bardinak autortzen deutsoz Dinamarkar gitxiengoari. Dinamarkar hizkuntzan irakasten dan eskoletan alemaniera ere irakatsiko dala zehazten da. Gurasoak eta tutorak erabakitzen dabe, askatasun osoz, umeak dinamarkeraz (danieraz) irakasten dan eskolara doazen ala ez.

Manu honeen eta egindako lan gogotsuaren ondorioak atsegingarriak izan dira. Alemaniar eta Dinamarkar gitxiengoak lege aldetiko babes sendoa dabe eta komunitate bietan gertatzen dan bakea eta erosotasunak argi erakusten dabe gitxiengo bi honeek ez dabela kalterik jasan eta ez dabela eskakizun berezirik.

f) Austriagazko Estatu Hitzarmena (72)

1.955eko maiatzaren 15ean Austriagazko Estatu Hitzarmena izenpetu zan Vienan. Beraren bidez, bigarren mundu gerrateko Indar Alkartuak Austria Estatua berreraikitzen eben, aske eta demokrazian. Hitzarmen honen klausuletan 7. artikuloan Eslobeniar eta Kroaziar gitxiengoen eskubideak aipatzen dira. Artikuluak, lehenengo eta behin, gitxiengo honeetako kideak beste austriarrekin daben parekotasuna autortzen dau, eta batez ere, "euren erakundeak izateko, batzartzeko eta euren hizkuntzan komunikabide idatziak izateko eskubidea". Horrez gainera, Karintia, Burgenland eta Styria administrazio eta lege eskualdeetan, Eslobeniar edo Kroaziar biztanlegoa (edo gitxiengo bietakoak) bizi diran tokietan, Eslobeniera eta Kroaziera, Alemanieraz batera, hizkuntza ofizialtzat hartuko dira, eta topografi izenak eta terminologia Eslobenieraz edo Kroazieraz eta Alemanieraz idatziko dira.

> Hezkuntzari dagokionez, hona hemen zer dinoan 2. artikuluak:
> "Lehenirakaskuntza Eslobenieraz eta Kroazieraz hartzeko eskubidea izango dabe eta bigarren mailako irakaskuntzari dagokionez, kopuruari dagokion beste ikastetxe izango dabez; horretarako, irakaskintza inspekzio sail bat sortuko da Eslobeniar eta Kroaziar eskoletarako."

Gitxiengoa, ingurukoekaz alderatuz, oso urria dan kasuetan berrindartzea lortzeko garrantzitsua dan manu bategaz amaitzen da artikulua. Zera dino atal honek: "Kroaziar eta Eslobeniar biztanlegoari bere nortasuna edo gitxiengoen eskubideak eragoztea helburutzat daben erakundeen ekintzak debekatu egingo dira". Gitxiengoaren bereizgarriak eta kulturea jagotea eta lege aldetiko babesa beharbeharrezkoak dira gitxiengoa guztiz desagertu ez daiten. Horregaitik bere nortasun eragoztea helburutzat daben erakundeen ekintzak genozidiotzat, edo (egoki esan danez) etnozidiotzat jotzen da, eta debekatua izan behar dau gitxiengoen eskubiderik oinarrizkoenaren aurka doalako, bere izatearen beraren aurka.

4.2. EUSKAL HERRIAN EUSKERAZ BIZI IZATEKO ESKUBIDEA

4.2.1. EUSKERAREN BARRUTIA: EUSKAL HERRIA.

4.2.1.1. Herriaren egoera.

4.2.1.2. Hizkuntza eta Kultura aniztasuna.

4.2.2. HERRI-ZORRAK.

4.2.2.1. Euskal Herriari bizia zor jako.

4.2.2.2. Euskal Herriari bere esku izatea zor jako.

4.2.2.3. Kulturgintzarako Giza Eskubideak eta Hizkuntzari buruzko Herri-arauak.

4.2.1. EUSKERAREN BARRUTIA: EUSKAL HERRIA.

4.2.1.1. Herriaren egoera.

Euskal Herriaren errealitatea aipatzean, arduralaritza eta politikabatasunari begira ez dihardugu. Frantziako Estatuan eta Espainian, bietan da partaide Euskal Herria. Euskaldunen hizkera, euskera, barruti bietan erabilten dan ezkero, politikaz bananduta egon arren, Euskal Herria bat eta bakarra da. Espainiako lurralde barruan, politika aldetik Euskal Herrian, lurralde autonomo bi ditugu: Nafarroa bata, eta bestea Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak osotzen dabena. Baina hizkuntzari begira, dana da Euskal Herria. Euskal Herria deitzea ez da biztanle guztiak euskera alkar hizketan darabilelako, baina "Euskal" Herri edo "Euskal" Alkartea izendatzerakoan, euskeraren garrantzia eztabaidaezina da.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiak osotzen dabe Euskal Autonomia Alkartea, nahiz eta beste errealitateak ahaztu-ezinak izan. Gainera, gaurko egoera ez da aldatuezina.

Euskaldun eta Euskal Herria aitatzen danean, lurralde barruti askotan euskeraren erabilera urria edo-ta bapeza dala jakina da, eta leku guztietan gitxiengotua. Baina lurralde horreek Euskal Herrikoak dirala ez da eztabaidatuko. Kontuan izan baita be, herri baten kulturgintzaren barrutia askoz be zabalagoa dala, hizkuntzarena baino. Baina, taldearen nortasun ezaugarri lez ta baita taldearen gai banatzaile lez, hizkuntzaren garrantzia azpimarratzekoa da.

> "Euskal Elkarte bateko giza hartuemonetan hizkuntza egoerak ondoren garrantzitsuak dakarz: Hizkuntza batasun egile eta eragile da, baina era berean komunikabide-ezaren eta banaketa sortzaile bihurtu daiteke" (73).

Euskeraren egoera mailakatzen bada, "hizkuntzaren oinarrizko funtzioak, nortasun ezaugarri izatetik hasi eta nazio arteko hizkuntza izaterainokoak dira" (74) J.M. Sánchez Carrionek zazpi maila bereizten ditu: pentsamentu edo "ego"ren hizkuntza, etxeko hizkuntza, lan eta lanbidekoa, lekuko edo euskalkia, nazio-hizkuntza, zibilizazio eta nazio arteko hizkuntza. Maila baten bertan hizkuntza ezbardin bi agertu

daitekez funtzioen joko bakar baterako. Gainean eta nagusi jartzen dan hizkuntza, zapaltzailea izango da, eta zapaldua bestea (75).

Euskera Euskal Herrian bakarrik bizi da eta ez biztanle guztiengan. Gaztelera maila guztietan bizi eta erabilten da. Gazteleraren indarra izugarria da. Euskeraren eta gazteleraren eragina ezbardina da. Euskerak gehien bat nortasun eta familiako hizkuntza funtzioak betetzen ditu. Gaztelera kanpotik dakarren indar izugarriak euskeraren lehenengo eta bigarren mailak ito, eta euskeraren erabilera apurtu eta hondatzeko arriskuan ipinten dau. Euskaldunak txokoan edo etxean darabilan euskeraren gozotasun eta aberastasuna ez da gizarteratzen. Baina telebistan edo agirian azaltzen dan jazoera danen agoetan dabil. Holan euskera desagertzeko bidea laburtu daiteke; agirian, dana gazteleraz erabilteak, euskerari zor jakon bizitza jaten dautsalarik.

Frantzian eta Espainian Euskal Herria ertzeratuta dago, eta bien artean zapuztuta daukie. Euskera barrurako eta lekukotzat da bakarrik. Berez ta legez, herri-hizkuntza banandu-ezina da. Hizkuntza horren bitartez eta erabilera osoaren bitartez sortzen da hiztunen batasuna. Estatu zapaltzaileek apurtzen dabe banandu-ezina dan herri-hizkuntza. Hizkuntza zapaltzaileak hartzen ditu euskeraren funtzioak. Ondorioak begibistan dagoz: euskera behera, ahuldu, bere lurralde ta kultura txirotu, nazio batasuna apurtu e.a., hizkuntza zapaltzaileak ostera, bere hizkera bateratu eta ezartzen dau. Estatuak Euskaldun eta Euskalerriko egoera "arazotxo" bat lez agertu ohi dau. Estatuko eta nazio hizkuntzetan euskerak ez dauka parterik. Euskal Herritik kanpo, plazaratzeko "gai ez dala ta". Beste Estatuak euskera "ezin" dabela ezagutu ta (76).

Euskal Herrian badira euskeraren erabilera lortu daben gizabanako eta taldeak, baina euskerak ez dau lortu bere barrutia. Gitxiengotua, baztertua eta zapaldua jarraitzen dau. Euskerari bere erabilera-eskubidearen atea gaztelerak izten deutso. Eta ezin aurrera egin. Euskal gizartean beste burruka bat be bizi dogu. Euskera batua eta euskalkien arteko gatazka. Biak dabilz bakoitzaren barrutiak eztabaidatzen. Baina bakoitzak dau bere zeregina: euskalkiak bere lekuko izanez, eta batuak Euskalerri osorako nazio hizkuntza bihurtuz. Biak daukie bizi izateko, ezagutu eta erabilteko eskubidea. Euskalkia ezin da zapaldu eta erausi. Hiztunen bizitza eta esperientzien adierazgarri bera da.

Herri askotan euskerarik ez da egiten. Beste batzuetan euskera txirotu egin da. Legea eta euskerako gaitasuna ez dira nahiko. Euskera erabili egin behar da. Eta erabilten dan euskera (euskalkia) kendu eta umea eskolatik hasita diskriminatzen

da, etxe eta gizartean ama-hizkuntza erabilteko ume hori lotsatuz. Berba egiten daben giza-taldeak gogoan ez dira beti izaten (77).

Eusko Jaurlaritzako arduradunak euskera kontuan hartu barik onartzen dira. Euskera ez da gaurko Arduralaritzaren eta gure Agintarien hizkuntza. Gure herrigizon eta agintari erdeldunak gure hizkuntza eta gizarteari ordainezinezko kalteak ezartzen jarraitzen dabe.

4.2.1.2. Hizkuntza eta Kultura aniztasuna.

Euskalerrian euskaldunak eta erdeldunak bizi dira. Euskeraz, euskeraz eta gazteleraz eta gaztelera utsean hitzegiten dabenak. Euskal Herriko oraingo gizartean, hizkuntza aniztasuna, hau da, gitxienez hizkuntza bitasuna eta eleaniztasunak dakarzan pentsamolde eta ohituren ugaritasunetik berez sortzen dauan kultura aniztasuna nabari da. Hizkuntza eta kultura aniztasunak zera esan nahi dau: lurralde-errealitate bakar baten barruan hizkuntza eta kultura talde ezbardinak dagoz, talde honeek alkarrekin bizi dira, baina ez dira kultura batetan batzen.

Euskal Herriko biztanle guztiek ez daukie kultur nortasun bateratu eta batu bat. Eusko pertsonalitate historikoa anizkun eta era askotarikoa izan da beti. Gaurko euskal gizartean be, azalpen murriztzaile eta baztertzaileak emonez, dana euskalduna, dana euskera eta dana euskal kultura dala esanez, azalpen hau guzurrezkoa izango litzateke. Euskal Herriko hizkuntza kulturaren ugaritasun eta ezbardintasunaren inguramen batzuk aitatu leitekez: Biztanlegoaren era Historiko eta sozial ezbardinak baserri edo huriko kulturak sortzen dabez. Lan motetan eskualde artean dagoan ezbardintasunak kultura ohiturak ezbardinak egiten ditu. Euskera eta erderaren eragina guztiz ezbardina da. Etorkinen ekarpenak, ohitura ezbardin eta ugariak dakarz. Politikaren inguramen eta eragina izugarria izan da. Ekonomi eta giza aldaketak kulturari zartada gogorrak ezarri deutsiez.

Gaur egun politikan be gitxienez lau azpikultura politiko honeek dagoz: eusko abertzaletasuna, sozialismoa, erradikalismo abertzalea eta zentru-eskuma. Alderdi honetatik datorren kulturak ezin dau izan bakarra, anizkoia baino.

Gainera, Eusko Historian zehar abertzaletasunak izan dauan garrantzia berbera bestekoa, edo antzekoa, beste jazoera batzuk izan dabe: lantegi-iraultza, langatazken bilakaera, hurien gaurkotze eta haztea eta kanpoko langileen etorrerak, beste eragile askoren artean gure herriarentzat, eta batez be bere hizkuntza eta kulturaren bizitzarako eraso gogorrak izan dira.

Baina Kultura zer da? "Beharrizanen pentsakera eta sentikera, beharrizanak mailakatuz, portaera eta jarrera egingo diran erantzunetan bihurtzea" (78).

Gizakiaren kulturgintza, batez be, itaun-erantzunen jokoa egitean dago. Joko honen ariketekin lortzen dau gizakiak bere izatearen kontzientzia.

Herri baten kultura ekintza, itaun-erantzunen jokoa lez, amaibakoa da.

"Itaun-erantzunen alkarrizketa hau euskaldun bakoitzaren eta euskal komunitatearen historia bihurtzen da" (79).

Gutariko bakoitza bere etxean, bere auzoan, bere herrian jaio, bizi ta hezi da. Izaten hasi da. Bakoitzak bere erara jaso dau kultura-ondasuna. Bakoitzaren jarrera eta jokabideak ezbardinak izango dira. Gizona, izateko egina dago. Gizabanako lez eta gizartean bizi izatera behartua. Gizonaren kultura izate honek bere nortasunaren epe eta barrutiak sortzen ditu.

Euskal nortasunaren bila euskal kultura eta euskerarengana joko da. Lurralde, erraza edo politika eremuak asetzen ez dabelako. Baina kulturak be bere zailtasun ta eragozpenak dakarz, norbere burua iruzurtu nahi ez bada behintzat, eta guzurrez jantzi.

Kulturaren giza ikuspegia ez da arazo bakoa. Begira, euskal kultura eta hizkuntza aldetik ikusita nortzuk osotzen daben lurralde hau.

Europako jakitunak, De Moor eta Kerkehorfs-ek "izandakoaren oroimen barik izatekorik ez dagoala" dinoe Europari begira. "Etorkizunaren ikuspuntu barik ez dagoala konponbiderik". Euskalerrian antzera jazotea ez da harritzekoa. Etorkizuna "herriaren oroimena" gogoan dala, asmatu behar da. Kulturbidean pauso asko "oroimen" horretan hasita emongo dira. Euskal kulturagile izan nahi dauanari gatx egingo jako euskal kulturaren "oroimen" barik ekintza horretan partaide edo egile izatea. Ezinezko zeregina (80).

Euskalduna ez da lau euskal abizen daroazana. Ezta Euskal Herrian jaio dana. Euskal Herrian lana egin eta bere eragina daukana be ez. Euskaldun sentitzen dana be ez.

Gaur egun, euskalduna gehien euskalduntzen dauana euskalzaletasuna da, euskeraz dagiana. Hizkuntza da kulturaren tresna garrantzitsuena, ta berezitasun behinena. Hizkuntza-nortasuna galtzen joan dan neurrian planteaketa honen kontzientzia gehitu da. Hizkuntza da komunitatearen kultura lokarri garrantzitsuena. Hizkuntza Alkartearen kultura izaeraren ezaugarri bat da. Euskeragilea euskal kulturaren komunikabide egiten da. Lehen, foruak, odolak, jauntasunak, pase foralak eta beste hainbat oroimen gogoratzen ziran. Orain, Euskera jakinaz gainera, euskeraren eta Euskal Herriaren oinarri kulturala hartu behar da norberekotzat.

1.960-1.970 hamarkadan ikastolaren fenomenoa sortu eta zabaltzen da Euskal Herrian. Herriak euskal kultura eta irakaskintza eskatzen dau. Hain zuzen, 1.960an sortzen dira Gipuzkoan gerraondoko lehen hiru ikastolak. Euskara batuaren mogimendua sortzen da. Euskal literatura barri bat plazaratzen da, tankera eta esanahi barriz horniduta. Hor dagoz, euskal kanta barri, euskal pintura eta eskultura barriak be. Euskal kulturaren barrikuntza eta berbizkunde zabal bat agertzen dala urte horretan Euskal Herrian esan nahi da.

Indar abertzaleen artean gorputza hartzen hasten da ezker abertzalea. Ezker abertzaleak dakarren barritasuna eta berezitasuna hauxe da: teori mailan eta praxi mailan, euskal arazoak dituen bi alderdiak buztartu nahi ditu, hau da: herri burruka eta klase burruka. Gure herriaren egoera aztertzerakoan, ezker abertzaleak bi zapalketa mota aurkitzen ditu: herri zapalketa (gure herria beste baten menpean dago) eta ekonomi edo klase zapalketa (gure herrian kontrako klaseak be badagoz). Ezker abertzaleak bi zapalketa honeik astindu nahi ditu gure herritik.

Euskal Herriak bere burua gorde nahi dau. Herri izaten jarraitu nahi dau. Horretarako beharrezko dituan antolamendu ekonomiko, kulturazko eta politikoak eskatzen ditu.

Foruak kentzeak zauri eta odol ixurketa haundiak ekarri ditu ondoren. Jakina da, lehengoa eta lehena barriro era bardinean lortu ezina dala, baina gogoan eukitea ezin daikio inork inori debekatu. Euskal nortasuna ta euskal kultura aztertzean taldea, herria, hau da, gizakiak alkarrekin dituen hartuemonak ezin dira ahaztu. Gaurko gizarte eta politikan eurak bizi dira. Etorkizuna hortxe egiten dabe.

Hartuemonen barruti hau gaurko espazioa (hemengo ta kanpoko) eta historia (aurrekoak) gogoan dirala egitekoa da. Hartuemonetan arlo guztiak sartu: ekonomi, gizarte, politika, erlijio, e.a. Herria zer izango dan herriak egitekoa da. "Zelakoa" dan berak daki edo jakingo dau. "Etorkizuna" be bere egitekoa da.

"Erakundeak, gure herriko erakundeak, herriak sortutakoak, historian zehar beharrizanen erantzun bihurtu dira. Gatxa zera da, erakunde horreen itaunak zeintzuk eta zelangoak izan diran jakitea" (81).

Herriaren kulturgintza, herria dan artean, amaituezina da. Erantzunak be erabarritzeko itaunketan ikasi, itaun barriak egin behar dira.Kultur-gatazka eta alkar burrukak, giza hartuemonak era ezbardinez ulertzearen ondoren datoz. Egitasmo ezbardinak, "oroimen" ezbardinen emoitzak dira.

Euskal Herriak bere giza hartuemonak askatasunean oinarritu ditu, eta euskaldunak ez lehen eta ez orain zapalketa eta indarkeriaren legerik ez dau onartu.

Euskera da Euskalerriaren erakunde bateratzailea. Nahiz eta euskalki ezbardinetan erabili. Euskera galtzean, euskal erakundeak behera doaz. Euskera kentzean, euskal kultura eta nortasuna galtzen dira. Euskal Herrian euskera erdeldunentzat banatzailea da, eta euskaldunentzat batzailea. Euskal kulturan, hizkuntzak joko haundia daukan ezkero, euskerak arazo larriak sortzen ditu.

Euskerak hizkuntza kolonizatzailea dauka burrukan bere aurka.

Gaztelerak edo frantsesak zelango eragina edo nortasuna daukan mundu zabalean ezin da neurtu. Baina beste hizkuntzak ez daukie euskerak euskaldunentzat daukan indar, eragin eta gozotasuna euskal hartuemonetarako. Batasun eta alkartasun ahalmena dauka, batzailea da euskera euskaldunentzat. Hizkuntzakin jolastu, elertia egin eta alkarrizketarako benetako bidea hemen euskera da euskaldunentzat.

Euskal emoitzak eta ekintzak euskal herriarenak dira eta izango dira. Gizarte bakoitzak, Alkarte bakoitzak, Euskal Herriak berea egiten dau. Erdeldunek ezin daikiee euskaldunei hizkuntza, kultura edo/ta nortasuna eratu.

Euskal Gizartean nagusi dana, gehien erabilten dana gaztelera bada be, ez da euskal nortasun eta hizkuntzaren ezaugarri. Hemengo umeak euskeraz, erderaz ta ingelesez ikasten dabilz. Geroago eta elebidun gehiago dago. Elebitasuna legezkotuta. Baina Euskal Herrian jazoten dana zera da: nahiz eta Euskal Herria nahiko lurralde txikia izan, hizkuntza taldeak bateratuta ez dira bizi. Hobeto esanda, hizkuntza taldeak barruti ezbardinetan bizi dira. Euskaldun danak barruti baten ez dira bizi, erdeldunekin nahastean baino. Eta "demokraziak" euskerari bere barrutia ez deutso bilatzen, eta gaztelerak hizkuntzarekiko giza eskubideak itoten ditu. Gitxiengoak ezin dau izan taldeen artean komunikabide.

Hartuemonak izatekotan, hartu eta emon eginaz izango dira. Euskaldunak gaztelera hartu eta emonez, eta gazteleradunak euskera hartu eta emonez. Hemen, Euskal Herrian bizi diran gazteleradun asko dagoz, Euskal Herrian euskaldun gitxi dira. Gure gizartea ez da elebiduna. Gizabanako batzuk dira elebidunak. Nahiz eta legez Euskal Herria elebiduna izan.

Elebitasuna hemen gizon bakoitzaren esku dago. Borondate hori egiztatzen ez dan bitartean, gizarte elebitasunik ez dago, eta euskal komunitatea izateko zailtasun gogorrak agertzen dira. Gitxiengoaren hizkuntzarekiko giza eskubideak ez dira onartzen. Hizkuntza nortasun bi nabari dira. Biak ondo garatuta balegoz, talde biak komunikabide baten batuko litzatekez. Baina ezin da. Momentuz, une batetik bestera, arazo hau konpondu ezina da. Gehiago danak gitxiengoari lagundu behar deutso. Mila eratako arazoak dira: kultur eta hizkuntza aniztasun honek nortasun gatazkak, kultur gatazkak, alkar aituezinak, gorrotoak, eztabaida gogorrak e.a. dakarz.

Ume elebidun eta elebakarren heziketa ezbardina da. Batzuk ez daukiez besteen aukerak (82). Aukera horreek betiko galtzen dabez. Ez daukiez komunikabide bardinak. Txikitatik taldekatzen dira. Ez dira besteen modukoak sentitzen. Hizkuntza nortasunak euren nortasuna bereizten dau. Ume horreei gizarteratzeko bidea ukatzen jake. Euskal Herrian ume horreek markauta geratuko dira betiko. Gizarteko ez balira lez.

Hizkuntza-molde honek euren pentsamolde eta gizartearekiko ikuspuntua eta kultura garatzen lagunduko deutse. Gure artean, hizkuntzak eragin berezia ez daukanik ezin da ukatu Euskal Elkartea egiteko.

Euskal hiztunek euskerarekiko dukien jarrera gazteleradunak ezin dabe euki. Gure lehendikoei buruzko jarrera be ezin da gurealakoa izan. Euskerak pentsamoldea sortzen dauan lez, erderak berea sortzen dau. Hizkuntza talde bakoitzak berea. Gazteleraduna ez da osoan eta osorik euskaldunagaz alkartzen, ezin daualako. Komunikabide tresna falta jako. gure hizkuntza, ta gizarte-ingurua holakoxea da.

Gazteleradun elebakarrak ezin dau pentsau elebidunaren modura. Hizkuntza bi erabilten dauzanaren pentsakera ezbardina da. Inguru, errazoi eta eragin ezbardinak daukaz. Izakera ezbardina sortzen dau. Buru elebidunaren funtzionamendua be ezbardina izango da. Entzutegi batera bazoaz, eta bigarren hizkuntzaz jardun ezkero, ahalegin berezia eskatzen deutsu, eta zeure benetako hizkuntza ixildu eta baztertu egin ondoren, ezarria erabiltera behartzen zaitu. Elebakarrak ez dauka holako ahalegin beharrik. Ahalegin ezbardinak dira. Euskal Herrian elebakarrak (erdeldunak) eta elebidunak (erdera-euskeradunak) dagoz. Euskal elebakar gitxi geratzen dira. Eta giza komunitate batu eta bateraturik ez dago.

Egoera honek lortu dau euskaldun zeheak bere taldean eta bere buruan balorazio gitxiengotua egitea. Eta sarritan pentsakera honek, bere talde eta nortasunaren gitxiuste batera daroa. Inoren aurrean bilosik aurkitzean, inoren kultura hondakinez jazten da. Gaztelera kulturaz apaindu nahi bere kultura ukatzea.

Errealitate honen aurka, euskaldun eta euskal talde ugari agertu dira, norbere nortasunaren kutxa barruan sartu, eta Espainara barik Europara begira hasita dagozanak. Banandu dituelako edo onartzen ez dituelako, borondatez euskaldunak separatista egin dira. Gitxiengotu dituelako, euskaldunak gazteleradunak baino gehiago diralakoan dagoz. Zapalkuntzaren ondorena besterik ez da.

Beste euskal talde batek bere herri nortasuna hobeto argitu nahirik, beste taldeenganako bere taldearen jarrerak aztertu ondoren, jarrera eta jokabide baikorragoak hartu nahi ditu. Norberarena lehenengo jagon eta indartu, baina besteena errespetatuz.

Gaur badira bide horreetatik abiatu diranak. Nahiz eta batzuk lanpostua erosteko tresna lez euskera ikasi, beste askok Euskal Herriagaz daukien zorra ordaintzeko asmotan, komunitatearen benetako partaide izan, euskaldundu eta euskaldunekin benetan alkartzeko bidezko bide bakarra dala ondo konturatuta erabagi dabenak.

4.2.2. HERRI-ZORRAK

> "Gizadia bere esku, zuzentasunean eta bakean bizi izateko oinarria hauxe da: edozein gizoni, gizadi horren atal danez, berez datorkiozan eskubide lagaezinak ezagutzea" (83).

Gizadiari bere esku izateko eskubide lagaezinak zor jakoz. Munduan bakea, askatasuna ta justizia erein eta zabaltzeko, Giza Eskubideak ezagutu eta betearazo behar dira.Giza Eskubideak gizonari zor jakozan zorrak dira. Gizonak gizonari deutson zorra. Giza-zorra. Gizakiak alkarrekiko daben zorra.

Euskal Herrian bizi dan gizonari, euskaldunari bizia, euskal-bizia zor jako. Emoten ez jakonean, ukatuezina eta lagaezina kentzen jako: bizia.

Edonori zor jako bizi izateko eskubidea. Nor izateko, gizabanako izateko eskubidea. Gizonari, herriko danez, kulturadun eta hiztun izatea zor jako. Kulturgintzarako, hizbidea edo hizkuntza zor jako gizakiari. Euskeragintzarako, euskaldun izateko, euskaldunak hizkuntza bitartez ebagiten dau bidea. Hizkuntza bitartez lortzen dau nortasuna edo izanbidea. Hizkuntza bitartez egiten ditu alkarrekiko hartuemonak. Soilki esanda, euskera da euskalduna egiten dauana. Bera behar dau. Hizkuntza da aberastasun guztien atea. Hizkuntza bidez lortzen dau euskaldunak bere izakerearen bidea.

> "Herrien artean adiskidegoa eragitea, baezpadakoa da" (84).

Herri bateko zoriona edo zoritxarra, bere bizimodua, pertsonen alkarrekiko hartuemonetan hazurmamintzen da. Herrigintzarako, alkarren arteko jokabide eta jarrerak oinarrizko bihurtzen dira.

Beraz "Batzarreko herriek hitz hartu dabe. Herri batzarkideen lagunarte horrekin batera gizonari dagokiozan aukera eta eskubide honeek ondo zaintzea" (85).

Herriek "hitz hartu" dabe. Hau da, gizonaren askatasun eta eskubideak zaintzeko benetako konpromisoa. "Herriak", eta ez gizabanakoak bakarrik. Herriak Giza Eskubideak zaindu behar ditu. Herriak ditu zorrak. Herri-zor hau herriari zor jako. Hil ez eitea. Herriari bizia zor jako. Euskal Herriari euskaldun izateko euskal-barrutia zor jako. Euskal-bizia erne eta hazteko euskal-barrutiak sortuazo eta alkarrekiko hartuemonen nor-zer-zelakotasuna arautu behar dau herriak.

Zor hori kitatu egin behar da. Euskal Herriari ukatu jakona birreskuratzeko bide barriak urratu behar dira. Zelan kitatuko da zor hori? Euskaldunen artean, Giza Eskubideei eusteko bide bi izan ditugu: Baibidea ta ezbidea.

Baibidea: Zapaltzaileak agintzen izan dauan bidea. Ez da bide segurua. Lapurrari ostutakoa ordaintzea gatx egiten jako. Politika bidez galdu dana, ezin da beti politika bidez lortu. Eta zorra ordainezina bihurtu da. Bide honetatik, Espainolen Lege guztiekin Euskalerriak ez dau ezer lortu, eta bai asko galdu.

Ezbidea: Euskaldunak ez dabe ezer eskatzen. Ezer be ez. Euskal Herriak egingo dau berea. Eta horixe ez ukatzea besterik ez dau nahi herriak. Berea egiten ez galerazotea bakarrik. Bakean iztea.

Euskalerriak bere buruari eutsi badeutso, ezbidea izan da ezaugarri nagusia. Eta euskaldunak ez dabe, edo behintzat ez leukie eskatu behar autodeterminazioa, eta beste batek emonda gitxiago. Jarri nahi badabe, euskaldunek jarriko dabe. Euren eskubidea bada, eurek ipiniko dabe. Ez daukie inork emon beharrik. Europan edo beste herrialdeetan Euskalerriak izan behar dituan hartuemonetan Euskalerriaren izenean jarduteko inork ez dau eskubiderik Euskalerriko baimenik ez ba dau. Beste herriek ez dabe horretarako eskubiderik.

Mugak be euskaldunak jarriko badez. Inork ezarri barik. Mugak esaterakoan, lehenengo legedia aitzen da. Lege-barrutia euskaldunentzat euskaldunek antolatuko dabe. Gero, dirua ta zergak, inork ezarri barik, euskaldunek ordaintzen dabez. Baibidea oso aldakorra da, eta ezbideak dau benetako iraupena.

4.2.2.1. Euskal Herriari bizia zor jako.

Euskal Herriak, beste edozeinek lez, jende arteko hartuemonak batez be hizkuntzaren bidez egiten ditu. Hizkuntzak, joandako historiagaz batzen ditu herritarrak tradizio eta oroigarriak barriztatuz. Gizakiak hizkuntzaren bidez egiten dabez euren arteko hartuemonak, legezko eta politikazko erakundeen arteko alkartasun-bizitza osotu ta beteaz.

Euskaldunari euskeraz bere inguruko munduagaz hartuemonak eukitea ezin jako galerazo. Bai ostera herria eta hizkuntza alkartea kidetzen laga. Hizkuntza hori egiten daben guztien artean giza alkartea osotzen itzi.

Euskal Herrian hiru herri alkarte mota bereiztu geinkez: Bata, jatorrizko ama-hizkuntza lez euskera daukanena, herri zapaldu eta menperatuaren hizkuntza izanik, euskera eurena da eta alkar aitzeko eguneroko hartuemonetan darabilena.

Bestea, euskera eta gaztelera darabilenena, euren artean talde bi eginik. Elebidunak dira. Herri zapaltzailearena ikasi behar izan dabe eta euren bizitzako eginkizun eta beharrizatetan gehienez mintzatzen dabena da, ama-hizkuntza ia-ia ahaztuta daukielarik. Gazteleraren zabalera haundi edo laburragoak Euskal Herri zapalduaren hizkuntza eta kultura neurria damosku. Nahiz eta Euskal Herritik kanpo jaioak izan eta nahiz eta euren ama-hizkuntza euskera izan ez, gero euskera ikasi eta bertokotu diranak talde honetakoak dira. Eta eurok adierazoten deuskue euskal hizkuntza eta kultura nahiaren neurria.

Hirugarren taldea euskera ezagutzen ez dabenak osotzen dabe. Gainera euskera ikasteko grinarik sekula erakutsi ez dabenen taldea da. Euskera ezagutzen ez dabenen artean batzuk euskal hizkuntza eta kulturen aldekoak izan leitekez.

Gaur egun Euskalerria badanik ezin leiteke ukatu, baina gazteleradunak gehitzen joan ezkero, urteak joan urteak etorri, Euskalerria arrisku larrian aurkituko litzateke. Etorkizuneko bere bizi-iraupena ezbaitan geldituko litzateke. Euskera ahozaho erabilten ez danean, euskal alkartea ez ete da desagertuko?

Bizitasun eta adore bako giza alkartea osotu nahi ez bada, Euskal kideak berarizko kontzientzia behar dabe. Egiazko giza alkartasuna sortzeko, herri-kontzientzia edo gizarte kontzientzia, lurraren jabetasuna baino gauza garrantzitsuagoa dalarik.

Baina Euskal kultur berezitasunen jabe izan, herri kontzientzia berezia euki eta lurralde tinko baten bizi ezik, Euskalerri lez irauterik ez dago.

Azken urteotan Euskal Herrian dagon esnatu-aldia, euskaldunek nortasun kontzientzia galdu barik euki dabelako izan da. Beste inguruko herrien kideko sentitzen ez diralako, konformista ez diralako eta eurena nahi dabelako. Beharbada Euskal Herrian kulturgintzan, euskal kulturgintzan, jakitun, egile eta eragile gitxiengoak dihardu lanean. Herri osoa esnatu nahian, Euskal Herriak, bere esku izan daiten. Herri mogimenduak medarrak izan ziran hasieran, baina geroago eta partaidetza aberatsagoa dago.

Euskaldunek ez dabez ahaztuko herri kontzientzia esnatu eta biztuazoteko Euskal Herriak eroandako eta daroazan jazarpen izugarriak. Euskaldunek Euskal Herrian euskaldun izaten jarraitu nahi dabela-ta, herri zapaltzaileak hasarre bizitan jarteko errazoirik ez dauka. Herriak bere esku izatea besterik ez dau bilatzen, eta hori ukatzeko eskubiderik ez dauka inork. Ez lurralde bateko edo-ta beste politika bateko diralako, "gizon guztiak euren esku jaio diralako baino" (86).

1.936ko ondorengo 40 urteak, Euskal Herriaren etorkizunaren zapalgarri gertatu dirala ezin da ukatu. Herriaren zoritxarra jasan dau euskerak. Sukaldean bertan be, euskera ez al da izan txarto ikusia eta salatua? Euskeraz hitz egitea beste barik, salatua izateko nahiko zan.

Guda irabazi ebenenetariko euskaldun batzuk, etxera bihurtu ziranean, euskal gauzak iruntsi ezinik agertu ziran, eta gure herriaren bizitzarako asmatu ezineko ondorenak ekarri dabez. Honeitako batzuk Francoren zaindaritzapean euren buruak gorde, eta herriaren salatzaile bihurtu ziran. Beste asko urrinago joan ziran: gurasoak euren umeak ikasiagoak egitearren, euskera baztertu eben. Bestela, motz gelditzeko arriskua eukien. Eskoletan, bai ikasgelan eta atsenaldietan euskeraz hitz egitea debekaturik egon da. Maisuak be okertuta. Euskera umeentzat oztoporik haundiena zala sartzen eutsien gurasoei, eta etxean be erderaz egiteko agindu. Horixe izan da euskera zainetatik kentzea. Umeak jo, zigortu, dana egiten zan.

Aurkako giroak badakar alderdi on bat: begiak zabaldu eragin eta hizkuntzaren aldeko zaletasuna eta iraupen-ugaria sortzen ditu. Hara zer dinon Sanchez Carrion jaunak:

> "... Hizkuntzari iraunarazten dioten lokarrietako bat, berorrenganako atxekimendua da. Baina, lotura hau ez da gehienetan, jakinaren gainean eta konturatuz sortua izaten; berezko etorkin itsumutua baizik. Bizinahiaren sentipenekin loturik eramango du norberak batzutan, baina hizkuntza ber-beraren neurketa zentzuzko eta kultur mailako lokarri gutxirekin. Euskaldunak ez du ekaitz eta mendebal guzien aurka euskera zaintzera bultzatzen duen arrazoi tinkorik. Baina, era berean, galtzen uzteko funtsik ere ez.
>
> Atxekimendu edo barne lotura hau da guk hemen adierazi nahi duguna, eta gehienetan utzikeria baizik ez da; zabarkeria hutsa. Jarraipenaren aurka eragozpenik sortzen badiezaiote, utzi egingo du euskaldunak euskara, hainbat hartzera bultzatzen dueneik ezer ez bait du" (87).

Beste batean, hizkuntzaren ospe eta itzal ona, gizarteak hainbat hartzea dala dino:

> "Euskeraren etsai nagusia, dio Sanchez Carrionek, laguntza ezagatik, hizkuntza ofizialak duen entzute eta ospearen ondoan gutxietsirik agertzea da. Honi buruz zerbait esan dezagun, jarraitzen du idazle berak; euskerari egiten zaion muzinaren erro eta iturri nagusia, jakingabetasuna da. Eskola gutxiko gizon apala, esku langilea, susmo beltz eta irudimen galgarriz beterik, lur jota dago. Bera baino gorago dauden eta gehiago dakiten gizonek erdaraz hitz egite horrek, bere euskerarekin lotsaturik gelditzera eraman du askotan. Jakintzak ikuspegi zabalagoa ematen ditu eta lotura etsigarri askotatik askatzen du gizona" (88).

Herri giroko esnaldia euskeraren etorkizuna suzpertu eta berbizteko gauza baliogarriena izan dogu. Euskerak bizieragin bat dauka euskaldunentzat, giza talde bat hizkuntzakin herriari lotzen jakonean, eta gizarte eta politika giroaz jabetu, ez dago indar horri eustekorik.

Hizkuntza hau irakaskintzatik kendu euskuen, umeengan daukan eragin

neurribakoa apurtuz. Bere bizitzarako gai dan tresna bategaz, euskeragaz jabetzeko erea ezin da ostu (89).

Sukalde inguruan eta eskolan egiten eta moldatzen joaten zan euskaldunaren izaera eta nortasuna, barriro edaten emoteko zorra daukie. Nortzuk? Iturri hori agortu eragin ebenak edo euren ondorengoak.

"Elebitasunean hazi eta hezten dan umeengan doinu berezia dauka aitaamaren hizkuntzak" (90). Euskal Herriari hizkuntzak emon deutso bere batasun kontzientzia. Nork apurtu dau?

Euskaldunak euren buruei "euskalduna" deitzen deutsie, eta Euskal Herria euskeraz egiten daben euskaldunen herria da. Inork ezin dau galazo euskaldunen nortasuna.

Euskera lokarriari esker gure arbasoak eta suzko kultura muina eta gure herri ezaugarriak sortu eta gorde izan dabez. Ezaugarriok errespetagarriak dira benetan (91).

Euskal Herrian euskaldunak euskera hutsean bizi izateko eskubidea dauka. Ez dakit euskeraren "statusa" ikasi eta martxan jarteko zenbat langile, batzorde edota sail behar diran. Ezta elebitasuna lortzeko, elebitasunaren zenbat jarraitzaile edo defendatzaile beharko diran. Baina edozein euskaldunek euskera hizkuntza bakarra lez erabilteko daukan eskubidea ezagutzen dot. Idazleak aldeko agertzen ez diran artean, nekez lortuko da. Politikoen itsukeria eta ausartasun faltakin euskera gure hizkuntza bakarra bihurtzea bide gogorra izango da. Administrazioaren hizkuntza eta ekonomia planteaketak asko aldatu ezik, gizaldietako euskeraganako zorrak betiko ordaindu barik geratzeko arriskuan dagoz. Baina batez be ikasleak dana euskeraz ikasi eta bizi daike. Salbuespenak epe laburrean onartu leitekez bakarrik.

Nazioarteko egitura zabaletik begiratuta, herri guztiek daukie euren etorkizunaren aukera egiteko eskubidea. Nazioarteko betebeharren barruan herrien askatasuna aurkitzen da. Giza eskubideen Itunetan "Herri guztiek daukie bere buru izateko eskubide osoa".

Manua betetzerakoan eztabaidak sortzen dira. Bete erazoteko indarrik be ez dago. Zigorrik ezarteko be ez. Eskubide hau ez da hain barria, baina legehaustearen zigorrik ezak, nazio arteko zuzenbidearen eragozpen haundietarikoa bihurtzen dau. Herrien askatasunerako eskubidea, oso baikorra da eta helburu juridikoen barrutian daukagu, eta sarritan helburu hutsean gelditzen jaku.

ONUk (92) eta beste erakunde askok eskubide hau onartzen dabe, baina Laterri gehienak euren interesen aurka ez doan neurrian betetzen dabe.

Espainian be holan jazoten da. Konstituzioko bigarren atalean hau dino: "Unidad indisoluble de la nación española" (93). Eta urte bete aurretik, 1.977ko uztailaren 27an Espainiak Nazio arteko giza eskubideen Itunak izepetu ebazan.

Estatuen ikuspuntutik, euren osotasunaren aurka hartzen da, eta orduan errazoiari baino indarrari jaramon gehiago egiten jako. Eta Estatuak erreztasunak baino zailtasunak ipinten gehiago alegintzen dira. Orduan, herri zapalduak nahiz eta lorpen gitxi etorri, aurka egiteko eskubide guztia ez ete dauka?

ONUren helburuekin bat ez datorrren jokabide honen aurka, "bidezko" indarketa batetara jo beharra ez ete dago?. Anttxon Ibargurenek dinoanez, "Estatuak bere betebehar hau haustean hartzen dauan zigorra, menperatuaren erresistentzi eta indarketa dira" (94).

"Pertsonaren kultura erasotzea, pertsona bera erasotzea da", dino Setien Jaunak (95).

Euskal Herriaren aurka egindako erasoak eta erasogileak zorretan dagoz. Eta herri-kontzientziak eraginda, euskalduna bere historia, bere barrutia, bere herria, bere bizia, bere kultura eta hizkuntza ukatzearen ondoren sortutako zorrak noiz kitatuko ete deutsiezan zain dago.

Kultur-aniztasunak ez dakar berez gatxik, aberastasuna baino. Gatxa eta kaltea indarrez ezarteak dakar.

Euskalerrian bere ezaugarri bereziak baieztu eta bere interesak zaintzen dituan giza taldearen borondateak, herriaren izatea mugarritzeko erizpide bakarra osotzen dau. Norbere izatearen eskubidea edo norbera herri lez badala autortzeko eskubidea oztopetu eta/edo ukatzean askatasun-zorrak ugaritzen doaz.

4.2.2.2. Euskal Herriari bere esku izatea zor jako

> "Gizon guztiek euren eskuko jaiotzen dira, eta duintasun eta eskubide bardinez eta, errazoiz eta kontzientziaz jabeturik dagozanez alkarren artean anaikiro jokatu behar dabe" (96).

Nazio arteko zuzenbidean eskubide hau aski autortuta egon arren, herri zapalduak zailtasun gogorrak izaten dabez nortzuk diran jakin eta euren alkartea erabagi, askatasunez bizi izan eta anaikiro jokatzeko.

Euskal Herria, ez da salbuespen izan. Espinian nazio bakar bat dagoala onartzen da ofizialki, beti bakarra (97). Oinarri honen ganean, beste herriak ez dira ontzat hartzen. Estatuak biztanleria osoa edo zatirik haundiena nazio ofizialarena dala agertarazteko gogo biziagaz, beste herriei euren berezitasunak ukatzen ahaleginak egin ditu. Horrela Euskal Herriko errealitatea ukatu egiten dau Espainiako Gobernuak eskubide guztien aurka jokatuz. Euskaldunari, Euskal Herrian bere esku jaiotako gizakia izan arren, bere herriaren ardatza eta erdigunea izatea galerazoten jako, inork horretarako eskubiderik euki ez arren.

Euskal Herrian norbaitek gaztelera-kultura hautatu badau, hautaketa hori errespetagarria izango da. Baina hautaketa horren etendura kontuan hartu, eta aurrerantzean ez da legezko izango gizon horrek herriaren izenean hitz egitea. Ezta arazo publikoetan esku hartzea be. Borondatez uko egin badeutso bere herriari, ondoren guztiekaz izan daitela. Bestealde, Euskal Herria gaztelera-herritik agertutako etorkinez beteta daukagu. Euretariko batzuk, denbora igaro ahala Euskal Herria hobeto ezagutzen doaz, eta bere ezaugarri, folklore, ohitura eta pentsakera onartzen. Horreek, jatorriz eta euren eskubidez, ezin daitekez izan herri horretakoak. Baina euren herri-kontzientzia aldatzen doan neurrian pertsona honeek hatarako gai izan leitekez (98).

Baina txarrena zera da: gaztelera eta bere kultura aukeratzera barik hartzera behartuak izatea. Eta Euskal Herriak bere euskal nortasunari eta kultur batasunari uko egitea nahi ez badeutsie, zuhurtasunez eta euskaldunen onarpenaz jokatu beharko da euskal-kultur ondasunari eusteko. "Estatu bakarrari", Espainiari, ondo etorri jako Euskal Herria etorkizunez zapaltzea. Euskal Herriak jagi eta bere neurriak hartzen ez baditu, beste herrietatik etorriak eurenganatzeko ahaleginetan

ikusiko ditugu, kanpoko politika eta diru laguntza faltarik be izango ez dabelarik. Estatuari bere herrialde guztien bereganatzeko borondate hau berez sortzen jako.

Baina, Euskal Herriak herri izaten iraun nahi badau, ez dauka bere hizkuntzari, kulturari, eta ezta be geografiari uko egiterik.

Euskal Herria Estatu biren artean zatituta dago. Frantzia eta Espainiaren mende. Bere kondairari begira, ez da zaila Euskal Herriari menperatzaileak lurzati galantak kendu deutsiezala jakitea. Hainbat garaitan, mugaketen eztabaidak sortu diranean, Euskal Herriari beti galtzea tokatu jako. Lurraldea lehengo lekuan dago baina Euskalerriari herri lez bere bizia hautatu eta jokatzen be ez jako laga bere lurraldean.

Frantzia eta Espainia euren lurralde osotasuna ikutu ezina dalakoan edo egon dira. Eta "Estatu-bakarrak" eragozpen haundiak ipini ez dabezanik ez dogu esango.

Euskal Herriak bere historiaren oroimenez, eta herri kontzientziari jaramon eginaz, zer eta zelangoa dan ezagutu eta erabagiteko aukera kentzeko eskubidea daukan erakunderik ez dago.

Eratutako edozein giza talderi, beraz, Euskal Herriari bere xedea eta ona lortzeko erabagiak hartzeko gaitasuna zor jako. Gaitasun hau berezkoa eta berea dau herriak, inork be kendu ezinekoa (99).

Barrura begira Euskal Herriak nahi dauan jaurlaritza mota hartzeko daukan ahalmena da eraketa eskubide hau. Euskal Herriak bere buruari eta uneko inguruari ondoen datorkon hizkera eta izakera eta bizi publikoa ondoen adierazoten dauan eraketarako daukan ahalmena ukatu ezina da (100).

Euskal Herriak bere hizkuntza eta kultura arroztuak daukaz etxean. Gizarte hartuemonetan zokoratuak ikusten dira. Euskeraren erabilera murriztua, eta gaztelera euskeraren barrutia jaten.

Baina herriak, euskerari eutsi ahal izateko, euskaldun izateko borondatea ez dau galdu. Horretarako pertsona bakoitzak daukan eskubidea babestuz eta

zainduz, euskeraz bizitzeko bere esku izatea zor jako Euskal Herriko biztanle bakoitzari eta herri osoari.

Egia da, Euskal Herrian euskera eta gaztelera biak ofizialak dirala (101). Baina nahiz bata nahiz bestea ikasteko eta erabilteko, Euskal Herriko ume, gazte eta gizon-andrak aukera eta erreztasun bardinak eukiteko eskubidea daukie. Gaztelera erabiltera hainbat lekutan behartzen bada, era berean euskeraren erabileran jokatu leiteke. Bestela Euskal Herriari bere esku izaten ez jako itziko.

Kanpora begira, beste herri eta Estatuekin hartuemonak eratzeko eskubidea, Euskal Herriari ukatzen ezin dau inork jarraitu. Hori egiteko eskubidedun dan Estaturik ez dago.

Herria bere buruaren jabe izateak garrantzi haundia dauka. Eta Euskal Herriak berak bere etorkizuna erabagi eta egiteari izten badeutso, bere nor izateari eta eraketari ukatzen deutso. Euskal Herriko muga artean jaio, hazi eta bizi danari, euskeraz egin eta euskeraz bizi izatea, hau da, bere herrian bere jatorrizko hizkuntzan bizi izatea zor jako. Lagaezina da eskubide hori, eta inork ezin leio ukatu.

Eskubide hori gaur egun nazio arteko alkargoan sakon oinarrituta egon arren; herri lez, norbere jabe izateari uko barik, beste herri guztiekin hartuemonak eten barik, euskeraz bizi izateari eusteko Euskal herrikideen eskubideari eta bere erabilpenari eragozpenak jartzeko gai danik ez dago.

4.2.2.3. Kulturgintzarako Giza Eskubideak eta Hizkuntzari buruzko Herri-arauak

a) Kulturgintzarako Giza Eskubideak

1.979ko Euskal Herriko Autonomi Estatutoak bere 6. artikuluan honelan aldarrikatzen dau:

> "Euskerak, Euskal Herriko berezko hizkuntza danez, hizkuntza ofizialen maila izango dau Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiak dabe hizkuntza biok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunak, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren nabardurak kontutan izanik, hizkuntza bien erabilpena bermatuko dabe, euron ofizialtasuna erregulatuaz ala euron ezagutzeak behar diran neurriak eta bideak erabagi eta baliazoko ditue."

Autonomi Estatutoko berbotan Euskal Autonomia Elkartean elebitasunaren arazoa planteaturik gelditzen da.

Autonomia Estatutoak euskera Euskal Herriko berezko hizkuntza dala dinoanean, beharbada, dinoanaren indar osoan osoro sinistu barik, Euskaldun guztientzat euskeraren erabilerak, mantentzeak eta garatzeak euki daben giza eskubideen berezitasuna iragarten dihardu.

Pertsona gizaki dan aldetik, berez daukazan eskubideak dirala-ta, beste barik, izaki gogoduna da eta, aske danaren ezin-besteko eskubideak zor jakoz berari.

Eskubide honeek, beti eta edonon, politika joko, hizkuntza eta gizarte baldintzetatik aparte, onartuak dira. Pertsona errealitatean dan lez babesteko asmo hutsez onartuak. Dana dala, pertsonarengan oinarrizko dimentsio bi dagoz: bata indibiduala, bakoitzarena, bere gorputz eta arimazko izatean nortasun izatea emoten deutsona, eta alkartekoa bestea, beste batzuekin hartuemonean eta alkarte iraunkorrak eginik ipinten dauana.

Egia esateko, pertsonak berez, gizarte bizitzarako jokera ezezik, gizarte

premina be badauka eta handia gainera bere zerbitzuan iraun eta bere adimen eta moral nortasuna gordetzeko.

Aurretiko onarketa barik, bere burua inguratu eta murgilduko deutsien alkarte bi aurkituko ditu: bat bere familia, bestea bere herria; biok ditu, garrantzitsu eta beharrezkoenak eurok barik bere bizitza be ezinezkoa litzatekelako. Baina ez dira bakarrak, ez eta geroagoko bere garapenean berarizko eragina izango daben bakarrak be.

Horrela, edozein gizonen izateko eta berarizko dimentsio bikoitz hau, giza eskubideak pertsona dan lez babesten dabela sinisten bada, dimentsio bioi zerbitu eta biok babestu beharko ditu, eta honexegaitik bereizten dira pertsonearen banakako eskubideak babesten dituan banakako eskubidea eta alkarteko giza eskubideak babesten dituan alkarteko eskubidea. Baina eskubide biok dira giza eskubide zentzu oso bardinean, pertsonaren berezko eta beharrezko eskakizun diralako biok.

Alkarteko giza eskubideetan garrantzitsuena, nah . eta kronologikoki ez izan lehenengoa, herri batek bere nortasunean irauteko daben eskubidea da. Izan be, familia mitologikoki aurretikoa dan arren, bera be gizartearen atal da eta. Baina alkarte biok, giza espirituaren berezko sormenak dira. Pertsona alkartea bereziki eta funtsean egituraz zahazten dan lez, izate eskubidea, oinarriz, nahiz eta ez horrez bakarrik, lehenengo eta behin, bere kulturaren mantenu eta garapenerako herriak daben eskubide lez hartzen da.

Honek, lehen esan danez, bere hizkuntza hartzen dau, bere erakundeak eta alkarteak eta alkarteko ohitura eta portaerak, eta guztiok batean definitzen eta zehazten dabe herri hori.

Dana dala, edozein herri, gizaki konkretuz osotua da, eta bakoitza bakarka beste pertsona guztiak lez giza esentzia bardinduna dan arren, berezitasun batzuetan besteengandik ezbardina da: jatorrizko berezitasun batzuk sortu deutsazan familia baten jaio dalako, kulturaz pausuka eratzen dauan herri batetako kide dalako, herri horrek hizkuntza-bide berezi eta propioa ezarten deutsalako, balio maila berezia eta gizarte sikologia pentsakera bat ezarten deutsazalako.

Pertsona konkretu hau, oinordetzaz jaso edo lortutako berezitasunez eratutako pertsona hau, berez eta armonikoki heldutasun osora helduko bada, bere

berea dauan herriaren giro berezian garatu beharko dau; faborezko gizarte giro honen edozein aldaketak, nortasunaren berezko eta armoniazko garapena oztopatu edo asaldatzen daben sikologi nahasmen sakonak sortzen ditu normalki pertsonarengan, pertsonalki harturik emigranteak jasan behar dituen sufrimenetatik agertzen danez, eta gizarte mailan, kanpotar kultura bat hartzera behartzen diran herri menperaruetan ikusten danez.

Hemen nabari dagoanez, euren kultura mantentzeko eta pausuka garatzeko eskubide osoa, benetako giza eskubidea, daukie herri bakoitzeko kide guztiak; sikologi eta giza adierazmen osoa lortzeko derrigorrezkoa daben kultura horren eskubidea.

Herri horren baieztapen barik kultura hau kanpotik nahaspilatzen bada, bere bizitza arriskuan jarten bada edo bere garapenari oztopoak jarten bajakoz, herri horren giza eskubideak zapaldu egiten dira argi eta sarritan konponezinezko eraz gainera.

Badago beraz, benetako giza eskubide dan norbere kulturari buruzko eskubide bat, eta horrek, derrigorrez, pertsona bakoitzarengan be, erabilteko, mantentzeko eta Alkartearen garapenerako eskubide bat sortzen dau. Beste alde batetik, herri bakoitzaren baitan bere hizkuntza eta kulturari buruzko giza eskubide kolektibo bat dago eta kultur alkarte berezi bat baino ez dan herriak bere berezitasuna galdurik, bera dan lez sentitzea galdu egingo leuke.

Honek derrigorrez, herriaren egiazko funtsa dan hizkuntza eta kultura hori mantentzea eskatzen dau, eta herri hau aintzinako gizarte eta giza egoeran gelditu ez daiten, ondorengo garapen ahalbideak edegirik eukitea.

b) Euskerari buruzko Herri-arauak

Gernikako Estatutoak bere 6. artikuluan gaztelania ta euskera, hizkuntza biok Euskal Herrian ofizialak dirala erabagiten dau eta hemengo biztanle guztiak hizkuntza biok jakin eta erabilteko eskubidea izango dabela dino; bide batez, euskeraren autonomia ziurtatzeko beharrezko diran bide eta neurriak antolatu eta arautzea Euskal Lege Biltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren esku ipinten ditu.

Ofizialtasun bikoitzak, lege aldetik begiraturik, Komunitate Autonomi barrutian hizkuntza bientzat eskubide osoa beharrezko etsitzen dau. Egia da euskera jakin beharra Estatutotik kanpora dagoala, baina ezbardintasun hori ez da lege errazoietan finkatzen sikologikoetan baino.

Bai Estatutoak eta bai 1.982ko Euskeraren Normalizapenerako legeak, euskera jakitera behartzea gaur gaurkoz ezinezkotzat jo dabe, baina lege testu bion arabera ez dago gerora eginkizun hori derriortzeari eragozpenik jarri leikionik.

Ofizialtasun bikoitzak berarekin dakar, nahi eta nahiez, hizkuntza ofizial biotatik edozein une guztietan erabili ahal izateko herritarren eskubidea. Eskubide honek era bardinez erantzuteko obligazioa, betebeharra sortzen dau. Nabaria da betebehar hau ezin dala pertsona partikular lez harturik eurengana hedatu, eurak be askatasun jabe diralako, baina bai erakunde publiko bateko kide diran neurrian, gitxienez be jentearekin hartuemon haundian dagozanean.

Eraberean, Euskal Herriko Arduralaritza be behartzen dau, bai Zentralekoak eta baita Autonomikokoak be. Arduralaritza definizioz "herriaren zerbitzuan" dago beti eta holan jokatzen dau. Herritarra da erabili gura dauan hizkuntza aukeratzeko eskubidea daukana eta Arduralaritzari aukeraketa horren ondorenak bete betean dagokioz.

Zer esanik be ez, hemen be politika zuhurtasun legea da nagusi; hainbeste urtez erdera hutsean jardun ondoren ustekabean betebehar hau jartea ez litzateke logikoa eta egiterreza izango. Horregaitik Euskeraren Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak kontutan hartu dau egoera hau eta 6,1 eta 14,1 artikuluetan eta Erabagi gehigarrian 3an, Euskadiko Arduralaritzan euskera pausuka sartzen joan behar daualakoan dago (102).

Baina noiz izango dan ikusten ez dan une batek heldu behar dau, eta orduan betebehar hau maila guztietan ezarri beharko da, bestelan euskera diskriminaturik geldituko da. Estatutoko 6,3 artikuluan hauxe esaten da berbaz berba: "Hizkuntza dala eta ez da inor gitxietsiko" "Diskriminazio" edo gitxiespen berbea, gaurko egunean asko erabilia, baita politika liderren artean ere, sarriegi, zoritxarrez, txarto ulertua eta txarto ezarria izan ohi da. Asko dira "bereizketa" eta "diskriminazioa" nahastu egiten dituenak. Diskriminazioa legezko berbea da eta zuzenbidean "Nahikeriazko bereizketa" lez definitzen da (103).

Nahikeriak, arbitrariotasunak egiten dau bereizketa bat diskriminazio baten bihurtzea.

Giza eskubideen Europako Epaitegiak honela ulertu dau diskriminazioa: "Justifikazioa objetibo eta errazoizkorik ez daukan deskripzioa" (104). Objetiboa esaterakoan, deskripzioa jazoera erreala gura dau esan eta ez irudimenezkoa, eta errazoizkoa, ostera, egiten dan deskripzioak lortu gura dan ustezko bidezko helburuarekin zerikusi estua daukala.

Legezko irizpide honeek ezartzen badira, zera ikusten da: Euskal Herrian Administrazio Funtzionarioari euskeraz jakin daiala eskatzerakoan, ez daukala diskriminazioarekin zerikusirik funtzionari horri begira, eta bere helburua baliatzaile partikularrarekin, euskaldun soilarekin beste diskriminazio bat ez egitea dala.

Estatutoak aldarrikatu eta bermatzen daben ofizialkidetasunaren eskarien, arauz, Euskal Herriko berezko hizkuntza erabilteko euskaldunak dauan eskubidea babestea baino ez da.

Herritar bakoitzaren eskubideak ezeze, Euskal Herri osoaren alkarteko giza eskubideen osotasun eta iraupenari begira elebitasunaren etorkizuna nahiko iluna da.

Esanik dagoanez, herriaren esistentzia eta osotasuna eratzen daben hizkuntza eta kultura mantentzea eta pausuka garatzen joatea, giza eskubide dira. Euskaldunak bere esku izaten izten ez deutso lege eta jarrerarik ez dau onartu. Baina galerazotzeko indarra eta kemena behar ditu.

Elebitasuna zelatatzen dauan lehenengo arriskua, Euskal Herriko jendearen zabarkeria eta ardurarik-eza da. Sakon sakonean kontzientziarik-eza baino ez dan zabarkeria.

Batzuk euren hizkuntza ezagutu ez eta ikasten arduratzen ez diralako, eta besteak, nahiz eta jakin, beste hizkuntza bat erabilten ohituta dagozalako; azken ondorioa euskera bigarren maila baterako gelditzea izan daiteke eta gaurko diglosia egoerak hori baieztu baino ez leuke egingo.

Euskal Herriko manatzaileak neurri eragilerik hartzen ez badabe zabarkeria horri aurpegia emoteko, batez be irakaskuntza sailean, diglosia egoera kronikoa, iraunkorra bihurtuko jaku euren erruz.

Elebitasunaren bigarren arriskua, biztanlegoaren kopurua eta aplikapen ingurutik datorren ezbardintasun objetiboan datza. Gitxienez, Euskal Herrian biztanle guztiak bi hizkuntza ofizialak ikastera behartzea ez al da legezkoa?

Gaztelera Espainiako Estatu guztian egiten dan hizkuntza da, eta kultur mailan be oso hedaturik dagoana; euskera, ostera, Euskal Herrian baino ez da egiten. Euskerarik egiten ez daben espainiar 38 miloien artean eta gehienez be miloi bi t'erdi euskeradun izatearen arteko aldeak be gaztelerearen alde desorekatzen dau aztailua.

Euskal Herritik kanpora, Espainian egingo diran edozetariko transakzioak ea erabat gazteleraz egingo dira, Euskal Herri barruan egingo diran asko be bai.

Unibertsitate, liburu, aldizkari, argitarapen, hizkuntza bakoitzean egongo diran komunikabide kopuruen aldea izugarria izango da. Horri juridikoki "egitezko ezbardintasuna" deitzen jako, eta guzti horrek aztailua banandu orekatzeko deskonpentsaketa neurriak eskatzen ditu justiziak, 1.935ean Nazioarteko Justizia Epaitegi Iraunkorrak onartzen ebanez.

Zurich-en sortu zan egoera hau, eta %75 alemandarren aurrean %20 frantsesak euren hizkuntza galtzen hasi ziran alemanaren aldean, eta hori diplomaziarako. Frantsesa hizkuntza unibertsala zalarik. Bardin gertatu zan urte batzuk geroago Belgikan be flamenko edo holandar hizkuntzagaz; piskanaka frantsesaren menpe jausten hasi zan, azken hizkuntza honen kultur iraupenaren eraginez. Kasu bietan euren agintariak sustraitik ebagi dabe hondapen prozesu hau, herri biotan Lurralde Estatutoa ezarririk.

Hain urtenbide eraginkorra gaur gaurkoz eta legez ezinezkoa da Espainian, aurretiaz Konstituzioaren aldaketa eskatuko leukelako. Lurralde Estatutoarena baztertu beharrean, gerorako legezko urtenbide lez alboratu ezina dogu, eta Euskalerrian bidezkotzat jo behar geunke. Une honetarako egiazko neurri eraginkorra, euren hizkuntza ezagutzera eta une guztietan erabiltera bultzatuko dituan euren herri eta kulturarenganako maitasun bizia euskaldun guztien bihotzetan sortzea da.

Euskal Herriak Kulturazko barruti berezia osotzen dauanez gero, Kulturgintzaren bidea eta zer-zelakoak erabagitzea herriari berari dagokio lehenengo ta behin. Norbere herrigintzarako eta Kulturgintzarako bide bakarra herriak berak dagiana da. Hoixe da, hain zuzen be, herriari zor jakon Kulturgintzaren zorra.

OHARRAK

1. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, Bilbao-España 1976, Edt.: Mensajero, 17 or.

2. Bertan

3. Ikus: Tesiaren 339or.

4. Eskubide Zibilen eta Politikoen Ituna, 27. art.

5. Ikus: tesiaren 327 or. eta hurr.

6. Rumania, Checoslovaquia, Lituania, e.a. lekuko diralarik.

7. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, in: Document, Luxembourg: Office des publications officielles des Communautés Europénnes 1986. 13-14 orr.
   Erizpide mekanikoa, historiko-geografikoa, koalitatiboa, antropologikoa eta geodemografikoa aipatzen ditu.

8. Ikus: DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, Berne 1983, Edt.: Desertina, 9 or.

9. Eritxi honen babesle agertzen dira aipatu dan txostena idatzi dabenak. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 14 or.

10. DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; O.C., 11 or.

11. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 15 or. eta 1go oharra 355 or.

12. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 15 or. eta 2. oharra 355 or.

13. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 16 or.

14. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 4. oharra, 356. or.

15. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 5. oharra, 356 or. Dans le mémorandum "Définition et classification des minorités" préparé à l'intention du Secrétaire Général de l'ONU, IIIº session, 1950.

16. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 6. oharra, 356 or.

17. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 18 or. eta, 7. oharra 356 or.

18. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 9. oharra, 356 or.

19. OBIETA CHALBAUD, JOSE; O.C., 64 or.

20. OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, Madrid 1985, Edt.: Tecnos, 66 or.

21. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 20 or.

22. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, O.C., 22 or.

23. OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, O.C., 39 or.

24. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, O.C., 40 or.
Baita HÉRAUD, G.; Peuples et langues d' Europes, Denöel, Paris 1966, 33 or.

25. Bertan.

26. Guy Héraud-en bost puntu honen azalpena nahi dauanak ikusi bei: OBIETA CHALBAUD, J.A.; El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos", O.C., 57-69 or.
Burubaiezpena: alkarteak, edo alkartearen zati batek, badala adierazo eta buruerabakikuntzarako bideen erabilpena errebindikatzeko dauan eskubidea.
Burudefinizioa: Alkartearen zati batek bere substantzia definitzeko dauan

eskubidea, hau da, bere mugak planoan finkatzekoa.
Bereizteko eskubidea: Alkarteak dagoen Estatutik bereizteko eta bere Estatu berezia eratzeko ahalbidea.
Buruantolaketa: Bere Estatuto eta legeak emoteko ahalmena da.
Burujestioa: Alkarteak bere buruari emon deutson Estatutoaren eremua askatasunez administratzeko ahalmena.

27. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, O.C., 67 or.

28. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, O.C., 75 or. 17. oharra.

29. OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, O.C., 76-77 orr.
30. ONU. Asamblea General. Res. 2625 (1970-10-24)

31. Eskubide honeek zehaztasunez jakiteko, ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, O.C., 78 or.

32. DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, O.C., 7 or.

33. Bertan.

34. DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, O.C., 8 or.

35. DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, O.C., 11 or.

36. Ikus: DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, O.C., 13 or.

37. Ikus: DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, O.C., 14-15 orr.

38. Ikus: DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, O.C., 17 or.

39. Ikus: DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, O.C., 19 or.

40. Ikus: DÖRIG, HANS RUDOLF, et REICHENAU, CHRISTOPH; Le Quadri linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, O.C., 20 or.

41. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; Las lenguas minoritarias y el derecho, O.C., 30 or.

42. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 12-13 orr.

43. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 30 or., 1go oharra.

44. Interesgarria dirudi manu honek:

"Poloniar kopuru garrantzitsua bizi dan uri edo auzunetan eta poloniera barik beste hizkuntza bat dabenentzat, poloniar gobernuak, irakaskintza publikoari dagokionez, erreztasunak emongo ditu poloniar honeen seme-alabentzat lehenirakaskintza euren hizkuntzan emongo jakela ziurtatzeko. Manu hau ez da

oztopo izango poloniar gobernuak poloniera irakastea beharrezkotzat jarri daian eskola horreetan.

Etnia, erlijio edo hizkuntzaz gitxiengo batekoak izanez, poloniar kopuru garrantzitsua bizi dan uri eta auzuneetan, irabazien eta diru publikoen legebidezko zatia ziurtatuko jake hezkuntza, erlijio edo karitate helburuetan erabilteko, bai Estatuko aurrekontuetan bai udalekoetan zein beste batzuetan. (9. art.)"

45. OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 32 or., 2. oharra.

Baina zer da bardintasun bikoitz hau? Hona hemen Auzitegiaren erantzuna:

"Beharbada ez da erreza izango egiazko (benetako) bardintasunak eskubidezko bardintasunaz dauan loturearen esanahia zehaztea; hala ere, bardintasun formal hutsaren aurkakoa dala, bai esan leiteke [...]

"Eskubidezko bardintasunak edozein diskriminazio baztertzen dau; egitezko bardintasunak, alderantziz, jokabide ezbardina beharrezkotzat jotzen dau, egoera ezbardinen artean oreka bat jarriko dauan emoitzara heltzeko [...]

"Errez imaginatu leitekez gehiengoari eta gitxiengoari tratu bardina emon, eta egitez ezbardintasuna sortuko leikien kasuak, bataren eta bestearen izaera eta beharrizanak ezbardinak diralako... Gehiengoaren eta gitxiengoaren arteko bardintasunak, manu honen arabera, benetakoa, egiazkoa izan behar dau".

46. OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 33 or., 3. oharra.

47. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, in: Document, O.C., 38-43 orr.
Baita: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 34-36 orr.

48. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 84 or.

49. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 34 or., 5. oharra.

50. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, in: Document, O.C., 37 or.
Baita: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 36-39 orr.

51. OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 36 or., 7. oharra.

52. 5. artikuloak hau dino:

"1. Konbentzio honetako Estatu kideak zera erabagiten dabe...

c. gitxiengo nazionalei dagokiezan irakaskintza ekintzak onartu behar jakezala, honeen artean eskolak sortu eta mantentzea eta, Estatu bakoitzak hezkuntzari buruzko dauan politikaren arabera, euren hizkuntza erabili eta irakastea, baina:
I. eskubide honek gitxiengoen kideei ez deiela galerazo kolektibitatearen kultura eta hizkuntza ulertzea eta honen ekintzetan parte hartzea, eta ez daiala jarri arriskutan nazio batasuna;
II. eskola honeetako irakaskintza maila ez daitela izan manutzaileak onartu edo manututako maila orokorra baino txikiagoa;
III. eta eskola horretara joatea gogozkoa izan daitela."

53. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 38 or., 8. oharra.

54. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, in: Document, O.C., 38 or., 7. oharra.
Baita: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 38-41 orr.

55. OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 38-41 orr.

56. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 39 or., 10. oharra.

57. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, in: Document, O.C., 49-50 or.

58. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, in: Document, O.C.,
Baita: MARÍ, ISIDOR; La articulación de la diversidad lingüística europea, 138 or. eta hurr.

59. Ikus: MARÍ ISIDOR; O.C., 138 or.
Baita: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, in: Document, O.C., 45-46 orr.

60. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENES; Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Euroéenne, in: Document, O.C., 48 or.
Baita: MARÍ, ISIDOR; O.C., 139 or.

61. Bertan.

62. Bertan.

63. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 41-42 orr.

64. Hara hemen garantia garrantzitsuenak:
"a. lehenirakaskintza eta bigarren mailakoa euren ama-hizkuntzan izango dabe:
b. alemaniera eta italiera parekotasun osoz erabiliko dira arduralaritza publikoetan, agiri ofizialetan eta elebidun topografia izendegietan;
c. azken urteetan italiarreratutako alemaniar abizenak lehengoratzeko eskubidea izango dabe.
d. lan publikoak eskuratzeko eskubide bardinak izango dabez talde etniko bien artean, lanaren araberako bardintasun haundiagoa lortzeko."

65. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C.,

43-44 orr.

66. "India eta Pakistaneko Gobernuak argi eta garbi erabakitzen dabe nobere lurraldeko gitxiengoei honeek ziurtatzen jakezala: herritar modura parekotasun osoa, zein bat zein beste izan erlijioa; bizitza eta kultura, ondasun eta norbere izenonari dagokionezko ziurtasun osoaren sentimendua; herri bakoitzaren barruan leku batetik bestera ibilteko askatasuna; lan bat askatasunez aukeratzeko eskubidea; eta, legezko eta bidezko jokabide barruan, adierazbiderako eta kulturarako askatasuna. Gitxiengoaren kideak, gehiengoen kideen baldintza bardinetan, herri bizitza publikoan parte hartzeko, politiku eta beste edozein eratako zeregin publikoetara iristeko, eta indar zibil eta armatuetan zerbitzua eskeintzeko eskubidea izango dabe". (Bertan).

67. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 44 or., 13. oharra.

68. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 44-47 orr.

69. 4. artikuluak hauxe dino:
"1) talde biak izango dabe komunikabide idatziak ama-hizkuntzan eukiteko eskubidea;
2) talde bien hezkuntza, kultura, giza eta kirol erakundeak askatasunez ibili ahal izango dabe, lege agintearen arabera. Era honetako erakundeak, inguru haretan beste erakunde batzuk daben tratu bardina jasoko dabe, batez ere areto publikoak, irratiak eta diru publikoetako laguntzak erabilteari dagokionez...

3) talde biak izan behar dabez euren zerbitzuan ama-hizkuntzan irakasten dan haurtzaindegiak eta lehen eta bigarren mailako eta lanbide irakaskintzarako eskolak. Era honetako eskolak martxan izango dira Italiar aministralgopean diran Jugoslaviar etnia taldeko umeak dagozan eskualdeetako herrietan, eta Jugoslaviar administralgopean diran italiar etnia taldeko umeak dagozan eskualdeetako herrietan...

Italiar eta Jugoslaviar administralgopean beste eskolak daben tratu bardina jasoko dabe eskola material, areto eta beste gai material, irakasleen kopuru eta egoera, eta diplomen onarpenari dagokienetan. Italiar eta Jugoslaviar manatzaileak, eskola honeetan emoten dan irakaskintza, ikasleen hizkuntzaren ama-hizkuntza bardina daben irakasleak emon daien ahaleginduko dira...

Eskola honeetako irakaskintza egitarauak ez dabe egon behar ikasleengan izaera nazionalaren inguruan eraginik sortzeko eran."

70. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 47-48 orr.

71. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 15. oharra.

72. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 49-50 orr.

73. SETIEN, JOSE MARIA; Pais Vasco: Pluralidad lingüístico-Cultural hacia una Comunidad. Ponenencia en la Universidad de Deusto, (87-02-03).

74. SANCHEZ CARRION, J.M.; Espacio Bilingüe, 1982, 164 or.

75. Ikus: Argitaratzaileak RUIZ OLABUENAGA, JOSE IGNACIO eta OZAMIZ, J. AGUSTIN; Hizkuntza Minorizatuen Soziologia, Ttarttalo 1986, Colección Estudios e Investigaciones. 23 or.

76. Ikus: SANCHEZ CARRION, J.M.; "Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística" in: Hizkuntza Minorizatuen Soziologia, Ttarttalo 1986, Colección Estudios e Investigaciones, 20-40 orr.

77. Ikus: Intervención de: MANTEROLA, ANDER; "La implantación del euskera y su papel en el desarrollo lingüístico", in: Plurilingüismo y Evolución Cultural, Bizkaia XXI Mende aurrez, III Jardunaldiak; Comisión de Vizcaya de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Bilbo 1986.
Baita: Intervención de: IDIAZABAL, ITZIAR; "La educación bilingüe desde el ámbito escolar", in: Plurilingüismo y Evolución Cultural, O.C.

78. GARMENDIA, FRANCISCO; Euskaldunak III (La etnia vasca), Etor. Donostia, 1.985, 521 or.

79. GARMENDIA, FRANCISCO; Euskaldunak V (La etnia vasca), Etor. Donostia, 1.985, 284 or.

80. Ikus: GARMENDIA, FRANCISCO; Euskaldunak V (La etnia vasca), O.C., 286 or.

81. GARMENDIA, FRANCISCO; Euskaldunak III (La etnia vasca), O.C., 535 or.

82. EEAOLren 15. art., Euskeraz ikasteko aukera, ez manua.

83. GIZA ESKUBIDEEN AUTORKIZUN OROKORRA. 1948-12-10. Sarrera.

84. GIZA ESKUBIDEEN AUTORKIZUN OROKORRA. 1948-12-10. Sarrera.

85. GIZA ESKUBIDEEN AUTORKIZUN OROKORRA. 1948-12-10. Sarrera.

86. Ikus: GIZA ESKUBIDEEN AUTORKIZUN OROKORRA. 1go art.

87. EUSKERAREN LIBURU ZURIA; O.C., 319 or.

88. EUSKERAREN LIBURU ZURIA; O.C., 321 or.

89. GIZA ESKUBIDEEN AUTORKIZUN OROKORRA, 2.1 art.
"Pertsona guztiak, Autorkizun honetan agertzen diran eskubide eta askatasun guztien jabe dira, ezelako bereizkeria barik, erraza, kolore, sexu, hizkera edo beste edozein baldintzagaitik baztertzerik ez dan eskubidea."

90. EUSKERAREN LIBURU ZURIA; O.C., 323 or.

91. EUSKERAREN LIBURU ZURIA; O.C., 307 or.
"Euskera, edozein hizkuntza lez, kultur ondasuna da. Herri baten bizikerari loturik dago. Euskal mintzodun bakoitzak, bere amaren magalean, bere familian jaso dauan ondarea dau. Gure herri kulturaren neurrira eginik danez gero, euskera da herriaren bereizgarririk nabarmenen adierazpenik egokiena. Gure kulturari beste molde batzuk, beste hizkuntza bat, ezarri nahi izatea, geure herriaren berezko hezikerari oztopo bat ipintea litzateke."

92. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las lenguas minoritarias y el Derecho, O.C., 34 or.

93. EKko 2. art., in: 1978-12-29ko EBO.

94. HERRIA 2000 ELIZA, Autodeterminación de los pueblos, un reto para Euskadi y Europa, Vol. II, Bilbo 1985, 313 or.

95. SETTIEN, JOSE MARIA; O.C.

96. GIZA ESKUBIDEEN AUTORKIZUN OROKORRA, 1go art.

97. Ikus: EKko 2. atala., in: 1978-12-29ko EBO.

98. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE A.; El derecho humano de la autodetermina ción de los pueblos, O.C., 69 or., 6. oharra. 99. OBIETA CHALBAUD, JOSE; El

Derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, O.C., 75 or.

"Herria beste baten edo Estatuaren menpe dagola be, askatasun barik eta eskubidea galazota, baiezpen honek balioko leuke. Pertsona bat be egon leiteke beste baten menpe, baina inoz be ez dau galtzen jatorrizko askatasuna. Bardin herriaren kasuan."

100. Ikus: GIZA ESKUBIDEEN AUTORKIZUN OROKORRA. Sarrera, Atarikoa.

"Eskubide honeek zuzenbidez gordearazotea nahi ta nahiezkoa da, agintaripean zapaldurik aurkitzen dan gizonak, nagusi zitalen aurka jaiki beharrik izan ez daian."

101. Ikus: EK (3. art.), GE (6. art.), eta EEAOL (3. art.)

102. EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA, 1982 Abenduak 16, 160 zb., 31-38 orr.

103. OBIETA CHALBAUD, JOSE; El Derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, O.C., 83 or.

104. Bertan.

5. KULTURGINTZAREN ETA HIZKUNTZAREN TRATAMENDUA EUROPAN

5.1. EZBARDINTASUNEAN BARDINTASUN OINARRIAREN BILA

5.2. TRATAMENDU ANIZKOIAK ETA BEREIZKETAK

5.1. EZBARDINTASUNEAN BARDINTASUN OINARRIAREN BILA

"Pertsona guztiak, autorkizun honetan agertzen diran eskubide eta askatasun guztien jabe dira. Ezelako bereizkeria barik, arraza, kolore, sexu, hizkera, erligio, eritxi politiko edo beste izaera, nazio jatorriz edo ekonomi egoeraz, jaiotze edo beste edozein baldintzagaitik baztertzerik ez dan eskubidea.

Ez jako begiratuko gainera, zer lege- herriko nahiz lur-herriko seme dan pertsona horri. Ezta hango herriketari ta eskubideei, nahiz herri hori bere gain dagola, nahiz besteren menpean edo ta zainpean, nahiz jabegoa mugatua euki. Beste herriekin ditun hartuemonei be ez jake begiratuko" (1).

Giza Eskubideen Autorkizuneko atal honen arabera ez dago ezelako bereizkeriarako lekurik.

Bestalde, gizon guztiei antzerako lege tratamendua emon behar jaken aurreuste edo aurreritxia bada. Eta ezbardintasun nabarmenak dagozanean, arduradunak aztertu eta gero, onartuko ditu tratamendu ezbardinak. Beraz, ezbardintasunaren aurkezleak daroa frogatu beharra.

"Tratamendu bardintsuaren aurreuste orokorra dago, eta bereizketa egin nahi dauanak frogatu beharra. Epaikuntzan, orekak legezkotzat joko dira, eta ezbardintasunak tratamendu ezbardina merezi daben ala ez aztertu beharra izango dabe" (2).

Gizon guztientzat lege tratamendu bardinaren aldeko aurreritxiaren errazoibideak, Bruno de Witteren eritxiz eztabaidagarriak dira. Lehenengo errazoibidea, moral arloan hartutakoa da: gizon guztiak bardinak dirala esaten da. Nahiz eta beste aldi batzuetan ahaztuta euki, batez be kristautasunaren eraginez gaurko aroan pentsakera honek baditu aldekoak.

Baina, "dotrinaren edo uste honen baliotasun moralean ez datza arazoa, edozein zuzenbidezko ondorio ataratzeko posibilitatean dago".[...] "Interes eta begiramen bardinak, tratamendu bateratu bategaz ez dau zerikusirik" (3).

Autore honen ulerbideari jarraituz esan daiteke, gizarte anizkoian, Espai-

nian esaterako, zenbat eta aukera bardinagoak ezarri nahi izan danentzat, lege tratamenduaren ezbardintasuna haundiagoa izan leitekela eta bereizkeri baiezkoa argiagoa. Gizakumeenganako begiramen bardina lortzeko gaurko giza politikak euren barruan ezbardintasunaren ekintza baiezkoak eta bereizketak egiteko gogoa dabe. Errazoibide honetatik, tratamendu bardinagaz danentzat babes bardina emoterik ez dago beti behintzat.

Bigarren errazoibidea, legegintzaren izaera logikoan bilatu leiteke. Legegintza errazoibidean oinarrituta dago. Bardintasunak eta ezbardintasunak bilatu egin behar dira. Eta Berlin pentsalariak dinoanez: "Bardintasunak errazoibiderik ez dau behar, ezbardintasunak bakarrik behar dau" (4). "Legezko orokortasun honen aurretik, antxinako gizarte bateratua bilatzen da, bardintasun-oinarriaren beharrizan barik".[...] "Bardintasuna, ezbardintasun eta bereizketak bateratzen etorriko da. Legegintzan orokortasuna izan leiteke oinarri nagusia, baina bidezkoa ez danean, tratamendu bardina salbuespen izatera heldu leiteke" (5).

Sarritan oreka eta ezbardintasuna arau bakar baten etorri daitekez. Pentsatu legeak Irakaskintzako hizkuntzari buruz arau hau emoten dauala:

"Ikasle guztiei, irakaskuntza euskeraz eta gazteleraz emongo jakela" (6).

Edukinari buruz, arauak bardintasuna bilatzen dau, baina legegileak araua betetzen dan ala ez ebaluatzeko zeregin latzak izango ditu. Orokortasuna, gainera ezin da erabili formalki hasiera baten, azkenean bateratasunaren balio lez baino. Baina bateratasun honen baliobidea aztertu ondoren jakingo da bateratasuna ala ezbardintasuna aplikatzea komeni dan.

Rousseau-k eta bere arokoak (7), esaterako, legearen aurrean bardintasun-oinarriaren aldeko dira, eta ondo ulertzekoa da euren denporako lege-oinarri falta ikusita. Gaur egun be antzerako oihuak entzuten jarraitzen da. Autore amerikar batentzat, "esperienziak azaltzen dauanez, bereizkeri okerren arriskua, bateratasun okerrarena baino askoz be haundiagoa da" (8). LE CHEMERINSKY jakitunaren hitzak dira.

Gai bardina dager, Jaekson epailearen Railovay Express Agency-ren New York-en aurkako epaian: "Zentzubako Gobernuen aurkako berme onena, gitxiengoari ezartzen jakozan lege-oinarriak herri-ardularitzari be ezartea da". [...] "Eta Auzitegiak legeen zuzentasuna segurtatzeko legeak aplikatzeko orduan bardinak izatea

baino neurri hobeagorik ez dabe idoroko" (9).

Tratamendu bardinaren aurreustean be sinplezia faltarik ez dago. Baina behintzat bereizkeriak aurrikusteko posibilitate gehiago dago. Talde menperatzaileak be ez dabe nahi beti gitxiengoekin bereizketak egitea. Aberatsak, gai balira, zergak ordaintzeko orduan bereizketarik ez leuke egingo.

"Baina hizkuntza gitxiengotuentzat arazo nagusia bateratasun gehiegia da eta ez ezbardintasun haundiegia" (10).

Euskaldunak mendira joateko orduan ez dau behar bereizketarik, baina eskola bardinak gazteleraz ikasi beharragaz ipintzen badabe, edo telebista bakar bat eta gazteleraz, edo Auzitegiak e.a., orduan arriskuak berehala datoz. Edozein bereizketak bardintasunaren edukina murrizten dauala uste dauanak ikuspegi mugatua dauka. Jakina danez, hizkuntza arloan bereizketa be azkeneraino eroatea ezinezkoa jazoten da. Baina gitxienez, moralaren ikuspuntutik begiratuta, eta batez be hizkuntza arloan, tratamendu bardinaren aurreustea ez dago ziurtatuta.

Tratamendu bardinaren azken errazoibide bat zera da: epaikuntzari hobeto doakiola bereizketaren eta ezbardintasunen zaingoa, alderantziz baino. Orekak aztertzeko orduan epailariak sormen gehiago erabili beharko leuke, beste aukera bat eskeintzeko. Bereizketa ondo erabilten ez danean, ukatuz erantzuna emonda dauka. Baina errazoibide honek be ez dau aseko hizkuntza gitxiengotuen eskubidea, segurtasuna edo/ta askatasuna. Hizkuntza-babesak eskatuko dau errazoi bako bardintasunaren aurka joatea, eta benetako zuzentasunaren alde. Euskal Herrian herritarrak nahiz eta gitxiengoaren partaide izan edo gitxiengotua, euskeraz nahi badau eskolatua izan, herrisailagaz jardun edo/ta euskeraz telebista ikusi, bereizketa horren eskubidean dago, eta diru-arazo eta pertsonalaren eskasia e.a., atxaki merkeak dira.

> "Inguru bereziak edo araugaiak honetara eragiten dauanean, hizkuntza berezi baten erabilera edo ezagutza, pertsonen arteko bereizketa egiteko bidezko eritxia izan daiteke" (11).

Arduralaritzak bere zerbitzuetarako hizkuntza baten erabilera behar badau, jente mota aukeratueran hizkuntza erizpidea zentzuzkoa eta kontutan hartzekoa izango dau.

Elebakarren sailetan, funtzionariek hizkuntza ofiziala erabilteko gaitasuna izan behar dabe, eta bardin esan daiteke, hizkuntza trebetasuna lan honen osagai danean, batez be ulerterazle edo itzultzailea danean.

Hizkuntza bereizketak nahierarakoa edo arbitrarioa egundo ezingo dau izan. Esaterako, kaltetuei laguntzak emoterakoan euskaldunei bakarrik emon ezkero, ez litzateke errazionaltasunik nabariko euskeraren eta kalte-laguntzak jasotearen artean.

Sarritan ez da erreza hizkuntza, baldintza lez, gogoan hartu behar dan jakitea. Hizkuntza bat baino gehiago ofizialak dabezan Arduralaritzak hizkuntza horreek legebidezko beharkizun edo enplegurako baldintza diran erabagi beharko dau.

1.984an Espainiako Auzitegi Gorenak Gipuzkoa eta Arabako probintzietako Aldundien erabagiak baliorik bage itzi ebazan (12). Erabagi honeen bitartez probintzietako zerbitzuei heltzeko, Euskera ekienei aparteko puntuak emoten jakezan azterketa-erregimena arautu zan. Gortearen ustez, auzipeko neurriak hizkuntza bereizkeriadunak (13) ziran, Euskeraz hitz egiten ez dabenentzat funtzio publikoari heltzea murrizten jaken eta. Bardintasun oinarria ulerkeran, Gorteak Konstituzioko oinarri garrantzitsuago batzutara jo eban. Gorteak aipatzen dauan Konstituzio 3. artikuluko lehen esaldian Gaztelera Espainiako hizkuntza ofiziala dala adierazo eta herritar guztiak erabilteko eskubidea onartzen dau.

Bardintasunerako konstituzioko oinarria aukeratu eta eratueran Gorteak 3. artikulu bereko bigarren esaldia be aipa leikean, Espainiako beste edozein hizkuntza Autonomi Elkarteen Estatutoen arabera be ofiziala izango dala dinoana. Konstituzioko arau honen oinarrian, Euskal Estatutoak, 6.1. artikuluan, Euskal Elkarterako ofizialtasun bikoitza aurrikusi dau, herritarrek mintzatueran eta arduralaritzagaz jarduneran hizkuntza bietarik edozein erabilteko daben eskubidea sartuz. Baina, Auzitegi Gorenak funtzionariak aukeratueran euskara jakiteari baliorik ez emoteko manatzean, herritarrek herrisailagaz nahiz euskaraz, nahiz gazteleraz hitz egiteko daben eskubidea kolokan dago. Izan be, hizkuntza bat erabilteko eskubideak, Konstituzioko 3. artikulu edo Estatutoko 6. artikulukoak dinoanez, herritarraren eskubidea dan neurrian, herrisailaren betebeharra dakar. Honela, norberaren hizkuntza erabilteko eskubidea erabili ahal izateko, Arduralaritzak prest egon behar dau hizkuntza hori ulertu eta beraren bidez funtzionatzeko. Beraz, funtzionariek zerbitzuaren erabiltzaileak adierazoten dabezan aukerak eta antolaketaren barruko mekanismoen prestaketak dabez mugatzat eta lanbideaz kanpo bakarrik dira

gaztelera edo euskeraz hitz egiteko eskubidedun. Euren egikizunean diharduenean, zerbitzuaren erabiltzailearen nahien menpe dagoz: Beraz, azterketei buruzko legeetan euskera dakienei emoten jakezan abantailak neurrizkoak dira, arduralaritza elebiduna nahi bada, eta ez dago Konstituzio arauen aurka.

Gainera, probintzietako Aldundien erabagia euskera normalizatzeari buruzko 1.982ko Azaroaren 24eko legeari aplikatzen jakon; lege honen konstituziotasunari buruzko zalantzarik egotekotan, Auzitegi Gorenak arazoa Konstituzio Auzitegiari bialdu beharko eutson, baina ez eban eskubiderik izan indarreko legea egon ez bazan lez, iharduteko. Konstituzio Auzitegiaren erantzuna ezbardina izan eitekean (14). Gehiago, Konstituzioaren ulerkerari buruzko goren manua dauan Gortean, 1.983ko epai batetan, pertsonala hartzeko, hizkuntza "bonua" edo meritoa zentzuzko eskubidea dala esan zan, herritarrek aukeratzen daben hizkuntza erabiltzeko daben eskubidea badago behintzat. Halan be, Auzitegiak, ildo bardinetik, hizkuntza bien ezaguera derrigorrezko bihurtze hori konstituzio aurkakoa izango zala, onartu eban. Administrazioa, orohar, izan behar da elebiduna, ez, beraren kide bakoitza (15). Administrazioaren hizkuntza ekintzapide egokia ziurtatzeko hautabidea, hau da, funtzionariak hizkuntza biak jakitea, beste leku batzutan erabiltzen da. Brusselle-ko elebidun aldeetako bertako Arduralaritzan, funtzionari bakoitza gai izan behar da erabiltzaileengana edozein hizkuntza ofizialetan, flamenderaz edo frantzieraz, zuzentzeko. Val de Aostako herrialdean, Estatutoko 38. artikuluak, estatuaren administrazioak herrialde horretako funtzionariak, frantziera ezagutzen daben funtzionariak bakarrik izan behar dituela, manatzen dau, Valdaostar guztiak, irakaskuntza sistemagatik, elebidunak dirala uste da-ta; baldintza honek hizkuntza ofizial bien exigentzia orokorra esan nahi dau. Elebitasun bera ezartzen jake Tirolen hegoaldeko Bolzanoko probintzian lan egiten daben funtzionariei (16). Italiako Konstituzio Gorteak espainiar kidearen ikuspegiaz aurkakoa hartu dau eta, agerian, elebitasun ofizialaren erregimenari eutsi eta funtzionari zibilek hizkuntza bietan hitz egiteko gaitasuna izan behar dabela ezarri dau, Gorteak, neurriak italieradun eta alemanieradunen arteko bereizkeriarik egiterik ez eukala, esan eban, biak dagoz arduratuta elebitasunarekin eta benetako tratamendu bardina bermatu nahi da (17).

Irlanda jokabide gogorretik ahulera etorri da. Irlandera ez da, lehen ohi zan lez, nahitaezko beharkizuna funtzionari zibila izan edo karreraren barruan sustatzeko. Irlanderaren ezaguera lanpostu berezi baten betebeharrak egiteko funtsezko danean bakarrik ezartzen da, baina hizkuntza biak oso ondo jakitea oraindik be aukeratzeko erizpideen artean indartsua da. Sistema guztiz legebidezkotzat hartu izan da Gorte Gorenaren epaiketako Dictum batetan (18). Hizkuntza trebetasunerako beharkizun honetatik aparte, badago zerbitzu zibilari heltzeko beste erizpide bat, hau da, hizkuntza talde batetako kidea izatearena. Sistema honen lehen helburua ez da Administrazioari hizkuntza lanak egiteko gaitasuna emotea, hizkuntza talde horreen

ordezkaritza Administrazio Publikoetan ziurtatzea baino (19). Holan Belgikako Administrazio Zentralean, frantziera eta flamendera ez dira nahitaez jakin behar, hierarkiako goi mailetan izan ezik; baina, bakoitzak flamenderadun beste frantzieradun aukeratzen dau eta, ondoren, ahalik eta urrutien, administrazioaren barruko elebakarreko zerbitzuetara bialtzen dira (20). Antzera dabil Bolzanoko probintziako funtzioari zibilaren postua, italieradunei, alemanieradunei eta Ladin-tarrei emoten jake ta, talde bakoitzak, kopuruaren aldetik, probintziaren barruan dauan garrantziaren arabera (21).

Belgican, taldearen bardintasuna hala-holakoa da bakarrik, frantzierari eta flamenderari eskeinitako proportzioak konpromezu politikoan oinarritzen dira eta frantzieradun edo flamenderadunen kopuruarekin ez datoz bat.

Bolzanon banaketa objektiboagoa da, hiru hizkuntza taldeen banaketa hamarkada bakoitzean egiten diran zentsu ofizialetarik bakoitzean baieztatzen da-ta. Baina hemen be hainbat arazo dira nahaspilotuta. Sistema proportzionala hartu zan garaian, italieradunen taldea asko ordezkatuta egoan funtzionariei egokienez, italiar biztanleriaren %20 a gobernuaren enplegupean egoan eta alemanieradunen %6,2 bakarrik. Ladin gitxiengoarentzat lege proportzionala aplikatzea zaila da, oso txikia izan eta probintziako biztanleriaren %4a da bakarrik. Edozein zerbitzu publikok, gitxienez, 25 lagun izan behar ditu landintar batek aukeratua izateko eskubidea izan daian. Errazoi berberagatik baztertu ohi dira administrazioko hierarkiako gorengo mailatik (22).

Bardintasunaren tratamenduari dagokionez, hizkuntza proportziotasunaren jokabidea ez dago hain bidezkotuta. Hizkuntza ofizial bakoitzaren zerbitzua ziurtatzeko, ordezkaritza proportzionalaren sistema bereizkeria hutsa izan leiteke. Gainera, beste hizkuntza taldekoa izatearren, hizkuntza ofizial biez mintzatzen dan hautagai onena baztertu daiteke.

Banakako edo pertsona bakoitzaren bardintasuna ezin da taldearen bardintasunaren menpe jarri. Gaur egun, taldearen bardintasuna ez da konstituzioan gogoan hartzen talde legez, beraz, ezin erabili daiteke banakako bardintasuna lurperatzeko, herri horreen konstituzioak gogoan hartzen dauan bardintasun bakarra data. Azken bidezkoketa, beraz, hauxe da: Banakako bardintasuna benetakoa izan dadin, neurri berbera behar da taldearenarentzat.

5.2. TRATAMENDU ANIZKOIAK ETA BEREIZKETAK

5.2.1. LURRALDETASUN OINARRIAREN ESTATUTOA.

5.2.2. NORTASUN OINARRIAREN ESTATUTOA.

Hizkuntza gitxiengotuentzat bardintasuna ez litzateke beti behintzat oso onuragarria izango. Tratamendu bardinagaz, Euskal Herrian, esaterako, euskera geroago eta baztertuago eta gitxiengotuago izan leiteke.

Euskaldunaren eskubideak jagoteko bardintasunaren ikuspuntua murrizgarria gertatu leiteke. Espainian hizkuntzarekiko lege tratamendu bardina eta bateratua egon danean; euskera ama-hizkuntza lez euki dabenak eragozpen gehiago izan dabe euskera ikasi eta erabilteko.

Gehiengoak daukana, hizkuntza gitxiengotuak haxe bera eskatzen dau beretzat. Orain, Konstituzio ondoren, hizkuntza egoera anizkoia onartzen da, baina Euskal Herrian euskaldunak euskeraz egingo badau eta euskeraz biziko bada, gehiengoak daukana lortzeko, euskaldunek eurek arau berezi batzuk jarri beharko dabez. Eta hori ez lehenespenezko edo pribilegiozko tratamendua emoteko, gehiengoak egiten dauana egin ahal izateko baino.

Neurri berezi honeek edo bereizketa honeek ez litzatekez izango kutunkeria bat, giza eskubideen eskabidea asebetetzeko bardintasuna baino. Bardintasunaren mota, era edo maila bat besterik ez da. Euskal Herrian gazteleradunak gazteleraz egiteko dituan aukerak gitxienez euskaldunari zor jakoz. Familian, herrian, lantegian, arduralaritzan, nazioarteko erakundeetan, esparru guztietan bere hizkuntzaz jabetuta bizi izateko aukera.

Bardintasun hau lortzeko eta bermatzeko finantziaketa zama sortu leiteke. Baina lehengo zorrak kitatu barik geratuz gero be, oraingo egoeraren bardintasun anizkoiak, eta Konstituzioa kontutan hartuz, ezin leio Euskal Herriari ukatu bere hizkuntzaren araubidea egiteko eskubidea.

Auzitegi Gorenak, hizkuntzaren erabilerari buruz, eskubide hori oztopotu dauala ikusi da eta ikusiko da (23). Bereizkeria bilatu dau egon ez dan lekuetan. Konstituzioak bereizkeriak ukatzen dituan puntuak aurkitzen be saiatu da.

Jokabide horrek ez dau esan nahi Euskal Herriaren kasuan holan aplikatzea bidezkoa danik.

Hizkuntzari buruz bereizketak onartzen dituen Herrialdeetako Konsti-

tuzio batzuk dakarrezan berezitasunak aztertzea komeniko da. Euskal Herrirako jokabide egokia bilatzen laguntzeko mesedegarri izan daitekezelarik.

Hizkuntza arazoei buruz Konstituzio batzuk bardintasun anizkoiaren beharra zehazten dabe, Espainiakoa, Finlandiakoa edo Italiakoa kasuko, eta beste batzuetan bardintasuna orohar ezartzen da, eta bardintasuna orohar manatzen danean epaileak hizkuntza gitxiengotuen aldeko neurriak hartzen bildur izaten dira.

Bereizketa honeek gitxiengoei buruzko arauen bitartez bideratzen dira. Baina arau honeek be Estatu guztietan ez dira bardinak izaten.

Hizkuntza gitxiengotuak babesteko Estatuek hartzen dabezan babes-sistemetan be ez dago batasunik. Baina sailkapen bat egiterakotan, estatuto mota bi bereiztu daitekez: lurraldetasun estatutoa eta nortasun estatutoa. Hau da, hizkuntzen babeserako lurraldetasun oinarria aukeratzen daben Estatuena, eta nortasun oinarria hartzen dabenena.

Lurraldetasun oinarria aukeratzen dan Estatuetan, hizkuntza gitxiengotuak babes-ofiziala Estatuak onartutako lurraldean jasoko dau bakarrik. Nortasun oinarria daukien Estatuetan, ofizialki onartutako hizkuntzadunak Estatu osoan zehar babestuko dira.

5.2.1 LURRALDETASUN OINARRIAREN ESTATUTOA.

5.2.1.1. Suiza

5.2.1.2. Italia

5.2.1.3. Yugoslavia

5.2.1.4. Belgica

5.2.1.1. Suiza

5.2.1.1.1. Suizako hizkuntzen egoera

"Europa barruan, hizkuntzen eta kulturen anizkoitasunean alkarulertzearen eredu gogoangarria Suizak erakusten dau" (24).

Alkar aitzeko hizkuntzari buruzko araubide zehatzik ez dago. Hizkuntza arloan istilu gogorrik bizi ez daben herrialdeek, legedi ugari eta zehatzen beharrizanik gehienetan ez dabe izaten.

Suiza, alkarrekin bizitzeko politika borondatetsu batez jaiotako herrialde bat da. Inguruko laterrien aldez, Suizako nortasunaren zera, ez dago nazioko hizkuntza bakar baten, ezta kultura ohitura baten edo etnia baterakoi baten, suizatarrak alkarren artean dabezan politika sinismen edo uste bardinetan baino, nahiz eta hizkuntza eta kultura desbardintsuak nabarmen izan. Horrela suizatarrak estatu alkartuaren eraspenaren, gizarte eskubidedun estatuaren, demokraziaren, kanpo nazio arteko alderdi gabetasunaren alde agertzen dira, eta kultura ta linguistika gaien alde be bai.

Nahiz eta nazio bat sortzerakoan edo egiterakoan hizkuntza bat agertu zerik indartsuena, Suiza zer hori barik egin da, lehenengo eta behin nazio-alkartasuna Suizako estatu-sortzearen oinarria dalako (25).

Suizak gaur hizkuntzei buruzko istilu gogorrik ezagutzen ez dauan arren, ez da aurkitzen honako estura ta haize bada-ezpadakotik babestua. Antxina-antxinako hauzia, lehenengo ta behin eztabaida politikua da, baina bai da kulturari buruzko hauzi bat be, frantsez hizkerak eta alemanenak, bakoitzak bere aldetik, daukien barne ulertu ezina. Badira horrez gain azaldu nahi ez diran jazarte ta arazo ixilak (26).

Lau laterri hizkuntzak, era honetara bereizi daitekez:

a) Alemana da doi-doi herrian hirutik bik egiten dabena (%65). Hizkera

bi dira egi-egiaz; hizkuntza argitua da bata, idatzirako (schriftdeutsch) erabilten dana, ahozko harremon ofizialetan, beste hizkera bat daben taldeen aurrean, eta baita ikastetxeetan be. Suiza-jermandar hizkelgien nahastez eratua da bestea. Ahozko bakar-autuan erabilten da, baita agirian be, irratian eta telebistan esate baterako.

b) Legezko hizkuntza lez, frantsesa nagusitu da bertan, eta apurka apurka probintzi-hizkelgiak uxatu ditu osorik, eta gaur egun ez dira mintzatzen bakarrean, baserrietako talde txikietan baino. Gizaldi baten barruan, 21,4tik %18,4ra jatsi da. Bertaratu dan atzerri jendeagaitik jastea adierazten da.

d) Italieraz hitz egiten dau herriak %9,8ak, eta gizaldi bat dala %5,7ak. Gehitze hau ez da adierazgarri, han eta hemen lan egiten dagien herritarrak mintzatua dala-ta, han nun lana hara doazanakaz gertatu oi dana da. Tesinon, galtzeko arriskuan dago italiera, alcman darabilen jente moltzo sendoak zemaitua. Doixtar hizkuntza egunero darabile, arrotzakaz batez be, turismo ta salerosketa hartu-emonetan.

e) Romanche da darabilen hitza, bost hizkuntza adierazteko: 50.000 bat pertsonak hitz egiten dau berau. Hamar urtean, %7raino joan da atzerantza. Bost hizkuntzok bateratzeko egin diran ahaleginak, alperrikakoak izan dira orain arte.

Romanche, oso gitxi batzuen hizkuntza da; egia esan, bakarreko hartumonetan eta eskolan lehenengo mailetan soilki erabilten dana. Jarritako numeruak argi darakuskue hizkuntza hau gero ta beherago doala bere bizi-izatean. Esandako salerosketa ta turista hartuemonen aldakuntzei begiratu ezkero, aleman hizkuntza egunetik egunera nabarmentzen da legezko hizkuntza lez (27).

Azken ehun urteotan ez da askorik aldatu herrialdeen muga eta inguruan hizkuntza bat baino gehiago darabilanen alkarren arteko kopurua, retoromano hizkuntza izan ezik. Egia esan gitxiengoaren hizkuntzen egoera publiko mailan beti ipini izan da arriskuan, urtenbide eroso eta merkeak aurkitu gura izan diralarik. Ezin izango da eztabaidatu zelan Suizan, hizkuntzen benetako desbardintasuna egunero egiztatzen dan nahiz eta onartu ideologikoki lau hizkuntzen bardintasuna eta hiru hizkuntza ofizialen legezko bardintasuna (28).

Aldaketa honi errez hartu leikioz aurreak hizkuntzarik erabilienak edo

indartsuenak, bere borondatez, jakina, gitxiengoak erabilten dauanaren aurrean, berea mugatzen dauanean.

Era honetara bakarrik lortu leiteke hizkuntzen oreka. Hizkuntza taldeen alkar artekotasun hori ez litzateke orekatuta egongo matematikoki zeharo beteta gura izateagaitik. Suizan badirudi hau egitea erreza dala, hizkuntza taldeen artean sortu leitekezan desbardintasunak eta hizkuntza bizitza emoten diranak ez dagozalako eztabaida bati lotuta. Honek egiaztatzen deuskuna zera da: Lau hizkuntza nazionalak ez leitekezala norbere gurariz aldatu edo alkar nahastu, historia berezi baten oroimena eta gaurkotasuna zalantzarik barik ulertuazoten deuskula baino.

Suizan, besteak ulertzea, besteari dan modukoa izaten itzirik norbere eskubideen defentzan jardutea baino erakundeetan parte hartzea hobeagoa izan dala iduri.

Instituzio mailan, gitxiengoak gehiengoari euren aurkatasuna erabiliaz eurena lortzeko gogor egiteak ondorio onuratsuak emon ditu.

Demokrazia zuzena eta proportzionala garatu da. Baina batez be hauteskunde eskubidea izan da gitxiengoak erabili dauan arma edo izkilua, nagusiengoak erabili dituan erabagi parlamentarioen aurka, behar dan beste ez dabelako kontuan izan gitxiengoaren nahaia.

Kantonal zein federal mailan, hauteskundeak ezartzeak, parlamentuko erabagietan, herrian behin-behinekoetan bihurtu dira, derrigorrez kontuan izateraino garatu da. Herri hauteskundeak eta txartel azterketak ordeztu dau zati baten, oposizio baten urritasuna. Ondorio legez gitxiengoentzat horma babesle bat egitea izan da.

Nagusiengoaren aurkako beste jokabide bat hauteskunde proportzionalak dira. Kasu honetan gehiengoak ezin deutso galazo gitxiengoari politika ardurak hartzea; euren hauteskunde mailan manatzaileen barnean ordeztuta egon baino. Eskualde batzuetan, proportzional hauteskundeak manatzen dauan eskubidea gitxiengoaren ohar batez osotzen da, dudazkoetan ahulenaren alde joten dau. Suizako demokrazia garapena, gitxiengoaren indarkeria baretzearen aldeko agertu da. Eta hau Konfederazioaren sormenaren oinarrian dagoan asmoarekin ados dago, eta estatu federala behetik gora egindakoa izan daitela. Gitxiengoen abotsa ez entzuteko eten

bako arriskua be gitxitzen dau. Egitamu honetaz aparte, Suizan ez dago gitxiengoentzat babes berezirik eta eskubide berezirik be ez jake emon. Gitxiengoen eskubideak badirudi, lege berezien artean sartzea ez izatea beharrezkoa, gizarte eta politika baldintzak eten barik moteltzen ez badabe ahulenen eskubide eta egoerarik (29).

Stefan Sonderegger-ek zortzi puntu aitatu ditu Suizako lau hizkuntzen etorkizuna menderatzeko (30).

5.2.1.1.2 Hizkuntzen eskubidea

Lau hizkuntza bizi diran Suizarentzat kultura ondasun baten babesketa eta goratzea zaindu beharreko zerbait da, konfederazioaren destinoa jokoan aurkitzen dalako.

Suizako hizkuntza araubidea artikulu bitara mugatzen da, federal konstituzioko 107 eta 116an agertzen da.

Suizatar eskubideak hizkuntza mailan, taldekako eta bakarkako esanahia kontuan hartzen dau, arlo pribatuan hizkuntzaren erabilera librearen alde jartzen da eta arlo publikoan hizkuntza mugen ikutu ezinaren eta lurraldetasun oinarriaren alde. Kasu honetan hizkuntza bat erabilteko askatasunaren garantia konfederazioan idatzita ez dagoan eskubide konstituzional batetik dator, zabalkundearen garantia eta lurraldetasun oinarria, Konstituzioko 116 artikulutik datozen bitartean (31). Horregaitik da ba, lau hizkuntza nazionalen eta euren ingurumariaren babesa eta berean irautea, "romanche"aren babesa be tarteko izanik, konfederatuen gogo orokorren barruan egotea (32).

a) <u>Federal mailan</u>

Hizkuntzen onartze ta ezagutzea, federal mailan eta kantoi mailan izan daiteke. Lege aldeko egoera nahiko naspila da, federal mailako ezagutzeak kantoi inguruko giroan lege-ondorenak dakartzalako, eta kantoien araudia ez da izaten beti izan behar leukean baizen argia.

1.848ko Konstituzioan, alemana, frantsesa ta italiera onartuak ziran nazio hizkuntza lez. 1.938an, romanche be, pizkat behintzat ontzat hartu nahi izan zanean, nazio hizkuntza ta hizkuntza ofiziala bereiztu ziran (33). Honela romanche nazio hizkuntza izatera heldu da baina ez hizkuntza ofiziala izatera. "Nazio hizkuntzak onartzeak ikur-balio zabala dau."[...] "Mitu irasle bat da, ta eskualdea honen gain jarten da bere nortasuna sendotzeko" (34).

Nazio hizkuntza baten legezko balioa, dudazkoagoa da. Auzi hau guztiz berezia da batez be romanchearen kasuan, hizkuntza ofizialari dagokion araudirik ez dauka-ta.

116 artikuluak federal mailan ez ditu agortzen legezko ondorenak.

Eskubide federalak lehentasuna dau eta kantoi mailako erabagiren bat aurkako dala ulertu leiteke.

Baina gaurregun, gai honi buruz jurisprudentzia gehiegirik ez dago.

Bestalde, hizkuntza-askatasun eta lurraldetasunari mehe ta zoli ezarrita dago 116 artikulu hori.

Hizkuntza-askatasunak nazio-hizkuntzen erabiltea bakar-bakarrik ez dau babesten; baina hizkuntza horreenganako babespen berezi bat ziurtatzen dau behintzat.

Gainera, lurraldetasun oinarrian tinkotutako askatasun-eskubide mozteak, nazio hizkuntzen aldekoak ulertu daitekez bakarrik. Nazio hizkuntza galzori larriagoan aurkitu ezkero, neurri honeek moztuago egin leitekez.

Baina lurraldetasun oinarria berekautan be mugatua da. Gehien diranak ezin daikie hizkuntza bat erabiltea gogorkeriz ezarri, eta gitxiago oraindik gitxiengoen hizkuntza arriskuan aurkitu baledi.

b)Kantoi esparruan

Jokabide ezbardinak erabilten dira. Era bateko kantoietan, hitz egiten dan hizkuntza ofizial lez hartzen da. Erabat mintzatzen ez diran kantoietan, hainbat hizkuntza dira ofizialak lez ezagutuak. Kantoi batetik bestera, egoera diferentea ezagutzen da. Valais-erak dauko egoerarik lauena. Kantoi honek herrialde bi ditu hizkuntza aldetik bardintsuak. Bata Goi-Valaisa alemana, kantoi honek hango jendetzatik hirurena dauka, ta frantsez hitz egiten dan Be-Valaisa bestea. Hizkuntza bi honein arteko bardintasuna, begirune haundiz ikusia ta onartua da.

Grisondarrak dira egoerarik biurri ta korapilotuena daukienak. Hiru hizkuntza ofizial ezagutzen dira euren artean, baina ekinean ia-ia ez da erabilten "romanche"rik. Alemana jarri da, zabal eta nasai, hartu-emon ofizialetan erabilten dan hizkuntza legez. Lurraldea ez dago hizkuntza-barrutietan zatiturik. Udaletxeak eurak aukeratzen dabe askatasun osoz irakaskuntzarako gogo daben hizkuntza ofiziala (35). Ez jako lotsarik erakusten lurraldetasun oinarriari. Udaletxe askok, romanche egiten dan lekuetakoak, doitxera hartu oi dabe hori errezago jatorkelako (36).

Hizkuntza ofizial bat onartzeak beragaz dakar bezeruen eskubidea ta beharkuna hizkuntza hau erabilteko Estatuagaz daukiezan hartu-emonetan. Beragaz daroa baita Estatuaren aldetik beroni jagokon eskubide ta beharkuna berau erabilteko pentzutan daukezanakaz. Baita irakaskintzako hizkuntza be neurri baten erabagiten dau.

Hizkuntza ofizial bat erabilteko eskubidea mozteak hizkuntzaren askatasuna zapaltzea dakar. Hizkuntza ofizialak onartuta badagoz eurek erabagita dago lurraldetasun oinarria. Lurraldetasun oinarria bere aldetik mugatua dago. Lurralde bateko hizkuntza ezbardinak, gehiago izanda be, ezin daikie baztertu gitxi diranen hizkuntza ofiziala erabiltea. Itzal eta babeste hau, hizkuntza askatasunari ezarritakoa, ezin daiteke onartua izan neurri bardintsuan, gitxiengoaren hizkuntza kantoi barrutian hizkera ofizialtzat hartua ez balitz. Eta zihur asko ezingo litzateke holakotzat euki hizkuntza arrotza balitz.

5.2.1.1.3. Hizkuntzen askatasuna

a) Helburuak

Idatzi bako Konstituzio eskubide lez hartu ta erabilten dalako, hizkuntza askatasuna ez dago Konstituzioan ondo tinkotuta.

"Hizkuntzen askatasunak edozein hizkuntzetan, baina batez be norbere amagandiko hizkuntzan mintzatzeko eskubidea dakar" (37).

Ez hori bakarrik, Estatuagandik ama-hizkuntzan barriak eta ikasketak hartzeko eskubidea be emon behar dau. Bakarko hartuemonetan, hizkuntzen askatasuna edozein hizkuntza erabilteko eskubidean datza (38).

Baina, kantoiak ez dira askeak, hizkuntza bat ofizial lez onartzeko (39). Dagokien inguruko hizkuntza egitura kontutan hartu behar dabe.

Hizkuntza askatasunaz nahastuten diran balioak, era bitakoak dira. Giza-pertsona dator lehenengo bere garatze ta haztean. Bigarren ikuspegi bat hizkuntzaz gitxi diranen alde emoniko laguntasunean datza, eta berariz hizkuntza nazionalak diranean. Balio honeik sarri lege-jokabidean ikusi ta haintzat hartuak dira (40). Epai honetan, Federal Auzitegiak azpimarratzen dau ama hizkuntzaren ikasteak dauan garrantzia umearen kultur heziketa osoaren alderako. Beste aldetik ez dau onartzen frantsesez mintzatzen diranen interesa euron kultur nortasuna zaintzeko.

Grisondarrei buruzko epaiak gitxiengoei eskintzen jaken babes ikuspegi batean sartzen dira (41).

b) Mugaketak

Oinarrizko eskubideei buruzko Federazioaren lege jokabidean edo jurisprudentzian naspil ikaragarria ikusten da. Ez da ikusten argi. Estatuak jokatzera

behartuta dagoan ala ixilik egonaz bere zeregina betetzen dauan. Federal Auzitegiak esan da esan dihardu askatasun indibidualen sailean ixilik egoteagaz betetzen dauala, baina beste batzuetan jokatzera behartuta aurkitzen dala dino. Naspil hau hizkuntza askatasunari buruzko lege-jokabidean be aurkitzen da (42).

Hizkuntza askatasun alorrean, ekinerako obligazio askok eta askok ez dabe buruhauste berezirik jarten. Estatuak hizkuntza jakin baten iragarri nahiz barriak emoteko bere gain hartzen dauan beharkuna, itzulpen bat egiteko, ekinerako edo jarduteko betebeharrak dira eta buruhauste berezirik ez dakarrenak. Hizkuntza gitxiengoa dagoan lurraldeetan ikastetxe bat iraunazoteko beharkuna, esaterako, eskola hori ez zarratzeko obligazio legez hartu leiteke. Guzti hau, beraz, izan daiteke epaigarri. Baina, alkarte bati ikastetxe bat jasoteko betebeharra jarteak, hizkuntza gitxiengo sendo bat bertan bizi danean, ez dirudi gauza samurra (43).

Udal haundi bat behartu ahal balitz ikastetxe bat jasotera, baita grisondar alkarte txiki bati be bere seme-alabak auzoko eskolara bialtzeko laguntasun txiki bat emotea ezarri leikio, epailariak galazo ete daike edu honetako prestamenak Federal Auziak onartzen dauanaren kontra? (44) Bestelan, ezin daiteke ulertu Konstituzio Auzitegiak zelan behartu leiken Grisondarren kantoia egitarau bat gaurkotu ta legez jartzera, romanche zaindu ta babestuteko asmoz. Egitarau hau federal edo kantoi legegileak bakar-bakarrik burutu daike.

Federal Auzitegiak uste dau bere lege-jokabidean, hizkuntza askatasunaren aurkako eskuhartze astuna ezin daitekela emon, kasu berezi-berezi baten izan ezik (45). Itaunka dago gainera, ia holako gaiztakeririk izan ete daiteken (46). Honek berekautan daroaz jokabide prozedura garrantzitsuen ondorioak. Kantoi manuen ezarpena apetazko begi-ziztaz ikusmiratzen da bakar-bakarrik (47). Kantoi erabagi bat, behin betikoa danean, ezin daiteke gogorrean eskatua izan. Hizkuntza askatasuna honela bere eduki barik geratzen da, garantiari dagokionez. Pentsakera eta jokabide hau ez datoz bat, umeak ama hizkuntzan ikasteak dauan inportantzia behinenari buruz hainbeste zarata ikaragarri dagien irakatsiekin (48) edo-ta nahaitaez romanche salbatu behar dala dinoenekin (49).

Lege-hauste honen askatasuna ebazteko, Federal Auzitegiak zuzenbide ta azter-arau batzuk euki behar leukez esku artean.

Gitxiengoen babeserako balio indibidualak eta kolektiboak gogoan hartu, romancheren aurkako sastakien indar biziak be kontutan hartu, eta hizkuntzen babeserako barruti-muga osoago eta zehatzagoak eratzen ahaleginak egin behar litzatekez.

5.2.1.1.4. Grisondar Gitxiengotuak

a) Lurraldetasun oinarria eta bere murrizketak.

Konstituzioko 116. artikuluak hizkuntzak erabilteko askatasuna aurrez ikusten badau, era berean artikulu hau lurraldetasun oinarriak mugatuta dago.

Federal eskubide barruan, baina bereziki kantoiak hizkuntzen erabilera arautu behar dau. Irakaskintza eta hizkuntza ofizialak izendatzen ditu, eta banakakoak manatzaileengana zelan zuzendu daitekezan eta hizkuntzen garatze-neurriak be hartzen dabez.

Grisoien edo Grisondarren kantoiak bertako hiru hizkuntzak erabagi ditu soilik, arduralaritzaren arloan hizkuntzaren erabilera arautu, eta legegintza lanaren eta lege jokabidearena be bai.

Udalei, alkarte autonomiko arduradun lez, administrazio mailan eta eskoletan erabiliko dan hizkuntza zein izango dan arautzea dagokie. Hau ez badago berenberegi izendatuta eta araututa, herriak darabilen hizkuntzan eta onartzen diran hizkuntza erabileretan oinarritzen da.

Grisoien lurraldeetan, lurraldetasun edo lurralde eskubideen oinarria, gaur egungo legeei eta ohiturazkoei dagokienez udal autonomi oso garatu bati lotuta dago. Orain arte lurraldeak, hizkuntza arloan bere eginpidea autonomia komunalen esku itzi dau.

Lurraldetasun oinarria behar-beharrezkoa dala uste da kantoiarentzat zio bigaitik: Hizkuntza muga bat lekuz aldatzearen aurka jokatzen dauanean, kantoia

federal eskubideak babestuta dago (esate baterako, kanpo hizkuntza darabilen eskolak, bertako hizkuntza ofiziala erabiltea behartuta egotea). Ohiturazko lurraldeetan, eta hizkuntza lurraldeetan, biztanleei ama-hizkuntzaren erabileraren askatasun garantia emoten behartuta dago, behar diran babes bereziak eskeiniz. Kantoia ostera ez dago behartuta, beste hizkuntza bat darabilenei lurraldetasun oinarria ipinteko. Era honetara oinarri honi eten edo salbuespen batzuk onartu leikioz.

Aukera hau bakoitzari dagokion eskumen banaketaren ondorioa da, eta honetaz federal epaileak hauxe esan dau: "Kantoien zeregina da lurraldearen osotasunaren irauketa zaintzea eta euren mugetan emon daitezan hizkuntza lurraldeen sorkidetasuna be bai" (50).

Osteragoko erabagi baten, federal epai-mahaiak onetsi dau berenberegi "reto-romano" hizkuntzari eutsitea Suizarentzat onuragarri dala (51).

Orain arte, Grisoien kantoiak eretxi hau izan dau, kantoiak berak erabagi baditu bere hizkuntza ofizialak, udalentzat hizkuntza askatasun baten ondorioz dagokion hizkuntza nagusigoari uko egiten jarraitu deutso.

Konstituzioko 116 art. 2garren atalak, Konfederazioko hizkuntza ofizialei dagokionak ez dau balio federal zuzenbidea aplikatzen daben organu kantonalentzat. Honeek, hizkuntza arloan, euren muga barruan aginpide osoa daukien kantoiak dira. Kantoia da, herrialdean erabilten diran hizkuntzak, ofizial mailara jasoten dituana. Kantoietako hizkuntza ofizial guztiak Konfederazioko hizkuntza ofizialak be badira, "Reto-romano" izan ezik.

Baina Auzitegi Federalaren jokabidean ikusi daitekenez, lurraldetasun oinarria erabilterakoan sarritan bereizketa gitxigaz erabili da, eta gitxiengotuen babeserako beti erabili danik behintzat ezin da esan. Tesinoko kasuan (52) kantoiak egin ez ebana, Auzitegi Federalak bardintasun oinarria aitaturik agiriko iragarkiak tamainu bardinean egitea erabagi eban. Frantsez Eskolaren Alkartearen kasuan (53), lurraldetasun oinarria babes-beharrik ez eukan kantoi bateko alemana babestzeko izan zan.

Brunner epaiaren kasuan (54) nagusigoaren hizkuntza inposatzeko balio izan eban lurraldetasun oinarriak.

Beste epai batzuetan (55) romanche gehiago baztertzeko izan da alemana nagusi dan lurraldeetan.

b) Hizkuntzari eusteko, herriari eutsi behar jako.

Ia ehun urtez honantz, konfederazioak eta Grisondarren kantoiak ondo-ondotik jarraitzen dabe eta grisondarren era guztietako ahaleginei eutsi be bai reto-romano ta italiano hiz-kuntzeei eutsiteko. Kontuan izango da alde batetik, kultura eta hizkuntzaren alde hartu diran neurri zuzenak eta beste aldetik zeharka egin diran ahaleginak "romanche" edo italiano erabilten daben herrialdean.

Lehenengo ikuspegi batetik ez dirudi hartuemon haundirik dagoanik ekonomia gorapena eta hizkuntza ta kulturaren artean. Baina grisoientzat zerikusi haundia daukie, kantoi menditsua da eta biztanle gitxikoa.

Sarritan aitatzen da eta kritikatu be bai ekonomiko garapenak daukan eragin ezezkorra kultura eta hizkuntzaz eta batez be kanpotar ikustarienak. Gai honetaz ekonomia sustapena, kultura eta hizkuntza arloko eztabaidan sartzen da. Kontuan izan behar da, kasu honetan grisoiak, ez leukiela jakingo zaintzen behar dan moduan kultura eta hizkuntza, lurraldeko muga inguruetan biztanlerik nahiko ez balego. Hau da, ekonomia garapenak lagundu behar deutsola. Kontu haundia izan behar jako alkarren arteko hartuemon honi, zergaitik? "Romanche" edo italiano erabilten dan herrialde honeetan, ekonomia garapenerako arazo gogorrena dagoalako.

Kultura da, gizarteak bere bizimodua antolatzeko erea, bere lana egiteko eta jolasean jarduteko. Kultura batek bizirik iraun daian ohitura bilduma, lana eta bere izakera legez, beharrezkoa da eta komunitate horrek gizarte eta ekonomia bizitzak euki daizala. Holan ba, ez da posible hizkuntza ta kultura bati eutsitea bere oinarria dan biztanlerik ez badauka.

Gizaldi honen hasieratik, grisoiak bizi diran romanche hizkuntzaren herrialdea, mugagabeko zenbakietan jausi da; beherakada larri batek daroa. Italiano egiten daben suizarrak ostera, zelango-halango gorakada bat egin dabe, kantoian, bere kopurua biztanle guztien artean eskasten doan bitartean. Azken hamar urteotan, hizkuntza talde bi honeek, berekiko eta alkarrekiko zenbakiei dagokienez, beherakada bat ezagutu dabe.

Ez da Konfederazioa herrialdeen mugak jartzen dituana ezta garapen arloan lortu behar diran helburuak neurtzen dituana. Goi-manu batzuk kontuan izanez gero, herrialde bakoitzak bere garapen posibilitatei dagokiozan helburuak eta hori lortzeko bide eta neurriak erabagiten ditu.

Kantoiei be zeregin haundia emon jake, federal mailan hartutako ahaleginak, euren neurriekaz arlorik gehienei eutsiten deutsie eta Konfederazioarenak baino harago doazan neurri osogarriak hartzen dabez.

Lurralde neurriari dagokionez, Konfederazioaren herrialde politika ekonomiko alderditik atzeratuta dagozan mendi herrialdeetara mugatzen da, edo ekonomia mehatxuak dituan beste herrialde batzuetara, hau da, non, zer behar dan, hara.

Adin egitura aldatu egiten da bizilagunen atzerakadaren arabera. Orokorki esan leiteke honetaz, biztanlegoaren zahartzeak mehatxatu egiten dituala lurralde honeek, eta hau dagoanekoz agiri dala.

Romanche hizkuntzaren hesi-babesa diran mendi herrialdeak diruz garatzen jarraitzea beharrezkoa da; ezin da galazo herriak dagozan baino hutsago egotea, bertan bizi daitezan ziurtasuna emon ezik.

Ekonomia ahultasuna, egitura aldetiko hutsunak, mendiko nekazaritzarako gatxak diran, bereziki, baldintzak, bizimodu desbardina eta eten bako alde egiteak dira gogoratutako gauza batzuk, grisoien ekonomia aitzen emon gura dan bakoitzean. Egia da, azken urteotan emon dan atzerakadea berreskuratu dala nabarmenki. Grisoien kantoia, erdi mailako diruketa gaitasuna daben kantoien mailara heltzea, horren ezaugarri bat da. Baina aurrerakuntza arloan dagozan bereztasunak, kantoi horretan bereziki, ahaztu ezinekoak dira. Gaur atzo legez, aberats eta baztertuen arteko berezitasuna garrantzitsua da. Urtenbide bat emoteko mendi herrialdeentzako gorapen ezkeintzak garatu dira eta arlo honetan herrialdeak sortu dira (56).

d) Gitxiengoen aldeko neurriak.

Konfederazioak betidanik erabagi dau romanche kultura eta hizkuntza eraiki eta babesteko ahaleginei bere laguntza emotea.

Lehenengo eta behin 1.892tik 1.919ra bitartean, nazioko hizkuntzaren birjaiotzean lehen mailako eragina izan eban eta reto-romano literaturaren mami aberatsa ezartzen dauan Caspar Decurtins-en Chrestomatia reto-romanaren argitaldiari eutsi eutson.

1.982an Konfederazioak, aspaldian agortutako lan honen berrargitaldia ziurtatu eban.

1.905etik, Konfederazioak "Dicziunari rumantchs grischun"en argitaldia ordaintzen dau. 1.975etik, laguntza hau nazioko ondasunak ziurtatzen dau, 1.979ko irailaren 18ko Federal Dekretu baten bitartez; "Fondo Nacional Suizo de la investigación científica" dalakoari lagunduz 1.980tik - 1.983ko epean (57). "Dicziunari" horren zientzia gizon laguntzaileen ordeinketa nazi ondasunetik egiten da; 1.980an esate baterako 355'483 franko erabilten dira honetarako. Gainera, reto-romano hizkuntza, herri eskolari onartuko laguntzaren barruan hartzen da bereziki (58); Konfederazioak, romanche egiten daben, 7 urtetik 15erako bitartekoei, gaur egun umeko 30 franko eskeintzen deutsazan linguistika garapenaren laguntza berezi bat onartzen dau.

Laguntza honek, Konfederazioak eta kantoiak euren lehenego alkarrenganako neurriak hartu dagiezanean desegindu beharko dau (59). 1.972tik 1.983ra bitartean grisoien kantoiak, romanche egiten daben umeentzako, O.H.O.ean, urteko 182'490 franko hartzen dau. Gainera 64 artikuluaren bitartez, lege federalak lan heziketari buruz, 3.1err.d letran, romanche hizkuntzan egiten diran ikasketak ordaintzea onartzen dau, hau da lan-eskoletako ordainketak.

Tesino eta Grisoen kontoientzako diru laguntzari buruzko lege federala, euren hizkuntza eta kultura zaindu daiezan.

1.983ko ekainaren 24koa.

Suiza Konfederakundeko Batzar Nagusi Federalak, Konstituzioko 116 art. ikusirik; 1.981eko irailaren 28ko Kontseilu federalaren mesua ikusirik hauxe erabagiten dau:

1go art. Grisoien kantoiari diru-laguntza.

1.- Konfederazioak grisondarren kantoiari, euren reto-romano hizkuntza eta kultura zaintzeko, 3 miloi frankotan urteko izendatzen deutsoz, eta era berean italiar hizkuntza erabilten dan haranetako hizkuntza eta kultura.

2.- Diru horretatik, gitxienez 1,5 miloi franko Lia Rumantschari eskeini beharko deutsoz reto-romano hizkuntza eta kulturaren alde egiteko, eta 450.000 franko gitxienez, Pro Grigioni Italiano alkarteari italiano hizkuntza erabilten diran haranetan, hizkuntza eta kultur aldeko ekintzetarako.

3.- Federazioaren laguntza baldintza honen menpe dago: Grisoien kantoiak urtero 400.000 franko eskeini daiozala Lia Rumantschari eta 100.000 franko Pro Grigioni alkarteari.

2. artikulua. Tesinoko kantoiari laguntza.

Konfederazioak Tesinoko kantoiari urteko miloi bi franko eskeintzen deutsoz hizkuntza eta kultura zaintzeko.

3. art. Txostenak.

Tesino eta Grisoien kantoiak urtero aurkezten deutso txosten bat federal barne sailari diru laguntzaren erabilereari buruz. Lia Rumantscha eta Pro Grigioni Italiano alkarteak horrezaz gainera, urteko, kantoietako manatzaileen bitartez, egitarau eta diru eralketaren barri emon beharko dabe.

1.921etik, Konfederazioak romanche Liga-ri 1.947rarte 10'000 franko emoten deutsoz urtero, 1.948an 50'000ra heltzen zan, laguntza hau lege federalean sartu zanean, 1.958ko irailaren 25ean 100'000 frankotara heldu zan, 1.968ko abenduaren 2ko dekretu federalak 190'000 frankutako laguntza ezartzen dau; hemen, 1.942ko irailaren 21ean onartuko 10'000 frankoak be sartzen ziran; laguntza hau reto-romano eta italianoa zaintzeko zan.

1.974ko irailaren 23ko legeak, gaur egun martxan dagoanak, 450'000 franko eskeintzen deutsoz urteko Romanche - Ligari.

Aitatzekoak dira, baita "Pro Helvetia" erakundearen laguntzak. Normalean egitarau mugatuentzat izaten da, batez ere era bateko zein besteko argitaldietarako. 1.982rako, 41'700 franko eskeini izan dira honetarako.

5.2.1.2. Italia

Italiako Konstituzioaren 3.1. artikuluak gauza bardinak bardin erabili eta ezbardinak ezbardin erabilteko eginbeharra hartu dau eta hau zerrendatu diran gaiei bereziki aplikatzen jake (hizkuntza, erraza, sexua, etab.), bai eta gai arruntei be (60).

> "Interpretazio hau geroago 3. artikuluko bigarren esaldian baieztatzen da; esaldi honek herri sailari, egitatez herritarren bardintasuna eta askatasuna mugatzearren, gizakumearen garapen osoa eta Estatuaren politika, ekonomia eta gizarte antolaketan langile guztien benetako partaidetza galerazoten dabezan gizarte eta ekonomi oztopoak kentzea manatzen deutsanez, hau berau ezbardinketak eginaz bakarrik lortu daiteke. Dana dala, norbaitek bere hizkuntza bizitza publikoan erabili ezin balei, garapen osoa eta benetako partaidetza mugatzen dituan oztopoa da" (61).

6. artikuluak, 3.1. artikuluko bardintasunaren arau orokorra eta 3.2. artikuluko bardintasun sustantiboa hizkuntzaren anizkoitasunari aplikatzea baino ez dau egiten. 6. artikulua ez da bardintasun oinarria indarrik bage izten dauan eskubide berezia, oinarri orokorraren bereizketa eta osaketa baino (62).

Italian, herri saila hizkuntza gitxiengotuen aldeko iharduketa hartzeko Konstituzio betebeharraren menpe dago. Konstituzioko 6. artikuluak "Errepublikak hizkuntza gitxiengotuak neurri berezien bidez babesten ditu" (63).

> "Zein da, beraz, 6. artikuluaren eduki zehatza? "Ratio personae" ikuspegiari dagokionez, Konstituzioa prestatzeko egindako lanak argi erakusten dau Estatuaren mugetako hizkuntza gitxiengoak bakarrik babesteko egin zala: Proposagileen buruetan, artikuluak, argi eta garbi, Italiak bere mugen babesean gitxiengoak jartzea erabagi ebanean, ez eban nazioarteko presioei (Val d'Aosta, Trieste) edo legezko eginbeharrei (Tiroleko Hegoaldeko Gasperi eta Gruber-en arteko akordioa) amore emoteko bakarrik egin" (64).

Arazoa konstituzio agendan jartzeko, nazioarteko presioa indartsuagoa izan zan gitxiengoen etorkizuna baino.

6. art. aplikatzeko dagoan lehen oztopoa bestelako hizkuntza egotea da. Tokian-tokiko dialektoen babesa, kultur politika laudagarritzat hartu arren, konstituzioaz ezarritzat ezin daiteke hartu. Gitxiengoen hizkerak definitueran, atzerritar Estatuen hizkuntza ofizialak diralako, alemanieraduna, frantzieraduna, lobakoa, albaniera eta grekera onartzeko, ez dago arazorik eta Legegintzazko Aktetan hizkuntzatzat adierazo dira (65). Arazo gehiago dago "friulian" eta "sardinian" hizkerei dagokienez (Italiako barruko dialekto bi). Oraintsu arte, italiar nazionalisten giroan, hizkuntzalari batzuentzat, italieraren taldeko dialekto hutsak izan dira. Egun, hizkuntzalariek "fruilian"a hizkuntza erretorromanikoa edo beste adar batzutatik ateratako adarra dala uste dabe, honelakotzat aintzatetsi da eta ez da italiar dialektoa. Zalantza gitxiago dago "sardinian"arekin, bestelako ezaugarriak ez ditualako. "Sardinian"aren arazoa herrialdeko aldaera batzuk eukitea da (66).

Hizkuntza gutxiengotuak definituta, beste arazo zailago bat dago: Zeintzuk dira hareei laguntzeko hartu behar diran neurri bereziak? Artikuluko azaldapen abstraktoak era zehatzak mugatzea zailtzen dabe. Denbora luzean, legegileak konstituzio manu hau ezartzeko diskrezio haundia izatea ez da zalantzatan jarri oraindik; Gortearen zeregina gitxiengo etsaiari buruzko arauketa aurrikustea da, ez, ordea, ihardukera zehatzik ezartzea.

Nazio Parlamentuak eta Gobernuak tratamendu berezia emoteko bidea hartu dabe, azken ondoreetaraino jo barik, eta gaur lau gutxiengok bakarrik (alemanieraduna, frantzieraduna, ladin-tarra eta eslobenoa) dabe babes ofiziala eta agintaritza zentralak besteak bazterrean itzi dabez. Gehiago, herrialdeetan talde horreek babesteko hartzen izan diran ekimenak Nazio Gobernuak eraso eta urritzen izan ditu, orain arte behintzat (67).

Bestalde, Iparraldeko herrialde bik (Piamonte eta Veneto) gitxiengoentzako legeak eguneratzea lortu eben, baina helburu urriagoak jartzearen truke.

Gitxiengoaren kultura sustatzeko iharduera pribatuetarako urteko dirulaguntza urrirako aurrikuspenak bakarrik lortzen ziran. Sardinia laburrago geratu da. Herrialdeko kontseiluak ez eban berez neurririk hartu eta artikulu bidun testu labur haundiguratsua onartu eban, Sardiniako hizkuntzaren legezko bardintasuna aintzatesteko, eta hau guztiau Nazio Parlamentuaren menpe jarri eban, herrialdearen legezko ekimen legez; ordudanik ez da gehiago neurririk hartu. Azkenik, 1.981eko Siziliar Legea, herrialdeko hizkuntza gitxiengoak babestekoa, Gobernuak Konstituzio Gorteari bialdu deutso baliorik bage itzi daian. Halan da ere, Gorteak legezko jokabidearen arazoari buruz jarrera aldatzen diharduenez gero, 6. art. beterazoteko, erabagia oraingoan Siziliar herrialdearen aldekoa izan leiteke eta honek beste herrialde batzuei gitxiengoen babesean sartzen itziko leuskie (68).

Lau gitxiengoak dira tratamendu orokorraren xede izan eta lurraldeanlurraldeko erregimen ezbardindu lez bakarrik hartu dira, gitxiengo bakoitzaren hainbat osoagai kanpoan itziz. Frantzieradunak eta alemanieradunak Val d'Aosta eta Tyrolen aplikatzen diran erregimenen babespean dagozan artean, ez da gauza bardina jazoten beste biekin. Ladin-tarrak Dolomitaseko alde nahiko txiki batetan kokatzen dira, Sellako mendien inguruko haranetan. Zoritxarrez, alde hau, administrazioari dagokionez, hiru probintziatan banatuta dago. Bellunoko probintzian bizi diranak ez dabe ezelako babesik, lehen aipatu dan Venetoko herrialdeko hasi-masiko legea ezik; Trenton bizi diranei hainbat eskubide emon jake, hezkuntzarako, esaterako, baina gitxiago dabe Val Gardena eta Val Badian bizi diranak baino, Bolzanoko probintzian, probintzia honetako alemanieradunen gehiengoak ezarritako babes erregimeneko onurak dabez ta (69).Ipar-ekialdeko mugako Sloveniar taldeari dagokionez, ezbardin tratatzen diran hiru zatitan apurtu da (70). Udineko probintziakoak ahaztuta dagoz, Goriziakoak hezkuntza ama hizkuntzan jasoteko eskubidea dabe eta Triesteko probintzian bizi diranak bakarrik dabez lege egokiagoak, 1.954eko Londoneko Memorandumak emon eta 1.975eko Osimoko Hitzarmenak baieztuak, legearekiko bardintasun osoa (Memorandum-eko 2. artikulu) eta arazo ofizialetan euren hizkuntza erabilteko legea (5. artikulu) sartuz. Halan da be, nazioarteko akordio horreen legegintzaren

beterazpena hezkuntza publikoan bakarrik gauzatzen da. Beste neurri zatikatuagoak administrazioan bakarrik dagoz eta, beraz, maila zalantzagarri batetan. Nazioarteko eginbeharra eta Konstituzio Gortearen epaiketa bat, geroago eztabaidatuko dana, dagozanez gero, eslovenei laguntza emoteko legegintza ekintzapide bizkorrerako beharra ei dago.

Honen aldean, Val d'Aostako frantzieradunak eta Tyroleko Hegoalde eta Bolzanoko probintziako alemanieradunak italieradunei bardintasun eskubide gehiago emon deutsiee. 6. artikuluko oinarrizko baterazte-neurria, kasu bietan, Herrialdeko Estatutua da, Nazio Parlamentuak Estatuarekin hartutako Egintza izan eta ondore guztietarako goi lege itxura dauana; Estatutoetan dagozan eskubide zehaztuak 6. artikuluko berrikuspen orokorrak gainditu ditu.

Val d'Aostan, Estatutuko 38. artikuluak frantzierari eta italierari bardintasuna aintzatesten deutse. Honen ondorioz, herritarrak eskibudea dabe sektore publikoan hizkuntza bietarik edozein erabilteko eta funtzionari guztiak elebidunak izan daitekezenez eta bertako herritar guztiak ere elebidunak diranez, elebidun hezkuntzari esker, ez dago arazo nabarmenik herrialde honetan eskubide hau betearazoteari buruz.

Tyroleko Hegoaldean, egoera latzagoa da, alemaniera, italiera eta ladin-era hiru alkarte bananduenak dira ta, eta alemanieradunak babesteko neurri berezien beharra 1.946ko Irailaren 5ean Austria eta Italiaren artean izenpetu zen "Gasperi Gruber Hitzarmenean" adierazo zan. Lehen artikuluak honelaxe dino:

> "Bolzanoko probintzia eta Trentoko probintziaren ondoko elebidun horietako alemanieradun biztanleei italieradun biztanleen pare bardintasun osoa bermatuko jake, aurrikuspen berezien barruan, alemanieradunen etnia, izaera eta ekonomi garapena gordetzeko" (71).

Nazioarteko akordio honek ezin izan eban euki eragin erabagikorrik Italiako legediaren gainean, legegintza egintza arrunta lez erantsi zan eta. Akordioa osotzen eban, 1.948ko Herrialde Estatutuak goi legearen maila euki beharko eukean, baina alemanieradunen gitxiengoak eta atzerritar babesleak urritzat hartu eben. Urteetan gatazkak eta atzerapenak egon eta gero, Estatuto barria emon zan 1.969an eta italiera eta alemanieraren bardintasun osoa aintzatetsi eban, 2. artikuluaren arabera herrialdearen barruan herritarren eskubideen bardintasuna be onartu zan, norberaren hizkuntza taldea edozein izanik be, eta norberaren etnia edo kultur ezaugarri edo kualitateak babestu ziran (72). 1.946ko akordioaren oihartzun dan Estatuto orokor hau, Konstituzioko 6. artikulua zehaztu ezezik, herrialdeko hizkuntza talde guztiei

aplikatzen jake; halan da be, Bolzanoko probintziako alemanieradun biztanleei publikoan euren hizkuntza erabilteko eskubide osoa emon jaken artean (73), ladin-tarrak eskubide mugatuak dabez, hezkuntzara ia osorik mugatuz (74).

Italiako hizkuntza lurraldeen aldaketen eta egoeraren ikuspegiak nazioarteko presioa izan dala eragile adierazo leike (75).

Hizkuntza gitxiengoaren aldeko egitasmoak eroan izan dira Parlamentura, baina gaurdaino ondorio onik ez da etorri.Gorteak bere jokabidean beharrezko neurriak hartu barik itzi leikez, akta-legeak balio barik itziaz. Konponbidea legegilearen esku egongo da erabagi zehatzak hartuz. 1.970ean Tyroleko kasua (76) aztertzerakoan Italiako Konstituzio Gortea ildo honetatik abiatu zan. Beharrezko hizkuntza bereizketa egitea lortu ez eban legea partzialki balio barik izten eban. Lege arazotsua nekazarien lanari buruz zan (77). Enplegua antolatzeko, langileak zerrendako zenbakien arabera alogeratzeko manatzen eban. Trento-Adige-Garaiko (Alto-Adige) nekazari makalenak, gogoz kontra, beste hizkuntza talde bateko langileak alogeratzera behartu eikiezan. Gorteak Trento-Adige Garaiko Herrialdeko Estatutuko 2. artikuluaren aurka egoala inoan, bertoko alkartearen hizkuntza bardintasunari ikutzen eutsolako. Jakina, 2. artikuluaren arabera,, "herrialdean bizi izaten ziran hizkuntza taldeen etnia eta kultur ezaugarrien babesa manatu ebanez gero, euren arteko derrigorrezko asimilazioetara jo edo euren tradizio edo ohituren araberako garapen askea arriskutan jarri daikezan neurriak debekatzen ditu" (78). Beraz, Herrialdeko lurraldea lege honen aplikaziotik salbuetsita egon beharko leuke.

> "Parekaketak edo bardinketak derrigorrezko asimilazioetara bultzatzen dabela, eta Herrialdeko Estatutuko 2. artikuluaren aurka dagozala, Gortearen jokabide arauetan orohar onartzen da. Gainera, lehen eztabaidatu eta Gorteak argi eta garbi onartu ebanez, Estatutuko 2. artikulua Konstituzioko 6. artikuluaren azalpen bereziagoa da. Beraz, epaiketa honek bidea aske izten dau, hizkuntza gitxiengoen osotasunari dagokion hizkuntza parekaketaren antzeko kasuetan aplikatzeko" (79).

Hona hemen Konstituzio Gortearen 1.982ko Otsailaren 11ko epaiaren beste puntu azpimarragarri bat: Prozedura Kriminalari buruzko Italiar Kodeko 137.1. artikuluak prozedura egintza guztietan italieraren erabilera ezartzen dau eta 137.3. artikuluak, gizabanakoak italiera ezagututa erabiltzen ez badau irain kriminala egiten dauala dino. Pahor jn., Triesteko hiztun esloveniarra, jazarri eben, azken artikulua oinarritzat hartuta, eta aurrikuspen bien eta Konstituzioko 6. artikuluaren arteko bateragarritasunari buruzko arazoa azaldatu eben. Hogei urte lehenago, italieraren

erabilera antzera manatzen eban Prozedura Zibilari buruzko Kodeko 122. Aktaren Konstituziotasuna eztabaidagai jarri eban 6. artikuluari heldu eutsanean, Triesteko Gorajotzeko Gorteak erabat ukatu eban. 1.982ko kasua, ostera, Konstituzio Gorteak ez eban hain bizkor ukatu (80).

Hasi-hasieran, Gorteak, gitxiengoak babesteko neurri mota honeek legegilearen diskrezioaren barruan dagozala onartzen dau. Bereziki, ez dago Konstituzio betebeharrik, gorajoleak nahi eban lez, hizkuntza gitxiengotuen tratamendua bardintzeko, ez eta esloveniar guztientzako legezko erregimen bateratua emoteko beharrizanik ere: Gorteak, gainera, eremua Triesteko probintziarako mugatzen dau. Honetara, 6. artikulua arau programatikoa da, eta ez, zuzenean aplikatu daitekena.

> "Legegileak ihardungo dauala erabagi ondoren, sistematikoki egin beharko dau. Nahiago dauan berdintasun metodoa aplikatuz, Gorteak, kasu honetan ikusiko dau legegileak era ezbardinak hartu dituala sloveniar taldearen babeserako" (81).

Ondorioz, Triesteko sloveniarrak gitxiengo talde lez onartuak izango dira. 137.3 artikulua, sloveniarrentzat aplikatu ezina geratzen da (82).

5.2.1.3. Yugoslavia

5.2.1.3.1. Hizkuntza eskubideak

Yugoslavia sei errepublikak osotzen dabe: Bosnia eta Hercegovina, Croacia, Slovenia, Macedonia, Montenegro eta Serbia. Serbiaren barruan, Kosovo eta Vojvodina probintzi autonomoak dira (83).

Yugoslaviako biztanlego osoa 20 miloitik gorakoa da (84).

1.963ko Konstituzio Federalak biztanle guztiak bardinak dirala adierazoten dau "herriz, endaz nahiz hizkuntzaz desbardina izan..." eta 41garren artikuluaren bidez "euren herritartasuna eta kultura eta baita euren hizkuntzaren erabilera ere" onartzen da. Antolabide hau 42 eta 43garren artikuluaren bidez osotzen da, euretarik lehenegoa herriei dagokie eta bigarrena nazionalitateei edo gitxiengoa osotzen daben nazionalitateei. 42garren artikuluak zera dino:

> "Yugoslaviako hizkuntza eta idazkera eskubide mailan bardinak dira.
>
> Errepublika lurralde baten errepublika honetako legea-ren arabera, yugoslaviatarrak irakaskintza euren ama-hizkuntzan egiteko eskubidea daukie.
>
> Kasu berezitzat, yugoslaviar gudalostean, manakuntza, instruzioa eta administrazio hizkuntza serbo-kroata izango da."

Lege edo antolabide honeek zera dinoskue: herri desbardinetako hizkuntzak eskubide mailan bardinak dirala. Beraz, hizkuntza ugaritasuna eta bardintasuna onartu egiten da.

Beste alde batetik, 43garren artikuluak, nazionalitateei buruzkoa, holan deitzen jake Yugoslavian gitxiengoak diran nazionalitateei eta, ondorengo hau dinosku:

> "Herritarrak euren herritasuna eta kultura agertzeko eskubidea izan daien, nazionalitate eta gitxiengo bakoitzak bere hizkuntza erabilteko, bere kultura garatzeko eta helburu hau lortzeko erakundeak sortzeko

eskubidea eta babesa dauka, eta baita, Konstituzioak onartu dituan eskubide guztiak ere.

Nazionalitate edo herritasun desbardinekoentzat, eskoletako irakaskintza, nazionalitateotako hizkuntzaz egingo da.

Errepublikako lege eta Konstituzioak erabagiko dabez nazionalitate desbardinen beste eskubideak, honeek bizi diran lurraldeetan."

Hizkuntzen ugaritasuna eta honen parekotasuna goratzeko asmotan, 1.968ko Konstituzioa barruko lege adaketa baten bidez Servia, Slovenia, Macedonia, Croacia eta Montenegro herriei eta Yugoslaviako nazionalitate gitxiengoen eskubideei bardintasuna emon jaken. Errepublika bakoitzean dagozan gitxiengoen eskolen zabalkundea eta jarduera neurtzeko, Yugoslaviako Hezkuntza Sailak bide honeek emon ebazan: gitxiengoa dan hizkuntza horretan ikasteko izena emotea gurasoak erabagiko dabe, hau da, gurasoen eritxia izango da kontuan umea gitxiengo eskola baten sartzeko edo Errepublikako hizkuntza ofiziala egiten dan batera sartzeko. Honezaz aparte, nazio barruan gitxiengo bati dagokiozan umeak, gitxiengo horren eskolara joko dabe. Eskolotan gitxiengoen hizkuntza erabiliko da irakaskintzan. Ostera, Errepublikako hizkuntza, programan agertzen dan lez, eskolako hirugarren mailan hasita irakatsiko da. Eskolako administrazioak gitxiengoaren hizkuntza darabil, baina hartuemon ofizialetarako Errepublikakoa ere erabilten dau. Agiri ofizialak hizkuntza bietan idazten dira. Ondorengo gaiak derrigorrezkoak dira eskolako irakaskintza programa barruan: gitxiengoaren ama-hizkuntza, bere historia eta geografia eta baita Errepublikako hizkuntza (85).

Izan ere, Yugoslavian bizimodua antolatu dan moduan, nazionalitate guztiak dabez euren eskola, kultura etxeak, argitaletxeak, irrati saioak eta telebisio saioak.

Konstituzioko 157garren artikuluaren arabera, bere hizkuntza erabilteko eskubidea dauka eta bakoitzari auzitegian edo Estatuko beste erakundeetako hartuemonetan norbere hizkuntzan egitea eskatzeko eskubidea ere bai, herritarren eskubide eta zereginen manuak holan badinoe.

Beste alde batetik, 143garren artikuluaren arabera, lege federalak eta federal erakundeen beste ekintza orokorrak ere, "Federazioko Bolitin Ofizialean" Yugoslaviako hizkuntzetan idazten dira, hau da, servocroata hizkuntzaz, edo croataserboz, slovenoz eta macedonioz. Garbitasun ofizialetarako Federazioko alderdiak

zainduko dabez Yugoslaviako herrien hizkuntza eskubideak (86).

Aztertu diran erabagiak, badirudi askatasun haundia dabela; hau itxuraz bai, baina yugoslaviarrak euren artegatasuna erakutsi dabe, eta 1.974an Konstituzioa barriztatu zan Errepubliken Federazioagazko hartuemonak berrikusiz.

Arazo danak konpondu ez diran adierazgarri Sloveniaren egoera aztertuko da.

5.2.1.3.2 Slovenia

Yugoslaviako hizkuntza plangintzaren sistema ez da erdirakoia. Erabagiak hartzerakoan lau maila dira kontutan eukitekoak: federal maila, errepublika, komuna eta komunapen maila (87).

Lege eta hizkuntza arauak jartzerakoan lau mailak dabe euren zerikusia. Orokorrean, hizkuntza politika federal mailan eratzen da, baina beste maila guztiak, bakoitzak bere egoerari dagokion erara, plangintza hori beteten eta osotzen partaide izango dira.

> "Sloveniako Errepublikari dagokio bere Konstituzioa eta beste legeak egitea, baita arduralaritza publikoko araubidea burutzea be."[...] "Komunikabide ofizialetan sloveniaren erabilera bermatzen dau eta batez be, garrantzitsuagoa dana, gizarte arlo guztietarako hizkuntza-erabilerak aurreikusten ditu" (88).

Sloveniako Konstituzioak, federal ereduari jarraituz, Errepublikarako Konstituzio-Auzitegia eratzen dau, eta hizkuntza arazoak aztertu beharra izan dau (89).

Yugoslavian ez dago lehentasuna daukan hizkuntzarik. Ez dago ezagutu beharreko hizkuntzarik.

Sloveniako Konstituzioak, ostera, argi dino bere 212. artikuluan: "... Sloveniako lurraldeko gizartean funtzio publikoa betetzen daben guztiak sloveniarra erabiliko dabe." Irratian, irakaskintzan, lanean... sloveniarra erabiliko da bakarrik, baina arau honek, gitxiengo batzuei begira, baditu salbuespenak. Sloveniako Konstituzioak, bere 250. artikuluan zera dino: "Sloveniar herriagaz batera, italiar edo hungriar gitxiengoak bizi diran lurraldeetan, italiera edo magiarera Slovenieragaz parekatuko dira."

Komunukazio ofizial guztiak slovenieraz argitaratzen dira. Dirua be bai (90).

1.974ko Konstituzioa ezkero, eta bere 243. artikuluaren arabera, milita-

rrak be slovenieraz jarduteko aukera dabe.

Sloveniako Konstituzioak hizkuntzen bardintasuna iragarten dau (212. art.), eta hori irakaskintzan, epaikuntzan eta baita arduralaritzan be.

Yugoslaviaren kasua, Europa barruan, hizkuntza aniztasuna onartzerakoan, nahiko berezia da. Bere sistema hizkuntzaren lurraldetasun oinarrian finkatzen dala uste izan da beti, baina hizkuntzarekiko eskubide kolektiboei deutsien itzalagaitik hizkuntzaren lurraldetasun oinarria neutraldu ta ilundu egiten da hizkuntzarekiko eskubide kolektiboen onarpenean.

Baina ekarpen jatorrizkoena ez dago legeetan, hizkuntza politikan partaide diran maila ezbardin eta ugarietan baino.

Hizkuntza arloa zaindu eta hizkuntza legeak beteazoteko arduralaritzako jardute-sailik ez dauka.

Sloveniako Errepublikaren Asamblearen araudiak, sloveniarra dala hizkuntza erabilgaia edo funtzionala aurreikusten dau, eta beste hizkuntzetan egiten diran eskuhartzeak slovenieraz jarri behar dirala be bai. (13 eta 23. art.).

Batzorde lanetan be hizkuntza bakarra, sloveniera da, italieraz eta magiareraz jarduteko posibilitatearen salbuespenaz.

1.980an, hizkuntza-arazoak konpontzeko asmotan, Sloveniako Errepublikak Sail berezi bat sortu eban bere Hizkuntza Konponbiderako Auzitegi ta guzti (91). Auzitegiaren betebehar behinenak, hizkuntza arau garbiak babestu eta hizkuntza leialtasuna jagotea dira (92).

Auzitegiaren jokabidea "lar abertzaletzak" jo dau Ljubljanako DELO egunkariak (93). Auzitegiak, Sloveniara datozenentzat bertako hizkuntza (sloveniera) ikasi beharra aldeztu dau, ta ez lanean erabilteko bakarrik, slovenietarrekin beti erabilteko be bai. Gainera serbo-kroateraz agertzen diran telebista-sailak Auzitegiak gogor salatu ebazan, slovenierara zergaitik bikoizten ez diran itaunduz.

Auzitegi honek ez dau zigorrak jartzeko ahalmenik, beraz, ez da epai sailean sartzen. Baina, sloveniarrak ez dabe uste Yugoslavian herrien artean giza eskubideen benetako bardintasunik gordetzen danik (94), eta Auzitegiaren lanerako giza egoera baikorra dago.

Slovenia gaur (95)

Tito mariskala hil ondoren (1.980) Yugoslaviako politika egitura beharbada makaldu egin da.

Sloveniak Yugoslaviako %8 biztanle ditu eta %22ko errenta nazionala sortzen dau. Berari ezarritako zerga astunak salatzen ditu, gainera batzen diran ondasunak txarto erabilten dirala esanaz.

1.989ko udabarrian hasita Belgrado oso kezkatsu bizi izan da, Slovenia Konstituzioaren barriztatzea prestatzen egon dalako.

1.989ko udazkenean, 258 autarkitik 256 autarkiz onartu zan Sloveniako Konstituzioaren testo barria.

Sloveniak Konstituzio honegaz Serbiaren aurka urten nahi izan dau. Konstituzio hau "separatista", eta "Yugoslaviaren aurkakotzat" hartu dabe batzuk.

Aurkako alderdi bi agertu dira: Slovenia eta Kroazia alde batetik, eta Serbia, Macedonia, eta Montenegro bestetik. Bosnia erabagi barik geratu da.

Federal Parlamentuak Auzitegi Gorenera jo dau. Sloveniatarrak baikor agertzen dira, eta badira euren artean Slovenia independiente aurreikusten dabenak (96).

5.2.1.4. Belgica

5.2.1.4.1. Konstituzioaren bilakabidea.

Belgica hiru hizkuntza dituan Estatua da. Bertako biztanleotatik, bost miloik baino gehiagok neerlandera hizkuntza darabil, lau miliok inguru frantsesa eta ehun mila inguruk alemana (97). Belgica hiru herri alkartuta balegoz lez agertzen da, Bruselas da salbuespen garrantzitsua, hemen etnia bi dira nahastatzen diranak.

Egoera hau historiaren eraginaren ondorioa izan da. Belgica Estatu bat lez, historia eta kultura desbardintasunak kontuan izan barik egin da. Denpora zelan aurrera, elebitasuna eta kultura gero eta indar handiagoa hartzen joiazan, eta ondorioz, komunitate biak euren nortasunaren jabe eta jakitun, alkarren aurka jo dabe: Flandes eta Walonia doguz.

Belgarren benetako arazoa, flandestarrak eta walonia-rrak, etnia biak batera bizi beharrarena da, eta azken baten, horixe da etnia asko alkartzen diran komunitate bakarretan agertzen dan arazoa: etniatariko batek menperatzaile izan behar eta berak beti lortzen ditu hobariak bestea zapalduta dagoan bitartean. Baina Belgica korapilotsuagoa da oraindino. Biak dira menperatzaileak eta biak dira menperatuak, hau da, demografia eta politika mailan waloniarrak dira zapalduak, kultura mailan ostera, flandestarrak dira zapalduak.

1.831ko Konstituzioak lurraldeko lehenengoa, hizkuntzen askatasunaren barri emoten eban, baina ez zan konturatu lurralde linguistikoak egozala (98). Administrazio banaketak bakarrik onartzen ebazan. Baina hizkuntza komunitateak hantxe egozan eta legegileak sarritan parte hartu behar izaten eban hizkuntzen erabilera arautzeko. Hasiera baten irakaskintza eta administrazio barruan elebitasuna sartzea onartu zan. "1.898ko manu batek, aurrerantzean lege edo manu guztiak zin egin, legetu eta legea atera, frantsesez eta neorlanderaz egingo zirala erabagi eban, eta ez ebala ez batak ez besteak lehentasunik izango esaten eban" (99).

1.921eko legeak, administrazio gaietan erabili behar zan hizkuntzari buruz beste bide bat hartu eban eta Belgica lurralde bitan zatitu eban: Flandes eta Walonia. Elebitasunak eratutako herki-zaletasunaren ahalegina zan.

1.932tik aurrera lege garrantzitsuak hartu ziran eta elebitasun ofizial hau hor amaitu zan eta herrialderako hizkuntza bakar bat nagusitu. Flandez, Walonia eta Bruselas herrialdeak, hizkuntza nazionalak zelan erabili halan aurkitzen dira politiko mapa barruan.

Azkenez 1.963ko legeak lurraldea lau zatitan banatzen dau, lau herrialde linguistikotan: nederlanderaz egiten dan lurraldea, frantses egiten dan lurraldea, aleman egiten dan lurraldea eta Bruselas; hau elebiduna da (100).

Lurraldeon mugak legeak betikotu egin ditu, eta ezin izango dira aldatu linguistika erroldak emon leikiezan emoitzen arabera. Flandestarrak onartu eben neurri hau, baina waloniarrak, hizkuntza mugak benetako giza-egoerara mugatu eitezan eskatzen eben. Batzuk lurraldetasuna oinarriaren aldeko ziran, beste batzuk ostera, nortasun oinarriaren aldekoak.

Baina, bai Flandes eta Waloi lurraldeetan hiztun desbardin daben hainbat giza-talde gelditu da eta ez darabile gehiengoak darabilan hizkuntza, hainbat eragozpen sortuaz, eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiak, auzi-epai garrantzitsua emon behar izan dau hori dala ta (101).

Bruselas lurraldea izendatzeak ere hainbat eragozpen sortu ebazan.

Gaur egungo hizkuntza egoera arau bitan oinarritzen da, 1.963ko Uztailaren 30ekoa, hizkuntzak zelan erabili irakaskintzan eta 1.963ko Abuztuaren 2koa, hizkuntzen erabilera administrazioan (102). Legedi horren oinarririk sendoena zera da: lurralde bakoitzean hizkuntza bat: frantsesa waloi lurraldean eta neerlandera Flandesen.

Herri barruko administrazio mailan lurraldeko hizkuntza bakarrik erabilten da; barruko serbitzu eta herritarrei zuzendutako agirietan. Era bardinean, lurralde barruko udaletara zuzendutako agiriak lurraldeko hizkuntzan egingo dira. Lege honek, lantegiak ere bere barru hartzen ditu, industri, saleros eta finantza lantegiak, lege agiri eta langileei dagokien guztia lege honen menpe dago.

Irakaskintzari buruz, erabiliko dan hizkuntza, ikastetxe pribatua nahiz publikoa izan, erakundea aurkitzen dan lurraldeko hizkuntza erabiliko da. Lege hau irakaskintza guztietarako da unibersitaterako izan ezik. Halan da guztiz ere, lurraldeko hizkuntzaz irakasten ez dan eskolarik ere izan leiteke, baina honek ez dau Estaduko laguntzarik izango eta eskolotan lortu leitekean agiriak ez dau baliorik izango legearen aurrean horren baliokiderik ez dabe lortuko eta.

Lurralde bakoitzean hizkuntza bakar bat erabiltearen legea ez da zehatza, badauka salbuespenik (103).

Belgarren linguistikari buruzko legeak, aurreko egoeraren aurkako ekintza adierazo gura dabe, ekintza hau neerlandera hizkuntza darabilenen kontra garatzen da. Horregaitik, linguistikari buruzko politika honek neerlandera eta frantsesa maila bardinean ipini gura ditu eta komunitate linguistikoen lurralde osotasunerako eskubidea baieztatu. Eskatzen dan bardintasun honek ez leuke izan behar eskubide huts bat bakarrik, beteko dan helburu bat baino. Helburu honek lurraldearen osotasun legea baieztatzen dau. Walonia linguistika mailan bardintsua dan lez Flandesek ere horixe lortu behar dau. Legediak holan emoten dau aitzen eskubide hau, Flandesko frantsesa eta neerlandera egiten daben biztanleen artean, lehenengoentzat hartzen diran neurriak honeen kalterako diralako eta holan frantses goimailako hiztunentzat atzerapide egiten da. Lege emoileak hartutako neurriak daben helburua zera da: neerlandera hizkuntza erabilten dan lurraldeko herrialde bardintasuna zaindu.

5.2.1.4.2. Giza Eskubideen Europear Auzitegia

Lege-politika honek arazo juridiko gogorra sortu eban, hau da, belgarren konstituzioarekiko alkargarritasuna, honek bere 23 eta 17garren artikuluetan hizkuntzaren erabileraren eta irakaskintzaren askatasuna bere gain hartzen dau. Esan eitekean bardintasun oinarriak askatasunari gainezka egingo eutsala eta honek bere burua makurtzen ebala besteak manatu eian. Eta ez hori bakarrik, Europako Konbentzioko Giza Eskubideen 14garren artikuluak, Belgica tarteko dalarik, "hizkuntzari buruzko edozein motatako bereizkeri debekatu egiten dau, hau da, bardin deutso hizkuntza mailakoa izan nahiz jatorrian oinarritu nahiz gitxiengoan edo beste edozein egoeratan; guztiak honeek debekatu egiten ditu." Ez eban ba, belgarren gobernuko politika jokerak bere barruan hizkuntzan oinarritutako bereizkeria?

Holan ulertu eben, Europako Konbentzioak eratu eban Batzordera jo eben frantses egiten eben hainbat sendik. Honek ontzat hartu eban eritxi hori eta Europako Giza Eskubide Auzitegira jo zan eta Auzitegi honek 1.968ko Uztailaren 23an bere erabagia hartu eban eta aurkeztu izan jakozan sei auzi-gaiak bide dirala belgarren linguistika arazo guztia zehatz aztertu eban (104).

Auzitegiak, bereizkeriarik eza onartzen dauan Konbentzioko 14garren artikulua, belgarren egoera bereizten daben bene-benetako gorabeherak kontuan izanik agertu edo adierazo eban. Bere eritxiz, artikulu honek ez ditu galerazoten Konbentzioak onartutako eta askatasun eskubideen erabileran salbuespen guztiak, edo bereizketak benentako justifikazioa ez daukana baino. Auzitegiak zera dino:

> "Justifikaziorik daukan ala ez bere helburua ikusi behar, eta hartu dogun neurriaren ondorioak, gizarte demokratikuetan, orokorrean, onartzen diran oinarriak kontuan izanik. Konbentzioak onartutako eskubide baten salbuespenak ez dau joan behar legezko helburu baten bila bakarrik; 14garren artikuluaren aurka doa, honek dinoanean, ez dagoala hartuemon zentzuzkorik erabili diran bide eta helburuen arteko neurrietan" (105).

Lege honeek ezarriaz, Auzitegia eritxi honetara heldu zan, berari, politika linguistikaren aurka aurkeztu izan jakozan sei auzi-gaiak, ez joiazala Konbentzioaren aurka gauza txiki baten izan ezik, eta hau Bruselas inguruko sei udaletan egozan frantses egiten zan eskoletan sartzeari buruzkoa zan, honeek euren estatutoak ebezan. Hona hemen inoana:

"14garren artikulua ez doa harrera bereizketaren aurka, hau berezko diran egoeratan oinarritzen bada, nahiz eta desbardinak izan, eta, herriko beharrizanari jarraituz, komunitatearen eskubideak eta Konstituzioak onartutako eskubide eta askatasunen arteko oreka egoki eta legezkoa badago.

Auzi-gaiok aztertukeran, ia eritxi honen bidetik joten daben, auzitegiaren eritxiz neurri honeek Belgicako lurralde nagusi bietan hizkuntza batasuna egiteko helburua dabe, eta biztanlerik gehientsuenak hizkuntza bietarik bat baino ez darabile. Lege honek oso gaitz egiten dau eskolumeen irakaskintza, lurraldeko biztanlerik gehientsuenak darabilen hizkuntza ez dalako irakaskintzan darabilena. Beste era batera esanda, legeak neerlandera bakarrik egiten dan lurraldean, irakaskintza frantsesez bakarrik emoten dan eskolen eraikuntza galerazo egiten dau. Neurri hau ezin geinke jo bidegabezkotzat edo arbitrariotzat. Lehenengo eta behin, lurraldea osotzen dauan berezkotasunean oinarritzen dalako. Gainera herriko beharrizanari jarraitu deutso, hau da, Estatuaren menpe dagozan ikastetxe guztietan eta hizkuntza bakarrik egiten dan lurraldeetan, batez ere, lurraldeko hizkuntza erabili daitela irakaskintzan" (106).

Beraz, zera esan leiteke, Europako Giza Eskubide Auzitegiak 1.963ko legean oinarrizten dan hizkuntzari dagokion lurraldetasun oinarria onartu dauala, baina ez salbuespen barik (107).

5.2.1.4.3. Gaurko egoera

Baina Auzitegiak arazo honen lege alderdia konpondu baeban ere, ez eban konpondu frantses egiten ebenen kultura aldeko nagusitasunak eta flandestarren politika eta demografia nagusitasunen artean sortu zan desoreka bikoitza. Desoreka honek, 1.970ko Konstituzio berrikusketa emendatu gura izan eban zelango edo halango federalizazioa emonaz; hori dala ta, baten batzuk "federalismo kulturala" deitu deutsie, "eta 1.980ko Konstituzio berrikusketa ondoren Belgicako Estatua praktikan federala da" (108). Hizkuntza lurraldeak behin betiko Konstituzioari lotuta dagoz, baina honi deutsala, lurralde ekonomikoa zer danaren eritxi barria dator. Beraz, kulturari dagokionez hiru lurralde, hizkuntzari dagokionez lau eta ekonomiari dagokionez hiru lurralde dagozala jakinik guztiok bateratu dira, eta horretarako, era batera lurralde eta komunitateetan bananduta dagoan Estatu bat sortzen da.

Komunitateetan, Konstituzio barrian, kultura mailan, hiru komunitate onartzen diralako, neerlandera, frantses eta alemana eta euretariko bakoitzarentzat, horretarako diran kultura kontseiluen bidez legearen indarra daukan manuak egiten dira (109).

Komunitateentzat babes neurriak ere emoten dira, euretarik batzuk gobernuarenakaz pareko diralarik eta beste batzuk ideologia eta politika mailan gitxiengoak zaintzen dabezanak.

Era berean, Estatua ere herrialde-estatua da, Konstituzio berrikusketak hizkuntza lurraldeak onartzen ditu eta, eta ekonomia lurraldeak antolatu. Hizkuntza lurraldeak lau dira (110): neerlandera, frantses, Bruselasko elebidun lurraldea eta aleman egiten dana. Hizkuntza lurralde legea onartuta eta sendotuta dago. Gainera Lovainako Unibersitate Katolikuko frantses saila ere Waloniara aldatzea onartzen da. Beste alde batetik hiru lurralde ekonomiko sortzen dira (111): Waloniarra, flandesdarra eta bruselastarra, honeek euren alderdi edo lurralde antolamendua eukiko leukie nahiz eta oraindik euren eskubideak zehaztu barik egon.

Belgican hizkuntzari buruz egin dogun azterketa honek ondorio honetara garoaz: gitxiengoen hizkuntza eta kultura babestu beharrak, nazio aldaketa sakon bat egitera behartu dauala bere barruko egituretan.

5.2.2. NORTASUN OINARRIAREN ESTATUTOA

5.2.2.1. Finlandia.

5.2.2.2. Irlanda.

5.2.2.3. Malta.

5.2.2.1. Finlandia

Finlandian 325.000 sueko bizi dira, hau da, biztanlego guztiaren %7a. (112). Hiru zatitan banatzen dira, bata mendebaldean, Kokkola eta Vaasa artean, bestea hegoaldean Turku eta Helsinki artean eta hirugarrena Aaland ugarteetan. Sueko eta finlandarren komunitateak euren jatorri, odol, erligio eta ohiturak kontuan izanik antzeko komunitateak osotzen dabez, hau dala ta, ez dago munduan gitxiengorik, bere alde honek baino gehiago daukanik.

Konstituzioak ofizialki onartzen dau elebitasuna, eta bere 14garren artikuluak "fines eta suekoa errepublikako hizkuntza ofizialak dirala dino." Bruno de Wittek hizkuntzen ofizialtasunaren autorpen hau Konstituzioko oinarrizko legeen sailean datorrela esan ondoren, Konstituzioko 5. artikuluko bardintasun oinarriaren bereizketa bat besterik ez dala dino ofizialtasun bikoitz hau. Eta hizkuntza ofiziala dalako ez dira sortzen bardintasun eskubideak fines edo sueko egiteko. Berak behintzat holan ulertu nahi dau (113).

Parlamentuko eztabaidetan hizkuntza biak erabilten dira. Batzordeen txosten eta eritxiak, lehendakaritzako lege-asmoak eta Kantzilergoko Batzordearenak hizkuntza bietan idatzi behar dira. Gobernuak Korteetara bialduko dituan idazkietan ere hizkuntza bietan egingo ditu. Edozeinek jo lei administrazioko manatzaile batengana edozein hizkuntzatan, baina erantzuna, eskaria egin dan hizkuntzaz emongo da. Epaitegian ere edozein hizkuntza erabili leiteke (114).

1.922ko hizkuntzari buruzko legeak, gero 1.962an aldatuak, udalak elebidun edo elebakardun sailkatzen dira, beti ere gitxienaren aldeko eritxiz.

Hizkuntzari buruz, gitxiengo bat elebidun izateko 5.000 biztanle behar ditu edo gitxiengo honek biztanlegoaren %10a ordezkatu. 1.962an, 548 udal finlandiar egozan, 42 sueko eta 33 elebidun udal lurralde guztian.

Hezkuntza mailan, Konstituzioak, hizkuntza biei laguntza bardina emon behar jakela dino. Elebidun udaletan nahikoa da 18 ume gitxiengo horren barruan eskola barri bat sortzeko edo zabaltzeko. 1.964-65 ikasturtean 5.547 lehen mailako eskola egozan 453.000 finlandes hizkuntzadun umerentzat eta 419 eskola 22.700 sueko hizkuntzadunentzat. Ikasturte beratan 101 lizeo egozan, euretarik seitan sueko hizkuntza erabilten zan eta 17.208ri fines hizkuntzan irakasten jaken.

1.964tik aurrera derrigortu egiten da lehen mailako eskoletan nazioko bigarren hizkuntza ikasten edo erbesteko beste hizkuntza bat ikasten, hori bakoitzat berak gura dauana. Sueko egiten dan eskoletan gehien baten fines hizkuntza hartu da, fines hizkuntzakoetan ostera, suekoa batez ere, baina kasu batzuetan inglesa ere bai.

Bigarren hizkuntza hirugarren mailan hasi eta astero ordu bitan irakasten da eta bostgarren mailatik aurrera hiru ordu astero.

1.964-65 ikasturtean, fines hizkuntza emoten dan 437 bigarren mailako eskola dagoz eta sueko hizkuntza emoten diranak 48 dira. Eurotan derrigorrezkoa da nazioko bigarren hizkuntzaren irakaskintza.

Helsinkin elebidun unibersitate bat ere badago. Unibersitateko eta goimailako eskoletako ikasleak euren azterketak edozein hizkuntaztan egin leikiez. Suekar goimailako eskola pribatuak Estatuko laguntza hartzen dabe, adibidez Aabo/ Turku-koak.

Finlandiako lurraldeko Aaland ugarteak egoera berezi baten aurkitzen dira. Ugarteon barruan 6.500 ugarte txiki dagoz eta eurotarik 80an jendea bizi da. Bertako 22.000 biztanle suekarrak ziran, 1.919an finlandiar estatua osotu zanean. Hau dala ta, Nazio Alkartuak, bertako biztanlegoaren alde eskubide batzuk eskatu ebazan Alkarte horretan sartzeko neurri lez. 1.946an, hau desagertu zanean, eskubide honeek oinarritzen ziran legedi oinarria ere desagertu egin zan, baina Finlandiak bere kontura erabagi eban - eta honexek goratzen dau - egoera edo erregimen bardinaz jarraitzeak.

Egoera honek Finlandiarentzat bere mugak ditu, eta suekar gitxiengoaren alde, beronen helbururik handiena, ugarteen izakera suekarra zaindu gura dau eta. Hau dala ta, Finlandia behartu egiten da, "ardura deutsan udalaren baimen barik, udalak edo Estatuak laguntzen deutsan eskoletan fines hizkuntzarik ez irakasten...", eta herritar diranak ez diranengan ugarteetako ondasunetaz jabetasuna eukiteko eskubideak euki daiezala..." eta "herri eta lurraldeko guztiaren autarkia ez dala lortzen ugarteetan legez herritartu eta handik bost urterarte." 1.951ko legeak administrazioko hizkuntza suekoa dala erabagiten dau.

Aadland ugarteak 1.920tik estatuto berezidun lur eskualdea osotzen dabe eta honek askatasun autonomia osoa emoten deutse. Estatutoak gitxiengoari babes eredua eskeintzen deutso, biztanlegoak %96an sueko izaten jarraitzen daualako.

Finlandiar Gobernuak gitxiengoa babesteko izan dauan gogoari gainetik egin deutsan errazoirik ez da izan, ezta lurraldeko batasunean oinarritzen danik ere. Emoitza bistan dago: lurralde osoan dagoan bake orokorra, ziurtasuna eta poza.

Hausnarketa

Sueciarren eta Finlandiarren Komunitateak euren jatorri, ohitura eta beste berezitasunak (odola, erligioa) kontutan izanik, antzeko komunitateak osotzen dabez. Gehiengoaren gitxiengoaganako babesa ia berez sortzen da.

Brunoren ulerkera Euskal Herrian eta hizkuntza aniztasuna Konstituzioz onartzen dan herrialdeetan aplikagarri izan ete leiteke? Hizkuntza arloko eskubideak bardintasun oinarriaren ondorio lez hartu daitekez? Beharbada Konstituzio testo ugari, dotrina edo/ta lege-jokabideetan argitasun haundirik ez dager, eta zuhur ibili behar da. Baina bardintasun anizkoia gorengo neurrietan ikusi nahi dauanak, gitxiengoaren bardintasunak ofizialtasun bikoitza edo bere hizkuntzaren ofizialtasuna eskatuko dau.

Egia esan, Konstituzio testoa falta dan herrialdeetako auzitegietan aplikatzea zaila jazoten da. Baina Nazioarteko legegintzari begiraturik, lorratz barriak urratzen hasi beharko da.

Finlandiak gitxiengoa babesten inork behartu beharrik ez dau izan. Lurraldeko batasunak be ez deutso eskatu. Ondorenak Komunitate bien artean nabari dira: bakea, ziurtasuna, poza...

5.2.2.2. Irlanda

Irlanda Errepublika edo Eirek gaur egun hiru miloi eta erdi inguru ditu, ez da helduko, eta irlandes dakienak zortzirehun mila inguru dira (115). Mendearen hasieran ostera, lurralde bardinak ia zazpi miloi eukazan. Inglesen kolonizazioa zala ta, irlandar hizkuntzak Erdiaroan literatura dotorea sortu baeban ere, XIXgarren mendean bertako "patois" mugatu baten gelditu zan eta hau ere mintzadar edo dialektoetan bananduta edo zatituta. 1.846ko Goseteak miloi bat heriotzen eragina izan eban eta beste miloi baten herri-aldaketa sortu, gehienok ameriketarantz jo eben. Ameriketara erbesteratu ziranen inguruan garatu zan "Fenians" mogimendua, honen zeregina zera zan: Irlandak bere gain eukan zapalketaren aldeko urtenbide bat aurkitzea.

Bere lehenengo helburua hizkuntza indar-barritzea izan zan eta baita, gaelikar kultura ere, nazioko iruditzat harturik. 1.893an Douglas Hyde-k Gaelicar alkartasuna sortu eban eta bere helburua zera zan: bereganatutako lurraldeetan lehengo hizkuntza berjartzea. 1.895ean "Sinn Fein" nazionalista alderdia agertu zan. 1.912an britaniar gobernuak "Home Rule" Irlandari emon eutsan, baina eragin barik gelditu zan ia ia gerra mundiala zala ta, eta 1.919an Ugartearen askatasun edo independentzia adierazo zan, baina sei kondadu bananduta gelditu ziran, kondadu honeek Ipar Irlanda deitu zana osotzen eben eta Bretaina Handiari lotuta jarraitu eban "Reino Unido" izenaz ezagutzen doguna.

1.921ean independentzia hori ofizialki adierazo zanean, biztanlegoaren %10ek bakarrik ekian Irlandar hizkuntza, irlandesa. Politika linguistikari esker, funtzionarioentzat derrigorrezko da irlandes hizkuntza ezagutzea. Maisu-eskola bat sortu zan eta bertako hizkuntza edo irakaskintzako hizkuntza bakarra irlandesa izan zan, eta apurka apurka irlandes hizkuntza eskoletara sartuaz sartuaz joian. Argitaletxe Nazional bat ere sortu zan eta honek eskolarako esku-liburu, eleberri eta beste liburu batzuk irlandes hizkuntzaz bakar bakarrik argitaratu ebazan (116).

1.937an Konstituzioa egin zan eta honen 8garren artikuluak zera inoan:

" 1. Irlandes hizkuntza, nazioko hizkuntza lez, lehenengo hizkuntza ofiziala da.

2. Ingles hizkuntza bigarren hizkuntza ofizialtzat hartzen da.

3. Baina, biotarik bat hartu leiteke Estatu barruko atal batzuetan edo Estatu osoan helburu ofizial bat edo gehiagotarako."

Artikulu honek irlandes hizkuntzari emon gura izan jakola garrantzia erakusten dau, lehenengo hizkuntza ofizialtzat hartuz eta nazioko hizkuntza bakartzat.

Parlamentuan erabiliko dan hizkuntzari buruz 25garren artikuluak zera dino: Lege-gaia hizkuntza bietan onartu bada Lehendakariak testo biak izenpetu beharko ditu. Lege-gaia hizkuntza ofizialetariko baten onartu bada, Lehendakariak testo hori izenpetuko dau, baina itzulpen ofizial bat egingo da beste hizkuntzan. Izenpetu eta legea atera ondoren, testoa, bat edo biak, izenpetu egingo dira eta Gorengo Auzitegiko Idazkaritzan gordeko dira eta benetakoak dirala adierazotako balioko dabe. Gordetako testo bion artean desbardintasunik balego, irlandes hizkuntzan dagoanak emongo dau benetako erabagia. Irlandes hizkuntzari emoten jakon lehentasunak, hizkuntza nazional honi emon gura izan jakon garrantzia adierazoten dau (117).

Ez da hizkuntza nazional eta hizkuntza ofizialaren arteko desbardintasunik aurkitu, nahiz eta Irlanda hizkuntza anizkoidun Estatua izan bere nortasun estatutoagaz edo oinarriagaz.

Europako Justizi Auzitegia

Jarraian, 1.989-05-16an Europako Justizi Auzitegiak (osoko bilkuran) erabagi ebanaren barri emongo da.

Gaia.- Gaia kulturagintzaren arloan kokatzen da, eta hizkuntzaren beharkunari lotuta. Dublin-go High Court-en bidez, Irlanda da Europako Justizi Auzitegian eritxi eskale. Erantzunak, eta erantzunaren ondorioak garrantzi haundikoak dira batez be Europako Alkartekide diran Herrientzat (118).

Jazoerak.- Jazoerak honeexek dira. Groener ardrea da auzitaratzailea. Holandesa da, eta 1.982ko iraila ezkero pinturako irakaslea da denbora partzialean Dublin-go eskola publiko batetan. 1.984ko uztailean, denbora osoko irakaslea izateko oposaketak aprobatzen ditu, baina

irlandes hizkuntzari buruzko azterketa berezia suspenditu dau. Irlandako Hezkuntza Ministroak 79/28 zbk. gutunak behartzen dau azterketa berezi hori egitera (119).

Auzia.- Groener andreak bere izendapena ukatu deutsolako kasua Irlandan bertan auzitara daroa.

79/28 znbk. gutunaren, eta Europako Alkarteko Hitzarmenaren 48. artikuluaren eta Kontseiluko 68/1.612 zenb. Araudiaren 3. artikuluaren alkargarritasuna ukatzen dau. Araudiko 3. artikuluak (120) alkartekideen aurkako bereizkeria galerazoten dau, eta lan-aldatzearen askatasuna jagoten dau (121).

Dublin-go auzitegia Europako auzitegiari aholku eske.-
Batez be, Hitzarmeneko 48. artikuluaren eta Araudiaren 3. artikuluaren eta Irlandako nazio-arauaren arteko alkargarritasuna jakitea nahi dau. Arau honek betiko enplegua hartzeko irakaslea hizkuntza ofiziala ezagutzera behartzen dau (122).

Jurisprudentzia.- Jurisprudentziak, orokorrean, bereizkeria zuzenak bakarrik ez ditu onartzen, zeharkakoak bilatzen be saiatzen da (123).

Legegizonaren hausnarketa.- Onarri orokor honi jarraiturik, Araudiak bardintasuna bermatu nahi dau egitez eta eskubidez, eta bere 3.1. artikuluan, horren aurkako arauak galerazoten ditu (124).

"Betebeharreko enpleguaren izaera" oinarrizkoa agertzen da hemen. Bereizkeria ezaren aldeko da Alkarteko zuzenbidea, baina enpleguaren izaera hau salbuespena sortzeko aina da (125).

Salbuespen honek baldintza bi ditu: Alde batetik, helburu bati dagokion hizkuntza-eskakizuna, eta beste aldetik hori lortzeko beharrezko izan behar dau. Proportzionaltasun oinarria sartzen da jokoan (126).

Beraz, pinturako irakasle izateak hizkuntzaren ezagumena eskatzen dauan jakin behar da. Baita bereizkeriari lekurik emoten deutsan eta baita

ordena publikoaren aurkakoa izan ete leiteken. Baina bereizkeriarik ez badago, ordena publikoa aipatzea alperrikakoa da (127).

Gogoratu daigun irlandesaren egoera. Irlandesa nazioko hizkuntza eta lehenengo hizkuntza ofiziala da, inglesa da Konstituzioko 2. hizkuntza (128). Ehuneko 33,6 biztanlek irlandes hitz egiten dau (129).

Baina Hizkuntzaren aldezpen eta sustapena europear Alkartearen ala Estatuaren eskumena da? Idatzi dogunaren arabera, betebeharreko enpleguaren izaerak hizkuntza eskatzen badau bereizkeriarik ez legoke.[130]

Baina arazo honek Europako Alkartea arduratzen dau (131).

Irlandesa lurraldeko hizkuntza dan jakitea ez da erreza. Irlandako Konstituzioan nazio hizkuntza lez dator. Eta hizkuntza hori gitxiengotua danez gero, neurri borondatetsu eta beharrezko barik ez leuke iraungo. Arau egokien faltan ez litzateke biziko (132).

Kulturaren identitatearen muina dan hizkuntzaren aldezpenak zeinen esku geratu behar dau? Estatuak bere kultura ondarearen anizkoitasuna bermatzeko ahaleginak egiteko eskubidea euki behar leuke, eta horretarako medioak ipini be bai. Konstituzioan irlandes hizkuntza ofizial lez badator, Estatuak hizkuntza horri garrantzi haundiagoa damotso. %33,6 herritarrek bakarrik jakiteak ez deutsa irlandesa baztertzeko eskubiderik inori emoten.[133]

Irlandesaren beharrizana irakasleentzat ez eskatzean, hizkuntza horrek hizkuntza hilaren tratamendua jasoko leuke. Konstituzioz, edozein irlandesek dauka klase danak, pintura be bai, bere hizkuntzan hartzeko eskubidea. Hizkuntzaren sustapenerako irakaskintzako enpleguak, izaeraz, beharrezkoak dira (134).

Lanpostua hartu eta gero, ikastaro bidez edo ikasturte batzuetan hizkuntza ezagutzeko posibilitatea irakasleari zabaltzea ez da ikusten neurri egoki lez. Ezagumen hori ez litzateke orain emongo, eta irakaslegoaren irlandes ikasteko gogoa motelduko leuke (135).

Epaia.- Legegizonaren azterketa ikusi ondoren, ondorio honetara heltzen da:

1.- Denbora osorako dan irakaslearen arazoa, aipatutako Araudiaren 3.1 artikuluaren barru sartzen da. Nazio hizkuntzaren sustapenerako, Alkarteko edozein Estatuk arau horretan oinarria hartu leike irakaskintzarako lanpostuaren eskalea hizkuntza ezagutzera behartzeko.

2.- Ordez: 3.1 artikuluak hizkuntza ofiziala ezagutu beharra eskatzeko eragozpenik ez dau jartzen (136).

5.2.2.3. Malta

Malta ere hizkuntza nazionala eta hizkuntza ofizialaren artean desbardintasuna egiten dauan beste Estatu bat da. Hainbat odol-nahasteren ondorenez sortutatako Estatu honek, denporaren zehar bere itxura hartu dau. Odol eta hizkuntza mailan arabiar izate haundia dauka, baina zibilizazioari dagokionez europarra da. Erdiaroan Malta, Siciliari lotuta egoan, era honetara sartu zan italiano hizkuntza ugarte horretan eta salerosle, administrazio eta justizia egileen hizkuntza bihurtu zan. Baina herriak erabilan hizkuntza "maltes" zan, egituraz arabiarra tarteka siciliar hitzak nahastuz. 1.800ean inglesak sartu ziran ugarte horretan eta ordurik aurrera ingles hizkuntza be sartu zan.

XIX. mendean maltatarren hizkuntza kultura mailan italianoa zan. Hau jakitea beharrezkoa zan bigarren mailako eta goi mailako irakaskintzara joteko. Ingles hizkuntza Administrazio eta manatzaile zibil eta militarren arteko hartuemonetarako erabilten zan. Mendearen azkenerantza, ingles hizkuntza auzitegian erabilten zan, epaitua britaniarra izan eta maltatartu barik baegoan. 1.911n, bigarren mailako auzitegian aurkezten ziranak ingles edo italiano hizkuntza aukeratu eikiela erabagi zan; beheragoko auzitegietan maltes hizkuntza zan ofiziala. 1.934ko manu baten bidez, auzitegi guztietan italiano hizkuntzaren ordez maltes hizkuntza erabiltera behartu zan jendea, alderdi batetik Italiako fazizmoari aurreak hartzeko izan zan. 1.947an ugarte horretako Konstituzioak ingles eta maltes hizkuntzak, hizkuntza ofizial mailara jaso ebazan biak pareko eginik.

1.964an lortu eban independentzia Malta ugarteak. Estatu barriko Konstituzioko 5garren artikuluak zera inoan: "Maltako hizkuntza nazionala maltes hizkuntza da", baina, "hizkuntza ofizialak maltes eta ingles hizkuntzak, eta baita parlamentuak behartu leikean beste edozein hizkuntza Lege-ordezkarien hirutik bik eskatuko balebe boto bidez." Gaur egun Maltan ofizialak diran hizkuntza bi bakarrik dagoz, maltes eta ingles hizkuntzak, baina konstituzioaren aldetik beste hizkuntza bati ofizialtasuna emoteko ateak zabalik dagoz, hirugarren hizkuntza ofizial lez edo ingles hizkuntzaren ordez. Ofizialtasuna lortu leikean hizkuntza bakarra italiano da.

Konstituzioak dino Parlamentuan erabiliko dan hizkuntza, beronek aukeratuko dauala. Izan ere gehien baten maltes hizkuntza erabilten da. Legeen alde botoa emokeran hizkuntza bietan emongo da, maltes eta ingles hizkuntzetan, Parlamentuak

beste erabagiren bat hartzen ez badau. Testoari dagokionez, nahasteren bat sortuko balitz maltes hizkuntzan dagoan legea nagusituko da, 75garren artikuluak dinoanez. Hemen ikusten da argi maltes hizkuntzari emon gura jakon garrantzia gero eta haundiagoa dala hizkuntza nazional eta ofizial lez inglesaren gainetik, hau ofiziala baino ez dalarik.

Ekintza ofizialetan, Administrazioak bata zein bestea erabili leike. Kaleko jendeak ere Administraziora zuzentzerakoan askatasun hori dauka baina honek eskaria egin jakon hizkuntzan erantzun beharko deutso. Auzitegiko hizkuntza ofiziala ere maltes hizkuntza da baina Parlamentuak erabagi leike kasuren batzuetan ingles izatea.

Hezkuntza, elebiduna da. Hasierako irakaskintzan eskolan ingles eta maltes hizkuntzaz emoten dira. Bigarren mailako irakaskintzan ere maltes eta ingles hizkuntzak dira nagusi baina derrigorrezkoa da beste bi ere ikastea eta bi honeek latin, italiano eta frantses hizkuntzen artean aukeratu behar dira. Unibersitatea ere elebiduna da.

Prentsari dagokionez, bost egunkari dagoz maltes hizkuntzaz eta hiru ingles hizkuntzaz. Kaleen izenak hizkuntza bitan agertzen dira. Dendetako izenak eta publizitatea inglesez egiten dira ia danak. Eleizeak ostera, batez ere maltes hizkuntza darabil. Ugartean irrati bi dagoz, batak maltes hizkuntza darabil eta besteak inglesa.

Honeexek dira Maltan nausitu diran ohitura eta antolabideak eta lurraldeko politika linguistika erakusten dabe. Irlandako egoereagaz bateratsu dator eta hizkuntza nazionala eta ofizialaren arteko desbardintasunak izakera eta sustrai bardinak dabez (137).

Malta 1.989an

1.989an Maltan "maltes hizkuntzaren eta Maltako nazio identitatearen egoera indartzeko AKTA edo lege egitasmoa (138) egon da.

Presidenteak, Diputatuak Parlamentuan emondako aholkuekin eta baimenagaz egindako egitasmoa da (139).

"Maltes hizkuntza da nazio ondare zaharra ta aberatsa." [...] "Maltako Estatuak, bere hizkuntzan onartzen dau Maltako nazionalitatearen irudi garrantzitsuena" (140). Eta Maltako Estatuak maltes hizkuntzaren garrantzia onartzen dau eta bere erabilerari, (irakaskintzan, prentsan, gizarte bizitzan, kultur arloan, ...) laguntzea nahi deutsa (141).

"Maltes hizkuntzaren babeserako lehenengo Ministroak, presidenteagaz eta gitxienez zortzi gizonegaz osotutako junta edo batzorde bat sortuko dau" (142).

4. artikuluan agertzen dira batzorde horren zereginak.

Bere 5. eta azken artikulua da zehatzena eta manatzaileena. Eskolari eta irakaskintzari dagokio (143).

Eta lege egitasmo honen helburu eta zergaitiak "Maltako nazio identitatea eta maltes hizkuntza babesteko oinarri sendoak ezartea" (144) dala errepikatuz amaitzen da.

Hausnarketa eta ondorioa

Lege egitasmo hau adierazpen eran idatzita dago. Izenburuan bertan dakarz hitz bi "indartu" eta "egoera", zuzenbidearen ikuspuntutik indar gitxikoak.

2. artikulu osoa nahiko ezkor agertzen da (145).

2.1ean historia gogoratzea ez da kaltegarri, baina laguntza haundia be ez.

2.2an be adierazpenak ugari datoz, eta beharkunak urri. "Beharrezko eta dagokion onarpena" eskatzen da, baina hortik ez dator legezko ondoriorik. Hizkuntzaren garrantzia onartzeak, ez dakar beste barik agiriko betebeharrik. Gainera, maltes hizkuntzaren hil zorirako edo galtzeko arriskua aurreikusteko adi egoteko eskatzerakoan oso ezkorra da.

2.3an "erabilera haundiagoa" eskatuz, praktikan legez ezarteko ezin da ezer be egin.

2.4 Hizkuntza baten iraupenerako ez da nahiko hizkuntza hori ikasgai edo aztergai bihurtzea. Hezkuntzak bide izan behar dau.

Junta edo batzorde bat sortzea ondo dator, baina ez "babeserako" bakarrik, ekintzarako eta burrukarako be bai (146).

5. artikulua irakurrita (147) ez dirudi Maltako Gobernuak irakaskintza sistema maltes hizkuntzan ezarteko asmorik daukanik.

Ondorioz, esan behar da, lege egitasmo honek ez dakar Maltako herritarrentzak eskubide zerrendarik. Asmo on eta gurari biziz beterik badago be, Maltan ama-hizkuntzan bizi, lan egin eta hil nahi dabenentzat ez dau hizkuntzarekiko giza eskubiderik sortzen.

Europako Kontseiluko eta Europear Alkarteko aholkuak baino atzerago dabil.

Justiziaren eraketa eta arduralaritzari buruz, ez dakar ezer. Herritar batek bere herriagaz dituan hartuemonetan bere hizkuntza ezin badau erabili, eta auzitegian ama hizkuntzan bere burua ezin badau aldeztu ez da ezer lortu.

Lege egitasmo honen edukia lehendakari baten hitzaldirako ondo letorke.

Gehiago aztertu eta sakondu barik ez leuke mereziko holako lege bat argitaratzea.

Europako hizkuntza egoera askoz aurrerakoiago ikusten da, eta jakitun eta tekniko batzuen laguntzaz, Maltako Gobernuak politika asmoa badau, askoz be lege hobeagoa sortu daike maltes hizkuntzarentzat.

OHARRAK

1. GIZA ESKUBIDEEN AUTORKIZUN OROKORRA: 2. art.

2. WITTE, BRUNO DE; "Lingustic Equality a Etudy in Comparative Constitucional Law", in: Revista de LLENGUA I DRET, 6 desembre de 1985 vol. 3, 55 or.

3. HART, H.L.A.; The concept of Law, Oxford, 158 or.

4. BERLIN, I.; "Equality as an Ideal", in: F. Olafson, Justice and Social Policy, 1961, 128 ff., at 131.

5. WITTE, BRUNO DE; O.C., 57 or.

6. EUSKERAREN ERABILERA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO LEGEA, 15. art.

7. Ikus: ROUSSEAU, J. J.; Du Contrat Social, Paris, Garnier- Flammarion, 1.966, 70 or.

8. WITTE, BRUNO DE; O.C., 58 or.

9. CHEMERINSKY, E.; In Defense of Equality: A Reply to Professor Westen, Michigan Law Review, 1983, 590 or.

10. WITTE, BRUNO DE; O.C., 60 or.

11. WITTE, BRUNO DE; O.C., 77 or.

12. 1.984-01-25eko epaia: Repertorio de Jurisprudencia de Aranzadi, 1984, n 205, eta 1.984-05-03koa.

13. 1.984-01-25eko epaiak dino: "esta situación rompe el principio de igualdad del art. 14 de la vigente Constitución, en cuanto que se conculca el derecho de los españoles al acceso de las funciones públicas disminuido para todos aquellos que no sean parlantes del euskera(...)"

14. AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, I.; "El euskera discrimina al castellano a jucio del Tribunal Supremo. La igualdad lingüística efectiva a debate", in: Revista Vasca de Administración Pública, nº 9, 1.984, 241-260. COBREROS MENDAZONA, E., "Cooficialidad lingüística y discriminación por razón de la

lengua", in: Civitas. Revista Española de Derecho Admonistrativo, nº 42, 1.984, 461-476 orr.

15. 1.983-8-5eko epaia, Boletín de Jurisprudencia Constitucional, 1.983, nº 30, 1121-1176: "Una interpretación sistemática de los preceptos constitucionales y estatutarios lleva, por una parte, a considerar el conocimiento de la lengua propia de la Comunidad como un mérito para la provisión de vacantes, pero, por otra, a atribuir el deber de conocimiento de dicha lengua a la Administración autonómica en su conjunto, no individualmente a cada uno de sus funcionarios, como modo de garantizar el derecho a usarla por parte de los ciudadanos de la respectiva Comunidad".

16. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., 79 or.

17. Ikus: 1.983-10-18eko epaia: Le Regioni, 1.984, 238 eta 255 orr.

18. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., 80 or.

19. Bertan.

20. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., 80 or., 56. oharra.

21. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., 81 or.

22. WITTE, BRUNO DE; O.C., 82 or.

23. Tesi honen 347 or. eta hurr.

24. MORAND, CHARLES-ALBERT; "Aspectos del derecho de las Lenguas en Suiza", in: Ordenación Legal del Plurilingüísmo en los Es-tados Contemporáneos, Barcelona 1.983, 85 or.

25. Ikus: DORIG, HANS RUDOLF eta beste batzuk; Le Quadri Linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, Berne 1.983, 21 or.

26. Esaterako grisondarren arazoa. Ikus: MORAND, O.C., 86 or.

27. MORAND, O.C., 88 or.

28. 107 art.:

1.- Auzitegi federaleko kideak eta ordezkoak legebatzar federalak izendatzen ditu, eta kontuan izango dau konfederazioko hiru hizkuntza ofizialak ordezkatuta egon daitezen.

2.- Auzitegi federalaren antolaketa eta bere sailak, kideen eta ordezkoen kopurua eta zenbat denporatarako izendatuta dagozan, legeak erabagiten dau.

116. art.:

1.- Alemana, frantzesa, italianoa eta romanchea dira Suizako hizkuntza nazionalak.

2.- Konfederazioko hizkuntza ofizialak legez, alemana, frantzesa eta italianoa hartzen dira.

(Constitution Fédérale de la Confédération Suisse, du 29 mai 1.874, Etat au 1º avril 1.985, 44 eta 46 orr.)

29. Ikus: DORIG HANS RUDOLF eta beste batzuk, O.C., 22-25 orr.

30. SONDEREGGER, STEFAN; La Suisse quadrilingue entre l'histoire et le futur, St-Gall 1.981 (Haute école de St-Gall. Conférences de l'Aula 12).

"Alkar-zaletasuna (federalismoa), bere ondorioak garatzeko (herri-eskubideen oinarrizko neurria).

Hizkuntza mugen iraupena (lurraldearen zabalera).

Biztanle oreka (linguistiko-ekonomiko neurria).

Hizkuntzak menperatzea (hizkuntza gai barruan, pedagogia neurria).

Alkarren kultura ulertzea (argibide ta hezibide gaian politika neurria)

Nagusiengoa prest egotea behar diran eskeintzak edo ukamenak egiteko (etika mailako zereginak edo betebeharrak).

Hizkuntza kontzientziaren eragite balioa eta gaitasun ondorioa (hizkuntza kontzientziaren neurria).

Etnolinguistiko pentsamentuaren garaipena (Etnologistika neurriari dagokiona)."

31. Ikus: ATF 91 I 485s.

32. Ikus: ATF 100 I a 469.

33. Ikus: FF, 19-37: II, I ta abar.

34. MORAND, O.C., 94 or.

35. Ikus: MORAND, O.C., 96 or.

36. Bertan.

37. MORAND, O.C., 100 or. Haefliger-en hitzak dira.

38. Bertan.

39. Geroago ikusiko dira.

40. Ikus: ATF 91 I, 493

41. 1.982ko maiatzaren 7ko epaia, epoux g. (Zbl. 1.982 (8) 364 ta abar).
"Herri auzi batean, Albula (Grisondarrak) herri-barrutiko auzitegiak Bivio-tar pertsona batek romanchez egindako eskabidea, barriro alemanez edo italieraz egiteko eskatu eban.

Auzitegiaren errazoia zan zati biak daukiela euren bizilekua romanche hizkuntza lurraldeko udalean. Bivion, hizkuntzak bataz beste %18 dauka romanche-ak, %50 italierak eta %13 alemanak. Albula lurraldean, %50 baino gehiago dauka romanchek %39 alemanak eta %8 italierak. Kantoi auzitegiak lurraldeko auzitegiaren erabagia onartu ta legeztu ondoren, salatzaileak gora jo eban, baina ez eutsien onartu nahi ebanik. Erabagi honen kontra konstituzioari begira gorago jo eban Federal Auzitegiaren aurrean. Honek ez eban ontzat hartu hau jokabide bidezkoa etzala-ta, kasu honetan batez be hizkuntzaren askatasunaren aurka, ez egoala erru astunik esanaz. Halan be, luze ta zabal dihardu eskabide horren maminari ta askatasun honen mugei buruz. Aitaturiko oinarrien artean, gogora daigun, eskubidea emoten dautsola pertsoneari ez bakarrik bere amagandiko hizkuntzea erabilteko, baita bigarren nahiz hirugarren bat erabilteko be, ezagutu ta ganoraz erabili ezkero; hiru hizkuntza ofizialak babestea da Grisondarren kantoian, hiru hizkuntzen zabalera aintxinako lurraldeei lotua, udal, bazkun eta barrutiai dagokionez; %40tik 45erako herri-jendeak hitz egiten dauan hizkuntza bat auzitegian erabilteko eskubidea kentzea, Konstituzioaren kontra joatea litzateke, ta hau batez be antxinako hizkuntza bati begira; kantoiak daukien federal eskubideari oratzeko, bakoitzaren eskubidea da hizkuntza ofizialak zeintzuk diran erabagitzea; jokabiderako zein hizkuntza aukeraturi buruz zabala dozu kantoi-eskubidea, salatzailearen hizkuntza erabilteko agindu leike, elebitza lekuetan behintzat, baina baita emon leike alderdiak eurek nahien daben hizkuntza aukeratzeko baimena be, erabagi errazoizkoagoa nunbait, lehengo ta behin ez da eskatzen beste hizkuntza baten ezagutze lau-lau bat besterik eta."

42. Ikus: MORAND, O.C., 103 or.

43. Ikus: ATF 91 I 488, 100 Ia, 466.

44. Ikus: ATF 1000 Ia, 462 ss.

45. Ikus: ATF 100 Ia 467.

46. Ikus: Zbl. 1.982(83), 368.

47. Ikus: ATF 91 I 488, 100 Ia, 466.

48. Ikus: ATF 91 I 492, 493.

49. Ikus: ATF 100 Ia 469, 470.

50. Ikus: ATF 91 I 488 s.

51. Ikus: ATF 100 I 462 ss.

52. 1.932ko bagilaren 3ko epaia, Zabringer, argitaratu bakoa.
(Ikusi: HERGNAUER, 1.947: 79 ta abar.)
1.931eko irailaren 28ko agindu baten, Tesinoko Parlamentuak eskatu izan eban agiriko iragarkiak italieraz idatziak izan eitezala ta hizkuntza arrotzetara egingo ziran itzulpenak testu orijinalaren erdia baino gehiago ez eitezala izan. Federal Epaitegiak, Konstituzioaren epaile zalarik, ontzat hartu eban erdizka behintzat, aukeztutakoa gora jotea. Komertzi ta industri askatasunari eginiko mozketen ikuspuntutik auzia aztertzean, eta bardintasunaren oinarria be ikertzerakoan, neurri hori etzala ainakoa (proportzionala) ta gura zan helburua lortu leitekela itzulpena testu originalaren tamainu bardineko letrakaz eginda be.

53. 1.965eko epailaren 31eko epaia, Frantsez Eskolaren Alkartea.
(ATF, 91, I, 480 ta abar.)
"Zurich-eko Frantsez Eskola onartu zanekoan, kantoiko manatzaileak urte biko epea emoten eutsen egoteko hango ikasleei ta epe honetan eskatzen jaken ikasle horrei aleman eskola batera igaroteko ainako irakaskintza hartu ta lortu egiela. Mozketa ta ikas-murritze honen aurka, Alkarteak federal auzitegira aurkeztu eban Konstituzioari egokion eskari bat. Auzitegiak uko egin eutson eskariari. Konstituzioko eskubide idatzi bage bat legez eratua izan bait zan hizkuntzaren askatasuna, askatasun hau, uste eban, onartua izan zeitekela bakar-bakarrik Konstituzio Federaleko 116garren artikuluari begira, honek bait dau babesten herrialde arteako hizkuntzen antxina-antxinako banaketa. Oinarri honek kan-

toiak behartzen ditu hizkuntza lurraldeen zabalera ta bardintasuna zaindu ta jagotera (lurraldetasun oinarria). Baita korapilotu ta estutzen dau irakas-askatasuna, kantoi batek ontzat harturik ba dago. Gora jo eban alderdiak uste eban neurri hori etzala ainakoa, alemana Zurichen inolaz be ez zala ikusten gal-zorian. Federal Auzitegiak ez eban onartu errazoi hau hizkuntza arrotzez irakaskintza emon leikien bakarreko eskolak ugarituz, honek kideko ez diran pertsonen talde zabalak eratu ta egin leikezalako ta bardintasuna zihurtzeko herri-interesa lehenago zalako umeak euren ama-hizkuntzan hazi ta eskolatzea baino.

54. 1.980ko jorrailaren 25eko epaiak, Brunner (ATF I 299 ta abar)

"Sarina barrutian, Friburgo kantoian aurkitzen danean, frantsez hizkuntza auzitegietako hizkuntza lez eukia da, alemanez mintzatzen dan %26ko gitxiengo bat bertan bizi arren. Herri auzi baten, halan be, eskari bat alemanez egin zan. Epailariaren gogoz kontra, hain zuzen be, frantsesez egiteko eskatzen eban eta; eskaleak orduan Konstituzioari begira, gora jo eban; Federal Auzitegiak ez eban onartu. Honen eritxiz, lurraldetasun oinarriak bere mugak daukaz eta ezin leitekela elebitako eskualde baten indarrez, auzitegietan, hizkuntza bat bakarra erabili. Kasu berezietan gitxiengoa %26koa izanik eta gitxiago honek udal-barrutiko baten be nagusiagoa egin ezik, hizkuntza bat jartea ez da askatasuna-ren kontrakoa, halan be kasu-muga baten aurrean aurkitzen gara. Hizkuntzaren askatasuna orraitino gogor hartua izango litzateke, frantsez hizkuntza balitz zertzelada horreitan nahita nahiezko eskola hizkuntza.

55. 1.974ko urrilaren 30eko epaia (ATF 100 Itik 462ra ta abar).

"Grisondarren udaletxe baten, romanche oso gitxitu ta irakaskintza alemanez bakar-bakarrik emoten dan lekuan, guraso batek laguntza eskatzen eban romanchez erakusten zan hurreko eskola batera bere seme-alabak bialtzeko. Kantoiko agintarien ezetzaren kontra, gora joan zan Federal Auzitegira, baina honek gitxietsi egin eban eskakizuna. Hizkuntzen askatasuna lurraldetasun oinarriz mugaturik dagoala ta honek lur-mugak ez daitezala jakinez behinik-behin aldatuak izan dinoala gogoratuz, Federal Auzitegia itaunka dago hizkun-tza-askatasunetik atera ahal ete daiteken egiazko mailegu edo prestamo batzue-tarako eskubiderik. Ezezkoa da bere erantzuna, norbere askatasunen ideia klasikuari oles eginik, honeik bait dabe babesten bakotxarena Estatuak jarrita letorkezan murrizte ta mozketen aurka. Ez dau, halan be, albora izten hizkuntzen askatasunetik atera daikela eskubidea, udal-inguru haundi baten bizi leiteken gitxiengo inportante batentzat, bere hizkuntza bere-berean be irakaskintza hartze-koa nunbait. Gogora dakar, prestamenoen eraginkorretarako eskubide auzia zabalik itzi ondoren, romancheri iraunazotea interes nazionalekoa dala, eskola lehenengo urteetan doixtar eskola joan beharrak, amagandiko hizkera arriskuan jarten dauala, baina errazoi praktikuakaitik onartu behar dala egoera hau."

56. Ikus: DORIG eta beste batzuk, O.C., 88 or.

57. FF 1.979 II 997.

58. Ikus: 1.953ko ekainaren 19ko agindu federala: RS 411.1.

59. Ikus: FF 1.981 III 769s eta 830s.

60. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., 89 or.

61. Bertan.

62. PIZZORUSSO, ALESSANDRO; "Minorías y grupos étnicos y lingüísticos en Italia: perspectivas de tutela", in: Ordenación Legal del Plurilingüísmo en los Estados contemporáneos, Barcelona 1.983, 20-21 orr.

63. WITTE, BRUNO DE; O.C., n 88.

64. PIZZORUSSO, ALESSANDRO; O.C., 22 or.

65. Ikusi: PIZZORUSSO, ALESSANDRO; O.C., 22 or.

66. Ikusi: WITTE, BRUNO DE; O.C., 91 or.

67. Adibidez, Moliseko Hegoaldeak bere hizkuntza gitxiengoen alde (albanieradunak eta kroaziarrak) egin eban akta-legea, Gobernu Zentralak berehala eragotzi eban, Molise hurrengo hiru puntuetan eskubiderik barik sartu zala esanaz: hizkuntzari buruzko legeria, hezkuntzari buruzkoa (aktak gitxiengoaren hizkuntza eta kulturari buruzko ikastaroak hornitu ebazan eta kanpo hartuemonak (aktak gitxiengo eta kultura-estatu aliatuen arteko kultur hartuemonak izateko ahalbidea emon eban).

68. WITTE, BRUNO DE; O.C., 92 or.

69. Ikus: PIZZORUSSO, ALESSANDRO; O.C., 26 or. eta batez be 33. oharrean.

70. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., 93-94 orr.

71. OBIETA, JOSE; Las Lenguas Minoritarias y El Derecho, Mensajero, Bilbo 1976.

72. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., n 120

73. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., n 121.

74. Bertan, n 122

75. PIZZORUSSO, ALESSANDRO; O.C.,

76. 1.970-12-28ko Sententzia, n 192, Giurisprudenza Costituzionale, 1.970, 2203.

77. 1.970-3-11ko Legea, 10. art.

78. WITTE, BRUNO DE; 97 or., 128. oharrean.

79. Bertan, 97 or.

80. Ikus: Bertan, 97-98 orr.

81. WITTE, BRUNO DE; O.C, 98 or.

82. Kasu hau aztertu nahi dauanak ikusi bei: 36 - PIZZORUSSO.

83. Ikus: BAÑERES, JORDI; "Aspectes Legals i Administratius de L'Eslové en el marc del Pluralisme Igualitari Iugoslau", in: Revista Llengua i Dret, n 10, 83-107 orr.

84. OBIETA, JOSE; O.C., 70-71 orr.; herrialde bakoitzak zenbat biztanle dituan ikusi daiteke.

85. OBIETA, JOSE; O.C., 72-73 orr.

86. Bertan.

87. Ikusi: BAÑERES, O.C., 84 or. eta 3. oharrean emoten ditu sail bakoitzaren berezitasunak.

88. BAÑERES, O.C., 87 or.

89. Ikus: BAÑERES, O.C., 88 or., 20. oharra.

90. Konstituzio Federaleko 246. art. eta 269. art.

91. Ikus: BAÑERES, O.C., 103 or.

92. Bertan.

93. BAÑERES, O.C., 104 or.

94. Ikus: 1.986an egindako inkesta, BAÑERES, O.C., 105 or.

95. Ikus: ARRIAGA, JOSE LUIS; Deian, 1.989-10-8an, 36 or.

96. Zehastasun gehiago nahi bada, ikusi: ARGIA, 1.262 26k/89-X-8
16. orrialdean, eta batez be, CREISSEL, Denis, "Multilinguisme et politique linguistique en Yougoslavie et en particulier dans la région autonome de Voïvodine", in: L'Etat et la planification linguistique, Tome II, Etudes de cas particuliers, Québec 1.981, 213-236 orr.

97. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTES EUROPEENNES, Les Minorités Lin-guistiques Dans Les Pays de la Communauté Européenne, Document, Luxembourg 1.986, 321 or.

98. Ikus: OBIETA CHALBAUD, JOSE; Las Lenguas Minoritarias y el Derecho, 63 or. SENELLE, Robert, "El Régimen Lingüístico de Bélgica en el Marco de la Reforma de las Instituciones Belgas", Ordenación Legal del Plurilinguismo en los Estados Contemporáneos. Consejo consultivo de la Generalidad de Cataluña, Barcelona 1.983, 34 or.

99. OBIETA CHALBAUD, JOSE; O.C., 63 or.

100. Ikus: OBIETA, JOSE; O.C., 63-64 orr., eta SENELLE, O.C., 34-35 orr.

101. Kasu hau sakondu eta aztertu nahi dauanak ikusi beiz:
- GARCIA DE ENTERRÍA, E.; El Sistema Europeo de protección de los Derechos Humanos, Editorial Civitas, Madrid 1983, 265-278 orr.
- TEDH-6 BJC, Caso "relativo a ciertos aspectos del Régimen Lingüístico en Bélgica. 1.968-07-23ko epaia, 90-135 orr.
- TEDH-3, Caso "relativo a algunos aspectos del Régimen Lingüístico de la enseñanza en Bélgica" (Excepción preliminas) 1.967-02-09ko epaia, 40-46 orr.

102. Ikus: SENELLE, O.C., 35 or.

103. Ikus: OBIETA, JOSE; O.C., 65-66 orr.
Administrazio mailan, nazio mailako serbitzuetan elebitasunak jarraitzen dau; eta lurralde mailako administrazio serbitzuetan nahiz pribatuetan, honeen hizkuntza. Irakaskintza mailan oinarrizko lege honeek apurtu ere egiten ziran, Lovainako kasua esaterako; hemen onartuta egoan erdi mailako eskola baten

frantsesez irakasteko, unibertsitateko frantses sailarako gertatzeko. Bruselasko jendetzarentzat elebitasuna ipini da derrigorrez; eta Bruselas inguruko sei udalentzat eta beste udal batzuentzat gitxiengo bat badabe ere onartu beharra egon da zelango edo halango baldintzapean, mesede lez, derrigortuak ez izatea.

104. Ikus: 101. oharra.

105. OBIETA, JOSE; O.C., 67 or.

106. OBIETA, JOSE; O.C., 68 or.

107. Ikus: 101. oharra.

108. SENELLE, O.C., 35 or.

109. Ikus: Konstituzioko, 3.3, 32 bis, 38 bis, 59 bis eta 59.3 art.

110. Konstituzioko 3. art.

111. Konstituzioko 107. art.

112. OBIETA, JOSE; O.C., 84 or.

113. Ikus: WITTE, BRUNO DE; O.C., 103 or.

114. Hemen azaltzen diran Finlandiari buruzko datuak eta adierazpenak Obieta jaunaren liburutik jasota dagoz. OBIETA, JOSE; O.C., 84-87 orr.

115. Ikus: COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENNES, Les Minorités Linguistiques Dans les Pays de la Communauté Européenne, Document, 301 or.

116. Ikus: OBIETA, JOSE; Las Lenguas Minoritarias y El Derecho, 89-90 orr. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENNES, O.C., 294-304 orr.

117. Ikus: OBIETA, JOSE; O.C., 90-91 orr. COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉNNES, O.C., 304-305 orr.

118. Epaiaren 1go zenb.

119. Epaiaren 2. zenbakia.

120. JOCE nº L 257/2 del 19 de Octubre de 1.968.

121. Epaiaren 3. zenbakia.

122. Epaiaren 4. zenbakia.

123. Epaiaren 5. zenbakia.

En el nº 6 dice asi:

Así, en materia de libre circulación de los trabajadores, usted ha declarado, con ocasión de un asunto que se refería a la interpretación del Reglamento nº 1408/71 del Consejo de 14 de Junio de 1.971 (JOCE nº L 257/2 del 19 de octubre de 1.968), que las condiciones de acceso o de mantenimiento de derechos a las prestaciones serían contrarias al derecho comunitario si estas condiciones

> "fuesen definidas de tal forma que de hecho no pudiesen ser cumplidas más que por los nacionales o si las condiciones de caducidad o de suspención del derecho definidas de tal forma, que de hecho fuesen mas fácilmente realizadas en el lugar de los súbditos de otros estados miembros que en el de los súbditos del estado del cual depende la institución competente."(1/78, Kenny, sentencia del 28 junio 1.978, Rec. p. 1.489, punto 17, ver también 41/84, Pinna, sentencia del 15 enero 1.986, Rec. p. 1, punto 23.

Nº 7:

En el dominio vecino de la libre prestación de servicios, usted ha recordado que los artículos 59 y 60, párrafo 3 del Tratado CEE.

> "prohiben no solamente las discriminaciones abiertas fundadas en la nacionalidad del prestatario sino también todas las formas disimuladas de discriminación que, aunque fundadas en criterios aparentemente neutros, de hecho desembocan en el mismo resultado" (62 y 63/81, Seco, sentencia del 3 febrero 1.982, Rc. p. 223, punto 8)"

124. "aunque aplicables en su acepción de nacionalidad tienen por finalidad o efecto exclusivo o principal el apartar los súbditos de otros estados mienbros del empleo ofrecido." (Epaiaren 8. zenbakia.)

Sin embargo, el párrafo siguente excluye la aplicación de esta disposición para "las condiciones relativas a los conocimientos lingüísticos requeridos en relación a la naturaleza del empleo a proveer." (Epaiaren 9. zenbakia.)

125. Epaiaren 10. zenbakia.

126. Epaiaren 11. zenbakia

127. Epaiaren 12-13. zenbakiak.

128. Ikus: tesiaren 439 or.

129. Ikus: OBIETA, JOSE; O.C., 91 or.

130. Epaiaren 16. zenbakia.

131. El Parlamento Europeo ha adoptado el 16 de Octubre de 1981, una resolución sobre una carta comunitaria de las lenguas y culturas regionales y sobre una carta de minorías étnicas y el 30 de Octubre de 1987, una resolución sobre las lenguas y culturas de las minorías regionales y étnicas en la Comunidad Europea sobre el informe del señor Kuijpers. El primero de estos textos solicita a los gobiernos nacionales "que tengan en cuenta, para responder a unas necesidades expresadas por la población, la enseñanza en las lenguas regionales, en las diferentes ramas de la enseñanza y en los diferentes niveles de ésta." La Comisión, por otra parte, ha creado en 1982 la Oficina Europea de lenguas de menor difusión cuya sede está en Dublin. Es para decir hasta qué punto se reconoce como esencial el salvaguardar la riqueza cultural de Europa y garantizar la diversidad de su patrimonio lingüístico.

132. Epaiaren 18. zenbakia.

133. Epaiaren 19-20-21. zenbakiak.

134. Epaiaren 22-23-24. zenbakiak.

135. Epaiaren 26. zenbakia.

136. Cualquiera que sea la disciplina de la cual surge, el empleo de profesor ejercido a tiempo completo está dentro de aquellos cuya naturaleza es enfocada en el artículo 3.1., última frase del reglamento nº 1612/68 del Consejo del 15 de Octubre de 1968 relativo a la libre circulación de trabajadores en el interior de la Comunidad. Con vistas a promover una de sus lenguas de dimensión nacional, un estado miembro puede por lo tanto fundarse en esta disposición para exigir de cualquier postulante a tal empleo unos conocimientos suficientes en la lengua en cuestión.

Subsidiariamente: el artículo 3.1., primer párrafo, segundo guión, del mismo reglamento debe ser interpretado en el sentido de que no prohibe las disposiciones nacionales que subordinan el acceso a un empleo a la exigencia del conocimiento suficiente de una de las lenguas oficiales de un estado mienbro, desde el momento en que las condiciones en las cuales es declarada satisfactoria esta exigencia, no son más favorables para aquellos que hayan seguido sus estudios lingüísticos en el estado miembro concernido con relación a los que,

siendo titulares de los diplomas reconocidos por él equivalentes, han seguido los mismos estudios en otro estado miembro.

137. Ikus: OBIETA, JOSE; O.C., 91-93 orr.

138. Lege egitasmoaren izenburua da, eta bere 1go artikuluaren edukia.

139. Artikuluetan hasi aurretik, sarreran hori dino behintzat.

140. Lege egitasmoaren 2. art.

141. Ikus: 2. art.

142. 3. artikuluak manatzen dau hori.

143. "Toda escuela en Malta que tenga un 20% de sus estudiantes de ciudadanía maltesa ha de tener un número fijo de horas semanales en las que se enseñe el maltés y en las que la identidad nacional maltesa sea fortalecida.
El Primer Ministro ha de establecer de tiempo en tiempo este número de horas mediante la orden en la gaceta gubernamental.
Los temas ligados a la cultura del país, como la religión, la historia, y civilización de Malta se han de enseñar en maltés tanto en la escuela estatal como la privada.
La Sala primera del Tribunal Civil sobre una petición de los padres o tutores de los niños da ordenes a una escuela para proveer la enseñanza del maltés de acuerdo con los principios establecidos por esta ley y si falla la observancia de la orden del Tribunal en el tiempo estipulado, la licencia de la escuela ha de ser retirada." (art. 5 de la proposición de Ley)

144. "Los objetivos y razones de este borrador o propuesta son el establecimiento de fundamentos sólidos para proteger el idioma maltés y la identidad nacional maltesa de tal forma que éstas sean desarrolladas adecuadamente." Objetivos y razones de la proposición de Ley.

145. "La lengua maltesa es una herencia nacional vieja y rica, que distingue a la gente maltesa del resto de la gente y les proporciona a la misma gente la mejor forma para expresarse.

El Estado Maltés, reconoce en la lengua maltesa, la imagen principal de la nacionalidad maltesa y por tanto le da todo el reconocimiento debido y necesario, reconoce su importancia en principio y en la práctica y está pendiente en vigilar que esta lengua no se deteriore o se pierda.

El Estado Maltés favorece en todad las formas posibles la mayor utilización de

la lengua maltesa en la educación, en la difusión radiofónica, en la prensa y en la vida social y cultural.

El Estado Maltés ha de hacer provisión o estipular el estudio de la lengua y literatura maltesa para entrar con la debida importancia tanto en la escuela estatal como en la privada desde los primeros días en la enseñanza de todos los ciudadanos malteses." (art. 2 de la proposición de Ley)

146. Ikus: Lege egitasmoaren 3. eta 4. artikuluak.

147. Ikus: 143. oharra.

ONDORIOAK

Euskal Herriaren Hegoaldeko lurraldeetan, beste hainbat alorretan lez, hizkuntzazko hartuemonei dagokioen sailean, asmo, irizpide eta, ondorioz, arau barriak azaldu dira hogeigarren mende honetako azken laurdeneko urteotan.

Franco hil ondoren garatu diran gizarte aldaketak izan dabe euren legezko adierazbidea. Espainiako Estatuari dagokionez, 1978ko Konstituzioa eta Hego Euskal Herriari dagokionez, batetik Gernikako Estatutoa, eta bestetik Foru Hobekuntzarako Legea.

Hizkuntzazko hartuemonei dagokionez, legezko erabagi barrien beharra, ordurarteko egoera aldatzeko gogoan oinarritzen zan, Euskal Herrian euskeraz bizi nahi eban herrikideak bere jatorrizko hizkuntzari jarraibidea emoteko hainbat eragozpen izatea, bidezkotzat joten ez zalako.

1go Kapituluan, Konstituzioko 3. artikuluari orokorrean begiraturik, bere ofizialtasun bikoitza eta Estatutoei damotsen ahalmen juridikoa bereziki gogoratzen dira.

3. artikuluak ofizialtasunaren funtsezko oinarriak jartzen ditu.

Bardintasunaren Konstituzio-oinarrian beste hizkuntzen ofizialtasunaren aurkezpena egiten dau, gitxienez ofizialtasunaren baldintzak segurtatuz.

Halan ta guzti be, bardintasun-egoera benetakorik ez dagoala legegilea jakitun agertzen da. Horregaitik, begiramen bereziaren eta babesaren manua emoten dau.

Hego Euskalerrian, gaur egun, beraz, EKren zenbait manu dira nagusi euskeraren eta gazteleraren herri erabilpena arautzerakoan. Manu horreen arabera, Konstituzioko hizkuntza aniztasunaren araugintza nahiko arazogarria gertatzen ez danik ezin da onartu.

Konstituzio honen egile eta onartzaileen aldetik eta hizkuntza ereduei begira, gaztelerak izango leuke bakarrik lehentasuna edonun. Beste hizkuntzak

ofizialak diran lurraldeetan lege-indar bardina izan arren, Estatuak bere bideak ditu, dekretogintza eta auzi-jokabidea adibidez, beste hizkuntzen arazoak legez konponezinak bihurtzeko.

Babes aldetik, hizkuntza nagusi ofiziala (gaztelera) Konstituzioz babestuta dago. Goi mailako babesa dau eta herrikideari segurtasun osoa damotso. Konstituzioak manatu dau bera ezagutu beharra eta erabilteko eskubidea emon, Herrisail eta herritar guztiak horretan behartzen ditularik.

Beste hizkuntza ofizialak bigarren mailako babesa dabe. EKak erabilteko eskubidea bakarrik onartzen dau, eta hori lurraldeetako Estatutoak onartzen badau.

Espainiako beste hizkuntza guztiak (ofizialak ez diranak), hirugarren maila baten, begiramen eta babes hutsean gelditzen dira.

Euskal Herriak bere lurraldean hizkuntza ezbardinen arteko hartuemonak aldatzea edo aldatzeko bideak topau-ezinak dirala ez sinistuarazotea eskatzen dau. Hizkuntzarekiko askatasunari hesiak ez jartzea.

Euskerari, bere ohizko bizitza egiteko, bere esparruak zor jakoz eta euskerari eskubide hori ezin jako galerazo. Giza banako bakoitzari eta herri bakoitzari zor jako eskubide hori.

2. Kapituluan ikusi daikenez, Autonomiadun Estatutoek hizkuntza propioaren erabilera arautu eta ofizialtasuna onartzen bakarrik ez dira geratu. Euskal Estatutoak hizkuntza bien ofizialtasuna arautzen dau (horretarako eskumena hartuaz). Gaztelera be ofiziala danaren autorpena sartzen dau 6.1 artikuluan.

Nahiz eta indar gitxiengoaz izan, gaztelera bera be arautuz, Euskeraren Erabilera Arauezkotzeko Legeak (1go art.) jokabide hau jarraitu dau.

Konstituzioak aurreikusita eta Estatutoz emonda Autonomiadun Elkarteak hizkuntza eskubide eta erabilera arautzeko ahalmena dauka, gaztelerari dagokionez Espainiako Konstituzioko 149.1.1 artikulua kontutan harturik.

3. Kapituluan, Euskal Herrian euskeraren eta gazteleraren ofizialtasun bikoitza aztertzen da.

Euskal Herrian bi hizkuntzak, euskera eta gaztelera, dira ofizialak. Bi hizkuntzen ofizialtasun bikoitzak legezko hizkuntza tratamendu bardina zor jakela eta balore bardineko ondorioak sortzen dabezela adierazoten dau. Eta bi hizkuntzak ofizialak badira, ezin dau batak bestea baino ofizialagoa izan.

Lege ikuspegitik eta ondorenei begiratuta, Euskal Herrian edozein hizkuntza ofizialetan egiten diran ekintza juridikoak baliokoak dirala eta ondorio juridikoak izango dituela esan nahi dau ofizialtasunak. Ofizialtasunaren eskubidedunaren aldetik, herritarrak hizkuntza ofiziala ezagutu eta erabilteko eskubidea dauka.

Ofizialtasun bikoitza legezkotzeak, beragaz dakar zuzenbidezko balio mailan behintzat hizkuntza bien arteko bardintasun osoaren oinarria.

Euskal Herriko ofizialtasun bikoitza aztertzean ezin dira ahaztu Konstituzioaren gaztelera ezagutzeko manua eta Gernikako Estatutoak euskerari egiten deutson harrera. Nahiz eta herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubide aldetik bardintasun kutsua osorik gelditu, bai gaztelera menperatzeko mugaketa horrek eta hizkuntza propioaren alde egon nahiak, euren garrantzia dabenik ezin da ukatu.

Azken baten, ofizialtasun bikoitzaren sistema osoaren erdigunea, herritarra dala esan daiteke, era honetan funtzionario eta herritarraren arteko ezegonkortasun linguistikoa sortzen danean, ofizialtasun bikoizdun diran lurraldeetan, elementu mugatzaile bakarra herritarra da; berak aukeratzen dau, administrazioaren aurrean eukiko dauan hizkuntza eta funtzionarioak ezin daikio aukeratu bako hizkuntzaren erabilera inposatu.

Herrisailaren arloan eta batez be funtzionarien baldintzetan euskera eskatzerakoan, nahiz eta euskera hizkuntza ofiziala izan, euskeraren balorazioa Auzitegi Gorenak bereizkeriatzat eta Konstituzio-aurkakotzat joten izan dau, bardintasun-oinarriaren aurkakotzat hain zuzen be.

Baina, Euskal Herrian inondik be inork onartu ezin daikena zera da:

Auzitegi Gorenari euskera dala-eta eragozpenak jartzen jarraitzen iztea, eta bere oztopo-bideagaitik Lurrakdeko Auzitegiaren jokabide zuzena aldatu eragitea. Horretarako ez dauka inongo eskubiderik.

Konstituzio-Auzitegiaren hizkuntzei buruzko jokabidean egun bat dago beste danen gainetik gogoan eukitekoa: 1986/06/26a.

Konstituzio-Auzitegiak, 1.986ko Ekainaren 26ko hiru epaietan, hirurak egun berean eta ponentziagile berberak emonak diranez, ofizialtasun bikoitzari buruzko teoria orokor antzeko bat ezarri nahi izan dau. 1.982/10. Euskal Legeari buruzko epaiak, lehen sei zuzenbidezko oinarrietan (aurreratzean ZO), planteiamendu orokorra egin nahi dauala argi dago. ZO honeek, galiziar legeari buruzko epaiaren 2. ZOgaz batera, batzen dabe funtsean teoria orokor hori.

Konstituzio-Auzitegiaren jarrera ez da bardina, eta bere errazoibideak kontraesanak dabezan jarraibideak ditu. Hizkuntza propioaren eta normalizazioaren gai garrantzitsuak, batez be Euskal Herrian, alde batera izten ditu. Larriena, zera da, Euskal Legeari buruzko epaian dagozan oinarri orokorrak zehatz aplikatzerakoan ateratzen diran desakortasunak egotea.

Euskal Herriak, ezin dau onartu osorik eta osoan ulerkera hau, herritarrak ezin dau gehiago jasan herrisailaren atzerapena eta bere erantzunkizun falta.

4. Kapituluan, "Oinarrizko Eskubideak eta jatorrizko hizkuntzen babesa" ikasterakoan, Kulturgintzaren arloan gitxiengoari dagokion eskubidea zerzelakoa dan erabagi nahi da, ea kulturazko barrutia osotzen dauan herriari berari doakion eskubide hori lehenengo eta behin, ala Estatuek menpeko herrien kulturazko bizitzari eragozpenak jartzeko inongo eskubiderik daukien edo ez.

Gitxiengoaren berezitasunak, gitxiengoaren ingurua Estatu barruan eta gitxiengoaren arazoa nazio-arteko erakundeetan aztertu dira.

Eta Euskal Herriari begira atera dogun ondorioa zera izan da:

Euskal Herriak Kulturazko barruti berezia osotzen dauanez gero, Kul-

turgintzaren bidea eta zer-zelakoak erabagitzea herriari berari doakio lehenengo ta behin. Norbere herrigintzarako eta Kulturgintzarako bide bakarra herriak berak dagiana da. Hoixe da, hain zuzen be, herriari zor jakon Kulturgintzaren zorra.

"Kulturgintzaren eta hizkuntzaren tratamendua Europan" 5. Kapitulan aztertzerakoan, Euskal Herriko euskaldunen egoera Europako beste hizkuntza alkarte askoren antzekoa ez danik ezin da esan.

Bardintasun oinarria, Konstituzio-sistema gehienen zutabetariko bat bihurtu da. Hizkuntzari dagokionez, hainbat Konstituziok hizkuntzaren arloa bereziki babesten dau, gehienetan arau baten bidez hizkuntza mailan bereizkeria ukatuz. Esaterako, Alemaniako Oinarrizko Legean (3. art.), Italiako Konstituzio (3. art.), Greziako Konstizuzioan (5. art.), e.a.

Baina, hizkuntza mailan bardintasun oinarria, "dana bardin danentzat" lez ulertuta eta azkeneraino eroan ezkero, arriskugarri izan leiteke. Bereizketa bako bardintasuna ez litzake aberatsa eta egokia izango, eta askotan benetako bardintasunetik urrun gelditzeko arriskua sortu leiteke.

Bestalde, jatorrizko hizkuntza ezbardinen babesa Oinarrizko Eskubideen bidez hartzen bada, benetako babesak (justizia, bardintasuna) ingurualde batzuetan salbuespenak eta baita tratamendu ezbardinak be eskatuko ditu.

Gitxiengoaren aldeko babesak arau edo oinarri gehiagarriak eskatzen baditu, justiziaren eta bardintasunaren izenean zor izango jakoz.

Autore eta Konstituzio Auzitegiak hizkuntza mailan be berezitasunak bereizten hasiak dagoz. Eta adina, sexua, osasuna, e.a. bereizketagai badira, hizkuntza zergaitik ez?

Politikarien eta epailarien jokabidea, garrantzitsua eta oinarrizkoa bihurtu daiteke. Gitxiengoak babesteko, gehiengoaren aldeko bereizkeriak aldendu beharko dabez lehenengo, eta gero, gitxiengoari zor jakozan bereizketak antolatzeko ahaleginak egin.

Legebide barrion joan-etorria aztertu eta gero, ondorio batzuk atera nahi neukez. Baina aurrez, ondorio horreetarako erabiliko dodan epaibidea non errotzen dodan azaldu beharrean nauzu:

1. Erabagi izan diran legezko arau barriak epaitzerakoan, arau horreen oinarritzat-edo joten diranak hartu behar dira lehenengo kontutan. Holan, herrikide bakoitzari zor jakon askatasuna, bere eskuko hizkuntzaren jabe gerta edo gertatzeko askatasuna. Herrikide guztiguztiak askatasun bardinez, bardintasunez, jokatu daieneko eskubidea.

2. Eta hartu diran legezko arau eta erabagiak bidezkoak ete diran ala ez, onak ala txarrak, zuzenak ala okerrak, egokiak ala desegokiak, era honetara erabagi beharko dala uste dot: ea arau edo lege horrek bideratzen dauan gizarteko gertapenak esandako oinarri hareek egiaztatzeko biderik emoten dauan ala ez neurtuz.

3. Baina herrikideari, hiztun jakina danez, eskeintzen jakon askatasunbardintasunak ez dau gizarteko gertapenean sekulan egoera bat bera agertarazo ahal izango, berez dago-ta hamaika desbardintasun egunetik egunera hartuemon estuagotan bizi diran mundu honetako hizkuntzen, eta, beraz, hiztunen artean. Euskaldunak, esaterako, ez dau ingelesak beste aukerarik izango eguneroko barriak bere jatorrizko hizkuntzan jaso ahal izateko.

4. Hemen legezko baldintzetaz gabilzanez, eta berariz dagokion indarrean daualarik eraginbidea gizarteko bizitzan, arazoa honetan jarri beharko geunke: ea azken urteotako legezko aldaketek zer zelako ondo rioak dabezan, halan gura daben euskaldunak euren jatorrizko Euskal Herrian euskeraz bizi daitezan.

Gure galdera, hala ere, zehatzagotu nahi geunke. Jakin edozeinek daki, gizarte bizitzako ohiturak aldatzeko asmotan egiten diran legeak, idatzi azkarrago egiten dirala bete baino. Beraz, galdegiten doguna ez da, euskaldun bat edo bestek burutu ete leikeen bere ohizko gizarte bizitza euskeraz edota hala nahi leukeen edozein euskaldunek burutu ete daikezan bere gizarteko hartuemon danak euskeraz. Mugetan

ez baino areago, ohizko batazbestekoan erabagi behar baita legeetan esana gizarte bizitzan.

Ez dogu, beraz, oraingoz galdetuko, ea Biaisterriko seme-alabek han bertan euren ohizko bizitza euskeraz burutu daikienik. Euskeraren Aholku Batzordeak euskeraren politikarako oinarrizko kriterologia erabagi ebanean, esandakoa hartuko dogu aintzakotzat, alegia,

> "Lehentasuna Euskara nagusi den tokiei, hizkuntzarentzat eta bere bizirako ezinbestekoak diren arloei eta euskara erabilgarri bat posible egiten duten medioei eta lanei eman behar zaie" (1).

Aukera honen errazoia Euskeraren Aholku Batzordeak berak dakar:

> "Hizkuntza batek etorkizunik izan lezake gizarte bizitza arrunt eta normalean ohizko bihurtzen bada, gizarte bizitza giroa, etorkizun segurantzarik gabe dagoen hizkuntza euskera bada, euskalduntzen denean" (2).

Esan bezala, beraz, galdera zehatzagotuz, zera galdegiten dogu: ea azken urteotan Euskalerriko Autonomi elkartean hartutako legezko erabagiek ahalbideratzen ete daben, halan nahi dabenek bertan euren ohizko bizitza euskeraz burutzea.

Gernikako Estatutoa lortu danetik eta beronen bitartez Hego Euskalerriko Autonomi Elkarteak aginte maila bat berreskuratu dauanetik, herri-agintaritzak erabili dituan arau eta baliabideak aukera hori bideratu eta zihurtatu ete daben aztertzeko, Ertzaintzarekiko gizarte hartuemonen eta Irakaskintzaren hizkuntzazko baldintzapenak jorratuko ditugu.

Adibide lez Ertzaintza eta Irakaskintza aukeratzea ez da, inola ere, ziorik bakoa:

a) Ertzaintza da, ia erabat Herri araugintza barriaren baitan sortu eta osatzen doan herri erakunderik nagusienetakoa. Beraz, erakunde horrena aztertuz ikusi daiteke, legegintza barriak zer-zelan ahalbideratzen dauan euskaldunak herri erakundeekin euskeraz burutzea

bere hartuemonak.

b) Irakaskintza da, bestalde, hitzez ontzat emondako helebiko gizarte eredua gauzatzeko, alegia herrikide dan danak gazteleraz ezezik euskeraz gizarteratzeko, bitartekorik gehienak bereganatu eta esperantzarik haundienak sortaraz dituana, gaur bertan ezpada ere, biharko ez urrutiegian herrikide danok elebidun gerta gaitezan.

Ea bi barruti honeetan euskeraz hitzegin eta euskeraz bizi nahi dauan herrikideak zer-zelako erantzuna jasotzen dauan galdegitea, legezko ikerketa batetakoa baino areago, gizartearen soziologi azterketari lotuago legokeela esan leike norbaitek. Eta agian, izan ere hala izan leiteke. Hala ere legeen egokitasuna ala desegokitasuna ezin epaitu daiteke euren gizartezko eragina aztertu eta ikusi barik. Hareago: lehenago esan dogun bezala, helburu eta goiburuak lortzen diran ala ez, beti izango da nolabaiteko neurria, gitxienez bitarteko bezala hartu diran legeen egoki-desgeokitasuna epaitzeko.

Asmo horretan dakarguz bada adibideok.

a) Ertzaintzaren barrutia

Ertzaintza eta Autonomi Elkartean euskaldunak euskeraz bizi ahal izateko legedi barria, bi-biak dira Genikako Estatuo bat beraren eraginez eta Espainiako Konstituziotik jaioak. Ertzaintza, hain zuzen, euskerari buruzko lege barrien babesean edota eragipen berean sortzen eta hazten datorren herri-erakundea dogu.

Zer-zelan erantzuten deutso erakunde honek, euskeraz bizi nahi dauan herrikideari, eta zer-zelako zerrikusia dauka erantzun horrek gaur eguneko legezko baldintzekin?

Lekukoak emoten hasita, geuri gertatuak eskaini daikeguz. Ohituraz beti euskeraz egiten badeutsagu edozein ertzaini, baina sarritan erantzunik euskaldunena, "gazteleraz mesedez" izaten da.

Ez gara, ordea, hortik abiatuko. Aurten bertan Elena Olabarri andere doktoreak (3) aurkeztu dauan ertzaintzari buruzko tesi-ikerketan oinarrituko gara. Tesia honen helburua, hain zuzen, zera da: Euskalerriko Autonomi Elkartean bilakatzen ari dan polizi-eredua ikertzea eta, bertan aztertzen dira, ezinbestean, hizkuntzari buruzkoak.

Espainako Konstituzioko 149.1.29 artikuluak Autonomia Elkarteen eskumena onartzen dau bakoitzak bere polizia sortzeko. Gernikako Estatutoak bere 17. artikuluan eta 4. erabagi gehigarrian eskumen horren barria jasoten dau.

Ertzaintzaren legezko baldintzak, baina, ez dira ikerketa horren helburu, bere gizarteko gertakizuna baino. Eta horretarako beharrezko datuak bi eratara ditu Olabarri doktoreak: batetik inkesta luze baten bidez, eta bestetik Ertzainekin egindako alkarrizketa sakonak izan dira informazio-iturri.

Gure sailera etorririk, adigarri da, alkarrizketa horretako batean ertzain batek dinona:

"Me vino un señor a preguntar en euskera y le dije que no sabía euskera, que me hablaría en castellano y me contestó el señor en castellano:

'Bueno cuando sepas euskera vendré a hablar contigo' y se marchó" (4).

Jazoera honek salatzen dau gaur egun herri erakundeetatik euskaraz galdegiten dauan euskaldunak bere jatorrizko Euskalerrian jasotzen dauan erantzuna.

Herri-erakundeekiko herri-erabakiek zera dinoe: euskeraz hitzegin eta bizi nahi dauan euskalduna ez dala gitxietsia izango gazteleraz hitzegin eta bizi nahi dauan herrikidearekin alderatuz, Euskalerriko Autonomi Elkarteari dagokion barrutian.

Eta jakina da hori horrela gertatzen ez bada, nagusiki, honegatik dala: herri erakundeetan lanean dihardunetako askok euskararik ez dakielako. Beraz, gure adibidera etorririk, ertzain danak, euskaraz jakin barik, ezin eskaini leitekio euskarazko erantzunik inori.

Ertzainaren polizi ereduak euskeraz bizi nahi dauan euskaldunari aukera hori eskeintzea bere baldintza oinarrizkoetan legoke, baina Ertzaintzan euskeraren ezauguera oso eskasa da. % 18,3a da euskeraz jarduteko eragozpenik ez daukana. % 62,4ak akademian hartutako klaseak ditu bakarrik (5).

Esan bezala, asmoa ertzain elebidunak izatea da, Gernikako Estatutoaren baitan sortutako herri-erakunde bati dagokionez. Eta, noski, asmo horretan hartu ziran hainbat erabagi. Gertakizunak ordea, gertatzen jakuna erakusten deusku, eta ez asmotan adierazo zana.

Arazo honen azpian, badago legezko auzi sakon bat, paradigma lez erabili daitekena:

a) Edozein herrikidek dau eskubidea ertzain izateko.

b) Ertzainak euskeraz eskaini behar deutso zerbitzua halan eskatzen deutson herrikideari.

Arazoak ez dau teorian gehigizko korapilorik: ertzaina izan gura dauan herrikideak ikasi daiala euskeraz eta kito. Baina, auzia zera da: noiz eskatu behar ete jako euskara, ertzaintzarako ikastaroak hasi aurretik, bitartean, ondoren edo halako epe batean.

Guk esan daikeguna zera da: orain arte erabili diran bitartekoak ikusita (legezkoak eta gainerakoak, baina baita legezkoak ere), ez dagoela gehiegizko esperantzarik, euskaraz bizi nahi dogun euskaldunok, ertzainengandik bigarrengo mailako herrikideak bezala tratatuak ez izateko.

Izan ere, batez ere euskeraz ez dakien ertzainen euskerarekiko jarrera ez da, euskeraz ikastera bultza eragitekoa. Hona hemen lekukoak. Ertzain ona izateko euskeraren beharrizanik % 52k ez dau ikusten. Euskerari emoten jakon garrantziari begira, Ertzaintza talde bardintsu bitan banandu daiteke. Euskera dakianak euskeraren beharrizana ikusten dau (%65), eta euskeraz ez dakianak euskeraren beharrizanagaz ez dago konforme (%64,1). Euskera falta honen aurrean, % 17,4 dira euskerazko klaseak hartzen dabezan ertzainek, eta % 82,6 klase barik geratzen diranak (6).

Euskerarik gitxien dakienak dira ikasteko gogo gitxien dabenak (% 12), nahiz eta kostata izan euskeraz egiten dabenen artean % 35ra igoten da euskeraz ikasi nahi dabenen kopurua (7).

Euskeraz ikasteko grina falta honetatik aparte, gogoangarri da euskeraz ez dakian ertzainari euskeraz egiten deutson herritarraren aurrean ertzainak hartzen dauan jarrera. Olabarri irakaslearen azalpenak eta eritxia laburtuz Ertzaintzan euskeraz ondo erabilten ez dabenen artean, % 50ak herritarren jokabidea ulertzen dau eta beste % 50ak, edo ez dau erantzuten, edo herritarren jarrera hori molestagarritzat edo trauskilkeriatzat hartzen dau (8).

Azaldu ditugun jarrera honeek, alkarrizketetan be agertzen dira. Eta harek eta honek, bere burua zurituz edo, jartzen dau hainbat zio euskararik ez jakiteko: "denporarik eza, erakundeek eskeinitako euskerazko klaseen falta edo irakaslerik eza" (9). Hala ere, euskerazko erantzuna eskatzen dauan herrikieak ezin leike emon garbitutzat arazoa horrelako aitzakiekin.

Jakin ondo dakigu, legezko erabagi soilen indarrez ez dirala gizarte egoerak aldatzen, baina hizkuntzagaitik eta hizkuntzari buruzko jarreragaitik bereizketarik egiten ez bada Ertzaintzarako kideak aukeratzerakoan eta gertatzerakoan nabarmena da gero euskaldunaren aurkako bereizkeria egiten dala.

Bereizkeria hori, gaur egun Euskal Herrian bizi dan gehiengoak onartuko baleu be, bidegabekeria izango litzateke, euskaldunei euren ohizko bizitza euskeraz burutzen ez jakelako izten munduko inongo inon.

Bereizketa horrek ezinbestekoak dira, baldin eta ertzainak herrikideei bardin, alegia bakoitzak eskatzen dauan hizkuntzan, erantzun ahal izateko.

Euskeraren legezko baldintzak badira. Euskera Euskal Herriko eta Herriaren hizkuntza izateaz gainera, euskera ofiziala da. Administrazioak Ertzaintza sortzean zerbitzu elebiduna eskeintzeko legezko eragozpenak baditu, eta herri-erakundeen eta herrikidearen hizkuntza egoerak alkar topo egiterakoan, herritarrak dau lehentasuna.

Euskeraz bizi nahi dauan herrikideari behar haina aukera eta eskubide orain eta hemen eskeindu beharreko orduan, era bitako eragozpenak izan daitekez: <u>beste giza eskubide batzuekin topo egitea edota inolaz ere ezinezkoa gertatzea.</u>

a) <u>Beste baten eskubidea.</u>

Zenbait giza eskubide bete ezina da, beste giza Eskubide nabarmenago bati kontrajartzen jakolako. Edozeinek dau eskubidea, bere hizkuntza dala-eta diskriminatua ez izateko. Baina nik, euskaraz besterik ez jakinda, Erroma-ko aideportuan ezin lortu daiket batbateko informaziorik, han lanean diharduanak ere badaualako eskubiderik, euskeraz jakin barik bere lanean aritzeko. Baina gu aztertzen ari garan kasuan besterik bada: ez dago herri sailik, ez atzerrikorik, gitxiago oraindik Euskalerrikorik, euskaldunari Euskalerrian euskeraz bere ohizko bizitza burutzeko eragozpenak bidez sortu leikiozanik. Honetan, herri sailean lanean aritzeko edonork leuken eskubidea, edozelan be, euskaldunak bere herrian euskaraz bizitzeko dauan euskubidearen menpeko geratu behar leuke beti.

b) <u>Praktikan ezinezkoa izatea.</u>

Gure kasuan, esaterako, ezinezkoa da euskeraz eta gazteleraz, bietara dakien herrikideak bakarrik ertzain izatea. Hori holan ez dala edozeinek daki: bai baita hainbat herrikide bietara oso ondo moldatzen danik. Baina egin kontu, ez jakola ukatu nahi inori, nahiz eta euskerarik

ez jakin, ertzain izateko aukera. Horrenbesteko luzera ez izatea muga gaindiezina bada, euskeraz ez jakitea beste horrenbeste izatea ez dirudi bidegabekeria. Kontua beraz, zera litzake, ea lortu ete daiteken ertzain izateko gertuketan euskeraz erakustea. Horrelakorik lortu daikela nabarmen dago gure herrian bertan. Aurrena, uste dot, Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskola izan zala, euskeraz ez ekienak ere hartuz zinezko irakasle elebidunak eskeini zituena 1980tik aurrera.

Ez da berez giza eskubide nagusiagorik zanpatzen, ertzain elebidunak eskatzean, eta ezinezkoa ere ezta praktikan. Beraz, kontua, gure kasurako zera da: gaur egun, hori holan ez gertatzea -eta euskaldunen kaltetan, elebakarrak gure artean erdaldunak baidira- loturik dago legezko beste zenbait alderdiri. Edota legeak onak dira, baina ez dira betetzen, eta beraz, legeak indarrik ez dau berak dinoana betearazoteko, edota legeak ez dira egokiak eta aldatu beharra dago.

b) Irakaskintzako barrutia

Herri Sailaren elebitzearen adibide bezala ekarri dogu Ertzaintza. Baina, gure artean, Herri bezala, Gernikako Estatutoaren inguruan nagusitu zan hitzarmenak ez eban Herri Saila bera helburu lez hartzen, Autonomi Elkarteko gizartea bera baino. Elebidun asmoetan aritzean, beraz, gizarte elebiduna nahi dala esan nahi da.

Baina nola lortu gizarte bat elebidun egitea, erdiak baino gehiago elebakar badira? Beste barik ez behintzat etxetik edo kaletik edo lanetik. Hona hemen, gizarte elebidunaren eta irakaskintzaren arteko lotura.

Baina hortaz aparte, badago beste lotura bat. Herri Sailean, orohar, baina irakaskintzan bereziki, aurreko urteetan euskara baztertua ezezik, euskaraz mintzatzen zana zigortua izaten zan eta. Irakaskintzaren baitan, beraz, zor jako euskarari ukatu jakon tartea.

Irakaskintzaren bidez, dana dala, asko lortu nahi da, ohargabean ala ohartuki, euskarari dagokionez:

a) biharko eguneko gizarte elebiduna gertutu behar da;

b) gizabizitzaren ohizko kultura sortu, adierazi eta zabaltzeko gai izatea euskara bera ere.

Gizarte bizitzari dagokion hitzarmen zabal honetan, batez ere geure jatorrizko Euskalerrian euskaraz bizitzeko aukera eskatzen dogunok, honako esperantza honeek jarri doguz:

- orain bertan ez bada ere, gizarte elebiduna izango dala gurea eta, beraz, ez garala geure herrikoen artean erderara behartuak gertatuko gizarte bizitzan;

- eta helburu hori lortzeko bitartekoak jarriko ditugula danon artean, batibat, eskola eta irakaskintzaren bitartez.

Asmo horrek lortzeko, gurasoak, irakasleak eta ikasleak bat etorri behar

dabe. Gurasorik gehienek gitxienez elebidun nahi dabez euren seme-alabak. Kontua irakasleengan dago, euren gaitasunean alegia horrelako gizarte asmo bati erantzuteko. Irakasleak gai badira, ikasleek ere egoki erantzun ohi dabe gehienetan.

Ertzaintzarekin ez bezala, gure ikastola eta eskoletako irakaslegoa, neurri haundi batean, lehendik datorrena da. Baina, arazoak ez dira makalak.

Guri dagokigun ikusgunetik begiratuta, zerako hau autortu behar dogu: Euskalerriko Eskolak bere osoan ez dauala lortzen gizarte elebidunik.

Helburu hori lortzen ez bada, zioak sail eta barruti askotan aurkitu beharrekoak izango dira. Baina baita, legezko araudietan ere. Eta gakoa honetan dago: helburu hori lortzeko eragozpen diran irakasleekiko, zer-zelako jokabidea hartu behar da? Esan ete leiteke, irakasle batek erakusteko dauan eskubidea, aipaturiko gizarte asmoaren gainetik jarri behar dala?

Asmoa argi dago, eta, hartutako hainbat erabagitan horrela adierazo da: Gernikako Estatutoa onartu (1979-12-19) eta urte batetara, hezkuntzako zerbitzuen eskumenak Euskal Herrira bihurtzea erabagiten da, eta 1981-01-01tik indarrean jartzen dira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailaren 1983/138 Dekretuak (uztailak 11), hizkuntza ofizialen erabileraz dihardu. Dekretu horrek garatzen dau Euskeraren Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legea.

Ikusi daitekenez, hezkuntza elebiduna izateko legezko baldintzak badira. Eta eskolaren bitartez, zor horren ordainkizuna epe laburrean itxaroten genduan. Baina legez onartu eta eskeintzen dana, giza bizitzan gaur bertan bideratzea ezinezkoa gertatzen da. Eta oraingo une honetan irakaskintzan aldaketa oso hau eskatu ezkero, etenaren arriskua legoke. Eta nahiz eta Euskal Herrian, gaztelera eta euskera ofizialak izan, bi hizkuntzetatik nahi dana aukeratzeko eragozpenak badagoz hezkuntzan be. Herri-agintaritzaren izenean ezin jako euskeraz hitz egin nahi dauanari edo/ta euskeraz irakaskintzak egin nahi dauazanari eragozpenik jarri. Ez hori bakarrik, nahiz eta euskal taldea gitxiengo bat izan, herri-agintaritzak gitxiengo horri bere ohizko bizitza euskeraz egiteko baldintzak zor deutsoz eta herri-agintaritza legez behartuta dago baldintza eta medio horreek eskeintzera. Baina gaur egungo Euskal Herrian bi hizkuntza ofizialen artean oso zaila da bardintasun baldintzak emotea, legearen eta

errealitatearen artean ezbardintasunak emonez.

Euskal Herrian 27.421 irakasle dagoz, eta euretatik 10.689 irakasle dira EGA tituluan jabe diranak. Goiko mailetan, proportzioan, euskerazko tituludun gitxiago dagoz (10).

Ikasturte guztietan B eta D ereduetan sartu nahi daben ikasle asko baztertuak dira irakasle faltagaitik edo beste batzuetan, ikasgelako guraso guztiak alkar konpondu ez diralako.

Bestalde, Magisterio Eskoletan irakasle euskaldunak sortu dira, baina gazteleradunak euren irakasle tokietatik ez kentzearren, euskaldunak eta euskeraz ondo gertauta dagozanak langabezian dagoz eta irakasle gazteleradunak Euskal Herrian klaseak emoten euskeraz ikasteko asmorik barik.

Euskal Herrian Eskolaurrean eta OHOean irakasle izan nahi dauanak euskera eta gaztelera jakin behar leukez (11). Hizkuntza biak dira ofizialak, eta gela baten andereñoak hizkuntza biak irakatsi behar ditu.

Hezkuntzan irakaslea da euskeraz ikastera behartu behar dana. Euskera ezin dauala ikasi dinoan iralaslea, ez da nor Euskal Herrian irakasle izateko. Euskal Herriko herrikideek euskeraz bizitzeko asmorik daben artean behintzat, legeak ezin dau onartu peto-peto euskalduna dan irakaslea langabezian euki eta gazteleraduna ume elebidunen geletan irakasle irautea.

Aipatzekoa da hemen Europako Elkarteetako Justizi Auzitegiaren 1989ko azaroaren 28ko Epaia. Langileen zirkulazio libreari buruz eta harrerako herriaren hizkuntza ofizial baten ezaupenari buruz da Epaia. Justizi Auzitegiaren ebatzia hauxe da:

> "Dubligo High Court-ek 1987ko abenduaren 3ko ebazpen bidez planteatutako gaiei buruzko eritzia emanez, deklaratzen du: 'Lanbide hezkuntzako zentro publikoetan dedikazio esklusibozko irakasle titular lanpostua, hizkuntza ezagupenak justifikatzen dituen izaera duen enple

gua da, Kontseiluaren 1612/68 Arautegiaren 3 artikuluko 1 apartatuko azken paragrafoan xedatutakoaren arabera, beti ere, hizkuntza eskakizun hau, aldi berean lehen hizkuntza ofiziala den hizkuntza nazionalaren sustapen politika batenbarnean kokatzen bada, eta eskakizuna neurriz eta diskriminaziorik gabe aplikatzen bada.' Luxemburgon jendeaurreko epaialdian emana, 1989ko azaroaren 28an" (12).

Epai honetan, lanbide hezkuntzako zentro publikoetan irakasle titular lanposturako beste Estatu batetik etorritako irakasleari, irakatsi nahi dauan herri honetan hizkuntza ezagupenak eskatzen jakoz. Eskakizun honen baldintzak, hizkuntza ofiziala izan eta eskakizuna neurriz eta diskriminazio barik egitea dira.

Azken urteotan Euskal Herriak euskeraz ikasi nahi dauan ikasleari emon deutsozan arau eta tresnekin ez dau lortu ume horri dagokion heziketa mota egoki eta bidezkoa bideratzea. Egoera horrek euskaldunontzat ezin dau holan jarraitu, euskera ohizko hizkuntza bizitzan bihurtzen ez dalako. Arauak ez dira egokiak, ez dira egoki erabilten edo ez dira beteten. Euskeraren erabilera osoa bizitzan ez da segurtatzen.

Arauek ez dabe biderik emoten edo/ta ez dabe indarrik euskeraz bizi eta hezi nahi dauan herrikideari zor jakon hezkuntza askatasuna lortzeko. Herrikide guztiak hezkuntzan ez dabe askatasun bardinez jokatzeko eskubiderik. Nahiz eta ofizialtasunak ekarri euskera erabilteko eskubidea, gaurko hezkuntza-sistemak euskaldun taldeari bere ohizko bizitza euskalduntzeko behar diran pausoak ez deutsoz emoten.

Sistema hau legez eta praktikaz elebiduna izateko gai ez bada, salatu eta zapuztu daigun. Sistema hau gauza ez bada, euskeraz bizi diranak gitxitzen joango dira eta gazteleradun umeak ugaritzen.

Oraingo legezko baldintza honeek, lege honen zutabetzat hartu ditugun oinarriak betetzeko gai ez badira, eta epe labur batetan egokitzen ez badira behintzat, ez litzateke bidezkoa egoera honetan aurrera jarraitzea.

Ertzaintza eta Irakaskintza hartu ditugu adibide lez. Osakidetzan,

Udalzaintzan edota beste hainbat arlotan elebitzeko asmoa betetzen dan aztertuko bagendu, elebitasunaren hitzarmena lortzeko legez emon diran arauak ere zalantzan agertuko litzatekez.

Azken ohar lez, zera esango geunke: ea legegintzak bidezko jokabidea bultzatzeko, asmoaz gainera, bidean gertatzen dana gogoan hartu behar dauan, batez ere esperientzia gitxiko barrutietan eguneroko bizitza arautzeko orduan.

OHARRAK

1. EUSKO JAURLARITZA. EUSKERAREN AHOLKU BATZORDEA. Euskeraren Politikarako Oinarriak. Gazteiz 1.983, 23 or.

2. EUSKO JAURLARITZA. EUSKERAREN AHOLKU BATZORDEA; O.C., 24. or.

3. OLABARRI FERNANDEZ, ELENA; Analisis Sociologico de la profesión Policial: La Ertzaintza como caso de Estudio. Universidad de Deusto - Facultad de Ciencias Politicas y Sociologia 1989.

4. OLABARRI FERNANDEZ, ELENA; O.C., 186 or.

5. Ikus: OLABARRI FERNANDEZ, ELENA; O.C., 187 or.

6. Ikus: OLABARRI FERNANDEZ, ELENA; O.C., 188-189 orr.

7. Ikus: OLABARRI FERNANDEZ, ELENA; O.C., 190 or.

8. OLABARRI FERNANDEZ, ELENA; O.C.; 192 or.

9. Ikus: OLABARRI FERNANDEZ, ELENA; ANEXOS I: Entrevistas; 241-243 orr.

10. Iturria: Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza Saila). 1990.

11. Ikus: MILIAN I MASSANA, ANTONI; La obligación de los profesores de EGB de conocer el Catalán y el Castellano para ocupar plaza definitiva en Cataluña, in Autonomies: Revista Catalana de Derecho Público, 2/3 zb., 1985 Abendua, 93-104 orr.

12. INTERBASK S.A.; Europako informazio biasterokoa DEINTERBASK, 3 zkia. 1990ko otsailaren 1.a, VIII-IX or.

BIBLIOGRAFIA

AGIRREAZKUENAGA, I.; "El euskera discrimina al castellano a juicio del TS. La igualdad lingüística efectiva a debate", in: RVAP, 9 zb., 1.984.

- "La estructura normativa del euskera en la Comunidad Autónoma del País Vasco", in: RVAP, 14 zb., 1986.

- "Dos autos como paradigma de la ideología judicial sobre el euskara", in: RVAP, 21 zb., 1988.

AGIRREAZKUENAGA, I., eta COBREROS, E.; "La normativa sobre el Euskara publicada durante 1984", in: RVAP, 11 zb., 1985.

- "La normativa sobre el Euskara publicada durante 1985", in: RVAP, 13 zb.; 1985.

- "La normativa sobre el Euskara publicada durante 1986", in: RVAP, 16 zb., 1986.

- "La normativa sobre el Euskara publicada durante 1987", in: RVAP, 19 zb., 1987.

ALZAGA, OSCAR; "Comentarios a las Leyes Políticas, Constitución Española", in: Revista de Derecho privado, EDERSA, Tomo I, Madrid 1.983.

ARCE JANARIZ, ALBERTO; Comunidades Autonomas y Conflictos de Leyes, Editorial Civitas, Madrid 1.987.

BACHOF, OTTO; Jueces y Constitución, Editorial Civitas, Madrid 1.985.

BAÑO LEON, J.M.; "El ejercicio del pluralismo lingüístico en la Administración Pública", in: REDA, 54 zb., 1987.

BAZTARRIKA GALPARSORO, PATXI; Udal Administrazioan Euskararen erabilera Normalizatzeko tresneria. Andoaingo Udaleko 1/88 Ordenantza. Donostia, 1.988ko Urria.

BONAPARTE, L.L.; CARTE DES SEPT PROVINCES BASQUES. Délimitation actuelle de l'euskara et sa division en dialectes, sousdialectes et variétés. Londres, 1863.

BOCH, O.; "Pluralismo lingüístico y Constitución: Aproximación teórica y comentario a la reciente jurisprudencia constitucional", in: Poder Judicial, 17 zb., 1987.

CAHNER, MAX; Lengua y Democracia, Avui, 1.985.

- Resistencias a la normalización lingüística, Avui, 1.986.

CANO MATA, ANTONIO; "El principio de Igualdad en la doctrina del Tribunal Constitucional", in: EDERSA-Editorial Revista de Derecho Privado, Editoriales de Derecho reunidas, Madrid 1.983.

CAPOTORTI, F.; Études des droits des personnes appartenant aux minorités ethniques, religieuses et linguistiques, (Nations Unies), New York, 1979, Publié sous la cote E/CN. 4/506. 2/384/Rev.I.

CASTELLES ARTETXE, JOSÉ MANUEL; "Actualización de régimen Foral en Euskadi", in: Cultura Vasca I, Erein.

- Proceso de construcción y desarrollo de la Función Pública Autómica. Colección: Nueva Investigación, Editorial Instituto Nacional de Administración Pública Alcalá de Henares, Madrid 1.987.

- La Euskadi autónoma y los funcionarios públicos. Erein. San Sebastián, 1980.

- "La normativa sobre el euskera", in: RVAP, 6 zb., 1983.

COBARRUBIAS, JUAN; Normalización y Planificación Lingüística en el País Vasco, Versión preliminar para presentación oral ante el Congreso Mundial Vasco, Agosto-Septiembre 1.987.

COBREROS MENDAZONA, EDUARDO; "El Régimen Jurídico de la Oficialidad del Euskara", IN: HAEE-IVAP, Bilbo 1.989.

- "Cooficialidad lingüística y discriminación por razón de la Lengua", in: REDA, 42 zb., 1.984.

- "Aproximación, a través de las normas, al proceso de normalización del Euskara en la Comunidad Autónoma Vasca", in: Rev. Col. Abogados de Vizcaya, 26 zb., 1985.

- "La Jurisprudencia del Tribunal supremo relativa al conocimiento del Euskara en el acceso a la función Pública", in: RVAP, 22 zb., 1988.

- "La normativa sobre el Euskara publicada durante 1988", in: RVAP, 23 zb., 1988.

- "Euskeraren Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak", in: HAEE, Oñati 1990.

- El Euskara en el Estatuto Vasco, in: HAEE, Oñati 1989.

COLOM i PASTOR, B.: "Els principis de la Llei de normalització lingüística a les Illes Balears", in: RJC, 1go zb., 1987.

CORBEIL, JEAN-CLAUDE; Description des options linguistiques de l'office de la langue française, Régie de la Lengue Française études, recherches et documentation, 2 zb., 1.975 l'Editeur du Québec.

CURBET, JAUME; La policia del Quebec: un model per a Catalunya?, Generalitat de Catalunya, Departament de Governació, Direcció General de Seguretat Ciutadana. Barcelona 1.987.

DIDIER, E.; Droit des langues et langues du droit au Canada, thèse de doctorat d'État, mention droit, Université de Paris I, 1985.

DIEGO, J. L.; "Comentario de la sentencia del Tribunal Constitucional sobre la Ley Básica de Normalización del Euskara", in: RVAP, 16 zb., 1986.

DORING, HANS RUDOLF; REICHENAU, CHIRSTOPH; Le Quadri Linguisme de la Suisse reduit a 2 1/2?, Editions Desertina, Berne 1983.

DUARTE Y MONSERRAT, CARLES; "El título IV, del impulso institucional, de la ley de Normalización Lingüística en Cataluña", in: Revista Lengua y Derecho, 3 zb., 1.984.

EE.AA. - BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, Lehendakaritza Saila, Hizkuntz Normalizazioa eta Funtzio Publikoa, Bilbo 1989.

EE.AA. - COMMISSION DES COMMUNAUTÉS EUROPÉENNES, Les minorités Linguistiques Dans les Pays de la Communauté Européenne, Document, Rapport de synthèse par Instituto della Enciclopedia Italiana. 1.986.

EE.AA. - DIRECCION GENERAL DE POLITICA LINGUISTICA, Para la normalización lingüística de Cataluña, El marco legal, 1.981.

EE.AA. - DRET LINGUISTIC, Actes del Simposi sobre Dret lingüístic, Barcelona,

Setembre de 1987, Generalitat de Catalunya, Escola d'Administració Pública de Catalunya.

EE.AA. - ELKAR-LANEAN, "Gure Ikastola", in: Jakin sorta, 6, Arantzazu 1.972.

EE.AA. - EUSKARAREN POLITIKARAKO OINARRIAK, Eusko Jaurlaritza Euskararen Aholku-Batzordea, Gasteiz 1.983.

EE.AA. - EUSKO JAURLARITZA, Soziolinguistikazko Mapa 1986. urteko Erroldarren araberako Euskal Autonomi Elkarteko Azterketa Demolinguistikoa. Gasteiz, 1989.

- Euskarari buruzko araubidea. Herri-Arduraralaritzaren Euskal Erakundea. Gasteiz, 1989.eko Urria.

EE.AA. - GOUVERNEMENT DU QUÉBEC, Office de la langue française. Décisions rendues en vertu de l'article 46 de la Charte de la langue française, 1.980-1.982, 1.983

- Charte de la langue française, L.R.Q., Chapitre C-11, à jour au 1º mai 1.984, date de la dernière modification: 1º février 1.984,

- L'Etat et la planification linguistique, Tome I - Principes généraux, Langues et Siciétés, 1.981.

- L'Etat et la planification linguistique, Tome II - Etudes de cas particuliers, Langues et Siciétés, 1.981.

- L'impact économique de la Charte de la langue française, Loi 101.
- Projets de règlements en vertu de la Charte de la langue française, Tels que publiés à la Gazette officielle du 24 juillet 1.985.

EE.AA. - HERRI-ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA - INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACION PUBLICA, Euskara eta administrazioari buruzko I. ihardunaldiak, Administrazioa Euskeraz 1, Bilbao 1.984.

EE.AA. - HERRI-ARDURALARITZAREN EUSKO IKAS-ERAKUNTZA - INSTITUTO VASCO DE ESTUDIOS DE ADMINISTRACION PUBLICA, Primeras Jornadas de Estudio del Estatuto de Autonomía del País Vasco, 4 Tomo I, Oñati 1.983.

EE.AA. - HERRIA 2000 ELIZA, "¿La autodeterminación de Euskadi es posible por vía

legal y/o democrática?", 70 zb., Urtarrila 85.

- "Autodeterminación de los pueblos, Un reto para Euskadi y Europa", Tomo I, 1.985.

- "Autodeterminación de los pueblos, Un reto para Euskadi y Europa", Tomo II, 1.985.

EE.AA. - III JORNADAS VIZCAYA ANTE EL SIGLO XXI - BIZKAIA XXI MENDE AURREZ, III JARDUNALDIAK, Plurilingüismo y Evolución Cultural, Comisión de Vizcaya de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Diputación Foral de Vizcaya, Banco de Bilbao, Bilbao 1.986.

ECHENIQUE, Mª TERESA; Historia Lingüística Vasco-Románica. Intento de aproximación. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia, 1984.

EISSEN, MARC-ANDRÉ; El Tribunal Europeo de Derechos Humanos, Editorial Civitas, Madrid 1.985.

ENTRENA CUESTA, R.; Comentario al art. 3 CE en la obra colectiva dirigida por F. GARRIDO FALLA, Comentarios a la Constitución. Cívitas. Madrid, 2ª edic., 1985.

ETXAIDE, YON; "Garai ilunetan idazle", in: Zeruko Argia, 829 zb., 1979.

FERNANDEZ-ESPINAR, L.C.: "La doctrina constitucional sobre el multilingüismo", in: Poder Judicial, 7 zb., 1987.

- "El alcance de la cooficialidad lingúística en el procedimiento administrativo y en la Administración de Justicia. (A próposito de las STC sobre normalización lingüística), in REDA, 58 zb., 1988.

FERNANDEZ, EUSEBIO; Teoría de la Justicia y Derechos Humanos, Editorial Debate, Madrid 1.984.

FERRER GIRONES, FRANCESC; La persecución política de la lengua Catalana, Barcelona, Ediciones 62, 1.985

FONT i RIVAS, A.; "L'Estatut lingüístitic en el marc de les relacions comercials", in: Revista Llengua i Dret, 8 zb. 1986.

FORTIN, JEAN-MARIE; Mode de participation de la banque de terminologie du

Québec au réseau de néologie - Ou le transfert de la néologie en mode conversationnel, Régie de la Lengue Française études, recherches et documentation, nº 3, 1.975 l'Editeur du Québec.

GARCIA DE ENTERRIA, E.; LINDE, E.; ORTEGA L.I.; SANCHEZ MORON, M.; El sistema Europeo de protección de los Derechos Humanos, Editorial Cívitas, Monografías, Madrid 1.983.

GARMENDIA, FRANCISCO; "Euskara y Comunidad Vasca", in: Euskaldunak V. (La etnia Vasca), Edit.: Etor. Donostia 1985.

GARRIDO FALLA, FERNANDO; Comentarios a la Constitución, Editorial Cívitas, Madrid 1.985.

GIL-ROBLES, JOSE MARIA; Control y Autonomias, Editorial Civitas, Madrid 1.986.

GUAITA MARTORELL, AURELIO; Lenguas de España y Artículo 3º de la Constitución, Editorial Civitas, Madrid 1.989.

- Sobre el artículo 3º de la Constitución: la enseñanza en "las demás lenguas de España". Universidad Autõnoma de Madrid. 1987.

GUIX, MARIE-PAULE, NELDE, PETER H.; "La planification linguistique in Belgique", in: L'Etat et la planification linguistique, Tome II. 1.981.

HERAUD, G.; Peuples et langues d'Europe, Denõel, Paris, 1.966.
- "Por un Derecho lingüístico comparado", in: RJC, 1go zb. 1983.

LAMUELA, XABIER; "Política lingüística en el Valle de Arán: las reglas del juego", in: Revista de lengua y Derecho, nº 3, 1.984.

LARRAÑAGA, I,; EGIA, G.; AMONARRIZ, K.; MULLER, I.; ETXEZARRETA, I.; GARAGORRI, X.; SIERRA, J.; "Hizkuntz Normalizazioa - Elebitasuna", in: Jakin Aldizkaria, 32., 1.984ko Uztaila - Iraila.

LARRAÑAGA, I.; SANCHEZ CARRION, J.M.; OIHARTZABAL, L.; AMUNDARAIN, D.; AGIRREBALTZATEGI, P.; AZURMENDI, J; ARACIL, Ll.V.; "Euskeraren soziolinguistika", in: Jakin Aldizkaria, 42/43., 1.987ko Urtarrila - Ekaina.

LASA APALATEGI, JOSE MARIA; Euskal Herria eta Ikastola, Edili, Donostia 1.971.

LASA, MIKEL; "Euskal Herriko Irakaskuntza Elebiduna Antolatzeko Oinharrizko

ideia batzu", in: Jakin Aldizkaria, 7., 1.978ko Uztaila - Iraila.

LAZARO FLORES, E., " El Bilingüismo en el sistema educativo español", in: DA, 203 zb., Enero-Marzo 1.985.

LEKUONA, M.; Eusko Lurra: Euskalerriko Lutelestia. Etor Arg. Itxaropena, Donostia 1974.

LOPEZ BASAGUREN, ALBERTO; "El pluralismo lingüístico en el Estado Autonómico", in: Autonomies-Revista Catalana de Derecho Público. num. 9, 1.988

MARTI I BOTELLA, JORDI; BARCELO SERRAMALERA, MERCÉ; "La regulación legal de la lengua catalana en los medios de comunicación social", in: Revista de Lengua y Derecho, nº 5, 1.985.

MILIAN I MASSANA, ANTONI; "La obligación de los profesores de E.G.B. de conocer el Catalán y el castellano para ocupar plaza definitiva en Cataluña", in: Autonomies-Revista Catalana de Derecho Público 2/3, Generalitat de Catalunya

- "De la separación a la conjunción lingüística en la enseñanza: el título II de la Ley 7/1.983 de 18 de Abril", in: Revista de Lengua y Derecho, nº 3, 1.984.

- "Las lenguas españolas diferentes de la lengua castellana en los Estatutos de Autonomía", in: Revista de la Lengua y Derecho, nº 1, 1.983.

- "La ordenación estatutaria de las lenguas españolas distintas del castellano", in: RVAP, 6 zb., 1983.

- "Aproximación al régimen jurídico previsto para la lengua catalana en el Estatuto de Autonomía de Cataluña", Administración Pública, 4, 1.981.

MITXELENA, LUIS; Lengua e Historia, La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso Vasco. Editorial Paraninfo, Madrid 1.985.

- Las lenguas y la política, en Doce ensayos sobre el Lenguaje, in: Boletín de la Fundación March, 1.973, 17 zb.

- Historia de la literatura vasca, Edit. Minotauro, Madrid 1.960.

MOLES i PLAZA, RAMON; eta MARTI i BOTELLA, JORDI; "Notes sobre la doctrina del Tribunal Suprem en relació amb el fet multilingüe a l'estat espanyol", in: Revista Llengua i Dret, 9 zb., Juny 1987.

MONTANER, ENRIC; "Igualitarismo linguistico y Estado Español", in: Llengua i Dret, 10 zb.

MORATA, FRANCESC; Autonomia Regional i Integració Europea, 4, Generalitat de Catalunya, Institut d'Estudis Autonòmics.

MORAWITZ, RUDOLF; La colaboración entre el Estado y los Entes Autonómicos territoriales en la Comunidad Europea. Madrid 1985.

MUÑOZ MACHADO, SANTIAGO; Derecho Público de las Comunidades Autónomas I, Cívitas, Madrid 1.982.

- Derecho Público de las Comunidades Autónomas II, Cívitas, Madrid 1.982.

NELDE, PETER H.; La planificación linguistique in Belgique, in: L'Etat et la planification linguistique, Tome II. Quebec, 1981.

NIKKEN, PEDRO; La protección Internacional de los Derechos Humanos su desarrollo progresivo, Instituto Interamericano de Derechos Humanos - Editorial Civitas, Madrid 1.987

NINYOLES, RAFAEL M.; "Cuatro idiomas para un Estado", in: Cambio 16, Madrid 1.977.

OBIETA CHALBAUD, JOSÉ A.; El derecho de autodeterminación de los pueblos - Un estudio interdisciplinar de derechos humanos, Publicaciones de la Universidad de Deusto, Bilbo 1.980.

- El Derecho humano de la autodeterminación de los pueblos, Ciencias Jurídicas, Editorial Tecnos, Madrid 1.985.

- Las Lenguas Minoritarias y el Derecho. Editorial Mensajero, Bilbao 1.976.

OLABARRI FERNANDEZ, ELENA; Análisis Socilógico de la profeción Policial: La Ertzaintza como caso de Estudio. Univercidad de Deusto-Facultad de Ciencias Políticas y Sociología. 1989.

OTTO Y PARDO, IGNACIO de; Estudios sobre Derecho estatal y autonómico, Cuadernos Cívitas, Madrid 1.986.

PETSCHEN VERDAGUER, SANTIAGO; Las Minorías Lingüísticas de Europa Occidental: Documento (1492-1989), Vol. I, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz 1990.

- Las Minorías Lingüísticas de Europa Occidental: Documento (1492-1989), Vol. II, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz 1990.

PIZZORUSSO, ALESSANDRO; SENELLE, ROBERT; PLOURDE, MICHEL; MORAND, CHARLES-ALBERT; Ordenación Legal del Pluralingüismo en los Estados Contemporáneos, Consejo Consultivo de la Generalidad de Cataluña, Barcelona 1.983.

PIZZORUSSO, ALESSANDRO; "Problemas jurídicos del uso de las lenguas en Italia", in: DA, 191 zb.

- "Tutela de las minorías lingüísticas y competencia legislativa regional", in: DA, 191 zb., Julio- Septiembre 1.981,

PUIG i SALELLAS, JOSEP Mª; "El uso del Catalán delante de la Administración", in: Jornadas sobre el Estatuto de Autonomía de Cataluña, Barcelona, 1990.

- "La doble oficialidad lingüística como un problema jurídico", in: Revista de Lengua y Derecho, nº 1, 1.983.

- "La Ley de Normalización Lingüística en Cataluña y el ámbito oficial", in: Revista de Lengua y Derecho, nº 3, 1.984.

RETORTILLO, LORENZO MARTIN; El 23-F - Sus secuelas jurídicas enla jurisprudencia del Tribunal Constitucional, Cuadernos Cívitas, Madrid 1.985.

- Materiales para una Constitución. Aral, Madrid 1984

ROCHEUX, ERIC; Evaluation de la pénétration de la lengue anglaise dans l'entreprise française, Projet de recherche sur l'anglais dans l'industrie en France, Langues et sociétés, Gouvernement du Québec - Office de la langue française, Québec 1.982.

RUIZ OLABUENAGA, JOSE IGNACIO eta OZAMIZ, J. AGUSTÍN; Hizkuntza Minorizatuen Soziologia-Sociologia de Lenguas Minorizadas, Colección Estudios e Investigaciones, Ediciones Ttarttalo S.A. 1986.

SAINZ MORENO, FERNANDO; Publicaciones de las Cortes Generales (4 Tomos) Serie I. Trabajos Parlamentarios, num. 1, Constitución Española 1.980.

SANCHEZ CARRION, JOSE MARÍA (TXEPETX); Un Futuro para Nuestro Pasado, Claves de la recuperación del Euskera y Teoría social de las Lenguas.

Donostia, 1987.

SARRIEGI ESKISABEL, ANDONI; Langileak Euskeraz Funtzionatzera heltzeko bidegintzan, 1.988ko Azaroa.

SEGURA GINARD, LLUíS; "Administració Pública i cooficialitat Lingüística a les illes Balears: Premisses i Problemes", in: Llengua i Dret, II Congres Internacional de la Llengua Catalana.

- "Comentarios sobre el régimen jurídico-lingüístico de las Islas Baleares", in: RVAP, 8 zb., 1984.

SETIEN, JOSÉ Mª; País Vasco: Pluralidad Lingüístico - Cultural, Hacia una Comunidad, (Conferencia). Bilbo, 3 de Febrero 1.987.

SEVERO GIANNINI, MASSIMO; Las Regiones en Italia, Editorial Civitas, Madrid 1.984.

SOLE I DURANY, JOAN R.; "La información sobre la Ley de Normalización Lingüística", in: Revista de Lengua y Derecho, nº 4, 1.984.

SUAY RINCON, JOSÉ; El Principio de Igualdad en la Justicia Constitucional, Instituto de Estudios de Administración Local, Estudios Derecho Público, Madrid 1.985.

TAMAYO SALABERRIA, V.y C.; Fuentes documentales y normativas del Estatuto de Gernika, publicación de la Diputación Foral de Alava, Vitoria 1.981.

TOLEDO LEZETA, ANA Mª; Domingo Agirre: Euskal Eleberriaren sorrera, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo 1989.

TORNOS MAS, J.; "Los Estatutos de las Comunidades Autónomas en el ordenamiento jurídico español", in: RAP, nº 91 (1.980)

TORREALDAI, J.M.; "Euskeraren Zapalkuntza", in: Jakin Aldizkaria, 24. zb., 1.982ko Uztaila-Iraila.

TORREALDAI, J.M.; LASA, M.; GARMENDIA, M.K.; ROTAETXE, K.; BAXOK, E.; eta askoren artean; "Elebitasunaren auzia ikastoletan", in: Jakin Aldizkaria. 19/20., 1.981ko Uztaila - Abendua.

TORRES MURILLO, JOSÉ LUIS; La Europa de las Autonomias, Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintzialaren Argitalpenak, "Documento", Oyarzun 1.985.

TOZZI, MICHEL; Apprendre et vivre sa langue, Syros, Paris 1.984.

URRUTIA, ANDRES Mª; "Euskara eta Administrazioa (Normalizazio baterako oinarrien azterketa)", in: JAKIN 28, 1983.

- "Euskara eta dokumentu notarialak", in: RVAP, 19 zb, 1987.

DE WITTE, B.; Linguistic equality. A study in comparative constitutional Law", in: Revista Llengua i Dret, 6 zb., 1985.

YRIZAR DE P.; Los Dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Estudio Lingüístico-Demográfico. RSVAP. Donostia, 1973.